

Galderetako *-a, al* eta *ote* partikulak euskaraz

Sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa

Doktorego tesia

Sergio Monforte
2020

Zuzendaria:
Xabier Artiagoitia Beaskoetxea

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia
doktorego programa



Aurkibidea

Glosak	vii
Ikurrak	viii
Esker-ematea	x
Laburpena	1
Dissertation summary	2
1 Sarrera	17
1.1 Ikergaiez, helburuez eta hainbat proposamenez	17
1.2 Tesiaren antolamendua	23
2 Abiapuntu teorikoak eta metodologikoak	26
2.1 Sarrera	26
2.2 Euskal gramatika: argibide eta abiapuntu batzuk	27
2.2.1 Perpaus mailako hitz-ordenak eta euren analisisa.....	27
2.2.2 Ezeztapena euskaraz.....	30
2.2.3 Aditzen eratorpena Arregi eta Nevinsen (2012) ildotik.....	34
2.3 Euskarazko galderen analisisa	38
2.3.1 Galdera zuzenen eratorbidez.....	42
2.3.2 Mendeko galderen eratorpenaz.....	45
2.4 Galderen analisi berri baterantz	46
2.4.1 Galdera zuzenak ikuspegi gaurkotutik.....	46
2.4.2 Zehar galderak minimalismoaren ikuspegitik.....	57
2.4.3 Barruko laburpena.....	60
2.5 Galderak pragmatikaren aldetik	61
2.5.1 Escandellen (1987; 1999) sailkapena.....	61
2.5.2 Littell eta besteren (2010) analisisa	65
2.5.3 Obenauerren (2004; 2005; 2006) galdera ez-estandarrik	66

2.6	Oinarri praktikoak: lagina osatzeko metodologia	68
2.6.1	Elkarrizketen aurretiko lana: informatzaile hautaketa eta bestelako rolak	69
2.6.2	Elkarrizketen egitura.....	71
2.7	Kapituluaren laburpena	74
3	Partikula kategoria gramatika lanetan barrena	76
3.1	Sarrera	76
3.2	Partikulak gramatikan: zer dira?	77
3.3	Partikula modalak eta gramatika	79
3.3.1	Partikula modalen ezaugarri sintaktikoak	83
3.3.2	Partikula modalak buruak dira	87
3.3.3	Partikula modalak ez dira buruak	90
3.4	Partikulen kokagune sintaktikoaz	96
3.4.1	Partikula (modal)ak erdiko eremuan	98
3.4.2	KonpS eremuan zehar proposatutako kokaguneak.....	103
3.4.3	KonpS eremutik haratago: Hizketa Ekintza eremua	112
3.5	Kapituluaren laburpena	116
4	Euskarazko partikulak: analisi orokorra	119
4.1	Sarrera	119
4.2	Zeintzuk dira partikula modalak?	120
4.3	Partikula modalen sintaxiaz	125
4.3.1	Perpau mailako kokapenez	125
4.3.2	Partikula modalak, osagai klitikoak	126
4.3.3	Albizuren (1991) partikula argumentatzaileen hipotesia	134
4.3.4	Partikulak eta ezeztapena: Haddican (2008)	138
4.3.5	<i>Origo shift</i> delako fenomeno euskaraz.....	140
4.3.6	Partikulen arteko bateragarritasuna	142
4.4	Euskarazko partikula modalen izaera sintaktikoaz	146
4.4.1	Euskarazko partikula modalen buru izaera azterketaren pean	146
4.4.2	Euskarazko partikula modalak ez dira adberbio (ahul)ak	150
4.5	Aztertutako partikulak eta euren aldakortasuna	152

4.6	Kapituluaren laburpena	154
5	-a, al eta ote partikulen ekarpen interpretatiboa: lehenengo hurbiltze bat	155
5.1	Sarrera	155
5.2	-a ekialdeko galdera partikula: galderatasunaren indartzea	156
5.3	al erdialdeko galdera partikula: interpretazio ezaz	169
5.3.1	al partikula gramatiketan	170
5.3.2	Partikula epistemikoa	172
5.3.3	Lan dialektologikoak	179
5.3.4	a(ha)/ eta al bereizten	182
5.3.5	Galdera partikulen jatorriaz.....	184
5.3.6	Zertan lagun diezaguke ahal partikularen bilakabideak?	189
5.3.7	al partikularen erabileraz	191
5.4	ote partikulaz eta bere mikroaldakortasunaz.....	198
5.4.1	ote galderetan	199
5.4.2	ote mendeko testuinguruetan.....	206
5.4.3	ote partikularen interpretazioaz.....	208
5.4.4	Galbidean dagoen ote-ren erabilera bat: ote den bada!	211
5.4.5	Erabilera ez-orokorreko ote.....	212
5.4.6	Kortesiazko ote	215
5.4.7	Perpaus amaierako partikulaz: interpretazio bereizia.....	219
5.4.8	Bateraezintasuna ezbaian.....	223
5.4.9	Laburpena.....	226
5.5	Excursus labur bat: galdera erretorikoak	227
5.6	Kapituluaren laburpena	233
6	-a, al eta ote partikulen jokabide sintaktikoaz: tasun bereizgarriak eta analisiak. 235	
6.1	Sarrera	235
6.2	Hiru partikulen arteko konparaketa: ezaugarri bereiziak.....	236
6.2.1	Perpaus mailako kokapena.....	236
6.2.2	Partikulak perpaus motaren arabera.....	238
6.2.3	Partikulak menderagailuen mende: Rappen (2018) hipotesia	245
6.2.4	Alokutiboaren eta partikulen arteko jokabidea.....	248

6.2.5	Partikulen arteko jokabidea: bateragarritasuna ala banaketa osagarria?.....	250
6.2.6	Aditz jokaturik gabeko testuinguruak.....	253
6.2.7	Elipsidun beste testuinguru bat: AS/ aS-ren elipsia ote?.....	256
6.3	Partikulen bereizgarritasunek zer dioskute?	258
6.3.1	Partikula diskurtsiboak multzo homogenea ote?	259
6.3.2	Partikula modalen eremuaz: erdiko eremua ala ezker periferia?	264
6.4	Partikulen analisi sintaktikoa	266
6.4.1	Euskarazko partikula modalen aurreko analisisiez	266
6.4.2	-a partikularen analisisia	268
6.4.3	a/ partikularen analisisia	279
6.4.4	ote partikula epistemikoaren lehenengo analisi baterantz	289
6.5	Partikulen eta indar ilokutiboaren arteko auzia	297
6.6	Kapituluaren laburpena	303
7	Ekialdeko erabilera bereizgarriak	307
7.1	Sarrera	307
7.2	Ekialdeko mikroaldakortasunaren sarrera	308
7.3	Erabilera ez-orokorra eta partikulen izaeraren auzia.....	313
7.3.1	Ebidentzia sintaktikoak.....	313
7.3.2	Argudio fonologiko-prosodikoak	319
7.3.3	Erabilera ezohikoa duen ote: burua ala sintagma?	323
7.3.4	Bere kokagune sintaktikoaz	324
7.4	Egitura berri bat zati galderetan.....	333
7.4.1	[Nz-hitza + ote] egituraren analisi sintaktikorantz.....	333
7.4.2	[Nz-hitza + ote] egituraren garapenaren azalpenerantz.....	343
7.5	Partikula berak izaera bi	346
7.6	Aldakortasun sintaktiko gehiago: perpaus amaierako partikulaz	347
7.7	Kapituluaren laburpena	355
8	Ondorioak.....	358
8.1	Euskalaritzarako ekarpena	358

8.2	Tipologiarako ekarpena	365
9	Conclusions.....	369
9.1	Contribution to Basque linguistics	369
9.2	Contributions to the field of modal particles	377
	Corpusa.....	381
	Erreferentziak	383

Glosak

ABS	absolutiboa	IPFV	burutugabea
ABL	ablatiboa	IN	inesiboa
ADB	adberbioa	IRR	irrealis
ADL	adlatiboa	IZORD	izenordaina
AK	akusatiboa	KLA	klasifikadorea
ALOK	alokutiboa	KL	klitikoa
ART	artikulua	KMZ	komunztadura
ASP	aspektua	LAG	laguntzailea
AUR	aurrekoa	LEH	lehenaldia
BALD	baldintzazkoa	LOK	lokatiboa
BEN	benefaktiboa, destinatiboa	M	maskulinoa
COM	komitatiboa	MEND	menderagailua
DAT	datiboa	NEUT	neutroa
DEF	definitua	NMLZ	nominalizazioa
DISC	ezjarraitua (discontinuous)	NOM	nominatiboa
EB	ebaluatzailea	OBJ	objektua
EBID	ebidentziala	OR	orainaldia
EPIS	epistemikoa	P	partikula
ERG	ergatiboa	PART	partitiboa
FAM	familiarra	PAS	pasiboa
FEM	femeninoa	PER	pertsona
FP	partikula fokala	PERF	perfektua
F	fokua	PL	plurala
G	galdera	PRTZ	partizipioa
GEN	genitiboa	SG	singularra
GER	geroaldia	SUBJ	subjuntiboa
GRAD	graduatzaila	TOP	topikoa

Ikurrak

- * sintaktikoki ezgramatikala
- ** delako hizkuntzan dokumentatuta ez dagoen eta berreraiki den balizko forma
- % orokorra ez den ezaugarri bat, hizkera batzuetan soilik lekukotzen dena.¹
- # pragmatikoki desegokia

¹ Ikur hori baliatuko dut erabilera jakin bat dialektala dela adieraztea beharrezkoa denean bakarrik; hartara, hizkera zehatz baten ezaugarria soilik arakutzen dudanean ez dut ikur hori erabiliko eta bertan agertuko diren adibide guztiak hizkera horretakoak direla ulertu beharko da.

Esker-ematea

Euskarazko partikula modalen interesa (edo obsesioa) *BUP* 1. kurtsoan hasi zen, gaitegiez gogoratzen dudan gauza bakarra eurak baitira. Ondoren, alemana ikastearekin batera *doch*, *wohl* eta beste batzuk gehitu nituen ulergaitz zitzaizkidan osagai gramatikalen zerrendara. 20 bat urte geroago 400 orrialdeko *txapa* hau idatzi dut. Hala ere, lan horretan, jakina, hainbaten laguntza eduki dut eta behar den bezala aitortuko dut hori orain.

Lehenik eta behin, tesi hau zuzendu (eta gehien sufritu) duen Xabier Artiagoitia Beaskoetxeari eskerrik bero eta zintzoena eskaini behar diot. Berak esango luke emandako laguntza guztia bere zereginen parte dela; halarik ere, inoiz ez du huts egin tesiaz nola tesitik kanpo hainbat kontuz galdetzera joan natzaion guztietan eta beti gosari goxo batek lagunduta (ba al da ba eguna ondo hasteko modu hoberik birritan gosalduz baino?).

Bigarrenik, eskerrik asko lizentziaturan eta masterrean zehar eduki nituen irakasleei, bakoitzak bere heinean ikerketa munduranzko bidea erakusteagatik eta zeharka nola zuzenean horretara abiatzeko gogoa pizteagatik.

Era ia berean, doktorego mundu horretan bidaide eduki ditudan azitibihiakideak nahiz *hizkimilizkiliklik* taldekideak; aipamen berezia merezi dute Maitenak, Enekok, Alexek, Dorotak, Oxelek, Aitorrek, Laurak, Borjak, Urtzik, Alaznek, Ainhoak, Ekaitzek, Anek, Olatzek (izen batzuk kronologikoki aipatzearren). Horiek agerian uzten dute laguntza eta jakintza-maila ez datozela beti bat gradu akademikoarekin.

Horiez gain, Baionako IKER-UMR5478 ikerketa-zentroko nahiz Konstantzako unibertsitateko hizkuntzalaritza saileko irakasleak, ikertzaileak, doktoregaiak, masterreko ikasleak eta administratzaileak eskertu nahiko nituzke, adeitasunez jaso nindutelako eta interesez entzun eta eztabaidatzeko prest agertu zirelako egonaldi bi egin nituen bitartean eta ondoren. Milesker/Dankeschön Andreas Trotzke, Aritz Irurtzun, Carmen Widera, Erlinde Meertens, Espen Klævik-Pettersen, Estibaliz Ortiz de Viñaspre, Georg Kaiser, George Walkden, Georgina Álvarez, Irantzu Epelde, Josef Bayer, Katharina Kaiser, Maia Duguine, María Biezma, Maribel Romero, Ramona Wallner, Regine Eckardt, Ricardo Etxepare, Stefano Quaglia, Svenja Schmid, Urtzi Etxeberria eta Yvonne Viesel, baita Anne-Marie Benarab eta Karim Aït-Alouache ere. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiet University of

Illinois-eko Jose Ignacio Hualde eta Queens College-ko Bill Haddican irakasleeei tesi honen gaineko txostena egin izanagatik

Normalean azken paragrafoa etxekoei eta hurbilekoei eskaintzen zaie tesiaren zati bat zor zaiela esanez. Hemen, ordea, ez da horrelakorik esango, besteak beste, pentsatuko bailukete nortasun-ordezkapen baten aurrean gaudela edo estralurtarrek abduzitu nautela. Egia esan, eurek badute toki fisiko bat tesi honetan zehar (barka, betiko *Miren* eta *Jon*).

Laburpena

Euskarak galderetan hainbat partikula modal eta diskurtsiboak erabiltzen ditu; tesi honetan horietako hiruri begiratu diet: ekialdeko hizkeretako *-a* galdera partikulari, erdialdeko hizkerako *al* galdera partikulari eta orokorra den *ote* partikula epistemikoari. Euren analisi sintaktikoak agerian uzten du partikula horiek X^0 estatusa dutela eta eremu desberdinetan sortzen direla: *al* eta *ote* partikulak erdiko eremuan eta *-a* partikula ezker periferian. Erdiko eremuan sortzen diren partikulen alderdi historikoa eta interpretatiboa ere aintzat hartu ditut eta erakutsi dut ekarpen pragmatikoaren aldetik bereizten diren multzo biak bat datozela partikula horien garapen diakronikoarekin. Ondorioz, Roberts eta Roussouren (2003) ildotik, erdiko eremuan sintagma bi daudela proposatu dut: partikula modalak (*ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote*) biltzen dituen eta *al* partikula jasotzen duena. Euren arteko hierarkia da hizkuntzartean identifikatutakoa: partikula performatiboak > partikula modalak (Kuong 2008; Haegeman 2014; Lam 2014; Corr 2016; Wiltschko & Heim 2016).

Erabilera kanonikoaz gain, *ote* partikula epistemikoak baditu ekialdeko hizkeretan ohiko jokabidetik aldentzen diren hiru erabilera: a) lehenengoan *ote*-k XS izaera du (cf. Etxepare 2010 eta Etxepare eta Uria 2016) eta Foku Sintagmaren eta Jokatusan Sintagmaren arteko Modifikatzaile Sintagman kokatu dut (cf. Rizzi 2004); b) bigarrenean *ote*-k *nz*-hitzekin batera osagai bat eratzen du, beste hizkuntza batzuetan (alemanez [Bayer eta Trotzke 2015], txoloneraz [Alexander-Bakkerus 2011], italieraz [Coniglio 2008] edo japonieraz [Endo 2018]) ere gertatzen den bezala; eta c) hirugarren erabileran perpaus amaiera absolutuan azaltzen da *ote* (hots, osagai guztien nola aditz lexiko eta jokatuaren ostean) eta, bere ekarpen interpretatibo eta sintaxi desberdinean oinarrituz, Goi-Hizketa Ekintza Sintagmaren burua sor litekeela proposatu dut.

Aldakortasun honek partikula modalen inguruan eztabaidatzen diren ikergaiak euskararen eta euskal dialektoen ikuspuntutik aztertzeke bidea eskaintzen du: a) partikula modalen izaera sintaktikoa, b) euren kokapen sintaktikoa, c) euren arteko hierarkia, d) indar ilokutiboarekiko harremana, eta e) partikulen garapen historia. Hartara, *-a*, *al* eta *ote* partikulen aztertzeak bai euskal gramatikaren ezagutza bai partikula modalen kategoriaren ikerketa zehaztea eta handitzea ekarri du.

Dissertation summary

This dissertation is an investigation of the syntactic properties and the interpretative function of the modal particles (MP) *al* and *ote* and the interrogative marker *-a* in Basque. The analysis of modal particles has not received much attention in the literature of Basque linguistics compared to, for instance, Germanic linguistics; it is just recently that some works have focused exclusively on MPs but have done so from a single sided point of view: either from the semantic-pragmatic field (Garmendia, 2014; Korta & Zubeldia, 2014; Zubeldia, 2010), from the syntactic field (Etxepare, 2010; Etxepare & Uria, 2016; Monforte, 2018b; Trotzke & Monforte, 2019), or from the historical perspective (Lakarra, 2019; Monforte, 2018a). In other words, no comprehensive study has been undertaken so far. In fact, only one dissertation has been written on this topic, i.e. Zubeldia (2010). This author analysed the particle *omen* from a semantic perspective; therefore, its syntax and diachronic development were not discussed in that work. On the other hand, the papers by Etxepare (2010) and Etxepare and Uria (2016) must be highlighted since they examine the microvariation concerning the particle *omen*. Thus, Basque linguistics has a gap regarding the topic of modal particles as a whole. Although this dissertation cannot solve this situation, it is certainly a full-hearted attempt to reverse it.

The objective of this dissertation is to examine the grammatical behaviour of the particles *-a*, *al* and *ote* focusing on the syntax of the canonical and non-canonical uses of those particles, setting the semantic-pragmatic analysis aside; however, any linguist who has analysed modal particles is aware that at least a superficial analysis of their contribution to the proposition is unavoidable, even if their syntax is the research subject. Also, knowing their diachronic development proves to be of great help when we attempt to understand their distinguishing characteristics and their microvariation; this has been certainly the case in this dissertation. The inquiry into the history of modal particles has provided the chance not only to follow up their grammaticalization path better, but also to have a bigger and more thorough picture of those particles. Hence, these are the issues I deal with and try to clarify in this dissertation: a) Do all modal particles in Basque behave similarly?; b) Are they in complementary distribution, as has been suggested in the literature? Do they occupy a single

syntactic position?; c) Etxepare (2010) and Etxepare and Uria (2016) have identified a freer syntactic behaviour for the evidential particle *omen* in eastern dialects; does the particle *ote* behave alike in the same dialects?; d) Are the so-called question particles real syntactic markers?; e) Is there any parallelism between modal particles in Basque and those in other languages? In other words, do we find the patterns displayed by Basque modal particles crosslinguistically?; f) Can Basque cast light onto the topics discussed in the literature on modal particles, such as the controversy on their syntactic status?

After having stated the topic of this dissertation, let us exemplify the canonical and non-canonical uses of the particles *-a*, *al* and *ote*. On the one hand, the following examples stand for the canonical behaviour:

- (1) Min hartu duzia?
 pain take AUX.P
 ‘Did you hurt yourself?’
- (2) Min hartu al dezu?
 pain take P AUX
 ‘Did you hurt yourself?’
- (3) Lagunekin joan ote da?
 friend.COM go P AUX
 ‘Did s/he go with her/his friends (I’m wondering)?’

Thus, modal particles merge with the finite verb in the canonical use and they move together along the sentence in those contexts where the inflected verb is fronted:

- (4) Ez naiza, ni ere, eskualduna?
 not be.P I too basque
 ‘Am I not Basque?’ (Arotçarena 1976: 115)
- (5) Ez al dezu ogia ekarri?
 not P AUX bread.ABS bring
 ‘Didn’t you bring the bread?’

- (6) Ez ote da dagoeneko istilu garratzik sortu arlo horretan?
not P AUX already trouble tough.PRTT create field that.IN
'Have there not been bitter fights already in this area?' (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 316)

Furthermore, particles cannot appear in non-inflected contexts:

- (7) a. Ea hori erosi (*al) eta bestea bota al duen galdetu dut.
EA this.ABS buy P and other.ABS throw P AUX.C ask AUX
'I asked whether s/he bought this one and threw away the other one.'
b. Ez dakit nora joan (*ote)
not know where.ADL go P
'I don't know where to go.'

Finally, as for their phonological and prosodic properties, they show a) morphological processes which affect the particle and the inflected verb, and b) apheresis as the result of the stress position depending on the length of the inflected verb they attach to:

- (8) a. Urduri *altzaude* [alzau'de > altzau'de]?
nervous P.be
'Are you nervous?'
b. Badea portugez? [da'a > de'a]
cl.be.P Portuguese
'Are there any Portuguese people here?'
c. Etortzen *oti* aa? [ote' da > ote' aa > oti' aa]
come.IPFV P AUX
'Do they usually come here (I'm wondering)?'
- (9) a. Loak artu *mentzun*. [omen' > men']
sleep.ERG take P.AUX
'Apparently, s/he fall asleep.' (Barandiaran 1972)

- b. Nun utzi te (d)et periodikua? [ote' > te]
 where leave P AUX newspaper.ABS
 'Where did I leave the newspaper? (I'm wondering)'

Based on those data, I conclude that modal particles, in their canonical use, behave as syntactic heads which form a morphological word by merging with inflected verbs.


On the other hand, the particle *ote* in eastern dialects additionally shows a distinct behaviour from the canonical one:

- (10) Bena ezpitakit nik lamina horiek zer zien *othe!*
 but not.C.know I.ERG mermaid those.ABS what were.C P
 'But I don't really know what those mermaids might be.' (Camino 2017)
- (11) Nork *ote* jan züan?
 who.ERG P eat AUX
 'Who ate it (I'm wondering)?' (Casenave-Harigile 1997)
- (12) Eztaukizia etxea sutan *ote?*
 not.have.PART house.ABS fire.IN P
 'Don't you have your house in flames ?' (Estornés 1985: 43)
- (13) Nor deitzen du bada *ote* Peiok egun guziz hain goizik?
 who call.IPFV AUX P P Peter.ERG day all.INS so soon
 'Who does Peter phone every morning so early (I'm wondering)?'
- (14) Maitasunez *ote?*
 love.INS P
 'Perhaps because of love?' (Davant 2008: 2)

The modal particle does not merge with the finite verb in those varieties, as the evidence in the previous examples suggests, since the discourse particle *ba(da)* can intervene between them (ex.13) and the particle does not block the raising of the inflected verb to the Left Periphery (ex. 10 and 12). Moreover, this kind of *ote* can occur in non-inflected contexts as can be seen in (14). In addition to these syntactic properties, prosody also leads to the idea of

an additional behaviour, namely to the idea that the particle *ote* is an independent word in such a use. Let us illustrate this:

(15)



As the rising in (15b) indicates, the particle defines the right boundary of an intonational phrase; this pattern is never found in the canonical behaviour since such *ote* does not occur on the right edge of the intonation phrase. Finally, this kind of *ote* has developed a use closer to adverbs, as forms such as *ot(h)ean* and *ot(h)erik* suggest; note that both forms have the inessive postposition and the partitive case marker, respectively:

(16) Ez, eta *otherik* gabe oraino. Zu hunen irakurtzen ari ziren bezen
 not and P.PRTT without still you this.GEN read.IPFV PROG AUX.C so
 segur.
 sure

‘No, and even with no doubt. As sure as you’re reading this.’ (Hiriart-Urruty 1972)

(17) Eztüta nik *othian* egün bonür handia?
 not.AUX.P I.ERG P.IN today happiness big.ABS
 ‘Don’t I have perhaps today great joy?’ (Oihenarte 1971)

I postulate that the case of *ot(h)ean* is similar to the case of adverbs as *aspaldi* - *aspaldian* and the case of *ot(h)erik* is akin to adverbs functioning in some contexts as nouns, for instance

bihar ('tomorrow'). In conclusion, the non-canonical *ote* does not have a head status, but a maximal projection one.

This variation on the syntactic status of *ote* found in Eastern Basque can be easily related to one of the most discussed topics in the literature of modal particles: although German is the most examined language concerning modal particles, their syntactic status is still a controversial issue. Two hypotheses have been put forth: on the one hand, those in favour of the head status (Munaro eta Poletto 2002; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014; Bayer eta Trotzke 2015; Hinterhölzl eta Munaro 2015; Scherf 2016); and, on the other hand, those defending that they are maximal projections or weak adverbs (Thurmair 1989; Zimmermann 2004; Grosz 2005; Coniglio 2007b; Coniglio 2008; Hinterhölzl eta Munaro 2015). The former argue that modal particles cannot be considered adverbs since they have a restricted syntactic behaviour (for instance, they cannot occur in sentential first position), bleached semantics and reduced phonological properties compared to adverbs. The latter claim that, if they were heads, they should block the movement of the verb to the CP-domain or combine with the verb and move along together; nevertheless, this is not the behaviour German particles show. Moreover, Thurmair (1989) and works along the same line state that they are closer to full words than clitics (in Cardinaletti's 2011 terminology) regarding their phonological-prosodical properties. This dissertation approaches this discussion based on the data offered by modal particles in Basque in their canonical use and also on the data displayed by *ote* in eastern dialects. I argue that both statuses are attested in such varieties (see Etxepare (2010) and Etxepare and Uria (2016) for a similar conclusion regarding the particle *omen*).

Along with the discussion on the syntactic status of modal particles, we find another topic in the literature, i.e. the syntactic position of modal particles. Typologically three domains have been distinguished: the Tense Phrase domain, the Complementizer Phrase domain and the Speech Act Phrase domain. The first one has been argued for based on syntactic properties; the second and the last ones, however, on both syntactic and interpretative grounds. As for the Basque modal particles, syntactic evidence favours a position in the TP domain for *al* and *ote* and another one in the CP domain for *-a*. In addition to this, the non-canonical particle *ote* of eastern varieties does not seem to occupy the same position as the canonical *ote*. As its distribution suggests, this non-canonical *ote* should be located in the CP domain, namely between FocP and FinP.

There is an alleged property of Basque modal particles which does not match with those of modal particles in general: particles in Basque are said to be in complementary distribution (Euskaltzaindia 1987; Mujika 1988), since only one of them can occur in the same clause. Nevertheless, this dissertation reveals a finer-grained situation: *ote* and *-a* are compatible in the same clause, and so are *ahal* and *ote* too in eastern varieties:

- (18) Amatxi Iholdiko *othe* zena?
grandma Iholdi.GEN P AUX.P
'Was our grandma from Iholdi? (I'm wondering)' (Camino 2009 : 193)
- (19) Ez *ahal* duzu *ote* horren berririk ukan?
not P AUX P this.GEN new.PTV have
'Didn't you receive perhaps any new from her/him?'


In the case of *-a* and *ote* there is nothing which prevents both particles from appearing together, since they share the same clause type and occupy separate syntactic positions. The case of *ahal* and *ote* is different, as they do not have the same syntactic status and, thus, they do not occupy the same position. The latter case of coappearance in eastern dialects is interesting since it suggests that the incompatibility in the canonical use between *ahal* and *ote* is due to syntactic constraints and not to pragmatic ones. Thus, they must occupy the same syntactic position in TP domain when they both have a head status.

The question arising now is whether all those constituents traditionally named modal particles occupy the same syntactic position, against typological evidence. I propose to differentiate two groups based on their interpretative contribution and function: those conveying the point of view and commitment of the speaker regarding the proposition (i.e. epistemicity, evaluation and evidentiality) and those marking how the speaker wants the sentence to be understood and the addressee to perform (i.e. performativity). I gather *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* and *ote* within the first group and *al* within the second one. We find evidence of a distinct behavior of those groups in the syntax, since the latter can only occur in contexts containing illocutionary force, whereas the former can also appear in contexts lacking it.

Along with this syntactic and interpretative evidence, diachronic data also point to the same direction: if we consider the geographical and historical extension of those modal

particles, it can be easily concluded that *al* is different since it is more modern than the other ones and it is used in a more reduced area. Also, *ahal*, *ei*, *omen* and *ote* have been proposed to derive from verbs (Lakarra 2019; Monforte 2019b): *ahal*MV > *ahal*, ***enin*V (‘eman’) > *ei*, *omen*V (‘eman’) > *omen* eta *bo(C)-te*V (‘irudi, eman’) > *ote*. However, no verb is reconstructed as the origin of the question particle *al*. If we look at the literature on question particles and what has been claimed as their origin, two analyses must be highlighted: on the one hand, disjunctive words have been related to current question particles (Bailey 2013) and, on the other hand, modal particles have been identified as their source (Bayer 2012; Hack 2014). Therefore, the Basque particle *al* may derive from the disjunctive word or from a modal particle. Both approaches seem morphologically acceptable since the disjunctive *ala* and the modal particle *ahal* resemble the question particle *al*. Nevertheless, in this dissertation I defend the idea that the grammaticalization of *ahal* into *al* is easier to explain than *ala* into *al* considering their sentential position and their phonological form. In fact, *ala* > *al* would at least imply certain changes like the change of its syntactic position, clitization and apocope which I would expect to find in older texts since this derivation arised in historical times; however, there is no evidence in favour of such a change. Thus, I propose that the change from *ahal* to *al* is the one which arised in the central dialect. What does this tell us about the position of particles? If we adopt the idea that grammaticalised constituents occupy a higher position in the syntax (cf. Roberts and Roussou 2003), the question particle *al* should occur higher than the modal particle *ahal*, as the former is the result of the grammaticalization of the latter. Let us illustrate this with the following schematized subtree:


(20)



Obviously, this distribution concerns not only the particles *ahal* and *al*, but also those ones which have been traditionally named *modal particles*. They will occupy a position

accordingly to the stage of grammaticalization. To sum up, I present the following diagram containing the three modal particles under examination in this dissertation and their syntactic position:


(21)



So far, I have examined the syntactic position of the canonical modal particles; nevertheless, as stated above, the particle *ote* has a distinct behaviour as a maximal projection in eastern dialects. This is not the only difference regarding this particle as its clausal distribution differs also from the one of canonical particles, for example: a) it occurs before the subject of the proposition but after the verb moved to FocP; and b) it survives the ellipsis of the TP-domain. Based on this evidence, I propose that the non-canonical *ote* occupies a position in the CP-domain, namely between FocP and FinP. Such position resembles Rizzi's (2004) Modifier Phrase, not only due to their distribution but also because of the similarities shown by the constituents occupying that position in both analyses; in fact, those properties in Rizzi's hypothesis claiming that adverbs located in ModP have an intonation contour similar to topics and that they modify the structure they attach to are also attested in the non-

canonical *ote*. In conclusion, there may be a crosslinguistic position for such modal constituents between FocP and FinP in the CP domain:

(22)



It is precisely this *ote* the one that co-occurs with *ahal* in examples of the type (19).


In addition to this, a new syntactic structure has been created as the result of the reanalysis concerning the non-canonical *ote*, as shown in example (11). In such constructions the particle does not merge with the finite verb either, but with a *wh*-word. This combination between modal particle and *wh*-word can be found in other languages such as German or Japanese (Trotzke eta Turco 2015; Endo 2018). Evidence in favour of their combination is found in some embedded contexts where only the *wh*-word moves to the Left Periphery in Eastern Basque and in ‘why’ questions containing the verb *in situ*:

- (23) a. Zergatik ote galdegin dit Peiok hori?
 why P ask AUX Peter.ERG that.ABS
 ‘Why did Peter ask me that OTE?’
- b. Zergatik ote Peiok hori galdegin dit?
 why P Peter.ERG that.ABS ask AUX

c. * Zergatik Peiok hori ote galdegin dit?
 why Peter.ERG that.ABS P ask AUX

I propose that the *wh*-word and *ote* are combined together at the stage the *wh*-word is inserted into the syntactic structure and form a single constituent which moves along the sentence, namely to the FocP following the canonical derivation of *wh*-questions in Basque. Let us illustrate it:

(24) Non ote utzi dut kazeta?




Furthermore, microvariation concerning the particle *ote* reveals another use: the sentence final *ote*. This kind of *ote* differs from the previous ones not only in its position along the sentence but also in its interpretation, since it conveys intersubjectivity; further evidence that it differs from the canonical use regarding its interpretation comes from the fact that speakers who lack this non-canonical use do not accept its use in such contexts, even if the particle follows the canonical syntactic use. Let us briefly exemplify this use:

- (25) Orain gazte batekin zirea *ote*?
 now young one.COM be.P P
 ‘Are you with a young one now OTE? (Thikoipe 2009)
- (26) Ez girea bilkurrat gomituak *ote*?
 not AUX.P meeting.ADL invited P
 ‘Weren’t we invited to the meeting OTE?’ (Thikoipe 2009: 155)

If we observe its sentential distribution and distinct interpretation, the two suggest the idea that this *ote* should be considered as a sentence final particle which occupies a head position in a phrase above CP. I propose that this SFP *ote* attracts a phrase containing the whole proposition to its specifier position deriving the word order displayed in this use, i.e. the particle at the end of the utterance. As for the phrase containing this kind of *ote*, I follow analyses within neoperformativism and propose that *ote* occupies the head position of the Speech Act High Phrase (in terms of Cor 2015; 2016). Consider the following diagram illustrating the derivation of the example (26):

(27)



Although to a lesser extent than their syntactic properties, I have also examined the interpretation and pragmatic contexts of the three modal particles under scrutiny. I retake the separate groups of modal particles previously mentioned for that purpose: on the one side, particles marking performativity and, on the other side, particles conveying evaluation, evidentiality and epistemicity. The eastern question particle *-a* and the central one *al* belong to the first group: the eastern particle (*-a*) is used by the speaker to express to the addressee the relevance of performing the illocutionary force of the sentence in such a way that the

speaker cannot continue the conversation until the unresolved value of the utterance is provided; the central particle (*al*) unbias questions even in contexts where speakers are one-sided in favour of one of the answers based on their knowledge and/or prejudice; hence, addressees do not feel that speakers press them to agree with their bias and, therefore, have the chance to choose an answer equally. As can be noted, I do not consider these question particles to be mere syntactic means to mark the proposition as a question; in fact, real interrogative markers are not that common cross-linguistically and the majority of those so-called question particles should be analysed as pragmatic markers (Xiang 2012). As for the second group, the epistemic particle *ote* is included within it along with other particles conveying evaluation, evidentiality and epistemicity. Apart from being used in questions, *ote* can also occur in embedded non-interrogative clauses headed by the complementizer *-(e)n*:

(28) Samar bat irintxi ote dian iruditu zatan.

trace one swallow P AUX.C seem AUX

‘It seems to me that I may have swallowed some (cider) dregs.’ (Barandiaran 1972)

I propose that *ote* turns an information seeking question into a conjectural one:

(29) Non dago autoa? > Non ote dago autoa?

where be car.ABS where P be car.ABS

‘Where’s the car? / Where’s the car (I’m wondering)?’

If we consider other languages, a similar pattern is attested, for instance, in German (Eckardt 2018) and Salish languages: a particle conveying epistemicity in declarative contexts marks conjectural questions. Therefore, I argue that *ote* functions in a similar way having all its uses in mind: it expresses the mental process that speakers do not have full commitment with the proposition. Furthermore, the phenomenon known as *origo shift* is attested in such contexts since the *ote* appearing in clauses such as (28) refers to the speaker, whereas it refers to the addressee (and also the speaker) in clauses like (29).

At the beginning I have stated that Basque linguistics has a gap regarding the study of modal particles. Although this dissertation has limited itself to the study of only three

particles, I have examined particles of distinct syntactic nature and separated interpretational function in detail and this will hopefully contribute to a better understanding of the field, at least of the syntactic one. To sum up, I propose that the modal particle *ote* can behave as a syntactic head, following the canonical pattern of modal particles in Basque, and also as a maximal projection in eastern dialects. Additionally, I locate those particles along three domains: the canonical particles *al* and *ote* in the TP-domain; the question particle *-a* and the non-canonical *ote* in the CP-domain; and, finally, the sentence final *ote* in the Speech Act Phrase domain.

1 Sarrera

1.1 Ikergaiez, helburuez eta hainbat proposamenez

Euskalaritzan partikula modalen azterketak ez du arreta handirik jaso, hizkuntzalaritza germaniarrean ez bezala; izan ere, tesi bakarra idatzi da ikergai honen inguruan, Zubeldiarena (2010) alegia. Autore horrek ikuspuntu semantiko batetik *omen* partikula aztertu zuen; beraz, bere sintaxia edota bere garapen historikoa ez ziren lan horretan landu. Bestalde, Etxepareren (2010) eta Etxepare eta Uriaren (2016) lanak nabarmendu behar dira partikula beraren mikroaldakortasuna jorratzen baitute. Hartara, gabezia handia dago euskalaritzan aztergai honi dagokionez. Tesi honek arazo hori konpondu ezin badu ere, gabeziaren zati bat betetzea du xede.

Tesi honen hasierako helburua orain arte *-a*, *al* eta *ote* partikulez ezagutzen genuen jokabidea aztertzea zen, ikuspuntu zabal batetik; halarik ere, ekialdeko mikroaldakortasunak datu berriak eskaintzen zituen heinean, partikula modalen inguruko gramatika lanetan ohikoak diren ikergaiak azaleratzen hasi ziren lan hau lehenengo xede horretatik urrunduta. Beraz, hasierako helburua mugatzeko asmoz, euren sintaxi kanonikoari eta ez-kanonikoari begiratzea erabaki dut, arlo semantiko-pragmatikoa albo batera utzita; dena dela, partikula modalak aztertzeari ekin dion edozeinek aitor dezakeen bezala, euren analisisan aritu nahi izanez gero, saihestezina da elkarrizketan egiten duten ekarpen interpretatiboa jorratzea. Halaber, partikulen ezaugarri bereziak eta mikroaldakortasuna ulertzeko euren iragana ere

aintzat hartu dut, ahal izan den neurrian. Horrek partikulen gramatikalizazio bilakabideak ezagutzeko aukera ez ezik, partikula horien ikuspegi zabalagoa edukitzeko aukera ere eman dit. Horiek horrela, tesi honetan honako galderak saiatuko naiz argitzen: a) berdin jokatzten dute hiru partikula modal hauek?; b) banaketa osagarrian daude? Kokagune bat eta bakarra dute euskalaritzan auresuposatu den bezala (Albizu 1991; Elordieta 1997; Elordieta 2001; Haddican 2008; Arregi eta Nevins 2012)?; c) ekialdeko hizkeretan *omen* partikula ebidentzialari jokabide askeagoa identifikatu diote Etxeparek (2010) eta Etxepare eta Uriak (2016); antzera jokatzten du *ote*-k hizkera horietan Monforteren (2015) lanean jasotako datuek iradokitzen duten bezala?; d) direlako galdera partikulak benetako markatzaile sintaktikoak dira?; e) badago paralelotasunik euskarazko partikula modalen eta beste hizkuntza batzuetako partikula modalen artean? Bestela esanda, badago euskarazko partikula modalen patroien testigantzarik hizkuntzartean?; f) ekarpenik egin diezaieke euskalaritzak partikula modalen inguruko gramatika lanetan dauden eztabaidei, esate baterako partikula modalen izaera sintaktikoaren auziari?

Helburu horiek gogoan, tesi honetan *-a*, *al* eta *ote* partikulen erabilera kanonikoak aztertuko ditut:

- (1) Min hartu duzia?
- (2) Min hartu *al* dezu?
- (3) Lagunekin joan *ote* da?

Partikula modalek jokabide kanonikoan, beraz, aditz jokatuarekin bat egiten dute eta elkarrekin mugitzen dira aditz jokatua aurreratzen den testuinguruetan igartzen denez:

- (4) Ez naiza, ni ere, eskualduna? (Arotçarena 1976: 115)
- (5) Ez *al* dezu ogia ekarri?
- (6) Ez *ote* da dagoeneko istilu garratzik sortu arlo horretan? (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 316)

Beste alde batetik, erabilera kanonikoez gain, *ote*-k ekialdeko hizkeretan dituen jokabide ez-kanonikoak ere ikertuko ditut, hala nola:

- (7) Aiei!... bena zer daite *ote* oihü hori? (Casenave-Harigile 1997)
- (8) Orkatzari xüxen zer *ote* agitü zeion jakin beharrez. (Casenave-Harigile 1996: 48)
- (9) Baina, erotzen ari direa *ote*? (Thikoipe 2009)
- (10) Nor deitzen du bada *ote* Peiok egun guziz hain goizik?
- (11) Maitasunez *ote*? (Davant 2008: 2)

Hizkera horietan partikulak jokabide kanonikoaz gain, bestelako patroï sintaktikoa du: *ote*-k ez du aditz jokatuarekin bat egiten, batetik, *ba(da)* osagai beregaina tartekatuta ager daitekeelako eta, bestetik, hitzunek aditz jokaturik gabeko testuinguruetan erabil dezaketelako. Ezaugarri sintaktiko horiek ez ezik, prosodikoek ere jokabide bereizgarriaren alde egiten dute, *ote* partikula erabilera horietan beregaina delako hipotesiaren alde alegia. Ekialdeko hizkeretan lekukotzen den egoera hori partikula modalen inguruko gramatika lanetan dagoen eztabaida batekin lot daiteke. Alemanezko partikula modalak aztertuenak izanda ere, euren izaera sintaktikoa oraindino eztabaidagarria da: buru sintaktikoak direla proposatu izan da (Munaro eta Poletto 2002; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014; Bayer eta Trotzke 2015; Hinterhölzl eta Munaro 2015; Scherf 2017); baina beste hainbatek islapen nagusiak edo adberbio ahul itxurako osagaiak direla diote (Thurmair 1989; Zimmermann 2004; Grosz 2005; Coniglio 2007b; Coniglio 2008; Hinterhölzl eta Munaro 2015). Lehenengoek partikulen jokabide sintaktiko mugatuan (esaterako, lehenengo posizioan agertzea galarazita egotea) eta adberbioen aldean berauek dituzten murriztapenetan oinarrituz argudiatzen dute ezin direla adberbioak edo islapen nagusiak izan. Bigarrenen ustean, partikulak buruak izango balira, buruz buruko mugiden moduko eragiketa sintaktikoek euren mugimendua ekarriko lukete; hala ere, ez ei da horrelakorik gertatzen. Honez gain, badiote ezaugarri prosodikoetatik abiatuta partikulak hitz osoetatik hurbilago daudela buru klitikoetatik baino. Eztabaida horren erdian euskarazko partikula modalak kokatuko ditut eta *ote*-ren ekialdeko datuetan izaera biak islatzen direla argudiatuko dut.

Ildo honetan, *ote*-ren erabilera ez-kanoniko honen ondorioz egitura berri bi sortu bide dira, (8) eta (9) adibideetan jasotakoa. Lehenengoan partikulak ere ez du aditz jokatuarekin bat egiten, *nz*-hitz batekin baizik. Konbinazio horren testigantzak beste hizkuntza batzuetan ere sumatzen dira, hala nola alemanez edo japonieraz (Trotzke eta Turco 2015; Endo 2018). Bigarrenean partikula esaldi osoaren amaieran agertzen da, aditz lexikoaren eta jokatuaren

ostean; erabilera honetan sintaxiak ez ezik, pragmatikak ere ez du *ote*-ren jokabide kanonikoarekin bat egiten.

Izaera sintaktikoaren gaineko eztabaidarekin batera, partikula horien kokapen sintaktikoaren auzia dator. Tipologikoki hiru eremu bereizten dira gramatika lanetan: DenbS eremua, KonpS eremua eta Hizketa Ekintza Sintagmaren eremua (ing. *Speech Act domain*). Lehenengoa propietate sintaktikoetan oinarrituz proposatua izan da; bigarrena eta azkena, ordea, ezaugarri sintaktikoetan edota interpretatiboetan oinarrituz esleitu zaizkie partikulei. Euskarazko partikulei dagokienez, *al* eta *ote* DenbS eremuan eta *-a* KonpS eremuan kokatzearen alde egiten dute ebidentzia sintaktikoek. Bestalde, ekialdeko *ote* ez-kanonikoak ez du ematen *ote* kanonikoaren kokapen bera duenik: *ote* ez-kanoniko honen banaketak iradokitzen du KonpS eremuan ere agertzen dela, FokS-ren eta JokS-ren artean hain zuzen. Azkenik, esaldi amaieran agertzen den *ote* mota, perpaus mailako banaketa eta interpretazioa kontuan hartuta, Hizketa Ekintza Sintagma eremuan kokatua izan behar dela dirudi.

Bestalde, euskarazko partikula modalei esleitu izan zaien (ustezko) ezaugarri bat ez letorke bat beste hizkuntzetako partikulen ezaugarriekin bat. Alegia, partikulak euskaraz banaketa osagarrian ei daude (Euskaltzaindia 1987: 500; Mujika 1988: 488), eta, horrenbestez, perpaus batean partikula bat besterik ezin da erabili. Hala ere, uste edo ideia honen kontra, esan behar da *ote* eta *-a* bateragarriak direla, baita *ahal* eta *ote* ere:

(12) Miñarri mendiaren sabela gatzez beterik *ote* datekea? (Camino 2009b: 193)

(13) Ez *ahal* duzu *ote* horren berririk ukan?


Lehenengoaren kasuan kokagune desberdinetan azaltzen direnez, ez dago biak aldi berean agertzeko oztoporik, antzeko perpaus motetan erabiltzen baitira. Bigarrenaren kasuan, aldiz, *ote* ez-kanonikoa dela onartuz kokagune desberdina ez ezik, izaera desberdina ere badutela esan liteke. Azken datu hau interesgarria da iradokitzen baitu *ahal* eta *ote* partikulen arteko bateraezintasuna sintaktikoa dela eta ez pragmatikoa. Beraz, kokapen bera dute DenbS eremuan erabilera kanonikoari jarraitzen dioten *ahal* eta *ote* partikulek behintzat.

Arestiko datuen harira, geure buruari egiten diogun galdera da ea tradizionalki *partikula modal* etiketapean bildu diren guztiek kokagune bera okupatzen duten. Partikula horien funtzio eta ekarpen interpretatiboari erreparatuta, bereizketa bat egiten dut partikula

modalen multzo horretan; hots, hiztunak proposizioarekin duen jarrera adierazten dutenak, direla ebidentzialak, direla epistemikoak; eta perpausaren aurkezpena hiztunaren asmoen arabera bideratzen dutenak, partikula performatiboak. Lehenengo taldean *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote* multzokatuko nituzke eta bigarrenetan *al*. Taldekatze honek isla du sintaxian, lehenengoak indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan azal daitezkeelako; bigarrena, ordea, ezin.

Era berean, multzo bi horien zantzua alderdi diakronikoan ere igartzen da: partikula horien hedapen geografikoa zein kronologikoa aintzat hartuta, *al* desberdina da besteen aldean, modernoagoa eta geografikoki murriztagoa baita. Honez gain, *ahal*, *ei*, *omen*, eta *ote* partikulak aditzak zirela proposatu da (Lakarra 2019; Monforte 2019b): *ahal*AM > *ahal*, ***enina* ('eman') > *ei*, *omen*A ('eman') > *omen* eta *bo(C)-te*A ('irudi, eman') > *ote*. Galderazko partikuletarako, ordea, ez da aditzik berreraikitzen. Egia esan, galdera partikulen jatorriaz gramatika lanetan zer proposatu den begiratu gero, hipotesi bi plazaratu dira: alde batetik, hautakarietatik edo ezezko markatzaileetatik eratorriak izango lirateke (Bailey 2013) eta, beste alde batetik, partikula modalak edukiko lituzkete jatorri (Bayer 2012; Hack 2014). Beraz, euskarazko *al* hautakari batetik edo partikula modal batetik eratorria izan liteke. Kasu bietan morfologikoki aukera egokiak daude: batetik, *ala* hautakaria eta, bestetik, *ahal* partikula modala. Dena den, tesi honetan defendatuko dut, perpaus mailako kokapena eta forma fonologikoa aintzat hartuta, *ahal* partikula *al*-en jatorria izatea errazagoa dela. *Ala* > *al* gauzatu balitz, euskararen aldi historikoan horren aldaketa sintaktiko eta fonologikoa lekukotzea esperoko genuen; alabaina, ez dago horren aldeko zantzurik. Gauzak horrela, erdialdeko euskalkian *ahal* > *al* bilakabidea gauzatu dela proposatzen dut. Zer diosku honek partikulen kokapenaz? Roberts eta Roussouren (2003) ildotik, gramatikalizazioaren ondorioz osagaiak goragoko kokapena hartzen dutelako hipotesia onartuz gero, *ahal*-en gramatikalizazio horren ondorioz *al* partikula goragoko gune batean azaldu behar da. Honako hierarkia proposatzen dut:

(14)



Jakina, banaketa hori ez da *ahal* eta *al* partikuletara bakarrik mugatzen eta gainerako partikuletara ere zabaltzen dut, euren gramatikalizazio gradua aintzat hartuz. Beraz, partikulen historia eta bere garapena aintzakotzat hartzeari interesgarria eta emankorra deritzot. Izan ere, egitura sintaktikoan okupatzen duten kokagunea ez ezik, gaurko jokabide kanonikoaren ezaugarri nagusiak ere azaltzeko bidea eskaintzen dute Lakarraren (2019) hipotesiaren modukoek. Esaterako, *ote* partikula aditza ei zen jatorrian (Lakarra 2019); aditz lexikoa zen heinean, perpaus maila zuen kokagune kanonikoa aditz laguntzailearen aurrekoa zen eta horretxeri eutsi dio, gramatikalizazioaren ondorioz izaera prosodiko ahula garatuta.

Partikulen alderdi sintaktikoaz gain, euren interpretazioa eta testuinguruak ere ikertuko ditut, hasieran esan dudanez, neurri apalagoan bada ere. Alde honetatik arestian aditzera eman ditudan talde biak nabarmenduko nituzke: partikula performatiboak eta partikula ebidentzial-epistemikoak. Lehenengo multzoan ekialdeko *-a* eta erdialdeko *al* daude: ekialdeko galdera partikularen bidez hiztunak entzuleari bidalitako proposizioaren indarra gauzatzeko garrantzia sendotzen da; erdialdeko partikulak, ordea, bideratuta dauden galdera baten aurrean entzuleari hiztunak *inposatu* nahi dion erantzunetik kanpo hautatzeko aukera ematen dio. Bigarren multzoan *ote* partikula dago; berau galderetan agertzeaz gain, *-(e)n* menderagailuaz markatutako mendeko perpaus ez-interrogatibo batzuetan ere azal daiteke:

(15) (...) da zeoxe mamiya *ote*'aken iruitze'a. (Pikabea 2005: 196)

Horrelako testuinguruetan hiztunak partikularen bidez markatzen du ez duela proposizioarekin guztiz bat egiten. Galderei, azalean, bestelako ekarpena egiten diela proposatuko dut, *ote*-k informazioa eskuratzeko itaun bat galdera konjektural bihurtzen baitu:

(16) Non dago autoa? > Non *ote* dago autoa?

Beste hizkuntza batzuei begiratu gero, antzeko banaketa antzematen da: testuinguru deklaratioetan epistemikotasuna adierazten duen partikulak galdera konjekturalak markatzen ditu; esaterako, alemanez (Eckardt 2018) edo salish hizkuntzetan (Littell eta beste 2010). Beraz, *ote*-ren erabilerak aintzat hartuta, antzeko jokabidea esleituko diot: hiztunak proposizioarekin guztiz bat egiten ez duen gogoeta mentala adierazten du.

Hasieran adierazi dut partikula modalen inguruan gabezia handia dagoela euskalaritzan. Tesi honen ikergaia mugatua den arren, hiru partikula soilik aztegai baititut, izaera desberdinetako partikulak ikertuko ditut eta horrek arloari ekarpena egin diezaiokeelakoan nago, alderdi sintaktikoan batez ere. Tesi honen nondik norako nagusiak plazaratuta, ondoren bere egitura xehetuko dut, kapitulu bakoitzean zer landuko dudan adieraziz.

1.2 Tesiaren antolamendua

Tesi honetan zehar jorratuko ditudan ikergaiak ezagutzera emanda, jarraian bere egituraren berri emango dut.

Bigarren kapituluaren oinarri teorikoak eta metodologikoak ezarriko ditut. Hasteko, euskararen hainbat fenomeno aztertzeko hartuko ditudan abiapuntuak plazaratuko ditut, i.e. hitz-ordenarena, ezeztapenaren analisiarena eta aditz jokatuaren osaketarena. Jarraian, Ortiz de Urbinaren (1992; 1999a; 1999b; 2008) euskarazko galderen analisia berrikusi eta, hortik abiatuta, analisi berri bat proposatuko dut. Ondoren, galderak ikuspuntu pragmatiko batetik arakatu dituzten lan batzuk landuko ditut, galdera moten sailkapenak mahaigaineratuta. Amaitzeko, tesia honetarako erabilitako datuak zelan bildu ditudan azalduko dut, elkarrizketa egiteko metodologiaren berri emanez.

Hirugarren kapituluaren *partikula* terminoa aurkezteaz gain, gaurko gramatika lanetan partikula modalen inguruan dauden ikergai nagusiak edukiko ditut hizpide. Alde batetik,

partikula modalen izaera sinkaktikoaz dauden hipotesi biak jorratuko ditut, buruak direlakoaren aldekoa eta islapen nagusiak direlakoaren aldekoa. Beste alde batetik, partikulei esleitu zaizkien kokaguneak aztertuko ditut hiru eremu nagusi bereiziz: Denbora Sintagmaren eremua, Konplementatzaile Sintagmaren eremua eta Hizketa Ekintza Sintagmaren eremua. Aurrerago (§4, §6 eta §7) berreskuratuko ditut ikergai bi horiek, euskarazko partikulen analisiak eztabaida horiek argitzen lagun dezakeelakoan.

Laugarren kapituluaren euskarazko partikula modalak, orokorrean, aurkeztu eta ikertuko ditut. Partikulen propietateak deskribatu ondoren, euskalaritzan izan daitezkeen gai eztabaidagarrienetara joko dut: partikulen klitikotasuna, argumentatzaileak ote diren hipotesia eta euren arteko bateraezintasuna. Ondoren, hirugarren kapituluaren jorratutako ikergai bati helduko diot, ea buruak ala islapen nagusiak ote diren galderari alegia, eta partikula modalak oro har buruak direla izango da nire ondorioa.

Bosgarren kapituluaren analisi sintaktikoa albo batera utzita, *-a*, *al* eta *ote* partikulen interpretazioa aztertzeko lehenengo urratsak egingo ditut. Hasteko, ekialdeko *-a* partikularen testuinguruak eta tipologiak eskaintzen dituzten datuak kontuan hartuta, partikula horrek galdera indartzea lortzen duela proposatuko dut. Bigarrenik, *al* partikula edukiko dut aztergai; horretarako bere hedapen kronologiko eta geografikoa arakatuko dut, baita *ahal* partikula epistemikoarekin balizko harremana ere. Galdera partikulen jatorriak landu dituzten lanak abiapuntu, erdialdeko *al* galdera partikula *ahal* partikula epistemikotik eratorria dela proposatuko dut. Galdera partikularen historia argituta, bere interpretazioari ekingo diot: erabiltzen den eta erabiltzen ez den testuinguruetan oinarrituz argudiatuko dut partikulak ezeztatu egiten duela entzuleak senti dezakeen hiztunarekin bat egiteko beharra eta, era horretan, ez zaiola entzuleari erantzunik inposatzen. Azkenik, *ote* partikulari erreparatuko diot. Partikula hau agertzen deneko testuinguruak eta horietan duen interpretazioa irizpidetzat hartuta, datu tipologikoetara joko dut partikula hori epistemikoa dela eta hiztunaren prozesu mentala adierazten duela ondorioztatuta. Honez gain, *ote*-ren erabilera ez-orokorreari ere begiratuko diet.

Seigarren kapituluaren analisi sintaktikora bueltatuko naiz berriro. Lehenik, partikulak konparatuko ditut ondoko ezaugarrien arabera: a) perpaus mailako kokapena, b) perpaus motaren eragina, c) menderagailuekiko harremana, d) alokutiboarekiko jokabidea, e) euren arteko bateragarritasuna, f) aditz jokaturik gabeko testuinguruetan duten jokabidea, eta g)

AS/aS-ren elipsiarekiko jokabidea. Hortik abiatuta, bereizgarriei begiratu eta galdera bi erantzuten saiatuko naiz: ea partikulek multzo homogoneoa osatzen duten eta ea eremu bera okupatzen duten. Auzi bi horiek argituta, partikulen banakako analisi sintaktikoa plazaratuko dut.

Zazpigarren kapituluan ekialdeko *ote*-ren erabilera bereizgarriak edukiko ditut aztergai. Partikula honek hizkera horietan duen mikroaldakortasuna deskribatu ostean, hirugarren kapituluko galdera bat berreskuratuko dut; hots, ea buruak ala islapen nagusiak diren. Kasu honetan *ote*-ren ezaugarri ez-kanonikoek islapen nagusien aldeko hipotesira bultzatuko naute. Hizkera horietan dokumentatzen diren beste egitura bik indartuko dute hipotesi hori: batetik, *nz*-hitzekin osatzen duen egiturak eta, bestetik, partikula bera bitan duten testuinguruek. Euren egitura eta eratorbidea aztertu ondoren, *nz*-galderetako egitura berri horren garapen historikoa sakonduko dut. Azkenik, *ote* amaiera absolutuetan agertzen deneko testuinguruei erreparatuko diet eta *ote* ez-kanonikoaren bestelako berrinterpretazioa dela proposatuko dut.

Zortzigarren kapituluan tesi honen ondorioak laburbilduko ditut. Bateko, euskalaritzari egindako ekarpenak nabarmenduko ditut, hots partikulen sintaxiaz eta interpretazioez gain, euren mikroaldakortasuna eta garapen historikoa. Besteko, partikula modalen gramatika lanei eta ikerketari egiten dien ekarpena ere azpimarratuko dut; izan ere, partikula berak hizkera jakin batzuetan izaera sintaktiko biak edukitzeak partikula modalen kategoria mugatzeko ezaugarri zehatzak ez ezik, izaera sintaktikoak argitzeko propietate xeheak ere ematen ditu. Honez gain, partikula modalen barruan, batetik, partikula ebidentzial eta epistemikoak eta, bestetik, performatiboak bereiztearen garrantzia azpimarratuko dut, indar ilokutiboarekin duten harremana hobeto ulertzen laguntzen baitigute. Azkenik, galdera partikulen funtzio prototipikoa, i.e. galdera markatzea, tipologikoki berrikusteko beharra aldarrikatuko dut.

2 Abiapuntu teorikoak eta metodologikoak

2.1 Sarrera

Aurreko kapituluaren tesi honen nondik norakoak eta egitura eman ditut aditzera. Oraingoan kapitulu honetan tesiaren abiapuntu teorikoak ezarriko ditut. Lehenik, euskararen oinarritzko analisi batzuk (perpaus mailako hitz-ordenak, ezezkoen perpausak eta aditzen osaera) aurkeztuko ditut (§2.2), jarraian etorriko diren datuak eta argudioak hobeto ulertuko direlakoan. Ondoren, partikulen analisisietarako beharrezko dudako galderen eratorbidea izango dut aztergai (§2.3-2.4); horretarako euskalaritzan Ortiz de Urbinak (1989; 1994; 1995; 1999b; 2008) galderen inguruan plazaratutako lanak berrikusiko ditut eta, hein handi batean berak proposatukoari jarraitzen badiot ere, galdera nagusi eta mendekoetarako (direla polaritatezkoak,¹ direla *nz*-galderak) analisi bateratu bat eskainiko dut. Hirugarrenik, oinarri sintaktikoa argituta, galderen analisi pragmatikoa arakatuko dut (§2.5); kasu honetan euskalaritzan gabezia handia dago, nik dakidala behintzat, ez baita horrelako lanik egin. Hala ere, beste hizkuntza batzuetarako sailkatutako galdera motak euskaraz ere lekukotzen direla onartuta, baliagarria izango da Escandellen (1987; 1999), Obenauerren (2004; 2005; 2006) eta Littell eta besten (2010) lanetara jotzea. Bereizten dituzten galdera motetan lan horiek neurri handi batean bat datozela ikusiko dugu eta galdera mota horietako hainbat

¹ Hiru termino erabiltzen dira mota horretako galderak izendatzeko: *polaritatezko galderak*, *bai-ezko galderak* eta *galdera absolutuak*.

nabarmenduko ditut, euskarazko partikulak interpretazioaren aldetik ikertzean (§6) interesgarriak izango direnak. Azkenik, (§2.6) tesi honetan erabiltzen diren datuei begiratuko diet eta berauek eskuratzeko zer metodologia baliatu dudan argituko dut. Datuak iturri bitatik jaso ditudala azalduko dut, i.e. testigantza idatzietatik eta tesi honetarako beren-beregi burututako elkarrizketetatik. Iturriak eta hiztunak aukeratzeko erabilitako irizpideak aditzera eman ondoren, elkarrizketetan Matthewsonen (2004) eta Burton eta Matthewsonen (2015) ildotik sortutako esperimenduak deskribatzeari ekingo diot. Kapitulu honen antolamendua azalduta, jarraian euskal gramatikaren hainbat kontzeptu eta ezaugarri deskribatzeari ekingo diot.

2.2 Euskal gramatika: argibide eta abiapuntu batzuk

Oraingo atalean, beraz, tesian zehar euskarazko datuak eta analisiak ondoen ulertzeko oinarrizko sarrera bat eskainiko dut; bertan euskaralaritzan ezagunak diren azterbideak ez ezik, arazoak ere ekarriko ditut argitara, partikula modalen jokabidean eragina eduki dezaketen neurrian. Hiru gai berrikusiko ditut: a) euskarak perpaus mailan eduki ditzakeen hitz-ordenak, b) ezeztapenaren azterbidea, eta c) aditz formen eratorbidea. Hasi baino lehen, jakinarazi nahi dut helburua ez dela ikergai horiek sakon berrikustea edo hobetzea; aitzitik, ondoren garatuko dudan analisiarekin zerikusia duten ezaugarrien gaineko azterbidearen berri emango dut, azterbide horiek dituzten arazoak eta nik horien inguruan hartuko dudan ikuspegia mahai gainean ipinita. Hau esanda, lehenengo kontuari ekingo diot: perpaus mailako hitz-ordenak azaltzeari alegia.

2.2.1 Perpaus mailako hitz-ordenak eta euren analisia


Euskarak perpaus mailan hitz-ordena desberdinak dituela iradokitzen dute datuek:

- (1) a. Xabierrek etxe berri bat erosi du.
- b. Xabierrek erosi du etxe berri bat.
- c. Etxe berri bat erosi du Xabierrek.
- d. Erosi du Xabierrek etxe berri bat.
- e. Etxe berri bat, Xabierrek erosi du.

2. Abiapuntu teorikoak eta metodologikoak


Gai honek adituen arreta erakarri du, horren gaineko lan kopuruak erakusten duen bezala (de Rijk 1969; Laka 1988; Ortiz de Urbina 1989; Elordieta 2001, Pastor 2019, besteak beste). Xehetasunetan sartu gabe eta tradizioan onartu den ideiare jarraituz, euskara oinarrian SOA hizkuntza dela proposatu dute hainbatek (de Rijk 1969; Villasante 1980; Ortiz de Urbina 1989; 1994; 1999a; 1999b) eta gainerako hurrenkerek informazio egiturarekin dutela zerikusia. Hitz-ordena desberdinen berri emateko hainbat eratorbide (Albizu 1991; 1992; Ortiz de Urbina 1992; 1999b; 2008; Uriagereka 1992; Elordieta 2001) plazaratu diren arren, tesi honetarako Ortiz de Urbinaren azterbideari jarraituko diot. Horrek esan nahi du gramatika sortzailearen barruan orokorrean onartzen den [KonpS [DenbS [AS]]] egitura hobesten dudala; bestela esanda, euskarazko egitura sintaktikoa oro har buru-azkena da, baina hainbat sintagma (KonpS eta ezker periferiako IndarS, TopS edo FokS) buru-lehenak dira (Laka 1990; Ortiz de Urbina 1989; 1994; 1999a; 1999b; 2008; Elordieta 2008; 2013; Irurtzun 2015). Halaber, Rizziri (1997) jarraituz Ortiz de Urbinak (1999b; 2008) KonpS-ren eremuan informazio egiturarekin lotuta dauden berezko sintagmak ere aintzat hartzen ditu eta aurreko egitura honela garatu beharko litzateke:

(2)



Arestian adierazi dudan bezala, tesi honetan onartzen dut euskaraz buru lexiko gehienak osagarriaren ondoren datozela baina ezker periferiako hainbat buru osagarriaren aurretik proiektatzen direla. Hartara, osagai bat fokalizatuta daukan perpaus bat honela eratorriko nuke, euskaraz behintzat: fokua jasotzen duen osagaia KonpS-ra (Ortiz de Urbina 1989) edo FokS-ra (Ortiz de Urbina 1999b) mugitzen da, espezifikatzaile gunera; 2.3 atalean xehetasunez jorratuko dudan bezala, aditz multzoa ere Konp/ Fok burura igotzen da, fokuaeren ondoan agertzeko asmoz. Ikus dezagun eratorbide hau hurrengo diagraman:

(3) Zer erosi du amak?



Beraz, SOA hurrenkera neutrotik aldentzen diren bestelako hitz-ordenak informazio egiturarekin eta eurak KonpS-ren zabaldurako, edo ezker periferiarako, mugimenduekin daude lotuta. Hasierako (1a-e) adibideei berriro begiratzen badiegu, honako banaketak lortzen dira KonpS zabalduaren hipotesia onartuta:

- (4) a. [_{KonpS} [_{DenbS} Xabierrek etxe berri bat erosi du]]
 b. [_{FokS} XABIERRREK_i [_{Fok'} erosi du_j [_{JokS} [_{DenbS} t_i etxe berri bat t_j]]]]
 c. [_{FokS} ETXE BERRI BAT_i [_{Fok'} erosi du_j [_{JokS} [_{DenbS} Xabierrek t_i t_j]]]]
 d. [_{FokS} Ø [_{Fok'} Erosi du_j [_{JokS} [_{DenbS} Xabierrek etxe berri bat t_j]]]]
 e. [_{TopS} Etxe berri bat_i, [_{Top'} [_{JokS} [_{DenbS} Xabierrek t_i erosi du]]]]

Jarraian hurrenkera neutroa aldatzen duen eta informazio egiturarekin zerikusia ez duen beste fenomeno bati erreparatuko diot, ezeztapenari alegia.

2.2.2 Ezeztapena euskaraz

Euskalaritzan ezker periferian kokatu izan den beste sintagma batek ezeztapenarekin du zerikusia. Ezeztapenak tesi honetarako duen zerikusia aintzat hartuta, oraingoa azterbide nagusietan esleitu zaizkion kokaguneak aurkeztera mugatuko naiz, ezezko perpausen eratorbideen xehetasunetan sartu gabe. Bestela esanda, partikulen eta ezeztapenaren arteko harremana landu denean, bien arteko hierarkiari erreparatu diote gramatika lanetan (Gutzmann 2008; 2015; Haddican 2008; besteak beste); beraz *ez*-ek egitura sintaktikoan jaso dituen kokapen desberdinak emango ditut aditzera jarraian.

Lehenik eta behin, Lakak (1990; 1991) KonpS-ren eta DenbS-ren arteko Σ Sintagma proposatzen du; bertan ezeztapena markatzen duen *ez* burua ez ezik, baiezko polaritatea adierazten duen *ba*- burua ere kokatzen du. Ortiz de Urbinak (1993; 1994), ordea, Denb buruaren gainetik gabe, beronen azpian eta AS-ren gainean kokatzen du *ez* burua biltzen duen sintagma.² Bestalde, analisi bi horien arteko beste desberdintasun bat da Lakaren hipotesian Σ Sintagma buru-lehena dela eta Ortiz de Urbinarenean (1993tik aurrera), berriz, *ez* buru duen sintagma buru-azkena dela.

Azterbide horiez gain, kokagune bi erabiltzen dituen analisisa dakarkigu Haddicanek (2004; 2008).³ Halaber, aurrekoengandik aldentzen da buru parametroa baztertzen baitu eta antisimetriaren eredia onartzen baitu, [espez-buru-osagarri] ordena alegia. Ezezko eta baiezko perpausen hitz-ordenetatik abiatzen du bere analisisa eta honako kokapenak identifikatzen ditu: batetik, DenbS-ren eta AS-ren arteko Ezeztapen Sintagma eta, bestetik, Foku Sintagmaren eta Modalitate Sintagmaren arteko Polaritate Sintagma. Gune bi horien beharra perpausaren eratorpenean datza: ezezko morfema Ezeztapen Sintagmatik Polaritate Sintagmara mugitzen da, hitz ordena zuzena lortzeko.⁴ Bestalde, aurreko analisisiek ez bezala, Haddicanek (2004; 2008) ez du *ez* burutzat jotzen eta Ezeztapen Sintagmaren

² Azken horrek ez du azaleko hurrenkera azaltzen eta, hori dela eta, Ortiz de Urbinak (1993; 1994) proposatzen du KonpS-ra igotzen dela, dela ezeztapenaren berezko foku ezaugarriengatik, dela Konp buruaren espezifikatzailean ezeztapen operatzaileak erakartzen duelako.

³ Etxepare eta Haddicanen (2017) lanak antzeko azterbidea eskaintzen du.

⁴ Esan bezala, lan honetan ez dut xehatuko mugida hori zerk bultzatzen duen. Irakurle interesatuak jo dezake Haddicanen (2004; 2008) lanetara.


espezifikatzailean kokatzen du; honen arrazoia denboraren elipsoidun testuinguruetan datza (cf. Laka 1990; 1991), horrelakoetan *ez*-ekin bat egingo luketen buruak isilduta baileudeke, *ez* salbu.

- (5) Jon etorri omen da, baina Maitane [[*ez omen da*] ~~etorri~~]. (Haddicanen [2008: 74] adibide egokitua)

Hau arazo bat da [*ez omen da*] multzoa buruz buruko mugidaren bidez eratzen dela onartzen dutenentzat. Horretan oinarrituz *ez* denboraren elipsitik kanpo dagoen espezifikatzaile gune batean egon behar dela ondorioztatzen du Haddicanek (2008).


Ildo bertsutik heltzen diote Elordieta eta Haddicanek (2018) ezeztapenaren auziari: a) gune bi identifikatzen dituzte ezezko eratorbidean (AspS-ren eta DenbS-ren arteko Predikatu Sintagma [ezeztapenaren oinarritzko posizioa litzatekeena], eta IndarS-ren eta JokS-ren arteko Σ S [ezeztapena perpaus nagusietan behintzat erakarriko lukeen sintagma]), eta b) *ez* Predikatu Sintagmaren espezifikatzailean sortzen dela proposatzen dute. Bestalde, Arriortuak (2017), Ortiz de Urbinaren (1989; 1993; 1994) azterbidetik abiatuta, euskarazko datuak eta tipologikoak erkatuz eta aurreko analisisien gabeziak kontuan hartuz, azterbide berri bat dakar. Alabaina, funtsean oraingo zereginari dagokionez paralelotasun handia du Arriortuaren (2017) lanak Haddicanen (2008) eta Elordieta eta Haddicanen (2018) azterbideekin, bateko, lehenak ezezko egituretarako sintagma bi bereizten baititu (AS-ren eta DenbS-ren arteko Ezeztapen Sintagma eta FokS-ren eta JokS-ren arteko Polaritate Sintagma) eta, besteko, azterbide honetan ere *ez*-en sortzeko gunea erdiko eremuan kokatzen baitu. Halarik ere, Haddicanekin (2008) eta Elordieta eta Haddicanekin (2018) ez dator bat Arriortua (2017) *ez*-en izaera sintaktikoan, azken honek *ez* burua dela onartzen baitu (cf. Laka 1990; 1991; Ortiz de Urbina 1989; 1993; 1994). Irizpide horiek kontuan hartuz, honako diagramak egituratzen dira:

(6) a.



(Elordieta eta Haddican 2018)

b.



(Arriortua 2017)

Ezezko polaritatezko morfemaren izaera sintaktikoan baino desberdintasun gehiago dituzte hipotesi hauek euren artean; eratorbidean aldentzen dira, ezezko perpausak eratorzea eragiten duten mekanismoetan hain zuzen ere. Alabaina, arestian adierazi dudan bezala, kontu horiek albo batera utziko ditut, oraingo lan honetarako ez baitute rol garrantzitsurik jokatzen. Kokapen bi direlako eta *ez* erdiko eremuan sortzen delako ideiak, berriz, onartuko ditut, partikulen eta ezeztapenaren arteko hierarkia aztertzeke ezinbestekoak baitira.

Bestalde, partikulen azterketa orokorrarekin zerikusi zuzenik ez duen baina tesi honetako *-a* partikularekin lotura duen kontu bat mahaigaineratuko dut orain. Plazaratutako analisisiei berriro begiratzuz gero, batzuek (Laka 1990; 1991; Ortiz de Urbina 1989; 1993; 1994; Arriortuari 2017) *ez* burua dela eta beste hainbatek (Haddican 2008; Elordieta eta Haddican 2018) espezifikatzaile guneko osagaia dela proposatu dute. Tesi honetarako biez baliatuko naiz: *ez* burua da agerian aditz jokatua duten perpausetan; DenbS-ren elipsia duten hainbat perpausetan, aldiz, adverbio izaera esleitzen diot. Hurrengo datuetan oinarritzen naiz azken ideia horren alde egiteko:

(7) Jon etorri da, baina Miren ez ~~etorri~~ da.

- (8) Jon ez da etorri, baina Maia *bai* / **ba*.
- (9) A: Alazne eta Ainhoa etorriko dira?
 B: Esan dizut Alazne ez dela etorriko baina Ainhoa *baietz* / *bai*.
 B': Esan dizut Alazne etorriko dela baina Ainhoa *ezetz* / *ez*.

Arestian Haddicanen (2008) ildotik plazaratu dudana bezala, ezezeko polaritatezko morfema erdiko eremuko burua dela defendatzen dutenek arazo bat dute (7) bezalako testuinguruetan, *ez* elipsitik kanpo baitago. Honez gain, (8) adibidean baiezko polaritatea adierazten duen burua (*ba*) ez da zilegi; *bai* adberbioa, aldiz, bai. Arriortuak (2017) Zeijlstraren (2004) ildotik tipologikoki ezeztapena burua ala islapen nagusia den argitzeko erabiltzen diren argudioen artean honakoa dakar: elipsi testuinguruetan forma desberdinak agertzen dira. Esaterako:

- (10) Why *not* / **no*.

Euskarari begira ingelesezko *no* eta *not*-en ordainek forma bera dute, i.e. *ez*. Baiezkoaren kasuan aldea dago, *bai* eta *ba* baitira. Bestalde, mendeko testuinguruetan elipsia gertatuz gero, ezezeko forma berdina den arren, baiezkoarena ezin da *ba* izan, *bai* baizik. Halaber, horrelako perpausetan *baietz* eta *ezetz* formak balia daitezke. Hitz horiek izen bezala ere joka dezaketela aintzat hartuta, zaila da jokabide horiek buru funtzional batetik abiatuta azaltzea.⁵

Laburbilduz, DenbS-ren elipsia gertatzen den hainbat testuingurutan polaritatezko adierazleek islapen nagusiko izaera dutela proposatzen dut; gainerako kasuetan, aldiz, burua delako ideia onartzen dut (Laka 1990; 1991; Ortiz de Urbina 1989; 1993; 1994; Arriortuari 2017).

Honaino ezeztapenaren analisirako hartuko dudana abiapuntua; jarraian atal honi amaiera emateko tesi honetarako onartzen dudana aditz jokatuaren eratorpena edukiko dut hizpide.

⁵ Nahiz eta (9) adibideetan *ezetz*/ *baietz* eta *ez*/ *bai* trukagarriak diren, testuinguru guztietan ez dugu jokabide bera antzematen; esaterako:

- (i) Esan du Bilbon jende gutxi agertu dela baina Donostian inor (ere) *ez* / **ezetz*.

EPE zilegiztatu beharrak eragin lezake ezgramatikaltasuna, ez bailegoke adberbioaren o-komandoan. Dena den, nahiz eta interesgarria izango litzatekeen zer dela eta ez duten mendeko perpausetan berdin jokatzeko, murriztapen honen arrazoiak ikertzea tesi honen helburutik kanpo dago.

2.2.3 Aditzen eratorpena Arregi eta Nevinsen (2012) ildotik

Atal honen hasieran (§2.2) esan bezala, azken oharra aditz formen ingurukoa da. Partikula modalen eta aditzen artean lotura handia dagoela erakutsiko dut laugarren kapituluan; beraz, partikulen jokabidea hobeto aztertzeko eta ulertzeko, ezinbestekoa da aditzen jokaera ezagutzea.

Adizki gehienak euskaraz perifrastikoak izaten dira; hots, aditz lexiko eta aditz laguntzaile bana daude perpausetan:

(11) Suk ni *ikusten n-a-su*. [Arregi eta Nevinsen (2012: 19) adibide egokitua]

Adibidean ikusten denez, aditz lexikoa laguntzailearen aurretik azaltzen da. Aditz bakoitzak informazio desberdina dakar: aditz lexikoak zama semantikoaz gain, aspektuaren gaineko informazioa ere ematen du (12a) eta aditz laguntzaileak (edo aditz jokatuak) φ -datuez ez ezik, denbora eta moduz ere informatzen dio entzuleari (12b):

(12) a. *ikusten* = *ikus(i)* aditz lexikoa + *-ten* aspektu marka

b. *n-a-su* = *KL.ABS.ISG-OR.ISG-KL.ERG.2SG* (Arregi eta Nevins 2012: 19)

Perpaus deklarativo neutroetan aditz mota hauek beti elkarren alboan egoten dira; ezin da adberbiorik, esaterako, tartean azaldu:

(13) Suk ni *ikusten (*beti) n-a-su*. [Arregi eta Nevinsen (2012: 19) adibide egokitua] (cf. 11)

Bestalde, euskara SOA hizkuntza dela gogoan, perpaus amaieran azaltzen dira aditzak. Dena den, arestian esan bezala, FokS lexikalizatzen denean, aditz multzoa,⁶ i.e. aditz lexiko eta laguntzailea, gune horretara mugitzen da. Honek eragina du perpaus mailako hurrenkeran, aditz multzoa ez baita amaieran kokatzen:

⁶ Aurrerantzean *aditza* terminoa soilik erabiltzen dudanean aditz multzoari egiten diot erreferentzia. Bestela, aditz multzoa osatzen duten aditz motak aipatu nahi ditudanean, *aditz lexikoa* eta *aditz jokatuak* (edo *aditz laguntzailea*) terminoak baliatuko ditut.

(14) AMELIAK hartu du [~~Ameliak~~] erratz bat [~~hartu du~~].

Hala ere, aditz mota bien arteko ondokotasunari dagokionez, ez dago aldaketarik. Egia esan, testuinguru gehienetan aditz lexikoaren eta jokatuaren arteko ondokotasun hori mantentzen da eta, perpausean zehar mugituz gero, elkarrekin egiten dute.⁷ Ezezko perpaus (nagusi)ak eta ekialdeko hainbat hizkeratako foku *exhaustibo* egiturak dira aditz lexikoa eta jokatua elkarren alboan azaltzen ez diren testuinguru (ia) bakarrak, aditz jokatua soilik aurreratzen baita, aditz lexikoa *in situ* dagoelarik:⁸

(15) a. AMELIAK_i du_j [~~Ameliak_i~~] erratz bat hartu [~~du_j~~].


b. [Ez du]_i Ameliak erratz bat hartu [~~ez du~~]_i.

Aditz mota bakoitzaren eratorbidearen aldetik, Arregi eta Nevinsi (2012) jarraituko diet. Autore horien analisisen xehetasunetan sartu gabe, honela laburbiltzen dut proposamena, beti tesi honen azterketaren interesari begira: batetik, aditz lexikoa A buruan sortu eta, a buru funtzionalarekin bat egindakoan, Asp burura mugitzen da aspektu markarekin bat eginda (16a); bestetik, aditz laguntzailea Konp (edo Jok) buruan eratzen da, hara Denb burua mugitu eta gero (16b).

⁷ Baiezko perpausetan aditz lexikoak laguntzailearekin bat egitea eta elkarrekin mugitzea berorren lexikalizazio beharrarekin lotzen ditut, gramatika lanetan (kasurako, Ortiz de Urbina 1989; 1994; Elordieta 1997) proposatu den bezala. Analisi horiek arazoak dituztela jakituna naiz; hala ere, tesi honen ikergai nagusiarekin zerikusi gutxi dutenez eta proposatuko dudan azterbidea horien arabera aldatzen ez denez, Ortiz de Urbinaren analisisa dagoen bezala onartuko dut. Dena den, jakinmina duenak irakur dezala Elordieta eta Haddicanen (2016) lana auzi honen azterketa berritu baterako.

⁸ Egitura horien helburu-kokaguneak eta eratorbideak desberdinak dira eta partikula modalekin zerikusirik ez dutenak. Horiek horrela, albo batera utziko dut eta irakurle interesatuari Haddicanen (2008), Arriortuaren (2017), Duguine eta Irurtzunen (2017) eta Elordieta eta Haddicanen (2018) lanak gomendatzen dizkiot kontu horren azterketan sakontzeko.


(16)



Honez gain, (16b) adibidean agerian denez, Denb eta Konp/Jok buruek ϕ -tasunak dituzte. Hala ere, Arregi eta Nevinsek (2012) ez dute onartzen ergatibo, datibo eta absolutibo kasuei dagozkien komuntadura-markak buru horietan sortzen direnik; aitzitik, izenordain klitikoak direla eta egitura sintaktikoan dauden izenordainekin batera sortzen direla proposatzen dute. Hartara, klitiko absolutibo eta datibodunak Denb burura mugitzen dira, berari atxikita; klitiko ergatiboduna, aldiz, Konp/Jok burura mugitzen da eta berari gehitzen zaio. Mugida horiek ez dira ohikoak eta a, Asp eta Denb buruek oztopatzea espero liteke; alabaina, autore horien arabera, a, Asp eta Denb buruek ez dute klitizazio mota hau galarazten eta klitikoak behar duten buruari atxikitzen zaizkio:⁹

⁹ Arregi eta Nevinsek (2012) ohartarazten diguten bezala, argudia liteke fase teoriaren barruan klitikoen mugida arazotsua dela, aS-ren fasea guztiz osatu ondoren atxikitzen baitzaizkie absolutibodun eta datibodun klitikoak eta ergatibodun klitikoa Denb eta Konp/Jok buruei hurrenez hurren. Autore horiek azalbide bi iradokitzen dituzte oin ohar batean: edo aS fase ahula da euskaraz edo gogorra da eta Chomskyren (2001) Fase Iragazgaiztasun Baldintzari (ing. *Phase Impenetrability Condition*) jarraitzen dio. Bigarrenak ez dirudi oso asegarria, fase bat guztiz osatu ostean, fasearen burua eta haren muturra (bere espezifikatzailea alegia) soilik daudelako eskura hurrengo eremuko eragiketa sintaktikoetarako (Citko 2014: 33-35). Alde horretatik, zentzuzkoa iruditzen zait auzi honi dagokionez lehen soluzioa: euskaraz aS fasea ahula bada, klitiko guztien mugidari azalbidea eskaintzen baitio. Horrenbestez, Konp buruaren fasea hasi arte, aS-ren fasea ez da guztiz ixten eta klitikoek dagozkien guneeetara mugitzeko aukera edukitzen jarraitzen dute, bai AS-tik Denb burura, bai aS-tik Konp/Jok burura.

(17) (Zuk) (ni) ekarri nauzu.¹⁰



Beraz, (17) diagraman islatzen denez, AS-ren osagarriak duen klitiko absolutiboa Denb burura igotzen da eta [espez, aS] gunean dagoen klitiko ergatiboa Jok burura mugitzen da, lehenengoa Denb buruari atxikita eta bigarrena Jok buruari.

Honaino aditz perifrastikoen azterbidea; jakina da, dena den, euskarak ere aditz sintetikoak dituela. Nahiz eta hamabi bat aditz bakarrik diren eta aspekturik gabeko testuinguruetan (Laka 1996) soilik (hots, oso gutxitan) erabiltzen diren, euren eratorpena arakatzea merezi du. Arregi eta Nevinsek (2012) aditz mota hauek sakon aztertzen ez badituzte ere, gramatika lanetan onartu izan da (Ortiz de Urbina 1989; Elordieta 1997; Artiagoitia 2000) aditz lexikoaren erroaren eta aditz laguntzaileetan agertzen diren morfemen arteko amalgamazioak eratuak direla; ikus hurrengo adibidea:

(18) Hori *n* *-a* *-kar* *-zu*. [Arregi eta Nevinsen (2012) ildotik]
 KL.ABS.1SG OR.1SG EKARRI KL.ERG.2SG

¹⁰ Adibide honetan agertzen diren *KS* (ing. *KP*) eta *ParteS* (ing. *PartP*) Arregi eta Nevinsek (2012) erabiltzen duten *Kasu Sintagma* eta *Partehartzaile Sintagma* dira hurrenez hurren.

Normalean A/a burua Denb burura igo eta bertan buru biek aditz trinkoa osatzen dutelako hipotesia onartu da. Honek arazo bat dauka: buru horien artean agertzen den *ez* partikulak buruz buruko mugida oztopatu beharko luke eta, ondorioz, aditz sintetikoak ezin izango liriteke ezezko perpausetan eratu; horrelakorik, ordea, ez da gertatzen. Auzi honi konponbide teorikoa topatzea tesi honen mugaz haraindi doa; nolana ere, oraingo lan honetan ontzat emango dut A/a burua Denb burura mugitzen delako ideia. Mugida hau buru mugida luzearen azpikasua bat izan liteke baina nola edo hala gramatikaren hatsarreekin bat datorrena (cf. Leman & Rivero 1990, Albizu 1991); edo ezeztapena biltzen duen buruz buruko mugimenduaren bidez azal liteke agian [A/a-ez-Denb-Jok] buru konplexua sortuz eta, ondoren, barne-berrantolaketa eginez Arregi eta Nevinsen (2012) ildotik¹¹ osagai horien arteko azaleko linearizazioa lortuta.¹² Alabaina, hurbilketa guztiek arazoak dituzte eta etorkizunerako utzi beharko da auzi hau argituko duen ikerketa.

Euskal gramatikaren oinarritzko analisi eta ideia hauek (perpaus mailako hitz-ordena, ezeztapena eta aditzen eratorpena) argituta, galderen analisiari ekingo diot hurrengo atalean.

2.3 Euskarazko galderen analisia

Aurretik (§2.2.1) aditzera eman dudanez, euskarak SOA hurrenkera neutroa du (de Rijk 1969; Villasante 1980; Elordieta 2001; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; Pastor 2019, besteak beste); hala ere, hurrenkera hau ez da zurruna eta bestelako ordenak gauza daitezke. Esaterako, polaritatezko eta *nz*-galderetan A1 eta A2 efektuak suma daitezke (Ortiz de Urbina 1989; 1994; 1995):

- (19) Zuk Bilbon afalduko duzu.
- (20) [Afalduko duzu_i] zuk Bilbon t_i?
- (21) [Non_i] [afalduko duzu_j] zuk t_i t_j?

¹¹ Arregi eta Nevinsek (2012: 335-336) partikula modaletarako proposatzen duten antzeko eratorbidea egon liteke ezeztapenak agerian duen hitz-ordenaren atzean. Zoritxarrez autore horiek ez dute ezeztapena lantzen, ezta aditz trinkoak ere; beraz, hau aieru bat besterik ez da.

¹² Hirugarren bide batean *ez* bera Ezeztapen Sintagmaren espezifikatzailean sortuko litzateke; alabaina kasu horretan klitiko gisa funtzionatuko luke. Honek azalduko luke zergatik ez lukeen A/a buruaren igoera galaraziko.

Datu horietatik abiatuta, badirudi euskarazko galderak mugida sintaktikoaren bitartez eratzen direla; alabaina, tesi honek itaunetan azaltzen diren galdera partikulak ditu aztergai. Baliabide bi horiek, itaunen mugidak eta galdera partikulak, lotu zituen Chengek (1997) bere tesian; beraz, arreta merezi du Chengen hipotesia berrikustea. Autore honek hizkuntzak talde bitan banatzen ditu perpaus mota zehazteko baliabideen arabera: a) *nz*-hitzaren mugidaren bidez perpaus mota zehazten dutenak, eta b) galdera partikulak erabiliz perpaus mota markatzen dutenak. Mekanismo hauek banaketa osagarrian ei daude; horrenbestez, *nz*-hitzaren mugimendua duen hizkuntza batek ez luke galdera partikularik eduki beharko eta, alderantziz, galdera partikulak dituzten hizkuntzetan ez litzateke *nz*-hitzaren mugida beharrezkoa izango, perpaus mota zehaztuta bailegoke. Horiek horrela, euskara hipotesi horren kontraadibide bat izango litzateke.

Honez gain, Chengek (1997) bi motatako galdera partikulak (edo bere terminologiari jarraituz *partikula markatzaileak* [ing. *typing particles*]) bereizten ditu: polaritatezko itaunak markatzen dituztenak edo *bai-ezko partikulak*, eta *nz*-galderak zehazten dituztenak edo *nz-partikulak*. Hala ere, normalean partikula markatzaileak dituzten hizkuntza guztiek ez dituzte mota biak agerian; hainbat hizkuntzak *bai-ezko partikulak* erabiltzen dituzte baina *nz*-partikularik gabe eratzen dituzte zati galderak. Chengek (1997: 23-24) horrelako kasuetarako proposatzen du, partikula agerian ez bada ere, morfonologikoki gauzatu gabea dela ulertu behar dela. Ondorioz, hizkuntza batean *bai-ezko galdera partikulak* egoteak *nz*-partikula edukitzea dakar eta alderantziz ere bai; *nz*-partikula badauka, *bai-ezko partikula* ere eduki behar nahitaez. Honek perpaus mota markatzeko hatsarreaki batasuna eta homogeneousutasuna ematen dio, *Q*-partikulak¹³ eta *nz*-mugida kontrajarrita.

Brueningek (2007) ezaugarri horiek tipologikoki behatu ondoren, Chengen (1997) hipotesia deuseztatzen du, Ultanen (1978) eta Haspelmath eta besteren (2005) datuak baliatuz. Izan ere, datu horiek erakusten dute Chengek aldarrikatzen duen hatsarreak arazoak dituela: alde batetik, hizkuntzen % 60-70ek *Q*-partikulak dituztelako, direla *in situ* hizkuntzek, direla mugimendua agerian duten hizkuntzek; beste alde batetik, Haspelmath eta besteren (2005) datuetako *nz*-mugimendudun hizkuntzei hurbilago begiratuz gero, hizkuntza partikuladunak partikulagabekoak baino gehiago direla ohartarazten digulako, 123 eta 53

¹³ *Q*-partikula terminoa deritzet galdera perpausak markatzeko balio duten partikulei, direla polaritatezko galderak, direla *nz*-galderak markatzeko.

2. Abiapuntu teorikoak eta metodologikoak

hurrenez hurren. Desoreka honetan oinarrituz, Brueningek (2007) Chengen (1997) hipotesia baztertu behar dela ondorioztatzen du.

Honez gain, hizkuntzek ez dute baliabide bat eta bakarra erabili ohi, frantsesak kasu:

- (22) Que fais -tu?
zer egin.OR zu.NOM
'Zer egiten duzu?'
- (23) Qu' {est-ce que} tu fais?
zer.P zu.NOM egin.OR
- (24) Tu fais quoi?
zu.NOM egin.OR zer
- (25) Fais -tu de surf?
egin.OR zu.NOM PART surf
'Surfa egiten duzu?'
- (26) {Est-ce que} tu fais de surf?
P zu.NOM egin.OR PART surf
- (27) Tu fais de surf?
zu.NOM egin.OR PART surf

Adibide hauek erakusten dutenez, frantsesak modu bat baino gehiago ditu eskura galderak osatzeko. *Nz*-galderetan hiru bide dokumentatzen dira: a) *nz*-hitzaren eta aditzaren mugimendua (= 22), b) *nz*-mugida eta Q-partikula batera agertzea (= 23), eta c) *nz-in situ* (= 24). Polaritatezko galderei dagokienez, hiru eratorbide ere badaude: a) aditzaren aurreratzea (= 25), b) Q-partikula (= 26), eta c) perpaus deklaratioben sintaxia baina galderen prosodia (= 27). Hau aintzat hartuta, zaila da Chengen (1997) hipotesia mantentzea, proposizioak markatzeko baliabide desberdinak daude eta. Dena den, aukera horien artean pragmatikaren aldetik ere badago aldea: esaterako, (22-24) adibideen artean aurreste eta *exhaustibitate* maila desberdinak daude (Duguine eta Irurtzun 2010). Halaber, (24) bezalako erabilerek murriztapenak erakusten ei dituzte (Kaiser 2019). Ildo horretatik, gramatika lanetan *galdera partikula* deritzetenei dagokienez, Xiangek (2012) dio hizkuntza gutxik dituztela sintaktikoki proposizio bat galderatzat markatzen duten partikulak, gehienetan galdera partikulatza jo ohi

diren horiek hiztunaren edota entzulearen jarrera adierazten baitute; hots, euren funtzioak lotura handiagoa du pragmatikarekin sintaxiarekin baino.¹⁴

Euskarazko hizkera batzuetara berriro joz gero, Chengen (1997) hipotesia ez bide da betetzen, Q-partikula eta *nz*-hitzaren mugida batera gertatzen baitira:

(28) [Non_i] [afalduko duzu_j] zuk t_i t_j? (= 21)

(29) [[Afalduko duzu_j]-a] zuk Bilbon t_i? (cf. 20)

Ekialdeko hizkerak har ditzagun adibide; bertan *-a* partikularen bidez markatzen da perpaus mota¹⁵ (Darrigol 1827; Archu 1853; Euskaltzaindia 1987; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003) baina aditz multzoaren aurreratzea ere gauzatzen da, partikularik gabeko euskalkietan bezala. Hortik abiatuta, Chengi (1997) jarraituz, (28) adibideak *nz*-partikula agerian ez daukan arren, morfonologikoki gauzatu gabeko partikula dagoela onartu beharko litzateke eta, ondorioz, ez litzateke *nz*-mugidarik egon beharko. Hala ere, (28) adibidean islatzen den bezala, *nz*-hitza ez ezik, aditz multzoa ere mugitzen da ekialdeko hizkeretan, gainerakoetan bezala. Gauzak horrela, euskarak Chengen (1997) hipotesiaren kontra egiten du. Dena den, Chengek dioenez, partikulak eta mugida agerian dituzten hizkuntzen kasuan mugimenduaren arrazoia ez da perpaus mota zehaztea, bestelako helburua eta kokagune sintaktikoa eduki behar du mugitutako osagaiak. Esate baterako, Chengek (1997) Egiptoko arabiera eta Indonesiako bahasa hizkuntzak aztertzen ditu eta partikula ez ezik, mugida ere badagoela ematen du aditzera; horrek bere hipotesiaren kontra egingo luke. Egoera horri erantzuna emateko, mugida egitura zatitu (ing. *cleft structure*) baten ondorioa dela proposatzen du eta, beraz, ez luke perpaus mota zehazteko betebeharrarekin zerikusirik edukiko. Euskaraz ez du ematen egoera hori dugunik, Duguinek eta Irurtzunek (2014) plazaratzen duten bezala, ekialdeko

¹⁴ Balusu (2019) antzeko ondiora heltzen da teluguerazko galdera partikulei dagokienez: *-aa* partikula markatzaile interrogatibotzat jo da hizkuntza horren gramatika lanetan; alabaina, autoreak argudiatzen du hautazkoa izateak eta erabilera desberdinek pragmatikarekin lotuta dagoela iradokitzen dutela eta ez litzatekeela baliabide sintaktiko soiltzat hartu beharko.

¹⁵ Irakurleari ohartarazi nahi diot *perpaus mota* terminoa ez dela *indar ilokutibo*arekin nahastu behar; bien arteko aldea *declarative rising interrogatives* direlako galderetan hautematen da erraz: mota horretako galderen indar ilokutiboa galderazkoa den arren, perpaus motari dagokionez perpaus deklaratiiboak dira. Bestalde, benetako galdera neutro bat indar ilokutiboaren nahiz perpaus motaren aldetik galderazkoa da.

hizkeretan (28) bezalako egituraz gain, semantikoki behintzat zatituztat har litekeen beste bat baitago:

(30) [Non_i] [duzu_j] zuk t_i afaldu t_j?

Horiek horrela, ezin da (28) egitura zatitua dela onartu. Chengi (1997) jarraituz arestian adierazi dudana bezala, *nz*-hitzaren mugidaren arrazoia ezingo litzateke perpaus mota zehaztea izan, euskaraz *nz*-itaunek galdera partikula edukiko bailukete, agerikoa ez bada ere. Beraz, *nz*-hitzaren mugimendu horren helburua bestelakoa izan beharko da; aurrerago (§2.4) gai honi berriro helduko diot.

Labur-zurrean, Chengen (1997) hipotesia ez da hain sendoa, Brueningek argudiatzen duen bezala. Tesi honen ikergaiari dagokionez, azken lerroetan zehar ideia bi nabarmendu nahi izan ditut: bateko, Q-partikulak dituzten hizkuntzetan *nz*-mugida gauzatu gero, ez da perpaus mota zehazteko eginkizunarekin lotuta egongo; besteko, tradizionalki galdera partikulatuz jo direnek pragmatikarekin zerikusi handiagoa dute sintaxiarekin baino. Jarraian euskalaritzan proposatutako galderen eratorpena jorratuko dut.

2.3.1 Galdera zuzenen eratorbidez

Gramatika sortzailean autore gehienak (Laka eta Uriagereka 1987; Ortiz de Urbina 1989; Albizu 1992; Artiagoitia 1994, besteak beste) (28) eta (29) adibideetan ezkererako mugida dagoelako ideian bat datozela diosku Artiagoitiak (2000); kokaguneari dagokionez, Konplementatzaile Sintagma identifikatu izan da mugida horren helmugatzat (Ortiz de Urbina 1989; 1999b; Artiagoitia 2000; Irurtzun 2007). Mugidaren eragilea *nz*-galderen kasuan *nz*-hitzak duen [nz] tasuna dela proposatzen du Ortiz de Urbinak (1992; 1999a; 1999b; 2008); berau [espez, KonpS] gunera mugitzen da eta tasun hori erkatzeko asmoz [A-Denb] multzoa mugiarazten du:

(31) [KonpS [DenbS [Denb' [aS zuk non_{nz} afalduko] duzu_{nz}]]] > [KonpS non_{nz} [Konp' [Konp afalduko duzu_{nz}] [DenbS [Denb' [aS zuk non afalduko] [Denb duzu]]]]]]


Polaritatezko galderei dagokienez, Ortiz de Urbinak (1995) dio kasu honetan ere osagai bik [nz] tasuna dutela: batetik, [espez, KonpS] gunean kokatuta dagoen operatzaile batek eta, bestetik, Denb buruak; tasunak harreman hurbilean erkatu behar dituztenez, operatzaileak [A-Denb] osagaia Konp burura bereganatzen du:

(32) [_{KonpS} Operatzailea_{nz} [_{Konp'} [_{Konp} [_{DenbS} [_{Denb'} [_{aS} zuk Bilbon afalduko] [_{Denb} duzu_{nz}]]]]] > [_{KonpS} Operatzailea_{nz} [_{Konp'} [_{Konp} afalduko duzu_{nz}] [_{DenbS} [_{Denb'} [_{aS} zuk Bilbon afalduko] [_{Denb} duzu]]]]

Beraz, bai *nz*-galderei, bai polaritatezko galderei dagokienez, eratorbide antzekoa dugu: [espez, KonpS] gunean operatzaile bat dago (*nz*-galderetan hara mugitu baita *nz*-hitza eta bai-ezko galderetan bertan kokatzen baita operatzailea) eta, gainera, berorrek Denb buruarekin tasunak erkatu behar ditu harreman hurbilean; hori dela eta, aditza Konp burura igotzen da.

Ondorengo lan batean Ortiz de Urbinak (1999b) Rizzik Konplementatzaile Sintagmaren gainean proposatutako hipotesia onartuz, lehen Konplementatzaile Sintagman kokatzen zituen *nz*-hitzak, fokuak eta polaritatezko galderetako operatzailea konplementatzaile zabalduaren sintagma berrietan banatzen ditu: lehenengo biak Foku Sintagman eta azkena Indar Sintagman hain zuzen. Honela banatzen da ezker periferia osagai hauei dagokienez:

(33)



Ortiz de Urbinak (1999a; 1999b) egitura fokudunez eta polaritatezko galderaz dakartzan analisiak aintzat hartuta, badirudi galdera absolutuak (edo *polaritatezko galderak*) eratortzeko modu bi daudela: bateko, perpausaren osagai bat fokua denean, aditza Fok burura mugitzen da eta han [fok] tasuna erkatzen dute fokua eta aditzak; eta, besteko, fokurik gabeko polaritatezko galderen kasuan [espez, IndarS] gunean dagoen operatzaileak Indar burura erakartzen du Denb burua barne duen aditza, biek duten [nz] tasuna erkatzeko asmoz. Gauzak horrela, osagai bat fokalizatuta duen polaritatezko galdera batean aditza FokS-ra mugitu ondoren, Indar burura igo beharko litzateke; hala ere, ez dago horren aldeko ebidentziarik, horrelako galderetan aditza fokua ostean azaltzen baita:

(34) [BILBON_i] [afalduko duzu_j] gaur zuk t_i t_j?

Arazo horri 2.4.1 azpiatalean ekin baino lehen, mendeko testuinguruetan agertzen diren *nz*-galderen eta galdera absolutuen analisisa aztertuko dut jarraian.

2.3.2 Mendeko galderen eratorpenaz

Mendeko perpausetan bi jokabide ikus daitezke: *nz*-galderetan *nz*-hitza eta aditz multzoa beti aurreratuta agertzen dira (= 35); izan ere, *nz*-hitza aurreratuta eta aditza *in situ* agertuz gero, ezgramatikala izango litzateke perpausa euskara estandarrean eta Hego Euskal Herriko hizkeretan (= 36). Bestalde, galdera absolutuetan aditz multzoa ez da aurreratzen; aitzitik, perpausaren amaieran azaltzen da (= 37):

(35) Ea [nora]_i [joan diren]_j haurrak [~~nora~~]_i [~~joan diren~~]_j galdetu dute.

(36) *Ea nora haurrak [~~nora~~]_i joan diren galdetu dute.

(37) Ea haurrak Uztaritzera joan diren galdetu dute.

Hala ere, hirugarren testuinguru bat dago, alegia *nz*-hitza ez den osagai bat fokalizatuta duten polaritatezko galderena. Kasu horretan fokua aurreratzen da eta, testuinguru zuzenetan bezala, aditza ere bai:

(38) a. Ea [UZTARITZERA]_i [joan diren]_j haurrak [~~UZTARITZERA~~]_i [~~joan diren~~]_j galdetu dute.

b. *Ea UZTARITZERA haurrak [~~UZTARITZERA~~]_i joan diren galdetu dute.

Honelako zehar galderek eta mendeko *nz*-galderek jokabide bera erakusten dute, testuinguru zuzenetan bezala. Beraz, analisi sintaktikoari begira, antzeko eratorbidea proposa liteke: Rizziren (1997) proposamena egokituta, [*nz*] edo [fok] tasuna duen osagaia [espez, FokS] gunera mugitzen da eta delako tasunak erkatzeko [A-Denb] multzoa Fok burura aurreratzen da; esaterako:

(39) [IndarS [Indar' [Indar ea] [FokS [Fok' [Fok] [JokS [DenbS [AS haurrak {nora/ UZTARITZERA} joan] [Denb dira] [Jok -(e)n]]]]]] > [IndarS [Indar' [Indar ea] [FokS {nora /UZTARITZERA} [Fok' [Fok joan diren] [JokS [DenbS [AS haurrak {~~nora~~/UZTARITZERA} joan] [Denb ~~dira~~]] [Jok ~~-(e)n~~]]]]]]]]

Fokurik gabeko polaritatezko galderetan, ordea, ez da mugidarik sumatzen; ondorioz, Ortiz de Urbinak (1995; 1999b; 2008) proposatzen du horrelako galderetan [espez, IndarS] gunean dagoen operatzaileak perpaus nagusiko aditzarekin erkatzen duela [nz] tasuna; ondorioz, galdera zuzenetan ez bezala, ez da beharrezkoa aditza Indar burura mugitzea:

(40) [AS [IndarS Operatzailea[nz] [Indar' [Indar ea] [JokS [DenbS [AS haurrak Uztaritzera joan] [Denb dira]] [Jok -(e)n]]]] [A galdetu[nz]]] > [AS [IndarS Operatzailea[nz] [Indar' [Indar ea] [JokS [DenbS [AS haurrak Uztaritzera joan] [Denb dira-] [Jok joan diren]]]] [A galdetu[nz]]]

Atal honetan (§2.3) galdera zuzen eta zehar galderen analisia berrikusi dut Ortiz de Urbinaren (1989; 1992; 1994; 1995; 1999a; 1999b; 2008) ildotik; hala ere, gabezia bi sumatzen ditut; batetik, fokurik gabeko galdera absolutuetan operatzaileak markatzen du galdera dela baina *nz*-galderetan, aldiz, ez du aipatzen horrela markatzen duenik; eta, bestetik, fokua duten bai-ezko galderetan operatzailearen eta aditzaren arteko ondokotasuna ez da gauzatzen, lehenengoa IndarS-n eta bigarrena FokS-n baitaude. Ondorioz, eratorbide bi daude mota bereko galderetarako. Hurrengo atalean, gabezia hauek gogoan, minimalismoaren barruan galderen analisi bat proposatuko dut.

2.4 Galderen analisi berri baterantz

2.4.1 Galdera zuzenak ikuspegi gaurkotutik

Azpiatal honetan euskarazko *nz*-galderen eta polaritatezkoen analisia berrikusi ondoren, azterketa berri bat proposatuko dut. Ezer baino lehen, galdera mota bietan [Q] tasuna duen burua Konplementatzaile Sintagman dagoela aldarrikatzen dut. Bestalde, Rizziri (1997) jarraituz, KonpS fokua edo topikoa daudenean bakarrik zabaltzen delako ideia onartzen dut; gogora dezagun Rizzik proposatutako sintagmak zelan artikulatzen dituen Ortiz de Urbinak (1999b; 2008) euskarari begira:

(41) [IndarS Indar [TopS Top [FokS Fok [JokS [DenbS] Jok]]]]

KonpS hedatuta agertuz gero, [Q] tasuna duen osagai bat Jokatusun buruan azaltzen da (Monforte 2015), *-(e)n* edo *-(e)la* menderagailuak azaltzen diren moduan (Ortiz de Urbina 1999b; 2008). Honez gain, Indar buruan Jokatusun buruarekin lotura duen buru isil bat dagoela proposatuko dut (cf. Artiagoitia eta Elordieta 2016). Buru honek perpaus mota (deklaratioa, galdera, agintera...) markatzea du helburu eta Jok buruarekin balioa komunztatzen du: galdera bada, \emptyset agertzen da Jok buruan; harridurazko balioa badu, *-(e)n* edo *-(e)la* azaltzen dira Jokatusun buruan. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

(42) GOIZEAN joan haiz?

[IndarS [Indar \emptyset [Q]] [FokS GOIZEAN_[fok] [Fok' [Fok joan haiz] [JokS [DenbS [AS GOIZEAN_[fok] joan] [Denb haiz]] [Jok \emptyset [Q]]]]]]]

(43) ZEIN GOIZ joan haizen!

[IndarS [Indar \emptyset [Harr]] [FokS ZEIN GOIZ_[fok] [Fok' [Fok joan haizen] [JokS [DenbS [AS ZEIN GOIZ_[fok] joan] [Denb haiz]] [Jok -en [Harr]]]]]]]

Indar Sintagmaren eta Jokatusun Sintagmaren arteko komunztadura dagoelako ebidentzia gaskoieran topatzen dugu. Hizkuntza honetan perpaus nagusi deklaratioetan *que* partikula agertu behar da:

(44) (*Que) parli gascon.

P mintzatu gaskoiera

‘Gaskoiz hitz egiten dut.’ (Morin 2013: 139)

Morinek (2013) adierazten duen bezala, *que* ez esateak ezgramatikaltasuna dakar. Gainera, topikoa egonez gero, berau *que* horren aurretik azaldu behar da; are gehiago, *que* eta aditz jokatua beti elkarren ondoan izan behar dira:

(45) Maria que parla gascon

Maria P mintzatu gaskoiera

‘Mariak, gaskoieraz hitz egiten du.’ (Morin 2013: 139)

2. Abiapuntu teorikoak eta metodologikoak

Jokabide bera antzematen da galderazko eta harridurazko partikuletan, *e* eta *be* hurrenez hurren:

- (46) Maria *(e) parla gascon?
Maria P mintzatu gaskoiera
'Mariak, hitz egiten du gaskoiera?' (Morin 2013: 140)
- (47) Maria *(be) canta plan!
Maria P abestu ondo
'Mariak, zein ondo abesten duen!' (ibidem)

Ebidentzia honetan oinarrituta, Morinek (2013) aldarrikatzen du *que*, *e* eta *be* partikulek Jokatutasun burua okupatzen dutela. Mendeko perpausetako datuek ere egiten ei dute kokagune honen alde. Testuinguru hauetan, topikorik egon ezean, ezin dira partikula¹⁶ horiek agertu, menderagailua bakarrik azalduko da:

- (48) Que convenem [que (*que) m'apèras].
P adostu MEND P 1SG.AK.deitu
'Deituko didazula adosten dugu.' (Morin 2013: 142)
- (49) Que 'm demandi [se (*e) drom lo gat].
MEND 1SG.DAT galdetu MEND P lo.egin ART katu
'Katua lotan ote dagoen galdetzen diot neure buruari.' (ibidem)

Hala ere, topikoa agertuz gero, menderagailuak eta partikulak, biak, nahitaezkoak ei dira, lehenengoak topikoaren aurretik eta bigarrenak horren ondoren:¹⁷

- (50) Que soi segur que las arhagas *(que) son maduras
P nago ziur MEND ART marrubi P izan helduak
'Marrubiak helduak direlako ziur nago.' (Morin 2013: 142)

¹⁶ Termino hori darabil Morinek (2013) *que*, *e* eta *be* osagaiak adierazteko.

¹⁷ Antzeko banaketa erakusten du piedmonterak (Poletto 2000: 61): mendeko testuinguruek menderagailu bi eduki ditzakete eta bien artean azaltzen diren osagaiak fokuarekin edo topikoarekin daude lotuta.

- (51) Que 'm demandi [se lo gat *(e) drom].
 P 1SG.DAT galdetu MEND ART katu P lo.egin
 'Katua ea lotan ote dagoen galdetzen diot neure buruari.' (ibidem)

Topikoen, partikulen eta konplementatzaileen arteko jokabidea kontuan hartuta, Morinek (2013) honako banaketa proposatzen du:

- (52) [IndarS *que*... [GaldS *se* [TopS [JokS [*que/ e/ be*] [DenbS]]]]]

Topikorik ez badago, orduan, Jokatusun burua Indar burura mugitzen dela dio, [indar*] tasuna erkatzeko, helburu horretarako bertan osagai bat sortu beharrean:

- (53) [IndarS \emptyset _[uIndar] [JokS *que*_[Indar] [DenbS]]] > [IndarS *que*_{[Indar]i} [JokS *t*_i [DenbS]]]

Topikoa egonez gero, Jokatusun burua ezin da [uIndar] tasuna zilegiztatzeko Indar burura igo, Top buruak mugida oztopatzen baitu eta, ondorioz, IndarS-n burua morfologikoki gauzatzen da:

- (54) [IndarS \emptyset _[uIndar] [TopS [Top] [JokS *que*_[Indar] [DenbS]]]]] > [IndarS *que*_[Indar] \emptyset _[uIndar]] [TopS [Top] [JokS *que*_[Indar] [DenbS]]]]]

Gaskoiak eskaintzen dituen datuak eta Morinen (2013) banaketa sintaktikoa baliagarriak iruditzen zaizkit eta neure gain hartuko ditut, kasurako: KonpS zabalduta dagoenean, IndarS eta JokS gauzatzen direla eta bien artean nolabaiteko komunztadura dagoelako ideiaz baliatuko naiz.

Halaber, Konplementatzaile Sintagma, fokua edo topikoa egonez gero, IndarS eta JokS morfonologikoki berezita gauzatzen direlako ebidentzia galeseran eta japonieraz topatzen dugu (Rizzi 2004; Roberts 2004; Adger 2007; Kuwabara 2013):

2. Abiapuntu teorikoak eta metodologikoak

- (55) Dywedais i *mai* [‘r dynion] a fuasai’n gwerthu’r ci.
esan ni MEND ART gizonak P ASP saldu-ART txakur
‘Esan nuen gizonak salduko zuela txakurra.’ (Roberts 2004: 301-302)
- (56) a. Kono tokei-wa PRO Pari-de katta no (desu) (ka)
hau erloju-TOP Paris-IN erosia MEND FP Q
‘Erosi zenuen erloju hau Parisen?’
- b. [IndarS_[TopS] Kono tokei-wa [FokS_[JokS] [DenbS] PRO Pari-de katta][Jok no]] [Fok (desu)]]
[Top]] [Indar (ka)] (Kuwabara 2013: 100)

Beraz, tipologikoki frogatuta geratzen da Indar eta Jokatusun buru biak gauzatuta azal daitezkeela eta euren arteko komunztadura eta koherentzia gertatzen dela; alegia, gaskoieraz *se* eta *que* ez dira bateragarriak, perpaus mota desberdineko osagaiak dira eta:

- (57) Que ‘m demandi [se lo gat e / *que drom].
P 1SG.DAT galdetu MEND ART katu P *P lo.egin
‘Katua ea lotan ote dagoen galdetzen diot neure buruari.’ (Morin 2013: 142)

Gatozen euskarazko galderen analisiaren harira; arestian esan dudanez, [Q] tasuna duen osagai bat Jokatusun buruan kokatzen da. Dena den, balio hori Indar Sintagmatik datorkio, gaskoierazko eta galeserazko datuak aintzat hartuz, Jokatusun Sintagma eta Indar Sintagmak lotuta baitaude. Hots, Indar buruak perpaus mota ezartzen du eta, Jokatusun Sintagmaren [perpausmota:_] tasun hori balioztatu ondoren, bertan perpaus motari dagokion burua gauzatzen da, \emptyset , *-(e)la* edo *-(e)n*; kasu honetan galderak jorratzen ditudanez, \emptyset burua perpaus nagusietan eta *-(e)n* zehar galderetan agertzen dira:

- (58) [IndarS \emptyset _[Q] [JokS [DenbS] \emptyset _{[u_{perpausmota: _}]]]] > [IndarS \emptyset _[Q] [JokS [DenbS] \emptyset _[u_{perpausmota: Q}]]]]}

Ondoren, Jok buruan sortu berri den osagaiak [Denb*] tasuna duela proposatzen dut, menderagailuek aditz jokatuekin bat egiteko beharrean oinarrituz; tasun hau sendoa denez, harreman lokalean erkatu behar da, Denb buruaren Jok bururako mugida eraginda (cf. Arregi eta Nevins 2012):

- (59) [IndarS Ø_[Q] [JokS [DenbS [aS] [Denb_{[Denb]]] Ø_[Q, Denb*]]] > [IndarS Ø_[Q] [JokS [DenbS [aS] [Denb_{[Denb]]] Denb_[Denb] Ø_[Q, Denb*]]]}}

Behin perpausari galdera izaera emanda, galdera mota zehaztu beharko litzateke: dela *nz*-galdera, dela polaritatezko galdera. Ortiz de Urbinak (1995) lehenengoei eta bigarrenei [*nz*] tasuna esleitzen die; tasun hau Adgerren (2003) [Q] tasunarekin pareka liteke. Hala ere, analisi honetan Adgerren (2003: 350-351) ildotik [*nz*] tasunaz ere baliatuko naiz *nz*-galderak eta polaritatezko galderak bereizteko: lehenengoetan tasun hau duen *nz*-hitz bat azaltzen da eta bigarrenetan, ordea, ez. Euskarazko galdera partikulei begira, *-a* eta *al* bigarrenetan bakarrik erabil daitezke, hots *nz*-hitzik gabekoetan:

- (60) Nor joango da Leitzara? vs. *Nor joanen dea Leitzara? / *Nor joango al da Leitzara?
 (61) Joan da Maite Leitzara? / Joan al da Maite Leitzara? / Joan dea Maite Leitzara?

Lehen esan bezala, euskaraz *nz*-hitzak ez ezik, aditz jokatua ere aurreratzen da *nz*-galderetan; tradizionalki, osagai fokalizatua Foku Sintagmaren espezifikatzaile gunera eta aditz jokatua Foku burura mugitzen direla aldarrikatu izan da, azken hau tasunak erkatzeko asmoz. Analisi honetan proposatzen dut *nz*-hitzek [*nz*] eta [fok*] tasunak dituztela eta Fok buru isilak [fok] tasuna duela. Eratorbidea honelakoa izango litzateke: *nz*-hitza ezker periferiara mugitzearekin batera, Foku Sintagma aktibatzen da eta bere espezifikatzaile gunea okupatzen du *nz*-hitzak;¹⁸ kokapen honetatik [fok] tasuna duten osagaiak harreman lokalean daude, beraz tasunak erka ditzakete. Ikus hurrengo adibidea:

- (62) [IndarS [Indar] [FokS [Fok Ø_[fok]] [JokS [DenbS [AS *nor*_[nz, fok*] *Leitzara joan*] [Denb [or.3sg.abs]] [Jok Ø]]]] > [IndarS [Indar] [FokS *nor*_[nz, fok*] [Fok' [Fok Ø_[fok]] [JokS [DenbS [AS ~~*nor*~~_[nz, fok*] *Leitzara joan*] [Denb t_i] [Jok *da_i*]]]]]

¹⁸ Aurretik (§2.3) Chengen (1997) ustez mugida eta partikulak agerian dituzten hizkuntzetan mugidaren arrazoia ezin dela perpaus mota markatzea eman dut aditzera; hitz horiek oraingo analisiarekin datoz, ezker periferiarako mugimendua [fok] tasuna dela eta gauzatzen baita.

Buru isil horren ebidentzia beste hizkuntza batzuetan topa daiteke: esaterako, somalieraz *baa* partikula fokaltzat jotzen ei da (Frascarelli eta Puglielli *apud* Cruschina 2012: 190) eta, ildo bertsuan, kitxueraz *qa* partikularen bidez topikoa markatzen ei da (Faller 2002).¹⁹

Oraingo galdera da zergatik aurreratzen den aditz multzoa, [fok] tasunak erkatuta badaude: analisi honetan Fok buruak [jok*] tasuna duela proposatzen dut; tasun honek jokatuta dagoen aditza erakartzen du. Arregi eta Nevinsen (2012) ildotik, aditz jokatua ez da Denb buruan gauzatzen, Konp/Jok buruan baizik; aditz jokatua Jok buruan guztiz osatzen dela aldarrikatzen dut. Honez gain, bertan [Denb*] tasuna dago, eta beraz Denb burua Jok burura igotzen da tasunak harreman hurbilean erkatzeko asmoz, buru biek bat eginez. Alegia, Jok buruan morfonologikoki gauzatuta agertzen diren morfemak, e.g. *-(e)n / -(e)la*, ez dira beregainak; aitzitik, Denb buruarekin bat egin behar dute.

- (63) a. Ama sartu eta aita irten dela esan didate.
b. Ama sartu dela eta aita irten dela esan didate.
c. *Ama sartu *-(e)la* eta aita irten dela esan didate.


Ondorioz, Jok buruak erakartzen du, buru biek bat egin dezaten. Beraz, honako eratorbidea proposatzen dut:

¹⁹ Japoniera ere ezaguna da topiko markatzaile bat edukitzeagatik; hala ere, Vermeulenek (2013) *wa* morfema topikoekin batera agertzen den arren, bestelako kokaguneetan ere azal daitekeela eta, ondorioz, ez litzatekeela topiko markatzailezat jo beharko argudiatzen du.


Bestalde, Konstantzako unibertsitatean egindako egonaldian Ghanako ga hizkuntza aztertua izan zen eskola batean lauhilabeteen zehar; bertan ikasi genuen hizkuntza horretan *ni* partikularen aurrean dagoena fokutzat hartzen dela eta, ondorioz, *ni* partikula fokaltzat hartua izan dela.

(64) Nora joan da?

a.



b.




Fokua duten polaritatezko galderei dagokienez, analisi berdintsua proposatzen dut. Fokua jasotzen duen osagaia AS/aS-tik FokS-ren espezifikatzaile gunera mugitzen da osagai berorren [fok*] tasuna Fok buruan dagoen buru isilaren [fok] tasunarekin harreman lokalean erkatzeko asmoz.²⁰ Bestalde, Fok buruak [jok*] tasuna du eta buru hori erakartzen du; aurretik, IndarS-k Jok buruaren [*uperpausmota*:_] tasuna balioztatzen du eta, era berean, Jok buruaren [Denb*] tasuna harreman hurbilean erkatzen da Denb burua Jok burura erakarriz. Honela garatzen dut hemen azaldutako eratorbidea:


²⁰ Menschingek (2015) eratorbide hau aldarrikatzen du sardinieraz fokua aurreratuta duten egituretarako; hots, hizkuntza horretan ere fokua den osagaia [espez, FokS] gunera igotzen da, baita aditz jokatua Fok burura ere. Mugida hauek [fok] tasunak eragingo lituzke (Mensching 2015).

(65) LARREARA joan da?

a.




b.



Azkenik, fokurik gabeko galdera absolutuen aldetik, fokurik eta topikorik ez dagoenez, Konplementatzaile Sintagma ez dela artikulatzen onetsi beharko litzateke Rizziri (1997) jarraituz. Hala ere, honek alde nabarmena markatuko luke galderen sintaxiari dagokionez: batetik, *nz*-galderetan eta fokua duten horietan ez baitago IndarS-rako mugidarik eta, bestetik, fokua duten galderetan eta *nz*-galderetan ez bezala, aditzaren mugidak perpaus mota zehazten duela ematen baitu. Alegia, aurretik aztertutako galdera motetan *nz*-hitza, fokua edota aditza FokS-ra mugitu eta bertan geratzen direla proposatu eta onartu da, Indar bururako mugidarik aldarrikatu gabe. Horrez gain, gainerako galderetan ez bezala fokurik gabeko polaritatezko galderetan aditza lehenengo posizioan agertzen da eta, hori dela eta, aditza KonpS-ra (edo IndarS-ra) mugitzen dela aldarrikatu izan da (Ortiz de Urbina 1999b; 2008) eta mugida horrek proposizioa galderatzat markatzeko beharrarekin lotua izan da:


(66) Joan da Larreara?



Horrek arazo bi azalarazten ditu: galderen gaineko analisi berean asimetria dago, alegia *nz*-hitzak edo fokua duten galderetan aditzak ez du zertan igo IndarS-ra perpaus mota markatzeko; honez gain, galdera absolutuetan ematen du galderak markatzeko modu bi daudela, agerikoa eta ezkutukoa, aditza Indar burura igotzen den edo, Fok lexikalizatuta duten testuinguruetan, Fok buruan geratzen den aintzat hartuta.

Gauzak horrela, fokurik gabeko polaritatezko galderetara ere Rizziren (1997) hipotesi kartografikoa zabaltzen dut, aditza FokS-n geratzen dela proposatuta. Mugida hau galderek duten fokuari, i.e. galdegaiaren, behararekin lotuko nuke. Alegia, tipologikoki (Cruschina 2012: 190; Holmberg 2014; Siemund 2018: 177) ikusten da galdera absolutuetan edo proposizio osoa (foku zabala) edo osagai jakin bat (foku estua) galderaren fokupean egon behar dela. Euskaraz bigarren kasuan osagai jakin bat FokS-ra mugitzen da eta, honen ondorioz, foku hau beratu eta aditza, elkarren ondoan egon behar baitira. Lehenengo kasuan, ordea, galdera guztiek foku bat behar izateak aditza FokS-ra erakartzen du eta, ondorioz, aditza lehenengo posizioan azaltzen da, perpaus osoa galdegaia dela markatuta.

(67)



Euskarazko galderei ere eratorbide hori aplikatuz gero, honako banaketa edukiko genuke: aditza beti Fok burura igotzen da galderetan; batetik, *nz*-galderetan (= 64b) eta osagai jakin bat fokalizatuta duten galderetan (= 65b) [espez, FokS] gunean dagoen osagaiaren ondoko gunea okupatzeko eta, bestetik, foku zabala duten galderetan (= 67) perpaus osoa fokua edo galdegaia dela markatzeko.

Analisi hori euskarara ekartzeak galdera moten eratorbideari koherentzia ematen dion arren, eragiketa hauek ez dute azaltzen zelan markatzen den proposizioa galderatzat. Auzi honek tesi honen ikergaiarekin lotura zuzenik ez badu ere, balizko eratorpen bat zirriborratuko dut jarraian. Adgerren (2003: 350-353) ildotik, Indar buruan [perpaus mota:] tasuna duen buru isil bat dagoelako hipotesia onartzen dut eta itauna den heinean [Q] tasuna hartzen du; tasun honez gain, Indar buruak [*nz*] tasun ere badauka eta bere o-komando hurbilean [*nz*] tasuna bilatzen du (cf. Adger 2003: 353):²¹ berori topatuz gero, *nz*-galdera legez markatuta geratuko litzateke; bestela, IndarS-ren espezifikatzaile gunean tasun hori erkatuko lukeen operatzaile bat sortuko litzateke, polaritatezko galdera baita. Adgerren

²¹ Adgerrek (2003) [*nz*] tasuna erabilzen du *nz*-hitzen mugida azaltzeko; alabaina planteamendu teoriko honek arazoak dituela aitortzen du Adgerrek. Lehenik, Konp buruak mugida eragin dezan berorri ere [*nz*] tasuna esleitu behar zaio; hala ere, tasun hori hautazkoa izango litzateke polaritatezko galderetan ez bailitzateke beharrezkoa izango. Hori dela eta, Adgerrek (2003) proposatzen du Konp buruak [*nz*] tasuna eduki beharrean, *nz*-hitzek [Q] tasuna dutela eta horrek ezker periferiarako mugimendua eragiten duela. Halarik ere, honek ere arazoak ditu *nz-in situ* galderetan eta *nz*-hitz bat baino gehiago dituzten itaunetan. Azkenik, autore horrek Konp buruak [*nz*] tasuna duelako ideia hobesten du eta bai-ezko galderetan [*nz*] tasuna duen operatzaile bat KonpS-ren espezifikatzaile gunean sortzen dela argudiatzen du, beronek Konp buruarekin tasun hori erkatuko baitu.

(2003: 350-353) analisisian ez bezala, euskarazko itaunetan *nz*-hitza ez litzateke [espez, IndarS] gunera igoko, [nz] tasuna ahula izango bailitzateke. Alabaina, esango nuke azterbide hau nekez jo daitekeela minimalistatzat eta etorkizuneko ikerketak argitu beharko digu zein eragiketak eta tasunek jokatzeko duten galdera mota desberdinak sintaktikoki markatzeko rol bat, bereizketa hori sintaxi mailan gauzatzen baldin bada.

Honaino galdera nagusien analisia; hurrengo azpiatalean zehar galderari begiratuko diet, azpiatal honetan ezarritako oinarriak aintzat hartuz.

2.4.2 Zehar galderak minimalismoaren ikuspegitik

Lehen esan bezala, Ortiz de Urbinak (1999b; 2008) proposatzen du mendeko polaritatezko galderetan [espez, IndarS] gunean operatzaile bat dagoela eta perpaus nagusiko aditzak berarekin tasunak erkatzen dituela; honek horrelako testuinguruetan aditz jokaturia ez mugitzea dakar:

(68) Ea haurrak Uztaritzera joan diren galdetu dute. (= 37)

Bestalde, *nz*-galderetan eta fokua duten polaritatezko galderetan, aditz jokaturia aurreratzen egi da [nz] tasunak erakarrira (Ortiz de Urbina 1999b; 2008):

(69) Ea [nora]_i [joan diren]_j haurrak [~~nora~~]_i [~~joan diren~~]_j galdetu dute. (= 35)


(70) Ea [UZTARITZERA]_i [joan diren]_j haurrak [~~UZTARITZERA~~]_i [~~joan diren~~]_j galdetu dute (= 38)

Aurreko azpiatalean (§2.4.1) aldarrikatutako analisia testuinguru hauei aplikatuz gero, azterketa homogeenagoa lortzen da. Hasteko, perpaus nagusiko aditzak IndarS-ren espezifikatzailean dagoen operatzaile batekin tasunak erkatzen ditu Indar buruari [Q] tasuna ezarriz; Indar-Jok buruen arteko harremana dela eta, Jokatusun buruak [Q] tasuna ere jasotzen du. Honela galdera markatuta gelditzen da. Ondoren, lehen proposatu dudana bezala, Jok buruaren [Denb*] tasuna erkatzeko, Denb burua Jok burura igo behar da. Eratorbide hau galdera mota guztietan aplika liteke, *nz*-galderen eta fokudun galdera absolutuen kasuetan

2. Abiapuntu teorikoak eta metodologikoak


[nz/fok] tasunek eragindako mugidez gain. Eragiketa hauek soilik dituen galdera mota, beraz, fokurik gabeko zehar galdera da; honela abiatuko nuke analisi hau:

(71) (..) Haurrak Uztaritzera joan diren galdetu (...) (= 37)




Gainerako zehar galderei dagokienez, aurreko azpiataleko (46) adibidean mota bereko galderetarako proposatuakoa aplikatzen dut orain. Alegia, *nz*-galderen kasuan, *nz*-hitza aurreratzen da berak eta Fok buruak [fok] tasuna dutelako, lehenengoaren tasuna sendoa delarik; honez gain, Fok buruak [jok*] tasuna ere badu eta aditz jokatuaren mugida eragiten du:

(72) Nora joan diren haurrak galdetu (...) (= 35)



Bestalde, zehar galdera absolutu fokudunetan, fokua jasotzen duen osagaia FokS-ren espezifikatzaile gunera mugitzen da Fok buruaren [fok*] tasunak erakarrita; halaber, buru honek [jok*] tasuna du eta aditz jokatua bereganatzen du:

(73) (...) UZTARITZERA joan diren haurrak galdetu (...) (= 38)



Honaino, beraz, galderen analisi sintaktikorako proposamen berri bat; seigarren eta zazpigarren kapituluetan berriro joko dut eratorbide honetara partikulen analisiari ekitean, baita euren eta indar ilokutiboaren arteko harremana aztertzean ere.

2.4.3 Barruko laburpena

Atal honetan galderen azterketa homogeneous proposatu dut, mota guztietan antzeko tasunek motibatua. Labur-zurrean, hurrengo ideiak nabarmenduko nituzke:

- Indar Sintagmaren eta Jokatutasun Sintagmaren arteko lotura dago, Indar Sintagman perpaus mota ezartzen da eta, Jokatutasun Sintagmarekin komunztatu ondoren, Jok buruan perpaus mota horri dagokion morfema azaltzen da.
- Galderen kasuan, IndarS-n dagoen galdera ezaugarriak bere o-komando hurbilean [nz] hitzik baden bilatzen du, galdera mota zehazteko asmoz.
- Foku Sintagmaren buruan euskaraz osagai isil bat dagoela proposatzen dut, [fok, jok*] tasunak dituen. Sintagma hau aktibatuz gero, buru isil horrek aditz jokatua erakartzen du.

- d. Foku Sintagmara galdegaia mugitzen da, *nz*-galderetan *nz*-hitza eta polaritatezko galderetan fokua jasotzen duen sintagma; galderaren besarkadurak perpaus osoa hartzen badu, aditz multzoa bakarrik igotzen da, A1 efektua lortuta.
- e. Mendeko perpausetan aditzaren mugida fokua eragiten du; Foku Sintagma lexikalizatuta ez badago, aditza *in situ* agertzen da.

Neure gain hartuko ditudan oinarri eta abiapuntu sintaktikoak behin argituta, jarraian garrantzi handikoa den beste arlo bati ekingo diot, i.e. galdera motak ikuspegi pragmatikotik aztertuko ditut.

2.5 Galderak pragmatikaren aldetik

Orain arte ikuspuntu sintaktiko batetik arakatu ditut galderak; orainoan, ordea, hurbilketa pragmatiko batetik abiatuko naiz galderak aztertzeke asmoz. Euskalaritzan orain arte honen inguruko lanik egin ez denez, beste hizkuntza batzuk ardatz hartuta burutu dituzten hiru analisis baliatuko naiz gai hori ikertzeke: Escandell (1987; 1999), Obenauer (2004; 2005; 2006) eta Littell eta beste (2010). Lan horiek hautatzeko arrazoia galderen sailkapena eskaintzean eta eurak ezaugarritzean datza; alegia, ez diote galdera mota jakin bati bakarrik erreparaten. Galderei euren osotasunean begiratzea baliagarria izango da partikulen funtzioa argitzeke, testuinguru horietan eurak zer galdera motatan agertzen diren eta zer aldaketa eragiten duten kontuan hartuz.

2.5.1 Escandellen (1987; 1999) sailkapena

Escandellek (1987) bere doktorego tesian zehar aztertzen ditu galderak; ikuspuntu semantikotik ez ezik, pragmatikotik ere heltzen dio gaiari. Lan horretan jorratzen dituen gaiak eta plazaratzen dituen xehetasun guztiei erreparatzeak luze joko luke. Horixe eta tesi honen helburua gogoan edukita, pragmatikaren aldetik bereizten dituen polaritatezko galdera motak deskribatzera mugatuko naiz jarraian.

Lehenik eta behin, talde handi bi desberdindu behar dira (Escandell 1987; 1999): bateko, galdera neutroak eta, besteko, galdera markatuak. Bien arteko aldeak hiztunaren aurreiritziekin du zerikusia: lehenengoetan hiztunak ez du erantzunaren balioa ('bai' edo 'ez') aurreikusten; bigarrenetan, ordea, bai eta publikoki ematen du aditzera. Puntu honetan

argudia liteke ez dagoela galdera neutrorik, mota horretakoak teorian erraz definitzen diren arren, egunerokoan nekez sortzen baitira. Izan ere, testuinguru ia guztietan hiztunak aurreiritzi edo desio bat edukitzen du. Hala ere, Escandellek honela definitzen du galderen neutrotasuna: hiztunaren xede ezkutuak edo jarrerak albo batera utzita, entzuleak hiztunarekin (hiztunaren asmoekin alegia) bat egiteko helbururik ez duten testuinguruak hartzen ditu neutrotzat. Bestalde, helburu hori agerikoagoa bada, orduan galdera horiek markatuak dira. Talde horien barruan bestelako multzoak identifikatzen ditu Escandellek (1987; 1999).

Galdera neutroen multzoan informazioa eskuratu nahi duten galderak (hemendik aurrera informazioa eskuratzeko galderak) eta ekintza jakin bat gauzatzea nahi duten galderak kokatzen ditu; kasurako:

(74) Zinemara etorriko zara?

(75) Emango didazu lata gorri hori (, mesedez)?

Hiztunak (74) galderan informazioa (bai zinerama etorri / ez zinemara etorri) lortu nahi du; (75) galderan, aldiz, entzuleak lata gorri bat eman diezaiola nahi du. Escandellek dio bietan azken finean ekintza bat eskatzen dela, (74) bezalakoetan hizketa ekintza eta (75) adibidearen modukoetan ekintza ez-hitzezkoa. Galderetako hurbilketa horrek ez ditu beste propietate nabarmen batzuk kontuan hartzen, esaterako, zergatik galdetzen den horretaz edo zenbat dakien hiztunak itaundutako proposizioaz. Izan ere, ezaugarri horiek azpimultzo gehiago lekartzakete, hala nola benetako galderak, azterketa galderak, kritikazko galderak edo galdera berandutuak.

Escandellek (1987; 1999) bereizten duen galdera markatuen taldean hiztunak azalean uzten du ez dela guztiz ezjakina proposizioaren gainean eta neurri batean erantzun jakin baterako gidatzen du entzulea. Talde honetan lau multzo bereizten ditu erantzunaren segurtasun mailaren arabera: berrespenezkoak, hipotetikoak, erretorikoak eta harridurazkoak. Ondoren banan-banan deskribatuko ditut.

Berrespenezkoek beti ezezko perpausaren forma dute baina hiztunak kontrako balioa, i.e. baiezkoa, aurreuposatzen dio. Horrelakoetan hiztunak ez dio entzuleari informazioa

eskatzen; aitzitik, hiztunak nahi du berak adierazten duen iritzia entzuleak berrets dezan. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

(76) No es una maravilla?

(77) Ez duzu uste txarto portatu dela gurekin?

Hipotetikoetan ere ezeztapena topa dezakegu,²² baiezkoak ere izan daitezkeen arren. Berrespenezkoek ez bezala, hauek ez dute proposizioaren kontrako baliorik adierazten. Hots, baiezkoa bada, baiezko erantzuna bideratzen du; ezezkoa bada, ordea, ezezko erantzuna. Honez gain, hiztunak ez du informazioa bilatu edo iritzi bat berretsi nahi; aitzitik, kasu honetan ebidentzietan oinarritutako hipotesia egiaztatzeko eskatzen dio entzuleari. Ikus dezagun galdera mota hau hurrengo adibideen bidez:

(78) Beraz, zurekin etorri zen?

(79) Beraz, ez duzu diru-sarrerrarik?

Galdera bideratuen beste multzo bat galdera erretorikoek osatzen dute. Galdera mota honek literatura luzea du (Escandell 1987; Obenauer 2004; Obenauer 2005; Obenauer 2006; Caponigro eta Sprouse 2007; Littell eta beste 2010; Alcázar 2017; Biezma eta Rawlins 2017, besteak beste); hala ere, oraingoa Escandellen (1987) deskribapenera mugatuko naiz. Galdera erretorikoak definitzen dituzten ezaugarri bi, gramatika lanetan luze jorratutakoak, honakoak dira: alde batetik, proposizioaren polaritatearen kontrako balioa adierazten dute; hots, ezezkoen kasuan baiezko balioa ematen dute aditzera eta baiezkoen kasuan, berriz, ezezkoa.²³ Beste alde batetik, galdera erretorikoen erantzuna ezaguna da bai hiztunarentzat,

²² Escandellek (1987; 1999) dioenez, ezeztapena galdera batean egoteak bera bideratua izatea dakar. Beraz, ezezko partikula agertuz gero, ez da galdera neutroa izango. Dena den, ezeztapena duten galdera guztiak ez dira mota berekoak, hipotetikoak eta berrespenezkoak izan baitaitezke kanpoko ezeztapen edo barrukoa duten kontuan hartuta.

²³ Biezma eta Rawlins (2017) ez datoz guztiz bat analisi horrekin. Perpausak duen kontrako balioa adierazten duten galdera erretorikoak dauden arren, balio berekoak ere badaudela argudiatzen dute autore horiek:

(i) [A-k oso gauza ergela egiten du eta B-k diotsa:] Are you an idiot? (Biezma eta Rawlins 2017: 303)

Beraz, (i) bezalako horrelako adibideek zalantzan ipintzen dituzte luze galdera mota honen bereizgarritzat jotako ezaugarria.

bai entzulearentzat eta, honez gain, euren edukiak iritzi orokortuekin du zerikusia, ez hipotetikoetan bezala norberak ebidentzietatik ondorioztatutako iritziekin. Errepara diezaiegun ezaugarri horiei hurrengo adibidean:

(80) Ez al da ba aita saindua katolikoa?

Gure gizartean auresuposatzen da galdera horren erantzuna ezaguna dela, katolikoa dela alegia. Egia esan, edukiak salatzen du erretorikotasuna galderaren formak bainoago, Escandellen (1987: 513) ustez. Galdera erretorikoen gainean xehetasun gehiago eman daitezkeen arren, orain arte plazaratutako deskribapen honek propietate orokor eta nagusiak biltzen ditu.

Azkenik, harridurazko galderak dakartza Escandellek (1987). Hauek bat datoz hipotetikoekin, mota biek perpausak duen balio bera, dela baiezkoa, dela ezezkoa, adierazten baitute. Hipotetikoak eta harridurazkoak desberdintzen dituen ezaugarria galderaren erantzunaren ezjakintasunarekin dago lotuta: hipotetikoetan hiztunak hipotesi bat duen arren, ez du erantzuna guztiz ezagutzen; harridurazkoetan, ordea, erantzuna ezaguna da hiztunarentzat eta entzulearentzat. Escandellek (1987) gaineratzen du erantzunaren ezagutza horri aurretik elkarrizketaren errealitate faktikoak egiten diola erreferentzia; alegia:

(81) (A ileapaindegian egon da eta argi dago ilea moztu diotela; B-k A ikusi eta esaten du)
Ilea moztu duzu?!

Sailkapen hau handitu egin liteke azpimultzoen azterketa sakonduz gero; izan ere, Escandellek (1987; 1999) honako azpimultzoak ikusten ditu: argumentuzko galderak, galdera polemikoak, oihartzun galderak edota erantzuna aurreratzen duten galderak.

Honaino, beraz, Escandellek (1987; 1999) identifikatutako galdera motak; jarraian Obenauerren (2004) eta Littell eta besteren (2010) sailkapenak aurkeztuko ditut. Lan bi horien artean aldea badago: Littell eta bestek (2010), Escandellek bezala, galderak orokorrean aztertzen dituzte; Obenauerrek (2004), ordea, *nz*-galderak soilik ikertzen ditu. Bestalde, agerian geratuko denez, Escandellen (1987; 1999) lanak hiru hamarkada dituen

arren, abiapuntu sendoa da polaritatezko galderak aztertzeko orduan, lan horien arteko paralelotasunak aintzat hartuta.

2.5.2 *Littell eta besteren (2010) analisia*

Littell eta bestek (2010) hiru galdera mota aztertzen dituzte, polaritatezkoak nahiz *nz*-galderak. Partikula epistemikoek galderetan duten funtzioa edo, bestela esanda, partikula epistemikoek delako galdera mota bat sortzeko zer eragin duten ikertzen dute lan horretan. Beraz, ez dago zalantzarik deskribatzen dituzten galdera motak interes handikoak direla aurrerago (§5) eztabaidatuko dudanari begira. Bereizitako galderak honakoak dira: galdera arruntak, galdera erretorikoak eta galdera konjekturalak. Escandellen (1987; 1999) lanarekin alderatuta, paralelotasun bi igar daitezke. Batetik, honela definitzen dituzte galdera arruntak: a) hiztunak entzuleari informazioa eskatzen dio; b) erantzuna ez da hiztunarentzat ezaguna baina entzuleak jakin lezakeela suposatzen da; c) honez gain, erantzun bat beharrezkoa da elkarrizketa pragmatikoki onargarria izan dadin. Ezaugarri horiek, oro har, Escandellen (1987; 1999) galdera neutroen deskribapena dakarte burura.

Bestetik, galdera erretorikoak dituzte lan biek. Littell eta bestek (2010) diote galdera mota honetan, galderen sintaxia badago ere, deklaratiboen indarra adierazten dela eta, horregatik, ez dela erantzunik eskatzen, besteak beste, galderaren erantzuna ezaguna baita hiztun nahiz entzulearentzat. Azken honetan bat datoz Escandellekin (1987; 1999), baita galdera erretorikoen gaineko analisi gehienekin ere (Obenauer 2004; 2005; 2006; Caponigro eta Sprouse 2007; Biezma eta Rawlins 2017).

Amaitzeko, hirugarren galdera mota bat, artikuluaen ikergai nagusia ere badena, aurkezten dute Littell eta bestek (2010). Galdera mota hau ez bide dagokie Escandellekin (1987; 1999) sailkatutakoen multzoei, galdera erretorikoetatik hurbil ei dauden arren. Littell eta bestek (2010) aditzera ematen dute galdera erretorikoek eta konjekturalek hainbat ezaugarritan bat egiten dutela: biek ez dute erantzunik behar eta deklaratiboen indarra dute. Hala ere, galdera konjekturalak ez dira onargarriak galdera erretorikoen orde; bien arteko aldea hiztunaren eta entzulearen ezjakintasun mailan datza. Arestian esan bezala, galdera erretorikoetan hiztunak eta entzuleak ezagutzen dute erantzuna; galdera konjekturaletan, aldiz, ez hiztunak, ez entzuleak ez dute erantzuna ezagutzen, hala pentsatzen du hiztunak behintzat.

Izan ere, ezaugarri horretan oinarrituz, hiru galdera motak desberdintzen dituzte:

- a. Hiztunak ez daki erantzuna, baina entzuleak teorian badaki = galdera arruntak.
- b. Hiztunak badaki erantzuna eta badaki edo uste du entzuleak ere ezagutu beharko lukeela = galdera erretorikoak.
- c. Hiztunak ez du erantzuna ezagutzen eta ez du uste entzuleak dakienik = galdera konjekturalak.

Bai sailkapen hau bai bere propietateak balio handikoak izango dira galderetan agertzen diren euskarazko partikulak aztertzerakoan, hiru galdera motetan azaltzen baitira. Are gehiago, *ote* partikulak azken galdera motan, i.e. galdera konjekturalean, rol handia jokatzen duela argudiatuko dut 5.4 atalean.

2.5.3 *Obenauerren (2004; 2005; 2006) galdera ez-estandarrek*

Galdera mota ezohikoen inguruko erreferentzia argia da Obenauer (2004; 2006). Oraingoan Italiako Pagoto delako hizkeran bereizten dituen *nz*-galderetan oinarrituko naiz. Bere lana pragmatikoa baino sintaktikoagoa bada ere, pragmatikaren aldetiko sailkapen bat eskaintzen du Obenauerrek. Escandellek (1987; 1999) bezala galdera estandarrek eta ez-estandarrek banatzen ditu; multzo hauek Escandellen galdera neutro eta bideratuekin erka daitezke. Are gehiago, Escandellen (1987; 1999) galdera neutroak, Littell eta besteren (2010) galdera arruntak eta Obenauerren (2004) galdera estandarrek galdera mota berari egiten diote erreferentzia. Obenauerren (2005) ustez, *nz*-galdera estandarrek *nz*-hitzaren balioa zehazteko eskatzen dute; hots, informazioa eskuratzeko baliatzen du hiztunak. Beraz, besteekiko paralelotasuna erraz suma daiteke.

Bestalde, galdera ez-estandarrek informazioa eskatzeaz bestelako funtzioa dute, hiztunaren jarrera adierazten baitute gehienetan. Hiru mota bereizten ditu: harridura gaitzespeneko galderak (hemendik aurrera *harridurazko galderak*), galdera erretorikoak eta *balio lortuezinezko galderak* (ing. *can't-find-the-value-of-x questions*). Lehenengoari dagokionez, galdera mota horien bidez hiztunak proposizioaren gaineko jarrera adierazten duela eta jarrera hori gaitzespen kutsua duen harridurazkoa dela dio Obenauerrek (2004); esate baterako:

- (82) Cossa sé-tu drìo magnar?!
 zer LAG-KL atzean jan
 ‘Zer demontre zabiltza jaten?!’ (Obenauer 2004: 348)

Galdera erretorikoen deskribapenean ez da aurrekoengandik gehiegi aldentzen; galdera mota horren bitartez oro har balio baten informazioa eskatzea bainoago baieztapen bat adierazten dela azaltzen du. Azkenik, *balio lortuezinezko* galderetan hiztunak ez du galderaren erantzunik lortu eta badirudi ezinezkoa dela sentitzen duela:

- (83) Andé l'à- tu catà?
 non KL.LAG- KL topatu.PRTZ
 ‘Where (the hell) did you find it?’ (Obenauer 2004: 367)

Horrelakoetan ‘I wonder’ efektua edo ozen pentsatzen delako irudia dagoela dio, hiztunak galdera entzuleari baino bere buruari zuzenduko balio bezala.

Ez da zaila Obenauerrek (2004) bereizten dituen galdera mota horiek aurretik plazaratutako sailkapenekin paralelotasunak hautematea: alegia, bateko, harridurazko galderak Escandellen harridurazko galderekin; eta, besteko, ‘balio lortuezin’-ezko galderak Littell eta besteren galdera konjekturalekin.

Laburbilduz, azpiatal honetan hiru galderen sailkapen pragmatiko jorratu ditut. Escandellen (1987; 1999) lan handi eta xehetik abiatuta, lan xumeagoetara (Obenauer 2004; 2005; 2006; Littell eta beste 2010) joan naiz, galdera mota nabarmen eta interesgarrien berri ematen baitute. Oro har, honako galderak bereizten dituzte aipatutako lanek:

- a. Galdera neutroak/ arruntak/ estandarrak: informazioa eskuratu nahi dutenak eta direktiboak.
- b. Galdera bideratuak/ ez-estandarrak: erretorikoak, konjekturalak, harridurazkoak, hipotetikoak, berrespenezkoak.

Obenauerren ildotik, galdera ez-estandar horiek egitura bereizgarria islatzen dute sintaxian; ideia hori buruan, galderetan azaltzen diren partikula modalak aztertzeari ekingo diot bosgarren kapituluan.

2.6 Oinarri praktikoak: lagina osatzeko metodologia

Tesi honetan erabiltzen diren euskarazko datuak iturri desberdinetakoak dira: alde batetik, elkarrizketen bitartez lortutako datuak daude eta, beste alde batetik, idazkietatik hartutakoak. Lehenengo multzokoak bitan bereiz daitezke egiletasunari dagokionez: a) nik neuk burututako elkarrizketak, eta b) datu-baseko datuak (hala nola, *Norantz* egitasmoa). Iturri idatziak hiru multzok osatzen dituzte: a) lan literarioak, b) datu-baseko datuak (esaterako, *Ereduzko Prosa Gaur* eta *Euskal Klasikoen Corpusa*), eta c) hizkera edo euskalki jakin baten gaineko lan monografikoak. Azken hauek, i.e. lan dialektologikoak, ahozketasunetik oso hurbil daude, elkarrizketetan oinarritzen baitira; lan literarioei dagokienez, ahozko hizkeratik gertuen dauden lanak aukeratu ditut, hala nola antzerkiak (Alzaga, Larzabal, Soroa, besteak beste) edo idazlearen jatorrizko hizkera islatzen duten eleberriak (esaterako Azkoitia, Etxamendi, Landart, Thikoipe).

Bestalde, elkarrizketak prestatzerakoan, iturri idatzietan nahiz datu-baseetan topatutako datuak garrantzi handikoak izan dira, bertan aditzera ematen diren erabilerak abiapuntu hartu baitituzte. Halaber, elkarrizketetan aurreikusita ez zeuden egiturak jaso ditudanean ere datu-baseetara eta lan idatzietara jo dut, datuak berresteko. Ondoren, ebidentzia berri horietan oinarrituz, galdetegi berriak prestatu ditut; kasu horretan aztergai nituen egiturak birmoldatuta iritzi gramatikalak eskatu zaizkie hiztunei erabilera zuzen edo zabalduenetatik egitura onartezin edo okerretara aurkeztuz.

Elkarrizketen helburua bikoitza izan da: batetik, partikulen ezaugarri sintaktikoak eta fonologiko-prosodikoak biltzea eta, bestetik, erabilera pragmatikoak argitzen saiatzea. Bigarren xede hau lortzeko, Matthewsonen (2004) eta Burtonen eta Matthewsonen (2015) ildotik istorio laburrak sortu ditut hiztunari modu kontrolatuan datuak sorrarazteko asmoz, baita egoera desberdinetan partikulak erabiltzen dituen aztertzeako helburuz ere; alegia, testuinguru batean partikula bat edo bestea edo bat ere ez erabiltzea zilegiztatzen duten baldintzak ezagutzeko. Bestalde, arlo sintaktikoari eta fonologiko-prosodikoari dagokienez,

bai modu kontrolatuan bai librea euren berri jaso dut, hiztunak partikulak erabiltzen zituen heinean.

Elkarrizketak, beraz, zati bitan bereiz daitezke datuak lortzeko hurbilketari dagokionez: hizketa librea eta bideratua. Ondoren, metodologia hauek eta euren helburuak azalduko ditut; hala ere, lehenengoz elkarrizketen xehetasun orokorrak emango ditut.

2.6.1 *Elkarrizketen aurretiko lana: informatzaile hautaketa eta bestelako rolak*

Hiztunak adinaren, generoaren eta hizkuntza aldaeraren arabera sailkatu ditut. Adinari dagokionez, bi multzo hauek bereizi ditut: 22-42 tartekoak eta 52-80 tartekoak. Aldaerei dagokienez, Zuazori (2016) jarraituz, honako eremuak desberdindu ditut:

- a) Amikuzekoa; hots, nafar-lapurtarraren eta zuberotarraren tarteko hizkera.
- b) Erdialdekoa.
- c) Mendebaldekoa.
- d) Nafarraren ipar-sartaldea.
- e) Nafar-lapurtarra.

Hiztun kopuruaren aldetik ez dut berdin jokatu eremu guztietan; adinaren eta generoaren irizpideen aldetik, aldiz, bai, eremuka beti hiztun kopuru bera elkarrizketatu baitut. Alegia, eremu guztietan 22-42 tarteko emakumezkoen eta gizonezkoen kopuru bera hartu dut, baita 52-80 tarteko emakumezkoen eta gizonezkoen kasuan ere. Hala ere, eremu bakoitzaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta eta faktore horrek partikulen erabileran eduki dezakeen eragina gogoan edukita, hiztun kopurua egokitu dut; era berean, delako eremuan partikula bat baino gehiago eta zer partikula erabiltzen den baloratu dut zenbat elkarrizketa egingo nituen erabakitzean. Beraz, hau guztiau aintzat hartuta, Amikuzen eta mendebaldean launa elkarrizketa egin ditut, nafarraren ipar-sartaldean zortzina elkarrizketa, eta erdialdean eta nafar-lapurteraren eremuan hamabina.

Betekizun hauek guztiak kontuan hartuz gero, horrelako banaketa lortzen dut:

(84)

	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	22-42	52-80	22-42	52-80
Amikuze	1	1	1	1
Erdialdekoa	3	3	3	3
Mendebaldekoa	1	1	1	1
Nafarraren ipar-sartaldea	2	2	2	2
Nafar-lapurtarra	3	3	3	3

Honez gain, bertako hizkera gordetzen duten hiztunak hautatu ditut, euskara batuaren edo bestelako estandarizazio prozesuen eraginik gabekoak edo eragin txikia dutenak hain zuzen. Irizpide hau erraz mantendu ahal izan dut adin jakin bateko hiztun batzuk (i.e. 52-80 tarteko urtekoak) aukeratzean; hala ere, beste adin taldean (i.e. 22-42 tartekoen artean) ahalik eta kontserbatzaileen diren hiztunak elkarriketatzen saiatu banaiz ere, gehienek eskolan murgiltze sisteman ikasi dutenez edo, Ipar Euskal Herrian batez ere, hiztun aktiboak direnez, saihestezina izan da estandarren eragina. Irizpidetzat hartu ditudan beste propietate batzuk ohikoak dira dialektologia tradizionalan: gurasoak bertakoak izatea, beste pertsona batekin bizi bada, dela bikotea, dela dena delakoa, hizkera berekoa izatea, kanpoan luze lan egin ez izana edo bizi izana (Camino 2009a: 295).

Bestalde, elkarriketak burutu aurretik, hiztunek euren euskara neurera egokitzea saihesteko neurri bi hartu nituen: batetik, nire euskararen eta elkarriketatuen euskararen arteko alde linguistikoa nabarmena zenean, bertako hiztun baten laguntza jaso nuen berak elkarriketa gida zezan hizketa librean batez ere, ni bigarren planoan nengoela; bestetik, elkarriketa gidatuan hiztunek entzungo zituzten istorio labur horiek hizkera bereko hiztun baten ahotik jasotzea nuen helburu, berriro ere, balizko interferentziak gutxitzeko. Xede horretarako bertako hiztun biren laguntza jaso behar izan nuen: batak elkarriketatara laguntzeko eta besteak, elkarriketen aurretik, istorioei ahotsa ipintzeko. Hori dela eta, jendea elkarriketatu baino lehen, tokian tokiko euskaldun bat grabatu nuen geroago hiztunek entzungo zituzten istorioen gidoia kontatzen; grabaketa horiek *Audacity* izeneko programaren bidez maketatu eta elkarriketatuek ikusiko (eta entzungo) zuten powerpoint

batean txertatu nituen, diapositiba batetik bestera igarotzean istorioaren kontakizuna entzun zezaten.²⁴

Azkenik, hori guztiori antolatuta, elkarrizketei ekin nien. Hasteko, hizkera guztietako elkarrizketak 2017. urteko urtarriletik abuztura arte burutu nituen; toki hauetako pertsonak elkarrizketatu nituen: Aramaio (Araba), Aia, Azkoitia, Azpeitia eta Zumaia (Gipuzkoa), Hendaia eta Sara (Lapurdi), Lesaka (Nafarroa), eta Ainhize-Monjolese, Amendüze-Unaso, Anhauze, Arnegi, Behorlegi, Donoztiri, Gabadi, Garazi, Garrüze, Jatsu, Larribarre-Sorhapürü eta Zaro (Nafarroa Beherea). Horiez gain, 2018. urteko apiriletik ekainera arte elkarrizketa gehiago egin nituen; lehenengoen eta bigarren elkarrizketen bitartean azaleratu ziren hainbat kontu zirela-eta hiztun jakin batzuegana itzuli nintzen, erabilera jakin batzuen egokitasuna aztertzeko asmoz.²⁵

Elkarrizketak egin baino lehenagoko metodologia eta xehetasunak azalduta, jarraian elkarrizketen zehaztasunak jorratuko ditut.

2.6.2 *Elkarrizketen egitura*

Elkarrizketek hiru zati zituzten: lehenengoz hizketa librea; ondoren, istorio gidatuetan hutsune bat betetzea; eta, azkenik, istorio gidatuen bidez iritzi gramatikalez galdetzen zitzairen hiztunei. Bigarren eta hirugarren atalak burutzeko euskarri digitalez baliatu nintzen; hots, istorioak entzuteaz gain, komiki batzuen bitartez ere ikusten zituzten tablet batean; komiki horiek Pixton webgunean (<https://www.pixton.com/es/my-home>) sortu nituen eta, powerpoint batean irudi bakoitzari zegokion audioa txertatuz, hiztunek modu jarraian istorioak entzun ahal izan zituzten. Hona hemen komikiek zuten itxuraren adibide bat:

²⁴ Esker berezia behar dute grabazioetan lagundu zidaten Arantxa Oxandabartz, Jose Emilio Txoperena ‘Txoltxan’, Pello Elorza eta Tane Bikuñak, ahotsa (eta istorioaren erritmo egokia) ipintzeaz gain, tokian tokiko bertsiorek hobetzeagatik, ahoskeraren eta hiztegiaren aldetik bertakoagoak eginez.

²⁵ Elkarrizketa horiek egin baino lehen, galdetegi hainbat pertsonarekin testatu nuen, ea nahi nituen datuak lortzen nituen berresteko. Hiztun horiek toki honetakoak ziren: Amoroto eta Ondarroa (Bizkaia), Aia (Gipuzkoa) eta Azkarate eta Gamarte (Nafarroa Beherea).



(1. irudia)

Bestalde, kasu batzuetan bigarren elkarrizketa egin nuen aurrerago sortutako erabilera edo testuinguru berriak aztertzeko; kasu horietan iritzi gramatikalak jasotzeko ariketak eskaini zitzaizkien.²⁶

Ondoren, elkarrizketetan burutu zen zati bakoitzaren nondik norakoak aditzera emango ditut.

²⁶ Zati hauez gain, beste bi prestatu nituen baina lehenengo elkarrizketa bien esperientzia eta laguntzaileen iritzia aintzat hartuta, baztertzera erabaki nuen. Batean *nor da?* jokoa erabili behar zen hiztunak modu naturalean galderak egin zitzaizkien; hala ere, lehenengo edo bigarren galderetan perpaus osoak erabiltzen zituzten arren, laster galderapean zeuden osagaiak bakarrik galdetzen zituzten, hots, *lunetak?*, *ile beltza?*. Beraz, aurreikusitako emaitza ez zen lortu. Bestean Matthewsonen (2004) eta Burton eta Matthewsonen (2015) ildotik istorio bat kontatu ostean hiztunari berriro kontatzeko eskatzen zitzaion egoera kontrolatu batean hizketa naturalagoa lortzeko asmoz; dena den, bide hau ere ez zen emankorra izan.

2.6.2.1 *Hizketa librea*

Zati honetan hiztunek libre hitz egin zuten; bertako hiztun laguntzailea egonez gero, berarekin elkarrizketa izan zuten; bestela nirekin. Elkarrizketak bultzadarik behar bazuen, berau dinamizatzeko hainbat galdera zituen eskura elkarrizketatzaileak:

- a. Noiztik bizi zara (da zure familia) hemen? Eta zure senarra / emaztea?
- b. Non bizi dira zure haurrak / senideak?
- c. Non ikasi zenuen txikitan / gaztetan? Noiz arte ikasi duzu?
- d. Nolakoa zen eskola garaia?
- e. Hemendik kanpo lan eginez gero, non eta zenbat urtez lan egin duzu?
- f. Zer egiten zenuten bestetan/ jaietan gazte denboran?
- g. Zer egiten duzu aisialdian (musika, kirola, zinema, literatura...)?

Zati honen helburua hiztuna lasaitzea zen bere hizkera baldintzarik eta presiorik gabe eman zezan. Halaber, elkarrizketatzaileen eta elkarrizketatuen artean partikulak erabiltzeko testuinguruak sor zitezkeen, modu kontrolatuan ez bazen ere. Dena den, interesgarria zen aurreikusteko zer partikula erabiliko zuen elkarrizketan zehar.

2.6.2.2 *Komikia (I): hutsuneak bete*

Elkarrizketaren zati honetan dinamika aldatzen zen, hiztunak komiki batzuk ikusten baitzituen. Oraingoan istorioa garatuta zegoen eszena jakin bat izan ezik, alegia interesatzen zitzaidana izan ezik; hiztunak istorioaren garapena entzun ondoren, eszena jakin horretan zer gertatzen zen, zer esaten zuten pertsonaiek asmatu behar zuen. Elkarrizketa errazteko irudiak gehitu nituen espero nuen esaldia osatzen lagunduko zutelakoan.

Hiztunak istorioa entzuten zuen, ez zuen testurik irakurtzen. Bere hizkera molda ez zezan, bertako hiztun baten ahotsa entzuten zuen, aurretik grabatutakoa hain zuzen.

Ariketa honen helburua partikulak zituzten esaldiak modu kontrolatuan sortzea zen; era berean, partikulak hasiera batean erabiliko ez zireneko testuinguruak proposatu zitzaizkien, baita partikulekin zerikusirik ez zuten egoerak ere, hiztunak elkarrizketaren helburua asma ez zezan.

2.6.2.3 *Komikia (II): iritzi gramatikalak*

Bigarren atalean bezala, hiztunari istorioa garatuta eman zitzaion atal honetan eta, behar ziren kasuetan, bertako hiztun batek kontatuta entzun zuten. Istorioan zehar puntu batean edo bitan hiztunari entzundakoaren egokitasunaz eskatzen zitzaion eta, gehienetan birmoldatzen zuen arren, zelan esango zukeen berak galdetzen zitzaion.

Beraz, modu kontrolatuan edo librean sortzen ez ziren edo gramatika lanetan topatzen diren egituren iritzia jasotzeaz gain, aurretik emandako erantzunak birmoldatu eta euren egokitasun maila lortzeko helburua zuen atal honek. Honek datu gehiago, sintaktikoak zein pragmatikoak, biltzeko balio izan zuen.

Honaino tesi honetarako erabili ditudan datuak nondik jaso ditudan eta zein teknikaz baliatu naizen ahalik eta erabilera naturalen eta fidagarrien biltzeko. Irakurlea konturatuko da tesian zehar agertzen diren adibide gehienak XIX.-XXI. mendeetako lan idatzietakoak direla. Dena den, horrek ez du esan nahi ahozko ekoizpenean ez dudala horrelakorik jaso; aitzitik, erabilera guztiak elkarrizketetan testatu ditut. Hala ere, elkarrizketetako indartzeko bestelako iturrietako datuak erabiltzea ere erabaki dut, elkarrizketetan ez ezik, beste iturrietan ere azaltzen dela frogatzeko eta, bestetik, kopuruaren aldetik adibide gehiago eskaintzeko.²⁷ Hori dela eta, adibide gehienak erreferentzia bibliografikoarekin ematen ditut; erreferentziarik ez badago, elkarrizketetan bildutakoa dela adierazi nahi du horrek.

2.7 Kapituluaren laburpena

Kapitulu honetan zehar aurrerago (§5, §6 eta §7) beharko ditudan abiapuntu teorikoak ezarri ditut: lehenengoz euskararen egitura sintaktiko eta morfologiko orokor batzuk (perpaus mailako hitz-ordena, ezeztapena eta aditz jokatuena osaera) arakatu ditut (§2.2), tesi honekin zerikusi zuzenik ez badute ere, abiapuntutzat jotzen ditudan analisiak ezagutarazteko; ondoren, (§2.3-2.4) tesi honetako aztergaia diren partikulak galderetan hein handi batean azaltzen direnez, testuinguru interrogatiboan ohiko azterbidea berrikusi dut itaunak, direla zuzenak, direla zeharkakoak, modu berean erartortzeko. Bestalde, partikulen funtzioa

²⁷ Izan ere, lan honetarako elkarrizketa kopurua altua den arren (40 elkarrizketa), erantzunak ez dira euren artean oso desberdinak, esperimentuak erantzun jakin batzuetara bideratzen baitzituen hiztunak. Alegia, ‘nun utzi ote dut kazeta?’ galdera jaso dut eta erantzunen arteko alde bakarra zen non zegoen partikula kokatuta. Hori dela eta, tesi honetan lantzen diren fenomeno berri emateko, literaturako adibideak erabiliko ditut, kopuru eta formaren aldetik *copursa* osatzen baitute.

ezagutzeak euren sintaxia hobeto ulertzen lagunduko didalakoan, partikulek proposizioei egiten dieten ekarpena ikertuko dut; horretarako, ezinbestekoa dut galdera motak ezagutzea eta horien aurkezpena egin dut (§2.5) azpiatalean. Hiru sailkapen plazaratu ditudan arren, hirurek bat egiten duten puntuak asko direla adierazi dut eta lan honetarako baliagarriak izan daitezkeen galdera motak nabarmendu ditut; esaterako: galdera neutroen eta galdera bideratuen multzoa bereiztea onetsi ditut; bigarren multzoan harridurazko galderak, galdera erretorikoak, berrespenezko galderak eta galdera konjekturalak. Azkenik, oinarriak zehaztuta, 2.6 atalean tesi honetan baliatuko ditudan datuak biltzeko zein metodologiari jarraitu diodan argitu dut: alde batetik, lan dialektologiko nahiz literarioak ustiatu ditut erabilera desberdinetako adibideak jasotzeko helburuarekin; beste alde batetik, jatorrizko hiztunekin elkarrizketak burutu ditut lan honetarako euskalki eta hizkera nabarmenetan: mendebaldeko eta erdialdeko euskaran, euskara nafarrean eta nafar-lapurteran. Elkarrizketetan tokian tokiko hizkera erabiltzea onetsi nuen hizkeren arteko aldakortasuna agerian gera zedin. Egiturari dagokionez, elkarrizketek hiru atal zituzten: hizketa librea (§2.6.2.1), komikien bidez partikulak erabiltzeko elkarrizketa bideratua (§2.6.2.2) eta komikien bidez partikulen gaineko iritzi gramatikalak jasotzekoa (§2.6.2.3). Hartara, bai ahozkoak bai idatzizkoak dira jarraian erabiliko ditudan adibideen iturriak.

Oinarri teorikoak eta praktikoak zehaztuta, tesi honen aztergaiari helduko diot hurrengo kapituluan. Ondoren, hizkuntzarteko gramatika lanetan partikulez zer arlo sintaktiko landu den, zein eztabaida dauden eta izendapen horren pean zeintzuk taldekatu beharko lirartekeen jorratuko dut.

3 *Partikula* kategoria gramatika lanetan barrena

3.1 Sarrera

Aurreko kapituluak tesi honetarako oinarri teoriko-praktikoak ezarri eta hainbat kapituluak (§4, §5, §6 eta §7) erabiliko ditudan datuak zelan jaso nituen argitu dut. Aurrerantzean tesi honetan zehar euskararen ikuspegitik aztergai edukiko ditudan galdera nagusiak jorratuko ditut. Hasteko, itaun oinarritzko baina, gramatika lanetan erraz igar daitezkeenez, erantzun gaitza duenari helduko diot: zer diren partikulak alegia. Kategoria gramatikal hori deskribatuta, bere gaineko auzi bitara joko dut: zein den haien izaera sintaktikoa eta zein gune sintaktiko okupatzen duten.

Izaera sintaktikoari dagokionez, hipotesi bi nagusitu dira partikula modalen gaineko gramatika lanetan: buruak direla defendatzen dutenak (§3.3.2) eta islapen nagusiak direlako hipotesiaren alde egiten dutenak (§3.3.3). Bestalde, partikulei hainbat kokapen esleitu zaizkiela erakutsiko dut; hiru eremu bereizi daitezke: DenbS eremua edo erdiko eremua (§3.4.1), KonpS eremua edo ezker periferia (§3.4.2) eta, azkenik, Hizketa Ekintza Sintagma eremua (§3.4.3). Hartara, euskarazko partikula modalak aztertzean hizpide edukiko ditudan gaiak mahaigaineratuko ditut kapitulu honetan; has gaitezen, beraz, oinarritzko galdera erantzuten, zeri deritzogun partikula.

3.2 Partikulak gramatikan: zer dira?

Gramatikan *partikula* diogunean, zeri deritzogu? Literaturan izendapen hori baliatua izan da funtzio sintaktiko ugariko osagaiak izendatzeko: denbora, aspektua, modua, ezeztapena, ebidentzialtasuna, galderatasuna, epistemikotasuna eta, oro har, diskurtsoari lotutakoak adierazten dituzten horiek (Biberauer eta Sheehan 2011). Hala ere, ezeztapena markatzeko baliabideak hizkuntza guztiek dituzte eta funtzio hori adierazteko darabiltzagun osagaiei ez diegu *partikula* deitzen hizkuntza guztietan. Alegia, *-t(z)en* morfema ez dugu partikulatzat hartzen euskalaritzan; dena den, *ohi* bai jo daiteke partikulatzat.

Bestalde, partikulatzat hartu ohi diren horiek ez dira eremu sintaktiko bakar bati lotuak izan; aitzitik, hainbat eremutan kokatuak izan dira, e.g. Aditz Sintagman, Denbora(/Inflexio) Sintagman eta Konplementatzaile Sintagman zehar. Horrelako banaketa ebidentzia jakin batzuetan oinarrituz proposatu da, esaterako: a) partikulak ez dira edozein hurrenkeratan azaltzen, aitzitik partikulen arteko hierarkiak¹ badaudela iradokitzen dute datuek; eta, b) partikulek bestelako osagaiekin dituzten banaketak edota jokabideak eremu jakin batean kokatzearen alde egiten dute. Alegia, hizkuntzalaritza germaniarrean partikulek aditz lexikoarekin eta inflexioarekin duten hurrenkeraz baliatu dira hizkuntzalariak (Abraham 1991; Coniglio 2007b; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014) hizkuntza horietako partikulak zein eremutan azaltzen diren zehazteko. Banaketak partikulen ekarpenarekin edo funtzioarekin zerikusia duela pentsa liteke; hala ere, Cardinalettik (2011) eta Bayer eta Obenauerrek (2011) adierazten duten bezala, partikulen kokapenak ez du zertan bat etorri ekarpen semantiko-pragmatikoaren eremuarekin; esaterako, alemanezko partikula modalak Denb/InfS-ren eremukoak diren arren, KonpS-n dute eragina. Beraz, partikulak identifikatzeko eta kategoria zehazteko helburua izango bagenu, ez du ematen euren kokapena lagungarria izango litzaigukeenik, bestelako guneetan azal baitaitezke eta agertzen diren gunea ez baitator bat proposizioan duten funtzioarekin.

Biberauer eta Sheehanek (2011) diote *partikula* deritzogun hori izaera urrikoa izaten dela arloren batean; Cinqueri (1999) jarraituz, partikulak a) sortzen diren kokagunetik ez dira mugitzen, b) ez zaizkio o-komandatzen duten buruari atxikitzen, eta c) buruz buruko mugida

¹ Hizkuntza guztietan lekukotzen dira ezaugarri hauek; alegia, partikula bat baino gehiago azaltzen direnean, ez dira edozein hurrenkeratan edo edozein kokagunetan agertzen. Murritzapenak ohi dituzte.

oztopatzen dute. Definizio horren arabera euskarazko ezeztapena, aspektu markak edo tradizionalki *partikula modalak* izendatu izan diren horiek ez lirateke partikulak izango. Izan ere, autore hauek onartzen dute praktikan partikulatza jo ohi diren osagai guztiek ez dituztela ezaugarri hauek erakusten; nire ustez, irizpide hauek hizkuntza mota jakin batera daude mugatuta, hizkuntza analitikoetara hain zuzen. Era berean, autore hauek aldarrikatzen dute partikulek ez dutela tipologikoki berdin jokatzeko urritasun mailaren aldetik. Alegia, partikulek erakusten duten urritasun maila arlo desberdinetakoa izan daiteke hizkuntzarik hizkuntza; e.g. batzuetan fonologian eragiten du, beste batzuetan, ordea, semantikan.² Urritasun maila zernahi dela ere, Biberauer eta Sheehanek (2011) ondorioztatzen dute ezaugarri horrek bereizten dituela partikulak gainerako osagaietatik.

Hala ere, ezaugarri horrek ez ditu partikulak beste kategorietatik guztiz desberdintzen, preposizioak eta postposizioak ere morfologikoki ahulak izan baitaitezke. Biberauer eta Sheehanek (2011) ingelesezko menderagailuei eta mandarinezko perpaus amaierako partikulei erreparatzen diete eta biak bereizteko honakoa proposatzen dute: lehenengoek perpausa mendekoa dela adierazteko funtzioa soilik duten bitartean, azkenek eginkizun bat baino gehiago ei dute; i.e. perpaus mota (deklaratiboa, galdera, harridurazkoa, agintera..) eta perpaus nagusia ala mendekoa den markatzen dute.

Ondorioz, ezaugarri bi leudeke partikulen kategoria mugatzen eta deskribatzen laguntzen digutenak; Biberauer eta Sheehanek (2011) esandakoa baliatuz, honako definizioa sor genezake:

- (1) Partikulek arlo morfologikoan, fonologikoan, semantiko-pragmatikoan edota sintaktikoan beste kategoria batzuek baino urritasun maila handiagoa dute eta funtzio bat baino gehiago biltzen dituzte.

Hala ere, definizio honek ere ez ditu partikulatza hartutako guztiak biltzen eta, beraz, euren ezaugarriez haratago sakondu beharko litzateke. Definizio sendorik eza partikulen inguruko

² Ideia hau lot liteke Cardinalettik (2011) partikula modalak definitzeko erabiltzen dituen argumentuekin. Ondoren azalduko dudana bezala, partikula modalak adberbioen kategoriakoak direla defendatzen du; hala ere, ez dira ohiko adberbioak bezalakoak: azken hauek adberbio osoak izango lirateke; partikula modalak, aldiz, ahulak, eta kasu batzuetan, klitikoak direla aldarrikatzen du. Bereizketa hauek arlo fonologikoan, sintaktikoan edota semantikoan sumatzen diren ahultasun edo galeretan dautza.

ikerketaren ezaugarri bat da eta arlo horretan jorratzen diren eztabaida guztietara zabaltzen da; izan ere, ez badakigu zer diren, nekez gara daiteke analisi tipologiko, orokor, sakon bat. Bestalde, egungo hainbat lanetan partikulen gaineko ezaugarri (bereizle) batzuk ematen diren arren, gehienetan lan horietako eztabaidagaiari begira izaten dira propietate horiek, eta ez partikulen kategoria zehazteko eta beren-beregi deskribatzeko asmoz. Esate baterako, egun partikulen inguruan dagoen eztabaida nagusietako bat hauxe da: ea partikulak islapen nagusiak ala buruak ote diren (Coniglio 2008; Bayer eta Obenauer 2011; Cardinaletti 2011); horrelako azterketetan partikulak buruak ala sintagmak diren erabakitzeke euren ezaugarrien berri ematen badigute ere, propietate horietako askok ez digute laguntzen kategoria hobeto ezagutzen.

Hurrengo atalean (§3.3) partikulen izaera sintaktikoaren gaineko eztabaidari helduko diot. Partikula modalen gaineko ikerketen sarrera eskaini ostean, kategoria hori definitzeko eta izaera sintaktikoa argitzeko erabiltzen diren propietateak deskribatuko ditut (§3.3.1); eztabaidarako oinarriak finkatuta, partikula modalak buruak direlako hipotesien aldeko (§3.3.2) eta islapen nagusizat edo adberbiotzat jotzen direlako analisisien aldeko argudioak (§3.3.3) plazaratuko ditut. Dena den, ez ditut tipologikoki partikulatzat definitu izan diren guztiak aintzat hartuko, indar ilokutiboarekin edota diskurtsoarekin lotura dutenak baizik, i.e. diskurtso partikulak edo partikula modalak.³ Izan ere, hemendik aurrera *partikula* terminoa erabiltzen dudanean, mota jakin honi iritziko diot, euretako batzuk soilik baitira tesi honen ikergaia.

3.3 Partikula modalak eta gramatika

Partikula modalek ez ei dute orokorrean arreta handirik jaso gramatika tradizionaletan zein gramatika sortzailean, beharbada euren ezaugarri argiena pragmatikarekin lotuta baitago (Struckmeier 2014; Bayer eta Struckmeier 2017). Izan ere, partikula modalen gaineko lan

³ Literaturan *partikula modal* izenarekin batera *partikula diskurtsibo* terminoa ere irakur daiteke gaur egun hainbatek (Bayer eta Obenauer 2011; Zimmermann 2011; Egg eta Mursell 2017; Trotzke eta Monforte 2019; cf. Gutzmann 2015) horren aldeko hautua egiten dutelako partikulen funtzioak diskurtsoarekin, eta ez moduarekin, zerikusia duela argi uzteko. Tesi honetan, hala ere, euskarazko tradizioari jarraituz, *partikula modal* terminoa hobesten dut. Hala ere, termino bien beharra ikusten dut; tesi honetan zehar argudiatuko dudanez, partikulak talde bitan bana baitatezke: alde batetik, partikula performatiboak eta, beste alde batetik, partikula ebaluatzaile, ebidentzial eta epistemikoak. Lehenengoak *partikula diskurtsiboen* barruan sar genitzake eta bigarrenak *partikula modalen* taldean, lehenengoek hiztunaren eta entzulearen arteko elkarrizketa kudeatzen baitute eta bigarrenak proposizioaren modalitatea modifikatzen baitute.

modernoetan pragmatikaren ikerketa gailendu da eta euren erabilera arakutzen duten lanak ugari dira; esate baterako, euskararen kasuan *omen-ez* (Zubeldia 2010), alemanaren kasuan *denn, doch, ja, wohl* partikulez (Zimmermann 2004; Döring 2016; Theiler 2017; 2019a; 2019b; Eckardt 2018, besteak beste). Hau ez da harritzekoa, Bayerrek eta Struckmeierrek (2017) azaltzen duten bezala, sintaxi teoriak, kasurako 1970ekoek, ez baitzuten partikulak sintaktikoki aztertzeke tresnarik; ondorioz, alemanezko partikula diskurtsiboak adberbioak ziren orduko gramatikarien arabera, adberbioen ezaugarri guztiak ez zituzten adberbioak hain zuzen ere. Alegia, adberbioak ez bezala, partikulak ezin dira perpausaren hasierako kokagunean agertu; partikulak eta adberbioak kategoria berekoak izango balira, zergatik ez diren lehenengoak mugitzen eta azkenak zergatik mugitzen diren azaldu beharko luke sintaxi teoriak. Kategoria funtzionalik gabeko 70. hamarkadako sintaxi teoriak ezin ei zuen horrelakorik egin.

Hala ere, partikula hauen analisi sintaktikoak ugaritu egin dira azken urteotan, ezker periferiaren gaineko lanek sintaxiaren eta pragmatikaren arteko interfazea hobeto ulertzen lagundu diguten heinean (Rizzi 1997). Ildo horretatik, Cinquek (1999) partikula ebidentzialei, epistemikoei, modalei edota galderazkoei kokapen zehatzak esleitzen dizkie aditz eremutik hasita ezker periferiaraino. Helburu horretarako datu tipologikoetan oinarritzen da; hots, izaera ebidentziala, epistemikoa, modala edota galderazkoa duten osagaiei begiratzen die, direla buruak, direla adberbioak, eta euren arteko hurrenkera eta bateragarritasuna hartzen ditu irizpidetzat egitura sintaktikoa proposatzeko. Dena den, partikula mota desberdinen arteko hierarkia Cinquek (1999) azaltzen duen modukoa izan badaiteke ere, ez bide dago proiektzio guztiak biltzen dituen hizkuntzarik; bestela esanda, gehien aztertutako hizkuntzetan ez dira kategoria guztiak lekukotzen, ezta Asiakoetan ere, partikula funtzionalei dagokienez hizkuntza aberatsak diren arren:⁴

⁴ Asiako hizkuntzek hiztunaren edota entzulearen ikuspuntuaz edota jarreraz gain, aspektua, denbora edota modalitatea adieraz dezakete partikulen bidez (ikus Li 2006).

- (2) ku pwun -i cap -hi -si -ess -ess -*keyss* -sup -*ti* -*kka*
 ART pertsona -NOM harrapatu -PAS -KMZ -AUR -LEH -EPIS -KMZ -EBID -G⁵
 ‘Sentitu zenuen harrapatua izan zela?’ (Cinque 1999 : 71)
- (3) Tā hái bù zhīdào zhè jiàn shì *ne ba*.
 bera oraindino ez jakin hau KLA kontu EB GRAD
 ‘Seguru asko berak oraindino ez daki hori.’ (Li 2006: 66)

Adibide hauek (2-3) erakusten duten bezala, koreerak eta mandarinerak sistema konplexuak dituzte: lehenengoak epistemikotasuna, ebidentzialtasuna eta galderatasuna adierazten ditu; bigarrenak morfema ebaluatzailea eta graduatzailea ditu. Hala ere, Cinquek bereizten dituen buru guztiak ez ei dira hizkuntza horietan gauzatzen.

Orokorrean, partikulak ezker periferian kokatuak izan dira guneezberdinetan eta, gehienetan, Indar Sintagmaren inguruan (Li 2006); horrelako proposamenetan partikulak perpausaren hasierako edo amaierako posizioetan azaltzen dira:

- (4) *Oare* unde va pleca Ion mâine?
 P non GER irten Jon bihar
 ‘Noiz irtengo ote da Jon bihar?’ (Coniglio eta Zegrean 2012: 240)
- (5) Pari -de koosui -o kai -masi -ta *ka*?
 Paris -IN lurrin -AK erosi -ALOK -LEH P
 ‘Erosi zenuen Parisen lurrina?’ (Kuwabara 2013: 94)

Errumanieraz *oare* partikula perpaus hasieran kokatzen da eta japonieraz *ka* partikula, aldiz, perpaus amaieran, (4-5) adibideetan ikus daitekeenez, hurrenez hurren. Dena den, hizkuntza guztietan ez da patroi hori hautematen;⁶ izan ere, erdiko eremuan, i.e. Denbora sintagmaren eremuan, azaltzen dira partikulak hainbat hizkuntzatan, esaterako alemanezko edo italierazko

⁵ Oraingo honetan bakarrik markatzen dut galdera partikula G baten bidez, partikula epistemiko eta ebidentzialekin kontrajartzeko. Gainerako kasuetan P glosa erabiliko dut, galdera partikulek, bestelako partikulek bezala, partikula izaera baitute.

⁶ Dryerrek (2013) eskaintzen dituen datuei erreparatuz gero, periferian kokatzen diren (galdera) partikulak gehiengoa dira, 529 hizkuntzen artean % 88,66k dituzte kokagune batean edo bestean partikulak.

partikula modalak (Coniglio 2008: 124). Hizkuntzalaritza alemaniarrean⁷ partikulen izaera sintaktikoaz eztabaida handia badago ere, euren kokapenari dagokionez bat ei datoz analisi gehienak (Abraham 1991; Grosz 2005; Coniglio 2007b; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014, besteak beste): partikula modalak ezin dira ezker periferian agertu; aitzitik, erdiko eremuan azaltzera daude mugatuta. Esaterako:

- (6) Die ist *vielleicht* schlau.
hau.FEM da beharbada/P azkarra
'Hau beharbada oso azkarra da' [adberbio legez ulertuta]
'Zein azkarra den hau!' [partikula modal legez ulertuta] (Bayer eta Trotzke 2015: 14)
- (7) *Vielleicht* ist die schlau.
beharbada/*P da hau.FEM azkarra
'Beharbada, hau azkarra da.' [adberbio legez ulertuta]
(Ezin da partikula modalaren irakurketa lortu.) (ibidem)

Alemanezko *vielleicht* hitza adberbioa eta partikula modala izan daiteke; adibideetan ikus daiteke erdiko eremuan agertzen denean bi irakurketak, adberbioarena eta partikula modalarena, lor daitezkeela; ezker periferiara mugitzen denean, ordea, adberbioa bakarrik izan daiteke, partikula modalaren irakurketa baztertuta. Partikula modalak azaltzen direneko eremu hori Denbora Sintagmaren eta Aditz Sintagmaren artekoari dagokio, aditz laguntzailearen edo modalaren eta aditz lexikoaren artean kokatuta baitaude:

- (8) Das kann man *wohl* sagen.
hori.AK ahal bat P esan
'Hori esan ei daiteke.'

Halaber, italierazko partikulak Denbora Sintagmaren eremura mugatuta ei daude (Coniglio 2008: 112):

⁷ Tesi honetan erabilitako datu gehienak hizkuntza germanikoetatik, alemanetik hain zuzen ere, datoz, eurak baitira gehien eta ondoen aztertutakoak; izan ere, gramatika lanetan sarriagotan topatzen dira alemanezko partikula modalak ikuspuntu eta galdera desberdinetatik ikertu dituzten lanak.

- (9) Cui avrà *poi* telefonato?
 nor LAG P telefonoz.deitu
 ‘Nork deitu ote du?’

Analisi sintaktikoak garatuz joan diren heinean, honako galderak garrantzia hartu du: zer ote dira partikula modalak gramatika sontzailearen ikuspegian, espezifikatzaile gunean azaltzen diren adberbioak, edo adberbio antzekoak, ala sintagma jakin batzuen buruak? Galdera hau erantzuten saiatu dira, besteak beste, Grosz (2005), Cardinaletti (2011), Coniglio (2007b; 2008), Bayer & Obenauer (2011), Scherf (2017) alemanerazko, italierazko eta suedierazko partikula modalen datuetatik abiatuta. Lehen esan dudan bezala, Cinquek (1999) estatus sintaktiko biak onartzen ditu; halaber, Scherfek (2017), esate baterako, biak identifikatzen ditu suedierazko partikula modalak aztertzean. Bestalde, Conigliok (2007b; 2008) izaera biak ere onartzen ditu baina ez hizkuntza berean: bateko, alemanezko partikulak islapen nagusiak direla eta, besteko, italierazko partikulak buruak direla proposatzen du.

Hurrengo azpiataletan, (§3.3.2-§3.3.3) estatus horien ezaugarriak, eta euren arteko desberdintasunak, landuko ditut.

3.3.1 Partikula modalen ezaugarri sintaktikoak

Partikula modalak ikuspuntu pragmatiko-semantikotik aztertuagoak izan diren arren, ikuspegi sintaktikotik ere ikertu dira; partikulak eta euren kategoria tipologikoki definitzeko hainbat ezaugarri deskribatu dira ikerketa horietan (Thurmair 1989; Coniglio 2008; Bayer 2009; Bayer eta Obenauer 2011; Bayer eta beste 2014):

- (10) a. Adberbioek ez bezala, kokagune finkoa dute.
 b. Ezin dira koordinatu, ezta modifikatu ere.
 c. Ezin dira fokua edo topikoa izan.
 d. Ez dira berez azentudunak.
 e. Klitiko gisa jokatzen dute gehienetan.
 f. Diakronikoki beste kategoria batzuekin lotuta daude; esate baterako, adberbio, adjektibo, aditz edo menderagailuekin.

- g. Perpaus motek euren erabilera baldintzatzen dute; hots, ezin dira edozein perpaus motatan agertu.
- h. Indar ilokutiboa duten testuinguruetan bakarrik erabil daitezke. Beraz, perpaus nagusietan ez ezik, hainbat mendeko perpausetan ere azal daitezke.
- i. Partikulak ezin dira galdera baten erantzuna izan.

Jakina, ezaugarri hauek orokorrak dira eta hizkuntzen arteko desberdintasunak agerian gera daitezke hurbilago begiraturaz gero; esaterako, euskarazko partikula modal batzuk indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan erabil daitezke:

- (11) Amamak egia *ote* dakien beldurrak kezkatzen nau.⁸
- (12) Piztuerakoan, hildakoak piztuko *omen* direnean, noren emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte? (Biblia *apud* EHUko Euskara Institutua 2009)
- (13) Gaixo neskak, ustez untsa egiten zuela, ura ixuri baitu olioaren gainerat, sekulan ez *omen* delarik hori egin behar! (Sinadurarik gabe EHUko Euskara Institutua 2009)

Dena den, propietate batzuk oro har eztabaidagarriak direla erakutsiko dut jarraian. Ezaugarri hauetako batzuk partikulen jokabide, izaera eta kokagune sintaktikoak zehazteko baliatu dira erakusten dituzten murriztapenetan oinarrituz; hala ere, Gutzmannek (2015) aldarrikatzen du murriztapen horietako batzuek ez dutela sintaxiarekin zerikusirik, partikulen semantikarekin baizik. Esate baterako, gramatika lanetan esan ohi da partikulak ezin direla fokua edo topikoa izan (Abraham 1991; Bayer 2009; Struckmeier 2014; Gutzmann 2015, besteak beste), ezin baitira ezker periferiara mugitu; alabaina, Gutzmannen (2015) arabera, partikulek ezin dute foku edo topiko funtzioa hartu, euren semantikak ez baitu fokua edo topikoa izatea ahalbidetzen. Adibidez, partikulak ezin dira fokua izan ez baitute beste alternatibarik azalarazten:

⁸ Euskaltzaindiak (1999: 145) aditzera ematen du hiztun guztiek ez dituztela horrelako egiturak, i.e. Izen Osagarri Perpausak, onartzen; egia esan, irudi hori jaso dut tesi honen lanean zehar.

(14) *David ist *nur wohl* ein Zombie.

David is FP P a zombie

[Bilatutako irakurketa: Agian bakarrik, David zonbi bat da.] (Gutzmann 2015: 222)

Gutzmannek (2015: 222) dio *wohl* partikula modala ezin dela *nur* partikula fokalarekin lotua izan, ezin baitira *wohl* partikularen alternatibak sorrarazi. Ondorioz, partikula modalek fokuen edo topikoen gune sintaktikoa okupatzeko duten murriztapena ez da sintaktikoa, semantikoa baizik.

Bestalde, modifikatu edo koordinatua izateari dagokionez, Scherfek (2017) dio murriztapen hau hainbat adberbiotan ere sumatzen dela e.g. suedieraz; eta arrazoi sintaktikoak bainoago semantikoak direla aldarrikatzen du:⁹

(15) *Peter har *definitivt och troligtvis* köpt boken.

Peter LAG dudarik.gabe eta ustez erosi liburu.DEF

‘Peruk dudarik gabe eta seguru asko liburuak erosi ditu.’ (Scherf 2017: 85)

(16) *Peter har *väldigt antagligen* köpt boken.

Peter LAG oso seguru.asko erosi liburu.DEF

[Bilatutako irakurketa: Oso ustea dut Peruk liburuak erosi dituela.] (ibidem)

Adibide hauetan agerian geratzen denez, *definitivt* (‘duda barik’) eta *troligtvis* (‘ustez’) bezalako adberbioak ezin dira koordinatu eta, halaber, *antagligen* (‘seguruasko’) bezalako adberbioek ezin dute graduatzailerik hartu.

Era berean, berezko azentua ez izatea zalantzan ipini dute hainbatek (Thurmair 1989; May 2000; Abraham 2011; Egg eta Zimmermann 2012), Groszek (2005) dioen bezala. Propietate honek partikula modalak eta eurekin diakronikoki lotuta dauden osagaiak bereizten ditu, lehenengoek ez baitute azenturik, azkenek ez bezala; beraz, gramatika lanetan beste ezaugarriekin batera baliatu izan da azenturik ez edukitzea partikula modalen kategoria zehazteko. Hala ere, Groszek (2005) adierazten du alemanez partikula modaltzat jo ohi diren batzuek ere azentua eduki dezaketela. Dena den, baieztapen hau ez da aho batez onesten;

⁹ Halaber, Polettok (2000: 96) diosku ipar italiararen hizkeretan murriztapen berdina dagoela: egitura sintaktikoan beheko kokagune bat duten hainbat adberbio ezin dira ezker periferiako lehenengo posizioa mugitu, bestelako adberbioak ez bezala.

hots, Groszek berak, esaterako, ez ditu partikula modalen kide azentudunak liritekeenak partikula modaltzat hartzen. Mayk (2000) eta Abrahamek (2011), aldiz, defendatzen dute kide azentudunak ere partikula modaltzat jo behar direla eta azentuak partikulei interpretazioaren aldetik ekarpen bereizgarria ematen diela gehitzen dute. Groszek (2005) horren kontra egiten du kide azentudunak adberbioek ordezkia ditzaketelako esaldiaren interpretazioa nekez aldatuta. Halaber, Thurmairri (1989) jarraituz, kide bereko forma azentudunak eta azentugabeak elkarren ondoan ager daitezke; beraz, honek frogatuko luke forma desberdinak direla, i.e. ez direla partikula modal baten forma bi. Hurrengo adibidean, (17), *ja* partikula modala bitan azaltzen da, lehenengoa azentugabea eta bigarrena, ordea, azentuduna:

(17) (?) Ich darf *ja JA* mein Unterlagen nicht vergessen.

ni.NOM ahal P P nire agiri.PL ez ahaztu

‘Ezin ditut agiriak ahaztu *ja JA!*’¹⁰ (Grosz 2005: 10)

Hala ere, Groszen (2005) ustez, horrelako adibideak bitxiak dira. Igar daitekeenez, debate zaila eta irekia da hau, hizkuntza horretan partikula modalen izaera erabakitzeke dagoen heinean.

Beraz, balizko partikula modalen kategoriak lituzkeen ezaugarriak ez daude hain argi gaur egun oraindino, semantikarekin zerikusi handiagoa duten murriztapen batzuk, beharbada, baztertu beharko liriteke eta. Dena den, baztertutako ezaugarri hauek partikulen kategoria zehazten lagun dezaketelakoan nago eta, beste kategoria batzuetako osagaiak murriztapen hauetako batzuk erakusten dituzten arren, guztiak dituztenak partikulatzat, zentzu zabalean, hartu beharko liriteke. Hartara, partikulak arlo morfonologikoan, fonologikan, sintaktikoan eta interpretatiboan partikulak urritasun handia duten osagaiak dira, (1) adibidean ezaugarritu dudak bezala.

Hurrengo azpiataletan (§3.3.2 eta §3.3.3) partikula modalen izaera sintaktikoaz esana bilduko dut: hasteko, buruak direlako hipotesiaren aldekoek erabiltzen dituzten argumentuak

¹⁰ Partikula modalen inguruko lan sintaktikoen ohitura bati jarraituz ez dut partikulen ordezkio hurbilena izan litekeen itzulpenik emango, testuinguruaren arabera aldakorrak baitira eta horrek itzultzea zailtzen baitu. Horregatik, partikula letra larriz idatziz markatuko dut itzulitako proposizioan partikularen interpretazioa falta dela. Hala ere, jatorrizko bertsiotan itzulpena emanez gero, euskaratzean kontuan hartuko dut.

eta eztabaida aurkeztuko ditut; ondoren, bestelako analisiak, adberbio ahulak, islapen nagusiak edota sintagmatikoak direla proposatzen dituzten horiek plazaratuko ditut.

3.3.2 Partikula modalak buruak dira

Aurreko azpiatalean esan bezala, partikulen izaera sintaktikoa ez dago argi. Auzi hau argitzeko asmoz, buruak ala sintagmak ote diren galdera erantzuten saiatu dira Coniglio (2007b; 2008), Cardinaletti (2011), Bayer (2009), Bayer eta Obenauer (2011), Scherf (2017), besteak beste. Buru sintaktikoak direla defenditzen dutenek arestian (§3.3.1) zerrendatutako propietateak biltzen dituzte izaera hau argudiatzeko asmoz. Hizkuntza germanikoetako partikulei dagokienez, Bayerrek (2009), Bayerrek eta Obenauerrek (2011) eta Scherf (2017) aldarrikatzen dute hizkuntza horietan adberbioak, eta bestelako osagaiak, aditzaren aurrean perpausaren lehenengo posizioan ager daitezkeela perpaus nagusietan behintzat; hala ere, partikula modalek ezin dute gune hori okupatu. Errepara diezaiegun hurrengo adibideei:

(18) Diese Behauptung ist *ja* falsch.

hori.NOM baieztapen da P oker

‘Bada baieztapen hori okerra.’ (Grosz 2006: 85-86)

(19) **Ja* ist diese Behauptung falsch.

P da hori.NOM baieztapen oker. (ibidem)

Aurreko adibideetan *ja* partikula modala azaltzen da; adierazi bezala, berau lehenengo gunetik baztertuta dago, alemanezko adberbioak ez bezala.

Bayerrek (2009), Bayer eta Obenauerrek (2011) eta Struckmeierrek (2014) ezaugarri hau 3.3.1 azpiataleko (10b), (10c), (10e) eta (10f) propietateekin batera aintzat hartuz, partikulak buruak direla ondorioztatzen dute, batetik, ez dutelako adberbioen¹¹ jokabidea erakusten eta, bestetik, murriztapen hauek bat datozelako buru sintaktikoek dituztenekin; hots, buruak ezin ei direlako espezifikatzaile gune batera mugitu.

¹¹ Alemanezko partikula modal gehienak adberbioetatik eta neurri txikiagoan adjektiboetatik eratorriak ei dira (Abraham 1991; Grosz 2006); hori dela eta, adberbioei gehienbat erreparatu eta eurekin konparatzen dira partikula modalak.

Conigliok (2007b) dio partikulek, buruak badira, aditzaren ezker periferiarako mugida oztopatu beharko luketela edo aditzari atxiki eta elkarrekin mugitu beharko liratekeela, buruz buruko mugidaren ondorioz. Modu batean edo bestean jokatzek frogatuko luke, bere ustez, buru-izaera. Jokabide hori suedierazko *ju* eta *väl* partikula modalek ei daukate (Scherf 2017). Suedierazko perpaus nagusietan aditza KonpS-ra igotzen da; mendekoetan, ordea, ez, *in situ* gelditzen da:

(20) a. Igår såg pojken filmen.

atzo ikusi.LEH mutil.DEF filma.DEF

‘Mutilak atzo filma ikusi zuen.’ [Scherfen (2017: 80) adibide egokitua]

b. *Igår pojken såg filmen.

atzo mutil.DEF ikusi.LEH filma.DEF (ibidem)

(21) a. Peter säger att Johan troligtvis såg Anna igår.

Peter esan MEND Johan ziuraski ikusi.LEH Anna.AK atzo

‘Peruk Jonek seguru asko atzo Ane ikusi zuela esaten du. [Scherfen (2017: 90) adibide egokitua]

b. *Peter säger att såg troligtvis Johan Anna igår.

Peter esan MEND ikusi.LEH ziuraski Johan Anna.AK atzo (ibidem)

Partikulen jokabideari dagokionez, perpaus nagusietan aditzarekin batera mugitzen dira; mendekoetan, aldiz, ez dute *ju* eta *väl* partikulek mugidarik. Aditza mendeko testuinguruetan ez dela mugitzen gogoan edukita, Scherfek (2017) ondorioztatzen du partikulen mugida aditzaren mugidak dakarrela; beraz, aditza mugitzen ez bada, partikulak eta aditza *in situ* agertzen dira. Ikus dezagun jokabide hori hurrengo adibideetan:

(22) a. Igår såg {ju / väl} pojken filmen.

atzo ikusi.LEH P P mutil.DEF filma.DEF

‘Mutilak JU / VÄL atzo filma ikusi zuen.’ (Scherf 2017: 80)

b. Igår såg pojken *{ju / väl} filmen.

atzo ikusi.LEH mutil.DEF P P filma.DEF (ibidem)

- (23) a. Peter säger att Johan {*ju / väl*} troligtvis såg Anna igår.
 Peter esan MEND Johan P P ziuraski ikusi.LEH Anna.AK atzo
 ‘Peruk Jonek JU / VÄL seguru asko atzo Ane ikusi zuela esaten du. (ibidem: 90)
- b. Peter säger att *{*ju / väl*} Johan troligtvis såg Anna igår.
 Peter esan MEND P P Johan ziuraski ikusi.LEH Anna.AK atzo
 (ibidem)

Adibide hauetako beste ebidentzia batetik abiatuta, honakoa nabarmendu nahiko nuke: partikulak gehienetan klitikoak direla aldarrikatu ohi da eta buruak direlako analisiaren aldeko argudiotzat erabili izan da ezaugarri hau. Dena den, burua den osagai batek ez du zertan klitikoa izan; izan ere, buru funtzionalak beregainak ere izan daitezke, suedierazko adibide hauek erakusten duten bezala. Beraz, klitikoak ez diren partikula modalak ere buruak izan litezke; hots, klitikotasun izaera ez da froga erabakigarria.

Bestalde, partikula modalak adberbioetatik bereizteko, alegia buruak sintagmetatik desberdintzeko, erabiltzen den beste ezaugarri batez ohartarazi dit Josef Bayerrek (a.k.): *vielleicht* hitzak, partikula modala denean, *leicht* forma har dezake Austriako Karintiako alemanez, edo *fei* forma Bavariako alemanez (Abraham 1991: 9. oin oharra); adberbioa denean, aldiz, ezin du horrelako formarik hartu:

- (24) a. Der hat [*vielleicht* > *leicht* / *fei*] a Ahnung!.
 hau.M du P bat ideia
 ‘Ez du inongo ideiarik!’ [partikula modal moduan ulertuta]
- b. [*Vielleicht* > **leicht* / **fei*] hat er gar keine Ahnung.
 beharbada/*P du bera.M (batere ez) ideia
 ‘Beharbada ez du ideiarik bat ere.’ [adberbio moduan ulertuta]

Alegia, Josef Bayerren (a.k.) ustez erdiko eremuan kokatzen den *vielleicht* osagaia buru funtzionala da eta laburtu egin daiteke; ezker periferiara mugi daitekeen espezifikatzaile gunea okupatzen duen *vielleicht* osagaia adberbioa da eta ezin da fonologikoki laburtu.

Amaitzeko, partikula modalak buruak direlako hipotesiaren alde erabiltzen diren ezaugarri orokor hauetako batzuk (hots, partikulen semantikak azal ditzakeenak, i.e. (10b),

(10c) eta (10i) propietateak) baztertuagatik, jarraian hainbat nabarmendu nahiko nituzke, analisi honen kontrakoan argumentuak aurkeztu baino lehen. Lehenengoz, partikulak ezin dira edozein kokagunetan azaldu; hots, gune jakin bat okupatzen dute. Esaterako, A2 hizkuntzetan DenbS-ren eremuan bakarrik azal daitezke eta, klitikoak ez direnean ere, ezin dira lehenengo posizioan agertu. Honez gain, partikulak buruak direla eta berauek DenbS-ren eremukoan edo gorago kokatzen direla onartuz gero, aditzarekin bat egin eta elkarrekin mugitu beharko lirateke, aditza buruz buruko mugidaren bitartez ezker periferiara igotzen denean (Coniglio 2007b; 2008; Scherf 2017). Bestalde, azentugabeak ote diren eztabaida buru funtzional klitikoak izateko aukerarekin lotuko nuke. Azkenik, argumentu diakronikoak, interesgarriak eta baliagarriak izan daitezkeen arren, albo batera utziko nituzke, besteak beste, alemanezko partikula modal asko adberbioetatik edo adjektiboetatik eratorriak baitira. Beraz, gramatikalizatu baino lehen espezifikatzaile gunea okupatuko lukete; hau aintzat hartuta, ez zait oso argudio sendoa iruditzen buru izaeraren alde egiteko. Hala ere, aurrerago (§4.4) labur itzuliko naiz auzi diakroniko honetara euskarazko partikula modalak aztertzean.

Orain arte partikula modalak buruak direla defendatzen dutenen arrazoiak eduki ditut hizpide, horietako batzuk baztertuta; jarraian izaera sintagmatikoaren alde daudenetara joko dut eta horrelako izaera sintaktikoa aldarrikatzeko zertan oinarritzen diren aztertuko dut.

3.3.3 *Partikula modalak ez dira buruak*

Partikula modalek buru posizioa gabe, espezifikatzaile gunea okupatzen dutela proposatzen dute Groszek (2005; 2006), Conigliok (2007b; 2008), Cardinalettik (2011) eta Scherfek (2017). Dena den, Conigliok onartzen duen bezala, izaera honen aldeko ebidentziak ez dira buru izaeraren aldeko hipotesiarenak bezain sendoak, eta gehienetan azken hauenak ezeztatu baino ez dituzte egiten izaera sintagmatikoa defendatzen dutenek.

Aurreko azpiatalean (§3.3.1) zerrendatutako hainbat propietate baztertu ditut dagoeneko, semantikarekin zerikusi handiagoa ei dutelako sintaxiarekin baino (Gutzmann 2015). Honez gain, ebidentzia prosodikoan oinarritzea ere ez dela argia erakutsi dut, Groszen (2005) ildotik. Arestian (§3.3.1) esan dut partikula modalak azentugabeak izateak euren klitikotasuna ekar lezakeela; hots, buru funtzional klitikoak direlako ideia indartzen duela. Groszek (2005) eta Cardinalettik (2011) aldarrikatzen dute klitikoak diren horiek ez direla,

egia esan, buruak; Cardinalettik gaineratzen du partikula modalak azentudunak izan daitezkeela. Gai honi heldu baino lehen, errepara diezaiogun Cardinalettiren (2011) teoriari.

Aurreko lan batetik (Cardinaletti eta Starke 1999) abiatuta, Cardinalettik (2011) dio partikula modalak adberbio kategoriako osagaiak direla; hala ere, *atzo*, *ondo* edo *nekez* bezalako ohiko adberbioak ez bezala, partikula modalak ez dira adberbio osoak, ahulak edo klitikoak baizik. Bereizketa bera (izenordain osoak, ahulak eta klitikoak) proposatzen dute Cardinaletti eta Starkek (1999) izenordainen kasuan; hauetan bezala, hainbat arloren edo *islapenen* arabera bereizten dituzte hitz osoak, ahulak edo klitikoak. Honako arloak identifikatzen dituzte (Cardinaletti eta Starke 1999; Cardinaletti 2011): fonologiko-prosodikoa, periferikoa eta inflexiokoa. Proiekzio horiek hitzen egitura sintaktikoan islatzen dira: elementu osoek hiru arlo horiek dituzte barruan; proiekzioen bat ez badago, egitura murriztuta legokeela aldarrikatzen du Cardinalettik eta, ondorioz, osagai horiek ahulak edo klitikoak izan behar dira. Partikula modalei begiratu gero, berauek ez dute proiekzio periferikoa Cardinalettiren (2011) arabera, eta beraz alemanezko nahiz italierazko partikula modalak adberbio ahulak direla ondorioztatzen du. Halaber, partikula batzuek proiekzio periferikoz gain, fonologiko-prosodikoa ere ez edukitzeak klitikoak direlako ondorioa dakar; multzo honen barruan Vienako *-dn* eta Bavariako *-n* bezalako partikula modalak sartzen ditu Cardinalettik (2011).

Ondorio horietara heltzen da euren ezaugarri fonologikoei, batez ere, begiratu. Hasteko, arestian esan bezala, Cardinalettik (2011) dio alemanezko nahiz italierazko partikula modalek hitz azentua jaso dezaketela: alemanezkoei erreparatu gero, ebidentzia hori suma daiteke hainbat partikula modalen bokalak luza daitezkeelako. Ikus dezagun hurrengo adibidea:

(25) Komm *mal!* [ma:l]

etorri P

‘Zatoz!’ (Cardinaletti 2011: 496)

Kasu horretan *mal* partikula modalaren bokala luzea izan daiteke. Preposizioek eta menderagailuek, ordea, ez dute propietate hau erakusten; *mit* preposizioak edo *dass* menderagailuak ezin dute bokal luzerik eduki:

3. Partikula kategoria gramatika lanetan barrena

- (26) *mit* [mit] / *[mi:t] // *dass* [das] / *[da:s]
COM MEND (Cardinaletti 2011: 496)

Halaber, partikula modal bisilabikoak¹² daude eta eurek beti jasotzen dute azentua. Izan ere, silaba azentudunek eduki ditzaketen hotsak agertzen dira hainbat partikula modaletan, esaterako italierazko hauetan:

- (27) *ben* [bɛn] // *poi* [pɔj] (Cardinaletti 2011: 497)

Adibide horretako hitzetan [ɛ] eta [ɔ] ageri dira. Bokal horiek silaba azentudunetan besterik ezin dira azaldu. Beraz, azenturik ez balego, bokal horiek [e]-k eta [o]-k ordezkaturiko lituzkete hurrenez hurren.

Honez gain, elementu ahulek ezin dutela azentu kontrastiborik jaso, izenordainek bezala, gogorarazten du Cardinalettik (2011: 498):

- (28) A: *sie ist doch* gekommen. B: (nein) **sie ist HALT* gekommen.
bera.nom LAG P etorri.PRTZ EZ bera.NOM LAG P etorri.PRTZ
'A: DOCH etorri da B: ez, HALT etorri da.'

- (29) a. **Ich habe SIE* gekauft, nicht die *Zwiebeln*.
ni. NOM LAG bera.AK.OBJ erosi.PRTZ ez ART tipula.PL
'Hori erosi dut, ez tipulak.'
b. *Ich habe SIE* gesehen, nicht ihre *Schwester*.
ni. NOM LAG bera.AK.PER ikusi.PRTZ ez 3SG.FEM.GEN arreba.PL
'Bera ikusi dut, ez bere ahizpa.'

Beraz, (28) adibidean *doch* partikula modalarekin kontrajarrita erabiltzen den *halt* partikula modalak ezin du azentu kontrastiborik jaso; halaber, (29) adibidean objektu bati erreferentzia

¹² Struckmeierrek (2014: 24) adierazten du Cardinalettiren (2007: 94) ustez partikula modalak ezin direla buruak izan hitz-azentua eduki dezaketelako eta silaba bat baino luzeagoak izan daitezkeelako. Hala ere, Struckmeierrek kontra egiten dio eta ezaugarri horiek alemanez buru funtzionaltzat jo izan diren osagaiak buruak ez izatea lekarketela dio; laburbilduz, Struckmeierrek dio ezaugarri horiek, beste hizkuntza baterako baliozkoak izan daitezkeen arren, ez dutela alemanezko partikula modaletarako balio.

egiten dion *sie* izenordain ahulak ezin du azentu mota hori jaso, pertsona bati erreferentzia egiten dion *sie* izenordainak ez bezala.

Perpaus mailako azentua ere ez dute partikula modalak bezalako osagai ahulek onartzen. Esaterako, (30) adibidean *gesagt*-ek perpaus mailako azentua jasotzea zilegi da alemanez; hala ere, *denn* partikula modalak jasotzen badu, perpausa ez da egokia, (31) adibidean bezala:

(30) Was hast du *denn* GESAGT?
 zer LAG zu.NOM P esan.PRTZ
 ‘Zer esan duzu DENN?’ (Cardinaletti 2011: 500)

(31) *Und was hast du *DENN* gesagt?
 eta zer LAG zu.NOM ondoren esan.PRTZ
 ‘Eta zer esan duzu ondoren?’ (ibidem)

Azkenik, semantikaren aldetik diosku partikula modalek ez dutela erreferentzia argirik, i.e. ez dutela esanahi lexiko zehatzik; aitzitik, hiztunaren jarrera adierazten dute. Hau ere bat dator, Cardinalettiren (2011) ustez, izaera urriko osagaiak izatearekin.

Ondorioz, ebidentzia hauetan oinarrituta, Cardinalettik (2011) aldarrikatzen du bai alemanezko, bai italierazko partikula modalak adberbio ahulak direla eta espezifikatzaile gunean azaltzen direla. Dena den, partikulak klitikoak ere izan daitezkeela onartzen du, Vienako alemanezko *-dn* eta Bavariako alemanezko *-n* gogoan. Hala ere, partikula modal klitiko hauek ere espezifikatzaile gunea okupatuko lukete.¹³ Honaino Cardinalettiren (2011) argudioak aurkeztu ditut; jarrai dezagun bestelakoak aztertzen.

Izaera sintagmatikoa defendatzen dutenek propietate fonologiko-prosodikoak ez ezik, sintaktikoak ere hartzen dituzte aintzat. Conigliok (2007b) erakusten du aurreratuta dagoen Determinatzaile Sintagma bat edo Preposizio Sintagma bat partikula modal biren artean ager

¹³ Cardinalettik (2011) eratorbide osoa agerian uzten ez badu ere, kokapen bera proposatzen duela azaltzen du Groszek (2005): azken autore honek dio partikulak, izenordain ahulak bezala, Konp buruari edo Jok buruari atxikitzen zaizkiela, buru horiek betetzen baitituzte partikulek dituzten behar prosodikoak. Dena den, *-dn* izenordain sendoei lotua ager daiteke; kasu honetan Groszek (2005) aldarrikatzen du izenordain sendoek behar prosodikoak asetzaz gain, harreman bat sortzen dela partikularen eta izenordainaren artean, partikularen interpretazioan eragina duena.

daitekeela. Alegia, (32) adibidean *bei dem Menschen* Preposizio Sintagma partikula modal biren artean agertzen da, *ja*-k eta *wohl*-ek tartekatuta hain zuzen:

- (32) [...] weil es ja bei jedem Menschen wohl eine gewisse
MEND bera.NOM P IN bakoitza.DAT pertsona.PL P bat zehatz
Entwicklung gibt.
garapen eman
‘[...] JA pertsona bakoitzarengan WOHL garapen zehat bat dagoelako.’ (Coniglio
2007b: 28)

Conigliok argudiatzen du aurreratuta dagoen sintagma hori adjunktua dela eta adjunktua ezin zaizkiela buruei atxiki; hots, partikula modalak buruak badira ezin lukete osagai hori adjunktua moduan hartu. Hala ere, Conigliok ez du zehazten, adibidez, DetS eta PS horien mugidaren helburua; egia esan, fokua edo topikoa¹⁴ izango balira, partikula modalek okupatzen dituzten sintagmen arteko beste sintagma batera mugitzen direla proposa liteke, partikulen izaera sintaktikoa zehazti den ere.

Honez gain, Conigliok (2007b) dio partikulak aS-ren eta DenbS-ren arteko sintagma baten buruak izango balira, aditzaren mugida oztopatu beharko luketela edo berarekin batera mugitu. Lehen (§3.3.2) esan bezala, suedierazko *ju* eta *väl* partikula modalak buruz buruko mugidaren bitartez igotzen dira ezker periferiara perpaus nagusietan, mendekoetan ez bezala. Scherfek (2017) gehitzen du partikula hauez gain, mugitzen ez diren beste bi ere badaudela, *nog* eta *visst*. Scherfek argudiatzen du kasu honetan partikulak izaera sintaktiko desberdinekoak direla, alegia azken hauek sintagmatikoak direla eta, ondorioz, espezifikatzaile gunea okupatzen dutela; hori dela eta, aditza ezker periferiara igotzean partikula hauek *in situ* gelditzen dira; hots, mugidak ez du partikula hauen kokapenean eraginik:

- (33) Igår såg pojken {nog / visst} filmen.
atzo ikusi.LEH mutil.DEF P P filma.DEF
‘Mutilak NOG / VISST atzo filma ikusi zuen.’ (Scherf 2017: 81)

¹⁴ Struckmeierrek (2014: 36, 40) erakusten du perpausaren egitura DenbS-ren azpian TopS bat egon daitekeela.

- (34) Peter säger att Johan {*nog* / *visst*} troligtvis såg Anna igår.
 Peter esan MEND Johan P P ziuraski ikusi.LEH Anna.AK atzo
 ‘Peruk Jonek NOG / VISST segururu asko atzo Ane ikusi zuela esaten du. (ibidem: 90)

Arestian, (22) eta (23) adibideetan, erakutsi dut suedieraz aditza perpaus nagusietan mugitzen dela eta, *ju* eta *väl* partikula modalak agertuz gero, aditzarekin batera igotzen direla ezker periferiara. Oraingoan, aldiz, *nog* eta *visst* partikulek posizio bera okupatzen dute bai aditza mugitzen den perpaus nagusietan, bai aditza igotzen ez den mendekoetan. Egoera honek aleman estandarreko partikula modalen jokabidea gogorarazten du, i.e. aditza Konp burura mugitu ala ez, partikulak beti kokagune berean azaltzen dira.

Azkenik, Coniglio (2007b) eta Cardinaletti (2011) 3.3.1 azpiatalean baztertutako argumentuez baliatzen dira justifikatzeko partikula modalak ez direla adberbio osoak, adberbio ahulak baizik (cf. Munaro eta Poletto 2002; Bayer 2009; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014; Trotzke eta Turco 2015). Beraz, propietate berek izaera biak defendatzeko balio dutela ematen du; honek, nire ustez, indartzen du ezaugarri hauek izaera sintaktikoaren azterketarako baliagarriak ez direlako ideia.

Honaino partikularen izaera sintagmatikoaren aldekoek erabiltzen dituzten argudioak. Hauteman daitekeenez, fonetikan eta prosodian batez ere oinarritzen dira buru funtzionaletatik bereizteko. Ezaugarri sintaktikoen aldetik, Conigliok (2007b) aitortzen duenez, partikula modalak islapen nagusiak direla defendatzen dutenek buru sintaktikoak direlako hipotesiaren aldekoen argudioak baztertu baino ez dituzte egiten, edo argudio berak erabiltzen dituzte, ondorio desberdinetara heltzeko. Dena den, ezaugarri sintaktiko bi gehitzen ditu Conigliok (2007b) buruaren hipotesia baztertzeko: a) buruek ezin dute adjunkturik hartu, eta b) buruz buruko mugida oztopatu beharko lukete partikulek. Lehenengoa albo batera utzita, bigarrena nabarmendu nahiko nuke; izan ere, suedieraz (Scherf 2017) ez ezik, euskaraz ere baliagarria da propietate hau izaera desberdineko partikula modalak bereizteko.

Laburbiltzeko, atal honetan (§3.3) erakutsi nahi izan dut gramatika lanetan partikula modalek bai buru kokaguneak, bai espezifikatzaile guneak okupatzen dituztela proposatua izan dela; honez gain, erabilitako argumentuak deskribatu eta aztertu ditut, 4.4 atalean euskarazko partikula modalak aztertzean baliagarriak izango zaizkidalakoan. Hurrengo

atalean partikula modalen inguruko beste eztabaidagai bati ekingo diot, i.e. hizketa ekintza eremuan, ezker periferian edo erdiko eremuan azaltzen ote diren.

3.4 Partikulen kokagune sintaktikoaz

Kapituluaaren sarreran (§3.1) partikula (modal)en inguruko eztabaida nagusi bi jorratuko ditudala esan dut: alde batetik, partikulen izaera sintaktikoaz eztabaitu dute Groszek (2005), Conigliok (2007b; 2008), Bayerrek (2009), Bayer eta Obenauerrek (2011), Cardinalettik (2011), besteak beste, 3.3.2 azpiatalean eta 3.3.3 azpiatalean erakutsi dudak bezala; beste alde batetik, partikulak gune eta eremu desberdinetan zehar kokatuak izan dira. Azken gai honi helduko diot atal honetan, ondoren (§6.3.2, §6.4 eta §7.6) euskarazko partikulak eta euren aldakortasuna aztertzerakoan erabilgarria izango delakoan.

Lehenik eta behin, Cinquek (1999), hizkuntza ugariko datuak hornituta, askotariko kokagune sintaktikoak eta denetariko semantika dituzten osagaiak ikertzen ditu. Ezaguna da bere lana bertan hainbat buru funtzional bereizten baititu perpausari egiten dioten funtzioa edo interpretazioa irizpidetzat hartuta; hots, aspektua, denbora, modalitasuna,¹⁵ epistemikotasuna, ebidentzialtasuna, ebaluatzailetasuna, galderatasuna eta abarreko kontzeptuek sintagma bana jasotzen dute. Datu tipologikoez baliatzen da interpretazio desberdin hauek dituzten osagaiak aztertzeko asmoz; horretarako, hizkuntza askotan partikulek¹⁶ perpaus mailan okupatzen duten tokiari eta beste osagaiekin duten banaketari ez ezik, hurrenkerari ere erreparatzen dio. Ebidentzia horiek eta partikulek duten funtzioa (i.e. aspektua, denbora, modalitatea edo hiztunaren jarrera adierazten duten) oinarri hartuz, egitura sintaktiko zehatzak esleitzen dizkie. Alegia, epistemikotasuna adierazten duten osagaiek Epistemikotasun Sintagma proiektatzen dute eta, era berean, elementu ebidentzialek Ebidentzialtasun Sintagma; ondoren, partikulek hizkuntza desberdinetan dituzten elkarren arteko hurrenkerari eta gainerako osagaiekiko (adberbioekin, aditzekin, denborarekin) banaketa aintzat hartuz, Cinquek (1999) aldarrikatzen du EbidentzialS-k EpistemikoS o-komandatzen duela eta berauek, aldi berean, Hizketa Ekintza Sintagmaren eta Denbora Sintagmaren artean kokatzen direla. Guztira hogeita hiru sintagma proposatzen ditu


¹⁵ Hiru hauen barruan bereizketa gehiago proposatzen ditu; guztiak aipatzeak luze joko luke eta hemengo ikergaiari gutxi eskainiko lioke, nire ustez.

¹⁶ Cinquek (1999) ez ditu partikulak beren-beregi aztertzen, adberbioei eta buru funtzionalei orokorrean erreparatzen baitie. Oraingo helburua gogoan, partikuletara mugatuko naiz, tesi honen ikergaia baitira.

hizkuntzartean; honek sortzen du (Speas 2004: 265; Struckmeier 2014) teorian uste baino korapilatsuagoa den egitura sintaktiko bat. Dena den, ez du ematen sintagma guztiak biltzen dituen hizkuntzarik dagoenik; Cinquek (1999: 133) azaltzen duenez, ikuspegi minimalistatik abiatuta, Gramatika Unibertsalak bereizketa hauek guztiak dituen arren, mementuz mementuko beharren arabera batzuk edo besteak agertuko lirateke (Giorgi eta Diansi *apud* Cinque 1999: 133). Neurri handi batean bat nator hurbilketa honekin; izan ere, Cinqueren proposamenak osagai funtzionalak deskribatu eta berauek hezurdura sintaktikoan duten banaketa, hierarkia eta kokagunea identifikatzen dituen heinean oso baliagarriak iruditzen zaizkit partikula ebidentzialak, epistemikoak edo galderazkoak aztertzerakoan.

Asmo handiko lan honen ondoan, hizkuntza gutxiago eta partikula kopuru txikiagoa arakatzen dituzten lanak ere badaude. Alegia, funtzio askotako osagaiak aztergai hartu beharrean, hiztunaren (edota entzulearen) jarrera eta hizketa ekintza adierazten dituztenetara mugatzen dira horiek (Coniglio 2007a; Bayer eta Obenauer 2011; Coniglio eta Zegrean 2012; Haegeman 2014; Struckmeier 2014; Del Gobbo eta beste 2015; Corr 2016; Heim eta beste 2016; Scherf 2017). Dena den, horiek bat datoz tesi honen ikergai diren partikula motekin, beraz interes handiko lanak ditut. Horrelako lanek aldarrikatzen dituzten kokaguneak hiru dira: a) Denbora Sintagmaren eremua edo, tradizio germaniarrari jarraituz, erdiko eremua; b) ezker periferia edo Konplementatzaile Sintagmaren eremua; eta c) Hizketa Ekintza Sintagmaren eremua.

(35)



Analisi gehienek partikulak ezker periferian kokatzen dituzte, indar ilokutiboarekin duten lotura dela eta (Munaro eta Poletto 2002; Kuong 2008; Coniglio eta Zegrean 2012; Kuwabara 2013; Hinterhölzl eta Munaro 2015). Hizkuntza germanikoetakoak, aldiz, erdiko eremukoak direla aldarrikatu dute (ia) aho batez (Abraham 1991; Coniglio 2007b; Bayer eta Obenauer

2011; Cardinaletti 2011; Struckmeier 2014; Scherf 2017), ebidentzia sintaktikoetan oinarrituz. Azkenik, hiztunaren eta entzulearen rolekin zerikusia duten partikula batzuk Hizketa Ekintza Sintagmaren eremuan (ere) kokatuak izan dira, euren interpretazioetatik (Heim eta beste 2016), sintaxitik (Haegeman 2014) edo bietatik (Corr 2016; Kellert eta Lauschus 2016) abiatuta.

Hurrengo lerroetan banan-banan aztertuko ditut eremu bakoitzerako argudioak: hasteko, 3.4.1 azpiatalean partikulak Denbora Sintagmaren eremuan kokatzeko argudioak jorratuko ditut; ondoren, (§3.4.2) Konplementatzaile Sintagmaren eremuko partikulak aztertuko ditut, direla galdera partikulak, direla partikula modalak, ebidentzia sintaktikoetan oinarrituz; amaitzeko, (§3.4.3) Konplementatzaile Sintagma baino goragoko Hizketa Ekintza Sintagmaren eremua esleitu zaien partikulei eta euren analisiari ekingo diet, propietate sintaktikoak ez ezik, interpretatiboak ere aintzat hartuta.

3.4.1 Partikula (modal)ak erdiko eremuan

Hizkuntza germaniar guztiek, ingelesak salbu, partikula modal argiak dituzte (cf. Aijmer 2013):¹⁷ nederlanderak (Haegeman 2014), suedierak (Scherf 2017), flamenkerak (Haegeman 2014) eta, jakina, alemanak (Abraham 1991). Hizkuntza hauen artean, familia berekoak diren arren, aldeak igartzen dira; hala ere, hizkuntza horiek ageriko erdiko eremua dute eta bertan kokatzen dira, hain zuzen ere, partikula modalak. Are gehiago, Abrahamen (1991) arabera, erdiko eremu argia duten hizkuntzek bakarrik gara ditzakete partikula modalak. Aldarrikapen hori albo batera utzita, kokagune horren aldeko argudioak aztertzeko, berriro ere, partikula aztertuenen analisisa hartuko dut abiapuntu, alemanezkoena alegia.

Aurretik (§3.3) esan bezala, partikula modalen izaera sintaktikoa eztabaidagarria den arren, euren kokapena ez bide da zalantzan ipintzen; analisi ugarik (Abraham 1991; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014; Bayer eta Trotzke 2015) aldarrikatzen dute partikulek Denbora Sintagmaren eremuaren barruan goiko guneko bat okupatzen dutela. Struckmeier (2014) honako hiru jokabideetan oinarritzen da ondorio horretara heltzeko:

¹⁷ Ingeleserako ere partikula modal batzuk proposatu dira (Aijmer 2013); hala ere, kategoria hau hizkuntza honetan ez da alemanez, nederlanderaz edo suedieraz bezain argia.

- a. Partikulak perpaus nagusietan aditz jokatuaren ostean eta zenbatzaile deslaien (ing. ‘stranded quantifier’), hala nola *alle* (‘oro’), edo subjektu baxu prototipikoen (*nz*-izenordain zehaztugabeak kasu) aurretik agertzen dira; beraz KonpS baino beheiago baina aS baino goragoko gune batean egon beharko lirateke.
- b. DenbS-ren azpian bide daude, [espez, DenbS] gunean agertzen diren subjektuen ostean ager daitezkeelako:

(36) [_{KonpS} Gestern haben [_{DenbS} *die Studenten eigentlich* [_{aS} *alle* gefeiert.]]]
 atzo LAG ART.PL ikasle.PL P oro ospatu.PRTZ
 ‘Ikasle guztiek atzo ospatu zuten EIGENTLICH.’ (Struckmeier 2014: 25)

(37) [_{CP} Gestern hat [_{TP} *die Studenten ja* [_{VP} *wer* gesehen.]]]
 atzo LAG ART.PL ikasle.PL P nor.NOM ikusi.PRTZ
 ‘Nork edo nork atzo ikasleak ikusi zituen JA.’ (ibidem)

Beraz, adibide hauetan ikus daitekeenez, *eigentlich* eta *ja* partikula modalak *die Studenten* subjektuen ondoren baina *alle* zenbatzaile deslaiaren eta *wer* *nz*-izenordain zehaztugabearen aurrean kokatzen dira.

- c. Alemanezko partikula modalak adberbioak baino gorago azaltzen dira; (38) adibidean ikus daitekeenez, *wohl* partikula modala *heute* (‘gaur’) eta *gerne* (‘gustura’) adberbioen aurretik kokatzen da:

(38) Hein wäre *wohl heute* *GERNe* auf See.
 Hein legoke P gaur gustura IN itsaso
 ‘Hein gaur itsasoan gustura legoke WOHL.’ (Struckmeier 2014: 38)

Bestalde, topikoak DenbS-ren azpian dagoen TopS-ra mugitzen direnean, berauen ostean agertzen dira partikulak; banaketa hau (39) adibidean sumatzen da, TopS-ra mugitu den *eine Kreuzotter* DetS *nur* partikula baino lehenago agertzen baita:

(39) Wo kann [*eine Kreuzotter*]_i nur _{t_i} überwinttern?

non ahal.OR bat.FEM sugedorri P hibernatu

‘Non hiberna dezake sugedorri batek NUR?’ (Bayer eta Obenauer 2011: 456)

Azkenik, osagaien batek fokua *in situ* jasoz gero, partikula modalak bere ezker aldean agertzen dira; foku kontrastiboa bada, ordea, bere ondoren kokatzen dira partikulak. Hitz-ordena hauek (40-41) adibideetan jasotzen dira:

(40) (...) weil er nach Mailand *ja* [_{Fok} *seinen BRUDer*] schickt.

MEND bera.M.NOM ADL Milan P bere anaia bidali.OR

‘(...) bere anaia bidaltzen duelako berak Milanera JA.’ (Struckmeier 2014: 38)

(41) Der Attentäter ist *absichtlich ja* von der Polizei

ART.M.NOM hiltzaile LAG nahita P AG ART.FEM.DAT polizia

festgehalten worden.

atxilotu.PRTZ LAG

‘Hiltzailea atxilotu zuen poliziak nahita JA.’ (ibidem: 40)

Lehenengoan (40) fokua *in situ* jasotzen duen *seinen Bruder* DetS *ja* partikula modalaren ondoren azaltzen da; (41) adibidean, ordea, *absichtlich* adberbioak foku kontrastiboa du eta, beraz, *ja* partikula modalaren aurretik dago.

Bestalde, Conigliok (2007b; 2008) ere alemanezko partikula modalen kokapena aztertzen du Cinqueren (1999) analitik abiatura hain zuzen. Conigliok alemanezko partikula modalen eta adberbioen arteko banaketari erreparatu dio eta partikula modalek hainbat posizio bete ditzaketela ondorioztatzen du. Cinqueren hierarkian Hizketa Ekintzaren aurreko gunetik, i.e. Cinquek proposatutako gune gorenetik, Asp_[errepikorra]-ren aurreko gunera zabaltzen den eremuko edozein tokitan ager egi daitezke partikula modalak:

(42) (√) > Hiztunaren jarrera_[Hizketa ekintza] > (√) > HizJar_[Ebaluatzailea] > (√) > HizJar_[Epistemikoa] > (√) > Modu_[Epistemikoa] > (√) > Denb_[Lehen] > (√) > Denb_[Gero] > (√) > HizJar_[Irrealis] > (√) > Mod_[Beharra] > (√) > Mod_[Aukerazkoa] > (√) > Asp_[Ohikotasuna] > (√) > Asp_[Errepikorra] > * > (...)
(Coniglio 2008: 100)

Dena den, Thurmairrek (1989), Zimmermannek (2004) eta Bayerrek (2009) ez bezala, Conigliok aldarrikatzen du partikula modalak baldintza jakin (eta zehaztugabe) batzuen ondorioz mugi daitezkeela. Are gehiago, Conigliok (2007b; 2008) dio partikula modalak DenbS baino beheragoko Asp_[ohikotasuna] eta Asp_[errepikorra] (goiko) sintagmen artean sortzen direla eta hainbat baldintzaren eraginez *MoodS*-ren eta *ModS*-ren arteko proiektzio funtzionaletara igotzen direla.

Beraz, ezaugarri desberdinetan oinarrituta, ondorio berdina ateratzen dute Conigliok (2007b; 2008) eta Struckmeierrek (2014): hau da, alemanezko partikula modalak DenbS-ren eta aS-ren arteko eremuan sortzen direla. Nabarmenezkoa da partikulen izaera sintaktikoari dagokionez hipotesi hauek ez datozela bat: Conigliok (2007b; 2008), lehen esan bezala, adberbio ahultzat jotzen ditu eta Struckmeierrek (2014), ordea, burutzat. Jarraian beste hizkuntza germaniar bati begiratuko diot, suediarri alegia, partikula modalak DenbS-ren eremukoak diren arren, DenbS-ren gainetik agertzen ei baitira.

Scherfek (2017) suedierazko partikula modalak bi taldetan multzokatzen ditu: batzuk beti DenbS-ren eremuan (aditzarekin bat egin ostean, mugitzen diren arren) eta beste batzuk DenbS-ren eremuan zein KonpS-ren eremuan sor daitezke.¹⁸ Mota biak DenbS-ren eremuan azaltzen badira ere, Scherfek esleitzen dien kokagunea ere ez da bera eta bi bereizten ditu hurrengo jokabideetan oinarrituta: bateko, subjektua DetS osoa bada eta DenbS-n gelditzen bada, hots [espez, KonpS]-ra mugitzen ez bada (suediera A2 hizkuntza batean gertatu ohi den bezala), orduan *ju* and *väl* subjektuaren aurretik agertu behar dira (cf. 43); *nog* eta *visst*, ordea, ez (cf. 44). Besteko, subjektu izenordainen kasuan, azentugabea bada, *ju* eta *väl* partikulak bere aurretik edo ondotik ager daitezke (cf. 45a); *nog* eta *visst*, aldiz, beti bere ondotik (cf. 45b). Azentuduna bada, aldiz, lau partikulek berdin jokatzen dute, laurak izenordain azentudunaren ostean agertu behar baitira (cf. 46a eta 46b). Azkenik, partikula multzo biak bateragarriak dira, hots *ju* eta *väl* banaketa osagarrian daude, baita *nog* eta *visst* ere; hala ere, *ju nog* edo *visst* partikulekin azal daitezke, baita *väl nog* edo *visst*-ekin ere. Ikus ditzagun ezaugarri hauek hurrengo adibideetan:

¹⁸ KonpS-ren eremuan azaltzen direnean, interpretazioa aldatzen ei da, Scherfen (2017) ustez, indar ilokutiboak eraginda.

Amaitzeko, alemanak partikula modalak edukitzea erdiko eremua izatearekin lotu da (Abraham 1991); hizkuntza germaniarrez gain, beste hizkuntza batzuetan badaude partikula modalak eta, are gehiago, delako erdiko eremuan, e.g. euskaraz (Elordieta 1997; Elordieta 2001) edo errumanieraz eta italieraz (Coniglio eta Zegrean 2012; Del Gobbo eta beste 2015). Interesgarriro azken autore hauek kokagune bi esleitzen dizkiete errumanierazko eta italierazko partikula modalei, bata DenbS-ren eremuan eta bestea KonpS-ren eremuan. Ondoan azken eremu horretan kokatzeko argudioak aztertuko ditut.

3.4.2 *KonpS eremuan zehar proposatutako kokaguneak*

Partikulak ezker periferian edo KonpS eremuan kokatzen dituzten hipotesiak bitan banatu beharko lirateke: alde batetik, perpausa galderatzat markatzen duten partikulak jorratzen dituzten analisiak daude, i.e. partikulak semantikarik gabeko baliabide sintaktikotzat hartzen dituzten lanak (Rizzi 2001; Prieto eta Rigau 2007; Kuong 2008; Littell eta beste 2010; Cruschina 2012; Kuwabara 2013; Lam 2014; Paul eta Pan 2017); beste alde batetik, hiztunak proposizioarekin duen jarrera edo ikuspuntua adierazten duten partikulak aztertzen dituzten hipotesiak daude (Munaro eta Poletto 2002; Rizzi 2004; Zimmermann 2004; Kuong 2008; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014; Del Gobbo eta beste 2015; Trotzke eta Turco 2015).

Lehenengo taldeari dagokionez, literatura luzea eta askotarikoa da; tipologikoki desberdinak diren hizkuntzak aztertu dira, e.g. finlandiera, italiera, irlandera, kantonera, hurrenez hurren:

(48) Finlandiera

Pidät-kö sinä tästä kirjasta?

gustatu-P zu hau.ABL liburu.ABL

‘Gustatzen zaizu liburu hau?’ (Holmberg 2016: 17)

(49) Italiera

Che uscite domani?

P irteten.gara bihar

‘Bihar irtengo gara?’ (Lusini 2013: 48)

(50) Irlandera

Ar ghlan sé?

P.LEH garbitu.LEH bera

‘Garbitu zuen berak?’ (Oda 2011: 229)

(51) Kantonera

Lei yam gaafe *maa*?

zu edan kafe P

‘Kaferik edaten duzu?’ (Kuong 2008: 8)

Adibide hauetan lau galdera partikula daude: finlandierazko *ko* (48) adibidean; italierazko *che* (49) adibidean; irlandierazko *a(C)*- (50) adibidean; eta kantonerazko *maa*, (51) adibidean.

Esan bezala, analisi hauek hizkuntza desberdinetako direlako galdera partikulak arakatu dituzte; hala ere, ez nator bat azterketa gehienetan partikula mota hauek proposizioa galdera markatzeko baliabide sintaktiko hutsak diren ideiarekin; aitzitik, Xiangek (2012) dioenez, galdera partikulatzen hartu diren gehienek galdera markatzeaz haratagoko funtzioa izaten dutela uste dut, galdera guztietan ez direlako agertzen edo ez direlako nahitaezkoak galderak osatzeko. Alegia, mandarineraz *ma* partikula polaritatezko galderak osatzeko beharrezkotzat hartu den arren, partikularik gabeko galderak ere ohikoak dira:

(52) Hóngjiàn zài bàngōngshì(*ma*)?

Hongjian IN bulego P

‘Badago Hongjian bulegoan?’ [Liren (2006: 34) adibide egokitua]

Bestalde, italieraz *ca* partikula galderetan azaltzen bada ere, Obenauerrren (2004; 2005; 2006) galdera ez-estandarretan bakarrik agertzen ei da (Lusini 2013: 46):

(53) *Ca* iddru ancora ccà è?

P bera oraindino hemen dago

‘Oraindino dago bera hemen?’

Beraz, partikula horien funtzioa ezin da sintaktikoki proposizioa galderatzat markatzea izan. Mandarinera, esaterako, Lik (2006) diosku galdera partikulatzen jo ohi den *ma* morfemaren bidez hiztunak ondorengoa adierazi nahi duela: hiztunak entzulearengandik erantzuna jasotzeko itxaropen/ asmo handia du; honen aldean *ba* morferma dago, eta berorrek, ordea, erantzuna jasotzeko itxaropen/ asmo txikia adierazten ei du.

Dena den, galdera partikulak eta partikula modalak ez bide dira antzekoak interpretazioaren aldetik; eta beraz euren arteko bereizketa justifikatuta legoke. Batetik, partikula modalek hiztunak proposizioarekin duen konpromisoa maila edo gertagarritasun maila, informazio iturria lehenengo eskukoa edo bestelakoa den eta indar ilokutiboarekin lotuta dauden bestelako jarrera-ñabardurak adierazten dituzte. Bestetik, hiztunak duen jarrera edo iritzia (epistemikotasuna, ebidentzialtasuna edo ebaluatzailetasuna) bainoago perpausarekin duen harremana edo performatibotasuna, entzuleari perpausa zelan aurkeztu nahi dion, zer nahi duen hiztunak entzuleak proposizioarekin egin dezan edota hiztunaren eta entzulearen arteko harremana zein den proposizio horri dagokionez, adierazten dute askotan galdera partikulatzen hartu izan direnek. Cinqueren (1999) sailkapena gogoan izanda, azken hauek hizketa ekintzarekin daude lotuta; besteak, aldiz, modalitatearekin. Gauzak horrela, mota biak partikula modaltzen hartzen ditut oraingo lan honetan. Auzi hau argituta, ekin diezaiegun partikula hauei KonpS eremuan esleitzen zaizkien kokaguneei. Gogora dezagun, halere, analisi hauetan ez dela partikulen ekarpen pragmatikoa landu; aitzitik, markatzaile sintaktiko soilak izango balira bezala aztertu dira.

Lehenik eta behin, proposizioaren indar ilokutiboa markatzen dutela esan ohi da, perpausa galdera dela adierazten dutela alegia. Hori dela eta, Indar Sintagman kokatzen dituzte japonierazko *ka* (Kuwabara 2013), kantonera *maa* (Kuong 2008), katalanezko *que* (Prieto eta Rigau 2007) edo sardinierazko *a* (Jones *apud* Mensching 2015: 15). Ezaugarri sintaktikoek ere kokapen honen alde egiten dute, subjektuekin, topikoekin edota fokuekin duten banaketa eta perpaus mailan duten kokapena aintzat hartuz:

(54) a. *Que ve la Maria?*

P dator ART Maria

‘Badator Maria?’ (Rigau eta Prieto 2005: 4)

- b. **Que* la Maria ve?
P ART Maria dator (ibidem)

Alegia, (54) adibidean katalanezko *que* galdera partikula aurreratu den *ve* aditzaren ondoan agertu behar da, bien artean *la Maria* subjektua agertzeak dakarren ezgramatikaltasunak erakusten duen moduan.

Hizkuntza horietan menderagailuak gune horretan ere kokatu ohi dira, inguruko hizkuntzetan bezala. Hala ere, hizkuntza guztiek ez dituzte menderagailuak Indar buruan agerian; hainbatetan Jokatusun burua esleitzen zaie menderagailuei eta, ondorioz, direlako galdera partikulei ere bai, esaterako irlandararen eta gaskoiaren kasuetan:

- (55) Deiridís [an chéad Nollaig eile [go dtiocfadh sé aníos]]
esango.lukete P lehenengo gabon beste MEND letorke bera gora
'Hurrengo gabonetan etorriko zela esan ohi zuten.' (Roberts *apud* Adger 2007: 13)
- (56) Que 'm demandi [se lo gat e drom].
P 1SG.DAT galdetu MEND ART katu P lo.egin
'Katua ea lotan ote dagoen galdetzen diot neure buruari.' (Morin 2013: 142)

Konplementatzaile Sintagmaz eta, Rizziren (1997) analisiari jarraituz, berarekin zerikusia duten Indar eta Jokatusun sintagmez gain, gramatika lanetan beste kokagune bat proposatu da galderetan agertzen diren partikuletarako, i.e. Galdera Sintagma (Rizzi 2001). Sintagma hori proposatzen du Rizzik batez ere hizkuntza erromantzeek dituzten datuetan onarrituz. Hizkuntza horietako zehar galdera absolutuetan morfema bat agertzen da, e.g. italierazko *se*, gaztelaniazko *si*, besteak beste; eurek proposizioa mendekoa eta polaritatezko galdera dela markatzen dute. Gainera, gaztelaniaz *si* Indar burua ez delako ebidentzia topatzen dugu, hizkuntza horretan *que* eta *si* perpaus berean ager baitaitezke:

- (57) Me han preguntado *que* *si* has aprobado el examen.
KL LAG galdetu.PRTZ MEND P LAG gainditu.PRTZ ART azterketa
'Ea azterketa gainditu duzun galdetu dute.'

Sintagma horren kokapenari dagokionez Rizzi (2001) topikoekin, fokuekin eta *nz*-hitzeekin duen banaketari erreparatzen dio eta sintagma hori Indar Sintagmaren eta Topiko Sintagmaren artean agertzen dela ondorioztatzen du; honako banaketa proposatzen du:

(58) [_{IndarS} [_{GalderS} <*se*, *si*> [_{TopS} [_{FokS} [_{JokS} [...]]]]]] (Rizzi 2001)

Eskema horretan gaztelaniazko *que* Indar buruan eta *si* Galdera sintagmaren buruan agertzen dira.

Honaino, beraz, galdera partikulei ezker periferian esleitutako hiru kokagune: lehenengoa Indar burua, bigarrena Jokatusun burua eta hirugarrena Galdera burua.¹⁹

Arestian esan dut direlako galdera partikulez gain, bestelako partikula modalak ere kokatu dituztela ezker periferian. Horietako batzuk Indar Sintagman/ Konplementatzaile Sintagman agertzen direla proposatu dute hainbatek (Coniglio eta Zegrean 2012; Del Gobbo eta beste 2015); esate baterako, errumanierazko *oare*:

(59) *Oare* unde va pleca Ion mâine?

P non GER alde.egin Jon bihar

‘Nora alde egingo ote du Jonek bihar?’ (Coniglio eta Zegrean 2012: 240)

¹⁹ Gaskoizko datuei begiratu gero eta Morinen (2013) azterketari jarraituz gero, hizkuntza horretako zehar galdera absolutuetan Galdera sintagman *se* morfema gauzatzen da eta, topikorik baldin badago, Jokatusun burua ere gauzatuta agertzen da *e* partikularen bidez:

(i) *Que* ‘m demandi [*se* lo gat e drom].

P ISG.DAT galdetu MEND ART katu P lo.egin

‘Katua ea lotan ote dagoen galdetzen diot neure buruari.’ (Morin 2013: 142)

Bestalde, galdera ez diren beste testuinguru batzuetan *que* azaltzen da mendeko deklaratioetan, Indar buruan kokatua:

(ii) *Que* soi segur *que* las arhagas *que* son maduras

P nago ziur MEND ART marrubi P izan helduak

‘Marrubiak helduak direlako ziur nago.’ (Morin 2013: 142)

Beraz, hizkuntza horretan galderetan bi markatzaile ager daitezke eta bakoitza sintagma baten burua da; polaritatezko galdera zuzenetan *e* partikula nahitaez erabili behar da eta, partikula horren banaketa aintza hartuz, Morinek Jokatusun burua okupatzen duela proposatzen du. Are gehiago, *que* menderagailuaren kokapena ere kontuan hartuta, Indar buruaren, Galdera buruaren eta Jokatusun buruaren ebidentzia ematen ei digu gaskoia.

Partikula honek zehar galdera baten indarra modifikatzen du hiztunak bere buruari proposizioa galdetuko balio bezalako efektua, ironia edota zalantza kutsua gehituz (Coniglio eta Zegrean 2012). Kokapen horretan agertzea, beraz, justifikatuta legoke partikulek indar ilokutiboan duten eragina hizkuntza hauetan agerian gauzatzen baita, partikulak DenbS eremuan dituzten hizkuntzetan (alemanean kasu) ez bezala (Zimmermann *apud* Egg eta Mursell 2017: 20). Alegia, azken hizkuntza motan partikulen IndarS-rako mugida edo komunztadura ezkutu bat gertatzen dela iradokitzen dute hainbatek (Zimmermann 2004; Grosz 2005; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014; Bayer eta Trotzke 2015; Abraham 2017) partikulen eta indarraren arteko harremana azaltzeko; oraingo kasuan, ordea, azalekoa da harremana:

- (60) [IndarS/ JokS Nz Indar/ Jok _{iQ}, iQIndar] [TopS [PrtS Prt uQIndar [] [(AdbS*) [AS/aS ...]]]]]
> [IndarS/ JokS Nz Indar/ Jok _{iQ}, iQIndar [4] [TopS [PrtS Prt uQIndar [4] [(AdbS*) [AS/aS ...]]]]]
(Bayer eta Obenauer 2011: 464)

Bayer eta Obenauerrek (2011: 464) adibide horren bidez adierazten dutenez, Indar/Jok buruan dagoen tasunak partikularekin bat eginez eragiten dio partikularen ekarpenak indar ilokutiboari.

Honez gain, kokagune hori esleitzeko ebidentzia sintaktikoak ere ematen dituzte Coniglio eta Zegreanek (2012) eta Del Gobbo eta bestek (2015). Autore hauek italierazko eta errumanierazko datuetan eta italierazko eta mandarinerazkoetan oinarritzen dira, hurrenez hurren, partikula mota bi bereizteko: KonpS-koak eta DenbS-koak. Perpaus mailan okupatzen duten gunea eta beste osagai batzuekin erakusten duten banaketa desberdinak dira partikula mota hauen artean bereizteko argudioak: lehenengoak perpaus hasieran azaltzen dira, ezker periferiara mugitutako osagaien eta *nz*-hitzen aurretik;²⁰ azkenak, ordea, aditz jokatuaren eta subjektua den izenordain zehaztugabeen (ing. *bare quantifiers* euren terminologia) ostean agertzen dira.²¹ Alegia:

²⁰ Del Gobbo eta bestek (2015) perpaus hasieran eta perpaus amaieran agertzen diren partikulak kokagune berean ipintzen dituzte, i.e. KonpS-n. Euren arteko aldea azaltzeko honakoa proposatzen dute: partikula perpaus hasieran agertzen denean DenbS ez da [espez, KonpS] gunera igo; partikula perpaus amaieran azaltzen denean, DenbS [espez, KonpS] gunera mugitu da partikulak erakarrita. Izan ere, ezaugarri honek, i.e. sintagma oso bat espezifikatzaile gunera erakartzeko aukera izateak, KonpS-ko eta DenbS-ko partikulak bereizten ditu.

²¹ Coniglio & Zegreanek (2012) diote hainbat partikula kokagune bietan ager daitezkeela.

(61) *Tanto* il libro non lo leggo.

P ART liburu ez KL irakurri

‘Ez dut edozein modutan liburua irakurriko. (Coniglio eta Zegrean 2012: 236)

(62) De mâine cineva va veni doar cu o soluție.

ABL bihar nor edo nor etorri.FUT P COM bat konponbide

‘Bihartik aurrera nor edo nork topatuko du konponbide bat, nonbait.’ (ibidem)

Jokabide horren berri jasotzen dugu aurreko adibideetan: (61) adibidean ezkerreko periferiara mugitutako *il libro* DetS-ren aurretik azaltzen da *tanto* partikula, perpaus hasieran alegia; (62) adibidean, ordea, *doar* partikula *va veni* aditz jokatuaren eta *cineva* izenordain zehaztugabearen ostean dago.

Kokapen honez gain, Rizzik (2004) proposatutako Modifikatzaile Sintagma ere ezker periferian agertzen diren partikulei esleitzen zaie (e.g. Kuong 2008). Rizzik (2004) argudiatzen du ezker periferian beste sintagma bat aldarrikatu behar dela, IndarS-ren eta JokS-ren artean ezker periferiako adberbio batzuk ager daitezke eta. Esate baterako, *rapidamente* adberbioa topiko gunea okupatzen duen *i libri* DetS-ren aurretik agertzen da:

(63) Rapidamente, i libri, li hanno rimessi a posto.

arin ART liburu.PL KL LAG ipini.PRTZ IN toki

‘Arin, liburuak, tokian ipini dituzte.’ (Rizzi 2004: 238)

Rizzik (2004) dio kokapen horretan azaltzen diren osagaiak, topikoen moduan prosodikoki nabarmenduta dauden arren, ezin direla topikotzat hartu desberdin jokatzeko baitute. Esaterako, adberbio hauek, topikoak ez bezala, ez daude aurreko testuinguruari lotuta; halaber, topikoak ez bezala, ezin dira *nz*-galderetan *nz*-hitza baino lehenago agertu:

(64) a. Rapidamente, hanno fatto i compiti.

arin LAG egin.PRTZ ART etxekolan.PL

‘Arin, etxekolanak egin dituzte.’ (Rizzi 2004: 239)

- b. ?? Rapidamente, che cosa hanno fatto?
arin zer gauza LAG egin.PRTZ
'Arin, zer egin dute?' (ibidem)
- c. A Gianni, che cosa gli hanno fatto?
DAT Gianni zer gauza KL LAG egin.PRTZ
'Gianniri, zer egin diote?' (ibidem)

Rapidamente adberbioak aurreko testuinguruetan duen banaketari begiratzuz gero, berau perpaus hasieran ager daiteke (64a), baina, *nz*-hitza egonez gero, ezin da bere aurretik azaldu (64b), benetako topikoak ez bezala (64c).

Rizzik, beraz, aldarrikatzen du adberbio horiek Modifikatzaile Sintagman kokatzen direla; izendapen hori hautatzen du sintagma horrek osagarri hartzen duen egitura modifikatzen baitute ezker periferiako adberbio horiek. Ezaugarri hauetan oinarrituz, FokS-ren eta JokS-ren artean kokatzen du ModS:

(65) [IndarS [TopS [GaldS [TopS [FokS [ModS *rapidamente* [TopS [JokS [DenbS] (Rizzi 2004)

Kuongek (2008: 728) analisi horri jarraitzen dio kantonera-zko partikula diskurtsiboei Mod burua eta indar ilokutiboarekin zerikusia duten partikulei (galdera partikulei alegia) Indar burua esleitzen baitizkie:

(66) [IndarS [ModS [DenbS keoi zou saai gungfo] [Mod lo3]] tDenbS] [Ind mo4] tModS]
bera egin guzti etxekolan P P
'Egin ditu etxeko lan guztiak?' (Kuong 2008: 729)

Kontuan har dezagun kantonera hizkuntza buru-azkena dela eta Kuongen (2008) analisiak antisimetriari jarraitzen diola; beraz, Rizziren (2004) banaketan bezala, IndarS ModS baino gorago dago kantonera ere, hurrenkera linealean agian kontrakoa ematen duen arren.

Amaitzeko, Lik (2006) beste kokagune bat proposatzen du ezker periferian, i.e. Ebaluatzaile Sintagma. Kokagune hau Indar Sintagmaren eta *Mood* Sintagmaren artean kokatzen du. Dena den, kontuan hartu behar du irakurleak Lik (2006) ez diola Rizziri (1997;

2001) jarraitzen sintagma horien funtzioari eta banaketari dagokienez; hots, *Mood* Sintagman perpausa mota zehazten da eta Indar Sintagma hizketa ekintzarekin lotuta dago. Honako banaketa proposatzen du buru funtzional horien artean:

(67) [IndarS Indar [MoodS *Mood* [JokS Jok [...]]]] (Li 2006: 63)

Ebaluatzaile Sintagmaren kokapena argitu nahian Indar Sintagmari eta *Mood* Sintagmari ez ezik, Topiko Sintagmari eta Foku Sintagmari ere erreparatzen die. Haegemanen (*apud* Li 2006: 64) ildotik, Topiko Sintagma eta Foku Sintagma perpaus mota zehazten duen sintagmaren gainetik daudela onartzen du Lik; funtzio hori *Mood* Sintagmak duenez, *Mood* Sintagmaren gainetik daude TopS eta FokS:

(68) [IndarS Indar [TopS Top [MoodS *Mood* [JokS Jok [...]]]]] (Li 2006: 64)

Bestalde, Cinqueren (1999) ildotik, hizketa ekintza markatzen duen IndarS modalitate desberdinekin zerikusia duten sintagmak baino gorago dagoela proposatzen du. Beraz, honako banaketa dakar Lik (2006: 64):

(69) [IndarS Indar [EbaluatzaileS *Ebaluatzaile* [TopS Top [MoodS *Mood* [JokS Jok [...]]]]]]

Hala ere, hau ez da Lik partikulei esleitzen dien kokapen bakarra; aitzitik, IndarS-ren gainetik beste kokapen batzuk aldarrikatzen ditu partikula guztien arteko banaketan oinarrituz. Mandarinera azoko partikuletarako honako banaketa proposatzen du:

(70) [DiskurtsoS Diskurtso [GraduatzaileS Graduatzaile [IndarS Indar [EbaluatzaileS *Ebaluatzaile* [TopS Top [MoodS *Mood* [JokS Jok [...]]]]]]] (Li 2006: 169)

Liren (2006) ustean partikula hauek guztiak eta sintagma horiek guztiak KonpS eremukoak dira. Hala ere, KonpS eremuaren gainetik beste eremu bat aldarrikatu da (Haegeman 2014; Heim eta beste 2016), i.e. Hizketa Ekintza eremua. Honek hurrengo azpiatalera garamatza.

3.4.3 *KonpS eremutik haratago: Hizketa Ekintza eremua*

Eremu honen inguruko proposamenak besteak bezainbeste ez badira ere, azkenaldian ugaritzen hasi dira (Munaro eta Poletto 2002; Speas eta Tenny 2003; Li 2006; Haegeman 2014; Hinterhölzl eta Munaro 2015; Corr 2015; 2016; Wiltschko 2017). Jarraian hurbilketa bi aurkeztuko ditut: sintaxian oinarritutakoa eta pragmatikatik abiatutakoa.

Argudio sintaktikoak, berriro ere, partikulen banaketan eta bestelako osagaiekin duten harremanari begira daude: Haegemanek (2014), adibidez, perpaus hasieran eta amaieran agertzen diren partikulak, i.e. *ne* eta *we*, erdiko eremukoetatik bereizi eta berauen hainbat ezaugarri erreparatzen die. Lehenik, euren arteko hurrenkera zein den eta ea banaketa osagarrian dauden arakutzen du:

- (71) a. *né* (... proposizioa...) *wè* // * *wè* (... proposizioa...) *né*
b. (... proposizioa...) *wè né* // *(... proposizioa...) *né wè*
c. * *wè né* (... proposizioa...) // * *né wè* (... proposizioa...) [Haegemanen (2014: 125) adibide moldatua]

Horrez gain, bokatibo batekin edo gehiagorekin batera agertzen direnean, ea berauen aurretik edo ostean azaltzen diren ere aztertzen du:

- (72) a. *né* (bokatiboa) (... proposizioa...)
b. (... proposizioa...) (bokatiboa) *né* (bokatiboa)
c. (bokatiboa) (... proposizioa...) (*bokatiboa) *wè* (bokatiboa)
d. (... proposizioa...) (*bokatiboa) *wè* (bokatiboa) *né* (bokatiboa) [Haegemanen (2014: 128) adibide moldatua]

Azkenik, topikoen eta partikulen arteko banaketari ere begiratzen dio, partikulak perpaus amaieran azaltzen direnean:

- (73) a. (... proposizioa...) *wè* (topikoa) **wè*
b. (... proposizioa...) **né* (topikoa) *né*
c. (... proposizioa...) *wè* (topikoa) *né*

Analisi hau neoperformatibismoaren barruan kokatua izan da, Rossen (*apud* Heim eta beste 2016) Hizketa Ekintza eremuaren ideia berreskuratzen baitute.²³ Eremu honetan hizketa ekintzaren hiru zeregin betetzen dira: a) hiztunak esaldiarekin duen jarrera; b) hiztunaren arabera entzuleak esaldiarekin duen jarrera; eta c) hiztunak entzuleak, esaldia entzundakoan, egin dezan nahi duena. Hau, neurri batean, bat dator Haegemanek (2014) HeS gorenari eta behekoari, hurrenez hurren, esleitzen dizkien ekintzekin. Izan ere, ekintza desberdin hauek sintagma bakarrean kokatzeko arazoak ikusita, egitura konplexua aldarrikatzen dute Heim eta beste (2016) eta Wiltschkok (2017), Haegemanek (2014) bezala.

Dena den, analisi hauek ez datoz guztiz bat: Heim eta beste (2016) multzo bitan banatzen dituzte ekintza hauek: batetik, hiztuna bakarrik erdigunean dutenak eta, bestetik, entzulea erdigunean dutenak, hiztunaren ikuspuntua den arren. Lehenengoek hiztunaren jarrera eta konpromisoa adierazten dituzte, baita hiztunaren eta aurreko testuinguruaren arteko harremana ere.²⁴ Bigarrenen kasuan, ordea, entzuleak hiztunaren ustean dituen jarrera eta konpromisoa ematen dira aditzera, baita hiztunak entzuleari igortzen dion proposizioari dagozkion instrukzioak ere (erantzun bat eman, ekintza bat burutu, eremu partekatuari [ing. *common ground*] proposizioa gehitu eta abar).


Gauzak horrela, sintagma nagusi bi bereizten dituzte Hizketa Ekintza eremu horretan (Heim eta beste 2016; Wiltschko 2017): Zuzenduarenganako deia (ing. *Call on Addressee*) markatzen duena eta proposizioarekiko jarrera adierazten duena. Honez gain, sintagma nagusi horien barruan azpitalde bi proposatzen dituzte: bateko, erantzun egituretan, *zuzenduarenganako deia* delakoan erantzunaren subjektua eta objektua marka daitezke; beste, proposizioarekiko jarrerari dagokionez, bata hiztunaren ikuspuntuarekin lotua dago eta besteak entzulearenarekin du zerikusia. Beraz, lau sintagma proposatzen dituzte (Heim eta beste 2014; Heim eta beste 2016; Wiltschko 2017): Entzule-erantzun Sintagma, Hiztun-erantzun Sintagma, Entzule-sinesmen Sintagma eta Hiztun-sinesmen Sintagma. Dena den, sintagma horien arteko hurrenkera ez da edozelangoa, honako hierarkia aldarrikatzen

²³ Euskalaritzan berriki neoperformatibismoa *ba* eta *al* partikula diskurtsiboak aztertzeko erabili du Lizardi-Ituarte (2017) Mutrikuko euskaran oinarrituz. Nabarmentzekoa da partikula bien interpretazioa eta partikula horiek Wiltschkok (2017) bereizten dituen sintagmekin duten zerikusia erakustez gain, euren arteko harreman estua ere eman digula aditzera

²⁴ *Aurreko testuinguruak* hiztunak hitza hartzeko eta proposizio bat sortzeko testuinguruari ez ezik, eremu partekatuari ere egiten die erreferentzia. Elkarriketa bat hasi eta jarraitzeko motibazioa, alegia.

dute: alde batetik, konpromiso edo jarrera adierazten duena *zuzenduarenganako deia* delakoa baino proposiziotik hurbilago sortu behar da, hiztunak proposizioa baloratu ostean, hizketara bidaltzen duelako, publiko egiten duelako (cf. Frey 2018); beste alde batetik, hainbat analisik (Heim eta beste 2014; Heim eta beste 2016; Wiltschko 2017), aurrekoek (e.g. Speas eta Tenny 2003) ez bezala, hiztunarekin zerikusia duten sintagmak entzulearekin lotuta daudenen o-komandopean kokatzen dituzte, eurek azaltzen duten bezala, hiztunak duen konpromiso mailari entzulearen ikuspuntua gehitzen baitzaio. Hierarkia hori aurrekoarekin bat egin ondoren, honako egitura dugu:

(76)



Banaketa hau medumba hizkuntza bantuak erakusten ei du; Heim eta bestek (2016) *a* partikula mota bi bereizten ditu hizkuntza horretan, beste testuinguru batzuetako ebidentzian oinarrituta. Lehenengo *a* hiztunarekin eta bere ikuspuntuarekin lotua eta bigarren *a* *zuzenduarenganako deia* delakoarekin:

(77) [[[KonpS mʰ yʰ bʰ swə] [HiztS a]] [CoA a]] ?

1SG eduki txakur berri P P

‘Txakur berri bat dudala?’ (Heim eta beste 2016: 122)

Azkenik, Haegemanen hipotesia ez bezala analisi hau perpaus hasieran eta amaieran agertzen diren partikulei ez ezik, perpaus barruan agertzen direnei ere, e.g. alemanezko partikula diskurtsiboei, aplikagarria izango litzaieke (ikus Thoma 2016):

(78) Da Hansi geht *fei äh* zum Eikaffa.

ART Hansi doa P P ADL.ART erosketa

‘Hansi eroatera doa FEI ÄH.’ (Wiltschko eta Heim 2016)

Hala ere, ez dute perpaus barruan partikula duten egituren xehetasunik eskaintzen; hots, zelan erartortzen diren hitz-ordena zuzena lortzeko.

Atal honetan zehar, beraz, partikula modalen kokapena arakatzen duten hainbat hipotesi ekarri ditut mahai gainera. Aurreko atalean ez bezala, kasu honetan ikergai honek ez du eztabaidarik sortu gramatika lanetan; egia esan, eremu jakin bati esleitutako partikulak ez dira beste eremu batzuetan kokatu ohi hipotesi desberdinetan. Beraz, partikulen banaketa eta kokapen horien aldeko argudioak argiak bide dira.

Laburbilduz, hiru eremu desberdin erakutsi ditut gramatika lanetan topatutako azterketak aintzat hartuta: erdiko eremua edo DenbS eremua, ezker periferia edo KonpS eremua eta, azkenik, Hizketa Ekintza eremua. Eremu horien barruan kokapen desberdinak proposatzen dira, bai ezaugarri sintaktikoetan, bai arrazoi pragmatikoetan oinarrituz. Hala ere, eremu horietako kokapen horiek ezaugarri batean datoz bat: hiztunak duen proposizioaren gertagarritasun maila, mezuarekiko konpromisoa eta abar adierazten dituzten partikulak hiztunaren edota entzulearen hizketarekin duten harremana adierazten dutenak baino beherago daude egitura sintaktikoan. Ezaugarri hau nabarmendu nahiko nuke, partikula modalak aztertzerakoan (cf. §5 eta §6) gogoan eduki beharreko ezaugarria baita.

3.5 Kapituluaren laburpena

Kapitulu honetan partikulen inguruan gramatika lanetan sortu diren eztabaida sintaktiko nagusiak plazaratzea eduki dut helburu. Hasieran partikulen kategoria lausoa eta, egun oraindino, zehaztugabea dela erakutsi dut multzo berean funtzio desberdinetako osagaiak eta izaera nahiz kokapen sintaktiko desberdinetakoak biltzen baitira; hala ere, ezaugarri bi

azpimarratu ditut: a) partikulak urritasun handiko izaera duten osagaiak dira; eta b) funtzio bat baino gehiago betetzen ei dute pragmatikoki, ez sintaktikoki.

Definizio horretan osagai kopuru handia sartzen denez, partikulen azpitalde jakin bati erreparatzea erabaki dut, i.e. partikula modalei edo diskurtsiboei, tesi honetan aztertutako partikula mota horietakoak baitira. Ikergaia zehaztuta, partikula modalak arakatu ditut: batetik, ikuspuntu sintaktikoak eztabaida sortu du partikulak buruak direla eta sintagmatikoak direla defendatzen dutenen artean; bestetik, partikulak hiru eremutan kokatuak izan dira, DenbS eremuan, KonpS eremuan eta HeS eremuan, ebidentzia sintaktiko zein pragmatikoetan oinarrituz.

Partikulen izaera sintaktikoari dagokionez, hizkuntza batzuei hipotesi biak aplikatu zaizkiela erakutsi dut, alemanari kasu. Alegia, Groszek (2005), Conigliok (2007b; 2008) eta Cardinalettik (2011) alemanezko partikulek izaera sintagmatikoa dutela diote; Bayerrek (2009), Bayer eta Obenauerrek (2011) eta Struckmeierrek (2014), aldiz, partikula berak buruak direla argudiatzen dute. Azkenek ezaugarri eta murriztapen sintaktikoak, batez ere, hartzen dituzte kontuan; dena den, Gutzmanni (2015) jarraituz, batzuk baztertu ditut, honakoak onetsita: a) partikulek kokagune finkoa dute; b) aditz mugidak eraginda, kokagune finko horretatik alde egin dezakete; c) haietako asko klitikoak dira, murriztapen fonologiko-prosodikoetan igartzen den moduan. Izaera sintagmatikoaren aldekoek, ordea, ez ei dute hainbeste argudio (Coniglio 2007b; 2008). Nabarmentzekoa da Cardinalettiren (2011) lana, bertan hiru adberbio mota bereizten baitira ezaugarri morfonologikoetatik, batez ere, abiatuta: adberbio osoak, ahulak eta klitikoak; partikulak azken biek in lotzen ditu. Azpimarratuko nituzkeen argudioak honakoak dira: a) partikulek ez dutela preposizioak bezalako buruen ezaugarri fonologiko-prosodikorik, hala nola bokalak luzatzea edo azentua edukitzea; b) sintaxiari dagokionez, Conigliok (2007b; 2008) erakusten duela partikula modal biren artean DetS edo PS bat ager daitekeela eta horrek, bere ustez, partikulak buruak ez direlako frogatzen dakar; c) Conigliok ere argudiatzen du partikulek, islapen nagusiko izaera edukiz gero, ez luketela aditzaren ezker periferiarako mugimendua oztopatu behariko edo ez liratekeela berarekin batera mugituko, buruz buruko mugidaren ondorioz.

Eztabaida hori albo batera utzita, partikula modalak egitura sintaktikoan agertzen direneko kokapenak aztertu ditut. Kasu honetan gehienetan argudio sintaktikoak nahiz pragmatikoak uztartzen dituzte hiru eremu horietan zehar kokagune desberdinak

proposatzeko. Hipotesi horietatik honako ezaugarriak nabarmendu nahiko nituzke: a) hizkuntza berean gune desberdinak gauza daitezke, partikula bat baino gehiago azal daitezke eta; b) hizketa ekintzaren, entzulearen eta hiztunaren arteko harremana islatzen duten partikulek hiztunaren proposizioarekiko jarrera adierazten duten partikulak besarkatzen dituzte analisi guztietan; c) azken ezaugarrietatik abiatuta, kanpo- eta barne-partikulak (Kuong 2008) edo goi- eta behe-partikulak (Corr 2015; 2016) bereizten dira.

Kapitulu honetan, hartara, hizkuntza desberdinetatik bildutako datu eta ezaugarriak baliagarriak izango zaizkit euskarazko partikula modalak aztertzean, hurrengo kapituluetan erakutsiko dudan bezala. Dena den, gramatika lanetan jorratu eta jorratzen diren ikergaiei euskararen ikuspuntutik heldu baino lehen, euskarazko partikulak aurkeztu eta deskribatuko ditut hurrengo kapituluan (§4).

4 Euskarazko partikulak: analisi orokorra

4.1 Sarrera

Hirugarren kapituluaren partikulen gaineko literatura berrikusi eta tesi honen ikergaiaren abiapuntua ezarri ostean, kapitulu honetan euskarazko partikulak aztertuko ditut. Dena den, ez dut partikulek duten aldakortasuna ikertuko; aitzitik, aztergaia mugatu eta oraingoan jokabide kanonikoari jarraitzen dioten partikulak arakatuko ditut xeheki, euskalki guztietan dokumentatzen den erabilera hain zuzen ere:

- (1) a. Asier eta Mikel Bordelera joan *omen* dira.
b. Asier eta Mikel ez *omen* dira Bordelera joan.

Erabilera kanoniko horretan partikula aditz jokatuaren aurrean azaltzen da beti. Honen aldean ekialdeko hizkeretan jokabide ez-kanonikoa dute *omen* (ikus Etxepare 2010; Etxepare eta Uria 2016) eta *ote* partikulek:

- (2) a. Nork *ote* jan züan? (Casenave-Harigile 1997)
b. Ez dokeda *ote* nik egin ñoriataz nai duana? (Estornés 1982a: 80)

Bigarren jokabide hau aurrerago (§7) ikertuko dut zehatz-mehatz. Oraingoz (1) bezalako jokabideari bakarrik erreparatuko diot.

Beraz, partikula modalen erabilera kanonikoa jarraian azalduko dudan bezala aztertuko dut. Lehenengo eta behin, euskalaritzan partikula kategoriaren barruan kokatu diren eta etiketa hori esleitzen osagaiak aurkeztuko ditut (§4.2); halaber, atal berean lan honetan partikula modaltzat jotzen ditudanak azpimultzotan bana daitezkeela erakutsiko dut, interpretazioaren edo perpaus motaren arabera. Ondoren (§4.3), partikula horien deskribapen sintaktikoari ekingo diot: perpaus mailan okupatzen duten gunea (§4.3.1); tradizionalki deskribatu zaien izaera klitikoa (§4.3.2); partikulak argumentuak hautatzen dituzten osagaiak direlako hipotesia (§4.3.3); ezeztapenarekin duten jokabidea (§4.3.4); partikuletan identifikatzen den *origo shift* fenomenoaren (§4.3.5); eta partikulen arteko bateragarritasuna (§4.3.6). Euskarazko partikula modalen propietateak mahaigaineratuta, 3.3 atalean plazaratutako eztabaidari helduko diot, i.e. ea buruak ala islapen nagusiak diren. Horretarako, 4.4.1 azpiatalean euskal partikula modalen buru izaeraren aldeko argudioak egokiak ote diren aztertzeaz gain, islapen nagusiko izaeraren aldeko probak erkatuko ditut euskal partikula modalen ezaugarriekin 4.4.2 azpiatalean, buruak direla ondorioztatuta.

4.2 Zeintzuk dira partikula modalak?

Partikula modalena¹ kategoria itxia bada ere, 3.1 atalean esan dudan bezala, ez dago argi kategoria horren barruan taldekatu behar diren osagaiak eta euren ezaugarri bereizgarriak zeintzuk diren. Hori dela eta, tradizionalki euskalaritzan partikula modaltzat jo diren horiei kide berriak gehitu zaizkie azken urteotan, ikergai honek arreta handiagoa hartu duen heinean.

Euskaltzaindia (1987) abiapuntu hartuz gero, “aditz multzoari erantsitako bestelako osagaiak” azpiatalaren barruan topatzen ditugu ohiko partikula modalak: *al, ahal, bide, ei, omen (emen)* eta *ote (ete)*. Hauez gain, antzeko funtzioa duen beste kide bat agertzen da, *-a* markatzaile interrogatiboa hain zuzen ere:

¹ Beste hizkuntza batzuetan *partikula modala* terminoaz gain, *partikula diskurtsiboa* ere erabilia izan den arren, euskalaritzan bigarren izendapenak ez du tradizioz *partikula modala* etiketapen identifikatuak izan dira lan gehienetan (Albizu 1991; Elordietan 1997; Arregi eta Nevins 2012, besteak beste). Hori dela eta, *partikula modala* terminoa hobetsiko dut euskarazko partikulei dagokienez, guztiak modalitatearekin lotuta ez badaude ere.

- (3) Ikusi *al* du aitak Txiki?
- (4) Aitak Txiki ikusi *ahal* du.
- (5) Aitak Txiki ikusi *bide* du.
- (6) Aitak Txiki ikusi *ei* dau.
- (7) Aitak Txiki ikusi *omen* du.
- (8) Ikusi *ote* du aitak Txiki?
- (9) Ikusi *dua* aitak Txiki?

Jarraian erakutsiko dudan bezala, partikula hauek guztiek hiztunaren edota entzulearen jarrera zehazten laguntzen duten arren, hots funtzio pragmatikoen aldetik bat datozen arren, aldea sumatzen da maila sintaktikoari dagokionez.

Bestalde, zerrenda horri kide gehiago erants dakizkioke hirugarren kapituluaren ondorioztatutako ezaugarriak gogoan hartuz gero: a) sintaxiaren eta morfonologiaren aldetik urritasun handiagoko osagaiak dira; b) ez dute interpretazio argirik, erabilera pragmatiko asko adieraz baititzakete; eta c) indar ilokutiboarekin edo diskurtsoarekin daude lotuta. Beraz, tradizioan *partikula modalak* etiketapean agertu ez diren osagaiak talde honen barruan sailka litezke, hala nola *ba(da)*, aspektua markatzen duen *ohi*, perpaus amaierako *baina* edo *gero*, galderetako *ezta?*, *ez?*, *ala?*, baita esaldi amaierako *e* bezalakoak (Lizardi-Ituarte 2019a) ere:²

- (10) Nora zoaz *ba(da)* hain berandu?
- (11) Jatetxe horretan bazkaldu *ohi* du. / Jatetxe horretan bazkaltzen *ohi* du.
- (12) Zuk ulertu duzu *baina*?
- (13) Handia da, *gero*! Horrelakorik entzun behar izatea ere! (Zubiri eta Zubiri 1995: 577)
- (14) Tamara Gabonetan etorriko da, *ezta?* / *ez?*

² Zuberoko eta Garaziko euskarak talde honen barruan sar litekeen beste osagai bat du, i.e. *ehi*. Bera aditz lexiko baten erroari lotzen zaio eta aditz lexikoak adierazten duena erraza dela definitua izan da (Mitxelena eta Sarasola 2017):

- (i) Arabez mintzatzaileek ikas-*ehi* zuten [hebreera].

Lehenengo begiratuan ematen du aditz lexikoaren hautaketa argumentala mantentzen dela; era berean, aditz laguntzaileak ere aukeratzen dituzte *ehi* atzizkia duten aditzek. Dena den, morfema honek ikerketa sakona merezi du bere izaera argitzerakoan.

(15) Bazatoz, *ala*?

(16) Ez esan inori *e!* (Lizardi-Ituarte 2019a)

Azken hauek bezalako partikulek garrantzia hartu dute azkenaldian beste hizkuntza batzuetan partikula modalen gainean egindako ikerketetan, lan ugari (Waltereit eta Detges 2007; Malamud eta Stephenson 2014; Corr 2015; 2016; Heim eta beste 2016; Wiltschko 2017; Castroviejo 2018) agerian uzten dutenez.

Euskarazko partikulen zerrenda luza daitekeen arren, oraingoan Euskaltzaindiak (1987) elkarrekin multzokatutako horiei bakarrik erreparatuko diet, alegia (3-9) adibideetan bildutakoei. Dena den, partikula horiek ez dute kategoria homogenea osatzen, euren interpretazioa irizpidetzat hartuz azpitalde desberdinetan bana daitezke eta. Azpitalde hauek bat datoz neurri handi batean Cinqueren (1999) hainbat bereizketarekin; Haddicanek (2001) honetaz ohartuta honela bereizten ditu partikulak nahiz aditz modalak:

- (17) a. *al* - Hizketa ekintza Modalitatea;
- b. *ote* - Ebaluazio modua;
- c. *ohi* - Aspektu ohikotasuna;
- d. *ari* - Aspektu progresiboa;
- e. *omen* / *bide* - Ebidentzialtasun modalitatea;
- f. *behar* - Behar-modua;
- g. *nahi* - Nahimen-modua;
- h. *ahal* - Erro-modua.

Hein batean Haddicanen (2001) bereizketa horrekin bat nator, atal honetan zehar aztertuko ditudan partikulei begira: erdialdeko euskalkiaren *al* hizketa ekintza taldearen barruan kokatuko nuke Cinqueri (1999) jarraituz, edo *omen* ebidentzialtzat hartzen dut; dena den, *bide*-ren edo *ote*-ren sailkapena ez zait egokia iruditzen: lehenengoa, kutsu ebidentziala eduki dezakeen arren, epistemikoa da (Korta eta Zubeldia 2016) semantikoki eta bigarrena ere epistemikotzat jotzen dut, ondoren (§5.3.7) argudiatuko dudana bezala. Bestalde, Haddicanek zerrendatzen ez duen mendebaldeko *ei* ere ebidentziala dela onartzen dut Euskaltzaindiari

(1987) eta Zubeldiari (2010) jarraituz.³ Halaber, Haddicanen (2001) zerrendan ez dagoen *ahal* partikula epistemikotzat jotzen dut; honetaz ere aurrerago (§5.3.2) sakonduko dut. Hau guztiau aintzat hartuta, honako sailkapena proposatzen dut:

- (18) a. Partikula ebidentzialak: *ei* eta *omen (emen)*.⁴
 b. Partikula epistemikoak: *ahal*, *bide* eta *ote (ete)*.
 c. Galdera partikulak: *-a* eta *al*.

Sailkapen hori partikulek perpausean betetzen duten funtzioaren arabera da; hala ere, bestelako sailkapenak proposa litezke agertzen direneko perpaus motaren arabera; esate baterako:

- (19) a. Adierazpen-perpaus edo deklaratioetan: *ahal*, *bide*, *ei*, *omen (emen)* eta *ote (ete)*.⁵
 b. Galderetan: *-a*, *al*, *ahal*, eta *ote (ete)*.⁶
 c. Aginteretan: bat ere ez.
 d. Harridurazkoetan: *ahal* eta *ote*.
 e. Alegiazkoetan: *ahal*.

Hona hemen perpaus mota bakoitzaren adibideak:

- (20) a. Lapurrak sartu *omen* dira. [Adierazpen-perpaua edo deklaratioa]
 b. Euria egin *ote* du? [Galdera]
 c. Nik *al* dakit! (*al* = *ahal*) [Harridurazkoa]

³ Hala ere, Zubeldiak (2010) aitortzen du *ei* eta *omen* parekatzeak arinkiaz jokatzeko suposatuko lukeela, egun mendebaldeko partikularen azaleko ekarpena bakarrik ezagutzen baitugu. Bestela esanda, xehetasunez ikertu beharreko kontua da *ei* partikularen erabilera; hori aztertuta, partikula ebidentzialen taldekatzea egokia ote den argitu ahalko da.

⁴ Zubeldiak (2010) proposatzen du *omen*-en bitartez hiztuna ez den beste batek esandakoaren berri ematen dela. Horrez gain, hainbat kasutan (baina ez beti) ziurgabetasuna igar daiteke *omen*-dun perpausetan; alabaina ñabardura hori bigarrenkaria dela dio Zubeldiak, partikularen lehenengo funtzioa ebidentzialtasuna dela identifikatzen baitu.

⁵ Lafittek (1944: 448), Euskaltzaindiak (1999: 76) eta Caminok (2004: 477) *-(e)n* menderagailua hartzen duten adierazpen-perpausen barruan aipatzen dituzten hainbat predikatutan ager daiteke *ote* partikula, *beldur*, (*ez*) *uste*, *iduritu/iruditu*. Aurrerago (§5.4.2) ekarriko dut gai hau mahai gainera.

⁶ Aritz Irurtzunek (a.k.) adierazi dit bere hizkeran, i.e. Errenteriakoan, *omen* galderetan ere erabil daitekeela, proposizioari kutsu erretorikoa emanez.

d. Euria egingo *ahal* du! [Alegiazkoa]

Horrela bereiziko nituzke partikulak perpaus motaren parametroa abiapuntu izanda. Bestalde, partikula guztiak ezin ei dira mendeko testuinguruetan erabili (Coniglio eta Zegrean 2012); horrelako testuinguruetan agertzeko aukera oinarri hartuz gero, honelakoa izango litzateke sailkapena:

- (21) a. Perpaus nagusietan agertzen diren partikulak: *-a, al, ahal, bide, ei, omen (emen)* eta *ote (ete)*.
- b. *-(e)n* menderagailuaz markatutako mendeko perpausetan ager daitezkeenak: *al, ahal, bide, ei, omen* eta *ote (ete)*.
- c. *-(e)la* menderagailuaz markatutako mendeko perpausetan ager daitezkeenak: *ahal, bide* eta *omen*.⁷

Hona hemen testuinguru horiei dagozkien adibideak:

- (22) a. Bai, uda *bide* zen, garai epelen bat behintzat. (Jimenez *apud* Korta eta Zubeldia 2016: 18) [Perpaus nagusia]
- b. Ez dakigu François de Maytie apezpikuak berak idatzi *ote* zuen, ala horren manuz Belapeyrek. (Davant 2008: 19) [*-(e)n*-dun mendeko perpausa]
- c. Bere izena Kijada edo Kisada *omen* zela diote, honetan ez baitatoz batera alegia, gai honetaz idatzi dutenak; baina egia-itxurak liokeenez, Kijana zeritzan. (Ezkiaga *apud* EHUko Euskara Institutua 2009) [*-(e)la*-dun mendeko perpausa]

Beraz, ikuspuntu horren arabera partikula horiek ez dute talde homoginoa osatzen; aitzitik, euren artean alde nabarmenak egon daitezke erabilpenari nahiz testuinguruei dagokienez. Hala ere, partikula horiek guztiak elkarrekin multzokatzeko ebidentzia argia dago euren jokabide sintaktikoari erreparatuz gero. Euskaltzaindiaren (1987) izendapenak iradokitzen duenez eta hurrengo atalean erakutsiko dudanez, partikula horiek guztiek

⁷ *Ote*-ren kasuan ekialdeko hainbat hizkeratan *-(e)lako* menderagailuarekin batera agertzen da; gai honi aurrerago (§7.6) atalean helduko diot, baina oraingoz partikulen jokabide orokorra hartuko dut aintzat.

inflexioarekin, i.e. aditz jokatuarekin, egiten dute bat, antzeko funtzioa duten beste osagai batzuek ez bezala (*a, bada, e, ehi*,⁸ *ohi*).

4.3 Partikula modalen sintaxiaz

4.3.1 *Perpaus mailako kokapenaz*

Ezaguna da (Larramendi 1729: 309; Gèze 1873: 241; Campi3n 1884: 760; Chaho 1836; Arrigarai 1919: 237; Altube 1930: 65-66; Urquizu 1996: 231; Euskaltzaindia 1987: 485; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 316) partikula hauek aditz lexikoaren eta jokatuaren artean agertzen direla perpaus deklarativo neutroetan:

(23) Aitor liburutegira joaten *ei* da.

Izan ere, aditz lexikoa eta laguntzailea beti elkarren ondoan egon behar dira horrelako testuinguruetan; hots, ezin da ezer tartekatu, ohiko partikula modalak salbu:

(24) Aitor liburutegira joaten (*egunero) da.

Aurreko perpausaren (23) osagai banaketari begiratu gero, aspektuaren eta aditz jokatuaren artean agertzen da partikula:

(25) [DenbS Aitor [Denb' [PartS [AspS [AS liburutegira joa(n)] [Asp -ten]] [Part *ei*]] [Denb da]].⁹

Aditz lexikoaren eta laguntzailearen arteko eremu horretan azal daitezkeen beste osagai batzuk aditz modalak dira. Hala ere, partikula modalek ez bezala, aditz modalek geroaldiko aspektu markak har ditzakete modu mugatuan behintzat:

(26) Aitor liburutegira joan beharko da.

⁸ Arestian (cf. kapitulu honetako 2. oin oharra) aditzera eman dudanez, Zuberoan eta Amikuzen lekukotzen den partikula honek aditz lexikoekin bat egiten du (Mitxelena eta Sarasola 2017).

⁹ Bigarren kapituluaren aditz jokatuak Jok buruan eratzen direlako hipotesia onartu dut, beraz oraingo adibidean *da* adizkia Jok buruan kokatuta agertu beharko litzateke. Alabaina, aditz lexikoaren, jokatuaren eta partikularen arteko azaleko banaketa ageriagoan uzteko, oraingoan *da* Denb buruan kokatu dut.

(27) *Aitor liburutegira joan (**ei*)ko / (**omen*)go da.

Banaketa hau aintzat hartuta, partikulak Aspektu Sintagma baino gorago baina Denbora Sintagma baino beheagoko gune batean agertu behar dira.

Bestalde, *-a* partikulak ez du horrela jokatzeko; gramatika lanetan partikula hau ez da partikula modalizat jo. Arestian esan bezala, Euskaltzaindiak “aditz multzoari erantsitako osagai”-en artean kokatzen duen arren, partikula modaletatik bereizten du, markatzaile interrogatiboa, besteak ez bezala, aditz jokatuaren ostean azaltzen baita:

(28) Auto berri bat erosiko duna?

(29) Hik erran duka?

Osagai banaketari erreparatuz gero, *-a*-k menderagailuaren kokapena du; ebidentzia honetan oinarrituz partikula hau KonpS-koa dela proposatu dute hainbatek (Laka 1991: 920; Ortiz de Urbina 1992: 124; Monforte 2015; 2018).

Esan bezala, hitz-ordena hau, i.e. [aditz lexikoa-aditz laguntzailea], perpaus deklaratiβο neutroetan kanonikoa da; hala ere, aditz lexikoaren eta laguntzailearen arteko ondokotasuna apur daiteke. Horrelako testuinguruak interesgarriak dira partikulen jokabidea eta eremua zehazteko. Hurrengo azpiatalean (§4.3.2) partikulek aditz jokatuarekin duten harreman estua arakatuko dut.

4.3.2 Partikula modalak, osagai klitikoak¹⁰

Euskarazko partikulak, beste hizkuntza batzuetakoak (e.g. alemanezkoak) ez bezala, perpausean zehar mugi daitezke. Hala ere, mugida hori ez dute eurek eragiten, aurreko azpiatalean adierazi dudana bezala, kokagune finkoa baitute; aitzitik, 2.2.1 azpiatalean azaldu dudana bezala, aditz lexikoa eta laguntzaileak ezker periferiara igotzen dira, esaterako foku egituretan, eta eurekin batera mugitzen da partikula. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

(30) ALEMANIARA joan *omen* da Rosa bere familiarekin ~~ALEMANIARA joan *omen* da.~~

¹⁰ *Klitiko* terminoa darabildanean partikula modalen gramatika lanetan izendapen horren barruan kokatuak izan diren osagaien deskribapenari jarraitzen diot, Cardinalettiren (2011) hipotesiari hain zuzen ere.

- (31) HORRELA *ohi* da beti ~~HORRELA ohi da~~. (Mujika 1988: 475)
 (32) Joango *al* dira osaba-izekoak Jordaniara ~~joango al dira~~?

Adibide hauek (30-32) frogatzen dute Conigliok (2008) partikula modal buruetarako ezaugarritutakoa betetzen dela euskarazko partikuletan, i.e. aditzaren igoerak partikularen mugida dakarrela. Hala ere, euskaraz aditz lexikoaren mugidak ez ezik, aditz jokatuarenak ere aldatzen du partikularen kokapena. Alegia, partikulak aditz jokatuarekin batera mugitzen dira aditz lexikoaren eta jokatuaren arteko ondokotasuna apurtzen den testuinguruetan, e.g. ezezko perpaus nagusietan eta ekialdeko hizkeretan bereizgarri duten egitura fokal batean:

- (33) Ez ahal da etxera etorriko [~~ahal da~~].
 (34) EGIA ote du hark ~~EGIA~~ erran [~~ote du~~]?
 (35) JONEK dia ~~JONEK~~ hori erran [~~dia~~]?

Lehen (§4.2) esan dut partikula modaltzat har litezkeen guztiek ez dutela sintaktikoki berdin jokatzeko. Adibide bat *ohi* partikula da; orain jorratutako testuinguruetan partikula honek ez dio erakutsitako jokabideari jarraitzen, euskara batuan eta mendebalde zabaleko euskalkietan behintzat:¹¹

- (36) *Ez dituzte* idazle guziek eredu edo forma guziak erabili *ohi ez dituzte*. (Altuna *apud* Mujika 1988 : 475)

Ezezko perpausetan partikula hau ez da aditz jokatuarekin nahitaez mugitzen; interesgarriro ekialdeko hizkeretan bai mugitzen dira partikula eta aditz jokatua elkarrekin,¹² puntu honetan azaldutakoari jarraituz:

¹¹ Mujikak (1988) ohartarazten digu *ohi* partikulak ez duela euskalki guztietan berdin jokatzeko hainbat propietatetan: a) mendebaldeko hizkeretan ez du aspektu markarik hartzen; ekialdekoetan, ordea, bai; b) mendebaldekoetan ez da aditz trinkoekin bateragarria; ekialdekoetan, berriz, bai; c) mendebaldekoetan *in situ* geratzen da ezezko perpausetan; ekialdekoetan, aldiz, aditz jokatuarekin batera mugitzen da. Halaber, Rebuschik (1984: 85) *ohi*-k duen mikroaldakortasunean oinarrituz, mota bi bereizten ditu: batetik, partikula den *ohi* eta, bestetik, *verboide* den *ohi*; azken hori *ahal*, *behar* eta *nahi* aditzen parean multzokatzen du.

¹² Mujikak (1988: 475) aditzera ematen du partikula horrek mendebaldeko hizkeretan duen jokabidea ez zela horrelakoa hizkuntzaren garai zaharretan. Esaterako:

(37) (...) euskara *ez ohi dutela* aski artarekin irakurtzen ~~ez ohi dutela~~. (Jean Etxepare *apud* Mujika 1988 : 475)

Gauzak horrela, partikula hauek aditzen mugiden ondorioz aldatzen dira tokiz; dena dela, zer aditz motak mugiarazten dituzten, i.e. lexikoak edo jokatuak, aintzat hartuta, partikulen gramatikaren berri jasotzen dugu. Alde batetik, 4.4 azpiatalean azalduko dudanez, aditz multzoarekin batera mugitzeak adierazten du, Conigliori (2007b) jarraituz, euskal partikulak buruak direla. Beste alde batetik, ezezko perpausetan aditz jokatuarekin batera ezker periferiarantz igotzeak iradokitzen du partikula aditz jokatuari atxikitzen zaiola (cf. McCloskey 2005: 160; Bayer 2012; Arregi eta Nevins 2012: 105).

Izan ere, partikula hauek aditz jokatuaren agerpenaren mende daude; alegia, aditz jokatua morfonologikoki gauzatzen ez bada, partikulak ezin dira azaldu:

(38) Hori erosi (**omen*) eta bertzea aurtiki omen du Maitenak.

(39) Ez dakit nora joan (**ote*).

Ohar bedi irakurlea testuinguru hauetan partikula ez agertzeko murriztapena sintaxiarekin lotuta dagoela eta ez pragmatikarekin; aditz jokatua gauzatuz gero, partikulak zilegi dira aurreko perpausetan:

(40) Hori erosi *omen* du eta bertzea aurtiki *omen* du Maitenak. (cf. 38)

(41) Ez dakit nora joango *ote* naizen. (cf. 39)

Aditz jokatua diodanean, aditz laguntzaileak eta trinkoak ditut gogoan, oro har sintaktikoki antzera jokatzen baitute; esaterako, aditz laguntzaileak eta sintetikoak ezin dira perpausaren lehenengo posizioan agertu:

(42) *Dute Algortako metro geltokia suntsitu ~~dute~~.

(i) *Ezoixaku* sekula falta eskarazean jentea. (Lakarra *apud* Mujika 1988: 475)

Izan ere, inguru horretako testu zaharretan *ohi*-k ekialdeko hizkeretan garai horretan eta gaur egun lekukotzen den jokabideari jarraitzen zion.

(43) *Dakit zer gertatu den Algortan ~~dakit~~.

Ezgramatikaltasun hori konpontzeko bide desberdinak ditu aditz mota bakoitzak: perifrastikoen kasuan aditz lexikoa ere aurreratzen da, aditz jokatua bigarren gunean azalduta. aditz trinkoen kasuan aditz lexikoa jokatuaren barruan inkorporatuta dagoenez, ezin da aurreratu lehenengo posizioa bete dezan; beraz, murriztapen hori konpontzeko, euskarak darabilen baliabidea morfema espletiboa gehitzea da, i.e. *ba-* aurrizkia erantsiz (Ortiz de Urbina 1993: 753):

(44) Suntsitu dute Algortako metro geltokia ~~suntsitu dute~~.

(45) Badakit zer gertatu den Algortan ~~dakit~~.

Adibide horiek (42-43) ohiko partikula modalen bat edukiko balute, aditz jokatuarekin batera mugituko lirateke eta, berauek aurrizkiak direnez, aditz jokatua ez litzateke lehenengo posizioan agertuko. Dena dela, perpausak ezgramatikalak izaten jarraitzen dute:

(46) *Omen dute Algortako metro geltokia suntsitu ~~dute~~.

(47) *Ahal dakit zer gertatu den Algortan ~~dakit~~.

Aurreko testuinguru ezgramatikalak partikulek konpon ditzaketela dirudien arren, ez da horrela gertatzen; honek aditzera ematen du aditz jokatuak eta partikulek bat egiten dutela eta osagai bat bakarrik izango balira bezala jokatzen dutela. Arestian (44-45) aplikatutako konponbideak gramatikal bihurtzen ditu perpaus hauek:¹³

¹³ Ortiz de Urbinak (1993) Riveroren (1993) eskutik bretoieraz antzeko jokabidea dagoela dakar:

- (i) a. *En deus lavaret he deus desket he c'hentelioù
 3SG izan esan 3SG izan ikasi bere ikasgaiak
 ‘Bere ikasgaiak ikasi dituela esan du.’ (Ortiz de Urbina 1993: 754)
 b. Lavaret en deus he deus desket he c'hentelioù
 esan 3SG izan 3SG izan ikasi bere ikasgaiak (ibidem: 755)

Aurreko adibideek erakusten dute bretoieraz, euskaraz bezala, buru jokaturik ezin dela lehenengo posizioan agertu. Halaber, nahiz eta bretoieraz galdera-partikula lehenengo posizioan dagoen, bigarrenetan inflexioa badago, perpausa ezgramatikala da. Beraz, euskaraz dagoen antzeko murriztapena bretoieraz ere islatzen da:

(48) Suntsitu *omen* dute Algortako metro geltokia ~~suntsitu dute~~.

(49) Ba *ahal* dakit zer gertatu den Algortan ~~dakit~~.

Auzi hori albo batera utzi baino lehen,¹⁴ arestian aipatu ditudan testuinguru biri erreparatu nahiko nieke, *nz*-galderei eta egitura fokalei alegia, partikulek aditz jokatuaren aurretik agertzen diren osagai beregainak ez direla frogatzeko beste ebidentzia bat baitakarkigute.

Nz-hitza den edo fokua jasotzen duen sintagma eta aditz jokatuaren elkarren ondoan agertu behar dira, euren artean besterik agertu ezinik:

(50) Non dago orain Leire? / *Non orain dago Leire?

(51) FINLANDIAN dago orain Leire? / *FINLANDIAN orain dago Leire?

Nahitaezko ondokotasun honetan salbuespen bat dago: partikula modalak. Hauek *nz*-hitzaren eta aditz trinkoaren edo fokuarien eta aditz sintektikoaren artean ager daitezke:

(52) Non *ote* dago orain Leire?

(53) FINLANDIAN *ote* dago orain Leire?

-
- (ii) a. **Ha* {a raint} soñjal er bleuniou?
P INF pentsatu ART loreak
'Pentsatuko dute loreez?' (Ortiz de Urbina 1993: 756)
b. *Ha* soñjal {a raint} er bleuniou?
P pentsatu INF ART loreak (ibidem)

¹⁴ Murriztapen honek gogorarazten du hizkuntza germanikoen (ingelesak izan ezik) duten jokabide bat, i.e. A2: aditz jokatuaren ezin da hizkuntza familia horretan lehenengo gunean azaldu perpaus mota jakin batzuetan, e.g. perpaus deklaratiibo nagusietan. Hala ere, euskarak ez du eurek bezain zorrotz jokatzeko murriztapen honi dagokionez, hizkuntza germaniko gehienetan aditz jokatuaren beti bigarren kokagunean agertu behar baita, aginteretan eta polaritatezko galderetan salbu. Ikus ditzagun alemanezko adibide hauek:

- (i) a. Ich gehe zu Hause. / Zu Hause gehe ich.
ni joan *adl* etxe / *adl* etxe joan ni
'Etxera noa.'
b. *Gehe ich zu Hause. / *Zu Hause ich gehe.
joan ni *adl* etxe / *adl* etxe ni joan

Ezaugarri honetan oinarrituz, Ortiz de Urbina (1989; 1994) euskara A2 hizkuntza dela proposatu du. Aditz jokatuaren lehenengo posizioan agertzeko murriztapena ez ezik, *nz*-galderetan eta egitura fokaletan euskarak erakusten duen jokabidea ere hartu dira ebidentziatzat efektu hori aldarrikatzeko. Hala ere, euskara, hizkuntza germanikoen alderatuta, malguagoa da efektu horri dagokionez; izan ere, euskararen antzera jokatzeko duten beste hizkuntza batzuetan A2 efektuaren ordean, Denb2 efektua deritzote (cf. Elordieta 2001; Kaiser eta Scholze 2009; Elordieta eta Haddican 2018); beraz, euskararako efektu bera proposa litekeelakoan nago.

Adibideetan igar daitekeen bezala, baldintza hauek aditz trinkoak dituzten perpausetan bakarrik topatzen dira; aditz perifrastikoak dituztenetan, aldiz, aditz lexikoaren eta laguntzailearen artean agertzen baita partikula, (cf. 23).

Ebidentzia sintaktiko hauetan oinarrituta ondorioztatzen dut: a) partikulek aditz jokatuarekin bat eginez hitz morfonologikoa osatzen dutela; b) aditz jokatu gaizatzak bakarrik ahalbidetzen duela partikulen agerpena; c) aditz jokatuari atxikitzen zaiola eta berari lotuta mugitzen dela perpausaren kokagune desberdinetan zehar; eta d) aditz jokatuak eta partikulak osagai bakarra bezala konputatzen dutela sintaxian.

Honen aldeko ebidentzia arlo fonologiko-prosodikoan ere topa daiteke. Arlo honek sakon aztertzea merezi du, baina horrek tesi honen xede eta izaeratik aldentzeko gintuzke; beraz, hizkera desberdinetan jasotako datuak emango ditut labur, partikula guztiek euskalki guztietan hala jokatzeko dutela aurreuposatuta, orokortzeak dituen arriskuez jakitun nagoen arren.

Partikulen eta aditz jokatuaren artean hainbat bilakabide morfonologiko gauzatzen dira, hala nola (54-55) adibideetako ozenen fortitioa (de Rijk 2008) edo (56-59) adibideetako bokal igoera eta asimilazioa (Elordieta 1997), besteak beste. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- (54) Ondo *altzabe*? [al zabe > altzabe]
- (55) Ea Kanillo arrantzalea nun bizi zan galdetu *omentzon*. [omen zon > omentzon] (Barandiaran 1972)
- (56) Apurto *eižeban*. [ei eban > eižeban] (Elordieta 1997: 129)
- (57) Txakurra, horrek ekarri *eiban*. [ei eban > eiban] (Monforte 2015)
- (58) Juez soberanuec berac acuseuco *eitas* [ei ditu(e)s > **eittu(e)s > eitu(e)s] (Ulibarri 2015: 194, 394)
- (59) Etortzen *oti aa*? [ote da > ote aa > oti aa] (Navarro eta beste 2008: 391)

Azkenak, batez ere, arreta merezi du partikulan bertan gauzatzen baita bilakabidea; aurrekoetan, ordea, aditz laguntzailean. Gainera, ‘ea > ia’ bilakabidea ez da ohikoa horrelako testuinguruetan, hots partikula baten eta aditz jokatuaren artean, izenen eta determinatzaileen

artean baizik, *etxea* > *etxia*¹⁵ alegia. Beraz, Lizarraga Ergoieneko hizkeraren datuak interesgarriak dira oso, partikulen eta aditz jokatuaren arteko harreman morfonologiko estua agerian uzten baitute.

Halaber partikulek aferesia jasan dezakete testuinguru jakin batzuetan: bateko, aurretik duen aditz lexikoaren azken silabaren kodaren arabera eta, besteko, aditz lexikoarekin eta jokatuarekin batera osatzen duen unitatearen prosodiaren arabera. Partikula bitan igartzen da aferesia: *omen* eta *ote*. Hauek normalean bigarren silaban jasotzen dute azentua hainbat hizkeratan, Lesakako eta Azpeitiakoak kasu:¹⁶

(60) Zer nahi [*ote* 'dute']?

Azentua partikularen bigarren silabak jasotzen badu eta aditz lexikoaren azken silabaren koda ozena ez bada, orduan aferesia gauza daiteke:

(61) Nun laga [(*e*)*te* ' (d)et] periodikua?

(62) Orrek nora *te* yosak? [Horiek nora ete zoazak?] (Gaminde 2001b)

(63) Loak artu (*o*)*mentzun* ta eerki lo in. (Barandiaran 1972)

Azkenik, partikula modal guztiek aditz lexikoarekin eta jokatuarekin unitate prosodikoak osatzen dituzte, edo aditz trinkoen kasuan polaritatezko morfemekin eta aditz jokatuarekin (Txillardeggi 1984: 411; Elordietaren 1997: 183); galdera da ea berez azentudunak *ote* diren ala ez. Galdera hau erantzutea zaila da, partikulak beti aditz jokatuarekin batera agertzen baitira, eta beraz ezin da jakin azentua berezkoa den ala aditz jokatuarekin bat egitean prosodia patroia hartzen duen, berez hitz prosodikoa osatzen ez duten hitzek, klitiko

¹⁵ Horrelako bilakabideak dituen hizkera bat Lekeitiokoa da, Elordietaren (1997) aztertzen duen hizkera alegia, eta ez du *ete* partikulan bilakabide morfonologikorik antzematen. Honen arrazoiak bilakabidearen indarrarekin zerikusia bide du, hizkera batzuetan asimilazio edo disimilazio bilakabide horiek gauzatzeko eremu eta hurrenkera mugatuak dituzte eta.

¹⁶ *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* (Euskaltzaindia 2016) 1754. mapan galdera partikularen gaineko informazioa bildu dute; Azkoitiko eta Azpeitiko hizkerari begiratuz gero, azentua toki desberdinetan kokatu dutela ikus daiteke:

(i) Azkoitian: eñ *ál* du?

(ii) Azpeitian: eñ *al* dú?

Gure datuak bat datoz horrekin, Azpeitian bigarren silabak jasotzen baitu azentua.

batekin bat egitean, sortzen dutelako hipotesiaren ildotik (Condoravdi eta Kiparsky 2002: 9).¹⁷ Aurreko ebidentziak aintzat hartuta, azkenaren alde egingo dut; izan ere, partikula bisilabikoek lehenengo zein bigarren silaban jaso dezakete azentua aditz jokatuaren tamainaren arabera. Ikus dezagun zubererak eskaintzen digun ebidentzia:

(64) Bil [o'the dai'te] elhorrietan mahaxic edo phicorik naharretan? (Inchauspe 1856)

Lehenengo silaban jasotzen du *ote*-k azentua, aditz jokatuak silaba bi baditu; aditz jokatuak silaba bakarrekoa denean, aldiz, partikularen bigarren silabak jasotzen du azentua:¹⁸

(65) Ni *othe'* niz? (Inchauspe 1856)

Dena den, arestian esan bezala, gai honek azterketa sakona beharko luke eta, beraz ebidentzia hauekin zuhur jokatu beharko litzateke. Hala ere, sintaxiak erakusten dituen ebidentziekin bat datoz: partikulek aditz jokatuarekin bat egiten dutela; are gehiago, klitikoak direla frogatzen dute arlo prosodiko-fonologikotik ez baitu ematen berezko azentua dutenik¹⁹

¹⁷ Condoravdi eta Kiparsky (2002: 9) grekerazko partikula modalen eta aditzaren aurreko klitikoen kasua dakarte, biek ez baitute euren horretan hitz prosodikorik eratzten; biek bat egiten badute, ordea, osatu egiten dute:

(i) *na* ítose koundá m, to gaidúr *ná* to pjásoum ton (...)
P zinen gertu ni ART asto P KL hartu.IPL ziren
'Nire ondoan egon bazina, astoa harrapatuko genuen.'

¹⁸ Antzeko iritzikoa da Altube (1930); berak dio aditz trinkoek partikula modalekin bat egitean euren patro prosodikoa aldatzen dela. Beraz, aditz sintetikoek lehenengo silaban jasotzen duten azentua partikula modaletara pasatzen dela: monosilabikoak diren partikulen kasuan, silaba bakarrak jasotzen du, i.e. *al* eta *ei* partikulen kasuan; bisilabikoen kasuan, berriz, bigarren silabak jasotzen du azentua, i.e. *bide*, *omen* eta *ote* partikulen kasuan. Errepara diezaiegun berak eskainitako adibideei:

(i) a. *dátor* > *éi*-dator
b. *dátor* > *ál*-dator
c. *dátor* > *bidé*-dator
d. *dátor* > *omé*n-dator
e. *dátor* > *oté*-dator

Data hauek xehez eta kontuz kontuan hartu beharko lirateke, patro prosodikoa aldarokorra dela ematen baitu. Dena den, aditz jokatuaren eta partikulen arteko bat egiteak prosodian eragina duela erakusten du zalantzarik gabe.

¹⁹ Egia esan, gai eztabaidagarria da, bai euskalaritzan, bai beste hizkuntza batzuei dagokienez (Thurmair 1989; Coniglio 2007b; Cardinaletti 2011; Egg eta Zimmermann 2011; Struckmeier 2014, besteak beste); bestalde, aditz jokatuak ez dutela estres nagusirik jasotzen ere aldarrikatu izan da (Elordieta eta Haddican 2016).

eta klitikoak edo fonologikoki ahulak diren osagaiek jasaten dituzten bilakabideak agerian dituzte (bokal igoera, sandhi erregela eta aferesia). Ondorioz, euskarazko partikula modalak fonologiko-prosodikoki klitikoak direlako ideia nabarmendu nahiko nuke.

4.3.3 Albizuren (1991) partikula argumentatzaileen hipotesia

Aurreko azpiatalean erakutsi dut partikulek aditz jokatuarekin bat egiten dutela; dena dela, Albizuren (1991) lanean azpimarratzen denez, partikulak ez ei dira edozein aditz laguntzailerekin bateragarriak:

- (66) a. Pellok edan (*omen*) duela esan du Mirenek.
- b. Pellok edan (**omen*) dezala esan du Mirenek. (Albizu 1991)
- (67) a. Irabaziko *ahal* duzu!
- b. Irabaztea / irabaz dezazula desiratzen dut.
- c. **Irabaz ahal* dezazula desiratzen dut.

Ebidentzia honetan oinarrituz, Albizuk (1991) proposatu zuen partikulek aditz jokatu mota hautatzen dutela, *izan* eta ***edun* onargarriak eta ***edin* eta ***ezan* onartezinak direlako ondorioa plazaratuta. Dena den, baieztapen hau ez da guztiz egia, partikula modalek ***edin* eta ***ezan* laguntzaileen *-ke-dun* formak har ditzakete eta:

- (68) Mendiak mugi *omen* daitezke fedez. (Oñederra 1999)
- (69) Ez *ote* dezake gauza bera egin Koxe harginak? (Larzabal 1991[1964])

Hala ere, ezin dira laguntzaile horiek *-ke* gabeko formekin batera agertu, hots aginteretan²⁰ eta delako subjuntiboeko formetan:

- (70) Etor zaitez! / **Etor bide* zaitez!
- (71) Zatoz hona! / **Ahal* zatoz hona!

²⁰ Gutzmannek (2008: 160) dio partikula modalak ezin direla aginteretan erabili perpaus mota honek ez duelako partikulak modifika dezakeen operatzaile epistemikorik. Iritzi berekoa da Siemund (2018: 132), aginterei ezin zaiela epistemikoki eragin alegia.

Beraz, Albizuk ez bezala, ez dut uste partikulek laguntzaile mota aukeratzen dutenik, gehienez partikulek eta perpaus motak lotura daukatela esan liteke. Aurretik (§2.4) proposatu dudana bezala, IndarS-k JokS-rekin komunztatu eta bertan ere perpaus mota ezartzen da; ondoren, Arregi eta Nevinsen (2012) ildotik, aditz jokatua Jok buruan eratzen da, beraz Denb buruak Jok buruarekin bat eginez [uperpaus mota] tasunak delako testuinguruan aditz laguntzaile mota zehaztu eta zilegiztatzen du, hots *izan/ **edun/ **edin/ **ezan* den:

$$\begin{aligned}
 (72) & \text{ [IndarS } \emptyset_{[\text{indar, Q}]} \text{ [JokS [DenbS [AS \dots] Denb] } \emptyset_{[\text{jok, } u\text{perpaus mota:}__] \text{]}] > \\
 & \text{ [IndarS } \emptyset_{[\text{indar, Q}]} \text{ [JokS [DenbS [AS \dots] Denb] } \emptyset_{[\text{jok, } u\text{perpaus mota: Q]} \text{]}] > \\
 & \text{ [IndarS } \emptyset_{[\text{indar, Q}]} \text{ [JokS [DenbS [AS \dots] [t_i]] [(Denb_i \text{ } \emptyset_{[\text{jok, Q}]} \rightarrow \mathbf{izan/ **edun/} \text{ } \mathbf{**edin/} \\
 & \text{ } \mathbf{**ezan} \text{]}]]]
 \end{aligned}$$

Gauzak horrela, esango nuke partikulek ez dutela aditz jokatu mota edo perpaus mota hautatzen, ezta alderantziz ere. Aditz jokatu motak eta indar ilokutiboak partikulen erabileran eragina badute ere, partikulak indar ilokutiboarekiko sentiberak direla aldarrikatuko nuke; alegia indar ilokutiboa aginterazkoa denean partikulak ezin dira agertu baina arrazoi semantiko-pragmatikoengatik (Gutzmann 2008: 160; Siemund 2018: 132). Beraz, *omen* ebidentziala edo *ote* bezalako partikula epistemikoak ezin dira agintera batean azaldu euren ekarpen semantikoa ez delako agintera baten indarrarekin bateragarria. Berrito ere partikula hauen analisi semantikoa oso beharrezkoa da euren murriztapen guztiak hobeto ulertzeko; izan ere, beste hizkuntza batzuetan, e.g. italieraz eta bangleraz, mandarineraz, direlako partikula modalak aginteretan ere erabil daitezke eta:

(73) Vien qua, *mo!*
 etorri hona P
 ‘Etorri hona MO!’ (Munaro eta Poletto 2002: 89)

(74) Eydike eSo *to!*
 alde.hau etorri P
 Etorri hona TO! (Bayer eta beste 2014: 2)

- (75) Jin lái ma!
sartu etorri P
'Sartu MA!' [*ma* = tematzen naiz] (Li 2006: 32)

Josef Bayerrek (a.k.) aginteretan partikulak erabiltzeko murriztapen bat ikusten du: KonpS aktibatuta ez badago, hots agintera jokatu gabeetan, ezin dira partikulak erabili. Esaterako:

- (76) Bring doch die Bücher!
ekarri P ART liburu.PL
'Ekar itzazu liburuak!'
- (77) (**doch*) die Bücher (**doch*) bringen!
P ART liburu.PL P ekarri
'Ekar itzazu liburuak!'

Euskararen kasuan berdin da aditza jokatu den ala ez, kasu guztietan partikulak ezin dira agertu. Hala ere, alemanezko partikulei hurbilago begiratu gero, aldeak igartzen dira: *doch* partikula aginteretan erabil daiteke; *wohl*, ordea, ez. Lehenengoak markatzen du hiztunak zer edo zer esan duela eta esandako hori ez datorrela eremu partekatuan dagoen edukiarekin bat; beraz, entzuleak *doch*-en bidez hiztunak esandakoa eta eremu partekatukoa kontraesanean dagoela adierazi nahi du. Bigarrena epistemikotzat har liteke (Zimmermann 2004; Eckardt 2018), eta hiztunak proposizioari gertagarritasun txikia esleitzen ei dio; beraz, proposizioarekiko engaiamendua (ing. *commitment*) graduatu daitekeeneko testuinguruetan bakarrik erabil daiteke, i.e. deklaratiboetan eta galderetan baina ez aginteretan edo desioa adierazten dutenetan:

- (78) Gib mir doch das Buch!
eman niri P ART liburu
'Eman iezadazu liburua DOCH!'
- (79) *Komm wohl morgen!
etorri P bihar (Zimmermann 2004: 256)

- (80) *Käme er wohl!
 etorri.IRR bera P (ibidem)

Euskarari begira, kapitulu honen hasieran balizko partikula modalak zerrendatu ditut eta horietako batzuk, ikertzen ditudanen moduan sintaktikoki ez jokatzearren, baztertu ditut lan honetatik, *ba(da)* kasu. Hala ere, horrelako partikulak orain aztergai ditudanekin erkatuz gero, agerian geratzen da ez dutela aginteretan agertzeko murriztapenari dagokionez berdin jokatzeko, *ba(da)* zilegi baita horrelako testuinguruetan:

- (81) Eros(i) *ba!* / Eros(i) ezazu *ba!*

Partikula honek diskurtsoan kontraesan bat dagoela adierazten du, hiztunaren ustea eta testuinguruak emandako ebidentzia ez datozela bat, galderetan behintzat (Lizardi-Ituarte 2017). Partikula honen interpretazioan sakondu gabe, alemanezko datuekin paralelotasuna igartzen da: partikula ebidentzial/ epistemikoak ezin dira aginteretan erabili, partikula hauek hiztunak proposizioaren gainean duen iritzia edo jarrera ematen baitute eta aginteren indar ilokutiboak ez du horrelakorik onartzen; besteak, aldiz, erabili egin daitezke hiztunaren eta entzulearen harremana edo erreakzioa kudeatzen baitituzte, eta kasu honetan horrelako ekarpenak ez du aginteren indarrarekin trabarik egiten.

Bestalde, euskarazko partikula modalak (66b & 67c) bezalako perpausetan ezin dira erabili partikulek gertaera bati eragiten baitiote eta aginterek ez dute gertaera bat adierazten:

- (82) Pellok edan (**omen*) dezala esan du Mirenek. (Albizu 1991) (= 66b)

Antzera jokatzeko ei du *wohl*-ek, arestian adieraz bezala. Beraz, honetan ere partikula honen eta euskarazkoen murriztapenak bat datoz.

Laburbilduz, partikulak ez dira aditz laguntzaile forma guztiekin bateragarriak, aginterazko edo delako subjuntibozko testuinguruek ez baitute partikulen funtzioekin bat egiten. Partikulen eta aditz jokatuaren artean harreman estua dagoelako ideiarekin alde nagoen arren, ez dut uste partikulek aditz laguntzaileekin duten murriztapena aditz laguntzaileek dakartenik, erro bereko laguntzaileak ager baitaitezke partikulekin. Aitzitik, partikulen

ekarpen semantikoak murrizten du aginteretan edo subjuntibozko testuinguruetan agertzea, indar ilokutibo horiek (aginterek eta subjuntibozko testuinguruek) ez baitute partikulek egiten dieten interpretazioaren eragina onartzen. Hortik letorke hainbat laguntzailerekiko murriztapena.

4.3.4 Partikulak eta ezeztapena: Haddican (2008)

Haddicanek (2008) ohartarazten du euskarazko partikula modalek proposizioa ez ezik, ezeztapena ere besarkatu behar dutela, hurrengo adibideak ematen duen ebidentzian oinarrituz:

(83) Ez *omen* zen Oiartzunen jaio, # baina ez omen zen kanpoan jaio ere. (Haddican 2008: 68)

Perpaus hori sintaxiaren aldetik zuzena den arren, interpretazioari dagokionez ez da onargarria, pertsona bat inon jaio ez zelako ideia iradokitzen baitu eta hori, bizi garen munduan, ezinezkoa da. Haddicanek dioten bezala, perpausaren bigarren zatia ez da pragmatikoki onargarria *omen* partikulak ezeztapena o-komandatzeko duelako. Alderantzizko hierarkia edukiko balute, perpausa onargarria izan beharko litzateke, interpretazio hau lortuko bailukete hitzunek:

(84) Ez da esaten Oiartzunen jaio zenik, baina ez da esaten Oiartzundik kanpo jaio zenik ere.

Analisi bertsua zabal daiteke gainerako partikuletara (e.g. *ahal*, *bide*, *ei*, *ote*), eurek ere ezeztapenarekiko hierarkia bera baitute; esate baterako:

(85) Ez *ahal* gara doktoregaiok laster hilko (*espero izatekoa da ez dela egia doktoregaiok laster hilgo garenik* baina **ez da egia espero dela doktoregaiok laster hiltzea*).

Partikula modalen eta ezeztapenaren arteko harremana kontuan hartuta, Haddicanek osagai mota bien kokapen sintaktikoa proposatzen du, [ModS [EzezS [..]]] alegia. Alabaina,

hau ez da euskarazko partikula modalek bakarrik duten ezaugarria; aitzitik, partikula modalen propietate orokorra da, aztertutako hizkuntza guztietan sumatzen baita (Gutzmann 2008).

Haddicanen (2008) ekarpenaz gain, *ote* eta ezeztapena agertzen diren hainbat testuingurutan gertatzen den fenomeno pragmatikoa eman nahi dut aditzera, ezeztapen espletiboa alegia. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

- (86) Bergan estaitt diferente es *ete* dan. (Larrañaga 1998: 354)
- (87) Beldur niz ez *othe* den obielduko. (Camino 2004: 452)
- (88) Obie ez *ete* dan ixengo pentzetan nau. (Uriarte 2004: 149)
- (89) Eta orain estakipa larra es *ete* dan bestera! (Etxebarria eta Kaltzakorta 1995: 142)

Adibide horietan mendeko perpausetan ezeztapena azaltzen den arren, interpretazioa baiezkoa da: (86) adibidean diferentea delakoan dago, (87) adibidean goibelduko delakoan, (88) adibidean hobea delakoan eta (89) adibidean larrea bestera delakoan. Ezeztapenak, fonologikoki eta sintaktikoki gauzatuta dagoen arren, interpretazioari ekarpenik egiten ez dionekoei *ezeztapen espletiboa* deritze (e.g. Espinal 1992); beraz, perpausa formaren aldetik ezezkoa bada ere, baiezkoa izango balitz bezala ulertzen du entzuleak. Horixe da (86-89) testuinguru horietan aurkitzen den egoera, nahiz eta adibide guztietan *ez* azaltzen den, mendeko perpaus horien interpretazioa baiezkoa da. Nabarmentzekoa da efektu hori lortzen den testuinguruan *ote* partikula azaltzen dela beti. Baten batek pentsa lezake partikulak sortzen duela ezeztapen espletiboarena; halarik ere, partikulak efektu hori erraztu dezakeen arren, erretorikotasunarekin lot liteke eta kontrako polaritatea markatzea ez litzateke bitxia izango. Hau esanda, horrelako testuinguruetan baiezko formadun kasuetan zer gertatzen den begiratzea interesgarria litzateke, batetik, ea horietan ere kontrako polaritatea (i.e. ezezko interpretazioa) interpretatzen duten jakiteko eta, bestetik, ezezko eta baiezko formadunek, proposizio bera adierazten badute ere, hiztunaren jarrera desberdina markatzen ote duten argitzeko.

Dena dela, sintaxiari dagokionez, ez dakarkigu efektu honek ezer, ezeztapenak horrelako kasuetan berdin jokatzeko baitu bere eratorbide orokorrean nahiz partikulekiko jokabidean.

Laburbilduz, pragmatikaren aldetik behintzat, partikula modalen eta ezeztapenaren arteko hierarkia ezin da edozelangoa izan, partikula modalek beti besarkatu behar baitute ezeztapena. Aurrerago (§6) syntaxian ere egoera bera islatzen dela agerian geratuko da (Laka 1990 lanean ez bezala) Ezeztapen Sintagma beti dagoelako Denbora Sintagmaren azpitik eta Denbora Sintagmaren eremuan kokatzen diren partikulak eurak ere ezeztapenaren gainetik sortzen direlako.

4.3.5 Origo shift *delako fenomeno* euskaraz

Partikulen gaineko lanetan jorratzen den beste propietate bat *origo shift* delakoa da. Fenomeno hori perpaus deklaratiβοetan nahiz galderetan agertzen diren partikuletan gauzatzen da eta partikularen ekarpena hiztunari edo entzuleari dagokion begiratzen du. Alegia, alemanezko *wohl* edo txeienerazko *sèste* partikulak perpaus deklaratiβοetan azaltzen direnean hiztunaren ikuspuntuarekin daude lotuta; partikula berek, ordea, entzulearen ikuspuntua adierazten dute galderetan agertuz gero. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

- (90) a. É-némene-*sèste* Floyd. (hiztunaren ikuspuntutik)
3-abestu-P-3SG Floyd
'Floydek abestu omen zuen.' (Bhadra 2017: 85)
- b. É-némene-*sèste* Floyd? (entzulearen ikuspuntua)
3-abestu-P-3SG Floyd
'Zuk entzundakoa aintzat hartuz, abestu zuen Floydek?' (ibidem)
- (91) a. Peter bringt *wohl* Wein mit. (hiztunaren ikuspuntutik)
Peter ekarri P ardo COM
'Agian Peterrek ardoa dakar.' (Döring 2007: 101)
- b. Wird Peter *wohl* Anna mitbringen? (entzulearen ikuspuntua)
LAG Peter P Anna ekarri
'Ekarriko ote du Peterrek Anna?' (ibidem: 113)

Döringek (2007: 114) dio *wohl*-en bidez, alde batetik, perpaus deklaratiβο batean hiztunak proposizioarekiko engaiamendu maila dakarrela; beste alde batetik, galdera batean hiztunak entzuleari bere engaiamendu maila eskatzen dio. Ikuspuntu aldaketa hau [Q]

operatzaile batek eragiten duela dio Bhadrak (2017), galderak sintaktikoki markatzen diren kasuetan besterik ez baita gertatzen. Bestalde, sintaktikoki deklaratio baten itxura duten baina prosodikoki galderazko intonazioa duten testuinguruetan ez da *origo shift* delako fenomenoa gauzatzen (Gunlogson *apud* Heim 2019). Bhadrak (2017) argudiatzen du lehenengo jokabidea txeieneraz, ingelesez edo koreeraz sumatzen dela eta bigarrena, berriz, ekialdeko pmoeraz edo mazedonieraz.

Bestalde, sintaxiaren aldetik ez dago ikuspuntu iturrian aldaketa hori gauzatzen duen ageriko eragiketarik, dela euskaraz, dela alemanez, partikulek berdin jokatzen baitute perpaus mota bietan. Arestian aditzera eman dudan bezala, Bhadrak argudiatzen du ikuspuntu aldaketa [Q] operatzailearekin lotuta dagoela; beraz, partikulak galderen indar ilokutiboarekin interaktuatzean sortuko litzateke *origo shift* delakoa. Kontzeptuak argituta, errepara diezaiogun orain euskarari.

Euskarazko partikulei begiratzuz gero, hiru dira testuinguru deklaratioetan nahiz interrogatioetan ager daitezkeen partikulak, i.e. *ahal*, *omen* eta *ote*:

- (92) a. Eta oihan hori Indiasena *omen* lukek. (Salaberry 1958)
- b. %Ibilira *omen* haiz Zalamankan harat? (ibidem)
- (93) a. Ezagutzen *ahal* haut aski, hiri aise mintzatzeko! (Larzabal 1991)
- b. Ba *ahal* dakik bederen Jesukristo noiz hil zen? (Maitena Duhalde a.k.)
- (94) a. Geixko esan *ote* dezun iduritzen zait. (Altzaga 1994: 101)
- b. Norat hartuko *ote* du? (Etxamendi 2010: 29)

Oraingo azterketa azken partikularen jokabidera mugatuz gero, egungo euskararen bere erabilera perpaus mota bietan orokorragoa baita, ikuspuntu aldaketa euskaraz ere gauzatzen dela proposa daiteke: (94a) adibidean partikulak hiztunaren engaiamendu maila adierazten du, entzuleak agian txarto esan duela uste du hiztunak alegia; (94b) adibidean, ordea, hiztunak eta entzuleak ez dute galdera horren erantzuna ezagutzen, beraz baliteke partikularen bitartez bien engaiamendu maila adieraztea. Döringek (2007: 112) dio galderetan entzulearen ikuspuntu epistemikoa eskatzen dela eta kasu batzuetan hiztunarena eta entzulearena agerian gelditzen dira; beraz, (94b) adibideko egoera ez da bitxia. Izan ere, galdera neutro batean auresuposatzen da hiztunak ez dakiela erantzuna baina entzuleak bai;

oraingo galdera motarekin konparatuz gero, aldea entzulearen jakintasunean dago, uste baita berak ere ezin duela erantzuna jakin (Döring 2007: 114). Egia esan, aurrerago (§5.4) aditzera emango dudan bezala, Littell eta besteren (2010) ildotik, horrelako galderek dakartzaten balizko erantzun guztiek ez dute nahiko indarrik galderaren balioa asetzeko. Kontuan har dezagun polaritatezko galdera bat, bere balizko erantzunak mugatuak dira eta:

(95) Ona *ote* da bide hau?

Galdera horretan proposizioa berresteko edo ezeztatzeko eskatzen zaio entzuleari; hala ere, *ote* partikula duenez, emango den erantzunak ez duela entzulearen engaiamendu osoa edukiko aurreikusten da. Entzuleak erantzun argia eman dezakeen arren, hiztunak entzulearengan kokatzen du *ote*-ren ekarpena, ziurtasunik gabekoa alegia. Hortik letorke konjekturalaren irakurketa eta, ondorioz, informazioa jaso nahi duen galderaren izaera apalduta ageri da.

Labur-zurrean, beste hizkuntza batzuen partikulei identifikatu zaien bezala, euskarazko partikulek ere *origo shift* delako fenomenoak dute agerian.

4.3.6 Partikulen arteko bateragarritasuna

Euskalaritzan partikula bat baino gehiago ezin direla perpaus berean agertu esan ohi da (Euskaltzaindia 1987: 500; Mujika 1988: 488).²¹ Beraz, *omen* erabiliz gero, *bide* ezin da azaldu:

(96) Gotenburgora joan *omen* da Per.

(97) Gotenburgora joan *bide* da Per.

(98) *Gotenburgora joan *omen bide* da Liria. / *Gotenburgora joan *bide omen* da Liria.

²¹ Mujikak (1988: 14. oin oharra) partikulatzen jo litekeen *ohi* eta *omen* bateragarriak izan daitezkeelako froga dakar:

(i) Beste toki batzuetan ere bizi zitekeela esan *oi omen* zuen.

Dena den, adibidea *El Diario Vasco* izeneko egunkarian agertzen denez, mendebalde zabaleko hizkera dela suposatzen dut. Hori dela eta, *ohi* bezalako partikula dela dirudien arren, ez luke 4.3.2 azpiatalean tradizionalki *partikula modalak* deritzeten osagaiei identifikatutako jokabide bera edukiko.

Zubeldiak (2010) eta Korta eta Zubeldiak (2016) partikula hauen semantika aztertu dute eta *omen* ebidentziala eta *bide* epistemikoa direla ondorioztatzen dute; hala ere, partikula biek bigarren mailako esanahi edo interpretazioa dute, *omen*-ek epistemikoa eta *bide*-k ebidentziala. Gauzak horrela, badirudi partikula hauen arteko bateraezintasuna semantikoa dela, interpretazio antzekoak bailituzkete eta, ondorioz, euren eremu semantikoa gainjarrita bailegoke.

Datu tipologikoen, ordea, partikula bat baino gehiago perpaus berean azaltzea ohikoa dela ohartarazten digute; halaber, partikulak beti hurrenkera jakin batean agertzen dira. Ondoren, honen berri ematen diguten adibideak dakartzat: (99) adibidean mandarinerazko *ne* eta *ba* partikulak; (100) adibidean kantonera *laa3* eta *me1*; (101) adibidean alemanez *ja*, *doch* eta *wohl*; eta (102) adibidean Gitksan hizkuntzan *nee* eta *=ima*. Ikus ditzagun adibideak:

(99) Lǐ Miǎnníng hái méi gěi nǐ jièshào wǒ shì shéi *ne ba / *ba ne?*

Li Mianning oraindino ez ADL zu aurkeztu ni izan nor P P P P

‘Li Mianningek ez dizu oraindino esan nor naizen ni, ezta?’ (Li 2006: 61)

(100) Keoi5 maai5 lau2 *laa3 me1 / *me1 laa3?*

bera erosi pisu P P P P

‘Pisua erosi du dagoeneko?’ (Kuong 2008: 725)

(101) Dieser Satz enthält *ja doch wohl* viele Partikel.

hau.M.NOM esaldi eduki P P P asko partikula

‘Esaldi honek partikula asko ditu JA DOCH WOHL’ (Struckmeier 2014: 16)

(102) *Nee =ima =hl sdin =hl xbiist =a*


P P BALD izan.astuna BALD kutxa GALD

‘Astuna ote da kutxa?’ (Littell eta beste 2010: 91)

Lik (2006) sintagma desberdinetan zehar banatzen ditu partikulak euren bateragarritasuna eta interpretazioa oinarri hartuz; ondorioz, pragmatika jakin bat adierazten duten hainbat sintagma proposatzen ditu: diskurtsoa, gradua, ebaluatzailea, epistemikoa, deiktikoa eta ebidentziala. Bestalde, Kuongek (2008) kanpo- eta barne- partikulak bereizten ditu, (3.4) atalean azaldu dudana bezala; kokagune desberdinak esleitzeak partikulen arteko bateragarritasuna ahalbidetzen du. Halaber, hizkuntza germanikoetan ez diete Liri (2006) edo

Cinqueri (1999) jarraitu semantika-pragmatikan oinarritutako sintagmak proposatuta (cf. Coniglio 2007b). Egia esan, alemanezko partikula *bi*, *ja* eta *doch*, interpretazioaren aldetik oso hurbil ei daude (Repp 2013); partikula horien ekarpena berdina da, Repp (2013) dioenez, eta bien arteko alde bakarra da *ja* partikula testuinguru jakin bat erabiltzeko baldintzak *doch*-ek ere badituen arren, *doch*-ek *ja*-k ez dituen baldintzak dituela; bestela esanda, zati batean bakarrik dira berdinak eta ez euren osotasunean:

(103)



Gauzak horrela, badirudi partikula hauek sintagma bera okupatzen dutela, semantikan oinarrituta; hala ere, perpaus berean biak ager daitezke, (101) adibidean egiazta daitekeen bezala. Beraz, kokagune sintaktiko desberdinetan agertu behar dira.

Eremu semantikoaren zati bat bat etortzeak ez du zertan partikula bi banaketa osagarrian daudenik suposatu; Reppen (2013) ildotik, *bide* eta *omen* partikulak batera ager litezke hauetako baten erabilpen-baldintzak bestearen baldintzen zati batekin soilik guztiz bat baletoz, (103) irudian alemanezko partikuletarako irudikatu dudan bezala. Hala ere, ez da euskararen kasua, ez *bide*-ren eta *omen*-en artean, ez beste partikula modalen artean ere. Dena den, ezin zaio bateraezintasun hau semantikari leporatu, kontu sintaktikoa izan liteke eta (cf. *ahal* eta *ote* partikulen arteko bateragarritasuna [§5.4.8]). Laburbilduz, ohiko partikula modalen azterketa semantikoa beharrezkoa da euren arteko bateraezintasuna semantikak ala sintaxiak eragiten duen erabakitzeke.

Bestalde, *-a* partikula ez dator bat ezaugarri honetan gainerako partikula modalekin, berau beste partikula batzuekin perpaus berean ager daiteke eta; polaritatezko galderetan erabiltzen denez, testuinguru berean azal daitezkeen partikulekin bateragarria da, *ote*-rekin kasu:²²

²² Ohikoa ez bada ere, *ahal* eta *-a* partikulak perpaus berean agertzea ez dute guztiz baztertzen ekialdeko hizkeretako hainbat hiztunek, esate baterako:

- (104) Miñarri mendiaren sabela gatzez beterik *ote* datekea? (Camino 2017: 500)
- (105) Amatxi Iholdiko *othe zena*? (Camino 2009b: 193)
- (106) Jin *othe dea*? (Euskaltzaindia 2016)
- (107) Ez *ote* deia arren deüs ere etxe hontan guretako? (Davant 2008: 76)
- (108) Ezagutzen *ote* duka Peio eskultorea? (Erdozaintzi-Etxart 1982)
- (109) Etxearen saltzapenetik ez *ote* duguia horrena bederan altxatuko? (Thikoipe 2009: 115)
- (110) JONEK *ote* dia hori erran?


Euskaltzaindiaren (1987: 500) arabera, (104-110) bezalako adibideak ezinezkoak dira, *ohizko jokabidearen salbuespen bakarra eta harrigarria* hain zuzen. Akademiaren ustez, egoera jakin batean bakarrik ager litezke *ote* eta *-a* partikulak batera, *ote*-k parentetiko moduan jokatu balu alegia. Dena den, horrelako esaldien prosodiak ez du analisi horren alde egiten, (104-110) adibide horietako partikularen prosodiak ez baitu erakusten parentetikoek eragiten duten intonazio patroia; aitzitik, *ote*-k bat egiten du aditz jokatuarekin eta 4.3.2 azpiatalean deskribatutako ezaugarri guztiak erakusten ditu. Are gehiago, (110) adibidean *ote* partikularen aurretik dagoen osagaia fokua da eta, lehen esan bezala, fokua eta aditz jokatuaren artean ezin da ezer tartekatu; beraz, adibide hauetan *ote* kanonikoa izan behar da. Aurrerago 6.2.5 azpiatalean itzuliko naiz gai honetara, hemengo ikergai diren partikula birekin zerikusia du eta.

Beraz, euskaraz partikula modaltzat hartu ohi diren horiek, *al*, *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote*, banaketa osagarrian daudela dirudi, direla arrazoi sintaktikoengatik, direla arrazoi semantiko-pragmatikoengatik. Bestalde, *-a* markatzaile interrogatiboa partikula modal batzuekin batera ager daiteke. Honek eta aurreko ezaugarriek partikulek egitura sintaktikoan kokagune bi okupatzen dituztela iradokitzen dute; 6.4. atalean argudiatuko dudanez honako banaketa legoke:

-
- (i) ?Ez *ahal* duzia ogia ekarri?
- (ii) Ez *ahal* duzia zuhaurek doidoietan hori aitortu? (Larzabal 1991)

Adibide hori besterik ez dut laginean topatu, eta *Euskal Klasikoen Corpus* eta *Ereduzko Prosa Gaur* corpus arakatzailetan bat ere ez; ez, behintzat, *ahal* partikula eta ez aditz modala duen adibide argirik. Etorkizunean aztertzeke, beraz, geratzen da gai hau.

(111)



Euskal partikula modalak deskribatuta, orain propietate horiek partikula modalen syntaxiaz zer dioskuten ikertuko dut; horretarako, 3.3.2 eta 3.3.3 azpiataletan plazaratutako eztabaida ekarriko dut euskarara, euskal partikula modalak buru sintaktikoa direla ondorioztatuta.

4.4 Euskarazko partikula modalen izaera sintaktikoaz

Aurreko atalean (§4.3) euskarazko partikula modalak ezaugarritu ditut, honako propietateak azaleratuta: a) aditzen mugidaren ondorioz partikulak ere mugitzen dira; b) partikulen aditz jokatuekin bat egiten dute hitz morfonologikoa osatuta; c) partikula modalen prosodia aditz jokatuaren silaben kopuruaren arabera da, klitiko fonologiko-prosodikoen jokabideari jarraituz (Txillardeggi 1984; Condoravdi eta Kiparsky 2002); d) Albizuren (1991) kontra, ez dute Denb burua hautatzen; aitzitik, perpaus motaren baldintza interpretatiboak partikularen ekarpenarekin bateragarriak izan behar dira; e) ohiko partikula modalak banaketa osagarrian daude; -a markatzaile interrogatiboa, aldiz, ez; f) ezeztapenaren gaineko besarkadura dute partikulek; g) *origo shift* delako fenomenoaz azaltzen dute partikulek. Ezaugarri horietako batzuek honako galdera dakarte: euskarazko partikula modalak, buru sintaktikoak ala islapen nagusiak dira? Jarraian 3.3.2 eta 3.3.3 azpiataletatik abiatuta, propietate horiek eta, oro har, euskarazko partikula modalak ikertuko ditut galdera horri erantzuna emateko asmotan.

4.4.1 Euskarazko partikula modalen buru izaera azterketaren pean

Aurreko azpiataletan mahagaineratutako ezaugarrietan oinarrituz, gramatikariek euskarazko ohiko partikula modalak buruztat jo dituzte (Albizu 1991; Elordieta 1997; Elordieta 2001; Haddican 2001; Arregi eta Nevins 2012; Monforte 2015; 2018; Etxepare eta Uria 2016; Lizardi-Ituarte 2017). Gogora dezagun partikula modalen inguruan egon diren eta dauden

eztabaidetako bat euren izaera sintaktikoarekin dagoela lotuta. Gai hau jorratu dudanean DenbS eremuan leudekeen balizko buru moduan jokatuko luketen partikulak, Coniglioren (2008) ustean, aditzaren mugidaren ondorioz berarekin batera mugitu beharko lirakeela eman dut aditzera. Horrelako jokabidea ageri da suedierazko partikula bitan *ju* eta *väl*:

- (112) Igår sågi [ju / väl] poijken *[ju / väl] ti filmen.
 atzo ikusi.LEH P P mutil.DEF P P filma.DEF
 ‘Mutilak JU / VÄL atzo filma ikusi zuen.’ (Scherf 2017: 80)

Euskalaritzan partikula modaltzat hartu ohi diren horiek suedierazkoen antzera jokatzen dute (30-35) adibideetan frogatu dudana bezala. Beraz, partikula modalak euskaraz buruak direla baieztatu dezaket. Halaber, partikula modalen ezaugarrietako bat klitikotasuna da. Ezaugarri hau ere badute euskarazko partikulek, prosodikoki behintzat, 4.3.2 azpiatalean erakutsi dudana bezala. Tipologikoki partikula modalen kategoria zehazteko ezaugarriak euskarazko partikulei aplikatuz gero, berauek izaera sintaktiko hori dutela berresten da.

Lehen (§3.3) partikulen burutasunaren aldeko argudioak jorratu ditudanean, hainbat baztertzea erabaki dut Gutzmanni (2015) jarraituz, semantikarekin zerikusi handiagoa baitute partikulen izaera sintaktikoarekin baino. Horiei erreparatuz gero, egiaztatzen dugu euskarazko partikula modalak ezin direla fokua edo topikoa izan eta ezin direla koordinatu edo modifikatu:

- (113) (**Omen*.) Nerea etxera (*omen*) dator.
 (114) Ba (**OMEN*) dator Nerea etxera.
 (115) Nerea etxera [(*)*oso omen*] dator.
 (116) *Nerea etxera *omen* eta *bide* dator.

Ezaugarri hauek ere betetzen dituzte euskarazko partikula modalek; hala ere, esan bezala, semantikak mugatzen ditu erabilera hauek: partikula modalak ezin dira, esaterako, fokua izan, ez baitute diskurtsoan alternatibarik sorrarazten, (114) adibidean bezala fokua okupatzen duen tokia hartzen duen arren; eta ezin dira modifikatu, euren esanahia ezin delako graduatu, adberbio batzuen moduan, esate baterako:

(117) Nerea (*oso) atzo etorri zen.

Beraz, euskarazko partikulak burutzat hartzeko ezaugarri horiek literaturakoekin bat datozen arren, ez dut uste zeharo frogagarriak direnik, lehen (§3.3.1) argudiatu dudan bezala, propietate horiek semantikarekin lotuta baitaude, izaera sintaktikoa zeinahi dela ere.

Aurretik (§3.3.1) zerrendatutako beste hiru ezaugarritara joko dut orain: lehenengoz, partikula modalek kokagune jakin bat okupatzen ei dute, hots beti gune bera dute; euskarari begira partikula guztiak beti toki berean agertzen dira:

(118) (**Ei*) Marga (**ei*) etxera (**ei*) etorri (*ei*) da (**ei*).

Bigarrenik, partikula hauek ezin dira galdera baten erantzuna izan, proposizio osoa behar dute:

(119) - Heldu dira Aitor eta David Bostonera? -*Ahal / *Bide / **Ei* / **Omen*.²³

Euskararen kasuan murriztapen bi hauek partikulen behar morfologikoei lepora lekizkieke; hots, aditz jokatuari lotuta egoteko beharrak azalduko lituzke.

Azkenik, partikulen kategorian zerrendatu ohi diren kideak beste kategoria batzuetakoei daude diakronikoki lotuta. Hizkuntza germaniarretan zein erromantzeetan adberbioetatik, adjektiboetatik eta menderagailu/juntagailuetatik eratorriak ei dira (Abraham 1991; Munaro eta Poletto 2002; Waltereit eta Detges 2007; Coniglio 2008). Honez gain, aditzak ere proposatu dira (Cardinaletti 2011; Haegeman 2014) partikulen jatorritzat. Edozein kasutan beste kategoriekiko lotura (ia) begi bistakoa da hizkuntza horietan:

(120) Gianni, {poi} cos' ha fatto {poi}?

Gianni ondoren zer LAG egin.PRTZ ondoren

'Zer egin zuen Giannik ondoren?' (Cardinaletti 2011: 506)

²³ Egia esan, azken hau (*omen*), * ikurra gabe, % erabiltzea zuzenagoa izango litzateke, hiztun batzuentzat erabilera hori zilegi baita. Dena den, jokabide hori ez dela kanonikoa eta aurrerago (§7) arakatuko dudan jokaerarekin dago lotuta.

(121) Gianni, cos' ha *poi* fatto?

Gianni zer LAG P egin.PRTZ

'Zer egin zuen Giannik POI?' (ibidem)

(122) Er hat es *eben* EBEN gemacht.

bera.M.NOM LAG bera.NEUT P oraintxe egin.PRTZ

'Berak oraintxe egin du EBEN.' (Scherf 2017: 87)

Euskararen kasuan ez da hain erraza partikulen jatorria argitzea, ez baitago lotura begi bistakorik; *ahal* partikula epistemikoaren kasuan aditz modaletik datorrela aldarrikatzen dut 5.3 atalean, formaz ez ezik, interpretazioaz ere hurbil baitaude. Izan ere, *ahal* aditz modala erro modala da eta, bestetik, *ahal* partikulak modalitate epistemikoa adierazten du. Hurrengo adibideetan igar daitekeenez, ez da beti erraza bien artean bereiztea:

(123) Egiten *ahal* duk.

a. Tu peux le faire.

b. Il est temps que tu le fasses! (Duhau 1993: 38)

(124) I re yoate *al* aiz!

a. Hi ere joan zaitezke

b. Hobe duk / dun hi ere joatea! [hemen gelditu ordez] (Olano 1998: 281)

Hala ere, sintaxiak laguntzen du horretan, ez baitute berdin jokatzeko, esate baterako, ezezko perpausetan:

(125) Ez [*ahal* duk] gutiago beharrezkoa euskararen biltzea [~~ahal duk~~]! (Duhau 1993: 7)

(126) Ez duk hori egiten ahal [~~duk~~].

Ebidentzia honetatik igartzen da forma biak sintaktikoki desberdinak direla. Beraz, aditz modala, gramatikalizazio prozesua jasan ondoren, partikula bihurtu dela proposatzen dut. Aurrerago, (§5.3.4 eta §5.3.5), sakonduko dut partikula honen gramatikalizazioan; oraingoz aditz batetik eratorria delako ideia nabarmendu nahiko nuke. Egia esan, berriki Lakarrak (2019) ildo horretatik doan oso proposamen erakargarria egin du *ei*, *omen* eta *ote*

partikuletarako: berreraiketen xehetasunetan sartu gabe, lehenengo partikula ***enin* aditz zaharretik, bigarrena *emon/eman* aditzetik eta hirugarrena ***bo(C)-te* aditzetik eratorriak ei dira, ‘eman’, ‘iruditu’ edo ‘bihurtu’ bezalako adiera leukaketenak. Beraz, hiru kasuetan aditzak ditugu abiapuntu.

Lakarraren azterketa nabarmendu beharrekoa da bi arrazoiengatik: alde batetik, aditzetik eratoritzeak errazago azaltzen ditu a) partikulen izaera sintaktikoa, aditzak nahitaez perpausaren hezurduraren buruak baitira, eta b) partikulen kokapen sintaktikoa, aditzek okupatzen duten gunea baita, i.e. aditz jokatuaren aurrean. Hartara, ezaugarri horiek dira aditz batetik garatutako osagai gramatikalizatu baten espero izatekoak. Beste alde batetik, partikulen interpretazioa argitzeko ere lagungarria deritzot, 5.4 atalean *ote*-ren interpretazioa lantzean itzuliko naiz honetara.

Beraz, ebidentzia hauek, aurreko azpiataletakoei gehituta, euskarazko partikula modalak buruak direlako ideia indartzen dute. Dena den, beste hipotesia, i.e. adberbio ahulak direlako, baztertu baino lehen, honen argudioak ere edukiko ditut aztergai jarraian.

4.4.2 *Euskarazko partikula modalak ez dira adberbio (ahul)ak*

Lehenagoko 3.3.3 azpiatalean agerian utzi dudan bezala, argumentu gehienak arlo fonologiko-prosodikoarekin daude lotuta. Cardinaletti (2011) horietan oinarritzen da partikulak buru klitiko izaeratik baino hitz osoetatik hurbilago daudela ondorioztatzeko. Euskarazko partikulen fonologia-prosodiari dagokionez, aurretik erakutsi dudan bezala, ez dago prosodikoki klitiko gisa jokatzeko dutelako zalantzarik.

Bestalde, arrazoi sintaktikoetara joz, horien berri eman dut 3.3.3 azpiatalean; horietako bat dagoeneko jorratu dut: buruak badira, Conigliok (2007b) dio aditzaren mugidaren ondorioz partikulak berarekin mugitu beharko lirakeela eta hala gertatzen da euskaraz. Beste argudioa (i.e. DetS-ak edo PS-ak partikula modal biren artean ager daitezkeelakoa) nekez froga daiteke euskaraz, partikula hauek aditz jokatuaren klitikoak baitira, hain zuzen ere; dena den, partikulen jokaera eta kokapena ezagututa, ez dirudi hori posible izango litzatekeenik, aditz jokatuarekin bat egingo ez balute ere. Izan ere, *ohi* partikula aspektualak,

eta are gehiago partikula izaeratik hurbileko jokabidea duen *uste* aditzak²⁴ ez dute aditz jokatuarekin bat egiten, hurrengo adibideetan ikus daitezkeenez, eta ezingo lirateke DetS bat edo PS bat tartekatu:

(127) Ez du astero etxea garbitu *ohi* ~~du~~.

(128) Bestela esan, mairu maj'’u hitzean hiru bokal entzun eta ahoskatu *uste* ditu hiztun arruntak.(Oñederra 2004: 65)

Beraz, adibide horietan ohikoak ez diren partikula horien perpaus mailako banaketari erreparatuz gero, ezinezkoa da partikula biren artean aditz kategoriakoa ez den beste osagairik agertzea.

Azkenik, islapen nagusiko izaera defendatzen dutenek argudio semantiko-pragmatikoa dakarte; hau ez dut 3.3.3 azpiatalean aipatu, oso ahula iruditzen zaidalako: partikula modalek, goi mailako adberbioek bezala, hiztunaren jarrerarekiko zerikusia duten heinean, adberbio kategoriako kideztat hartu beharko lirateke. Hala ere, gure partikulak baliokideztat har litezkeen adberbioekin erkatuz gero, erraz igartzen da ez direla kategoria berekoak, ez behintzat sintaktikoki:

(129) [**omen*]Borjak [**omen*] asteburuan [**omen*] lan egin *omen* du [**omen*].

(130) [*Antza*] Borjak [*antza*] asteburuan [*antza*] lan egin [**antza*] du [*antza*].


(131) [*Nonbait*] Borjak [*nonbait*] asteburuan [*nonbait*] lan egin [**nonbait*] du [*nonbait*].

Argi dago interpretazioaren aldetik antzekoak badira ere, ez gaudela kategoria bereko osagaien aurrean, ez baitute berdin jokutzen eta semantika zehatzago eta argiagoa baitute.

Ondorioz, euskarazko partikula modalak ezin dira adberbio (ahul)ak izan, buru sintaktikoak baizik.

²⁴ Aieru bat besterik ez bada ere, *uste* aditzak partikula modal bihurtzeko bidea har zezakeela ematen du (128) adibideak iradokitzen duten bezala, bateko, proposizioaren aditz lexikoaren eta jokatuaren artean agertzen baita eta, besteko, aditz jokatuak ez du *uste* aditzarekin komunztatzen, bere aurrean dagoen aditz lexikoarekin baizik.

(132)



Mota ezberdinetako ebidentziek honen alde egiten dute: sintaxiak, morfologiak, prosodiak eta fonologiak; diakronikoki aditzetik etortzeak ere hipotesi hau indartzen du, aditzak hezurdura sintaktikoaren buruak baitira, beraz izaera sintaktikoa mantenduta, gramatikalizatu diren osagaiak lirateke. Gramatikalizazio horren ondorioz partikula hauek urritasun handia edukiko lukete morfonologikoki ez ezik, prosodikoki ere. Gainera, perpausaren hezurdura sintaktikoan kokatzen diren buruetatik eratorriak izateak perpaus mailan duten gunea azaltzen du eta, perpausaren hezurduran kokatzen direnez, buruak izatea da zentzuzkoena.

4.5 Aztertutako partikulak eta euren aldakortasuna

Orain arte partikula modalak orokorrean jorratu ditut bai beste hizkuntza batzuetakoak, bai euskarazkoak. Aurrerantzean partikula jakin batzuetara mugatuko naiz, i.e. tesi honetan aztergai direnak *-a*, *al* eta *ote(ete)* partikuletara hain zuzen ere. Hurrengo kapituluetan sakon aztertuko dudan arren, oraingoan partikula hauek labur aurkeztu nahiko nituzke irakurketa errazteko asmoz:

- a. Ekialdeko hizkeretan (Erronkarin, Zuberoan, Nafarroan Beherean eta Lapurdiko ekialdean) *-a* partikula baliatzen da polaritatezko galderetan.
- b. Erdialdeko euskalkian *al* partikula ohikoa da polaritatezko galderetan; horren ondoan euskalki guztietakoa den *ahal* partikula dugu (Euskaltzaindia 1987). Azken *ahal* eta erdialdeko *al* lotzen ditut tipologikoki ematen den gramatikalizazio prozesu baten ondorioz *ahal* epistemikoa galderazko *al* bihurtzen dela proposatuz.
- c. Euskalki guztietan erabiltzen den *ote* partikulak aldakortasun handia du. Hasteko, partikula hau galderetan eta galderak ez diren testuinguruetan erruz erabiltzen da:

- (133) Nora joan *ote* dira auzokideak oporretan?
 (134) Sue amatauko *ete* jatan billur nok. (Mugarza 2006: 76)
 (135) Loterixie tokau *ete* dan surrúmurrue sabaldu da. (ibidem)
 (136) Samar bat irintxi *ote* dian iruditu zatan. (Barandiaran 1972)

Honez gain, pragmatikoki orokorrak ez diren erabilerak agertzen dira:

- (137) Eguberriko izaia. Gure adixkide guziekin nahi dugu apaindu. Zerbait emaiten ahal *ote* daukuzu zuk ere? (Minaberri 1983) [*bona fide* galdera]
 (138) - Bada amuarrainik erreka hontan? - *Ote* den bada!
 (139) Ez girea bilkurarat gomituak *ote*? (Thikoipe 2009: 155)

Azkenik, sintaktikoki ere aldakortasun handia erakusten du *ote*-k: alde batetik, buru bezala jokutzen du euskalki guztietan; beste alde batetik, ekialdeko hizkeretan erabilera “askea” edo *ote* “askea” dugu, eta Cardinalettiri (2011) eta Coniglioari (2007b; 2008) jarraituz adberbio ahula dela ondorioztatuko dut. Halaber, ipar-ekialdeko hizkeretan²⁵ partikula honi beste erabilera bereizgarri bi igartzen zaizkio: bateko, *nz-ote* egitura, tipologikoki ere lekukotua eta, besteko, esaldiaren amaierako posizioa agerian duena:

- (140) Nork *ote* jan züan? (Casenave-Harigile 1997) (= 2a)
 (141) Ez ahal duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134)

Partikulen erabilerak aurkeztuta, hurrengo kapituluetan analisiari ekingo diot: bosgarren kapitulan euren interpretazioa zehazten saiatuko naiz eta seigarren eta zazpigarren kapituluetan azterketa sintaktikoari helduko diot.

²⁵ Egun Ipar Euskal Herrian bakarrik lekukotzen den egitura bat, i.e. ‘*nz*-hitza *ote*’, XVIII. mendeko mendebaldeko euskalkiaren hego-sartaldean ere ageri da bere berri (Ulibarri 2015: 554):

- (i) Ser ete isengo dan nire arimeagas?
 (ii) Nora ete yoango dan nire arimea seinec laster urtengo daben gorpuz onetatic?

Gaur egun, aldiz, ez da onargarria erabilera hori mendebalde zabaleko hizkeran. Interesgarria izango litzateke garai bertsuko eta inguru horretako beste testu batzuetan ea zer jokabide azaltzen ote den begiratzea, batetik, idazlearen berezko ezaugarria ez dela bazter baikenezake eta, bestetik, horrek egituraren garapenaren berri emango bailiguke, berrikuntza ala arkaismoa den alegia.

4.6 Kapituluaren laburpena

Kapitulu honetan azkenean euskarazko partikula modalei heldu diet. Lehenik, partikula modalen multzoak zein kide agertu beharko liratekeen aztertu dut, tradizionalki partikula modalen zerrendan sartu direnez gain, beste batzuk badaudela erakutsi dut, guztiek berdin jokatzen ez duten arren. Hori dela eta, perpausari egiten dioten ekarpena eta urritasun handiko izaera gramatikala dutela kontuan hartuta partikulatzat jo litezkeen arren, kapitulu honetan aztergai edukiko nituenen kopurua mugatu dut Euskaltzaindiaren (1987) irizpide bati jarraituz; hots, aditz multzoan atxikitako partikulak bakarrik aztertu ditut: *-a*, *ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen* (*emen*) eta *ote* (*ete*).

Ikergeia mugatuta, partikula hauen ezaugarriak deskribatzeari ekin diot: perpaus mailan okupatzen duten kokapenez gain, aditz jokatuarekiko interakzioa ere arakatu dut, partikula modalen artean talde bi proposatu beharko liratekeela ondorioztatuta: batetik, ohiko partikula modalak DenbS eremukoak daude, aurrizkiak direnak, beti aditz jokatuaren aurretik agertzen baitira; eta, bestetik, *-a* markatzaile interrogatiboa KonpS eremukoa, atzizki moduan jokatzen duena, aditz jokatuaren ostean azaltzen baita, menderagailuak legez. Eremu desberdinetakoak izateak azalduko luke zergatik diren ohiko partikula modalen eta markatzaile interrogatiboaren arteko bateragarriak. Bestalde, tipologikoki partikulen bateragarritasunaren eta kokagunearen arabera kanpo- eta barne-partikulak (Kuong 2008) edo goi- eta behe-partikulak (Corr 2015; 2016) bereizi dira; euskaraz ere horrelako bereizketa proposa liteke 5.3 eta 5.4 ataletan aditzera emango dudana bezala. Talde horretan sartu ez ditudan gainerako partikula diskurtsiboak zein multzotakoak diren ikusi beharko litzateke; oraingoz, Lizardi-Ituarte (2017; 2019a) proposamen bat egin du *bada* eta *e* kanpo-partikulen multzoari gehituta. Argi dago partikulen gainean gehiago ikertzeak kategoria horren inguruko galderak argitzen lagunduko digula; hurrengo kapituluetan hiru partikula (*-a*, *al* eta *ote*) analizatuko ditut euren propietateetatik eta ebidentzietatik abiatuta orain arte irekitako galderak eta beste batzuk erantzun nahian. Partikula horien sintaxia ez ezik, euren ekarpen interpretatiboa ere aztertuko dut, euren interpretazioak isla baitu sintaxian igartzen diren hainbat ezaugarritan; hartara, bosgarren kapituluan *-a*, *al* eta *ote* partikulek proposizioari zer dakarkioten azaldu ondoren, seigarren eta zazpigarren kapituluetan ikuspuntu sintaktikotik ikertuko ditut.

5 -a, al eta ote partikulen ekarpen interpretatiboa: lehenengo hurbiltze bat

5.1 Sarrera

Partikula modalen ezaugarri orokorrak zehaztu eta euren jokaera kanonikoa proposatu ostean, tesi honetan xehe ikertuko ditudan partikuletara joko dut hurrengo kapituluetan. Tesiaren ikergai nagusi horretara ikuspuntu bitatik hurbilduko naiz: alde batetik, partikulen interpretazioa jorratuko dut (§5) eta, beste alde batetik, euren sintaxia aztertuko dut (§6 eta §7). Kapitulu honetan, beraz, partikulen ekarpen interpretatiboa arakatzea eta argitzea dut xede. Hala ere, analisi honen abiapuntua eta helmuga ez nituzke pragmatikaren edota semantikaren barruan kokatuko; aitzitik, xumeagoa da helburua: partikulen azterketa sintaktikoa ahalik eta zehatzen eskaintzeko euren interpretazioa eta funtzioa ezagutzea, hiztunek zergatik erabiltzen dituzten eta zein egoeratan jakitea lagungarria izan daitekeelakoan nago. Izan ere, beste hizkuntza batzuetan egin diren partikulen analisisetan ohikoa denez, ezinbestekoa dirudi partikulen ekarpena ezagutzeak (Munaro eta Poletto 2002; Li 2006; Coniglio 2007b; 2008; Bayer eta Obenauer 2011; Hack 2014; Struckmeier 2014, besteak beste).

Analisiari ekin baino lehen, 2.5 azpialean bereizi ditudan galderen sailkapenak dakartzat berriro, partikula hauek galderetan batez ere agertzen direnez, galdera mota batzuk edukiko baitituzt hizpide. Laburbilduz, pragmatikaren aldetik proposatutako honako itaunen

sailkapenak aurkeztuko ditut: Escandell (1987; 1999), Obenauer (2004; 2005; 2006) eta Littell eta beste (2010). Lan horietan desberdintasuna badaude ere, sailkapenari eta galdera motei dagokienez bat datoz neurri handi batean; hona hemen bereizten dituzten itaunak:

- a. Galdera neutroak/ arruntak/ estandarrak: informazioa eskuratu nahi dutenak eta direktiboak.
- b. Galdera bideratuak/ ez-estandarrak: erretorikoak, konjekturalak, harridurazkoak, hipotetikoak, berrespenezkoak.

Zeintzuk galdera mota hartuko ditudan aintzat argituta, kapitulu honen garapena aurkeztuko dut: lehenik (§5.2) ekialdeko hizkeretako *-a* partikula landuko dut bera agertzen den testuinguru eta galdera motak kontuan hartuz, baita tipologian topa daitezkeen balizko paralelotasunak ere. Bigarrenik (§5.3) erdialdeko euskalkira joko dut galderetako *al* aztertzeko asmoz; kasu honetan partikularen garapen historikoari erreparatuko diot eta, euskalki guztietakoa den *ahal* partikula gogoan edukita, biak diakronikoki lotuta daudela proposatuko dut, *ahal* > *al* alegia; erlazio diakroniko hori argitu izana *al* partikularen analisirako onuragarria izan daitekeelakoan, galdera partikularen erabilera ulertzeko hipotesi bat aurkeztuko dut (§5.3.7). Hirugarrenik, euskalki guztietakoa den *ote* partikula hartuko dut aztergai eta bere erabilera orokorrak (§5.4.1 eta §5.4.2) nola tokian tokikoak (§5.4.4, §5.4.5, §5.4.6 eta §5.4.7) ikertuko ditut eta, tipologiak eskaintzen dituen datuez lagunduta, *ote* partikularen ekarpen eta funtzio interpretatibo bateratu bat hipotetizatuko dut, galderetarako eta mendeko adierazpen-perpausetarako egokia dena. Azkenik (§5.5), galdera erretorikoetara joko dut bertan *-a, al* eta *ote* partikulak erabiltzen baitira, eta labur jorratuko dut zein funtzio izan lezaketen partikulek galdera mota horretan.

5.2 *-a* ekialdeko galdera partikula: galderatasunaren indartzea

Partikula hau polaritatezko galderen markatzaile gisa deskribatu dute gramatikariek (Darrigol 1827; Chaho 1836; Archu 1853; Gèze 1873; Campi3n 1884; Ithurri 1895; Lafitte 1944; Arotçarena 1976; Villasante 1980; Euskaltzaindia 1987; Urquizu 1996; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003). Honela deskribatzen du Euskaltzaindiak atzizki galdekaria:

Normalean adizki jokatuari eransten zaion atzizki hau bai/ez moldeko galde jeneralak markatzeko erabili ohi da, ekialdeko euskalkietan batez ere. (Euskaltzaindia 1987: 498)

Atzizki honen erabilera zehazten erraza da: berez itauna markatu baizik ez du egiten; ez du, alegia, berez bestelako ñabardurarik eransten. (ibidem: 501)

Partikula hau normalean ez da beste partikulekin batera zerrendatu ohi; horren arrazoia baliteke bere jokabide sintaktikoa desberdina izatea eta, bestalde, besteak ez bezala, euskararen erdigunean ezaguna ez izatea, ekialdeko hizkeretan bakarrik dokumentatzen baita. Partikula honetaz, berez, euskalki desberdinetako hiztunak baliatzen dira; Zuazoren (2016) sailkapen eta terminologiari jarraituz, honakoetan erabiltzen da *-a*: ekialdeko nafarrerak, euskara zuberotarrak, sortaldeko nafar-lapurarrak dute ezaugarri hau. Gaur egun, ordea, eremu murriztagoa du eta gero eta leku gutxiagotan baliatzen da, ekialdeko nafarra desagertu delako eta belaunaldi berriek baztertu bide dutelako, eremu horietan egindako elkarrizketek agerian utzi duten bezala.¹ Beraz, egungo partikula horren eremua Zuberoko lurraldetik Lapurdiko Hazparne eskualdera² zabaltzen da; Larresoron, Uztaritzen, Milafrangan, Jatsun, Haltsun, Zuraiden eta Ezpeletan, ordea, ez da baliatzen (Epelde 2003: 229; Zuazo 2016; cf. Unamuno eta beste 2012).³

¹ Ikastolan edo murgiltze sistematik kanpo ikasi ez dutenek hobeto gordetzen dute ezaugarri hau; izan ere, beste ezaugarri dialektal edo azpidialektalei dagokienez gertatzen den bezala, hiztun horiek kontserbatzaileagoak izaten dira (e.g. Moyna eta Decker 2005) estandarizazioaren eraginetik kanpo baitaude.

² *Euskararen Herri Hizkeren Atlasak* (Euskaltzaindia 2016) 1754, 1774, 1782 eta 1787 mapetan eskaintzen dituen datuei erreparatuz gero, partikula honen mendebaldeko isoglosa honela zehaz liteke: Mugerrek iparraldean eta Itsasuk hegoaldean partikuladun hizkeren muga markatzen dute; Basusarrik eta Arrangoitzek iparraldean eta Ainhoak hegoaldean, ordea, partikularik gabeko eremua. Hala ere, hainbat herritan ezaugarri hori tokiko hizkerarena ez bada ere, ondoko herrietan ohikoa denez, hiztun batzuek ontzat ematen dituzte *-a* partikulaz osatutako galderak, nire ustez, bere erabilera ezagutzen dutelako. Esate baterako Arrangoitzeko hiztunek, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* datu batzuen arabera, *-a* erabiltzen dute (edo, behintzat, onesten dute bere erabilera); hala ere, Maitena Duhaldek (a.k.) ez du horrelakorik jaso bere tesirako egindako elkarrizketetan.

³ Partikula honen eremua ekialdeko hizkeretara mugatuta ei dagoen arren, Azkuek mendebaldeko euskalkian ere bere aztarnak topatu uste zituen, Mungialdeko Marurin hain zuzen ere:

(i) Ondo dagoa? (Azkue *apud* Mitxelena eta Sarasola 2017)

Orotariko Euskal Hiztegia (Mitxelena eta Sarasola 2017), aldiz, adibide hau zalantzan ipintzen da eta ez dute hain argi ikusten *-a* partikularekiko zerikusia. Izan ere, edozein gauza izan litekeela diote, esaterako:

Historikoki *-a* euskarazko lehenengo testu argitaratutik, i.e. Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* obratik, dago lekukotuta. Padilla-Moyanok (2011) ezaugarri hau gainbeheran ala zabaltze-prozesuan ote dagoen galdera mahaigaineratzen du; testu zaharretan partikula honek duen bizitasuna aztertu beharko litzatekeen arren, lehen begiratuan Etxepareren lana, Padilla-Moyanoren (2011) *Kadet eta Bettiriño* lanaren edizioa eta egungo obrak konparatuz gero, aldea ez da oso handia, bai garai batean, bai bestean *-a* partikula ez baita nahitaezkoa polaritatezko galderetan. Egoera hau ez da batere ezohikoa beste hizkuntza batzuei begiratzuz gero; hizkuntza askotan, hala nola katalanez (Prieto eta Rigau 2007), japonieraz (Kuwabara 2013), mandarineraz (Li 2006) eta sardinieraz (Mensching 2015), galdera partikulatzen jo litezkeen horiek ez dira beti erabili behar eta hainbat hizkuntzatan analisi pragmatikoei ekin diete partikula horien erabilera azaltzeko:

- (1) a) Hóngjiàn zài bàngōngshì?
Hongjian IN bulego
'Hongjian bulegoan dago?' (Li 2006: 34)
- b) Hóngjiàn zài bàngōngshì ma?
Hongjian IN bulego P
'Badago Hongjian bulegoan?' (ibidem)
- (2) a) Ammentatos bos ne sezis de imbiare sa lìtera?
gogoratuak zuek ADB.KL zarete GEN bidali ART gutun
'Oroitu zarete gutuna bidaltzeaz?' (Mensching 2015: 21)
- b) A bos ne sezis ammentatos de imbiare sa lìtera?
P zuek ADB.KL zarete gogoratuak GEN bidali ART gutun
'Oroitu al zarete ba gutuna bidaltzeaz???'⁴ (ibidem: 22)

(ii) Ondo dago a? "Está bien aquél, aquélla, aquello?" (Mitxelena eta Sarasola 2017)

Interpretazio honez gain, Mutrikun (Aitor Lizardi-Ituarte a.k.) erabiltzen den *a* partikularekin lot liteke.

⁴ Menschingek (2015) ez du itzulpenik ematen adibide honetarako nahiz aurrekorako; halarik ere, (2a) galdera neutroa dela eta (2b), Obenauarren (2004; 2006) ildotik, galdera ez-estandarra dela ematen du aditzera. Bigarrenean Menschingek dio hiztunaren kritika zantzua dagoela, berak uste baitu entzuleek ez dutela gutuna bidali.

Adibide horietan (1b & 2b) mandarinerazko *ma* eta sardinierazko *a* partikulak azaltzen dira, teoriaran proposizioa galdera dela markatzeko asmoz; (1a & 2a) adibideetan, ordea, ez dago partikularik eta horiek ere galderak dira. Hala ere, Liren (2006) eta Menschingen (2015) arabera (a) eta (b) galderak ez dira pragmatikoki mota berekoak: mandarineraren kasuan partikulak indartzen du galdera izaera eta sardinieran kasuan partikularik gabekoa itaun neutroa eta partikuladuna ez-estandarra dira.

Ekialdeko *-a* partikula ez da polaritatezko galdera guztietan agertzen eta beraz, ez litzateke markatzaile interrogatibotzat hartu beharko; hots, ez du galdera sintaktikoki markatzeko balio.

Tesi honetarako bildutako datuei erreparatuz gero, *-a* polaritatezko galdera mota pragmatiko guztietan agertzen da; hona hemen hainbat adibide:

a. Galdera neutroetan:

(3) Untsa ibilia haiza bidean? (Etxamendi 2011b: 16)

b. Galdera bideratueta:

(4) Errak eta, erran zion Martinek, hor ez zena "Basa-Jaunaren Harpea" erraiten zakotena?
(Etxamendi 2011b: 58)

(5) Ontsa zirea?

c. Eskaintzetan:

(6) Zerbait nahi duzia? (dutea, kafea...)

d. Eskaeretan:

(7) Hartzen ahal datazia buata gorri hori?

e. Harridurazkoetan:

(8) To! Hi *hiza* Zaiztian! (Etxamendi 2010: 116)

(9) Nik dakita! (Etxamendi 2011b: 158)

f. Konjekturaletan

(10) Amatxi Iholdiko *othe zena?* (Camino 2009b: 193)

g. Erretorikoetan

(11) Ez *dea* euskara orotan omenez bederen ezagutua, eta omen hobez, bertze asko mintzai baino? (Etchepare *apud* Charritton 1984: 307)

Horiek horrela, partikula ezin zaio galdera mota jakin bati esleitu. Beraz, badirudi ez duela funtzio sintaktikoekin zerikusirik, ezta pragmatikoki galdera mota jakin bat markatzearekin ere; bestela esanda, ez ditu galdera neutroak edo ez-neutroak (Obenauer 2004; 2006; Bayer eta Obenauer 2011) bereizten. Hau bat dator beste hizkuntza batzuetako galdera partikulekin, e.g. sizilierazko *chi*-rekin: partikula hori hautazkoa da polaritatezko galderak sortzerakoan eta, gainera, galdera neutroetan zein ez-neutroetan erabil daiteke (Cruschina 2012: 193). Ikus hurrengo adibideak:

(12) a. (*Chi*) *sì* maritatu?

P zara ezkonduta

‘Ezkonduta zaude?’

b. (*Chi*) *sì* pazzu?

P zara zoro

‘Zoratuta zaude?’

Gogora dezagun sintaktikoki ez dela polaritatezko galderetan -a partikula nahitaezkoa eta, ondorioz, dagokion hizkerako hiztunek partikularik gabeko eta partikuladun galderak sor

ditzakete. Hala ere, aukera bat edo bestea berdin erabiltzen dutela ematen duen arren, euren artean aldea dagoela adierazten dute hiztunek; alegia, *beste indar bat* dutela aipatzen dute (Epelde 2003: 296) eta horrela baieztatu dute tesi honetako elkarrizketatuek ere.

Elkarrizketen bigarren zatian, i.e. ahozko ekoizpen gidatuan, *-a* partikula erabili duten hiztun horiek partikularen hautazkotasuna azpimarratu dute hirugarren zatian, i.e. egoera jakin batean esaldi bat proposatu eta partikulen erabilera edo erabilerarik eza egokia ote zen ebaluatu behar zuten ariketan. Halaber, hautazkotasuna agerian geratzen da idatzizko datuetan; beraz ez da erregistro edo estilo kontua. Hala ere, idatzian hautemandako testuinguru jakin batean beti agertzen da *-a*:

(13) Errak Pierre, telefonatu duka? (Larzabal 1991)

(14) Errazu, Amatxi, pollita zena aitatxi, gaztean? (ibidem)

(15) Errazu, Betiri senditzen duzui*a* nontsu duzun purga tripan? (ibidem)

(16) Errak, Zaaiztian, eta Petanen berriik ba'uka Amiiketaik? (Etxamendi 2010: 119)

(17) Errazüe hei, adixkidea, nahi düzüe*a* behin edan? (Coyos 2013: 25-26)

(18) Errazü Jüsef artzaiñak ardiekin bortürtik iaixten ikhusi'tützi*a*? (Peillen 1985: 104-105)

Hiztunei testuinguru hori bezalako egoera bat ebaluatzeko eskatu zitzaien baina partikularik gabeko galdera emanez; aho batez baztertu eta *-a*-dun aukera hobetsi zuten:

(19) Errak, Pierra, jinen hiz*(-*a*) xerrian hiltzerat?

Testuinguru honez gain, beste hauetan ere partikula nahitaezkoa dela dirudi, bertan agertu ohi baita:

(20) So'ixu! So'ixu! Ez zire*a* kontent? Ez de*a* biziki pollita? (Etxamendi 2010: 26)

(21) So'ik horri! Bana; nehok ez xiti*a* ikusi? (ibidem: 39)

(22) Ez de*a* hala?

(23) Ez duka konprenitzen?

(24) Konprenitzen duka?

(25) Entzuten duzua?

Hau kontuan hartuta, normalean arreta bereganatzeko baliatzen bide dira hiztunak partikulaz; dena den, partikularik gabeko hizkeretan ere testuinguru horiek balio pragmatiko berdintsua edukiko lukete. Alabaina, gogoan eduki dezagun Gutzmannek (2008; 2015), Diewaldek (2011) eta Theilerrek (2019a: 10; 2019b: 148) adierazten dutena: erabilera pragmatiko jakin bat duen delako testuinguru batean partikula nahitaezkoa bada, bien arteko lotura aldarrikatu beharko litzateke, partikulak bezalako osagaien interpretazioa erabilera-baldintzaren araberakoak (ing. *use-condition*) baitira (eta ez egia-baldintzaren araberakoak); hots, Gutzmannek (2008; 2015) diosku partikulen ekarpena ikertzeko euren testuinguruari eta testuinguru jakin batean zilegiztaten dituzten propietatei begiratu behar zaiela.

Gainerako testuinguruetan interpretazio antzekoa lor daiteke: hiztunak entzulearen arreta proposizioaren gainean ezarri nahi du. Bestela esanda, *-a* partikula erabiliz hiztunak bidalitako esaldiaren indarra burutzea garrantzi handikoa dela, kasu honetan galderari erantzun hitzezkoa edo ez-hitzezkoa ematea, eta erantzuna jaso arte ez duela elkarrizketan aurrera egingo, ez baitzaio axola izango edo ezinezkoa baitzaio, adierazten duela proposatzen dut. Hartara, galderak duen funtzioa indartu egiten dela nabarmentzen da partikularen bitartez, dela proposizioaren polaritatea ezartzeko eskatuz, dela galdera baten bidez proposizio bat adieraziz.⁵ Honek azalduko luke zergatik den *-a* nahitaezkoa *errak* duten esaldietan, holakoetan entzuleak ezin du galdera saihestu eta.

Proposamen hau beste hizkuntza batzuetarako (alemanezko *denn* [Bayer 2012; Theiler 2017], italierazko erdiko guneko *mo* [Hinterhölz eta Munaro 2015], Dolomitetako ladinierazko *po* [Hack 2014], mandarinerazko *a* [Li 2006], nederlandezko *-ne* [Haegeman 2014], besteak beste) egin diren hipotesiek indartzen dute. Alemanezko *denn* partikularen kasuan proposizioaren edukia eta aurreko hizketaldiarekiko harremana nabarmentzeko balio du (Theiler 2017; 2019a) edo hiztunak bere galderak sortuko duen erantzunarekin interes handia duela adierazteko (Bayer 2012). Alegia, hiztunak aditzera eman nahi du galdera garrantzi handikoa dela eta, beraz, erantzun bat jasotzea exijitzen dio entzuleari:

⁵ Erakutsi dudan bezala, partikula hau informazioa lortzea helburu duten galderetan nahiz galdera ez-estandarretan (Obenauerren [2004; 2006] eta Bayer eta Obenauerren [2011] terminologia) erabil daiteke. Lehenengo motan *bai*, *ez* edo bien arteko proposizioarekiko engaiamendu maila adierazten duen bestelako osagai bat, e.g. *beharbada*, *seguru asko*, *auskalo* izan daitezke erantzuna; bestalde, bigarren motan erantzunak ez du zertan ahozkoa izan, ekintza bat sor dezake edo entzuleak bere eremu partekatuari delako proposizioa gehiarazi diezaioke.

(26) Kann Tim *denn* schimmen?

ahal Tim P igeri.egin

‘Badaki Timek igeri egiten?’ (Theiler 2017: 1)

(27) #Wie spät ist es *denn*?

zelan berandu da bera P

‘Zer ordu da?’ (A-k gau erdian B esnatzen du hori galdetzeko) (Bayer 2012: 14)

Bigarren adibidearen ezegokitasuna aurreko hizketaldirik ezatik dator, *denn* partikula ezin baita *out-of-the-blue* direlako egoeretan erabili. Hau ez dator bat euskararen kasuarekin, ezta Hackeck (2014) edo Lik (2006) deskribatzen dituzten erabilerekin ere.

Hackeck (2014) *denn* partikulak duenaren antzeko interpretazioa esleitzen dio Dolomitetako ladinerazko *po* partikulari, Fascian eta Nònes aldaeretan partikulak duen erabilerari hain zuzen ere. Bertan *po* partikula gehitzeak galdera jakinminez eta kuriositatez betetzea, hiztunak interes berezia erakustea eta entzuleari heltzen zaion mezua erantzun bat emateko behar handia adieraztea dakartza.

Halaber, Lik (2006) mandarinerazko *a*, kantonierazko *aa* eta wenzhouerazko *a* partikulak aztertu eta honako ekarpena dutela ondorioztatzen du: hizketaldirako ahoskatutako esaldia garrantzi handikoa eta esanguratsua dela azpimarratzeko balio dute (Li 2006: 130). Esaterako, hizketaldiarekin zerikusirik ez duen galdera bat egin nahi bada eta entzulearen arreta erakarri galderari erantzun bat eman diezaion, *a* partikulaz baliatzen dira mandarinerazko hiztunak:⁶

(28) A: Sān tiān zài táidà, sān tiān zuò jì.

hiru egun IN Taiwan.unibertsitatea hiru egun egin prostituta

‘Hiru egun Taiwango unibertsitatean eta hiru egun prostituta lan egiten.

⁶ Bestalde, galdera partikulatzen hartu ohi den *ma* partikulak ez duela perpaus mota markatzen aldarrikatzen du Lik (2006); aitzitik, graduatzaile markatzailea dela proposatzen du, alegia *ma* polaritatezko galderetan erabiltzen denean hiztunak entzulearengandik erantzun bat jasotzeko nahia areagotzen da. Halaber, partikula hau aginteretan edo deklaratioetan erabiltzen denean, indar ilokutiboa indartzen da, beti handiagoa izango da funtzio bakoitzaren indarra; *ba* partikularen bidez, ordea, indarra apaltzen da.

B: Zhè yào zěnme kāi a?

hori betebehar zelan ireki P

‘(Poto bat hartuta) zelan irekitzen dut hori?’ (Li 2006)

Adibide honek erakusten duenez, hiztunak aurreko esaldiarekin zerikusirik ez duen itaun bat egiten du; elkarrizketa-gaiaren aldaketa justifikatzeko eta erantzunaren garrantzia azaleratzeko *a* partikulaz baliatzen da hiztuna Liren (2006) ustean.

Partikula hauetako hainbat, gramatika lanetan euskarazkorako deskribatutakoa ez bezala, galderak ez diren beste testuinguru batzuetan ere azal daitezke. Esaterako, *denn* partikula modala baldintzetan ere baliatzen ei dute:

(29) Kritik ist willkommen, wenn sie *denn* konstruktiv ist.

kritika da ongietorri BALD bera.FEM P eraikitzaile da

‘Kritikak ongietorriak dira, eraikitzaileak baldin badira.’ (Theiler 2017: 7)

Dena den, alemanezko partikularen erabilera honek ematen du baduela bere euskarazko ordaina. Lafittek (1944: 494) diosku partikula hau galdera *faltsuetan* ager daitekeela, baina baldintzazko edo denborazko perpaus baten balioa izango luke:

(30) Hasten zena bada mintzatzen, argitzen zaizkon begiak.[quand il commençait à parler, ses yeux devenaient brillants.]

(31) Bertze batek egin lezakea bada, balitake arrabots. [si c’était un autre qui le faisait, il y aurait du bruit.]

Hala ere, hizkuntza bien artean badaude desberdintasunak: batetik, *denn* baldintzetan erabiltzeak ohikoagoa ematen du partikula hau aztertzen duten lan guztietan aipatzen baitute; bestetik, Lafitteren (1944) adibideei dagokienez, zuhur hartuko nuke erabilera hori, Lafittek (1944) bakarrik aipatzen duelako eta, honez gain, pragmatikoki baldintzazko edo denborazko balio batetik hurbilago egon badaiteke ere, formalki ez direlako ez baldintzak, ez denborazko perpausak, berauek markatzen dituzten menderagailuak ez baitaude agerian, alemanez ez

bezala.⁷ Beraz, sintaktikoki galderak dira, baina pragmatikoki baliteke 2.5 atalean zerrendatutako galdera moten artean ez kokatzea eta Lafittek deskribatutako erabilerak zuzenak izatea.

Era berean, arestian mahaigaineratutako mandarinerazko, kantoierazko eta wenzhouerazko partikulak perpaus deklaratioetan, aginteretan eta galdera mota sintaktiko guztietan ager daitezke (Li 2006: 52):

- (32) Wǒ bìng méiyǒu zuò cuò *a*.
ni ordea, ez.eduki egin txarto P
'Ez nuen txarto egin.'
- (33) Nǐ bú qù *a*?
zu ez joan P
'Ez zoaz?'
- (34) Zhè gè bāoguǒ shì dǎ nǎ'èr lái *d'a*?
hori KL pakete izan ABL non etorri P.P
'Nondik etorri da paketea?'
- (35) Shuō a! Bìe hàipà *a*!
esan P ez beldur P
Esan ezazu! Ez izan beldur!

Alegia, aurreko adibideetan ikusten da mandarinerazko *a* partikula perpaus deklaratio batean (= 32), polaritatezko galdera batean (= 33), *nz*-galdera batean (= 34) eta aginterazko testuinguru batean (= 35) erabil daitekeela. Esan bezala, ekialdeko partikula, ordea, ez ei da polaritatezko galderak ez diren beste testuinguru batzuetan agertzen, Lafittek (1944) aipatutakoak salbu (Gèze 1873; Euskaltzaindia 1987; Lüders 1993).⁸ Hala ere, Caminok (2017: 500) *-a*-k galdera baliorik ez ei dueneko hurrengo adibideak dakartza:

⁷ Egia esan, baldintzak edo denborazko perpausak markatzeko menderagailuak eta *-a* partikula ez dira bateragarriak, ekialdeko partikulak eta *-(e)nean* edo *-(e)la(rik)* menderagailuek kokagune sintaktiko bera okupatzen dutelako; *ba*-ren kasuan arrazoi pragmatikoak direla eta ezingo litzateke *-a*-rekin azaldu..

⁸ Partikula hau bai-ezko galderetara mugatzen dela esan ohi da eta datuek horren alde egiten dute. Hala ere, beste galdera mota sintaktikoetan lekukotzen da. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* (Euskaltzaindia 2016) hauta-galderetan erabiltzen dela dago jasota:

- (36) Jendiak, jendiak ezetik bethi bürria egün ooz konduitan, baituk, baituk juiten beitia enerbatüik, bidian badia afera zeit juiten eztenik eta... ezetik estonatü behar.
- (37) Bate ohit niza.
- (38) Hi bahiza ni ere banuk eta are!

Azken biek hurrengo adibideak gogorazten dizkidate, galdera erretorikoak alegia:

- (39) Ehotia hiza Martin! Ze behaute? (Etxamendi 2009: 151)
- (40) Othían égin día hori! Est-il donc possible qu'il ait fait cela! (Inchauspe 1856)

Izan ere, (36-37) adibideak formalki galderak direla pentsa liteke, partitiboa eta ezezko polaritatezko elementuak agertzen baitira; hala ere, ipar-ekialdeko hizkeretan partitiboa baiezko testuinguru deklaratioetan ere erabiltzea onargarria dela dio de Rijkek (1972), esate baterako:

-
- (i) Heldú iza ala yohán hiz?

Goenagaren (2009: 6. oin oharra) ustez, horrelako kasuetan perpaus bi ditugu, bateko, polaritatezko galdera eta, besteko, *ala* hasieran duen hauta-galdera. Hala balitz, erdialdeko *al*-en analisi bertsua luke *-a* partikulak adibide hauetan. Alabaina, elkarrizketetan berdin jokatzeko ez dutelako ebidentzia jaso dut: "handia ala txikia da?" esaldian *al* ezin da erabili, *-a*-k, ordea, onargarria dirudi:

- (ii) Handia ala / edo txikia (**al*) da?
(iii) Handia ala txikia *dea*?

Era berean, literaturazko laginean *ala* eta *-a* perpaus berean dituzten adibideak jaso ditut:

- (iv) Hiri mintzo nauk ni... Ala, ez nauka gehiago ezagutzen? (Larzabal 1992)
(v) Zozokeriaz ala zinez ari hiza? (ibidem)

Bestalde, *nz*-galderetan hiztunak ez direla *-a* partikulaz baliatzen esan daiteke Euskaltzaindiaren eta lan honen datuetan oinarrituz. Dena den, *-a* duten *nz*-galderen kasu bakanak jaso ditut:

- (vi) Nola *dea* hi(r)e izena? (Monforte 2015)
(vii) Nola bizi *ote dea* hiri handietan? (Oyharçabal eta beste 2009-2011)

Caminok (2017: 499) ere *nz*-galderetan *-a* erabiltzen delako testigantzak bildu ditu, oso kasu berezian dioenez:

- (viii) Jakizak khexüt... khexatü gindiela biak, han etxe zaharrean gentian oono, e, ta, ze gerthatü zena?

Baliteke azken hauek akatsak izatea. Akatsak diren ala ez erabaki aurretik horrelako adibideak zein egoeratan ematen diren ikertu beharko litzateke, alegia partikula honen semantika ezagututa hiztunengana jo liteke ea direlako baldintzetan *-a nz*-galderetan ere baliatzen ote diren ikusteko. Dena dela, ikergai horrek tesi honen helburutik aldentzen gaitu.

(41) Neskata ttipi bat zen ona zenik. (de Rijk 1972: 168)

Gauzak horrela, (36-37) adibideak deklaratioak direla onar liteke Caminori jarraituz.

Txillardegi eta Aurrekoetxeak (1987) ere Etienne Salaberriren *Ene sinestea* laneko adibide bitan oinarrituz -a partikula galderak ez diren bestelako perpausetan ager daitekeela argudiatzen dute:

(42) Bainan bazena etxean gertakari goibel bat, gaua erori orduko, edozoinek ikusi gabe, jo apez-etxerat...(Txillardegi eta Aurrekoetxeak 1987: 417)

(43) Zer bada, emanen zirena, denen aintzinean buluz-gorri! (ibidem)

Bigarrena galderatzat har daitekeela uste dudan arren, lehenengoan nekez interpreta dezaket galdera bezala; halaber, beste adibide bat topatzen dut lan berean:

(44) Haurra abiatu dea xutik, sagua bezala zoko-moko guztietan gordea eta norat-nahi ihes joana, irriskua ez baitu oraino ezagutzen (...) (Salaberry 1978)

Era berean, ezaguna den ‘ez dakita’ esamoldean -a dago galderazkoa ez den testuinguru batean:

(45) Nik dakita zer gisaz holako gizonak holako günean txerkatü züan bere habia! (Coyos 2013: 58)

(46) AITA: Jes!... Zer behar dio gaizo burtxoro horrek gure Dominikari?

AMA: Nik dakita! (Larzabal 1991)

(47) Bua, uai a^hätziak bitüt, denboa baten, enuk oit ee, denboa bateko pilotarien izenak, bazitzün ARanbillet eta, bo, nik dakita noR eta noR. (Camino 2017: 674)

Amaitzeko, -a polaritatezko galderetan bakarrik ager daitekeen baieztapena zalantzan ipintzen duten honelako adibideak topatu ditut tesirako bildutako datuetan zehar:

- (48) Érdi hiza, boi!: [*as-tu accouché, oui!* = *as-tu donc avoué, mon pauvre!*] (Larrasquet 1939)
- (49) Baakizuta, semia soldadoguatik jinik dizit eta, Olaberria aferman biziki untsa gindikezi eta baakizu eta... (Etxamendi 2010: 137)
- (50) To! Hi hiza Zaitzian? (ibidem: 116)
- (51) Hor hiza Erramun! (Larzabal 1991[1964])
- (52) Heldu niza jaun erretora! (Moreno 2018: 299)
- (53) Hori duka! Hori hala dela! (ibidem)
- (54) Ah! Hi huaikin ezkontia. Harek dakika, serora abiatu duk. (ibidem: 212)

Azken adibideak berezko garrantzia du, *-a* partikula aditz jokatu alokutibodun bati lotuta agertzen baita. Jakina denez, ekialdeko hizkeretan alokutiboa ezin ei da sintaktikoki galderak diren testuinguruetan erabili (Oyharçabal 1993; Alberdi 1994); beraz (53-54) adibideak ez lirateke galderak izango, aditz jokatuak alokutibozko morfema baitute. Ondorioz, tradizionalki markatzaile interrogatibotzat jo den *-a* partikula galderetatik kanpo ere erabil daitekeela proposatzen dut.

Hau guztiau aintzat hartuta, badirudi *-a* partikulari esleitu ohi zaion markatzaile interrogatiboaren funtzioa ezbaikoa dela. Esan bezala, partikula hau ez da nahitaezkoa galdera bat sintaktikoki markatzeko, ezta polaritatezko galderak ere, gramatika lanetan aldarrikatu den bezala; era berean, pragmatikaren arabera bereiz daitezkeen galdera motekin ez dago partikularen erabilera lotuta, galdera neutroetan eta ez-neutroetan (konjekturaletan, erretorikoetan, harridurazkoetan eta abarretan) azal daiteke eta. Ekialdeko partikula agertzen deneko testuinguruari erreparatuz gero, patroi bat igar daiteke: hiztunak entzulearen arreta erakarri nahi duenean proposizioaren indarra nabarmenduta entzulearengan erantzun bat sortzeko asmoz, dela informazioa lortu nahi duten itaunetan balio bat eman dezan, dela galdera ez-estandarretan entzuleak ekintza bat egin dezan (eskarietan) edo proposizioa onar dezan (erretorikoetan). Partikularen ekarpen hau tipologikoki proposatu da beste partikula batzuetarako (alemanezko *denn* Bayer 2012; Theiler 2017; 2019a, mandarinerazko *a* Li 2006; Dolomitetako ladinerazko *po* Hack 2014; italierazko erdiko guneko *mo* Hinterhölz eta Munaro 2015). Azkenik, itaunak ez bide diren testuinguruetan ere erabil daiteke *-a*; hala ere, urriak dira adibideak eta sakon ikertu beharko litzateke elkarrizketetan modu bideratuan

jasotzeko asmoz. Dena den, hori tesi honen mugaz haraindi doa, partikularen analisi semantiko-pragmatikoa eskatuko bailuke eta oraingoan partikulen interpretazioa soilik interesatzen zait euren sintaxia aztertzen lagunduko didalakoan. Hartara, nahiz eta *-a* testuinguru deklaratioetan erabil daitekeela dirudien,⁹ galderetan duen jokabidera mugatuko naiz lan honetan, horixe izan baita hasierako abiapuntua eta *al* eta *ote* partikulekin bat datorren propietatea.

5.3 *al* erdialdeko galdera partikula: interpretazio ezaz

Beste partikulak ez bezala, *al* partikula egungo euskaran emankorra da eta, gainera, balizko gramatikalizazio bilakabidea erraz irudika daiteke; beharbada horrexegatik sortzen ditu galdera gehien: a) zein hizkeratan erabiltzen da *al*?; b) zergatik edota zein testuingurutan baliatzen dira hiztunak partikulaz?; c) nondik eratortzen da, *ala* hautakaritik, *ahal* aditz modaletik edo *ahal* partikula modaletik?; d) sintaxiari begira, zer ezaugarri ditu *al* partikulak eta zeintzuk datoz beste partikulenekin bat eta zeintzuk ez? Lehenengo eta hirugarren galderari erantzuna eman dakieke *al* partikularen historiari begira; halaber, ez dago zalantzarik datu diakronikoen bigarren eta laugarren galdera erantzuten lagun dezaketela. Beraz, hurrengo azpiatalean (§5.3.1) partikula honen deskribapena edukiko dut aztergai; horrek azaleratuko du *al* partikularen sarreran *ahal*-i dagozkionak agertzen direla eta partikula bi horien arteko harremana gramatiketan arakatzeari ekingo diot (§5.3.2) eta lan dialektologikoetan (§5.3.3), diakronikoki lotuta daudela ondorioztatuta (§5.3.5). Hortik

⁹ Antzeko banaketa ei dago hizkuntza semitikoetan; gainera, partikula honen historiarako hurbilketa erakargarri bat ere eskaintzen du. Jarraian labur jasotzen dut ideia hori. Ekialdeko partikularen forma oso ahula eta arrunta da, i.e. bokal bakarra eta hizkuntzen artean ohikoena. Horrek zailtzen du beste osagai batekin lotura kronologikoak proposatzea. *Orotariko Euskal Hiztegia* (Mitxelena eta Sarasola 2017) *-a* partikularen sarreran Azkuek Mungian jasotako balizko adibide batez esaten den bezala (cf. kapitulu honetako 3. oin oharra), edozein gauza izan daiteke "Ondo dagoa?" testigantza *a* hori. Tipologiak hasiera batean ez du horretan laguntzen, 5.3.5 azpiatalean plazaratuko dudanez, galdera partikulak hautakarietatik edo partikula modaletatik eratortzen dira, baita kasu batzuetan ezeztapenetik ere; alabaina, hizkuntza semitikoek beste aukera bat eskaintzen dute: aurkezpen-partikula. Dakidanez, horrelakorik ez dago euskaraz eta ez da euskararen aurreko garaietarako berreraiki. Hala ere, arreta merezi du hipotesi honek hizkuntza semitikoaren egungo galdera partikulekin ez ezik, artikularekin ere lotzen baitute delako aurkezpen-partikula (Pat-El 2009; Davis 2018). Are gehiago, *hn* aurkezpen-partikula erakusleei atxiki zitzairen, artikulua izaera hartu baino lehen. Euskalaritzak gai honetan sakontzeko adituak dituenek, albo batera utziko dut eta euskarazko artikularen eta ekialdeko partikularen antzekotasunak zuhur hartuko ditut. Dena den, azpimarratu nahiko nuke Testenek (1998) hebreerazko galdera partikulaz dioena: bere ustez, partikula horrek ez du beti galderatasuna markatzen eta hainbat testuingurutan baieztapenetan ere erabil daiteke. Azken hau interesgarria da atal honetan ekialdeko *-a* partikularen erabileraren azterketarako. Etorbizuneko ikerketek kontuan hartzea da.

abiatuko naiz egungo *al* partikularen interpretazioa argitzekotan (§5.3.7); halaber, datu diakroniko horiek *al*-en propietate sintaktiko bereziak azaltzen dituztela erakutsiko dut 5.3.6 azpiatalean.

5.3.1 *al* partikula gramatiketan

Ekialdeko *-a* partikula bezala, *al* polaritatezko galderetan besterik ez ei da erabiltzen (Euskaltzaindia 1987; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; de Rijk 2008; Mitxelena eta Sarasola 2017). Euskaltzaindiak (1987: 512) bere gramatikan adierazten du *al* partikula erdialdeko euskalkiaren ezaugarria dela eta, funtzio gramatikolari dagokionez, proposizioari ekarpen semantikorik egiten ez dion galdera ezaugarria dela:

(55) Hasi *al* da jokoa? (Euskaltzaindia 1987: 513)

Honen ondoren, xehetasun garrantzitsu bi gehitzen ditu Euskaltzaindiak: *al*-dun galderek galdera neutroena ez den bestelako ñabardurarik edukiz gero, testuinguruak eragindakoa da. Alegia, *al*-dun galdera batean harridura adierazten bada, jarrera hori ez dakarkio partikulak perpausari, testuinguruak, intonazioak edo bestelako osagaiek baizik. Halaber, erdialdeko euskalkiaren ezaugarritzat jotzen bada ere (Euskaltzaindia 1987; Zuazo 2016), gainerako hizkeretan ere lekukotzen ei da, galdera erretorikoetan hain zuzen:

(56) Ez *a(ha)l* dizut esan ixilik egoteko? (Euskaltzaindia 1987: 513)

Erdialdean bakarrik erabiltzen den partikula eta euskalki guztietan erabiltzen dena bereizteko grafikoki desberdin idatziko ditut atal honetan, jatorrian horrela egin ez badute ere. Horrela, sustatzen dudan hipotesia argiagoa gera dadin espero dut. Hartara, *al* agertuz gero, erabilera hori erdialdeko hizkeretara soilik mugatzen dela adierazi nahi dut; *ahal* edo *a(ha)l*¹⁰ idatziz gero, ordea, galderetan ere erabil daitekeen partikula epistemiko orokorrari egiten diot erreferentzia. Galdera erretorikoetan ere partikula epistemikoaren grafia erabiltzea

¹⁰ Ipar Euskal Herriko idazleek *ahal* idatzi ohi dute eta grafia hori errespetatuko dut, partikula epistemikoa dela argi geratzen baita. Hego Euskal Herriko autoreek, aldiz, ez dute *ahal* idatzen, *al* baizik; horrelako kasuetan *a(ha)l* grafia baliatuko dut partikula epistemikoa dela markatzeko, ahozkoan hasperenik gabekoa den arren.

justifikatuta dago, itaun mota horietan agertzen diren partikulak epistemikoak direla uste baitut, beste hizkuntza batzuetan gertatzen den bezala (Gödeke 2019); aurrerago (§5.3.4) argudiatuko dut ideia hori.

Euskaltzaindiaren (1987: 512) deskribapenaz gain, *Orotariko Euskal Hiztegia* (Mitxelena eta Sarasola 2017) joz gero, sarrera bi kontsultatu behar dira *al* partikularen datuak bere osotasunean jasotzeko. Batetik, *al* sarreran Euskaltzaindiak (1987) dioenaren ildotiko informazioa agertzen da, i.e. polaritatezko galdera bezala erabiltzen dela erdialdeko euskalkian orokorrean, baina mendebaldekoan ere bai sarritan; dena den, *Orotariko Euskal Hiztegian mas si*-ren eta *acaso*-ren baliokidea ere badela jasota dago, Euskaltzaindian (1987) ez bezala, bertan aditzera ematen baita *al*-ek ez duela ekarpen interpretatiborik. Bestetik, *ahal* sarreran ahalerazko erabilera, hiztunaren jarrera edo gertagarritasun-maila, denborazko interpretazio bat¹¹ eta *al* partikularekin parekatzen duen erabilera biltzen dira. Beraz, sarrera bietan jasotzen da galdera ezaugarriarena.

Gauzak horrela, *al* partikula ez dago oso argi deskribatuta eta hainbatetan *ahal* partikula epistemikoari dagokion interpretazioa agertzen da. Kontua ez da argitzen beste iturri batzuei begiratuz gero: Azkuek (1969) *por ventura* adiera duela dio eta beste hainbestek (Villasante 1980; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; Mitxelena eta beste 2011[1964]) *al*-en bitartez proposizioaren galdera izaera eta hiztunaren jarrera marka daitezkeela adierazten dute. Bestalde, zenbat eta gramatika zaharragoetara jo, hein handiagoan datoz bat gramatikak, partikulak hiztunaren jarrera adierazten duela bakarrik deskribatzen baitute (Larramendi 1729; Lardizabal 1856; Ithurry 1895; Micoleta 1897[1653]). Gaurko iturrietara joz gero, galdera nahiz jarrera markatzea dakarte (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; de Rijk 2008), Euskaltzaindiari (1987: 513) jarraituz grafia desberdina erabiliz.

¹¹ Denborazko interpretazioa daukaten hainbat adibide jasotzen ditu *Orotariko Euskal Hiztegiak* (Mitxelena eta Sarasola 2017), esate baterako:

- (i) Ez *ahal* zuen jakin, non bereala joan zan.
- (ii) Ara iritxi ez *a(ha)ltzan*, kontatu zion Wolfiok Obispoari gertakari guzia.
- (iii) Jesukristoren deia aditu ez *a(ha)l* zuen, Berari jarraitzeko bereala altxa zan.

Badirudi interpretazio hori lortzeko *al*-dun perpausa ezezkoa izan behar dela. Gogora dezagun *-a* partikulak ere horrelako erabilera duela Lafitteren (1944) arabera; dena den, *al*-en kasuan testigantza gehiago daude eta iturri desberdinetakoak dira. Hala ere, *-a* partikularako esan dudana bezala, baliteke perpaus horiek interpretazioaren aldetik denborazkoak izatea, baina sintaktikoki nekez izan litezke. Izan ere, galdera erretorikoen kutsua dutela esango nuke. Aurreko kasuan bezala, balizko adibide guztiak jaso eta sakon aztertu beharko liriateke interpretazio hauek ulertzekotan.

Beraz, orain ikusi dugun bezala, *al* partikula jorratzean autoreek ez dute bat egiten; azken mendean erdialdeko euskalkian partikula hau galdera absolutuetan orokortu dela argi dagoen arren, auzi bi erantzun gabe gelditzen dira, i.e. zein interpretazio duen partikula honek eta zer eremutara mugatzen den. Hurrengo azpiatalean gramatikariek *al* partikulaz esan dutena aztertuko dut homofonia duen *ahal*-ekin konparatuz.

5.3.2 Partikula epistemikoa

Aurreko azpiatalean *al* partikula ezaugarritu dut eta, *Orotariko Euskal Hiztegiari* (Mitxelena eta Sarasola 2017) jarraituz, *ahal*-i ere erreparatu diot. Izan ere, *Orotariko Euskal Hiztegi*az gain, Euskaltzaindiak (1987) eta beste hainbatek (Urrestarazu 1976; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; de Rijk 2008) *ahal* partikula ere aipatzen dute *al* deskribatzean. Partikula hauek grafikoki bereizten dira, horrela arautzen duelako Euskaltzaindiak (1987: 513) erdialdeko hizkeraren tradizioari jarraituz; hasperena ez duten euskalkietan behintzat, bat datoz biak forma fonologikoan:

(57) Zure neba etorri al da? /al/

(58) Zure neba etorri ahal da!¹² /al/

¹² Esaldi hau modu bitan interpreta liteke gaur egun hainbat hizkeratan behintzat, i.e. batean *ahal* ahalerazko aditza da eta bestean partikula modala:

- (i) Zure neba etor daiteke.
- (ii) Seguru asko zure neba etorri da.

Aurretik (§4.4.1) plazaratu dudana bezala, honen berri Beskoitzeko euskara (Duhau 1993), (iii) eta (iv) adibideetan, eta Aresoko eta Leitzako euskara (Olano 1998), (v) adibidean, aztertzen dituzten monografikoek ematen dute:

- (iii) Egiten *ahal* duk [a] Tu peux le faire; b) Il est temps que tu le fasses!] (Duhau 1993: 38)
- (iv) Jiten *ahal* duk nahi duenean [a] Il peut venir quand il veut; b) Il serait temps qu'il vienne!] (ibidem)
- (v) I re yoate *al* aiz! (emen gelditu gabe) [a] Hi ere joan haiteke; b) Hobe duk joatea!] (Olano 1998: 281)

Alde pragmatiko hori sintaxian igar daiteke. Alde batetik, *ahal* ezezko perpausetan erabiltzen duten hizkeretan partikula modala aditz jokatuarekin batera aurreratzen baita; ahalerazko *ahal*, ordea, *in situ* gelditzen da:

- (vi) Ez *ahal* du hori egiten!
- (vii) Ez du hori egiten ahal.

Beste alde batetik, hizkera gehienetan egitura hauek ezberdintzen dira partikula modalak ez baitu geroaldiko marka hartzen; aditz modalak, aldiz, bai:

Are gehiago, Euskaltzaindiak (1987) hasperenik gabe ere badakar partikula epistemikoa:

(59) Etorri *a(ha)l* haiz, seme! (Euskaltzaindia 1987: 514)

Honez gain, aurretik (§5.3.1) esan bezala, *a(ha)l* partikula galdera erretorikoetan ere erabil daiteke; kasu honetan erdialdeko euskalkian ez ezik, hortik kanpo ere lekukotzen da:

(60) Hik ba *ahal* dituk etsaiak? (Etxamendi 2011: 104)

(61) Ez *ahal* dakizu mugazainak direla kontra-bandixtarik handienak? (Larzabal 1991)

(62) Eta zuek, ez *ahal* zarete aski turruttak izanen horien sinesteko eta lehen jinari zuen buruaren eskaintzeko? (Landart 2017: 18)

Ahozkoan bat datozela aintzat hartuta, zertan desberdintzen dira partikula hauek? *A(ha)l* partikularen deskribapenari erreparatuz gero, Euskaltzaindiak (1987: 513) dio desira adierazten duela, denbora geroaldia zein bestelakoa delarik; horrelakoetan ez dago argi desira edo zalantza gehitzen dion proposizioari:

(63) Ez *ahal* dira horren urrutira joango! (Euskaltzaindia 1987: 513)

(64) Etorri *a(ha)l* da! (ibidem: 514)

(65) Eta ez *ahal* gaituk sekulan hortaratuko! (Larzabal 1991)

(66) Zu bezalako atsoak, ez *ahal* du, oraino gazte delako ilusimendurik! (ibidem: 74)

Honez gain, ziurtasun ñabardura ere eduki dezake:

(67) Etorri *a(ha)l* haiz, seme! (Euskaltzaindia 1987: 514) (= 59)

(68) Ezagutzen *ahal* haut aski, hiri aise mintzatzeko! (Larzabal 1991)

(viii) [Etxekolanak eginez gero,] zinemara joan ahalko zara \ joaten ahalko zara.

(ix) Zinemara joango *ahal* zara \ joanen *ahal* zara [estreinatuta duten pelikula oso ona da eta]!

Azkenik, interpretazioaren aldetik hurbil dauden arren, gramatika lanetan bereizi izan dira, modalitate deontikoa eta epistemikoa (Cinque 1999; Bravo 2017) alegia.

- (69) Hi ere oroitzen *ahal* haiz segur nuk, nola gure etxerat jin hintzan batez, zerriaren lanak berant, baina zinez berant finitu zitian. (Thikoipe 2009: 25)
- (70) Patxiku I.- Ez *a(ha)l* naiz, ba, ni gogoratzen, gu gaztiak giñala, emen Tolaretxipi'n egin zuten sagardo batez... Ura mama! (Alzaga 1994: 31)
- (71) Debarrak jango *a(ha)l* dituzte; elgoibartarrik beintzat ez. (ibidem: 130)
- (72) Beste norbaitzentzat ondo etorriko *a(ha)l* ziren. (ibidem: 64)

Orotariko Euskal Hiztegiak (Mitzelena eta Sarasola 2017) antzera deskribatzen du: *a(ha)l*-ek gertagarritasun maila eta desira adierazteko balio ei du.¹³

- (73) Ez *ahal* gaitu gu ere lurak irentsiko.
- (74) Hogoi ta bortz urthe *ahal* zituen orduan.¹⁴

Akademiatik kanpo ere aztertu dira partikula hauek; lan guztiak kontuan hartuta, deskribapenen arabera ekarpen bi desberdindu direla nabaritzen da: batetik, partikularen funtziotzat desiragarritasuna edota *oxala* identifikatzen dutenak eta, bestetik, partikularen bidez proposizioari gertagarritasun maila gehitzen zaiola proposatzen dutenak. Lehenengoan artean de Rijkek (2008) bakarrik dakartza *al* eta *a(ha)l* partikula biak: berak bereizten ditu galderetan erabiltzen den *al* eta hiztunaren jarrera adierazten duen *ahal*; hala ere, ez ditu biak erlazionatzen. Bere deskribapenean bi puntu nabarmenduko nituzke: *al* galderez gain, harridurazkoetan ere erabiltzen dela; eta, bigarrenik, *ahal*-ek ‘espero dut’ edo ‘itxaropena daukat’ esanahiak dakartzkio proposizioari; esaterako:

¹³ Bai Euskaltzaindiak (1987), bai *Orotariko Euskal Hiztegiak* (Mitzelena eta Sarasola 2017) balio denborala ere jasotzen dute, kapitulu honetako 9. oin oharrean erabilera hori plazaratu dut.

¹⁴ Sarrera berean *Orotariko Euskal Hiztegiak* (Mitzelena eta Sarasola 2017) galdera ezaugarriaren erabilera jasotzen du, *al* galdera partikularena alegia:

- (i) Baina ez *al* da berandu?

Hala ere, galdera ezaugarriaren erabilera jorratzen duen tartean jasotako adibide guztiak ezeztapenean daude; Escandellen (1987; 1999) ildotik, ezezko galderak ez direla neutroak eta erretorikoak izan litezkeela onartzen dut. Ondorioz, bertan azalduetako partikula ez litzateke galdera partikula, *ahal* partikula orokorra baizik. Izan ere, arestian aditzera eman dut Euskaltzaindiak (1987) *al* grafiaren alde egiten duela galderetan, direla erretorikoak, direla erdialdeko hizkeretan *al*-ek markatzen dituenak; beraz, arestian 10. oin oharrean esandakoari jarraituz, horrela berridatziko nuke (i) adibidea:

- (ii) Baina ez *a(ha)l* da berandu?

(75) Jaungoikoa gutaz errukitzen *ahal* da! I do hope God has pity on us. (de Rijk 2008: 163)

Azken balio hori ‘oxala’-tik oso hurbil dago eta, egia esan, beste autore batzuek (Azkue 1906; Arrigarai 1919; Urquizu 1996) ‘geroaldia + ahal’ egitura horren baliokidea dela diote:

(76) Egongo *a(ha)lda!* Ójala esté! (Azkue 1906)

Halaber, Goenagak (2002) dio *a(ha)l* partikula erabiliz desirazko edo uste (on)eko ñabardura gehitzen diola hiztunak proposizioari (77). Bestalde, Ithurryk (1895) *ahal* partikula ere badakar bere gramatika lapurtarrean oin ohar batean; berak aurretik bereizi ditudan ekarpen biak azaltzen ditu partikula honen balioa gertagarritasuna edo desiragarritasuna dela alegia (78).

(77) Diruak ongi gordetzen *ahal* dituzu, bestela... (Goenaga 2002: 265)

(78) Sendatuko *ahal* da. (= *oxala sendatzen dela, zalantzarik gabe sendatuko da*)¹⁵

Desiragarritasuna adieraztea bat dator orain arte plazaratutakoarekin eta gertagarritasuna ondorengo deskribapenekin. Beraz, argi dago bi erabileren arteko muga lausoa dela.

Bigarren multzoan sartzen diren deskribapenetan Villasantek (1980) soilik partikula biak (i.e. *al* eta *a(ha)l*) deskribatzen ditu. Berak dio *al* partikula galdera absolutuetan agertzeaz gain, proposiziarekiko zalantzak adierazteko ere balio duela; azken horren kasuan, berak dioenez, *erretorikotzat* jo ohi diren galderetan agertzen ei da:

(79) Bakharra *ahal* zara Ierusalemen hoin arrotz zarena, non ezpaitakizu zer iragan izan den azken egun hautan? (Villasante 1980)

¹⁵ Letra etzanaz idatzitakoa neurea da Ithurryk (1895) bereizten dituen erabilera biak adierazteko.

Era berean, Arocenak (1961) balio epistemikoa aipatu eta zehazten du baiezko eta ezezko perpausetan ager daitekeela, ziurtasun maila ‘beharbada’-tik ‘zalantzarik gabe’-rako delarik.¹⁶ Arocenak euskalki guztietako adibideak eskaintzen ditu, esaterako:

- (80) Jauna, zu zunbait izpiritu gaixto *ahal* zira "Señor, vos sois sin duda algún espíritu malo" (Arocena 1961)
- (81) Bada emenbere ylaco bat *a(ha)lda* "que quiere decir pues aqui tambien deue hauer otro como tu." (ibidem)
- (82) Ez *ahal* nuzu dukia, ez eta aitorren semia! "Je ne suis, sans doute, ni un duc ni un fils d'aitor" (ibidem)

Larramendik (1729) eta Lardizabalek (1856) erabilera berttua deskribatzen dute, i.e. zalantza, disimulua eta ironia adierazi nahi diren egoeretan erabiltzen zen *al*:

Si viendo yo que otros dudan si yo he hecho alguna acción sea verdad o no para excusarme les pregunto: nic jan aldet, os parecerá, que yo he comido, y así de otras circunstancias. (Larramendi 1729: 133)

Aipatzekoa da Larramendik (1729) galderak sortzeko bideak arakatzen dituen atalean ez duela erdialdeko euskalkiaren ezaugarria den *al* partikula aipatzen; *ote*, ordea, bai.

Mikoletak (1897[1653]) ez du partikularik deskribatzen; hala ere, bere gramatikan aditzaren denborak dakartza, eredu erromantzeari jarraituta. Bertan geroaldi perfektuzko formak azaltzen dira; berauek *al* partikulaz osatutakoak dira:

- (83) Yo avre sido - ni ysan *a(ha)lnax* (sic).

Nire ustez, Mikoletak jatorrian dakarren *al* forma ere aurretik deskribatutako *a(ha)l*-en balioekin bat dator, (83) adibidea ‘seguru asko ni izan naiz’ uler liteke eta. Honen aldeko ebidentzia Altuberen (1930) lanean jasotzen dut, ondorengo (84) adibidean hain zuzen. Izan

¹⁶ Egoera hori ez da batere harritzekoa partikula diskurtsiboen analisietan; Döringek (2016) antzeko bariazioa identifikatzen du *schon* partikulan, eskala batean ez baitu puntu bat bakarrik markatzen, graduazio zabaleko eremua baizik. Alegia, konpromiso handia zein txikia adierazteko balio dute hiztunek.

ere, Altubek (1930) aditzera ematen ditu euskarak probabilitatea adierazteko dituen hiru baliabideak; bigarrenari *ustezkoa* deritzo eta mota honetan *al* partikula erabiltzen da (nik *a(ha)l* berridatzita):

(84) Hoy lo habrá traído = Gaur ekárrri du urrean (o noski) Gaur ekárrri *a(ha)l* du (o Gaur ekarri duke). (Altube 1930: 285)

Beraz, arestian deskribatutako testuinguruei erreparatuz, *a(ha)l* perpaus deklaratiβοetan zein galderetan erabil daiteke; honez gain, euskalki guztietan dokumentatzen da, baita galderetan ere. Hala ere, ez ei dira edozein galdera motatan agertzen, ez-estandardizat jotzen diren erretorikoetan¹⁷ baizik. Galderetako erabilera oraingoz albo batera utzita, gramatiketan eta deskribapenetan batez ere ekarritako interpretazio bi aztertuko ditut jarraian.¹⁸

Lehenengoz, hiztunak proposizioari ematen dion gertagarritasun maila adierazteko balio bide du, i.e. zenbaiteraino egiten duen bat proposizioaren edukiarekin:¹⁹

(85) Aski arrazoin *ahal* dut oldartzeko! (Larzabal 1991)

(86) Beñat (Haserreki): Zer!... Gu deneri bizia kentzerat etorri den uste hunek, ez *ahal* du merezi berak bizia gal dezan! (ibidem)

¹⁷ Gaur egun Ipar Euskal Herriko hizkeretan *ahal* partikula galderetan erabil daiteke; horrelakoetan galdera ez da beti erretorikoa, galdera bideratura baizik. Azterketa sakonagoa merezi du ikergai honek.

¹⁸ *A(ha)l* partikularen ekarpen semantiko-pragmatikoa argitzea ere interesgarria izango litzateke, *a(ha)l* edo *ote* partikulen hainbat erabilera, i.e. harridurazko galderetakoa, galdera erretorikoetakoa edo partikula horiek dituzten hainbat ezaugarri sintaktiko ulertzen lagunduko lidakeelakoan bainago. Hala ere, *a(ha)l* partikularen interpretazioa jorrazera mugatuko naiz, partikulen sintaxian eta *al* galdera partikularen funtzioan sakontzen laguntzen duen heinean.

¹⁹ Hala ere, deskribapen batzuen arabera, partikula honen bidez segurtasun osoa eta segurtasun txikia adieraz ei daitezke; hau, lehenengo begiratuan, kontraesanean bide dago, partikula berak kontrajarrita dauden ikuspuntu bi markatzen baititu (ikus kapitulu honetako 16. oin oharra). Euskaltzaindiak (1987) emandako adibidea abiapuntu hartuta, 'irabaziko ahal dugu' esaldiaren interpretazio argiena edo, bestela esanda, eskuragarriena hiztunaren nahia edo desioa adieraztea dela esango nuke; bestalde, probabilitate gutxi, i.e. zalantza, ere adieraz ei lezake. Dena den, aldarrikapen horri xehetasun bat gehituko nioke: perpausa deklaratiβοa izango balitz, desira edo gertagarritasun-maila handia markatuko luke; zalantza ñabardura, ordea, galderaren kasuan errazago lortzen da eta, beraz, galderaren izaeratik datorrela proposatuko nuke:

(i) Irabaziko *ahal* dugu? (Euskaltzaindia 1987: 514)

Alegia, galdera erretorikoa denez eta, jakina den bezala, galdera erretorikoek proposizioaren kontrako polaritatea adierazi ohi dutenez, segurtasun handia gabe, segurtasun txikia ulertzen bide da

- (87) Beran izanen *ahal* da bizitzeko ene doia leku... (ibidem)
(88) Ez *ahal* da bertze holakorik iguzkiaren azpian... (Elissagaray 1958)

Bestalde, askotan gazt. 'ojalá'-rekin parekatua izan da partikularen erabilera, 'geroaldiko marka + ahal' egitura hain zuzen (ikus 76). Dena den, beste adibide batzuei erreparatuz gero, kontu konplexuagoa dela ematen du, 'ojalá'-ren irakurketa ez baita parekidea:

- (89) Etorriko *ahal* da, zakuan sartu nauela erraiterat! (Larzabal 1991)
(90) Ez *ahal* duzu zure gorputza, balez zilatzerat utziko, ikusten ez duzun Jainko bati plazer egiteko menturarekin! (ibidem)
(91) Ondoko egunetan, gurutzatuko *ahal* gara oraikoa baino lasaikiago. (ibidem)
(92) Pantzez (Bizi-bizia): Ez *ahal* zira zu ere zinkurinaka ariko greba egiten dugulakoan! (ibidem)

Hala ere, adibide hauen interpretazioa ez dago (85-89) adibideenetik hain urrun; gaztelaniazko ordaina baztertuz gero eta orokorrean *a(ha)l*-en ekarpena aztertuz gero, antzeko interpretazioa igar daiteke.

Laburbilduz, erabilera hauek guztiek gertagarritasun maila desberdinak adierazten dituztela dirudi, alegia hitzunik proposizioarekin duen engaiamendu maila.

Beraz, *al* eta *a(ha)l* zertan bereizten diren galderari erantzutekotan, *a(ha)l* partikulak ekarpen interpretatiboa egiten dio perpausari, i.e. modifikatu egiten du; erdialdeko euskalkiko *al*-ek, ordea, ez. Bien arteko aldea azaleratzeko, begira diezaiegun hurrengo adibideei:

- (93) [Baina erradazu] nere emaztea bizi *ahal* da? (Larzabal 1991)
(94) Nere emaztea bizi *al* da?
(95) Hik ba *ahal* dituk etsaiak? (Etxamendi 2011b: 104)
(96) Hik ba *al* dituk etsaiak?
(97) Gaixorik *a(ha)l* zagoz? (Agirre 1897)
(98) Gaixorik *al* zaude?

Adibide hauek euskalki desberdinetakoak dira eta lehenengo begiratuan erabilera bera dutela pentsa liteke; hala ere, testuinguruari begira eta *al* eta *a(ha)l* partikulen baldintza kontestualak aintzat hartuta, euren erabilerak ez datozela bat ondorioztatzen dut: erdialdeko *al* informazioa jasotzeko egiten diren galderetan ageri da; *a(ha)l*, ordea, galdera ez-estandartzat har litezkeen testuinguruetan bakarrik azaltzen da. Hartara, *al* eta *a(ha)l* partikulek forma fonologikoan bat egiten dutenez eta erdialdeko euskalkian galdera mota gehiagotan erabil daitekeenez, ez da harrizkoa bertan beste hizkeretan baino maiztasun asko handiagoan agertzea.

Partikula hauen arteko harremanean sakondu baino lehen, lan dialektologikoetara joko dut hizkera literario edo formaletik aldentzeko eta hizkera arruntera hurbiltzeko asmoz.

5.3.3 *Lan dialektologikoak*

Atal honetan gramatiketan topatutako informazioa kontrastatuko dut hainbat lan dialektologikorekin. Hasi baino lehen, euskalkien artean bi eremu nabarmenduko ditut, ekialdekoa eta erdialdekoa.

5.3.3.1 *Ekialdeko hizkerak*

Eremu honetako hiru euskalkiri erreparatuko diet: zuberotarrari, nafar-lapurtarrari eta, desagertuta dagoen arren, ekialdeko nafarrari.

Erronkarrera desagertuta dagoen arren, Estornésesek (1982b) bildutako hainbat esalditan *a(ha)l* partikula erabiltzen zela ikusten da:

(99) Alguno habrá escondido. Zomáit *a(ha)l* dun áltxatruk. (ibidem 479).²⁰

Adibideko *a(ha)l* partikula epistemikoa dela ematen du, jatorrizko gaztelaniazko bertsoian aditza geroaldi perfektuan agertzen baita (cf. Micoleta 1897[1653]).

Bestalde, Beskoitzeko euskaran ere *a(ha)l* erabiltzen da. Kasu honetan ere ez bide da galdera partikula; aitzitik, balio epistemikoa dauka. Horrela ematen du aditzera Duhauk (1993):

²⁰ Esaldiaren testuinguru osoa Angosek (2005) eskaintzen digu:

(i) *Ez dión éur eré, zomáit al dun áltxatruk, balin badágo zomáit, erkin déila.* (Angos 2005: 165)

(100) Egiten *ahal* duk (Il est temps que tu le fasses!)

(101) Jiten *ahal* duk nahi duenean (Il serait temps qu'il vienne)

Halaber, *a(ha)l* beste adibide batean agertzen da eta badirudi antzeko adiera duela:

(102) Ez *ahal* duk gutiago beharrezkoa euskararen biltzea! (Duhau 1993)

Kasu honetan *argi dagoela euskara biltzea garrantzi handikoa dela* esan nahiko luke.

Azkenik, Etxamendiren (2009; 2009b; 2010; 2011a; 2011b) obran ere *a(ha)l*-dun perpausak jaso ditut. Lan literarioa bada ere, aipatzekoa da autoreak ahozko ematen dion garrantzia, izan ere, bere ahozko hizkera islatzen baitu idatzian. Adibide hauetan agertzen den *a(ha)l* erdialdeko galdera partikula izatea nekez gerta liteke:

(103) - Beste etsaiik ez die gure landareek.... belarra, aise duk kentzen... A! Ni ere ithur-ondoko landare banintz!

- Zer erran nahi duk?

- Bada, hola, horiek ez die etsaiik...

- Hik, ba *ahal* dituk etsaiak? (Etxamendi 2011b: 104) (= 95)

(104) Arratsean ez zen lokartzen aise, edo baterez. Etxeko ara bazuen eta hautemaiten nuen kafe egiten ari gauaren betean. Ez-untsaz zenez jua nintzakion ikusterat: tabako erre ta erre, kafe azkarra ontzitraka edaten...

- Ez *ahal* hiz eri?

- Ja, ez, ez – irrika nekatu batekin – gogoetan nabilak.

- Arrangura zerbait ahal duk? Erremedio zerbaiten beharretan?

- Ez, eez, asmatzen ari nuk egin ditzudan gauzeri, oraino zer eginen dutan gero, eta hola. (ibidem: 112-113)

Interes handikoa da, nire ustez, *a(ha)l* partikularen agerpena ekialdeko euskalkietan, bera galdera partikula bakarrik izango balitz -a partikularekin lehian egongo bailitzateke.

5.3.3.2 *Erdialdeko euskalkia*

Lehen (§5.3.1) aditzera eman dudanez, erdialdeko hizkeren bereizgarritzat hartu izan da *al* galdera partikula. Hala ere, *a(ha)l* partikula epistemikoaren testingantzak ere jaso ditut, neurri apalagoan bada ere. Partikulen erabilera modu xeheagoz aztertzeke hiru eremuri erreparatuko diet, sartaldeari, erdiguneari eta sartaldeari alegia.

Lehenengoz, euskalkiaren erdigunean Usurbilgo Aginaga auzoko euskara aztertu zuen Pikabeak (2005); partikulez ezer esaten ez duen arren, laginean erruz topaten dira *al* partikula duten polaritatezko galderak, baita partikula epistemikoa duen adibide bat ere:

(105) Antzia, Antzia bide asko *a(ha)l* zeon.²¹ (Pikabea 2005: 71)

Honez gain, sartaldean bi lan mahaigaineratuko ditut: bata Azkoitiko euskararen ingurukoa, *Azkoitiko euskerie* (Castillo eta beste 2001) hain zuzen, eta bestea Ordiziako euskararen gainekoa, *Ordiziako euskara* (Garmendia eta Etxabe 2004). Galdera partikulaz gain, *ahal* epistemikoaren adibide bana jaso dut lan hauetan:

(106) Alako baten Felipe Errexillek top eñ zuen kalien Maltienpokin, eta esan zixon:

- "Goizeko xeiretan aitze *a(ha)l* dezu automobille martxan ipiñtzetanien Tolosa juteko" Adarrien esan zixon [...] (Castillo eta beste 2001: 9-10)

(107) Akordatzen naiz ni, geo bazkaldu bear tzon garaien beeti sardoa io ta, ... olako lanak umek... "bueno, sardoa!" "ee! Beti ni *a(ha)l* naiz!" (...) beiek larrea eaman da, aik zaindu ta... (...) (Garmendia eta Etxabe 2004: 180)

Azkenik, sartaldean Areso eta Leitzako hizkerak aztertzen dituen lana nabarmentzekoa da. Duhauk (1993) Beskoitzeko euskararako deskribatzen duen egoera Leitzan eta Areson

²¹ Esaldi horren testuingurua hauxe da:

- *Eta Ezpaldiberriko Joxe Antoniok ba omen zian, ba, zerbait esana Mapillerrekako bide horri buruz, Guardizibilak zerbait galdetuta?*

- *Bai; Mapillerkako biria, bai. Antzia, Antzia bide asko al tzeon.*

Joxe Antoniok taberna eokitzen zin, e?, Ezpaldiberrin; da guardizibil parejak ordun ibiltze'ttuban, ba... nik etzakit firma billa, ta nik etzakit ze ibiltzezittuen; da Antzi, "caserio Aintzi" nun zeon galdetu emen xitxon. Da: "Caserio Aintzi, ahí arriba. (...)" (Pikabea 2005: 71)

ere plazaratzen du Olanok (1998). Hots, *-t(z)en ahal* egitura ahalerazkoekin lotzen badu ere, ez duela beti ahalerazkoen esanahi argirik dio; aitzitik, *gaztigu, oharkizun edo antzeko zer edo zer* adierazten ei dute:

(108) Patzen *a(ha)l* diuzue abudo, gañekoan eztizueu ezur osorik utziko. (Olano 1998: 280)

(109) Kontuz ibiltzen *a(ha)l* gâ gañekoan auskalo zer gertatu ditteken... (ibidem)

(110) [Pilotari orrek] taktika kanbiatzen *a(ha)l* do!... (ibidem)

Halaber, galderazko *al* partikula ere erruz ageri da horko hizkera hauetan:

(111) Nai *al* tzo au ittera? (Olano 1998: 22)

(112) Inporta *al* tzizo ára yotera? (ibidem)

Gauzak horrela, adibide hauetatik ondorioztatzen dut erdialdeko euskaran Euskaltzaindiak (1987) *al* idazten duen partikulaz gain, zama semantikoa duen *ahal* partikula ere erabiltzen dela, neurri apalago batean. Jarraian partikula bi horien arteko harremana eta erlazio horrek *al* partikularen azterketarako dakarkiguna ikertuko ditut.

5.3.4 *a(ha)l* eta *al* bereizten

Lan dialektologikoez Euskaltzaindiak (1987) deskribatutako egoera berresten dute: hots, *al* galdera partikula erdialdeko euskalkian bakarrik²² lekukotzen da; alabaina, gainerako euskalkietan ere *a(ha)l* duten galderak jaso ditut. Dena den, bien arteko aldea badago: erdialdeko hizkeretan polaritatezko galdera mota pragmatiko gehienetan erruz azaltzen da; gainerako hizkeretan, ordea, direlako erretorikoetan soilik. Beraz, mugatuagoa da bere erabilera erdialdeko euskalkitik kanpo. Halaber, galdera partikularen homofonia den partikula epistemikoaren testigantzak euskalki guztietan badaudela plazaratu dut 5.3.2 azpiatalean. Horiek horrela, pentsatzekoa da galdera erretorikoetan azaltzen den partikula *a(ha)l* epistemikoa dela; egia esan, tipologiak horren alde egiten du beste hizkuntza batzuetan ere partikula epistemikoez antzera jokatzen baitute galderetan agertzean. Esaterako:

²² Halaber, de Rijkek (2008) aditzera ematen duenez, euskara batuan ere erabil ei dezakete bai gainerako euskalkietako hiztunek, bai hiztun berriek.

- Alemana

(113) a. Das wird *schon* reichen.

hori GER P nahiko

‘Hori nahikoa izango da.’ (Döring 2016: 73)

b. Wer will *schon* bezahlen, wenn es Freikarten gibt?

nor nahi P ordaindu BALD bera dohako-sarrerak eman

‘Nork ordaindu nahi du dohako sarrerak daudenean?’ (ibidem: 74)

- Cuscoko kitxua

(114) a. Wañu-pu-n-ña-*chá*.

hil-BEN-3-DISC-P

‘Seguru asko hilda dago.’ (Faller 2007: 225)

b. Pi-ta-*chá* Inés-qa watuku-rqa-n?²³

nor-AK-P Inés-TOP bisitatu-LEH-3

‘Nor bisitatu zuen Inesek?’ (Faller 2002: 230)

Adibide horietan ikus daiteke alemanezko *schon* partikula perpaus deklaratiboez gain, galderetan ere ager daitekela, galdera erretorikoetan hain zuzen ere; honez gain, Cuscoko kitxuaz *chá* partikula epistemikoa deklaratiboetan ez ezik, galdera erretorikoetan ere azaltzen da. Euskarari begiratuz gero, *a(ha)l*-ek ez ezik, *ote*-k ere antzeko banaketa du:²⁴

(115) Eta zeoxe mamiya *ote* daken iruditzen da. (Pikabea 2005: 196)

(116) Gure mundua lurpera *ote* zoan dena? (Etxamendi 2010: 113)

Beraz, gertagarritasun edo engaiamendu maila adierazten duten partikulen bidez hitzunik erretorikotasuna markatzen dute galderetan. Ideia hori buruan, euskalki guztietan galdera

²³ Fallerrek (2002: 230) dio galdera horren izaera erretorikoa dela; hala ere, interpretazioari erreparatuz gero, berak azaltzen duen bezala, konjekturaltzat hartu beharko litzateke; alegia hitzunik bere buruari galdera hori egiten dio eta uste du ezin dela erantzunik jaso. Dena den, bestelako faktoreak tartean egon daitezkeenez, erretorikotasuna onartzea erabaki dut.

²⁴ Aipatzekoa iruditzen zait *omen*-en kasua: partikula hori ebidentziala da, baina bere interpretazio bigarrenkaria epistemikoa ei da (Zubeldia 2010); kontua da bera ere galdera erretorikoetan ager daitekeela (Aritz Irurtzun a.k) Erreterriako hizkeran behintzat.

erretorikoetan agertzen den partikula *a(ha)l* epistemikoa dela defendatzen dut. Galdera erretorikoetako *a(ha)l* horren auzia argituta, erdialdeko *al*-i erreparatuko diot.

Aurretik (§5.3.1) esan bezala, galderak semantikoki eta sintaktikoki bereizten dituzten hiru multzo nagusietako (*nz*-galderak, bai-ezko galderak eta hauta-galderak) batean besterik ez da partikula hori erabiltzen, polaritatezko galderetan hain zuzen. Hala ere, sintaktikoki ez da nahitaezkoa, partikularik gabeko galderak gramatikalak baitira, eta pragmatikaren aldetik ez du galdera mota jakinik markatzen, mota batean baino gehiagotan azal daiteke eta. Beraz, ematen du, alde batetik, bere eremu sintaktikoa mugatuagoa dela eta, beste alde batetik, polaritatezko galdera motetan orokortu egin dela. Egoera hau bat dator gramatikalizazio baten ondorioz esperoko genukeenarekin: arlo semantikoan nahiz sintaktikoan murriztuta dago osagaia (Traugott 2010; Diewald 2011; Schoonjans 2012; Van Bogaert eta Leuschner 2015). Honez gain, *a(ha)l*-en aldean geografikoki eta kronologikoki mugatuagoa izateak ere gramatikalizazioaren alde egiten du, *ahal* lehenengo testigantza idatzietatik euskalki guztietan agertzen den bitartean, *al* XIX. mendearen amaieratik eta erdialdeko hizkeran bakarrik erabiltzen baita. Gauzak horrela, *a(ha)l* epistemikoa erdialdeko euskalkian *al* galdera partikula bihurtu dela proposatzen dut (Goenaga 2009: 400-401):

(117) *a(ha)l*Partikula modala > *al* Galdera partikula

Kasu honetan ere beste hizkuntza batzuetarako proposatu da antzeko bilakabidea. Jarraian hiru kasu plazaratuko ditut.

5.3.5 Galdera partikulen jatorriaz

Galderazko *al* partikularen jatorriaren gaineko hiru bilakabide proposa litezke euskalaritzan: a) *ahal* potentzialetik dator; b) *ala* disjuntibotik eratortzen da (Aldridge 2011; Bailey 2013); edo c) *a(ha)l* partikulatik eratorria da. Azken aukera honen alde egiten dut, erdialdeko *al* galdera partikula *a(ha)l* epistemikoaren gramatikalizazioaren emaitza izango litzateke alegia. Bestalde, lehenengo biak baztertzeko arrazoi sendoak ikusten ditut: alde batetik, *ahal* aditz modaletik eratorri izanak ez du azaltzen zergatik ezin den *al nz*-galderetan erabili; *a(ha)l* partikula epistemikotik abiatuta, ordea, bai, 5.3.6 azpiatalean argudiatuko dudana bezala. Beste alde batetik, Baileyk (2013) proposatzen du galdera partikulak hautakarietatik datozela

delako hizkuntzan hitz hurrenkera eta partikularen kokagunean bat ez datozenean. Oro har, galdera partikulak ager daitezkeeneko kokagune bi bereizten ditu, hasierako posizioa (118) eta amaierako posizioa (119).

(118) *Est-ce qu' il y a des problèmes?*

P bera IZORD du ART arazoak

‘Badago arazorik?’ (Siemund 2018: 76)

(119) *Nǐ huì shuō yīng yǔ ma*

zu ahal berba.egin ingeles hizkuntza P

‘Badakizu ingelesez egiten?’ (ibidem)

Kokapen horiek hizkuntza buru-lehena edo buru-azkena definitzen duen parametroarekin erkatu eta, partikularen kokapena hizkuntzaren hitz-ordenarekin bat datorrenean, benetako galdera partikulak direla eta, bat ez datorrenean, bestelako osagaietatik eratorriak direla ondorioztatzen du. Beraz, (118) adibideko partikula benetakoa izango litzateke bere analisiaren arabera; (119) adibidekoa, aldiz, ez, eta hautakaritik eratorria izango ei litzateke. Euskararen kasuan parametro horiek bat egiten dutenez, ez legoke hautakariaren aldeko jatorria proposatzeko inongo arrazoirik.²⁵

Jarraian *al* galdera partikularako proposatzen dudan bilakabidea edukiko dut hizpide datu tipologikoez baliatuz.

5.3.5.1 *Alemanezko denn partikula: Bayer (2012)*

Dakigunez, alemanez hainbat partikula modal daude, e.g. *doch, schon, ja, eben, denn* etab. Bayerrek (2012) azkenari, i.e. *denn*-i, erreparatzen dio eta gramatikalizazio bilakabide batean dagoela aldarrikatzen du.²⁶ Aleman estandarrean, 5.1 atalean azaldu dudan bezala, *denn*

²⁵ Beste argudio bat da *ala* hautakaria aditz jokaturik gabeko testuinguruetan zilegi dela:

- (i) Bihar ala?
- (ii) Erosi ala?

Are gehiago, perpaus adjunktuekin batera bakarrik ere ager daiteke *ala*:

- (iii) (Egingo duzu) nahi dugunean, ala?
- (iv) (Bai! Hori agindu zenidan) Noiz agindu nizun nik hori? Elkarrekin bazkaldu genuenean ala?

²⁶ Antzeko egoera deskribatzen du Pankauk (2018) ipar-ekialdeko Berlingo alemanerako.

erabiltzen da galderetan hitzuna arduratuta edo interesatuta dagoenean erantzuna jakiteaz, erantzuna axola zaiolako bere jakintza eguneratzeko edo testatzeko (Bayer eta Obenauer 2011: 454-455):

(120) Wo hast du *denn* meine Schlüssel hingelegt?

non LAG zu P nire giltza ipini

‘Non utzi ditut nire giltzak? (neure buruari galdetzen diot)’²⁷

(121) Hat mich *denn* jemand sprechen wollen?

LAG ni P norbait mintzatu nahi

‘Nirekin hitz egin nahi zuen norbaitek? (neure buruari galdetzen diot)’

Bestalde, Bayerrek (2012) dio Bavariako alemanez *denn* partikula *-n* klitiko bihurtu dela eta aditz jokatuari lotzen zaiola.²⁸ Partikula hau galdera batean agertzen ez bada, ez da gramatikala eta, aurrekariak ez bezala, ez dauka zama semantikorik:²⁹

(122) Wann hod -a -s -da *(-n) zoagt?

noiz LAG-3SG.NOM -3SG.AK -2SG.DAT -P erakutsi

‘Noiz erakutsi zizun?’ (Bayer 2012: 13)

Beraz, Bavariako hizkeretan *denn* partikula modalak pragmatikalizazioaren bidez semantika galdu du eta, ondorioz, galdera markatzaile bilakatu da, *nz*-galderetan behintzat.³⁰

²⁷ Horrela, i.e. ‘bere buruari galdetu’-ren bidez, adierazten dute hiztunak erantzuna ezagutzeko jakinmin handia duela.

²⁸ Groszek (2005) partikula honen erabilera Vienako hizkeran aztertzen du; bertan partikula morfonologikoki murriztua den arren, hots, *denn* > *-dn* bilakatu den arren, funtzioaren eta interpretazioaren aldetik ez ei du aldaketarik jasan.

²⁹ Bayerrek (2012) argudiatzen du *denn* partikulak Bavariako dialektoan bere ekarpen interpretatiboa galdu duela bertako hiztunek *nou* partikularen bidez adierazten baitute besteek *denn*-en bitartez egiten dutena.

³⁰ Aldaketa honek *nz*-galderei bakarrik eragin ei die; polaritatezko galderak *-n*-rik gabe sor daitezke eta *-n* izanez gero semantikoki desberdina da:

(i) Hom dāi aa a Haus?

LAG haiek ere bat etxe

‘Badaukate haiek ere etxe bat?’ (Bayer 2012: 15)

(ii) Homma -n dāi aa a Haus?

LAG -P haiek ere bat etxe

‘Badaukate haiek ere etxe bat?’ (ibidem)

Alegia, Bavariako hizkeran partikulak hiztunaren jarrera adierazteari utzi ei dio eta markatzaile sintaktiko bihurtu ei da, oraingoz, *nz*-galderetan. Jarraian antzeko bilakabidea eduki duen erromantzezko hizkuntza bat aurkeztuko dut.

5.3.5.2 *Dolomitetako ladinera*z po partikula

Hackek (2014) Dolomitetako ladinera^z erabiltzen den galdera partikula aztertzen du, i.e. *po/pa*. Partikula honek erabilera asko izan ditzake ladinera^zko hizkeretan, gramatikalizazio mailaren arabera. Esaterako, testuinguru batzuetan (123) partikulak bere jatorrizko adierari eusten bide dio; hots, *orduan* adierazten du. Beste testuinguru batzuetan (124), ordea, partikula modalaren irakurketa ere eduki dezake; harridura edo ezinegona hain zuzen.

(123) Al vëng *pa*.

bera dator P

‘Orduan, badator.’ (Hack 2014: 52)

(124) *Pó* te digo!

P zuri esan.ISG.NOM

‘Baina badiotsut!’ (Hack 2014)

Perpau^s deklarati^oetan agertzeaz gain, galderetan ere erabiltzen dute hiztunek. Hackek (2014) hainbat funtzio identifikatzen dizkio; besteak beste, aurreko adierazpenarekiko lotura egiteko funtzioa esleitzen dio:

(125) Olà vas=*to pa*?

nora zoaz P

‘Nora zoaz ba?’ (Hack 2014: 54)

Ladineraren aldaera batzuetan partikula modala galdera markatzaile bihurtu dela dio Hackek (2014); izan ere, nahitaezkoa da partikula galderetan, bera agertu ezean, ezgramatikala baita galdera hizkera horietan:³¹

(126) Ulà vas=te *(pa)?

nora zoaz P

‘Nora zoaz?’ (Hack 2014: 55)

Alemanezko *denn* partikularen kasuan bezala, honetan interpretazio eta funtzio modalak galdu ei ditu.

Gauzak horrela, 5.3.5.1 azpiatalean bezala, *po/pa* partikula modalean galdera markatzailean bilakabidea gauzatu edo gauzatzen hasi ei da ladinerazko hizkeretan; sintaktikoki aldaketa handirik ekarri ez duen arren, semantikaren aldetik murriztapena jasan du partikulak interpretazio modala galduta.

5.3.5.3 Asiako ebidentzia: japonierazko ka

Kinuhatak (2012) japonierazko *ka* galdera partikula aztertzen du, bere erabilera zehar galderetan hain zuzen ere; horretarako datu diakronikoez baliatzen da partikulak mendeetan zehar jasan duen bilakabidea azalaratzeko. Partikula hori gaur egun erabiltzen ei dute galderak markatzeko, nahitezkoa ez bada ere (Kuwabara 2013), baita zehar galderetan ere:

(127) Nani-o kangaete-iru-no-daroo-ka?

zer-AK pentsatu-IPFV-NMLZ-asmatu-P

‘Zer ari ote da pentsatzen?’ (Kinuhata 2012: 800)

(128) Watasi-wa Taroo-ga nani-o kangaete-iru-ka wakar-anai.

no-TOP Taro-NOM zer-AK pentsatu-IPFV-P jakin-ez

‘Ez dakit zer ote duen Taok buruan.’ (ibidem)

³¹ Bestalde, azken erabilera honi dagokionez, Hackek dio hizkera batean (Fascian) gramatikalizazio bilakaeraren erdiko puntuan bide dagoela, partikula hautazkoa den arren, hiztunek bere erabilera hobesten baitute. Interesgarria iruditzen zait azkenengo hau, erdialdeko euskal hiztunek antzeko iritzia eman baitzidaten egindako elkarrizketetan.

Kinuhatak (2012) partikula honek zehar galderetan jasan duen bilakaera historikoa aztertuta ondorioztatzen du *ka* partikulak gero eta gutxiago adierazten duela subjektibotasuna (hiztunaren ikuspuntua) eta gero eta sarriagotan egoera objektiboak kalifikatzen dituela; esaterako:

(129) Anata-wa dare-ga paatii-ni kita-*ka* sir-anai no?
 zu-TOP nor-NOM jai-DAT etorri-P jakin-ez NMLZ
 ‘Ez al dakizu nor etorri zen festara?’ (Kinuhata 2012: 806)

(130) Taroo-wa dare-ga paatii-ni kita-*ka* sir-anai.
 Taro-TOP nor-NOM jai-DAT etorri-P jakin-ez
 ‘Tarok ez daki nor etorri zen festara.’ (ibidem)

Aldaketa horrek zehar galderetan agertze kopurua handiatzea ekarri ei du, hiztunaren ikuspuntua adierazten ez duten testuinguruetan zehar gero eta zabalduago dago bere erabilera.

Beraz, alemanezko eta Dolomitetako ladinerauko partikulen antzera, japonierazko *ka* partikulak gramatikalizazioa jasan du; kasu honetan hiztunaren jarrera bakarrik markatzeari utzi eta funtzionalago bihurtu da partikula, hiztunak ez diren beste pertsonen jarrerak edo lehenaldiko egoeretan zeuden jarrerak³² marka ditzake eta.

5.3.6 *Zertan lagun diezaguke ahal partikularen bilakabideak?*

A(ha)l partikula epistemikoa *al* galdera partikula bihurtu delako ideia indartu du beste hizkuntza batzuetan, e.g. alemanez, Dolomitetako ladinera eta japonieraz, bilakaera bertsuak gauzatu izanak. Are gehiago, gramatikalizazio honek partikularen propietate bereizgarri batzuk azaltzeko bidea zabaltzen du, hala nola hedapen geografikoa eta kronologikoa, perpaus motaren murriztapena eta zama semantikorik eza.

Lehenengoz, *al* galdera partikula, alde batetik, XIX. mendearen amaieratik aurrera erruz erabili izanak, hots nahiko berria izateak eta, beste alde batetik, erdialdeko euskalkian

³² Kinuhatak (2012) aditzera ematen du *ka* partikula hasiera batean lehenengo pertsonarekin eta orainaldiarekin bakarrik bateragarria zela. Gainerako kasuetan ezin zen hiztunaren ikuspuntua islatu, bigarren edo hirugarren pertsonen kasuan, edo lehenaldiko formetan hiztunak ez bailuke galderak dakarren zalantzarik edukiko; hots, erantzuna ezaguna izan beharko litzaioke.

bakarrik gauzatu izanak berrikuntza bat dela pentsatzera bultzatzen naute. Berriki gertatu den berrikuntza bat den heinean, egun ez da euskalki guztietara zabaldu. Egoera bera deskribatzen dute Bayerrek (2012) eta Hackek (2014) alemanezko *denn*-i eta Dolomitetako ladinera *po/pa*-ri dagokienez, hurrenez hurren.

Honez gain, partikula epistemikotik eratortzeak argitzen du zergatik ezin den *nz*-galderetan edo hauta-galderetan azaldu; bere jatorrizko interpretazioarekin zerikusia duela proposatzen dut. Alegia, *a(ha)l* partikularen bitartez hiztunak proposizioarekin zenbaiteraino egiten duen bat adierazten du perpaus deklaratiβοetan; testuinguru horiek, bistan denez, osatuta daude; hots, ez zaie bertako osagaiei baliorik falta. Ondoren, galderetara zabaldu bide zen bere erabilera, hasieran euskalki guztietan galdera erretorikoetara eta geroago erdialdeko hizkeretan bestelako motetara; hala ere, polaritatezko galderetan bakarrik hedatu zen. Murriztapen horren atzean, nire ustez, partikularen semantika dago; hots, partikulak perpaus osatu baten gainean du eragina (cf. 131a) eta beraz, ezingo litzateke *nz*-galderetan (cf. 131b) edo hauta-galderetan (cf. 131c) agertu, azken biotan osagai baten balioa osatzea beharrezkoa baita:

- (131) a. Salduko duzu kotxea?
b. Zer salduko duzu?
c. Etxea ala kotxea salduko duzu?

Horiek horrela, zentzuzkoa da *a(ha)l* galdera absolutuetara bakarrik zabaldu izana, galdera erretorikoetan betetzen duen funtzioak proposizio osatu bat besarkatzen du eta. Halaber, erdialdeko euskalkian polaritatezko galderetan besterik ez da orokortu, testuinguru horretatik abiatu baitzen. Honek, beraz, aurreikusten du etorkizunean partikula hau galdera mota sintaktiko guztietara zabal litekeela; dena den, hurrengo azpiatalean (§5.3.7) *al* galdera partikularen funtzioa aztertu ostean, hipotesi horren indarra neurtu ahalko da.

Azkenik, gramatikalizazioak laguntzen du azaltzen zergatik ez duen *al* partikulak zama semantikorik ere, gainerako euskarazko partikula modal ohikoek ez bezala. Ohiko partikula gehienak ebidentzialak edo epistemikoak dira, laugarren kapituluari aditzera eman dudanez.³³

³³ Izan ere, Rooryckek (2001) eta Gutzmannek (2017) partikula mota bi bereizten dituzte: ebaluatzaileak, ebidentzialak, epistemikoak edo, bestela esanda, hiztunaren jarrera adierazten dutenak eta, bestalde, diskurtsiboak, modalitatearekin zerikusirik ez duten eta diskurtsua antolatzen laguntzen duten horietakoak.

Ahal, bide, ei, omen eta *ote*-ren ordainak beste hizkuntza batzuetan ematea edo euskararen barruan perifrasi baten bidez ordezkatea zaila da, tipologikoki ohikoa denez (Gutzmann 2008; Struckmeier 2014), baina ez da guztiz ezinezkoa, e.g. *antza, nonbait, esaten denez, agian...*; *al* partikularen kasuan, baita ekialdeko *-a*-rean ere, ezin da. Partikula modal guztiek nahita zama interpretatiborik eduki behar ez duten arren, 5.3.4 eta 5.3.5 azpiataletan argudiatu dudan bezala, *al* galdera partikula *ahal* epistemikoaren gramatikalizazioaren emaitza bada, ez da harrizkoa arlo semantikoan ere murrizagoa izatea, horrelako bilakaeretan ohikoa den bezala.

Ondorioz, 5.3.4 eta 5.3.5 azpiataletan plazaratutako hipotesiak *al* partikularen tasun bereizgarri horiek ulertzen laguntzen du: murriztapen sintaktikoa, i.e. polaritatezko galderetan soilik azaltzea, eta partikularen interpretaziorik ezak ere partikulak jasandako bilakabidearekin du zerikusia.

Hurrengo azpiatalean *al*-en funtzioa edukiko dut aztergai, bere iragana ezagututa oraingo erabilera argitu nahian.

5.3.7 *al* partikularen erabileraz

Erdialdeko galdera partikula delakoaren garapen historikoa eta hipotesi honek zertan laguntzen duen argituta, oraingo azpiatalean partikularen funtzioa ikertuko dut. Ekialdeko galdera partikula bezala, *al* ez da galdera neutroetan (Escandell 1987; Littell eta beste 2010) soilik agertzen; aitzitik, *-a* partikula erabil daitekeen testuinguru bertsuetan balia daiteke *al*, hala nola:

a. Galdera neutroetan:

(132) Echian *al* dago alcatia? (Soroa 1885: 8. irudia)

b. Galdera bideratuetan:

(133) Eta orrenbeste zikiñ *al* zegon patiñan? (Altzaga 1994: 151)

c. Eskaintzetan:

(134) (Eztitsuago) Aizak, nai *al* dek nik esatea? (Altzaga 1885: 120)

d. Eskaeretan:

(135) Hor gaineko lata hori hartzia ba *al* daukezu?

e. Harridurazkoetan:

(136) Nere Ramuntxo, emen *al* da! (Altzaga 1885: 71)

(137) Amen *al* ao, aixkire! (Castillo eta beste 2001: 17)

f. Erretorikoetan:

(138) Gauza abek abotik ortzera egiten dirala uste *al* dek? (Altzaga 1994: 51)

Bestalde, *al* ez da goranzko prosodiadun deklaratio itxura duten galdera motetan agertzen; hiztunak publikoki erantzun jakin bat aurreikusi eta entzuleak berarekin bat egitea nahi duenean, *al* partikula ezin da erabili. Esaterako:

(139) Ori da noski geyena minberatzen zaituena? (Altzaga 1885: 31)

Egoera hau ez da galdera partikula batek edukitzea esperoko genukeena, ez baita galdera mota guztietan azaltzen eta ez baitago aurreiritzirik edo engaiamendurik gabeko galdetze hutsetara mugatuta (cf. Malamud eta Stephenson 2014). Ebidentzia horretatik abiatuta, gainera, nekez lot daiteke *al*-en funtzioa a) hiztunaren aurreiritziekin, b) entzulearen balizko erantzuna aurreikustearekin, edo c) engaiamendu maila desberdinekin. Hurrengo taulan islatzen da faktore horiek ez dutela *al*-en agerpena bideratzen, partikula duten galderetan ez baitute zertan aurreiritziak, erantzuna aurreikustea eta engaiamendu maila ezkutuan egon. Bestela esanda, *al* duten galderak eduki ditzakete faktore horiek agerian:

(140)

	Aurreiritziak	Balizko erantzuna aurreikustea	Engaiamendua
<i>al</i>	X / √	X / √	X / √
partikularik ez	√	√	√

Faktore banari begiratu gero, honakoa ematen dut aditzera: lehenengoari dagokionez, galdetzen denaren gaineko ebidentzia duten itaunetan partikula erabil daiteke (141), baina ez da guztiz nahitaezkoa horrelako testuinguruetan (142).

(141) [Hiztunak ikusten du entzuleak ez dakarrela ogia] Ez *al* dezu ogia ekarri?

(142) [Hiztunak uste du entzuleak ez duela diru iturririk, ikaslea baita] Beraz ez dezu diru sarrerarik?

Honez gain, hiztunak erantzun bat aurreikusten duen kasuetan ere ez da partikula nahitaezkoa:

(143) [Maritxo hiztunaren eta entzulearen aurrean pasatzen da] An datorren ura ez *al* da Maritxo? (Altzaga 1885: 46)

(144) [Bikote bat agurtzean, mutila soldaduzka egitera abiatzen baita] Nitzaz asko oroituko zera? (ibidem: 51)

Azkenik, *engaiamendu* kontzeptuak ere ez du partikularen agerpenean eraginik, partikuladunak nahiz partikularik gabekoak izan baitaitezke engaiamendua agerian duten galderak:

(145) [Andre batek bere semearen lagun bati zuzendua, berau etxera sartzera ausartzen ez dela ikusita] Nere bildur *al* zera bada? (Altzaga 1885: 35)

(146) [A-k B-ri lagunarteko tonuan esaten dio bere auzokide berriaren argazkia erakutsi behar diola, B-k inferitzen du ederra dela A-ren ustez] Guapoa da?

Hiru kontzeptu horiek antzekoak direla ematen duen arren, ez dira nahastu behar. Esaterako, Malamud eta Stephensonen (2014) ildotik, galderak agerian duen engaiamendua entzulearekin lotuta egon daiteke, (145-146) adibideetan bezala, aurreiritzia hiztunena den arren. Hots, (142) adibidean ‘bai’ erantzutean hiztunak zuen aurreiritzia berresten da, baita hiztunak zuen horrekiko engaiamendu maila ere; (146) adibidean, ordea, ‘bai’ erantzutean hiztunaren aurreiritzia berresten da, baina aurrekoan ez bezala, entzuleak egiten du [(*auzokidea*) *guapoa izan*] proposizioarekin bat.

Bestalde, itaunak sortuko lukeen balizko erantzuna estu dago beste kontzeptu biekin lotuta, horietan oinarritzen baita; jarraian erakutsiko dudanez, berak rol handia jokatzen du *al*-en erabileraren hipotesian eta, horregatik, bereizi egiten dut besteetatik. Lehen-lehenik, (143-144) adibideek agerian uzten dute hiztunak, erantzunaren jakitun ez bada ere, aurreikusten duela bai *al* partikuladun galderetan, bai *al*-ik gabekoetan. Propietate hau ez dator bat gramatika lanetan galdera neutroetarako deskribatutakoarekin, mota horretakoetan ez baita erantzunik aurreikusten. Arestian esandakoa berresten da, *al*-ek ez dituela galdera neutroak / ez-neutroak bereizten alegia.

Hori baztertuta, erantzuna nork dakien parametroari begira diezaziogun. Hortik abiatuta, honako aukerak daude: a) hiztunak ez du ezagutzen baina uste du entzuleak badakiela; b) hiztunak ez du ezagutzen eta, bere ustez, entzuleak ere ez; c) hiztunak erantzuna aurreikusten du eta uste du aieru hori entzuleak argitu dezakeela; eta, azkenik, d) hiztunak erantzuna badaki baina entzuleak ez, kasu honetan ez du zentzurik itaunik egiteak.³⁴ Bereizketa horiek eta partikulen erabilera aintzat hartuta, honako banaketa lortzen da:

(147)

Erantzuna ezagutzen du				Partikula
Hiztunak	Ez	Entzuleak	Bai	<i>al</i>
	Ez		Ez	<i>ote</i>
	Aierua		Bai	%Ø /% <i>al</i>
	Bai		Ez	Gald. ez

³⁴ Azterketa galderen modukoak mota horretakoak direla pentsa liteke. Hala ere, horrelakoetan hiztunak ez du pentsatzen entzuleak ez dakiela; aitzitik, bere ezagutza testatzea du xede.

Beraz, erantzunaren jakitun nor den parametroak ere ez du azaltzen *al* partikularen erabilera. Hala ere, erantzunei dagokienez, partikularik gabeko testuinguruak eta partikuladunak erkatuz gero, aldea igartzen da. Errepara diezaiegun berriro ere hurrengo adibideei:

- (148) [Unibertsitateko administrari batek matrikula egin nahi duen ikasle bati] Bekarik eskatuko *al* dezu?
- (149) [Maritxo hiztunaren eta entzulearen aurrean pasatzen da] An datorren ura ez *al* da Maritxo? (Altzaga 1885: 46) (= 143)
- (150) [Hiztunak ikusten du entzuleak ez dakarrela ogia] Ez *al* dezu ogia ekarri? (= 141)
- (151) [Bikote bat agurtzean, mutila soldaduzka egitera abiatzen baita] Nitzaz asko oroituko zera? (Altzaga 1885: 51) (= 144)
- (152) [Hiztunak uste du entzuleak ez duela diru iturririk, ikaslea baita] Beraz ez dezu diru sarrerarik?

Lehenengo hirurek *al* partikula dute; azken biek, ordea, ez. Lehenengo multzoko (149-150) adibideetan hiztunak erantzuna aurreikusten du, *al*-ik gabekoetan bezala. Dena den, hiztunaren eta entzulearen arteko interakzioaren aldetik ez dute berdin jokatzeko: alde batetik, (151-152) bezalakoetan hiztunak *p* uste du eta entzuleak berarekin bat egin dezala nahi du, horretatik ihes egiteko aukera gutxi utzita; beste alde batetik, (149-151) adibideen modukoetan, aldiz, hiztunak erantzun bat aurreikusten du baina ez dio entzulari berarekin bat etortzeko eskatzen. Eskarrietan eta eskaeretan argi ikusten da *al*-ik gabeko galderak direktiboagoak izan daitezkeela, *al*-dunak baino:

- (153) a. Emango *al* didazu?
 b. Emango didazu?
- (154) a. Etorriko *al* haiz txerria hiltzera?
 b. Etorriko haiz txerria hiltzera?
- (155) a. Nahi *al* dezu?
 b. Nahi(de)zu?
- (156) (Eztitsuago) Aizak, nai *al* dek nik esatea? (Altzaga 1885: 120) (= 134)

Horietako (153-154) eskaeretan, batez ere, hiztunaren onurako izango den ekintza bat galdegiten denez, berak ez du nahi entzuleak sentitzea ekintza hori inposatzen zaionik; *al* partikula erabili ezean, entzuleak ulertzen du galdera horrek ‘bai’ eta ‘ez’ erantzuteko aukera duen arren, ‘bai’ nabarmenduta dagoela eta, beraz, hiztunaren proposamena onartu behar duela. *Al* partikula agertuz gero, ordea, erantzun posible guztiak mahai gainean daude maila berean eta, ondorioz, ezetz esateko bidea eskaintzen zaio entzuleari.

Eskarietan ere aldea igartzen da; begira diezaiegun (155a eta b) adibideei: bietan, jakina, ‘bai’ eta ‘ez’ erantzuteko aukerak dauden arren, bigarrenak (155b) eskaera onartzera bultzatzen du; egia esan, forma hori ohikoagoa da eta ez da harritzekoa, hiztunak uste baitu entzuleak ez duela uko egingo onuragarria izango zaion gauza bat eskaintzen diolako. Esango nuke *al* erabiltzen deneko kasuak formalagoak direla eta galdetzaileak modu neutroagoan aurkeztu nahi diola entzuleari eskaria nahitaez onar ez dezan. (156) adibidean hiztunak entzuleari mesede bat egitea eskaintzen dio baina *eztitsuago* diotsa kontu pertsonala delako eta ez du nahi entzuleak senti dezala bere egitekoetan sudurra sartzen duela; beraz, eskari konplikatu hau egiteko *al* partikulaz baliatzen da direktibotasuna leuntzeko.

Hau neurri batean lot daiteke 5.4.6 azpiatalean arakatuko dudan *ote* partikulak ipar-ekialdeko hizkera batzuetan garatu duen erabilerarekin; bertan eskaeretan erabiltzen dute *ote* partikula galderaren indarra apaltzeko, hain zuzena izan ez dadin alegia.

Har ditzagun orain beste adibide hauek abiapuntu:

- (157) a. Hori ez *al* da zure lehengusina?
b. (Beraz) hori zure lehengusina da?

Escandellek (1987) dioenez, ezezko galderak ez dira neutroak eta horietan erantzun baten alde egiten du hiztunak. Lehenengoan (157a) hiztunak uste du neska hori bestearen lehengusina dela; hala ere, entzuleari ideia horrekin bat egitea eskatu beharrean, proposizio horren polaritate balioa (*bai / ez*) argitzeko eskatzen zaio. Bigarrenean (157b), aldiz, entzuleak ondorio hori berres dezala nahi du hiztunak; balizko erantzunetariko bat nabarmenduta jasotzen du entzuleak itauna, i.e. *bai* (cf. Escandellen (1987) berrespenezko galderak).

Bestalde, (151-152) bezalako testuinguruetan espero ez den erantzuna ematea zailagoa izan liteke entzulearen aldetik, indar handiagoz aurre egin beharko litzaioke hiztunak inposatu nahi dion ideia ezeztatzeko (149-150) bezalakoetan baino, batean erantzuna bideratuta baitago eta bestean erantzuna zabalik uzten baitu. Hau argiago ikusteko, errepara diezaiegun hurrengo adibideei:

(158) a. Sendagileari deituko *al* diogu? (Altzaga 1885: 72)

b. (Beraz) sendagileari deituko diogu?

Lehenengoan, hiztunak erantzun baten aldeko jarrera eduki dezakeen arren, entzuleari neurri berean aukera bi ('bai' edo 'ez') ematen zaizkio bata edo bestea hobetsi gabe; entzuleak horrelako testuinguruan edozein aukera dezakeela sentitzen du, elkarrizketa bortxatu gabe. Bigarrenean, ordea, entzuleak sentitzen du itaunak sorrarazten duen erantzun bat nabarmenduago dagoela eta galdetzailearen iritzia edo jarrera bereganatu behar duela; (158b) adibidean aukeren arteko oreka apurtu da bat gailenduz, kasu honetan 'ez' erantzuteak arazo bat sor lezake elkarrizketan. Esaterako:

(159) A: Sendagileari deituko *al* diogu?

B: Ez

A: #Zergatik ez??!!

(160) A: Beraz, sendagileari deituko diogu?

B: Ez

A: Zergatik ez??!!

Alegia, etxera heldu berria den pertsona batek jakin du bere alaba gaixorik dagoela; (159) galderak 'ez' jasotzen duen testuinguru batean ez litzateke 'zergatik ez??!!' erantzutea onargarria izango, aldez aurretik erreakzio hori justifikatzen duen arrazoirik ez balego. (160) galderaren kasuan, berriz, ez lekarke arazorik, hiztunak bere autoritatea (hainbat ebidentzian oinarrituz erabaki hori hartu izanaren estatusa) ezbaian ikusiko bailuke berarekin bat ez egitean eta, hori dela eta, ez litzateke bitxia 'zergatik ez??!!' harrituta galdetzea.

Laburbilduz, *al* duen galdera baten aurrean entzuleak balizko erantzun guztiak maila berean eta osotasunean aintzakotzat eduki behar direlako inpresioa hartzen du. Galdera bideratuetan ere aldaketa hori dakar partikula erabiltzeak: hiztunak jarrera argia duen arren, entzulearen balizko erantzunek ez dute zertan murriztuago egon edo batzuk beste batzuk baino nabarmenduago; aitzitik, *al*-ek erantzunen eremua zabaltzen dio entzuleari horrelako kasuetan, ‘bai’-tik ‘ez’-era sartzen diren posibilitate guztiak (‘agian’, ‘seguru asko’...) eskura utzita. Pertzepzio hori lortzen da hiztunak ez diolako eskatzen bere iritzia bereganatzea, *al*-ik gabeko galdera bideratuetan ez bezala. Hau argi ikusten da eskarietan eta eskaeretan, hiztunak entzulea zer edo zer egitera behartu nahi ez badu, edo behartzen duela senti dezala nahi ez badu, *al* partikula erabiltzen du, entzuleak uko egiteko aukera nabarmen senti dezan.³⁵

Hurrengo atalera igaro baino lehen, 5.3.6 azpiatalean plazaratu dudan iragarpen batera joko dut berriro. Erdialdeko *al* partikula, gaur egun polaritatezko galderetara mugatuta ere, etorkizunean *nz*-galderetara eta hauta-galderetara zabal litekeelako aukera mahaigaineratu dut, sintaktikoki benetako galdera partikula bihurtuko litzatekeen heinean. Alabaina, partikula honi esleitutako funtzioa kontuan hartuta, nekez espero daiteke *nz*-galderetan edo hauta-galderetan etorkizun *hurbil* batean *al* erabiltzea, horrelakoetan hiztunak ezin baitu entzulea bultzatu berarekin bat egitera; hots ezin baita *nz*-balio bat nabarmendu. Aitzitik, galdera guztietan berez balizko erantzun guztiak aintzat hartzen dira; beraz, partikularen funtzioak ez du horrelako testuinguruetan, gaur egun behintzat, zentzurik. Hau esanda, *ote* partikula aztertzeari ekingo diot hurrengo atalean; agerian geratuko denez, aurrekoek ez bezala, berorrek beste maila batean eragiten dio elkarrizketari.

5.4 *ote* partikulaz eta bere mikroaldakortasunaz

Gramatika lanetan (Larramendi 1729: 309; Harriet 1741: 501; L  cluse 1826: 96; Chaho 1836; Lardizabal 1856: 69; G  ze 1873: 241; Astarloa 1883: 705; Campi  n 1884: 302; Azkue 1891: 212, 354; Ithurry 1895: 363; Arrigarai 1919: 237; Altube 1930: 222-223; Arot  arena 1976: 185; Villasante 1980: 50; L  ders 1993; Zubiri eta Zubiri 1995: 556; de Rijk 2008: 443;

³⁵ Testuinguru batzuetan *al*-en erabilerak harridura dakarrela ematen du. Partikulak ez duela efektu horretan zerikusirik proposatzen dut; bestela esanda, partikularen funtzioa ez da galderari harridura gehitzea. Beraz, Euskaltzaindiarekin (1987: 513) bat nator, berak azpimarratzen baitu *al*-ek ez dakarkiola proposizioari harridura, testuinguruak baizik. Horrelako galdera batzuk erretorikoak direla ematen du eta harridura efektua testuinguruaren eta hiztunaren aurreiritzien arteko desadostasunak edota desorekak daudenean azalazten da. Egia esan, *al* partikuletik kanpo kokatzen dira harridura sortzen duten   nabardura pragmatikoak.

Garmendia 2014) partikula honen gainean egin diren deskribapenak bat datoz: hiztunen zalantzak adierazteko eta norberak bere buruari galdetzen dionean erabiltzen da. Deskribapen hauek baztertu gabe, berauek irakurtzean honako galdera sortzen da: zer *ote* da ‘zalantzak edukitzea’ galdera batean? Edota zer lotura *ote* dago zalantzak edukitzearen eta ‘I wonder’ efektuaren artean? Partikularen ekarpena aztertu baino lehen, *ote* agertzen den testuinguruak aurkeztuko ditut. Hasteko, 5.4.1 azpiatalean partikula honek galderetan duen funtzioa arakatuko dut; ondoren, 5.4.2 azpiatalean *ote* testinguru ez-interrogatibo jakin batzuetan ere erabil daitekeela argudiatuko dut. Gauzak horrela, 5.4.3 azpiatalean partikularen interpretazioa proposatuko dut. Amaitzeko, partikula hau duten hainbat erabilera ezohiko plazaratuko ditut: galbidean dagoen *ote den ba!* bezalako esamoldeak (§5.4.4); ekialdeko hizkeretako *ote*-ren erabilera ez-kanonikoa (§5.4.5); kortesiazko *ote* (§5.4.6); eta perpaus amaieran agertzen den *ote* (§5.4.7).

5.4.1 *ote* galderetan

Partikula honen testuinguru ohikoena interrogatiboa da; izan ere, inoiz ez da perpaus deklaratiBo nagusietan azaltzen:

- (161) a. Egia *ote* da?
 b. Egia (**ote*) da.

Murritzapen honek pentsarazi lezake galderatzat hartutako horiek ez direla benetan galderak, goranzko prosodiadun deklaratiBo itxura duten galderak baizik. Dena den, galderetan zilegi diren baina deklaratiBoetan onargarriak ez diren osagaiak azaltzen dira *ote*-dun perpaus nagusietan. Alegia, ezezko polaritatezko elementuak (aurrerantzean *EPE*ak) ez dira zilegi baiezko perpaus deklaratiBoetan; galderetan, baldintzetan eta ezezko perpausetan, ordea bai:

- (162) *Inor etorri da.
 (163) Inor etorri da?
 (164) Inor baletor...
 (165) Ez da inor etorri.

Adibide horietako (163) galderari *ote* partikula gehituz gero, hiztun batzuen arabera perpausa oso onargarria ez den arren, *Orotariko Euskal Hiztegia*n nahiz *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basean horrelako adibideak aurkitzen dira:

(166) Inor etorri *ote* da?

(167) Inork ikusi *ote* du lehenago halako egunsentirik?

(168) Iñok auentako *ete* dau afronto orregaz? (Bilbao 2002: 20)

Hiztun batzuek duten murriztapen hori arrazoi bik sor dezakete. Batetik, (163-168) adibideen onargarritasuna galdera motarekin lotuta dagoela uste dut; jarraian argudiatuko dudanez, *ote* azaltzen den galderak konjekturalak edo erretorikoak dira. Adibide horietan irakurketa eskuragarriena galdera erretorikoarena delakoan nago; beraz, baliteke hainbat hiztunek euren onargarritasuna ezbaian ipini izana elkarrizketetan emandako testuingurua galdera konjektural batera bideratuta baitzegoen eta ez galdera erretoriko batera. Bestetik, galdera konjekturaletan, galdera neutroak ez direnez, hiztunak nor edo nor etorri delako ustea edo susmoa badu, EPE-ren orde, izenordaina erabili beharko luke:

(169) ?Inor etorri da? vs. Nor edo nor etorri da?

Galderetan, baldintzetan eta ezezko perpausetan bakarrik zilegi den beste propietate bat, EPE-z gain, partitiboa da. Kasu honetan *ote* partitiboarekin batera ager daiteke:

(170) Haurrik *ote* du?

(171) Jenderik *othe* da izan pullit hetan? (Barbier 1926)

(172) Ongi unhatu eta, oraino ere bainago deus hobeagorik *othe* den langilearentzat? (ibidem)

Testuinguru interrogatiboetan bakarrik ager daitekeen beste osagai bat *ea* da; hurrengo adibideek erakusten duten bezala, *ote* eta *ea* bateragarriak dira:

(173) Abilak dira biziki oilo kolokak: begirutzen zuen, ezker, eskuin, *heian* (= *ea*) nehork barrandatzen *ote* zuen. (Etxamendi 2010: 29)

- (174) Zaldie artu t'albittu ementzan munduz-mundu, *ea* ezkonberrik arrapatze'*ote* zittun.
(Barandiaran 1972: 278-279)
- (175) Apûsto eiñ ementzoén *ea* txakur txiki ue ala eiztárin zákurrek *ote* zien azkarrâgok.
(Azurmendi 1996: 39)

Azkenik, *-a* partikularekin batera ager daiteke *ote*. Egia esan, 5.1 atalean argudiatu dudan bezala, *-a* partikula ez da markatzaile interrogatiboa; alabaina, oso neurri handian galderetan agertzen da. Oraingo kontuari dagokionez, partikula biak bateragarriak diren heinean, *ote*-dun perpausa galdera delako hipotesia indartzen du propietate honek:

- (176) Eta Baxi-Nabarreko koblakari batek, ez *ote* düa erran (...)? (Coyos 2013: 85)
- (177) Amatxi Iholdiko *othe zena*? (Camino 2009b: 193) (= 10)
- (178) Jin *othe dea*? (Euskaltzaindia 2016)

Ebidentzia hauetan oinarrituz, *ote* testuinguru nagusietan agertzen denean, berauek formaz galderak³⁶ direla ondorioztatzen dut, perpaus deklaratio zuzenetan agertzeko murriztapena baieztatuta. Partikula honen testuingurua argituta, ondoren bere ekarpen interpretatiboa jorratzeari ekingo diot.

Aurreko partikulak ez bezala, *ote* galdera mota sintaktiko guztietan ager daiteke, i.e. *nz*-galderetan, polaritatezko galderetan eta hauta-galderetan:

- (179) Norat hartuko *ote* du? (Etxamendi 2010: 29)
- (180) Dantzatzerá *ote* dator berriz?... (Altzaga 1994: 140)
- (181) Geroztik ihork ere ez dü haren berri jakintü, eia leze hartan behera xüxen ifernüalat eraitxi zenez, ala llamina zonbaiti esker han orano bizi *ote* denez. (Coyos 2013: 50)³⁷

³⁶ Aurreko adibide hauek azalean utzi dute *ote* galdera zuzenetan ez ezik, zehar galderetan ere erabil daitekeela. Bai batzuetan, bai besteetan, *ote* partikularen erabilerak ez du galderen eratorpena aldatzen, alegia *ote*-dun galderen eratorbidea eta partikularik gabekoa berdina da: polaritatezko galderetan aditza aurreratzen da eta *nz*-galderetan aditzez gain, *nz*-hitza ere aurreratzen da elkarren ondoan egoteko. Zehar galderei dagokienez, eratorpenaren aldetik ere ez da aldaketarik igartzen.

³⁷ Testuinguru gehienetan *ote* partikula behin bakarrik agertzen da hauta-galderetan; honen arrazoiak elipsiarekin zerikusia eduki dezakeen arren, elipsirik ez dagoen perpausetan jokabide bera azaltzen da. Hala ere, hau ez da aukera bakarra, hurrengo adibideak erakusten duen bezala:

Bestalde, *-a* eta *al* partikulek bezala, *ote*-k ez du galdera markatzen (Villasante 1980: 48; Zubiri eta Zubiri 1995: 556), partikula hau erabiltzea ez baita nahikoa itaun bat osatzeko; alegia, *nz*-galderetan ohiko eragiketa sintaktikoak, i.e., *nz*-hitzaren mugida eta aditz jokatuarekiko ondokotasuna, nahitaezkoak dira, partikula duten galderetan ere:

(182) *Jonek nori liburua eman *ote* dio?

(183) [Nori_i] [eman *ote* dio]_j Jonek t_i liburua t_j ?

Honek argi uzten du ez dela galdera markatzaile sintaktikoa. Beraz, partikularen funtzio sintaktiko hau baztertuta, zer dakarkio *ote*-k proposizioari?

Partikula hau ez da edozein galderatan agertzen, pragmatikaren ikuspuntutik; informazioa jaso nahi duten galderetan, neutroetan eta zuzenetan ezin da erabili:

(184) (Oporren ostean, lankide bati galdetzen diozu) Nora joan (**ote*) zara oporretan, Alex?

Aurretik (§2.5) pragmatikaren aldetik galdera motez esan dudana gogora badakargu, hiru galdera mota daude oro har hiztunaren eta entzulearen ezagutza irizpidetzat hartuta; Littell eta besteri (2010) jarraituz, honakoak bereizten dira:

- Informazioa jaso nahi duen galdera: hiztunak ez daki erantzuna eta entzuleak ezagutzen duela uste du, esate baterako:

(185) Nora joan zara oporretan, Alex? (cf. 184)

- Galdera konjunkturala: hiztunak ez daki erantzuna eta ez du uste entzuleak, edo beste inork, ezagut dezakeenik; adibidez:

(i) Dudan geratu nitzan bera ete zan ala ez *ete* zan. (Elxepuru 1996: 118)

Hauta-galderen egitura sintaktikoa sakon aztertu beharko balitz ere, partikularen erabilerari dagokionez argi dago partikula bakarrak hauta-galdera osoa besar dezakeela; alabaina, delako galdera perpaus bik osatzen duten heinean, ez dago partikula bera bitan azaltzeko oztopo sintaktikorik. Izatekotan, pragmatikoa dela pentsa liteke, partikula batek proposizioari egin dakioken ekarpena betetzen baitu.

(186) Nora joan *ote* da Alex oporretan? (cf. 185)

Galdera hau hiztunak bere buruari edo beste pertsona bati zuzen diezaioke, erantzunik espero ez badu ere.

- Azkenik, galdera erretorikoa: hiztunak nahiz entzuleak erantzuna dakite, bien arteko eremu partekatua ezaguna baita, esaterako:

(187) Non ez (*ote*) da ba Alex oporretan egon? (Mundu osoa bisitatu du!) (cf. 185)

(188) Hola izengo *etek* hori beti...? (Azkoitia 2016: 26)

(189) Ama Birjina *ote* zen aberatsa eta izenduna? (Larzabal 1992b)

(190) Ez *ote* naiz zuen semearen emaztea! (Larzabal 1991)

Adibideetatik ondoriozta daitekeenez, *ote* partikula galdera mota hauetako bitan erabil daiteke: galdera konjekturaletan eta erretorikoetan. Dena den, partikula honen erabilera ere ez da nahitaezkoa galdera mota hauek osatzeko, galdera erretorikoak batez ere. Oraingoz galdera erretorikoak albo batera utziko ditut aurrerago, (§5.5), *-a*, *ahal* eta *ote* osatutako galdera mota hori edukiko baitut hizpide.

Esan bezala, *ote* galdera konjekturaletan agertzen da eta guztiz beharrezkoa ez bide da partikula galdera mota hau osatzeko, honako adibideak, gaur egungo hiztunentzat behintzat, zilegi baitira:³⁸

³⁸ Eckardt eta Beltramak (2018) argudiatzen dute hiztunaren arabera erantzuna nekez argi daitekeeneko galdera mota bi bereiz daitezkeela alemanez eta italieraz; esaterako:

- (i) Dove sarà la chiave?
non [izango da] ART giltz
'Non egongo da giltza?' (Eckardt eta Beltrama 2018:: 28)
- (ii) Dove sarà mai la chiave?
non [izango da] P ART giltz
'Non egongo ote da giltza?' (ibidem)
- (iii) Wo ist *bloß* der Schlüssel?
non da P ART.M giltz
'Non (*ote*) dago giltza?' (ibidem : 29)
- (iv) Wo *bloß* der Schlüssel ist?
non P ART.M giltz da
'Non ote dago giltza?' (ibidem)

(191) Non utzi dut autoaren giltza?!

Hiztunak bere buruari³⁹ edo beste pertsona bati zuzen diezaioke (191) bezalako esaldi bat; hala ere, *ote* partikula erabiltzeak burura dakarren egoera edo jarrera ez da (191) adibidean islatzen. Alegia, (191) bezalako *ote*-rik gabeko galderetan erantzuna argitzeko probabilitatea handiagoa da *ote*-dun galderetan baino. Izan ere, Littell eta bestek (2010) eta Eckardt eta Beltramak (2018) proposatzen dute horrelako testuinguruei galdera konjekturalaren izaera sorrarazten dituzten balizko erantzun *ahulduetatik* datorkiela. Bestela esanda, partikularen ekarpenak entzuleak delako itaun baten aurrean sor ditzakeen erantzunei eragiten die, oraingo kasuan entzuleak balizko erantzun horiei engaiamendu maila txikia esleitzen diela adieraziz. Errepara diezaziegun orain hurrengo adibideei:

(192) a. Non dago autoa? Non utzi dugu?

b. Non *ote* dago autoa? Non utzi *ote* dugu?

Lehenengo esaldia (192a) honako testuinguruan erabil liteke: merkataritza gure handi batera kotxez joan gara, erosketak egin ondoren aparkalekura joan gara, heldu bezain laster inguruari begiratu eta esaten dugu “Non dago autoa? Non utzi dugu?”. Bigarren esaldia (192b) egokia izan dadin, testuinguruak erantzun argirik lortu ezin delako ideiarda gidatu behar du hiztuna, alegia: maskaradak ikustera joan gara Barkoxera, goiz goizean topatu dugun lehenengo tokian aparkatu dugu eta egun osoa auzorik auzo ibili ostean kotxearen bila joan gara baina egunean zehar herria kotxez bete da eta hainbat aparkaleku *inprobisatu* sortu

Autoreon arabera, galdera horiek ez dute irakurketa bera: (ii eta iv) adibideetan italieraz *mai* edo *poi* partikulek eta alemanez partikulek (*wohl*, *bloß* eta *nur*) eta aditzaren mugidarik ezak, hurrenez hurren, markatzen dute hiztunak ez duela erantzuna ezagutzen eta, bera lortzeko baliabide guztiak agortuta, ezinezkoa dela argitzea.

Bereizketa hau aintzat hartzea interesgarria izan liteke euskarazko (192a eta b) adibideetako galderei heltzeko. Izan ere, hurrengo adibideari begiratuz gero, ematen du hiztunak ez duela erantzuna argitzeko inongo itxaropenik, jarraian etxean ahaztu duelako ustea adierazten baitu eta, horrenbestez, entzuleari tabakoa eskatzen zaio.

(v) (*Sakelak miatzen ditu, zigarreta papera ateratzen*)... Ah! Bon... Nun *ote* dut?... Tabakoa etxean ahantzi diat. Baduka tabakorik? (Larzabal 1991)

³⁹ Galdera mota hau hiztunak bere buruari ere zuzen diezaioke; izan ere, hau ez da harriztekoa hiztunak ez bailioke bere buruari ezer galdetuko, dagoeneko bere erantzuna ezagutuko balu. Beraz, erantzuna argitu ezin den galdera mota hori espero izatekoa da hiztunak bere buruarekin berba egiten dueneko testuinguruetan.

dira; begira eta begira egon ondoren eta kotxea non utzi dugun asmatu ezinik esaten dugu “non *ote* dago autoa?” / “Baina non *ote* dago autoa?!”

Beraz, *ote* partikula erabiliz hiztunaren jarrerak hobeto egiten du bat Littell eta bestek (2010) galdera konjekturalen gainean egindako deskribapenarekin, hiztunak ez baitu uste erantzuna jasotzeko modurik dagoenik.

Polaritatezko galderetara joz gero, antzeko egoera igartzen da:

(193) a. Heldu da?

b. Heldu *ote* da?

Esaldi hauek beste pertsona bati zuzenduz gero, irakurketa desberdinak edukiko lituzke testuingururik gabe: lehenengoan, hiztunak entzulearengandik erantzun bat jaso nahi du, hori espero du; bigarrenean, ordea, ez luke esperoko, ez baitu uste erantzuna dakienik (cf. Garmendia 2014); are gehiago, ez du uste erantzun argirik dagoenik. Izan ere, bigarrena askoz egokiagoa da hiztunak bere buruarekin berba egiten duen egoera batean:

(194) a. [Ama bat bere semeaz:] ?Heldu da? (Bere buruari)

b. [Ama bat bere semeaz:] Heldu *ote* da? (Bere buruari)

Azkenik, entzuleek ez dute *ote*-dun galdera horien indarra *ote*-rik gabekoena bezain zuzen hautematen. Eckardt eta Beltramak (2018) diotenez, informazioa eskuratu nahi duen galdera baten ostean, entzuleak “zergatik galdetzen didazu niri?” erantzun dezake; *ote*-dunen modukoetan, aldiz, ezin du:

(195) a. - Nora joan da Laura?

- Zergatik galdetzen didazu niri? (Nik ez dut bere bizitza kontrolatzen.)

b. - Nora joan *ote* da Laura?

- #Zergatik galdetzen didazu niri?

Ondorioz, *ote*-k galdera konjekturalak sortzen dituela proposatzen dut. Dena den, ez dut uste *ote* partikula galdera mota hauek sintaktikoki markatzeko beren-beregiko baliabidea

denik; izan ere, partikula hau interrogatiboak ez diren testuinguruetan ere ager daiteke. Ondoren (§5.4.3) perpaus mota horiei erreparatuko diet eta *ote*-k bertan zer funtzio duen arakatuko dut, jarraian testuinguru interrogatiboetan eta ez-interrogatiboetan proposizioari egiten dion ekarpena argitzeko asmoz.

5.4.2 ote mendeko testuinguruetan

Beste partikula epistemikoak ez bezala, *ote* partikula ezin da perpaus deklaratio nagusietan azaldu, arestian (§5.4.1) esan dudana bezala; beraz, onartzen duen testuinguru nagusi bakarra galderetakoa da. Alabaina, mendeko perpausetan balia daiteke *ote* partikula, hizkuntzarteko gramatika lanetan partikulak mendeko testuinguruetan agertzea eztabaidagarria izan den arren. Orain aztergai edukiko dudana testuingurua menderagailu batek markatuta egongo da beti: *-(e)n* menderagailua duten mendeko perpausak dira, *-(e)la*-rekin ez baita bateragarria. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

(196) a. Samar bat irintxi *ote* dian iruditu zatan. (Barandiaran 1972: 26)

b. Samar bat irintxi (**ote*) diala iruditu zatan.

(197) a. Motill oi billur ementzan urruna bea jango *ote* zon. (Azurmendi 1996: 33)

b. Motill oi billur ementzan urruna bea jango (**ote*) zola.

Predikatu bi horiek mendekotzat hartzen duten perpaus mota anbigua da, ez baitago argi zehar galderak edo deklaratioak⁴⁰ diren, formaren aldetik berdina direlako. Halarik ere, *nz*-galderek argitzen dute anbigotasun hori:

(198) Beldur naiz zer erosi (*ote*) duen.

(199) *Iruditu zait zer erosi (*ote*) duen.

⁴⁰ Lafittek (1944: 448) ohartarazten digu mendeko perpaus osagarri batzuetan hiztuna *-(e)n* menderagailuaz baliatzen dela zalantza adierazteko, hala nola *dudatu* edo *ez uste* predikatuetan. Halaber, esaten digu, predikatu horiek kontrako polaritatezko balioa dutenean, ez dutela *-(e)n* menderagailua hartzen, *-(e)la* menderagailua baizik; izan ere, *ez dudatu* eta *uste* predikatuak segurtasuna adierazten dute. Beraz, badirudi mendeko adierazpen-testuinguruetan, hiztuna proposizioaz seguru ez badago, *-(e)n* menderagailua erabiltzen dela. Horrek *ote* agertzeko aukera dakar, partikula honek markatzen baitu hiztunak ez duela guztiz proposizioarekin bat egiten (§5.4.3). Oraingoari dagokionez, *-(e)n* menderagailua adierazpen-perpausetan azal daiteke, hiztunaren arabera berauen edukia zalantzazkoa baldin bada.

Adibide horiek agerian uzten dutenez, *beldur izan* predikatuak zehar galderak txertatzen ditu; *iruditu* bezalakoek, ordea, ez. Beraz, perpaus mota bitan erabil daiteke *ote* mendeko testuinguruetan: zehar galderetan (200-201) eta *-(e)n* menderagailua duten deklaratioetan (202). Hots:

(200) Ez dakit etorri *ote* den.

(201) Abilak dira biziki oilo kolokak: begiratzan zuen, ezker, eskuin, heian nehork barrandatzen *ote* zuen. (Etxamendi 2010: 29)

(202) Begittendu jat ulixe *ete* ran. (Ormaetxea 2005: 298)

Partikula honen interpretazioaren aldetik, ez da berdina perpaus mota bi horietan. Espero izatekoa denez, testuinguru interrogatiboetan erraz igartzen da galdera konjekturalen irakurketa:

(203) Baitta jentil oi badijo zuzen Beasin'go ola, gizonik an *ote* daon galdezka. (Barandiaran 1972: 244)

Hala ere, irakurketa hori ezin da mantendu beste adibide batzuetan, esaterako:

(204) Samar bat irintxi *ote* dian iruditu zatan. (Barandiaran 1972: 26) (= 196)

(205) Batzuk esaten dia illargitan gaue, Abenduko eune baño argigoa *ete*'an. Ori ez tek ôla. (Azurmendi Albizu 1998: 154)

(206) (...) da zeoxe mamiya *ote*'aken iruitze'a. (Pikabea 2005: 196)

(207) Begittendu jat ulixe *ete* ran. (Ormaetxea 2005: 298) (= 202)

(208) Beste batzu(k) t(d)iñue autoan argiek edo tirituten *ete* otzien d'argire datosenean itzutu da bertan trau txerrinkapean. (Etxebarria 2016: 17-18)

(209) Geixko esan *ote* dezun iduritzen zait. (Altzaga 1994: 101)

(210) Olako gauzetáko launtze txiki xamarrak ematten *ote* dittuen attu iñet nek...(Olano 1998: 328)

Berdin gertatzen da aditz hautatzaile argirik gabeko mendekoetan, nahiz eta hemen hiztun guztiak bat ez datozen iritzi gramatikaletan:

(211) %Nik uste neska amekakoa *ote* den eta mutikoa amarrekoa. (Montoya 2004: 211)

(212) %Zelatun eta Hernioko gainaren artean abioneta batek istripua izan du. Bi hildako *ote* diren. Laino itxia dago paraje honetan. (Aiurri hedabideak 2019)

(213) %Orregatik goiz batean Iruñara juan zan erri artan bere idiak salduta beste bi etxera ekarriko *ote* zituan. (Barandiaran 1972: 500)

(214) %Ez al dakik? Doña Maria alarguna nere nagusiarekin ezkontzen *ote* dan edo... (Labayen 1931: 57) ⁴¹

(215) %Bai.... kaleko eiztariak iñoiz Otsola'ko ostatuan ikusi izan ditut. Bazkari onak egiten *ote* dituzten edo... (Labayen 1932: 4. agerraldia)

Azken adibide hauek abiapuntu hartuta, *ote*-k hiztunak proposizioaren gainean darabilen prozesu mentala adierazteko balio duela dirudi. Hau bat dator Euskaltzaindiak (1987) dionarekin; hots, “gogoeta moduko bat eransten dio galderari *ote* partikulak berarekin zalantza, susmoa edo horren antzeko zerbait daramana” (Euskaltzaindia 1987: 515).

Labur-zurrean, mendeko testuinguruei begiratuz gero, *ote* partikula bai zehar galderetan, bai *-(e)n* menderagailudun perpaus deklaratiboetan azal daiteke. Hurrengo azpiatalean erabilera horren interpretazioa arakatuko dut eta 5.4.1 azpiatalean hizpide eduki dudanarekin lotzen saiatuko naiz.

5.4.3 *ote partikularen interpretazioaz*

Aurretik (§5.4.2) aditzera eman dut *ote* mendeko deklaratiibo jakin batzuetan ager daitekeela eta hiztunak proposizioaren gainean darabilen prozesu mentala markatzeko baliatzen dela (Euskaltzaindia 1987: 515). Ideia honek Krifka (2017) gogorarazten du; alegia, Krifkak hainbat aspektu bereizten ditu proposizio bat hizketa ekintzara bidali baino lehen eta bakoitzari sintagma beregaina esleitzen dio: a) proposizio bera osatzea, egia-baldintzak

⁴¹ De Rijkek (2008: 848) dio *ote* duen zehar galdera baten ostean *edo* erabiltzeak partikularen funtzioa areagotzen dela. Halaber, erabilera horretan ‘edo ez’ laburtu eta ‘edo’ soilik mantendu dela proposatzen du. Dena den, (214) adibideari begira, nekez lor daiteke galderaren interpretazioa hiztunaren ‘ez al dakik?’ galderak baieztapen batera bideratzen baitu, hots, ezin baitu berorren ostean galdera bat ekarri.

dituena, Denbora Sintagman gauzatzen da; b) hiztunak proposizio horren inguruko iritzia egitea, ekintza pribatua dena, Iritzi Sintagman (ing. *Judgement Phrase*) islatzen da; c) hiztunak proposizioarekiko engaiamendua hartzea, Konpromiso Sintagman kokatzen du; eta, azkenik, d) hizketa ekintzara proposizioa bidaltzea, ekintza publikoa dena, Hizketa Ekintza Sintagman proiektatzen da. Freyk (2018), Krifktari (2017) jarraituz, aldarrikatzen du jarrera mentala adierazten duten aditzek Iritzi Sintagman dauden osagaiak hautatzen dituztela; halaber, Iritzi Sintagma delakoa pentsatzen dabilen pertsona baten egoera mentalarekin lotzen du. Beraz, gogoeta mentalaren ideia eta sintaktikoki adierazteko baliabideak daudelako ideia topatzen dira gramatika lanetan eta, are gehiago, alemanezko partikula modalen lanetan, Freyk (2018) eremu horretan kokatzen baititu alemanezko partikula modal batzuk. *Ote*-ri berriro begiratu gero, hiztunaren prozesu mentalarekin zerikusia duten predikatuekin agertzen da sarritan:

- (216) Nago munduan *othe* den gizonik Metsikanikoan bezain harrabotsa maite duenik. (Elissalde 1925)
- (217) Leitzarra traskalaoa zen, lenao, gure usten e! Gue usten, guk oeki itzeitten *ote* gendun eote giñen. (Olano 1998: 59)
- (218) Markos *ote* datorren nago (TOE *apud* de Rijk 2008: 444)
- (219) Beldur naiz nire etxeakoak haserretuko *ote* zaizkidan. (Agirre *apud* de Rijk 2008: 444)
- (220) Eta txakurra oñetan, muturra zabalduta, zerbait erortzen *ote* zan zai. (Altzaga 1994: 22)
- (221) Errekan zer *ete* zellen beida jarri zienen, sekula otsak aitu zituen. (Azurmendi 1998: 159)

Hasieran esan dut *ote*-k hiztunaren zalantzak adierazten dituela jasotzen dutela gramatika guztiek; galderei zegokienez, ez nuen zalantzak edukitzeko lotutarik ikusten, alegia pertsona bat etorri den ez badakit, ez nioke aurrean dudan hiztun jakitunari galdetuko:

- (222) #Etorri *ote* da?

Egoera horretan partikula erabiltzea ez da pragmatikoki egokia, arestian (§5.4.1) azaldu dudana bezala. Bestalde, (204-215) bezalako adibideetan zalantza argiago igartzen da.

Partikularen interpretazioari dagokionez, honakoa proposatzen dut: *ote*-ren bidez hiztunak proposizioaren gainean barne gogoeta duela adierazten du; Euskaltzaindiaren (1987: 515) ildotik eta hortik abiatuta, ‘I wonder’ efektua zein zalantzen kutsua lortzen dira. Izan ere, honek ere azaltzen du perpaus deklarativo nagusietan agertzeko murriztapena: perpaus nagusi baten inguruko gogoeta eginez (egia den ala ez den egia), berez galdera kutsua hartzen du; errepara diezaiegun hurrengo adibideei:

(223) a. ‘Peru joan da’ + ‘*ote*’ → *Peru joan *ote* da.

b. ‘Peru joan da’ + ‘*ote*’ → Peru joan *ote* da?

Alegia, Peru joan den proposizioaz gogoeta egiten du hiztunak, ezin asmatu egiazko ala gezurrezko baliorik duen. Bestalde, gogoeta egonez gero, horrek esan nahi du hiztunak ez duela proposizioarekin engaiamendu osoa; hots, orain proposatu dudana bezala, proposizioaren egia-baldintzak zalantzan ipintzen ditu. Hortik datorkio zalantza kutsua eta -(e)n menderagailuaz markatutako adierazpen-perpausetan bakarrik azaltzeko murriztapena, testuinguru horiek hiztunaren zalantzak txertatzea ahalbidetzen baitute.

Interpretazio hori, gainera, Lakarrak (2019) berreraikitako formarekin lot daiteke; hots, *eman*, *iruditu* edo *bihurtu* bezalako adiera duen aditzetik eratorria ei da *ote*. Adiera horietatik abiatuta ez da zaila partikularen kutsu epistemikoa azaltzea: ‘ematen du’, ‘badirudi’ bezalako predikatuetan hiztunak inguruko datuetan eta egoeran oinarrituz ondorio bat ateratzen duela adierazten duenez, ondorio horretara heltzeko ideia buruan erabili duelako prozesua pragmatikalizatu eta *ote*-ren balio bezala finka zitekeen.

Honaino *ote*-k bere erabilera orokorrean duen ekarpena jorratu dut, interpretazio epistemiko bakarra duela ondorioztatuta. Ondoren, tokian tokiko erabilera bereizgarriari erreparatuko diet, *ote den ba!* erabilerari (§5.4.4) jokabide sintaktiko ezohikoa duen *ote*-ri (§5.4.5), kortesiazko *ote*-ri (§5.4.6) eta perpaus amaierako *ote*-ri (§5.4.7) hain zuzen.

5.4.4 *Galbidean dagoen ote-ren erabilera bat: ote den bada!*⁴²

Etxaburuk (1972) *Frases ondarresas* delako lanean erabilera hori jasotzen du; hala ere, esamolde hori ez da Lea-Artibaiko hizkeren bereizgarria, oro har Hego Euskal Herri osoan lelukotzen baita:⁴³

(224) - Arantzazuk liburu asko dauzka? -*Ote* dauzkan!

(225) - Joseba mutil ona da. -*Ete* dan ba! (Etxaburu 1972: 105)

(226) - Txokolatea gustatzen zaio? -*Ote* zaion ba!

(227) - Itziarrek etxea erosi dau. -*Ete* dauen ba!

Bere analisi sintaktikoa 6.2.7 azpiatalerako utzita, bere interpretazioari erreparatuko diot jarraian. Horrelako testuinguruetan, gramatiketako deskribapenetan ez bezala, partikulak ez bide du zalantza edo ‘I wonder’ efektua adierazten, hiztunak proposizioarekin duen segurtasun osoa baizik:

(228) -Joseba mutil ona da. -*Ete* dan ba! (= Jakina ona dela, ez dago inongo zalantzarik, hori galdetzea ere...)

Beraz, erabilera hau ez dator orokorrarekin bat. Hala ere, ez nuke esango beste partikula bat denik edo partikularen interpretazio orokorretik garatu den azpi-interpretazioa denik; aitzitik, partikularen ekarpen interpretatiboa ez da aldatzen eta testuinguruak sortzen du interpretazio berezia. Alegia, 6.2.7 azpiatalean argudiatuko dudanez, menderagailua duten kasuetan perpaus horiek mendeko perpausak dira baina perpaus nagusia isilduta, (229) bezalako testuinguru bat proposatuz bere interpretazioa hobeto ulertzen da:

⁴² Arantzazu Elordietari eskertu nahiko nioke niretzat guztiz ezezaguna zen egitura honen berri emateagatik.

⁴³ Erabilera hau desagertzeaz dago, egun gehienetan adinekoek besterik ez baitute erabiltzen. Garai batean orokorra ote zen galdera nekez erantzun daiteke, neure ustez. Elkarrizketetan mendebaldeko hizkeretan, erdialdekoetan eta euskara nafarrean bakarrik zen ezaguna; ipar-ekialdekoetan, aldiz, ez zuten adinekoek ere ezagutzen. Hala ere, kontu soziolinguistikoa izan liteke. Bestalde, ez bide da testuetan lekukotua, *Orotariko Euskal Hiztegiak* (Mitxelena eta Sarasola 2017) erreferentzia bi bakarrik dakartza eta Euskaltzaindiak (1987) bat ere ez.

(229) [Itziarrek etxea erosi] *ete* dauen [galdetzea ere/ galdetzeak ez du zentzurik]! (erantzuna begi bistakoa baita)

Bestalde, hainbat hizkeratan (e.g. Ataunen eta Goizuetan) interpretazio bera duen egitura ageri da; alabaina, horrelakoetan ez dago menderagailurik:

(230) Etorriko *ote* dituk ba! ('Etorriko dira Ane eta Olatz?' galderaren erantzuna)

Horrelako kasuak galdera erretorikoekin lotzen ditut; itaun mota horiek proposizioaren edukiaren kontrakoa adierazi ohi duten arren, hainbat kasutan ez da horrelakorik gertatzen eta proposizioaren eduki bera nabarmendu nahi du hiztunak (Biezma eta Rawlins 2017). Aurreko adibidean (230) harridurazko galdera dugula proposatzen dut; kasu horretan hiztunak hainbat pertsona etorriko direlako zalantzarik ez dagoela adierazi nahi du perpaus horren bidez. Partikulak galdera erretorikoetan duen ekarpena argitzea zaila da galdera erretorikoen gaineko lanik ez baitago, 5.5 atalean argudiatzen dudana bezala; dena den, aurreko adibideak aintzat hartuta, esan liteke *ote* partikularen bitartez hiztunak entzuleari adierazi nahi diola elkarrizketan aurretik esandako proposizio hori bien eremu partekatua zelako eta horren inguruko zalantzarik edukitzea zentzugabekoa dela.

Laburbilduz, aurreko proposizioa dagoeneko eremu partekatuaren parte zela adierazten da egitura horren bidez; bestela esanda, aurreko proposizioa entzulearentzat ezaguna edo jakina izan behar zela edo galderen kasuan erantzuna argia eta begi bistakoa dela eta hori galdetzeak, i.e. zalantzan jartzeak, ez duela zentzurik markatzen du *ote*-dun perpausa darabilen hiztunak.

5.4.5 Erabilera ez-orokorreko ote

Ekialdeko hizkera batzuetan *ote*-k jokabide askeagoa erakusten du, ez baita beti aditz jokatuari lotuta agertzen. Jokabide sintaktikoa 7.3 atalean aztertuko dudana arren, orain egitura hori interpretazioaren aldetik hartuko dut kontuan eta ea erabilera kanonikoaren ondoan alderik igartzen den eztabaidatuko dut. Begira diezaiegun adibide hauei:

- (231) Bazakiana *ote* de la Villeheliok ere bildü zütüala zazpi kantore horik? (Davant 2008: 131)
- (232) Bena ezpitakit nik lamina horiek zer zien *othe*! (Camino 2004: 452)
- (233) Eztakit ardi horrek bildotxa ukhain dienez *othe* gaur (Camino 2009b: 193)
- (234) Eta gero Jainkoa zertako dugun *ote* samur, estonatuko gira gu! (Hiriart-Urruty 1971b)
- (235) Ez ahal duzu *ote* horren berririk ukan?

Kasu hauek ez daude *ote* kanonikotik oso urrun interpretazioaren aldetik; *ote* orokorrean bezala, galdera konjekturaletan eta erretorikoetan agertzen da *ote* mota hau. Erabilera hau ekialdeko hizkeretan lekukotzen den beste erabilera batekin konparatuz, bere interpretazioa argiago sumatzen da. Alegia, hizkera horietan (eta gainerako hizkeretan baina oso errejistro jasoan,) *ote* fokua den osagai baten ondotik azal daiteke, gainerako osagaiak isilduta:

(236) Non *ote*?

(237) *PARISEN ote*?⁴⁴

Erabilera honetan interpretazio orokorra igar daiteke; har dezagun (237) adibidea abipuntu. Hiztunak kartera ahaztu badu eta ez badu non zehatz-mehatz gogoratzen, (237) adibidea esan lezake, kartera ea Parisen ahaztu duen pentsatzen dabilela ulertuta; hots, Parisen ahaztu izanaren aukera balizkoa edo egiazkoa *ote* den baloratzen dabilela interpretatuta. Beraz, erabilera honek eta orokorrak interpretazio berdina bide dute eta, era berean, (231-237) adibideetan jasotakoek. Izan ere, ekialdeko erabilera ez-kanoniko horiek bai pragmatikoki bai sintaktikoki berdinak direla proposatzen dut; bien arteko alde bakarra da (231-235) bezalakoetan aditz jokatua azaltzen dela eta (236-237) adibideen modukoetan, ordea, aditz jokatua isilduta dagoela eta gehienetan fokua den osagaia bakarrik agertzen dela.⁴⁵

⁴⁴ Jokabide hau ez dago *ote* partikulara mugatuta, *omen*-ek ere baitu:

- (i) - Nora joan da Iker?
- ERROMARA *omen*.

⁴⁵ Dena den, bigarren mota horietan batzuetan beste osagai batzuk ere ager daitezke:

- (i) Baia *othe* burur hotz-hotza orai bortüari бүрүз, eta holako denborareki? (Davant 2008: 76)
(ii) Berak baia *ote*? (Larre 1986: 1)
(iii) Ala gehixago ere baia *ote*, urtealdika? (Larre 1987: 1)

Beraz, ez nituzke kasu honetan erabilera bi bereiziko; aitzitik, interpretazio orokorra eta orain aztergai dudana bera dela aldarrikatzen dut. Hala ere, baten bati gogora etor lekiok aldeira sintaktikoek pragmatikoa dakartela esan ohi dela (Bolinger *apud* Fonteyn 2018); ideia hori gramatika lanetan onartu izan den arren, Degand eta Fagardek (*apud* Izutsu eta Izutsu 2013: 222) adierazten duten bezala, lehenengo urratsa aldaketa sintaktikoa da eta, ondoren, aldaketa semantiko-pragmatikoa dator. Forma biek funtzio bera baldin badute, batek espezializatzeko joera du, desagertzen ez bada, arrazoi ekonomikoengatik. Ekialdeko hizkeretako *ote* ez-orokor horri dagokionez, ezin zaio erabilera pragmatiko guztiz beregaina esleitu, gaur egun behintzat.

Bestalde, aditz nagusirik gabeko hainbat testuingurutan 'galdetzen diot neure buruari' predikatuaren mendean dagoela uler daiteke, *ote* partikulak *-(e)n* menderagailuarekin batera interpretazio hori errazten baitu eta isildu den aditz nagusiaren berreskurapena ahalbidetzen baitu:

(238) Karrikaz bestaldeko etxeko anderea salda egitetik baratu zen kanpora jiteko zer zabilan *ote*. (Thikoipe 2009 :31)

(239) Eta ni, harritua, zentzordatua, mutu gelditu nintzen... behar bezala aditu nuenez *ote*... (ibidem: 44)

Interesgarria da Etxepare eta Uriak (2016: 273-276) ekialdeko hizkeretako *omen* partikularako antzeko egoera deskribatzen dutela; *omen* partikula eta *-(e)la* menderagailua batera predikatu nagusirik gabeko testuinguru batean azaltzeak aipu irakurketa edo *diote* aditz nagusia interpretatzera bultzatzen duela alegia. Ikus dezagun hurrengo adibidea:

(240) Bere senarra ospitalean da, *omen* gaizki dela. (Etxepare eta Uria 2016: 274)⁴⁶

Hala ere, jokabide hau ere ez da pragmatikoki berezia, interpretazioaren aldetik ez baitu erabilera orokorretik aldentzen, sintaktikoki desberdinak diren arren.

⁴⁶ Badirudi (240) bezalako testuinguruetan partikulak interpretazio ebidentziala mantentzen duela, sintaktikoki desberdin jokatzen duen arren.

Hurrengo azpiatalean (§5.4.6) ipar-ekialdeko hizkeretan gauzatu den *ote*-ren hedapen pragmatiko baten berri emango dut.

5.4.6 *Kortesiako ote*

Lehen (§4.5) aurreratu dut *ote* partikulak ekialdeko hizkeretan mikroaldakortasun handia duela sintaktikoki ez ezik, pragmatikoki ere. Azken honen aldetik, ipar-ekialdeko euskalkietan ezaugarri bereizi bi daude; horietako batean *ote* partikulaz informazioa jaso nahi duten galderetan baliatzen dira hizkera horietako hiztunak:

- (241) Erretzen ahal *ote* da hemen? (Erre nahi duenak bulegoaren jabeari galdetzen dio)
(Thikoipe 2009: 113)
- (242) Eskualde hauetakoa *ote* zira? (Etxamendi 2011b: 9)
- (243) Esku ukaldi bat emaiten ahal *ote* dautazu? (Landart 1983)
- (244) Azken aldikotz ikusten *ote* zaitut? (ibidem)
- (245) Jakiten ahal *ote* dut neskaxa hori nor den? (Larzabal 1992a)
- (246) Nahi *ote* dun hik ere? Galdetu zion Josefinari. (Thikoipe: 2007: 52)
- (247) Noiz eginen *ote* dugu arto xuritzea? (Landart 1978: 52)
- (248) Zato hunaraino. Xingar bat bada sasi tzar baten inguruan. Zurea *ote* da? (Treku 1982: 51)
- (249) Hortxeko oiha hortarik ekartzen ahal *ote* zinueke izai bat ederra? (Minaberri 1983)
- (250) Hola eta hola gertatzen zauku. Zerbait gisaz laguntzen ahal *ote* gituzu izai baten apaintzen? (ibidem)
- (251) Eguberriko izaia. Gure adixkide guziekin nahi dugu apaindu. Zerbait emaiten ahal *ote* daukuzu zuk ere? (ibidem)
- (252) Zu *ote* zira ene anaia?(ibidem)

Galdera horietan azaltzen den *ote* partikulak ez diola jokabide kanonikoari jarraitzen egiaztatzeko, 5.4.1 azpiatalean erabili dudana ‘Zergatik galdetzen didazu niri?’ proba aplikatu diet testuinguru horiei; esate baterako:

- (253) A: Erretzen ahal *ote* da hemen? (Erre nahi duenak bulegoaren jabeari galdetzen dio)

B: Zergatik galdetzen didazu niri?

A: Zure bulegoan nagoelako....

Egoera hori bestelakoa da esaldi bera galdera konjekturala izango litzatekeen testuinguruaren aldean:

(254) A: Erre(tzen) ahal *ote* da hemen? (Tabakoaren legea indarrean zegoen hurrengo egunean)

B: %Zergatik galdetzen didazu niri? Nik ez dut erretzen eta ez dut legea irakurri.

Beraz, proba honek argi uzten du hizkera horietako hiztunek *ote* partikula darabilteneko galdera mota ez datorrela bat jokabide orokorrekinekin.

Aurretik (§5.4.2) *ote* partikularako aldarrikatu dudan hipotesia abiapuntu hartuta, orokorra ez den erabilera honi ere eman dakioke azalbidea. Aurreko adibideetako galderei (241-252) begiratu gero, kortesiazko kutsua igar liteke; galdera horiek hain zuzenak ez direlako pertzepzioa sumatzen da alegia. Gizalegea edo kortesia ulertzen dut Yang eta Wiltschkoren (2016: 20) ildotik, ekintza batek ekar litzakeen mehatxuak leuntzeko asmoa alegia. Esan bezala, *ote*-k galderei ‘I wonder’ irakurketa ematen die eta honek pragmatikoki galderaren indarra leuntzen du (Yang eta Wiltschko 2016; Farkas 2017). Hartara, hiztunak galderaren indarra apaltzeko, i.e. galdera hain zuzena izan ez dadin, baliatzen dira *ote* partikulaz, horrek dakarren efektua baita entzulea ez dela sentitzen hiztunak galdeketa batean ezartzen duenik edo, bestela esanda, hiztunak erantzun bat ematera behartzen duenik.

Partikula bat xede horretarako erabiltzea ez da guztiz arrotza eta beste hizkuntza batzuetan ere berorren testigantza ematen da, e.g. errumanieraz (Farkas 2017), mandarineraz (Yang eta Wiltschko 2016) eta sardinieraz (Vanrell eta beste 2014: 12); lehenengo biri begiratuko diet ondoren labur-labur.

Lehenengoz, errumanieraz (Farkas 2017) galderetan ‘I wonder’ irakurketa gehitzen duen partikula, i.e. *oare*, galdera ez-intrusiboetan ere erabil daiteke. Hiztunak entzulearengandik erantzun bat jasotzea espero duen kasu batzuetan *oare* agertuko da galderaren jakin-mina apaldu nahi badu entzulea erantzun bat ematera behartuta senti ez dadin. Kasurako:

(255) *Oare* mai ai migrene?

P oraindino duzu migraina

‘Oraino (%ote) duzu migrainarik?’ (Farkas 2017: 15)

(256) *Oare* ai avea chef sa vii cu mine la piață?

P LAG joera SUBJ etorri COM 1PS ADL ART merkatu

‘Gogorik (%ote) duzu nirekin merkatura joateko?’ (ibidem)

Halaber, Yang eta Wiltschkok (2016) mandarinerazko *ha* partikula aztertzen dute eta gizalegea marka dezakeela proposatzen dute. Hitzunek partikula hau berez erabili ohi dute entzuleak proposizio bat baieztatzeko:

(257) Nimen shi jiu dianzhong kai men de *ha*?

zuek izan bederatzia orduetan zabaldu ate NMLZ P

‘Bederatzietan zabaltzen duzue, ezta?’

Partikula horrek asertzio baten indarra ahultzen du eta, ondorioz, entzuleak proposizioa baieztatzeko aukera duelako irakurketa lortzen da. Hori dela eta, hiztunak proposizio batekin bat egiten duenean baina hori entzulearentzat mehatxagarria izan daitekeela pentsatzen duenean, *ha* partikulaz baliatzen da asertzioaren indarra leuntzeko eta modu ez hain bortitz batean proposizioa aurkezteko, (258 eta 259) adibideen moduko galdera erretorikoetan ez bezala:

(258) Zhe hua GAI shuo *ma*?

hauek hitzak beharko esan P

‘Hori esan beharko al / ote zenuke?’ (Ez zenuke hori esan beharko.)

(259) Zhe hua GAI shuo *ha*?

hauek hitzak beharko esan P

‘Hori esan beharko (%ote) zenuke?’ (Ez zenuke hori esan beharko, ezta? / Neure buruari galdetzen diot ea benetan hori esan beharko zenukeen.)

Jokabide horiek baliabide berdinak ez badituzte ere, antzera jokatzeko kasu guztietan galderaren indarra modu batean edo bestean apaltzen baita. Blum-Kulkak (1987) dio eskaera batzuek entzulearentzat mehatxu-kutsua izan dezaketenez hiztunak zeharka zuzentzen diola entzuleari eskatu nahi diona, eskaeraren indarra apalduz. Horregatik zeharkako galderak adeitsuagoak direla ematen du; dena den, berak dio zeharka galdetzearen eta adeitasun mailaren artean ez dagoela guztizko korrespondentziarik, zeharka galdetzen den kasu guztiak ez baitira galdera zuzenak baino adeitsuagoak.

Hau guztiau aintzat hartuta, *ote*-ren erabilera hau ez da harritzekoa: partikula honek galderatasuna modifikatzen du, 5.4.2 azpiatalean proposatu dudana bezala, informazioa jaso nahi duen galdera bat galdera konjektural bihurtuta; halaber, orokorrean *ote* duten galderak ez dira *ote* gabekoak bezain zuzenak, entzulearengandik ez baita erantzunik espero. Beraz, (241-252) adibideen moduko esaldiak lekukotzen diren hizkeretan partikularen gramatikalizazioa gauzatu dela proposatzen dut: erdialdeko euskalkian *ahal* partikularen kasuan gertatu den bezala, ipar-ekialdeko hizkeretan *ote*-ren erabilera horrek testuinguru konjektural/erretorikoak gainditu ditu eta informazioa lortu nahi duten galderetara zabaldu da.⁴⁷ Dena den, partikula bien artean aldea badago: lehenengoa askoz orokorragoa da polaritatezko galderetan; bigarrena, ordea, hiztunak galdera hain zuzena ez izatea nahi duenean agertzen da eta, beraz askoz gutxiagotan erabiltzen da.

Azkenik, azpimarragarria iruditzen zait Van Eysen (1879) *ote* partikularen deskribapenean ematen duen azalpena:

Mot explétif, de doute, d'interrogation. Joan ote da? Est-il parti? Egin ote duzu? Avez-vous fait? Ez ote duzu egin? N'avez-vous pas fait? Bai othe? Est-il vrai? Ezta otherik. Il n'y a pas de doute. Il nous semble que othe, et othoi ont une

⁴⁷ Rebuschiren (1984: 84) ustean Lapurdin *ote* partikulak duen funtzioa bat dator Gipuzkoan *al*-ek duenarekin:

(...) tout comme ote (B ete), parfois simple équivalent de G al en labourdin, mais marquant un fort étonnement en guipuzcoan et biscayen (Rebuschi 1984: 84)

Esaldi horretan ematen du Rebuschik iradokitzen duela Lapurdiko *ote*-k ez duela beste euskalkietan bezainbesteko zama interpretatiboa; alabaina, *al* partikulaz dio galdera markatzeaz gain, modalitate epistemikoa ere markatzen duela. Beraz, biak parekatzen dituzenez, ulertu behar da *ote*-k Lapurdin, beste euskalkietan ez bezala, funtzio interrogatiboa eta epistemikoa dituela. Izan ere, funtzio berezi bi horiek edukitzeak sor lezake Lapurdiko hizkeretan harridura txikiagoa markatzea, *al*-en erabilera ez baitago funtzio bakarrean espezializatuta eta, horrenbestez, lausoago eta ahulago sentitzen da bere ekarpena.

origine commune, ou plutôt que othe est la syncope de othoi othoy, je vous prie, je vous demande. Ainsi: Joan othe da, signifie au fond: Je vous demande, je vous prie, est-il parti? (Van Eys 1879)

Partikularen jatorriaren gaineko ideia albo batera utzita, azken esaldia interesgarria suertatzen zait, bat baitator nik proposatutakoarekin. Era berean, orain aldarrikatutako hipotesia Orpustanen (2019: 103) eta Larrasqueten (1939) hiztegi sarrerek indartzen dute; autore hauek *par hasard/ peut-être* itzultzen baitute frantsesera *ote* partikula:

(260) *ote*: est-ce que, est-ce que par hasard? (Orpustan 2019: 103)

(261) *othe* [óthe]: ad. interr. Est-ce que par hasard...? (Larrasquet 1939)

Par hasard edo *peut-être* itaun batean agertzeak galderaren indarra leuntzea dakarrela esango nuke eta, ondorioz, entzuleak ez du hain zuzen hautematen; esaterako:

(262) ¿Se puede por casualidad fumar aquí?

(263) On peut fumer par hasard ici?

Laburbilduz, *ote* partikulak erabilera bereizgarri bat sortu du ipar-ekialdeko hizkeretan; hots, jatorrizko erabileran galderetan indarra apaltzen den neurrian galdera konjekturalak sortuta, hizkera horietan bere indarra leuntzeak gizalegez itauntzen delako inpresioa dakar, galderak ez baitira hain zuzenak edo mehatxagarriak.

5.4.7 *Perpaus amaierako partikulaz: interpretazio bereizia*

Aurreko azpiatalean ipar-ekialdean aurkitzen den erabilera pragmatiko berri bat aztertu dut; oraingoan partikulak ez du azalean ez sintaktikoki, ez pragmatikoki erabilera estandarrean bezala jokutzen. Hona hemen literaturatik eta elkarrizketatik jasotako adibide batzuk:

(264) Orain gazte batekin zirea *ote*? (Thikoipe 2009: 58)

(265) Baina, erotzen ari direa *ote*? (ibidem: 152)

(266) Ez girea bilkurarat gomitatua *ote*? (ibidem: 155)

(267) Ez ahal duk besterik egiteko *ote*? (ibidem: 134)

(268) Ez ahal duzu horren berri ukan zuk *ote*?⁴⁸

Sintaxia aurrerago (§7.6) xeheki arakatuko dudanez, adibide hauetako partikularen interpretazioari ekingo diot orain. Hasteko, galdera hauek guztiak berez erretorikoak dira. Dena den, izaera hori ez datorkio partikulatik, 5.5 atalean aditzera emango dudanez; izan ere, *ote* partikula kenduz erretorikotasuna mantentzen da.

Erabilera orokorrarekin alderatuta igartzen den lehenengo desberdintasuna honakoa da: (264-268) bezalakoetan partikula modala intersubjektiboa da (ikus Izutsu eta Izutsu 2013), hiztunaren eta entzulearen arteko interakzioarekin zerikusia duela dirudi alegia. Are gehiago, erabilera orokorra bakarrik duten hiztunek ez dituzte *ote*-ren testuinguru hauek onartu ohi, *ote* kokapen ohikoa (i.e. aditz jokatuaren aurrean) agertuta ere; esaterako:

(269) Orain gazte batekin (**ote*) zaude?

(270) Gu ez (**ote*) gara gonbidatuak? / Ez (**ote*) gaituzte gonbidatu?

Beraz, horrek iradokitzen du erabilera orokorrerako proposatutako interpretazioa ez dagoela indarrean horrelako testuinguruetan. Konpara ditzagun orain (264-268) adibide hauek 5.4.5 azpiatalean jorratutakoekin: (264-268) bezalako adibideek eta (271) adibidearen modukoek egitura sintaktiko bera dutela ematen duen arren, pragmatikoki desberdinak dira, bigarren motakoek interpretazio subjektiboa, eta ez-intersubjektiboa, baitute. Hots, bateko, hiztunak ez dio inori galdera zuzentzen, ez baitu erantzunik jasotzea espero eta, besteko, hiztunaren prozesu mentala adierazten du:

(271) To! Olaberriko Zaaiztian horri, ganerrian tella'at haiziak higitu dakoia *othe*?
(Etxamendi 2010: 151)

⁴⁸ Elkarrizketetan perpaus hori ez ezik, hurrengo ere proposatu nien hiztunei euren iritzia gramatikala jasotzeko:

(i) Zure gurasoek ez dute lan egin ote?

Kasu bietan hiztunek ez dituzte aho batez onartu; beraz, hiztunen iritzietan eta literaturan dokumentatzen diren kasuen hedapen geografikoan oinarrituz, jokabide hori nafar-lapurteraren eremu mugatu batera zabaltzen dela ondorioztatzen dut, gaur egun behintzat, Erronkarin ere lekukotuta baitago. Dena den, ez dago zalantzarik erabilera azpidialektala dela.

Zaila da testuinguru horietan partikulak zer dakarren zehaztea, lekukotasun gutxi direlako eta, 5.5 atalean azaltzen dudan bezala, partikulek galdera erretorikoetan duten ekarpena argitzea ez delako erraza, aurretik galdera mota horren gaineko azterketarik egiten ez bada. Dena den, adibide horiek ahalik eta xehetasun handienez aztertuz gero, ondorengo ezaugarriak azpimarratuko nituzke.

Alde batetik, hiztunak testuingurutik delako uste bat inferitzen du eta entzuleari galdera moduan aurkeztuz begi bistakoa balitz bezala uler dezala nahi du, alegia entzulearen eremu partekatua zati izan dadin. Deskribapen hori bat dator neurri batean 5.4.4 azpiatalean jorratutako egiturarekin; egia esan, helburu hori lortzeko hainbat baliabide dituzte hizkuntzek (Malamud eta Stephenson 2014). Jakina, hiztunak begi bistakoa denarekin jolas dezake; hau da, (264) adibidean bere helburua entzulea zirikatzea denez, entzulea gazte batekin oheratzen delako proposizioa eremu partekatua izango balitz bezala aurkeztu nahi du hiztunak, nahiz eta ez dakien egia *ote* den edo nekez ondoriozta litekeen hori testuingurutik. Izan ere, zirikatze hori lortu besterik ezin da egin, galderako proposizioa eremu partekatukoa edo begi bistakoa izango balitz bezala jotzen bada.

Beste alde batetik, (224-227) bezalakoetan, 5.4.4 azpiatalean esan bezala, hiztunak ez du zalantzarik erakusten, segurtasun handia baizik. Horrelako testuinguruetan partikulak zalantzak adierazten dituen arren, perpausaren pragmatikak kontrako interpretazioa dakar. Era berean, galdera erretorikoek proposizioaren kontrako interpretazioa dakartela esan dut arestian; beraz, oraingo testuinguruak erretorikoak diren heinean, ez litzateke harrigarria izan beharko *ote*-k proposizioarekin duen segurtasun handiaren kutsua hautematea.

Ezaugarri hauek aintzat hartuta, perpaus amaieran agertzen den *ote* hori duten testuinguru horietan hiztunak entzuleari galdetzen dion proposizioarekin bat egiten du eta entzuleak berarekin bat etortzera behartzen du. Esaterako, (264) adibidetik berriro abiatuta, arestian azaldu dut testuinguru horretan hiztunak proposizioa eremu partekatua parte izango balitz bezala aurkezten duela, nahiz eta kasu horretan horren aldeko ebidentziarik ez daukan; honez gain, hiztunak entzuleak proposizioaren edukia onar dezala nahi du. Hortik dator, beraz, esaldiak duen zirikatze kutsua, ebidentziarik gabe entzulearen *integritatea* zalantzan jartzen duen proposizioa begi bistakoa eta jakina dela adierazten baita eta entzuleak horrekin bat egitera behartzen baitu. Halaber, gainerako adibideetan azalbide bera proposatzen dut; esate baterako, (268) adibidean entzuleak beste zereginak dituelako

errealitate ukaezina izango balitz bezala aurkezten du hiztunak eta entzulea ideia honekin bat etortzera behartu nahi du, ihesbiderik eman gabe.

Hona hemen (264-268) adibideetako testuinguruak orain proposatutako interpretazioa argiago geratuko delakoan:

(272) A: Ez dauzuet sekulan kondatu zer gertatu zautan ezkondua fite? Gau batez ohoin bat etxea arrotzen ari zautala ez nintzala ohartu ere?

B: Zer, ez xinuen ikusia? Xaxi, kezkatua.

A: Ikusia ninan, bai, baina uste ninan ene senarra zela bere galtzerdien xerkatzen ari! Irriz itoka gure Maika.

C: Ez ninan uste ezkondua hintzanik, hi! Maitexa kurios.

A: Ezkondua izana ba, baina badakin, zahar batekin lo egitea zer laztura! Arnas estuka.

B: *Orain gazte batekin xireta ote?* Xaxik ere kitzikatu nahiz.

A: Bai, bai, eta harekin lo egitea zer lana! Hi, hi, hi! (Thikoipe 2009: 58)

(273) A: Nundik jakina duzu hori?

B: Telefonoan ukan dut herriko biztanle bat, elkartekide den bat, segura...

A: Eta mekanikak ekarri dituztela ibar zolarat?

B: Bai, ba omen da bat baino gehiago, traktore, pala, kamioi eta beste...

A: *Baina, erotzen ari direta ote?* Barda berean prefeta ukan dut telefonoan eta segurtatu daut lanak ez zirela hasiko haren baimena gabe!

B: A! Haren baimena gabe? Baimena berdin gauaren barnean eman duke. Eta enpresa erraldoi horrentzat ttantto bat baizik ez en prefetaren baimenaz pasatzen ahal da! Askidu gobernuko arduradun bat abisatzea. (ibidem: 151-152)

(274) A: To, to, to! Nor deabru tiak horiek? Badut xingola eta girgileria hot!

B: CRSak! Errana nian ba!

A: Ez dituk bakarrik jinak, beren nausitxoak ere hor die!

B: Prefeta duk ez?

A: Iduriz ba, zangoak zikindu beharko tik aldi huntan!

B: Eta ez duk oino fini: so egizie nor den haren gibeletik! Nausia! Enpresako nagusi handia!

A: Jia! Zer pasatzen da, lanen blokatzea ez zaiek gustatzen iduriz!

B: Beharrik egin dugula! Ez zitian sekulan higituko bestenez. Biba gu!

C: ALAIakoak ere hor dituz, baina hek ez dituk merzedezian jinak! Botak soinen ditie bederen, atzoko labasien ondotik beharrezkoak dituk, ba!

A: Eta gu, zer gira ba? *Ez girea bilkurarat gomitatuak ote?*

B: Bai, bai, lasai. Jaun mera eta bi herritar “propriak” uste diat entzun dutala!

C: Joanen nitzaiek ba ni ene atorra zikinaikin, beharko tie ba zudur ziloak tapatu, mekauden la... (ibidem: 154-155)

(275) “Sarri artio” erran ondoan, joan zen leihatilaren hestera. Gero, usaia zuen bezala, jan-gelara joan zen, burasoak hor ez izanez gosaldtu eta telebista aitzinean plantatu eskolako lanak mahai gainean zituela behar orduko.

A: A, beti telebista tzar horren aitzinean, hi! *Ez ahal duk besterik egiteko ote?* Galdegin zion amak sartu bezain laster. Haugi afaltzera orain, prest duk!

Nikolasek pantaila itzali zuen, kartabla goititu eta mahaian jarri afaltzeko (ibidem: 134)

Laburbilduz, *ote* partikula esaldi amaieran agertzen deneko galderetan hiztunak testuingurutik ondorioztatutako ideia bat plazaratzen du eremu partekatua eta begi bistakoa izango balitz bezala, 5.4.4 azpiatalean jorratutako erabileraren ildotik, eta entzuleari bera zuzentzeaz gain, proposizioa onartzera behartzen du ihesbiderik gabe. Hala ere, erabilera horrek eremu dialektal eta pragmatiko txikia edukitzeak bere azterketa zailtzen du; beraz ezin dut ekarpen handiagorik egin, etorkizunerako utzi beharko dut *ote* partikularen pragmatikalizazioaren azterketa sakona.

5.4.8 *Bateraezintasuna ezbaian*

Euskaraz ohiko partikula modalak banaketa osagarrian daudela eman dut aditzera 4.3.6 azpiatalean. Gainera, propietate hori ez bide da ohikoa beste hizkuntzei erreparatuz gero; Cinquek (1999) bere azterketa kartografikoan erakusten duen bezala, konbinazioak askotarikoak izan daitezke. Euskarazko partikulei dagokienez, 4.3.6 azpiatalean frogatu dut ekialdeko *-a* markatzaile interrogatiboa *ote* partikularekin batera ager daitekeela; esaterako:

(276) Miñarri mendiaren sabela gatzez beterik *ote* datekea? (Camino 2017: 500)

Partikula modalen artean, ordea, ezinezkoa da bat baino gehiago agertzea:

(277) *Mendira joan *omen bide* da Per. / *Mendira joan *bide omen* da Per.


Dena den, *ahal* eta *ote* bateragarriak direla agertzen zaigu:

(278) Ez *ahal* duzu *ote* horren berririk ukan? (= 235)

(279) Ez *ahal* duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134) (= 267)

Aurreko 4.3.6 azpiatalean bateraezintasun horren arrazoa (sintaktikoa edo semantikoa) zein izan ote litekeen galdera erantzun gabe utzi dut; orain, ordea, adibide hauek abiapuntu hartuta, auzia argitzeko moduan nagoela esango nuke. Adibide horietan *ahal* eta *ote* perpaus berean agertzeak argudio sintaktikoaren alde egiten du; hots, partikula modal bat baino gehiago ezin da azaldu gune bera okupatzen dutelako, *ahal* eta *ote* partikulen kasuan behintzat, izaera sintaktiko desberdina dutenean bateragarriak baitira. Izan ere, adibide horietan agertzen den *ote* mota ez da orokorra, 5.4.5 azpiatalean jorratutako ekialdeko hizkeretako bereizgarria baizik; horrelako kasuetan, 7.3.4 azpiatalean argudiatuko dudan bezala, *ote* ez da beste partikula modalek okupatzen duten gunean agertzen eta, ondorioz, honek beste partikula modal bat azaltzea ahalbidetzen du:

(280)



Proposizioari egiten dioten ekarpenaren aldetik partikula horiek ez bide lirateke oso bateragarriak izango *ahal*-ek segurtasun handia eta *ote*-k zalantzak adieraziko balituzte; dena den, atal honetan proposatu dudana bezala, *ote*-ren bitartez hiztunaren barne hausnarketa adieraziz gero, ez legoke partikula biak bateraezinak izateko arazorik. Gainera, (278-279) adibideak galderak dira, are gehiago (279) galdera erretoriko argia da. Geroagoko 5.5 atalean aditzera emango dudanez, partikula horiek galdera erretorikoetan agertzen diren arren, orain arteko iritziaren kontra partikulek ez dituzte galderak erretoriko bihurtzen; aitzitik, berez galdera erretorikoa den horri ekarpen interpretatiboa egiten diote. Testuinguru horiei gehitzen dioten ekarpena argia ez bada ere eta oraindino asko ikertzeko badago ere, horietako batzuetan, 5.4.4 azpiatalean aztertu dudanaren ildotik, *ote* erabiliz hautematen den interpretazioan hiztunak proposizioarekin guztiz bat egitea aukera bakarra izango balitz bezala aurkezten du.

Horiek horrela, testuinguru erretorikoetan funtzio ez oso desberdina duten partikula bi agertzea ez da harrizkoa 4.3.6 azpiatalean plazaratutako alemanezko *doch* eta *ja* partikulen egoera gogoan edukiz gero; alegia, partikula horiek testuinguru deklaratiβοetan azaltzen direnean, antzeko ekarpena egiten diote proposizioari (Repp 2013; Döring 2016) eta, dena dela, bateragarriak dira. Bateragarritasun hori azaltzeko proposatu izan da (Repp 2013;

Döring 2016) *ja*-ren eremu interpretatibo osoa *doch* partikularen zati bat dela, 4.3.6 azpiataleko (103) adibidean irudikatu dudan bezala. Hau aintzat hartuta, antzeko egoera proposa liteke *ahal* eta *ote* partikuletarako, biek proposizioaren gaineko balorazioarekin zerikusia baitute, baina *ahal*-ek bakarrik erakusten du eremu interpretatibo murriztagoa, i.e. konpromiso maila handia:

(281)



Hala ere, kapitulu honetan zehar aitortu dudanez, ikerketa sakona behar du partikula horien alde semantiko-pragmatikoak hipotesi sendoak aurkeztu ahal izateko.

5.4.9 Laburpena

Atal honetan zehar *ote*-ren interpretazioa, edo interpretazioak, aztertu ditut eta bere erabilera nahiko homogeneoa den arren, ekialdeko hizkeretan erabilera bereizgarri bi garatu dituela proposatzen dut. Lehenengoz, erabilera orokorrean *ote*-k hiztunak proposizioaren gainean egiten duen gogoeta edota prozesu mentala adierazten du; hortik abiatuta gramatiketan jaso diren erabilera bi nagusiak azal daitezke: hiztunak proposizioaren inguruan darabilelako inpresioa, bere buruari galdetuko balio bezala interpreta daiteke (§5.4.1) eta, bestalde, proposizioaren egiazkotasunaz pentsatzeak zalantzak edukitzeko irudipena ekar dezake (§5.4.2). Honez gain, ipar-ekialdeko hizkeretan orokortzen dabilen *ote*-ren erabilera pragmatiko berezia dugu (§5.4.6): horrelako adibideetan hiztunek informazioa jaso nahi duten galderetan zuzentasun maila apaltzea eta entzuleak galdeketa batean dagoela ez sentitzea ditu helburu partikularen erabilera horrek; datu tipologikoen ideia horren alde egiten dute, erabilera bertsua baitute errumanierazko *oare* eta mandarinerazko *ha* partikulek, besteak beste. Azkenik, esaldiaren amaieran agertzen den *ote* mota dugu (§5.4.7); nahiz eta bere interpretazioa argitu beharko litzatekeen, ezaugarri berezi bi mahaigaineratu ditut: bateko, erabilera hau ez duten hiztunek ez lukete *ote* testuinguru horietan erabiliko, ohiko kokapenean egonda ere; eta, besteko, *ote*-k horrelako kasuetan ez du hiztunaren ikuspuntua

bakarrik adierazten; aitzitik, hiztunaren eta entzulearen arteko hizketa-txandan eragina eduki nahi du.

5.5 *Excursus* labur bat: galdera erretorikoak

Aurretik (§2.5) pragmatikaren aldetik bereizten diren galdera motak jorratu ditudanean, aukeratutako sailkapenak bat zetozen hainbat motatan; horietako bat galdera erretorikoena izan da. Euren ezaugarri hauek nabarmendu ditut: a) proposizioaren polaritatearen kontrako balioa adierazten dute; b) galderaren erantzuna ezaguna da; eta c) informazioa eskatu gabe, baieztapen baten irakurketa dute. Lehenengo propietatearen gainean ez dela beti horrelakoa argudiatzen dute Biezma eta Rawlinsek (2017); autore hauek erakusten dute galdera erretoriko batzuetan ez dela kontrako polaritateko perpausa adierazi nahi, polaritate bereko perpausa baizik. Adibidez:

(282) [A-k oso gauza ergela egiten du:] Are you an idiot? (Biezma eta Rawlin 2017: 303)

Euskaraz ere horrelako adibideak topa daitezke:

(283) a. Txoaute *al* gea?

b. Ehotia hiza Martin? (Etxamendi 2009: 151)

c. Ez *ahal* zarete aski turruttak izanen horien sinesteko eta lehen jinari zuen buruaren eskaintzeko? Ez *al* (sic) duzue hamar minutuko plazer ergel batengatik zuen edertasuna galduko? (Landart 2017: 18)

Gauzak horrela, pentsa liteke euskaraz galdera erretorikoen polaritatea ez aldatzea *a(ha)l* partikularen bidez lortzen dela; halere, hipotesi hori baztertu behar da hurrengo adibideak iradokitzen duen bezala:

(284) Eta bereziki, erranen ziolarik senarra zertan akusatua zen, ez *ahal* zuen burua galduko? (Landart 2017: 55)

Honez gain, beste galdera motek ez bezala, honek ez du erantzunik jaso behar; hots, ez da erantzunik espero. Hala ere, horrek ez du esan nahi ezin direnik erantzun, erantzutea aukera bat baita (Escandell 1987: 502; Biezma eta Rawlins 2017):

- (285) - Gure euskal lurrez, emeki, emeki kanpotiarrak jabetuko ditun, gu, gure etxen, arrotz bilakatur... Hori onartzen *ote* dun?
- Errana deat ezetz! (Landart 1983)

Galdera mota hori oro har deskribatuta, begira diezaiegun berriro tesi honen ikergaia diren *-a, al* eta *ote* partikulei. Jakina denez, hiru partikula horiek galdera mota honetan azaltzen dira, beraz testuinguru horren azterketa gai saihestezina dela dirudi:

- (286) Ehotia *hiza* Martin? (Etxamendi 2009: 151) (= 283b)
(287) I ganbaratik ondo *al* ao? (Castillo eta beste 2001: 58)
(288) Maite *othe* dut bethi Eskual-Herria bere etche, eta eliza, bere phentze eta mendi patarrekin? (Salaberry 1957)

Interpretazioaren aldetik interesgarria izan liteke partikula horiek galdera erretorikoetan duten ekarpena ikertzea. Dena den, tesi honen helburu nagusia, i.e. partikula horien analisi sintaktikoa, dela kontuan hartuz gero, azterketa horrek ez dakar ezer berririk, partikulek galdera erretorikoetan nahiz beste motakoetan sintaktikoki berdin jokatzeko dute eta. Gainera, lan horri heldu baino lehen, euskarazko galdera erretorikoak zelan osatzen diren eta zelan funtzionatzen duten argi eduki beharko litzateke, partikulak gehitzean baliabide bakoitzaren funtzioak argiago ikusteko. Zoritxarrez, euskalaritzarako garrantzi handikoa den eremu hori landu gabe dago egun eta, ondorioz, ezin dut partikulek galdera erretorikoetan duten ekarpena behar bezala aztertu. Alegia, galdera mota honen azterketa hasieratik abiatu beharko litzateke, euskarazko galdera erretorikoak osatzen diren baliabideei eta interpretazio desberdinei erreparatuz.

Irudi lezake euskaraz partikula horien bidez galdera erretorikoak markatzen direla, hainbat gramatikak (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 316; de Rijk 2008: 164-165) horrela

iradokitzen dute eta. Hala ere, partikularik gabeko galdera erretorikoak osa daitezke, baita partikula horietako bi dituztenak ere:

(289) Motell!! eztek pentsauko ba azidentie izen huanik? (Azkoitia 2016: 55)

(290) Ez *ote* deia arren deüs ere etxe hontan guretako? (Davant 2008: 76)

Egoera honek alemanezkoa gogorarazten du, hizkuntza horretan ere partikulak galdera erretorikoetan agertzen baitira eta kasu batzuetan partikula bi azaltzen dira; esaterako *denn* eta *schon* partikulak galdera erretoriko berean ager daitezke:

(291) Wer will *denn schon* in einem Arbeitszimmer mit Blick auf die
 nor nahi P P IN bat.DAT lan-gela COM bista LOK ART.FEM
 Wand sitzen?
 horma eseri
 ‘Nork egon nahi ote du bulegoan hormari begira eserita? (Gödeke 2019: 50)

Partikula hauen bateragarritasuna honela azaltzen dute: *schon* partikulak erretorikotasuna sortzen duen bitartean, *denn* partikulak beste testuinguruetan identifikatutako ekarpena (5.2 atalean jorratutakoa) egiten dio galdera mota horri, i.e. kasu honetan erretorikotasuna indartzea. Beraz, alemanezko partikula modalak semantikaren eta pragmatikaren aldetik luze ikertu diren arren, gaur egun eztabaidagarria dira bakoitzak testuinguru horretan dituen funtzioa eta ekarpena (ikus Gödeke 2019 hurbilketa berri baterako). Euskarazko datuei berriro erreparatu gero, partikulak testuinguru horretan erabiltzeko arrazoia ez dago galdera mota hori markatzeko funtzioarekin lotuta; aitzitik, bestelako zeregina eduki behar dute. Analisi hori interes handikoa den arren, tesi honen helburuetatik urrun dago; dena den, ondoren partikulek galdera erretorikoetan bete litzaketen funtzioen lehenengo hurbilketa plazaratuko dut, aurretik (§5.2, §5.3 eta §5.4) esleitutako interpretazioa eta funtzioa gogoan edukiz. Hala ere, euskalki guztietan dokumentatzen diren partikula biak bakarrik ikertuko ditut, i.e. *a(ha)l* eta *ote*. Agerian denez, *a(ha)l* forma darabilt eta ez *al*; honen arrazoia 5.3.1 azpiatalean aditzera eman dut: *ahal* / *a(ha)l* partikula euskalki guztietako galdera erretorikoetan lekukotzen da. Hori dela eta, euskalki guztietako *a(ha)l*-en datuak erabiltzea

hobesten dut oraingo analisirako, erdialdeko hizkeraren ezaugarria bereizia den *al* partikula baztertuta. Halaber, ekialdeko *-a* partikula albo batera utziko dut beronek, *a(ha)l* eta *ote* partikulek ez bezala, ez baitu semantikarik; aitzitik, hiztunak zelan aurkezten dion entzuleari proposizioa adierazten baitu: 5.2 atalean esan bezala, hiztunak entzuleari bidalitako perpausa aintzakotzat hartu beharrekoa dela nabarmentzen du partikularen bitartez eta entzuleak perpausaren indarrak eskatzen duena bete dezala besterik ez duela hiztunak mementu horretan nahi; hots, informazioa jaso nahi duen galdera bat bada, erantzuna eman dezala indarrez azpimarratzen du partikularen erabilerak. Galdera erretorikoetan partikulak duen funtzioari erreparatuz gero, honako ekarpena duela proposatzen dut: erretorikotasuna indartzen da (Gödeke 2019), entzuleak proposizioa bere eremu partekatuari gehitzea nahi du hiztunak alegia. Esaterako:

(292) Ze'ute guk bano geihao? Bizi? Ta ez girea gu ere bizitzen? (Etxamendi 2010: 153)

Bestalde, *ahal* eta *ote* ager daitezke galdera erretorikoetan. Zentzuzkoena da partikula horien ekarpena agertzen direneko beste testuinguruetakoa izatea; dena den, bien arteko desberdintasunak oso lausoa dirudi, hala behintzat adierazi dute elkarrizketatuek.

(293) a. Jainkoak ez *ahal* gaitu gu, txoriak baino maiteago?

b. Jainkoak ez *ote* gaitu gu, txoriak baino maiteago?

Badirudi, beraz, partikulak trukagarriak direla; hala ere, horrek ez du esan nahi ekarpen berdintsua dutenik, hiztunek bakoitzak irakurketa desberdina duela aditzera ematen baitute. Halaber, ekonomiaren aldetik ez luke zentzurik edukiko funtzio eta ekarpen bera duten partikula biak mantentzeak, horietako bat desagertu edo ezpezializatu beharko zen. Dena den, hasieratik bereziak izan direlako ideia onartzen dut. Ondorengo adibideei berriro begiratzuz gero, testuinguru desberdintsuak eman zitzaizkien hiztunei eta batean *ote* eta bestean *a(ha)l* erabili bazuten ere, bietan partikula biak zilegi zirela eman zidaten aditzera. Ikus ditzagun testuinguru horiek. Lehenengoaren testuingurua honakoa zen: Hitlerrek Frantzian sarraski ikaragarria egin zuela esaten dio A-k B-ri; kasu honetan B harritzen da gertaera hori ezaguna baita eta *ote* partikula hobetsi zuten hiztunek.

(294) Saintu bat *ote* zen ba Hitler?

Bigarrenaren testuingurua antzekoa da, honetan ere B harritzen baita, A-k Francok gauza on asko egin zituela esaten dionean. Aldi honetan harridura ez dator B-k kontsideratzen duelako A-k historiaren zati baten ezjakintasuna duela; aitzitik, jende gehienak pentsatzen duenaren kontrakoa delako. Horretan *a(ha)l* partikula nahiago izan zuten hiztunek:

(295) Saintu bat *a(ha)l* zen ba Franco?

Hartara, adibide horien arteko aldea B-k proposizioaren gaineko ebaluazioan eta bere adostasunean datza. Bestela esanda, lehenengo kasuan gauza jakina da Hitlerrek sarraski ikaragarria burutu zuela Frantzia ez ezik, Europako herrialde askotan; beraz, jende gehienak esaldi horrekin bat egingo lukeenez, zentzurik gabeko esaldia iruditzen zaio B-ri, begi bistakoa eta informazioa berria ez dakarrena delako, eremu partekatuari ezer berririk gehitzen ez diona alegia. Bigarren kasuan, aldiz, gauza jakina da Franco diktadore bat izan zela eta, horrenbestez, ona ezin izan zela izan. B-k entzuten duenean gauza on asko egin zituela harritzen da jende gehiena ez litzatekeelako esaldi horrekin bat etorriko; hori dela eta, A-ren eremu partekatua eguneratu edo nahiko lukeela ematen du Franco ez zela santu bat oroitaraziz. Interesgarria da lehenengo kasuak 5.4.4 azpiatalean arakatutako *ote* partikularen erabilera hori gogorarazten duela; hots, horrelako testuinguruetan hiztunak *ote* erabiltzen zuten esandakoa begi bistakoa zela adierazteko; esate baterako:

(296) -Joseba mutil ona da. -*Ete* dan ba! (= Jakina ona dela, ez dago inongo zalantzarik, hori galdetzea ere...)

Antzeko irakurketa eman zuten hiztunek hurrengo adibidean: aita batek ez daki bere semea independentziaren aldeko mugimenduetan dabilela; horren berri duenean emazteari kontatzen dio eta andreak erantzuten dio:

(297) Ez *ote* dakizu zure semea separatista dela?

(298) Ez *a(ha)l* dakizu zure semea separatista dela?

Adibide horien arteko alde aurreko adibideenarekin bat dator. Alde batetik, *ote* partikula erabiliz gero, ematen du informazio hori ezagutu behar zuela aitak eta esateak berak ama harritzen du informazio berririk eta interesik gabekoa iruditzen zaiolako; ondorioz, amaren esaldi horrek markatu nahi du aitarenak ez diola eremu partekatuari ekarpen berririk egiten. Beste alde batetik, *a(ha)l* partikula erabiliz gero, kasu honetan ere ematen du aitak jakin behar zuela eta ama harrিতa dago aitak ez zekielako; beraz, amak bere esaldiaren bitartez aitaren eremu partekatua eguneratu nahi duela proposatuko nuke.

Hasieran esan bezala, gai honek azterketa sakona behar eta merezi du eta oraingoak lehenengo urrats txiki bat besterik ez du izan nahi. Egia esan, testuinguru hauetan *a(ha)l* eta *ote* kontrajarriz irakurketa bereziak dituztela dirudien arren, kontua konplexuagoa izan liteke testuinguru jakin batean partikulek banaketa geografiko desberdina dutela ematen baitu:

(299) Upelian jaiotzen dala uste *al* dek ba? (Altzaga 1994: 158)

(300) Uste *ote* dun, beti burua apalduko dugula gure kaltetan ari diren jaun-andereen aintzinean? (Landart 1983)

Testuinguru honetan *uste* aditza eta bere osagarria, mendeko perpaus bat, agertzen dira beti, benetan elkarrizketan hizpide dena mendeko perpausean islatuta ere. Adibideetatik ondoriozta daitekeenez, erdialdeko euskalkian *a(ha)l* gailentzen da, aukera bakarra ez bada; ekialdeko hizkeretan, ordea, *ote* ageri da. Honek dakartzan galderak dira: a) testuinguru honetan ekarpen berdina egiten dute partikulek?; b) zein desberdintasun dago (299) eta (300) adibideen artean bigarrenak partikulen banaketa zorrotzagoa eduki dezaten?; c) hedapen geografikoa kontuan hartuta, (balizko) galdera partikulena gogorarazten du; beraz, *a(ha)l* eta *ote* horiek eremu geografiko horietako *al* eta *ote* galdera partikulak izan litezke?; eta d) zergatik erabiliko lirateke testuinguru horretan galdera partikulak, partikula modalen ordeztu?

Galdera hauek erakusten dute gai honek ez duela datu gutxiko eta azaleko azterketa bat merezi eta etorkizunean beren-beregi ikertu beharko lirateke bai testuinguru horietan partikulek duten funtzioa, bai oinarritzko galdera erretorikoak ere.

5.6 Kapituluaren laburpena

Kapitulu honetan tesi honen aztergai diren *-a*, *al* eta *ote* partikuletara hurbildu naiz ikuspuntu interpretatibo batetik. Hartara, partikula horien ekarpen interpretatiboa edo funtzioa argitzeari ekin diot; dena den, hasieran esan dudan bezala, helburu xumea eduki dut gogoan, azterketa semantiko batek luze joko bailuke eta monografiko bat mereziko luke. Honako funtzioa identifikatu diot partikula bakoitzari:⁴⁹ a) ekialdeko partikularen bidez hiztunak entzuleari bidalitako proposizioaren indarra nabarmentzen du berarengan erantzun bat sortu nahi duelako eskaera indartuta, hori besterik ez duela entzulearengandik espero adierazita; b) erdialdeko partikularen bitartez, ordea, entzuleari ‘bai’ eta ‘ez’ elkarrizketa bortxatu gabe erantzun dezakeelako aukera ematen zaio, hiztunaren jarrera eta iritziek balizko erantzun eremuan eduki dezaketen eragin murriztatzailea eta berarekin bat etortzeko nahia txikiagotuz; eta c) *ote* partikularen kasuan hainbat erabilera bereizi ditut; hala ere, funtsean puntu beretik abiatzen dira: *ote* erabiliz hiztunak proposizioarekin guztiz bat egiten ez duen gogoeta mentala adierazten du. Azken partikularen interpretazio horrek azalbidea ematen die: a) testuinguru ez-interrogatiboetan duen ekarpenari, i.e. zalantza edo segurtasunik eza; b) galderetan duen interpretazioari, tipologikoki horrelako partikulek galdera konjekturalak sortzen baitituzte; c) partikula foku baten ostean bakarrik agertzen deneko testuinguruei, hiztunak gogoan duen proposizioari ‘beharbada, agian’ ekarpena egiten baitio; d) edota ipar-ekialdeko hainbat hizkeratan garatutako erabilera berriari, hiztunak partikula hori erabiliz galderaren indarra leuntzen baitu. Honez gain, partikulek galdera erretorikoetan duten funtzioa aztertzen duen lehenengo hurbilketa xumea plazaratu dut, etorkizunerako ikerketa sakonagoa utzita.

Partikula hauen interpretazioa aztertzeko tesi honetan bildutako datuak eta gramatikak ez ezik, beste hizkuntza batzuetako partikulen gaineko analisiak ere hartu ditut kontuan. Halaber, partikulen historiari eta aldakortasun geografikoari heldu diet: batetik, *al* galdera partikula historikoki *ahal* partikula epistemikoarekin lotu dut eta, aldi berean, azken hau *ahal* aditz modalarekin; bestetik, *ote* partikularen jatorria aditza dela onartu eta ipar-ekialdeko

⁴⁹ Ekialdeko eta erdialdeko galdera partikulei esleitutako funtzioek ez dute galderaren adiera edo interpretazioa aldatzen. Egia esan, ohiko galderen definizioarekin alderatuta, ez dira asko urruntzen. Antzeko egoera topatzen da alemanez: Theilerrek (2019a) dioenez, diskurtso koherente batean *denn* partikula erabiltzeak ez du *nz*-galderen esanahia aldatzen, 5.2 atalean plazaratutako ekarpena (i.e. galdera baten erantzuna ematea nahitaezkoa dela markatzea) egiten dion arren.

hizkera batzuetan *ote* partikulak galdera partikula garatzeko bidea hartu duela proposatu dut. Hipotesi hori gogoan edukita, partikula bakoitzaren hainbat propietate azaldu ditut: *al* galdera partikula polaritatezko galderetara mugatzen da *ahal* partikularen ekarpenak perpaus oso bati eragiten baitio eta gramatikalizazio bilakabidean, oraingoz, propietate hori mantendu du, zama semantikoa galdu duen arren; *ote* partikula epistemikoaren kasuan ere aditz batetik eratorria delako hipotesiak indartu du bere interpretazioaren analisia, ‘ematen du, irudi du’ batetik proposizioaren gaineko gogoeta markatzera pasatu baita.

Bestalde, hiru partikulak ikertzeak partikula modalen artean talde bi bereiztea ekarri du, i.e. partikula performatiboak eta ebidentzial-epistemikoak (Rooryck 2001). Bateko, *-a* eta *al* galdera partikulak dira baina ez zentzu sintaktikoan, ez baitira nahitaezkoak galdera bat markatzeko; aitzitik, hiztunak entzuleari galdera zelan aurkezten dion zehazteko helburua dutela proposatu dut. Besteko, *ote* partikula dugu, *ahal*, *bide*, *ei* eta *omen* partikulekin batera multzoka litekeena, horiek guztiek perpausari modalitatezko ekarpen interpretatibo egiten baitiote, hala nola proposizioarekiko engaiamendu maila edo informazio iturria zein motatakoa den. Bereizketa honek, 6.3.1 azpiatalean eta 6.5 atalean aditzera emango dudan bezala, isla du syntaxian, esaterako, indar ilokutiboarekiko interakzioan. Geroago (§6.5) argudiatuko dut *ote* partikula indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan ager daitekeela 5.4.2 azpiataleko interpretazioa bakarrik eskura edukita; indar ilokutibodun testuinguruetan, ordea, berari eragiten badio, 5.4.1 azpiatalean plazaratutako interpretazioa ere lortzen da 5.4.2 azpiataleko ekarpenetik abiatuta. Dena den, aurrerago (§6.5) sakonduko ditut ideia hauek.

Honaino, beraz, kapitulu honetan landutako gaien laburpena; hurrengo kapituluan (§6) agerian geratuko denez, partikula horien ekarpena ezagutzeak jokabide eta murriztapen sintaktikoak azaltzea ahalbidetzen du. Orain jorratutakoak *-a, al* eta *ote* partikulen eratorbide sintaktiko zehatzagoa eraikitzen lagunduko didalakoan, seigarren kapitulura igaroko naiz partikula horien arteko desberdintasunei hurbilgotik begiratzeko eta euren azterbide sintaktikoan zer esaten diguten argitzeko asmoz.

6 -a, al eta ote partikulen jokabide sintaktikoaz: tasun bereizgarriak eta analisiak

6.1 Sarrera

Aurreko kapituluari honetan aztergai ditudan *-a, al* eta *ote* partikulen analisiari heldu diot; azterketa hori bitan banatzea erabaki dut: lehenengoan partikulen interpretazioa eta bigarreanean euren sintaxia ikertzeko. Partikula horien erabilera pragmatikoak arakaturik, kapitulu honetan sintaxiari begiratuko diot berriro, *-a, al*, eta *ote* partikulen ezaugarri sintaktikoei hain zuzen. Aurretik (§4.3) partikula modalen ezaugarriak deskribatu ditut eta propietate orokor horietatik ondoriozta daitekeen jokabidea argudiatu dut: a) aditz jokatuarekin bat egin eta hitz morfonologikoa osatzen dute; b) aditz jokatuaren gauzatzearen mende daude; c) kokapen finkoa dute; eta d) aditz jokatuarekin batera mugitzen dira perpausaren ezkerrean. Oraingoan hiru partikulak elkarrekin erkatuz, hainbat ezaugarri aztertuko ditut, euren artean edota jokabide orokorarekin alderatuta, eta hainbat irizpideren arabera desberdin jokatzeko dutela erakutsiko dut. Hauexek dira irizpideok: a) perpaus mailan duten kokapena (§6.2.1); b) partikula bana onartzen duten perpaus motak (§6.2.2); c) menderagailuei dagokienez dituzten murriztapenak (§6.2.3); d) alokutibodun formekin agertzeko aukera (§6.2.4); e) partikulen arteko bateragarritasuna (§6.2.5); f) DenbS-rik gabeko testuinguruetan partikula hauek duten jokabidea (§6.2.6); eta azkenik g) (§6.2.7) AS/aS-ren elipsoidun testuinguruetan agertzeko murriztapena. Propietate horiek

mahaigaineratuta, euren arteko interakzioari eta partikulen syntaxiaz dioskutenari erreparatuko diet: bateko, partikula horiek ez dute multzo homogenea osatzen (§6.3.1) eta, besteko, ez dute eremu sintaktiko bera okupatzen (§6.3.2). Ondoren, jokabide orokorretik eta propietate bereizietatik abiatuta, partikula horiek agertzen direneko testuinguruaren analisi sintaktikoa plazaratuko dut: a) ekialdeko galdera partikulak FokS-ren eta JokS-ren arteko Kanpo-Partikula Sintagmaren (aurrerantzean *K-PartS*) burua dela argudiatuko dut (§6.4.2); b) erdialdeko galdera partikulak AS/aS-ren eta DenbS-ren arteko K-PartS-ren burua okupatzen duela defendatuko dut (§6.4.3); eta, azkenik, c) *ote* partikula epistemikoa erdiko eremuko K-PartS delakoak osagarri hartzen duen Barne-Partikula Sintagmaren (aurrerantzean *B-PartS*) buru posizioan azaltzen dela proposatuko dut (§6.4.4). Amaitzeko, gramatika lanetan sarritan jorratu den gai bat ekarriko dut (§6.5), partikula modalen eta indar ilokutiboaren arteko eragina alegia. Partikula guztiek ez dutela horretan berdin jokatzeko frogatu ondoren, erakutsiko dut indar ilokutiboaren gauzatzeak zer dakarkion partikulen interpretazioari. Azkenik, indar ilokutiboa sintaktikoki modifikatzen duen eragiketa bat proposatuko dut, Bayer eta Obenauerren (2011) hipotesitik aldentuta. Kapituluaren egitura zehaztuta, partikulen arteko ezaugarri bereizgarriak aztertzen hasiko naiz jarraian.

6.2 Hiru partikulen arteko konparaketa: ezaugarri bereizgarriak

Aurretik (§4.3) partikulen ezaugarri orokorrak aztertu ditut; oraingoan hizpide edukiko ditudan ezaugarri jakin batzuk interesgarriak iruditzen zaizkit, horietako batzuk dagoeneko arakatu ditudan arren, *-a*, *al* eta *ote* partikulen arteko aldeak agerian uzten baitituzte. Horrek, pragmatikan erakusten dituzten desberdintasunekin batera, partikula horien analisi sintaktikoa zehazten lagunduko dit.

6.2.1 *Perpaus mailako kokapena*

Lehen (§4.3.1) partikulak deskribatzean ohiko partikula modalak aditz lexikoaren¹ eta aditz jokatuaren artean agertzen direla esan dut; ekialdeko *-a*, ordea, aditz jokatuaren ostean

¹ Egia esan, xehetasunez deskribatuz gero, partikula modalak aspektuaren eta aditz jokatuaren artean agertzen dira; hala ere, aspektua aditz lexikoari erantzen zaionez eta aditz lexikoaren izaera gailentzen denez, biek osatzen duten osagaiari *aditz lexikoa* iritziko diot.

azaltzen da, berari atxikita. Aurretik (§4.3.2) partikula modal horiek guztiak aditz jokatuari lotuz hitz morfonologikoa osatzen dutela ondorioztatu dut:

- (1) Bote gorri hori jaitsiko *al* ziezuke?
- (2) Zer nahi *ote* dute?
- (3) Min hartu duzia?

Ezaugarri hau partikula modal guztiena da; hala ere, ekialdeko hainbat hizkeratan *omen*-ek (Etxepare 2010; Etxepare eta Uria 2016) eta *ote*-k (Monforte 2015; 2019c; Trotzke eta Monforte 2019) bestelako jokabidea erakusten dute, i.e. ez dira aditz jokatuari lotuak azaltzen. Oraingoz jokabide kanonikoa aztertzeari ekingo diot eta auzi hau albo batera utziko dut, aurrerago (§7) *ote*-k hizkera horietan eduki dezakeen bestelako izaera sintatikoa ikertu arte.

Nabarmentzekoa da, dena dela, *-a*-k, batetik, eta *al* eta *ote* partikulek, bestetik, aditz jokatuari doakionez okupatzen duten kokagunea. Lehenengoa menderagailuekin banaketa osagarrian dagoela ematen du, gunere berean kokatzen baitira.² Azkenak, ordea, aditz

² Pentsa liteke menderagailuen eta partikula horren artean badagoela aldea, e.g. morfonologikoa. Alegia, ezaguna da menderagailuak aditz jokatuari eranstea, hainbat aldaketa morfonologiko gauzatzen direla; esaterako:

- (i) duk + -(e)la > duala
- (ii) dut + -(e)n > dudan

Ekialdeko partikulak, 4.3.2 azpiatalean erakutsitako bilakabide morfonologikoak eragin arren, ez du bat egiten (i-ii) bilakabideekin:

- (iii) duk + -a > duka, *duaa, *duea
- (iv) dut + -a > duta, *duda

Hala ere, partikula hau ageri deneko hizkeretan gaur egun menderagailuen eta aditz jokatuaren artean gauzatzen den bilakabide morfonologikoari begiratzen badiogu, konturatzen gara partikulek eta menderagailuek eragiten dituzten aldaketak berdina direla:

- (v) duk + -(e)la > dukala (cf. *duka*)
- (vi) dut + -(e)la > dutala (cf. *duta*)

Dena den, Caminok (2017) ohartarazten du menderagailuen eta aditzen artean sortzen diren aldaera hauek berriak direla eta aldaera zaharrak ez direla egun guztiz desagertu, *duana* 'dudana' kasu. Beraz, (i-ii) bezalako bilakabideak emankorrak eta ohikoak ziren, *-a* partikula erabiltzen deneko hainbat hizkeratan behintzat.

Gauzak horrela, esan genezake menderagailuak ez bezala, *-a* partikulak ez duela kontsonanteetan inongo aldaketarik sortzen.

jokatuaren aurretik agertzen dira, aditz lexikoeak perpaus deklaratio neutroetan okupatzen duten kokapena hain zuzen ere; gogora dezagun, gainera, partikula bi horiek aditzetatik eratorriak ei direla, *ote* partikula ***bo(C)-te* aditzetik (Lakarra 2019) eta *al* partikula *ahal* partikula modaletik eta azken hau *ahal* aditz modaletik (Monforte 2019b).

Beraz, perpaus mailako kokapenari dagokionez, bitan banatzen ditut partikulak:

(4)

	+Jokatua	_Denb	Denb_
<i>-a</i>	✓	X	✓
<i>al</i>	✓	✓	X
<i>ote</i>	✓	✓	X

Aurrerago (§6.3.2) aldarrikatuko dudan bezala, talde bi hauek 3.4 atalean jorratu ditudan egitura sintaktikoaren eremu desberdinei dagozkie, *-a* KonpS eremuari eta *al* eta *ote* DenbS eremuari, oraingo ezaugarri honetan eta jarraian jorratuko ditudan propietateetan oinarrituz.

6.2.2 Partikulak perpaus motaren arabera

Tipologikoki partikula modalak deskribatzeari ekin diotenek berauek ezin direla edozein perpaus motatan agertu esan ohi dute (Coniglio 2007a; Coniglio eta Zegrean 2012; Rapp 2018). Hori esanez honakoa adierazi nahi dute: a) partikula batzuk testuinguru deklaratioetan bakarrik ager daitezkeela eta beste hainbat, aldiz, perpaus deklaratioetan eta galderetan edo galderetan soilik; b) partikulak ezin direla edozein mendeko perpausetan erabili, indar ilokutibodunetan bakarrik; beraz ezin dira mendeko perpaus faktioetan, erdiko baldintzakoetan, toki eta denborazko perpausetan eta perpaus erlatibo murrizgarrietan (Coniglio eta Zegrean 2012). Izan ere, partikulek indar ilokutiboa modifikatzen dutela edo beroni eragiten diotela proposatzen dute (Thurmair 1989; Abraham 1991; Jacobs 1991; Zimmermann 2004; Coniglio 2007a; Coniglio eta Zegrean 2012) eta, beraz, horrelakorik ez balego, partikulen funtzioa ez legoke zilegizatuta. Aurreko kapituluan (§5) *-a*, *al* eta *ote* partikulen testuinguruak arakatu ditut, zer ekarpen interpretatibo duten eta zertan aldatzen dituzten perpaus motak; hona hemen bosgarren kapituluko datuez osatutako taula:

(5)

	<i>Nz</i> -gald	Polar gald	Dekl	Agint	Alegiazkoa
<i>-a</i>	X	✓	X	X	X
<i>al</i>	X	✓	X	X	X
<i>(ahal)</i>	(X)	(✓)	(✓)	(X)	(?)
<i>ote</i>	✓	✓	✓ _[-(e)m]	X	X

Partikula hauen eta indar ilokutiboen arteko harreman formala aztertu eta bera termino sintaktikoetan azaltzen duen hipotesi bat abiatu baino lehen mendeko perpausetan partikula hauek duten jokabidea ikertu nahiko nuke, lehen (§4.3) esan dudana bezala, *ote*-k ez baitu arestian aipatutako ezaugarri horren arabera jokatzeko; i.e. euskarazko partikula batzuk indar ilokutibodun testuinguruetan ez ezik, indarrak gabekoetan ere azaltzen dira. Beraz, oraingoan hirurik partikula horiek aztertuko ditut mendeko testuinguruetan agertzeko gaitasunik duten eta horrek partikula modalen azterketan zer inplikazio duen.

Lehenik, hirurik partikuletatik bat baztertu behar da bere erabilera perpaus nagusietara bakarrik mugatuta baitago, i.e. *-a*. Izan ere, murriztapen hau menderagailuekin banaketa osagarrian egoteari leporatu zaio (Monforte 2015; 2018):

(6) Hemen bizi de(**-a*)-n galdegin du. (Euskaltzaindia 1987)

Ezaugarri hau ez da batere arrotza beste hizkuntza batzuetako direlako galdera partikulei erreparatuz gero; alegia, tipologikoki galdera partikula guztiak ez dira menderagarriak eta multzo bitan bana daitezke: batetik, japonierazko *ka*-ren modukoak mendeko testuinguruetan azal daitezke eta, bestetik, mandarinerazko *ma* bezalakoak perpaus nagusietan besterik ezin dira erabili.³ Ikus dezagun jokabide bereizi hau hurrengo adibideetan:

(7) Watasi-wa Hanako-ni Tokyo-de umareta no ka tazuneta.
 ni-TOP Hanako-DAT Tokyo-IN jaio KONP P galdetu
 ‘Hanakori Tokyon jaio al zen galdetu diot.’ (Kuwabara 2013: 97)

³ Familia indoeuroparrean ere murriztapen hori topatzen da: Cruschinak (2012: 193) aditzera ematen duenez, *chi* partikula galdera zuzenetara dago mugatuta; beraz, ezin da zehar galderetan erabili.

(8) Hóngjiàn xiǎng zhīdào Xiǎofú huì zuò yú ma.

Honjian nahi jakin Xiaofu dezake sukaldu arrain P

‘*Honjianek bere buruari galdetzen dio ea Xiaofuk arraina sukatzten ote dakien.’

‘Jakín nahi du Honjianek Xiaofuk arraina sukaltzen dakiela?’ (Li 2006: 30)

Bestalde, beste partikulei erreparatuz gero, *al* eta *ote* mendeko testuinguruetan agertzen dira erruz:

(9) Entzuten *al* duzun galdetzen dizut. (de Rijk 2008: 442)

(10) Baño nik eztakit gauza orreatik *ote*’an. (Pikabea 2005: 220)

Dena den, *al* eta *ote* ezin dira edozein zehar galdera absolututan azaldu; Suñerri (1993) eta Ortiz de Urbinari (1999b; 2008) jarraituz, mota bi bereiz daitezke: galdera osagarriak eta erdi-galderak (Suñerren 1993 terminologiari jarraituz). Lehenengoetan *al* eta *ote* erabil daitezke (11); bigarrenetan, berriz, ez (12):

(11) a. Ea postrerik nahi *al* dezun galdetu dizut.

b. Baitta jentil oi badijo zuzen Beasaingo ola, gizonik an *ote* daon galdezka.

(Barandiaran 1972)

(12) a. Horrek badaki Aurora jubilatuko (**al*) dan, galdetu iezaiozu berari.

b. Badaki egia (**ote*) den.

Bestalde, 5.4.2 azpiatalean ohartarazi dudán bezala, zehar galderen azken motarekin nahas litekeen beste predikatu bat dago, ezagutza-, uste- eta konjektura-predikatuak (Dor 2005: 352) edo jarrera-predikatuak (Döring 2007: 24). Predikatu horiek, *verbum dicendi* delakoek ez bezala, hiztunak mendeko perpausaren egiazkotasunaz duen engaiamendu maila dakarte; honez gain, engaiamendu maila hori ez da publikoki adierazten, mentalki baizik (cf. Krifka 2017; Frey 2018). Mota horretako predikatuak honakoak dira:

(13) Begittendu jat ulixe *ete* ran. (Ormaetxea 2005: 298)

(14) Geixko esan *ote* dezun iduritzen zait. (Altzaga 1994: 101)

(15) %Nik uste neska amekakoa *ote* den eta mutikoa amarrekoa. (Montoya 2004: 211)

Adibide horietan igar daiteke *ote* bakarrik agertzen dela; egia esan, *al* ez da horrelako testuinguruetan emankorra. Hala ere, testuinguru jakin batean *al* erabil daiteke, Azkoitian eta Azpeitian behintzat:

(16) %Etzakiñat errentie paatzeko aillauko *altzakun*. (Castillo eta beste 2001: 51)

(17) %Eztakitt lurrin bueltaka ibiltze *altzean*, eo zer! (ibidem: 109)

Adibide hauek Azkoitiko hizkeraren gaineko lan dialektalean jasota dauden arren, Gipuzkoan elkarrizketa egitean, horien gaineko iritzi gramatikala galdetu nien hiztunei; erantzunak talde bi argi erakusten dituzte: batetik, Azpeitiko eta Azkoitiko hiztunek onartu zituzten; bestetik, Aiako eta Zumaiako hiztunek *al* partikularen ordez *ote* erabiltzen zuten edo partikularik gabe berregiten zituzten perpausak, *al* ezinezkoa baitzitzaizen testuinguru horretan erabiltzea. Izan ere, *ote* partikula (16-17) bezalako esaldietan erruz erabiltzen da:

(18) Ez dakit egia *ote* den.

(19) Eztakitt kalenturie ez *ote* dauketan. (Castillo eta beste 2001: 66)

(20) Ez dakigu François de Maytie apezpikuak berak idatzi *ote* zuen, ala horren manuz Belapeyrek. (Davant 2008: 19)

(21) Bergan estaitt diferente es *ete* dan. (Larrañaga 1998: 354)

(22) Baño nik eztakit gauza orreatik *ote*'an. Duda itte't. (Pikabea 2005: 220)

(23) Etzeki'pa, motell, naiko korrenta ez *ote*'akaun! (ibidem : 235)

(24) Ez dakit Goi Jaun aundiak nere txepelkeria zigorkatu ez *ote* duen. (Altzaga 1994: 103)

Honek (hiztun guztiek *ote* partikula epistemikoa horrelako testuinguruetan onartzeak) pentsarazten dit ea ez ote den *ahal* (16-17) adibideetan azaltzen den partikula, erdialdeko *al*-en ordez. Lehen (§5.3) aditzera eman dudana bezala, erdialdeko hizkeretan badaude *ahal*-en testigantzak, elkarrizketatutako hiztun gehienek egun onartzen ez badituzte ere:

- (25) Debarrak jango *a(ha)l* dituzte; elgoibartarrik ez. (Altzaga 1994: 130)⁴
- (26) Antzia, Antzia bide asko *a(ha)l* zeon. (Pikabea 2005: 71)
- (27) Akordatzen naiz ni, geo bazkaldu bear tzon garaien beeti sardoa io ta, ... olako lanak umek... “bueno, sardoa!” “ee! Beti ni *a(ha)l* naiz!” (...) beiek larrea eaman da, aik zaindu ta... (...) (Garmendia eta Etxabe 2004: 180)
- (28) Alako baten Felipe Errexillek top eñ zuen kalien Maltienpokin, eta esan zixon:
- “Goizeko xeiretan aitze *a(ha)l* dezu automobille martxan ipiñtzetanien Tolosa juteko”
adarrien esan zixon [...] (Castillo eta beste 2001: 9-10)

Azken perpaus horietan *ahal* partikula epistemikoa dugula onartuz gero, ideia hau (16-17) adibideetara zabal daiteke; gauzak horrela, jarrerazko predikatuetan partikula epistemiko bi erabil litezke, i.e. *ahal* eta *ote*.⁵ Bestela esanda, (16-17) perpausetan azaltzen den partikula ez litzateke erdialdeko *al* galdera partikula izango.

Testuinguru horretan lekukotzen den aldakortasun dialektala bat dator 5.3.5 azpiatalean proposatutako gramatikalizazio prozesuak eragindako egoerarekin. Alegia, *ahal* partikula

⁴ Hona hemen adibide hau agertzen deneko testuingurua:

Enri.-*Entzun nazazu: Peru-Uk Txile aldera juanak giñan. Aurrean, biltzen ginduztela, arerio, etsai mota guzietakoak agertu zitzaizkigun. Guzitatik bazan ano Baita guaitakazuak ere. Abek, ezagutu dan ikaragarrienetako-ak dira. Arrapatzen duten gizona, ollaxkua balitz bezela il etajaten dute.*

Niko.-*Gizonajan! Ori bai ez detala txinixten.*

Enri.-*Jan, bai. Ori dute jakirik gogotsuena.*

Niko.-*Debarrak jango al dituzte; elgoibartarrik beintzat ez.*

⁵ Oraingo galdera hauxe izan liteke: zer dela eta azaltzen da *ahal* partikula hizkera horretan *ote*-k duen testuinguru ohikoetariko batean? Partikula horren azterketa tesi honetatik kanpo dagoenez, eremu dialektal desberdinetan zuzendutako elkarrizketetan ez nuen bere erabilera ikertu, nahiz eta bere izaeraz eta jokabideaz sarritan baliatu naizen. Erdialdeko hizkera salbuespena izan zen aztergai dudana galdera partikularekiko harremana dela eta. Dena den, bosgarren kapituluan aditzera eman dudanez, *ahal* eta *ote* partikulek eremu epistemiko bera betetzea ez da ekonomikoa; hori dela eta, partikula bakoitza espezializatu eta epistemikotasun gradu desberdinak markatzen ditu egun. Hala ere, baliteke hizkera guztietan, e.g. Goierri inguruko erdialdeko euskalkian, Baztango hizkeran (Salaburu eta Lakar 2005: 143) edo desagertutako Errokariko hizkeran, partikula hauen arteko erabileraren muga lausoagoa izatea eta, ondorioz, beste hizkeretako hiztunak *ote*-z baliatzen diren testuinguruetan inguru horretakoek *ahal* erabiltzea. Hipotesi honen aldeko hainbat adibide topatu ditut lan dialektologikoetan eta literatur lanetan:

- (i) a. Zomatak *ete* doguz ónek? (zer ordu da?) (Azkue 1966: 300)
b. Zomatak *altigu* kuek? (zer ordu da?) (ibidem)
- (ii) Ume arránpaluoi, beñobein ixilduko *ete* da! (Mugarza 2006: 264)

Era berean, partikula bi hauen arteko muga lausoa ageriagoan geratzen da galdera erretorikoetan, bien artean aldea dagoen arren, elkarrizketatuek nekez bereiz baitezakete euren erabilera eta testuinguru gehienetan trukagarriak ei baitira.

epistemikoa erdialdeko hizkeretan *al* galdera partikula bihurtu dela edo bihurtzeko bidean dagoela aldarrikatu dut 5.3.5 azpiatalean; ondorioz, erdialdeko hiztun guztiek ez lukete *ahal* partikula eskura edukiko, guztiz gramatikalizatuta balego. Hala ere, bilakabidea guztiz gauzatu ez den hizkeretan, ordea, *ahal* mantentzea espero nuke. Oraingo datuei begira, Zumaian eta Aian ez dute proposizioarekiko engaiamendu maila handia adierazten duen *ahal* partikula epistemikoa erabiltzen, *al* galdera partikula zeharo gramatikalizatu baita; Azpeitian eta Azkoitian (ikus 28), aldiz, partikula biek indarrean irauten bide dute, *ahal*-ek *al*-en aldean bizitasun apalagoa duen arren. Geroago, (§6.4.3), itzuliko naiz aldakortasun honek partikulen sintaxiaz erakusten diguna aztertzeraz; orain aurrera egingo dut *al* eta *ote* ager daitezkeeneko beste testuinguru batzuei erreparatuz.

Azkenik, *al* eta *ote* partikulen jokabideak bat ez datozen beste testuinguru bat mahaigaineratuko dut: izen osagarri perpausak (aurrerantzean *IOP*). Kasu honetan *al* ezin da horrelako perpausetan agertu; *ote*, aldiz, bai:⁶

(29) Etorriko (**al*) den galdera ez zaio gustatu.

(30) a. Etorriko *ote* den galdera ez zaio gustatu.

b. Egia *ote* dakien kezka beldurtzen nau.

(31) Neskamek, katue ama izango *ete* zan antz artu ta etxeti aldeitea zija. (Azurmendi 1998: 160)

(32) Loterixie tokau *ete* dan surrúmurrue sabaldu da. (Mugarza 2006: 376)

Adibide hauetatik ondoriozta daitekeenez, partikula modal guztiek ez dute berdin jokatzeko testuinguru honi dagokionez Arestian egin dudan bezala, *al*-en homofonia den *ahal*-i erreparatuko diot orain: beraz galdera partikula baino onargarriagoa dela ematen du, *ahal* egun modu emankorrean erabiltzen den hizkeretan behintzat, i.e. nafar-lapurteraz:

(33) %Hortaz oroit *ahal* ziran segurtasuna erakutsi behar duzu epaitegian.

⁶ Hirugarren kapituluko (8) oin oharrean (66. orrialdean) aditzera eman dudanez, Euskaltzaindiak (1999: 145) ohartarazten du hiztun guztiek ez dutela horrelako egiturarik onartzen.

Beraz, berriro ere, partikula epistemiko biek bat egiten dute eta *al* partikulak, ordea, ez dio euren jokabideari jarraitzen.

Arreta merezi du azken testuinguru horrek, indar ilokutiborik gabekoa baita (de Cuba 2017). Lehen esan bezala, partikula modalek perpausaren indar ilokutiboari eragiten ei diote eta, propietate hau azaltzeko, partikulek sintaktikoki IndarS-rekin harremana dutela aldarrikatu dute hainbatek (Thurmair 1989; Abraham 1991; Jacobs 1991; Zimmermann 2004; 2011; Coniglio 2007a; 2007b; Bayer eta Obenauer 2011, besteak beste). Harreman horrek partikulak mendeko perpaus jakin batzuetan agertzeko murriztapena azalduko luke, indarrak ez balego, partikulen funtzioa ezingo bailitzateke bete. Ideia horietan oinarritzen dira partikulak indar ilokutiborik gabeko perpausetan agertu ezin direlako hipotesia iradokitzeko. Hala ere, euskaraz ematen du ez dagoela murriztapen hori, orain erakutsi dudana bezala, *ote* indar ilokutiborik gabeko testuinguru batean ager baitaiteke, i.e. IOP-etan. Testuinguru hau indar ilokutiborik gabekoa dela onartuta, tipologikoki aldarrikatutako partikula modalen berezko propietatea berrikusi beharko litzatekeelakoan nago. Egia esan, Conigliok (2007a), alemanezko partikulen erabilera indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan aztertzen duenean, onartzen du partikuletako batzuk horrelako testuinguruetan azal daitezkeela, espero denaren kontra; halarik ere, erabilera horiek baztertzen ditu eta horrelako kasuetan agertzen diren partikula modal horiek benetan diakronikoki eurekin zerikusia duten adberbioak direla aldarrikatzen du. Dena den, euskarazkoak partikula modalak direla ez dago zalantzarik.⁷

Beraz, *ahal* eta *ote* partikula modalek ez dutela indar ilokutiborik behar erakutsi dut azpiatal honetan; *al* galdera partikula, ordea, indar ilokutibodun testuinguruetan bakarrik azal daiteke.⁸ Ezaugarri horrek, adibidez, *al* partikula hainbat testuingurutatik baztertzen du, esate baterako, IOP-tik. Bestalde, indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan ager daitekeen *ote*-k ere hainbat mendeko perpausetan agertzeko murriztapena du; hala ere, ez dago, beste autore batzuek argudiatu duten bezala, indar ilokutiboarekin lotuta; aitzitik, menderagailuek sortzen duten testuinguruaren baldintzek zilegiztatzen dituzte partikulak mendeko perpausetan.⁹

⁷ Aurrerago (§8.2) adieraziko dudanez, honek ekarpena egin liezaioke partikula modalen ikerketari eta, batez ere, alemanezkoen analisiari, Gutzmannen (2008; 2017) bideari jarraituz.

⁸ Era bertsuan, gainerako partikulei dagokienez, Zubeldiak (2010) eta Kortak eta Zubeldiak (2016) partikulen semantikan eta pragmatikan oinarrituz dioskue *omen*-ek ez diola indar ilokutiboari eragiten; *bide*-k, aldiz, bai.

⁹ Beste partikula bati (*omen*) erreparatuz gero, Coniglioren (2007a) ustez partikula modalak agertu ezin diren testuinguru gehienetan erabil daitezkeela ondoriozta daiteke; alegia, *omen* partikula erlatibozko perpaus gain, IOPetan eta denborazkoetan ere azal daiteke.

(34)

	Zehar galderak	Jarrera predikatuak	Izen Osagarri perpausak	Indar ilokutiborik gabekoak
<i>-a</i>	X	X	X	X
<i>al</i>	✓	X	X	X
<i>(ahal)</i>	(?)	(✓)	(✓)	✓
<i>ote</i>	✓	✓	✓	✓

Orain landutako ebidentzietatik abiatuta, partikula mota bi bereiz litezke mendeko perpausetan duten jokabideari dagokionez: alde batetik, *al* galdera partikula dugu, indar ilokutiboaren mendeko harremana duena; beste alde batetik, *ote* partikula epistemikoa, indar ilokutiboaren mendekotasunik ez duena.

6.2.3 Partikulak menderagailuen mende: *Rappen* (2018) hipotesia

Aurreko azpiatalean (§6.2.2) *al* eta *ote* partikulak hainbat mendeko perpausetan ager daitezkeela erakutsi dut; testuinguru horiek *-(e)n* menderagailuaren bidez markatutakoak dira;¹⁰ beraz partikula horiek menderagailu mota horrekin bakarrik bateragarriak direla esan liteke. Hala ere, ez nuke esango partikula hauek menderagailu jakin bat hautatzen dutenik, azken finean aditz nagusiak aukeratzen baitu mendeko perpausetan menderagailua, 2.4.2 azpiatalean azaldu dudana bezala. Halaber, aurreko adibide gehienak zehar galderak izan dira, beraz ezin da beste menderagailurik azaldu, euskaraz ez baitago perpaus mota hori markatzeko beste menderagailurik.¹¹

(35) Dilistak gustatzen zaizkida(-n/*-la) galdetu didate.

¹⁰ Ikus Artiagoitia eta Elordietaren (2016) lana menderagailu horien analisi baterako.

¹¹ Albo batera utziko dut mendebaldeko euskalkian hainbat herritan lekukotzen diren (i) bezalako adibideak:

(i) Eztakigu biyer etorko bada. (Arretxe 1995: 321)

Hala ere, interesgarria da partikulek zer eragin duten menderagailuen arteko txandakatzean, partikula erabiliz gero, *-(e)n* bakarrik da zilegi (Euskaltzaindia 1999: 106). Hona hemen aurreko lanean jasotako beste adibide bat:

(i) Da ni apuraute, seoser pasau *ete* yakiyen. (Arretxe 1995: 321)

Galdera partikularen kasuan, beraz, ez dago beste aukerarik eskura, zehar galdera guztiek *-(e)n* menderagailua hartzen baitute eta *al*, mendeko perpaus batean agertuz gero, horrelako testuinguru batean izango da; *ote*-ren kasuan, ordea, desberdina da, bera interrogatiboak ez diren testuinguruetan ager baitaiteke, 5.4.2 azpiatalean argudiatu dudan bezala. Hala ere, *ote* ez da *-(e)n* ez den beste menderagailurekin bateragarria; beraz, honek agerian uzten du menderagailuaren arabera ager daitezkeela partikulak:

- (36) Etorriko *ote* de(-n/*-la) esan du.
- (37) Olako gauzetáko aluntze txiki xamarrak ematten *ote* dittue(-n/*la) attu iñet nek... [Olanoren (1998: 328) adibide moldatua]
- (38) Esaten dabe euskaldunak banatuegixak *ete* gaude(-n/*-la). [Makazaga (2010: 259) adibide moldatua]

Murritzapen honek partikularen semantikarekin zerikusi duela proposatzen dut; alegia, proposizioarekin guztiz bat egiten ez duen eta konpromiso maila graduatzea ahalbidetzen duen testuinguru bat behar du partikulak; *-(e)la*-k ez ditu ezaugarri bi hauek betetzen, hiztunak proposizioarekin engaiamendu maila osoa adierazten baitu.¹² Beste menderagailua, i.e. *-(e)n*, erabiltzeko baldintzak bat datoz partikularen semantikarekin, eta beraz bere mendean ager daiteke, (36 & 38) adibideetan erakutsi dudan bezala.

Bestalde, IOP-etan ere menderagailuei dagokien murritzapen berdina egiaztatzen da; perpaus mota horretan *-(e)n* eta *-(e)lako* menderagailuak¹³ erabil daitezke; hala ere, *ote* partikula agertuz gero, lehenengoa bakarrik erabil daiteke:

- (39) Egia *ote* daki(-en/*-elako) kezkak beldurtzen nau.
- (40) Egia daki(-en/-elako) kezkak beldurtzen nau.

¹² Hiztunak ezin bide du mendeko perpausaren inguruko baloraziorik egin *-Ela*-dun testuinguruetan:

(i) Beharbada etorriko dela esan du.

Beharbada ez dago hiztunaren ikuspuntuarekin lotuta, mendeko perpausaren subjektuaren ikuspuntuarekin baizik; horrek zilegiztatzen du bere erabilera testuinguru horretan.

¹³ Interesgarria izango litzateke menderagailu bien hautapena zertan datzan ezagutzea; oraingoz ez ei da horrelako ikerketarik egin, zoritxarrez. Etorkizuneko azterketa batek partikulen semantika-pragmatika argitzen laguntzen digulakoan nago.

Dena den, murriztapen hau ezin da partikula guztietara zabaldu, *ahal* partikula hainbat menderagailurekin ager daiteke eta:

- (41) Xinistian nago orai xa, sontotruk *a(ha)l dagola*. (Estornés 1984: 68)
- (42) Ez nauke hemen aipatu gabe gure adixide handienetarik bat – ez *ahal baitakite* orok hau ere gurea ginuela – François Coppée zen koblari maitagarri, gizon ona. (Hiriart-Urruty 1903)
- (43) Nere baitan egiten nuen, bertzalde, ez *ahal nuela* Alemanen kontra Frantziak egin gerlan baino ikaragarrikeria handiagorik ikusiko, Eskualduna izanagatik lehen egunetik azkeneraino gerla hartan ibil-arazi binaute Frantsesek! (Elissalde 1925)
- (44) Totoatan ba *a(ha)l dune*, totoa esaten dxako. (Gaminde 2001a: 281)

Halaber, *omen* partikulak ere menderagailu desberdinak onartzen ditu:

- (45) Xalbador handia ere iritzi beretsukoa zen, hark ere euskara maite *omen baitzuen* “ez ederrarengatik bakarrik, baizik gurea delako”. (Garzia *apud* EHUKo Euskara Institutua 2009)
- (46) Bere izena Kijada edo Kisada *omen zela* diote, honetan ez baitatoz batera alegia, gai honetaz idatzi dutenak; baina egia-itxurak liokeenez, Kijana zeritzan. (Ezkiaga *apud* EHUKo Euskara Institutua 2009)

Rappen (2018) ildotik, menderagailu bat erabiltzeko baldintzek ahalbidetu behar dute partikulen ekarpenak proposizioa modifikatzea, mendeko perpaus horretan delako partikula ager dadin. Bestela esanda, menderagailuek ez dute partikula aukeratzen, ezta partikulek menderagailua ere; aitzitik, menderagailuek sortzen dituzten testuinguruetan azaltzeko behar diren baldintzak bateragarriak izan behar dira partikulen ekarpenarekin. Beraz, menderagailuen baldintzen arabera da partikulak zilegiztatzea.

Partikulen eta menderagailuen arteko banaketa arakatutakoa hurrengo taulan laburbilduta jasotzen dut:

(47)

	-(e)n	-(e)la
<i>al</i>	✓	X
(<i>ahal</i>)	✓	✓
<i>ote</i>	✓	X

Azpiatal honetan erakutsi dut Rappen (2018) ildotik partikulek menderagailua, edo alderantziz, hautatzen dutelako ideia ez dela egokia eta partikulen ekarpena menderagailuek sortzen duten testuinguruarekin bateragarria izan behar delako hipotesia hobesten dut. Honek etorkizunerako zeregin bi dakartza: bateko, partikulen semantika aztertzea eta, besteko, partikulen erabilera zilegiztatzeko menderagailuek testuinguruan sortu behar dituzten baldintzak zeintzuk diren ikertzea.

6.2.4 Alokutiboaren eta partikulen arteko jokabidea

Alokutiboari dagokionez partikulek ez dute berdin jokatzeko: *al* eta *ote* alokutibozko formekin batera ager daitezke; -a-k, ordea, ez bide du horrelako formarik onartzen:

- (48) Nun utzi *ote* diat periodikua?
- (49) Zer egin *ote* diat...?
- (50) Nun *ote* diat kasetak?
- (51) Astelehenin jungo *al* gaituk?
- (52) Jaiatekuak *al* dituk oiek? (Alzaga 1994: 167)

Aurreko lan bitan (Monforte 2015; 2018) galdera partikulen arteko aldeak -a partikula eta alokutibozko morfemak banaketa osagarrian zeudela pentsarazi zidan arren, oraingoan ez dut ideia bera plazaratuko, alokutiboak ekialdeko hizkeretan duen banaketa aintzat hartuz. Egia esan, aurreko lan horietan aipatzen nuen, Alberdiri (1994) jarraituz, ekialdeko hizkeretan ezin direla alokutibozko formak galderetan agertu, mendebal zabaleko hizkeretan ez bezala. Hartara, ez -a partikula, ez *ote*, ez dira alokutibodun aditz jokatu bati lotuta

agertuko galderetan ekialdeko hizkeretan, testuinguruak alokutibozko formez baliatzera bideratzen badu ere.¹⁴

(53) Errak eta hire arreba, Mariaño, ezkondua { **duka* / *dea* }? (Etxamendi 2010: 130)

Ekialdeko *-a* partikularen eta alokutibozko formen arteko bateraezintasuna ezin zaio, beraz, kokagune bera okupatzeari leporatu, gune sintaktiko desberdina okupatzen duen *ote* ere ez baita alokutiboarekin bateragarria ekialdeko hizkeretan behintzat. Hartara, hizkera horiek ez dute mendebal zabaleko (48-52) adibideak bezalako testuinguruetan alokutibozko formarik erabiltzea onartzen (Oyharçabal: 1993; Alberdi 1994):

(54) Nun utzi *ote* { **diat* / *dut* } kazeta?

(55) Hire emaztea üskaldün { **düka* / *dea* }?

Hala ere, literaturan nahiz ahozkoan galderetan azaltzen diren alokutibozko formak jaso ditut:

(56) Hun züzün? (Coyos 2013: 205)

(57) Igan astin elurra bazüzü? (Monforte 2015)

(58) Hau sinatu behar diat? (Thikoipe 2009: 145)

(59) Zer? Bakarrik afaltzera jina duk? (Landart 2017: 47)

(60) Jín dúxu? (Santazilia 2009: 234)

¹⁴ *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* (Euskaltzaindia 2016) *-a* partikula eta alokutibodun aditz jokatu bati atxikia duen testigantzak jaso ei dituzte Itsasun:

- (i) Egin dika?
- (ii) Jinen duká?

Bigarren adibidea, hain zuzen, ‘94410’ galderan bildu zen, i.e. galdera-perpausetan alokutiboa erabiltzen den aztertzen zuen galderan; dena den, ez zen hiztunak eman zuen lehenengo aukera, elkarrizketatzaileak proposatutakoa baizik. Izan ere, hiztunak eman zuen erantzunak *-a* partikula soilik du, alokutibozko morfemarik gabe:

- (iii) Jinen dea?

Beraz, datu gehiagok bateragarritasun hau egiaztu ezean, baztertuko dut oraingoz.

Aurreko adibideetan alokutibozko formak galderetan ager daitezkeelako ebidentzian oinarritu nintzen (Monforte 2015; 2018) -a eta alokutiboa banaketa osagarrian egon behar zirela aldarrikatzeko, gaur egun biak galderetan ager baitaitezke baina inoiz ez aldi berean. Hala ere, ez dirudi galdera mota beraren aurrean gaudenik eta horrek alokutiboa erabil daitekeen ala ez baldintzatzen du. Alegia, (56-60) adibideetako galderak goranzko prosodiadun deklaratio itxura duten galderak direla proposatzen dut; beraz sintaktikoki ez dira galderak, perpaus deklaratioak baizik. Izan ere, ingelesezko *declarative rising interrogatives* direlako galderetan bezala, horiek baiezko erantzuna aurreikusten dute, (56-60) galderen erantzuna baiezkoa izango dela alegia. Honek azaltzen du zergatik agertzen den alokutiboa, beronek ez baitu deklaratioetan murriztapenik; -a partikula, aldiz, ez da horrelako testuinguruetan agertu ohi. Dena den, 5.1 atalean eztabaidatu dudana bezala, -a tradizionalki galderetan bakarrik erabil daitekeela esan den arren, interrogatioak ez diren testuinguruetan ere ager daitekeela dirudi; esaterako:

(61) Ah! Hi huaikin ezkontia. Harek dakika, serora abiatu duk. (Moreno 2018: 212)

(62) Baakizuta, semia soldadoguatik jinik dizit eta, Olaberria aferman biziki untsa gindikezi eta baakizu eta... (Etxamendi 2010: 137)

Alokutiboaren aldetik (61 eta 62) adibideak interesgarriak dira bertan -a partikula alokutibozko formekin batera azaltzen baita. Dena den, -a partikula eta alokutiboa aldi berean agertzeko testuinguruak ez dira ohikoak eta horrelako hipotesia zuhur onetsi behar da. Beraz, (Monforte 2015; 2018) lanean aldarrikatutako hipotesia okerra bide da, ez baitaude partikula eta alokutibotasuna nahitaez banaketa osagarrian. Hala ere, argi dago -a eta alokutiboa ezin direla galderetan batera erabili, alokutiboa ezin baita horrelako testuinguruan baliatu. Beraz, euren arteko azaleko bateraezintasunak nekez lagun diezaguke -a-ren kokapena argitzen.

Gauzak horrela, partikulek alokutiboarekin duten banaketak ez du hasiera batean lehenengoen jokabidean inongo eraginik.

6.2.5 Partikulen arteko jokabidea: bateragarritasuna ala banaketa osagarria?

Ezaugarri hau 5.4.8 azpiatalean jorratu dut dagoeneko baina ikuspuntu interpretatio batetik; oraingoan arlo sintaktikoari helduko diot. Aurretik argudiatu dut tipologikoki oso ohikoa den

ezaugarri bat euskarazko partikuletan ere aurkitzen dela, i.e. partikula bat baino gehiago perpaus berean agertzea. Kasu honetan *al* dugu besteekin bat ez datorrena, bera ezin baita beste partikula batekin azaldu:

(63) *Ikusi *al* dua Ikerrek etxe berria?

(64) *Ikusi {*al ote / ote al*}du Ikerrek etxe berria?

Lehenengoan *-a* eta *al* ezin dira perpaus berean agertu, hizkera desberdinetakoak baitira, beraz *-a* duen hiztunak ez du *al* eta alderantziz. Bigarrenean *al* eta *ote* ez dira pragmatikoki bateragarriak: *al* erabiltzen den testuinguruetan hiztunak entzulearengan erantzun bat sortu nahi baitu; *ote* azaltzen deneko perpausetan, ordea, hiztunak ez du entzulearengandik erantzunik jasotzea espero.

Beste partikulei dagokienez, *-a* eta *ote* perpaus berean azal daitezke 4.3.6 azpiatalean adierazi dudan bezala:

(65) JONEK *ote* dia hori erran?

(66) Amatxi Iholdiko *othe* zena? (Camino 2009b: 193)

(67) Miñarri mendiaren sabela gatzez beterik *ote* datekea? (ibidem)

(68) Ezagutzen *ote* duka Peio eskultorea? (Erdozaintzi-Etxart 1982)

(69) Etxearen saltzapenetik ez *ote* duguia horrena bederan altxatuko? (Thikoipe 2009)

(70) Ezin *ote* zuena idatzi «lana» eta «merezi», eguneroko euskal hitzetan? (Davant 2008: 16)

(71) Bestalde abertzalea *ote* zena? (ibidem: 54)

(72) Baina bat-bateko lehian ari *ote* zena? (ibidem: 54)

(73) Ez *ote* deia arren deüs ere etxe hontan guretako? (ibidem: 76)

(74) Eta Baxi-Nabarreko koblakari batek, ez *ote* düa erran (...) (ibidem: 85)?

Gogora dezagun Euskaltzaindiak (1987: 500) dioela jokabide orokorra duten partikula bi ezin direla perpaus berean erabili; salbuespen bakarra horrelako kasuetan *ote* parentetikoa da. Esaterako:

(75) Ez *dea ote* miliun bat Euskaldun lur huntako zoko guzietan hedaturik?

Aurrerago (§7.1) partikula bere jokabide kanonikotik aldentzen den testuinguruak, i.e. (75) bezalakoak, landuko ditut, beraz oraingoz albo batera utziko dut gai hori eta (65-74) adibideetara bueltatuko naiz. Euskaltzaindiaren (1987: 500) hitzetatik ondorioztatzen dut *ote* hori ez dela, alde batetik, sintaktikoki aditz jokatuari atxikitako buru bat eta, beste alde batetik, perpaus mailako sintaxiaren parte. Alabaina, hainbat argumentu daude analisi hori ez onartzeko: hasteko, horrelako adibideetan ez da parentetikoek duten pausarik edo prosodiarik igartzen; honez gain, ezaguna da euskaraz ezin dela ezer tartekatu fokua eta aditz jokatuaren artean, ezta parentetikorik ere (Etxepare eta Uria 2016); amaitzeko, 4.3 atalean ezaugarritutako partikula modalen jokabidea du (65-74) bezalako perpausetako *ote*-k.

Beraz, Euskaltzaindiaren (1987: 500) ustearen kontra, horrelako kasuetan ditugun *-a* eta *ote* partikula biak hezurdura sintaktikoko buruak dira; hots, erabilera orokorrari jarraitzen diote. Aurretik (§4.3.6) aditzera eman dudan bezala, egoera hau ez da batere bitxia beste hizkuntza batzuei erreparatzen badiogu, hizkuntza gehienetan ohikoa baita partikula modal bi aldi berean erabiltzea, are gehiago izaera pragmatiko desberdinak dituzten kasuetan, horietako bat galdera partikula eta bestea epistemikoa edo ebidentziala direnean alegia.

Gainerako partikula modalekiko bateragarritasunari dagokionez, antzeko testuinguru duen partikula bakarra *ahal* dugu, galderetan ere ager baitaiteke. Ekialdeko *-a*-ren kasuan ez dago argi *ahal*-ekin batera azal daitekeen, laugarren kapituluko 22. oin oharrean (144. or.) esan dudan bezala, literaturan adibide bakanak topatu baititut eta hainbat elkarrizketatan bateragarritasun honen inguruan galdetu dudanean, baieztapena ez da *ote* eta *-a*-ren kasuan bezain irmoa. Hona hemen adibideak:

(76) Ez *ahal* duzuia zuhaurek doidoietan hori aitortu? (Larzabal 1992b[1968])

(77) ?Ez *ahal* duzia ogia ekarri?

Bestalde, *ote* ea beste partikulekin batera ager daitekeen kasua argiagoa da, hiztunek aho batez adierazten baitute ez dela besteekin bateragarria:

(78) *Ez *ahal ote* / *ote ahal* da polita gure herria?

Dena den, 5.4.8 azpiatalean azaldu dudan bezala, partikula hauek, i.e. *ahal* eta *ote*, bateragarriak dira interpretazioaren aldetik, izaera sintaktiko desberdina dutenean perpaus berean ager daitezke eta. Ebidentzia horietan oinarrituz (78) adibideak islatzen duen murriztapena sintaxiari leporatu behar zaio, alegia kokagune sintaktiko bera okupatzen dutela iradokitzen du.¹⁵

Hurrengo taulan orain aztertutako jokabideak bilduko ditut aztergai ditudan partikulei dagokienez:

(79)

	Partikula bi perpaus berean
<i>-a + ote</i>	✓
<i>al + ote</i>	Ezin
<i>-a + al</i>	Ezin
<i>(-a + ahal)</i>	✓

Hau guztiau ikusita, berriro ere talde bitan banatuko ditut partikulak: alde batetik, bakartasunean agertu behar den partikula (e.g. *al*) dago eta, beste alde batetik, beste partikula batekin agertzea onartzen dutenak (e.g. *-a*, *ote* eta *ahal*).

6.2.6 Aditz jokaturik gabeko testuinguruak

Partikula guztiek berdin jokutzen ez dutelako beste ebidentzia bat dakart orain, partikuletarako ezinezkoa izan beharko litzatekeen testuinguruan, i.e. aditz jokaturik gabeko testuinguruetan hain zuzen ere. Orain arte azpimarratu dut euskarazko partikula modalen ezaugarri nagusia honakoa dela: aditz jokatuarekin bat eginez hitz morfonologikoa osatu

¹⁵ Hala ere, literaturan partikula biak biltzen dituen adibide bi topatu ditut:

- (i) Errekako ure edaten *oten al* da? ‘Est-ce qu’on peut boire l’eau de la rivière?’ (N’Diaye 1970: 231)
- (ii) Eta ez *ete al* nabe danetatik kanpora aterako. (Agirre 1897)

Dena den, adibide bakarrak direla gogoan eduki behar da eta (i) adibidean *ote* partikula dagoen eztabaidagarria da; N’Diayek (1970) dio *-n* gehitzen zaiola partikulari *al*-ekin batera agertzen denean. Hala ere, ‘egoten > oten’ aditza ere izan liteke, kontsonante gehiagarriaren azalduko lukeena. Honez gain, hiztunen iritzi gramatikalko kontuan hartuz gero, ez bide da onargarria, gaur egun behintzat.

behar dute. Beraz, aditz jokaturik ez dagoen edo *sluicinga*¹⁶ duten egituretan partikulak ezin dira agertu:

(80) Hori erosi (**al*) eta bestea utzi *al* dute?

(81) Ez dakit nora joan (**ote*).

Dena den, datuei hurbilago begiratzuz gero, ematen du ezaugarri hau ez datorrela bat partikula guztiekin; ikus ditzagun hurrengo adibideak:

(82) A: Gabi, trabatzen zaitu autoak?

B: Ez, ez, lasai.

A: *Eza?*

A': Ez (**al*)?

A'': %Ez *ote*?

Ikusten denez, *al* partikula ezin da horrelako testuinguruetan erabili; ekialdeko galdera partikula, aldiz, bai; *ote*-ren kasua konplexuagoa da, ekialdeko hizkeretan eta euskara jasoa bakarrik ohikoak baitira horrelako esaldiak.

Hau esanda pentsa liteke aldakortasun dialektalarekin lotuta dagoela, i.e. ekialdeko hizkeretan ez dela hain zorrotza aditz jokatu gauzatu batekin bat egiteko betebeharra. Ez nator bat hipotesi horrekin eta jarraian erakutsiko dut *eza?* eta *eza ote?* bezalakoek azalean banaketa berdina duten arren, egiturak ez ezik, partikulak ere desberdin aztertu behar direla.

Hasteko, egitura honen emankortasun maila ez da berdina kasu bietan: *ote*-ren aurrean *bai/ez* adberbioez gain, bestelako osagaiak ere ager daitezke e.g. DetS-k, PostposizioS-k eta abar; *-a* partikula, ordea, *bai*-ri eta *ez*-i bakarrik eransten zaie, egun behintzat:

(83) -Nork apurtu du Beñaten berina? -Célinek *ote?* / **Célineka?*

(84) Maitasunez *ote?* / **Maitasuneza?* [Davanten (2008: 2) adibide moldatua]

¹⁶ *Juntadura eta elipsia euskaraz* izeneko tesian Amundarainek (2002) *sluicing* terminoa erabiltzen du euskarazko ordainik eman gabe eta, fenomeno horrek tesi honetan duen garrantzia aintzat hartuta, terminologia hori onestea erabaki dut.

Polaritatezko adverbioez gain, aditz jokatua ez den beste osagai batek eta *-a*-k bat egiten duten beste testuinguru bi baizik ez ditut literaturan topatu;¹⁷ ez bata, ez bestea, ez dute hiztunek berretsi:

(85) *Nika?* (Lafitte 1944: 99)

(86) *Kebena?* (Azkue 1931: 15)

Bestalde, ohiko jokabidea eta egitura bera edukiko balute, morfonologikoki gauzatu gabeko aditz jokatua suposatu beharko litzateke eta, ohiko eratorbidean bezala, partikulen klitizazioa eta mugidak gertatzen direla proposatu beharko litzateke; hala balitz, aditz jokatua morfonologikoki gauzatzen deneko hurrenkera bera ikustea espero nuke, *ote* aditz jokatuaren aurretik eta *-a* beraren ostean alegia. Hala ere, hurrenkera bestelakoa da:

(87) **Ez ote a?*

(88) *Eza ote?*

Honez gain, *ote*-ren prosodiak Euskaltzaindiak (1987: 500) partikula honen erabilera ezohikoetan deskribatzen duena gogorarazten du; alegia, eten laburra dago, *ote* topikoa¹⁸ izango balitz bezala.

Ebidentzia hauetatik abiatuta, egitura desberdinak direla aldarrikatzen dut: alde batetik, *-a* partikula buru sintaktikoa da eta, ohiko jokabidean, buruei atxikitzen zaie; beraz DenbS isildu ostean klitizatze bururik ez dagoenez, osagai bakarrari atxikitzen zaio, i.e. polaritatezko morfemari (*bai* edo *ez*). Beste alde batetik, ondorengo 7.3 azpiatalean argudiatuko dudana bezala, *ote* partikula ez da buru sintaktikoa kasu honetan, islapen nagusia baizik; egia esan, ez zaio ezeri ere atxikitzen, beregaina baita, eta FokS-ra mugitutako osagaiaren ondoren kokatzen da berez. Hurrengo adibideetan, beraz, egitura eta izaera biren

¹⁷ Jokabide hau beste hizkuntza batzuetan dokumentatzen da, finlandieran alegia. Hizkuntza horretan galdera partikulatzen hartzen den *ko* osagai desberdinei atxikita ager daiteke; dena den, euskarazko *-a* ez bezala, *ko* beti agertzen da perpaus mailan lehenengo posizioan dagoen osagaiari atxikia, dela (85-86) bezalako perpausetan, dela perpaus osoetan (Holmberg 2014).

¹⁸ Rizzik (2004) horrela deskribatzen du hainbat adverbioen prosodia ohi baino gorago agertzen direnean egitura sintaktikoan. Aurrerago (§7.3.2) jorratuko dut gai hau *ote*-ren jokabide ez-kanonikoa hizpide daukadanean.

ezaugarriak argi islatzen dira: a) *-a* buruak, buruz buruko mugidaren ondorioz, hurbilen duen *bai* adberbioari atxiki eta *baia* sortzen du; eta b) *ote* adberbio ahulak kokagune finkoa du fokuaeren ondoren:

(89) Berak *baia ote*? (Larre 1986: 1)

(90) Ala gehixago ere *baia ote*, urtealdika? (Larre 1987: 1)

(91) *Baia othe* burur hotz-hotza orai bortüari бүрүз, eta holako denborareki? (Davant 2008: 76)

Amaitzeko, orain jorratutako ezaugarriak taula batean bilduko ditut:

(92)

	<i>DenbS elipsia</i>
<i>-a</i>	✓
<i>al</i>	X
<i>ote</i>	%✓

Esan bezala, azalean antzera jokutzen badute ere, *ote*-k ez lioke jokabide orokorrari jarraituko eta izaera sintagmatikoa edukiko luke; horrek erabilera hau ahalbidetzen du DenbS-ren elipsia gauzatu den testuinguru batean. Aurrerago (§7.3) sakonduko dut bere jokaera hau, hipotesi hau indartuta.

6.2.7 *Elipsoidun beste testuinguru bat: AS/ aS-ren elipsia ote?*

Aurretik (§5.4.4) pragmatikaren aldetik landu dudana eta oso ezaguna ez den erabilera bat mahaigaineratu nahiko nuke orain:

(93) - Arantzazuk liburu asko dauzka? *-Ote* dauzkan!

(94) - Joseba mutil ona da. *-Ete* dan ba! (Etxaburu 1972: 105)

(95) - Itziarrek etxea erosi du *-Ete* dauen ba!

Adibide horietatik abiatuta lehenengo begiratuan AS/aS isildu dela esango nuke, euskalaritzan aldarrikatutakoaren kontra badoa ere, aditz perifrastikoen kasuan aditz jokatu besterik ez baita azaltzen:

(96) [~~as Itziarrek etxea erosi~~] *ete* dauen!

Beste partikulei dagokienez ea horrelakorik posible den galdera datorkit burura; hala ere, ezetz ematen du testuingurua elipsirako egokia den arren:

(97) Irunek lana lortu du; **al* duzu? / **duzia*?

Partikula bi hauen murriztapenaren arrazoiak pragmatikoak izan litezke testuinguruak proposizioa berreskuratzea ahalbidetzen badu ere, perpaus horiek galdegaia baitute faltan; galderaren fokua gehituz, hala ere, ez da hobetzen:

(98) *Zuk ~~lana lortu~~ *al* duzu? / *Zuk ~~lana lortu~~ *duzia*?

Arrazoi pragmatikoez gain, sintaktikoak ere ikusten ditut: (93-95) adibideetan ikusten denez, mendeko perpausak izan ohi dira,¹⁹ *-(e)n* menderagailuaz markatuta baitaude. Hau kontuan hartuta, *-a* partikula ezin dela mendeko perpausetan agertu esan dut lehen, beraz orain hizpide dudan testuinguruan agertzea ezinezkoa da ekialdeko galdera partikularen kasuan.

Oraingoz ez dut sakonago egitura hau²⁰ arakatuko, partikulen arteko jokabide bereizgarriak azalratzea soilik bainuen helburu oraingo atalean; bere analisi sintaktikora

¹⁹ Forma horiek gehien lekukotzen diren arren, beste hauek ere bildu ditut:

- (i) Etorriko *ote* dituk ba! [Goizueta]
- (ii) -Ez *ete* da, ba, egia? – Egia *ete* dan ba! (Zarate 1970)

Pragmatikaren aldetik, antzekoak diren arren, sintaktikoki aldea nabamena da, AS/aS ez baita isiltzen edo ez baitute *-Ēn* menderagailurik.

²⁰ Egitura honen ezaugarri interesgarri bat da partikula lehenengo gunean agertzea, lehen (§4.3.2) deskribatu dudanaren kontra; hala ere, ez da harrizkoa aditz jokatuak *-Ēn* menderagailua baitu eta horrelakoetan lehenengo posizioan ager ei daiteke aditz jokatu (Elordieta eta Haddican 2018: 411):

- (i) Dabilen / *badabilen erlojua.

itzuliko naiz aurrerago, 6.3.1 azpiatalean, eta bertan elipsiaren eremua eta izaera zehaztuko ditut. Amaitzeko, hona hemen ezaugarri honi dagokion taula:

(99)

	<i>AS/aS-ren elipsia</i>
<i>-a</i>	X
<i>al</i>	X
<i>ote</i>	✓

Honaino *-a*, *al* eta *ote* partikulen arteko konparaketa sintaktikoa; hasieran esan dudana bezala, partikula modalek antzera jokatzeko duten arren, ezaugarri bereziak ere badituzte eta beraiek balio handikoak zaizkit, batetik, desberdintasun interpretatiboak azaltzeko eta, bestetik, kokapen edo izaera sintaktikoak zehazteko. Beraz, beraiez baliatuz partikulen azterketa sintaktikoari ekingo diot.

6.3 Partikulen bereizgarritasunek zer dioskute?

Partikula diskurtsiboak laugarren kapituluaren deskribatu ditut orokorrean, eta aditz jokatuarekin hitz morfonologikoa osatzen duten eta fonologiko-prosodikoki klitikoaren moduan jokatzeko duten buruak direla ondorioztatu dut. Ezaugarri bi horiek direla eta, ez da beste hizkuntza batzuetan bezain argi ikusten zelan interaktuatzeko duten partikulek inguruarekin. Orain burura datorkigun galdera da ea sintagma bakarra ala gehiago okupatzen ote duten. Datu orokorretatik abiatuta, ez dago auzi hori argi dezakeen ebidentziarik; hala ere, arestian (§6.2) aditzera emandako bereizgarritasunek horretan lagun dezaketelakoan nago. Jarraian ezaugarri horiek guztiak bildu eta partikulen sintaxiaz zer datu dakarten aztertuko dut.

Alabaina, horrelako testuinguruetan partikulak agertuz gero, badirudi *ba-* espletiboa beharrezkoa dela (i) adibideko testuinguruetan ez bezala:

(ii) Pregunta dau ?(ba) *ete* datorren.

Murritzapen hau fokuarekin egon liteke lotuta. Ondorengo ikerketek auzi hau argitu beharko dute.

6.3.1 Partikula diskurtsiboak multzo homogenea ote?

Partikulek ez dutela proposizioan antzeko ekarpen motarik (ebidentzialtasuna, epistemikotasuna, ebaluatzailetasuna, performatibotasuna) egiten erakutsi dut bosgarren kapituluan; halaber, arestian (§6.2) ikertutako ezaugarri sintaktiko batzuek desberdintasun hau ere iradokitzen dute, 6.2.2 eta 6.2.7 azpiataletan erakutsitakoek alegia. Alde batetik, mendeko testuinguruetan ager daitezkeen partikulek, *ote*-k eta *al*-ek, ez dute berdin jokatzeko indar ilokutiboari dagokionez: *al* indar ilokutiboa duten testuinguruetan bakarrik azal daiteke; *ote*, ordea, indar ilokutiborik gabeko mendeko perpausetan ere erabil daiteke, hala nola IOP-etan. Beste alde batetik, AS/aS-ren balizko elipsiaren aldetik ere ez dator bat partikulen jokabidea: *-a* eta *al* partikulak ezin dira horrelako kasuetan agertu; *ote*, aldiz, bai. Ezaugarri hauetan oinarrituz osatzen diren multzo biak bat datoz euren interpretazioari begira proposatu dudanarekin, i.e. bateko, *-a* eta *al* partikulak ditugu hizketa ekintzarekin zerikusia dutenak eta, besteko, *ote* partikula dago, modalitate epistemikoarekin lotutakoa. Ebidentzia honetan oinarrituta, hainbat ondorio atera daitezkeela uste dut, jarraian landuko ditudanak.

Lehenik, partikulak sintaktikoki ere multzo bitan bereiz daitezke: a) hiztunak delako harrera edo erantzun bat sortu nahi du entzulearengan proposizioa aurkeztean, i.e. partikula performatiboak (edo diskurtsiboak) dira; eta b) hiztunak proposizioaren gainean iritzia edo jarrera jakin bat eraiki eta adierazi nahi du, i.e. partikula *modalak*.²¹ Banaketa hau syntaxian islatzen da: lehenengo motakoek perpausaren indar ilokutiboa modifikatzen dute entzuleak, hiztunak nahi duen moduaren arabera, proposizioa interpreta eta erantzuna eman dezan; beraz indar ilokutiboa duten testuinguruetan bakarrik azalduko dira. Eta beste motakoek, ordea, hiztunaren ikuspuntutik proposizio bera modifikatzen dute, ondorioz ez dute nahitaez indar ilokutiborik behar.²²

Bestalde, lehenengo taldekoak diren *-a* eta *al* ezin dira, 6.2.7 azpiatalean deskribatu bezala, AS/aS-rik gabeko testuinguruetan azaldu, hots aditz jokatua bakarrik duten perpausetan; bigarren taldekidea *ote*, berriz, bai:

²¹ Hemen *partikula modal* terminoa zentzu hertsian erabiltzen dut, alegia Roorycken (2001) ildotik ebaluazioa, ebidentzialtasuna edota epistemikotasuna adierazten dituzten horiek bakarrik hartzen ditut aintzat.

²² Ondorengo 6.5 azpiatalean argudiatuko dudanez, partikula modal hauek ez diote indar ilokutiboari zuzenean eragiten; aitzitik, proposizioa modifikatuta, berorrek eragiten dio indar ilokutiboari.

(100) Irunek lana lortu du; **al* duzu? / **duzia*? (= 97)

(101) -Joseba mutil ona da. -*Ete* dan ba! (Etxaburu 1972: 105) (= 94)

Ezaugarri honen arabera ere bitan banatzen dira, bada, partikulak, aurreko banaketarekin bat etorrira: batetik, *-a* eta *al* eta, bestetik, *ote*. Kasu honetan lehenengo begiratuan *-a*-ren eta *al*-en murriztapenak pragmatikarekin zerikusi duela ematen du, euren interpretazioak ez duelako proposizioaren elipsia ahalbidetzen, galdegaia behar baitute; izan ere, testuinguruaren bitartez isildutako proposizioa uler daitekeen arren, onartezinak dira horrelako egiturak, galdegaia eta bera sintaktikoki zilegiztatzen duten osagaiak behar baitira:

(102) Irunek lana lortu du; **al* dezu? / **duzia*? (= 100)

(103) Irunek lana lortu du; *ZUK *al* dezu? / *ZUK *duzia*? (= 98)

(104) Irunek lana lortu du; *zuk*? / *ZUK *al*? / ?ZUK*a*?

(105) Irunek lana lortu du; ZUK lortu *al* dezu? / ZUK lortu *duzia*?

Dena den, (102-104) adibideen moduko ezgramatikaltasuna galderen osaketarekin lotuko nuke, *al* ez duten hizkeretan ere jokabide bera ikusten baita; hots, euskaraz orokorrean ezin dira aditz jokatua bakarrik erabiliz galderak sortu, ingelesez bezala kasu:

(106) -Harrikoa egin nuen atzo. -*Zenuen? / *Bazenuen? / *Eta bazuten?

(107) -I did the dishes yesterday. -Did you? And did they?

Dena den, *-a* eta *al* (102) bezalako testuinguruetan ez agertzeko arrazoia galderen murriztapen orokorra izango balitz, *ote* galderetan erabiltzen den heinean, antzera jokatzea espero nuke; hala ere, 6.2.7 azpiatalean erakutsi dudan bezala, ez da horrela gertatzen. Izan ere, egitura honek dituen ezaugarri bi ezin dituzte *-a*-k edo *al*-ek onartu: *ote* partikula *ba*-morfema espletiborik gabe lehenengo gunean agertzea eta aS-ren elipsia:²³

²³ Egia esan, 4.3.2 azpiatalean aditzera eman dudanez, *-a*, *ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen*, eta *ote* partikula modalak agertzen diren testuinguruek ez dute horrelako jokabiderik onartzen, erabilera orokorrean behintzat; esate baterako, ezaguna da partikulek, aditz jokatuarekin batera lehenengo posizioan agertuz gero, *ba*-morfema espletiboa behar dutela:

(i) *(Ba) *ete* daki?

(108) [~~as Itziarrek etxea erosi~~] *ete* dauen! (= 96)

(109) [~~as Dorotak loterian diru asko irabazi~~] *ete* doan!

Desberdintasun sintaktiko hau partikulen interpretazioari lepora lekioko *ote*-k proposizioa modifikatzen baitu, beraz (108-109) adibideetan proposizioa isilduta dagoen arren, testuinguruari esker entzuleak berreskura dezake eta *ote*-ren ekarpena gauza daiteke berreskuratutako proposizioan; *-a* eta *al* partikulek ez dute proposizioa modifikatzen, ez dute *ote*-k bezalako zama semantikorik, hizketa ekintzarekin lotuta baitaude.

Sintaxiaren aldetik dauden murriztapenei dagokienez, honakoa defendatzen dut: lehenik, gogora dezagun 6.2.7 azpiatalean esan bezala *-a*-ren kasuan balitekeela sintaxiak horrelako erabilera mugatzea, mendeko testuinguruetan azaltzen baita; (108-109) adibideetako aditz jokatuak *-(e)n* menderagailua hartzen dute hain zuzen. Gainera, zehar galderak direlako ideiatik abiatuta, perpaus nagusiaren elipsia ere onartzen dut; zer-nolako egitura legoke elipsi horren azpian? Interpretazioan oinarrituta, honakoa proposatzen dut:

(110) [Itziarrek etxea erosi] *ete* dauen [galdetzea ere/ galdetzeak ez du zentzurik]! (erantzuna begi bistakoa baita)²⁴

Egitura honek izen osagarri perpausetakoa gogorarazten du; honek azalduko lituzke beste partikulek dituzten murriztapenak: a) mendeko perpausa denez, *-a* ezin da agertu; b) indar ilokutiborik gabeko perpausak direnez, ezin da *al* galdera partikula agertu, *ote* bakarrik baizik; c) bestalde, aditz jokatuak *-(e)n* menderagailuarekin batera egiten duenez, ez du *ba-*

²⁴ Bestelako egitura berreraiki liteke, alegia:

(i) [Itziarrek etxea erosi] *ete* dauen [galdetu duzu]!

Dena den, interpretazioaren aldetik (110) eta (i) esaldiak antzera uler daitezkeen arren, (110) ageriagoan dago interpretazioa eta errazago lortzen da perpausaren pragmatika azalpenik gehitu gabe:

(ii) [Itziar Bilbora etorriko] *ete* dan [galdetzea ere]!

(iii) ?[Itziar Bilbora etorriko] *ete* dan [galdetu duzu]!

(iv) [Itziar Bilbora etorriko] *ete* dan [galdetu duzu]! (eta erantzuna begibistakoa da)

(110) bezalako proposamena errealtatetik hurbilago dagoela iruditzen zait; beraz, egitura hori onetsiko dut.

espletiborik behar (Ortiz de Urbina 1995; Elordieta eta Haddican 2018: 411).²⁵ Galderazko partikulen murriztapena, beraz, 6.2.2 azpiatalean jorratutako gaiarekin dago lotuta; hots, galdera partikulek indar ilokutiboa behar dute euren erabilera zilegiztatzeko eta *ote*, ordea, indar ilokutibodun nahiz indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan ager daiteke.

Euskaraz AS/aS isiltzea ezohikoa dela onartuta, oraingo galdera honakoa da ea zer gertakari sintaktiko gauzatzen den (108-109) bezalako perpausetan. Adibide horiek argi uzten dute aditz perifrastikoetan aditz lexikoa isiltzen dela, aditz jokatua mantentzen den bitartean; jokabide honek aditz modalena gogorarazten du, alegia:

(111) Nik ezin dut hori egin, baina zuk [~~hori egin~~] ahal duzu.

(112) Nik hori egin dezaket, baina zuk ezin duzu [~~hori egin~~].

(113) Ez dut hori egin nahi baina zuk [~~hori egin~~] nahi duzu.

(114) Ogia jan nuen eta ez nuen [~~ogia jan~~] behar.

Kasu horietan ere AS/aS-ren elipsia gauzatzen da, beraz gertakari ezohiko hori ez da guztiz ezinezkoa; hala ere, zuhur jokatu behar da ez baitago testuinguru bera (108-109) adibideetan eta (111-114) adibideetan: bigarrenetan aditz lexikorik ez badago ere, aditz modala dugu; bigarrenetan, aldiz, aditz jokatua besterik ez da azaltzen. Orain, gogoan badaukagu *ote* partikula aditz batetik eratorria dela proposatu izan dela, hizkuntzaren historiaren momentu batean balizko aditz horrek (111-114) adibideetako aditz modalen antzera jokatu zezakeela pentsa liteke. Egia esan, gaurko euskaran *uste* aditzaren erabilera batek aditz-jatorriaren hipotesi horren alde egiten du:

(115) Bestela esan, mairu maj”u hitzean hiru bokal entzun eta ahoskatu *uste* ditu hiztun arruntak. (Oñederra 2004: 65)

²⁵ Arestian esan bezala, hori ez da beti gertatzen; gogora dezagun adibide hau:

(i) Pregunta dau *(ia) *ete* datorren.

Testuinguru honetan ere partikularekin bat egiten duen aditz jokatuak *-(e)n* menderagailua du atxikita; alabaina, perpaus mota desberdinak dira eta, agian, horrek eragin liezaioke *ba-* espletiboaren beharrari. Bestalde, (i) bezalakoetan partikula ezabatuz gero, esaldiaren gramatikaltasuna mantentzen da, (108-109) adibideen modukoetan ez bezala; berauek nahitaez eduki behar dute partikula euren funtzioa elkarriketan gordetzeko. Egia esan, 6.2.7 azpiatalean aztergai eduki dudana egitura hori esamolde ihardua dela esan liteke, aditz komunztadura mantendu duena baina *ote*-ren egungo erabilera orokorretik aldendu dena.

(116) Jaunok, frogatu *uste* dizuet badakidala nola jokatu. (Muñoz *apud* EHUko Euskara Institutua 2009)

Gauzak horrela, egitura horretan, batetik, *ote*-ren erabilera zaharraren lekukotasuna, i.e. arkaismo bat,²⁶ egon liteke eta, bestetik, eurekin guztiz parekatu ezin bada ere, aditz modalen antzera jokatzan dute AS/aS bat hautatu eta isiltzeko aukera baitute eta AS/aS hori modifikatzen baitute.²⁷ Honek ere azalduko luke zergatik ezin den *al* partikula horrelakoetan erabili, berau partikula epistemikotik eratorria baita eta, gramatikalizazioaren ondorioz, ekarpen semantiko txikiagoko eta funtzionalagoko osagaia baita.

Egitura honen arabera ere partikulak bitan bereiz daitezke indar ilokutiboa duten perpausetan agertu behar diren ala ez aintzat hartuta. Partikulen interpretazioa eta erabilera pragmatikoa banaketa honekin bat dator, aurretik (§5.6) azaldu bezala. Hau guztiau gogoan, honako bereizketa proposatzen dut:

- *-a* eta *al* partikulek hiztunak entzuleari proposizioa aurkezteko modua adierazten dute; hizketa ekintzarekin lotuta daudenez, indar ilokutiboa duten testuinguruetan bakarrik erabil daitezke.
- *ote* partikulak hiztunak proposizioaren gainean duen jarrera adierazten du; proposizioa modifikatzen duenez, partikula agertzen deneko perpausak ez du nahitaez indar ilokutiborik behar.

²⁶ Are gehiago, egitura horrek espresibitatearekin zerikusia duen heinean, errazagoa da, neure ustez, berranalizatu izana eta adierazpen enfatiko hori helarazten duen funtzioa hartu izana, azaleko forma ihartuta. Izan ere, baliteke *ote* (*ete*) agertzen den ihartuta dagoen egitura bakarra ez izatea; Aitor Lizardi-Ituarte (a.k.) eman dit aditzera Mutrikuko hizkeran honelako testuinguruetan erabil daitekeela partikula:

(i) Ban *ete* noan nik ba!

Euskara batuan horrelako testuinguruetan ‘banengoen ni!’ esango litzateke. Formaren aldetik, interesgarria den arren, *ban* osagaia iluna da, zer izan ote daitekeen jakin ezinik. Era berean, Ondarroan antzeko esamoldea erabiltzen dute:

(ii) Baneteuan ba!

Bigarren honen egitura are ilunagoa da, baina Mutriku eta Ondarroa elkarren ondoan dauden herriak direla kontuan hartuta, *ote* (*ete*) partikula ere dagoela pentsa liteke.

²⁷ Beste hipotesi hau ere proposa liteke: Denb burua Jok burura mugitzen da, aditz jokatu sortzeko, eta, ondorioz, partikula, aditz jokatu eta menderagailua Jok buruan daudenez DenbS-ren elipsia gauzatzen da:

(i) [JokS [DenbS [PartS [AS] [Part *ote*]] [Denb *da*]] [Jok -en]] > [JokS [DenbS] [Jok *ote den*]]

Hau esanda, jarraian (§6.3.2) partikulek egitura sintaktikoan duten banaketa jorratuko dut.

6.3.2 Partikula modalen eremuaz: *erdiko eremua ala ezker periferia?*

Ezaugarri bereiziek partikulen multzo biren berri ematen digutela ondorioztatu dut aurreko azpiatalean; oraingoan partikulen kokapen sintaktikoari erreparatuko diot partikulen arteko desberdintasunak aintzat hartuz. Aurretik (§6.2.5) erakutsi dut partikula bat baino gehiago perpaus berean ager daitezkeela:

(117) Eta Baxi-Nabarreko koblakari batek, ez *ote* düa erran (...)? (Davant 2008: 85) (= 74)

(118) Amatxi Iholdiko *othe zena?* (Camino 2009b: 193) (= 66)

(119) Jin *othe dea?* (Euskaltzaindia 2016)

Honek iradokitzen du partikula hauek, behintzat, egitura sintaktikoan kokagune desberdinak okupatu behar dituztela. Halaber, bateragarritasun ebidentziaren arabera *al* eta *ote* partikulak gune berean kokatzen bide dira, banaketa osagarrian baitaude:

(120) *Ikusi {*al ote / ote al*}du Ikerrek etxe berria?

Beraz, gune sintaktiko bi geneuzkake, bata *-a*-rena eta bestea *al* eta *ote* partikulena. Partikulak aditz jokatuari eransten zaizkionez DenbS eremukoak direla eta bertan gune bi okupatzen dituztela pentsa liteke, beste hizkuntza batzuetan, esate baterako suedieraz (Scherf 2017), aldarrikatu denaren ildotik. Hala ere, 6.2.1 azpiatalean aditzera eman dudanez, partikula hauek perpaus mailako guneari dagokionez aldeak dituzte *al* eta *ote* aditz jokatuaren aurretik eta *-a* beraren ostean agertzen baitira. Honez gain, lehenengoak mendeko testuinguruetan ager daitezke; *-a*, berriz, ezin da zehar galderetan erabili. Murriztapen hau sintaktikoa bainoagoa pragmatikoa izan liteke; hots, *-a* estilo zuzenean bakarrik erabil daiteke bere pragmatika entzulearekin lotuta dagoelako. Beraz, nekez adieraz dezake *-a* partikulak hiztunak zehar galderetako proposizioaren bidez entzulearekin duen harremana.²⁸

²⁸ Halarik ere, Blum-Kulkaren (1987) ildotik, galdera bat mendeko testuinguru batean txertatzen bada, entzuleak galderaren zuzentasuna apalago sumatzen duela; esaterako:

Gauzak horrela, ekialdeko partikulak mendeko perpausetan duen murriztapen honek ez digu oraingo auzian laguntzen, *-a* partikula menderagailuekin banaketa osagarrian egoteak ez baitu zertan egon sintaxiarekin eta kokagune sintaktikoarekin lotuta.

Lehen (§6.2.6) erakutsi dut *-a* beste partikuletatik bereizten duen beste ezaugarri bat: egun ekialdeko partikula *bai* eta *ez* polaritatezko adberbioei lotua erabiltzen dute hiztunek, hizkuntzaren aurreko faseetan erabilera askoz emankorragoa izan zitekeena, *nika* eta *kemena* testigantzek iradokitzen duten bezala. Testuinguru horietan DenbS isildu dela onesten dut, polaritatezko morferma (*bai* edo *ez*) eta *-a* partikula bakarrik daudelarik:

(121) Ez *-a* [DenbS ~~ene autoak tratatzen zaitu~~]?
~~ene autoak tratatzen zaitu~~

Beste partikulak, aldiz, ezin dira horrelako elipsi baten ondorioz azalean geratu; hots, DenbS isilduz gero, ezin dira *al* edo *ote* agertu, azken hau buru sintaktikoa bada, behintzat:

(122) Ez [DenbS ~~ene autoak tratatzen al / ote zaitu~~]?
~~ene autoak tratatzen al / ote zaitu~~

Beraz, hau kontuan hartuta, *-a* partikula KonpS eremuko osagaia eta *al* eta *ote* DenbS eremukoak direla proposatzen dut.


Lehenengoaren kokapenak ahalbidetzen du a) DenS-ren elipsiaren ostean agerian irautea; eta b) beste eremuan, i.e. DenbS eremuan, dauden partikulekin batera azaltzea. Era berean, bigarrenen kokapenak azaltzen du: a) perpaus neutroetan okupatzen duten kokagunea, i.e. AspS-ren eta DenbS-ren artekoa; b) euren artean banaketa osagarrian egotea; eta c) DenbS-ren elipsiaren ondorioz agertu ezin izatea ere.

Aurretik (§3.4) aditzera eman dudana bezala, partikulak hainbat eremutan banatuak izan dira (Coniglio 2007b; Bayer eta Obenauer 2011; Coniglio eta Zegrean 2012; Haegeman 2014; Struckmeier 2014; Del Gobbo eta beste 2015; Heim eta beste 2016; Scherf 2017;

(i) I'm wondering where I can get a pen like that.

Beraz, ez litzateke guztiz ezinezkoa izango zehar galdera baten kasuan entzulearekiko harremana azalartzea. Alabaina, hiztunaren eta entzulearen arteko interakzio hori ez luke entzuleak zuzenean lortuko; aitzitik, horrelako testuinguruetan entzuleak inferitu beharko luke zergatik adierazten den zehar galdera duen perpaus bat eta zeharka ulertu beharko luke mendeko perpausaren dagoen galdera zuzentzen diola hiztunak. Beraz, inferitze prozesuak entzulearekiko harremana zehaztea eta galderaren zuzentasuna apaltzea lekartzake.

(124)



Kokapen horren arrazoia partikulek aditz jokatua hautatzen dutelako ideiarekin dago lotuta. Lehen (§4.3.3) aditzera eman dudanez, Albizuk (1991) dio partikulek indikatibozko aditz jokatuarekin bakarrik bat egiten dutela; beraz, partikulek Denb burua aukeratzen dutenez, PartS-ren osagarria izan behar da DenbS.

Elordietak (1997) eta Elordietak (2001), ordea, partikulek perpaus mailan duten gunean eta gainerako osagaiekin duten banaketan oinarrituz AS-ren gainetik eta LagS edo DenbS-ren azpitik kokatzen direla aldarrikatzen dute:

(125) [_{InfS}/DenbS [_{LagS} [_{ModS} ahal, al, bide, ei, omen, ote (ete) [_{AS}]]]]]

Bestalde, ebidentzia interpretatiboak ere irizpidetzat hartzen dituztenen artean ere aldeak daude. Batetik, Haddicanek (2008) partikulen besarkadurari erreparatu eta proposizio osoaren gainetik dela ondorioztatzen du; beraz partikulen kokapena proposizio osoaren gainean egon behar dela proposatzen du:

(126) [_{PolS} [_{ModS} ahal, al, bide, ei, omen, ote (ete) [_{DenbS} [_{Ezez-BaiezS} [...]]]]]]

Bestetik, Lizardik (2017) Heim eta besteren (2016) eta Wiltschkoren (2017) analisi neoperformatiboetatik abiatuta *al* eta *ba* partikulak KonpS-ren gaineko HeS-n kokatzen ditu, partikulek adierazten dituzten bai hiztunaren ikuspuntua, bai hiztunaren eta entzulearen arteko erlazioa kontuan hartuz:

(127) [*Hartzaille-ErantzunS* [*Hiztun-ErantzunS* *ba* [*Hiztun-OinarriS* *al* [*KonpS* ...]]]]

Analisi horiekin guztiz bat ez banator ere, aztergai ditudan partikulen analisia arakatzean aintzat hartuko ditut, banan-banan kokagune horien egokitasuna ebaluatuz eta euren ahuleziak plazaratuz, hipotesi sendo bat eraikitzeke asmoz.

6.4.2 -a partikularen analisia

Ekialdeko partikula, partikula modalak bezala, buru sintaktikoa da, 4.4 azpiatalean argudiatu dudana bezala. Orain analisiari heldu baino lehen, partikula honen ezaugarriak gogoratuko ditut:

- a. Buru sintaktikoa da; are gehiago, klitiko moduan jokatzen du.
- b. Ohiko partikula modalak ez bezala, atzizkia da. Honek *-(e)n* eta *-(e)la* menderagailuekin banaketa osagarrian egotea dakar. Izan ere, perpaus nagusietara mugatuta dago, beraz ezin da mendeko perpausetan agertu eta, jakina, indar ilokutiboa duten zehar galderetan ere ez.
- c. Ekialdeko partikula beste partikula batzuekin bateragarria da; *ote*-ri dagokionez behintzat, ez dago zalantzarik biak perpaus berean ager daitezkeela; *ahal*-i dagokionez, ordea, testigantza gutxiago dauden arren, badirudi bateragarriak direla. Gainerako partikulekin ezin da agertu perpaus mota desberdinetan agertzen baitira.
- d. Alokutibodun aditz jokatuak ezin dira erabili *-a* partikula azaltzen den ohiko testuinguruetan, i.e. galderetan. Hala ere, 6.2.3 azpiatalean azaldu dudana bezala, murriztapen honek galdera izaerarekin du zerikusia; beraz ez dago partikularen propietateekin zuzenean lotuta..
- e. Polaritatezko *bai*-ri eta *ez*-i lot dakieke *-a* partikula, DenbS osoa isilduz gero. Gaur egun ezaugarri honek forma bi bakarrik sortzen ditu, *baia?* Eta *eza?*; hala ere, baliteke aurreko garaietan emankorragoa izatea, *nika?* eta *kemena?* bezalako testigantzetan oinarrituta.

Bereizgarri horiek kontuan hartuz gero, honakoa ondoriozta daiteke *-a* partikularen kokaguneaz. Alde batetik, ekialdeko partikula ez da gainerako partikulek okupatzen duten

gunean azaltzen *ahal* eta *ote* partikulekin batera ager baitaiteke. Beste alde batetik, fokua aurreratuta duten perpausetan *-a*-k berorrekin duen banaketari erreparatuz, partikulak ezin du KonpS-tik edo FokS-tik goragoko sintagmarik okupatu. Gauzak horrela, FokS-ren eta DenbS-ren arteko eremuan egon beharko litzateke *-a* partikularen kokapena. Honek aukera bi gutxienez eskaintzen ditu: bata, partikula JokS-ren buruan sortzen dela proposatzea, Monforteren (2015) ildotik; bestea, ordea, partikulak berezko sintagma duela eta beraren burua dela aldarrikatzea. Jarraian balizko kokagune horiei ez ezik, orain baztertutakoei ere arretaz begiratuko diet.

Lehenik, FokS-ren buruan kokatzea baztertzen dut hurrengo arrazoiengatik: lehenengoz, *-a* partikulak ez du zereginik fokua markatzeko egiturarekin eta eratorbideekin; izan ere, partikularik gabe fokua markatzeko eratorbide berdina gauzatzen da. Bigarrenez, osagai fokalik gabeko galderetan ere partikula ager daiteke; hala ere, 2.4 atalean aldarrikatu dudana bezala, horrelako kasuetan argudia daiteke foku estua gabe foku zabala dagoela, proposizio osoa besarkatzen duena. Gainera, partikula fokularekin lotuta egongo balitz, ez dago argi zer foku mota markatuko lukeen foku mota desberdinak dituzten perpausetan agertzen baita. Era berean, azaldu beharko litzateke zergatik agertzen den polaritatezko galderetan sarritan eta ez fokua duten beste perpaus motetan; hala ere, partikulak [fok] tasunaz gain, [Q] tasuna ere baduela proposa liteke. Azkenik, tasun horiek onartuta ere, galderetako partikula fokaltzat joz gero, ez luke zertan mugatua egon testuinguru zuzenetara.²⁹ Alegia, zehar galderetan agertzeko murriztapena ezin da azaldu Fok buruan dagoelako hipotesitik abiatuta. Hau guztiau aintzat hartuta, FokS *-a* partikularen kokagunea delako ideia baztertzen dut.

Honez gain, IndarS-n kokatzea ere baztertzen dut, (Monforte 2015; 2018) lanetan argudiatu dudana bezala. Batetik, proposamen horrek, tipologikoki desberdinak diren hizkuntzen arteko analisi onartuena eta zabalduena euskarara ekartzea suposatuko balu ere, ez legoke justifikatuta, euskararen ezaugarri batzuk nekez azal bailitezke, e.g.


²⁹ Jonesek (2005: 25) sardinierazko *a* galdera partikula aztertzen du: partikula hau *nz*-hitzeekin eta osagai fokalekin banaketa osagarrian dagoela eta ezin dela zehar galderetan erabili dio. Ebidentzia hauetan oinarrituta, partikula KonpS-n kokatzen dela proposatzen du. Bestalde, kartografiaren ildotik, Menschingek (2015) *a* galdera partikulak Fok burua okupatzen duela aldarrikatzen du fokularekin duen harremana oinarrituz; hala ere, ez du azaltzen zergatik ezin den partikula hau mendeko testuinguruetan azaldu.

menderagailuen³⁰, galdera partikulen eta bestelako perpaus mota markatzaileen kokapena eta jokaera. Bestetik, -a partikulak Indar burua okupatuko balu, (128-130) adibide bezalakoetan partikularen eta aditz jokatuaren arteko bat egitea ez litzateke gauzatuko aditza Fok burura mugitzean; hots ohiko eratorbide baten bidez. Aitzitik, arau morfonologiko *ad hoc* bat proposatu beharko litzateke goian dagoen partikula behean (i.e. Fok buruan) dagoen aditz jokatuari lot lekion:

(128) Gure Klodina, HEMEN dea? (Landart 1982)

(129) JONEK ote dia hori erran? (= 65)

(130)



Era berean, aurretik (§3.4.3) labur deskribatutako analisi bietan (Haegeman 2014; Heim eta beste 2014; Heim eta beste 2016) partikula modalak KonpS-ren gainetiko eremu batean, i.e. HeS-ren eremuan, kokatzen direla aditzera eman dut. Eremu honetan -a partikula kokatzen ote den hipotesiak IndarS-rako identifikatutako eratorpenezko arazo bertsuak azalarazten ditu.³¹ Beraz, HeS ere baztertzen dut, ez baitu eratorbidea egokiro azaltzen.

³⁰ Menderagailuak aipatzen ditut hipotesi gehienetan (Cheng 1997; Prieto eta Rigau 2007; Cruschina 2012; Kuwabara 2013) berauek eta galdera partikulak parean ipintzen baitituzte. Aurretik (§3.4.2) adierazi bezala, horrelako analisisiek IndarS-n kokatzen dituzte galdera partikulak menderagailuekin banaketa osagarrian daudelako eta perpaus mota ezartzeko baliabidez hartzen dituztelako.

³¹ Heim eta beste (2014; 2016) eta Wiltschkok (2017) proposatzen duten banaketak perpaus amaierako partikuletarako egokia bide da, hala nola *ezta?* edo *ala?*. Ekialdeko partikularen banaketa baiezko testuinguruetan azal dezakeen arren, ezezko galderei dagokienez, nekez lor daiteke behar den hitz-ordena. Horretarako hainbat eragiketa sintaktiko proposatu beharko lirateke: proposizioa osatu ostean, ezeztapenaren ondoren agertzen diren osagaiak HeS-ren eta KonpS-ren arteko gunera batera mugitu beharko lirateke eta, jarraian, KonpS-n geratu den zatia erakarriko luke -a-k bere ahizpa-adabegira. Ikus dezagun adibide bat:

(i) a. Eske hori ez zautzua ongi?

Bestalde, *-a* partikula Jok buruan kokatzen dela aldarrikatu izan dut aurreko (Monforte 2015; 2018) lanetan, partikula honen ezaugarri berezietan oinarrituz. Dena den, hurbilketa horrek hainbat gabezia ditu. Hasteko, 6.2.3 azpiatalean esan dudana bezala, *-a* partikula eta alokutiboa bateragarriak ez izateko ebidentziaz baliatu nintzen; hala ere, ekialdeko hizkeretan alokutiboa ezin da polaritatezko galdera (neutro)-etan³² erabili (Oyharzábal 1993; Alberdi 1994). Ekialdeko partikula eta alokutiboa testuinguru horietan aldi berean azaldu ezin direla kontuan hartuta, nekez jakin liteke ea *-a* eta alokutibozko formak banaketa osagarrian dauden. Halaber, *-a* partikula eta menderagailuak parekatzeak biak atzizkiak direlako eta aditz jokatuari lotzen zaizkiolako ez dirudi oso argumentu sendoa,³³ euskarazko morfologian eta eratorpen morfologikoetan atzizkiak gailentzen direla gogoan edukita. Azkenik, menderagailuak eta ekialdeko galdera partikula banaketa osagarrian daude; horrenbestez, partikula ezin da zehar galderetan erabili. Murriztapen hori kokapen sintaktiko bera okupatzeak dakarrela esan litekeen arren, arrazoi pragmatikoak daudela proposatzen dut. Aurretik (§5.1) *-a*-k perpausean duen funtzioa ikertu dut, hiztunak entzuleari proposizioaren indarra nabarmendu nahi dio berarengandik erantzun bat jasotzea ezinbesteko

- b. $[_{\text{KonpS}} \text{eske hori ez zautzu } [_{\text{DenbS}} \text{ongi}]] > [_{\text{XS}} [_{\text{DenbS}} \text{ongi}] [_{\text{X}'} [_{\text{KonpS}} \text{eske hori ez zautzu } [_{\text{DenbS}} \text{ongi}]]]] > [_{\text{HES}} [_{\text{KonpS}} \text{eske hori ez zautzu}] [_{\text{HES}'} [-a]] [_{\text{XS}} [_{\text{DenbS}} \text{ongi}] [_{\text{X}'} [_{\text{KonpS}} \text{eske hori ez zautzu } [_{\text{DenbS}} \text{ongi}]]]]]]$

Hurrenkera lortzen bada ere, arazo bi ditu eratorbide honek: bateko, ez legoke DenbS osoaren mugida aktibatuko lukeenik eta, besteko, mugida horren ondorioz sortutako katea apurtuko litzateke, DenbS-ren aztarna gorago bailegoke.

³² Aurretik (§6.2.4) ekialdeko hizkeretan ere alokutiboa galderetan erabil daitekeela frogatzen duten adibide batzuk mahaigaineratu ditut; halarik ere, galdera horiek *declarative rise interrogative* delako motakoak direlakoan nago, beraz sintaktikoki ez lirateke galderatzat jo beharko, deklarati botzat baizik. Horrek azalduko luke zergatik azaltzen diren alokutibozko morfemak.

³³ Lehenik eta behin, ekialdeko partikula *-En* eta *-Ela* menderagailuekin parekatzea ez da egokia, bigarrenek funtzioa sintaktiko hutsa baitute. Egia da proposizioa interpretatzeko balio dutela; alabaina, ezin da *-a*-ren ekarpen interpretatiboarekin erkatu.

Bestalde, menderagailuekin batera Jok buruan kokatzeak perpaus mailako banaketa azaltzen badu ere, ez du argitzen zergatik ez diren *-Ela* edo *-En bai* eta *ez* osagaiei lotuak agertzen mendeko testuinguruetan:

- (i) Bai-*a*? / *Bai-*en*?


Alabaina, polaritatezko adberbioei atxikita ager daitekeen beste morfema bat dugu, i.e. *-etz*, *baietz* eta *ezetz* sortuta. Rebuschik (2013: 5) egun ekialdeko hizkeretan zehar galdera absolutuetan ohikoa den *-Enetz* arakutzen duenean, bitan zatitzen du: batetik, *-En* menderagailua eta, bestetik, *-etz*. Morfema hori *-a* partikularekin banaketa osagarrian dagoela dio Rebuschik. Egia esan, biek antzera jokatzeko dute, *bai/ ez* osagaiei atxikitzen baitzaizkie eta polaritatezko galderetara mugatuta baitaude. Rebuschik (2013: 5) *-etz*-i Jok burua esleitzen dio; beraz, ekialdeko galdera partikulari gune bera proposa lekioko, banaketa osagarrian daudela dioela gogoan edukita. Hala ere, gune hori baztertu dut aurretik. Oraingo argudioari begira, nabarmentzekoa da menderagailuaren kokagunea baztertzen duela Rebuschik.

duela adierazteko; 6.3.2 azpiatalean aditzera eman dudanez, funtzio hori nekez buru daiteke mendeko testuinguru batean txertatuta. JokS-n kokatzea tipologikoki argudiatuta egon daitekeen arren, -a Jok buruan sortzen delako hipotesia baztertuko dut.³⁴

Aurretik (§3.4.2) tipologiari begira hiru kokagune proposatu direla plazaratu dut: KonpS (edo IndarS), Rizziren (2001) GaldS eta JokS. Lehenengo eta azkena baztertu ditut dagoeneko -a partikularen analisirako eta bigarrena ere ez dela egokia baieztatu dezaket FokS-ren gaineko edozein gunek dituzten arazoez erakusten duten bezala. Dena den, gramatika lanetan topa daitezkeen lan berri batzuek partikula horietako hainbat hautazkoak direla nabarmendu dute; alegia partikula horietako batzuk ez direla nahitaez erabili behar galdera absolutuak sortzeko. Gramatiketan nahitaezkoztat jo diren galdera partikula horietako bat japonierazko *ka* da; alabaina, Kuwabarak (2013: 107) partikularen hautazkotasuna aitortzen du.³⁵ Halaber, partikula horien ekarpen interpretatiboa aintzat hartzen dutenek partikulak proposizioa markatzeko baliabide sintaktiko hutsak direlako hipotesiak baztertzen dituzte (Li 2006; Miyagawa 2012; Mensching 2015, besteak beste). Lik (2006), adibidez, ez dio Chengen (1997) hipotesiari jarraitzen eta *ma* partikularen erabilera guztiak gogoan edukiz, partikula horren azterketari ekiten dio eta perpaus mota markatzeaz arduratzen ez den kokapen sintaktikoa esleitzen dio, i.e. Graduatazile Sintagma, partikularen

³⁴ Conigliok (2007b) alemanerako eta Scherfek (2017) suedierarako proposatutako egitura euskarara ekarriz gero, batetik, ekialdeko galdera partikula Jok buruan kokatuta egon liteke eta, bestetik, *ote* ez-kanonikoak suedierazko *nog* eta *visst* partikulen kokapen bera okupa lezake, JokS-ren eta DenbS-ren artean:

(i)



Hala ere, analisi hori onartzeak hainbat arazo dakartza. Lehenik eta behin, nabarmenena da Coniglioren (2007b) nahiz Scherfen (2017) PartS horiek ez dagozkiola ezker periferiari, erdiko eremuari baizik (cf. Poletto 2000: 5). Beraz, ekialdeko *ote* ez-kanonikoak *ote* kanonikoaren eremu bera okupatuko luke eta ez KonpS eremuko gunek bat, 7.3.4 azpiatalean argudiatuko dudak bezala. Honez gain, *ote* biek gunek bera okupatuko balute, perpaus mailako banaketa desegokiak azaleratuko liriateke. Bestalde, -a Jok buruan eta *ote* ez-kanonikoa KonpS eremuan kokatuz gero, tipologikoki ageri den hierarkia ez genuke euskarazko partikula bi horien artean, partikula performatiboek epistemikoak besarkatzen dituztela alegia.

³⁵ Era berean, Norio Nasuk (a.k.) partikula hau ez dela nahitaezkoa polaritatezko galderetan baieztatu dit.

ekarpen interpretatiboa irizpidetzat hartuz.³⁶ Hau bat dator benetako galdera partikulak dituzten hizkuntzak gutxi direlako ideiarekin (Xiang 2012; Balusu 2019); hots, hizkuntza gehienen partikulek ez dute proposizioa galderatzat markatzen, hiztunaren (edota entzulearen) proposizioarekiko aurkezpena, harremana, jarrera eta ikuspuntua (partikula performatiboak eta ebaluatzaile-ebidentzial-epistemikoak alegia) baizik.


Gauzak horrela eta sintaxiak eta partikularen izaerak ez dutela bere kokapena argitzen laguntzen ikusita, interpretaziora joko dut; horretarako, *-a* partikularen eta KonpS eremuan kokatzen diren beste partikulen ekarpen edota funtzioei begiratuko diet: *bada* (Lizardi-Ituarte 2017) eta *ote* partikulen interpretazioak hiztunaren ikuspuntua islatzen du, i.e. subjektiboak dira (Traugott 2010; Izutsu eta Izutsu 2013); *-a*, ordea, intersujektiboa da, hiztunaren eta entzulearen arteko harremana markatzen baitu.

Aurretik (§3.4.3) aditzera eman dudanez, partikulak ez dira edozein hurrenkeratan agertzen; aitzitik, hiztunak proposizioarekin duen jarrera adierazten duten partikulak proposiziotik hurbilago daude hiztunak proposizioarekin (eta entzulearekin) duen asmoa eta sortu nahi duen harrera adierazten dutenak baino. Bestela esanda, partikula subjektiboek (ebaluatzaileak, ebidentzialak eta epistemikoak) barruragoko kokapena dute perpaus mailan intersujektiboek (galderazkoak, performatikoak) baino; honek gogorarazten du Kuongek (2008) proposatutako bereizketa, i.e. barne- eta kanpo-partikula, edo Correk (2015; 2016) proposatutakoa, goi- eta behe-partikulen artekoa alegia. Hierarkia horren arrazoia ebidentea da hiztunaren ikuspuntua bakarrik adierazten duten partikulek proposizioa modifikatzen dutelako; entzulearen harrera edota balizko ikuspuntua gehitzen dutenek, ordea, modifikatuta dagoen proposizio hori ulertzeko modua ezartzen dute (Heim eta beste 2014). Har dezagun, beraz, hierarkia hau aintzat eta hel diezaiogun berriro *-a* partikularen kokapenaz mahaigaineratutako galderari: *ote* eta *bada* partikulek hiztunaren jarrera edota ikuspuntua aditzera ematen dutela gogoan edukita, *-a* partikula beraien gainean kokatuta egon beharko litzateke, azken horren bidez hiztunak entzuleak arreta proposizioan ipin dezala adierazten

³⁶ Li (2006) konturatzen da *ma* partikula galderak ez diren beste testuinguru batzuetan erabil daitekeela; halaber, *ma*-rik gabeko galderak gramatikalak direla adierazten du. Partikula honek testuinguru desberdinetan duen erabileratik abiatuta, partikulak, polaritatezko galderetan azalduz gero, entzuleak erantzun bat emateko nahia areagotzeko balio duela ondorioztatzen du Lik.

baitu.³⁷ Beraz, Heim eta besteren (2014; 2016) eta Wiltschoren (2017) Zuzenduarenganako deia Sintagmarekin (ing. *Call on Addressee*) edo Lamén (2014) ildotik Indar_{entzulea} Sintagmarekin edo Corren (2015; 2016) Goi-Hizketa Ekintza Sintagmarekin parekatuta legoke *-a*-ren partikularen gunea, interpretazioaren aldetik behintzat, eremu sintaktikoari dagokionez ezker periferian kokatzen baitu. Hurrengo diagraman ikus daiteke, beraz, ekialdeko partikulari esleitzen diodan gunea:

(131)



Aurrerago (§6.4.3) erdialdeko partikulari ere sintagma bera esleituko diot, baina kasu horretan delako sintagma erdiko eremuan kokatuta egongo da, *-a* partikularen kasuan ez bezala. Eremu bietan Partikula sintagmak egotea ez da bitxia, 3.4 atalean aditzera eman dudanez, eremu bietan kokatuak izan baitira partikulak hizkuntza desberdinetan. Egia esan, Etxepare eta Uriak (2016: 283) gogorazten digute sintagma funtzional batzuen guneak (Ezeztapen Sintagma, Foku Sintagma, Topiko Sintagma alegia) ezker periferian eta erdiko

³⁷ Partikula hauen arteko banaketak ere analisi horren alde egiten du, ekialdeko galdera partikula beti beste partikulak baino aurrerago azaltzen baita:

- (i) Baia *ote?* / Eza *ote?*
- (ii) Baia *ba?* / Eza *ba?*

Azaleko osagai-banaketak beti egitura sintaktikoa islatzen ez duen arren, irizpide interpretatiborekin bat etortzeak azterbide hori indartzen du.

eremuan identifikatu izan direla gramatika lanetan (Etxepare eta Uribe-Etxebarria 2008; Haddican 2008; Arriortua 2017, besteak beste). Beraz, honek frogatzen du galdera partikulek ezker periferian nahiz erdiko eremuan gune bat okupa dezaketela; interesgarria da euskaraz agerian dagoen mikroaldakortasun hori beste hizkuntza batean ere topatzen dela, txineraren hizkeretan kasu. Ezaguna da mandarineraz *ma* galdera partikulatza hartua izan dela (Cheng 1997; cf. Li 2006); alabaina, mandarineraren dialektoa den wuhueraz ez dira partikula horretaz baliatzen, *ha* partikulaz baizik (Chen 2019). Bien arteko aldeak euskarazkoena gogorarazten du: alde batetik, *ma* ezker periferian kokatzen da; *ha*, ordea, DenbS-ren eremuan. Beste alde batetik, *ma* ezin da zehar galderetan azaldu; *ha*, aldiz, erabilia izan daiteke mendeko testuinguruetan. Gauzak horrela, (131) diagraman islatutako egituraren alde egiten dut, *-a* markatzaileak Partikula Sintagma okupatzen duelakoaren alde alegia. Are gehiago, 6.3.1 azpiatalean argudiatu dudana eta ondorengoetan (§6.4.3 eta §6.4.4) egingo dudana bezala, partikulak biltzen dituzten Partikula Sintagma bi proposatzen ditut: batetik, partikula performatiboak buru dituen eta, bestetik, partikula ebaluatzaile, ebidentzial eta epistemikoak biltzen dituen. Bereizketa hau gramatika lanetan sarri lekukotzen da (Kuong 2008; Haegeman 2014; Lam 2014; Corr 2015; 2016; Wiltschko 2017) eta lan horietatik abiatuta honako izendapenez baliatuko naiz: lehenengo taldekoei K-PartS (hots, *Kanpo-Partikula Sintagma*) esleituko diet; bigarrenekoei B-PartS (hots, *Barne-Partikula Sintagma*). Partikularen kokapena argituta, eratorbidean garrantzitsuak diren berezko tasunak zehaztuko ditut; bestela esanda, partikula hau erabiltzea zilegiztatzen duen testuingurua zehazten duten tasunak aurkeztuko ditut ondoren:

(132) *-a*: [part], [*u*indar: Q], [*u*perpaus mota: Q]

[Part] tasuna partikula modalen kategoriaren berezkotzat har liteke.³⁸ [Indar:] eta [perpaus mota:] tasunei dagokienez, semantika-pragmatikak motibatzen ditu: bateko, 6.2.2 azpiatalean plazaratu dudana bezala, partikula guztiek ez dute berdin jokatzeko indar ilokutiboari dagokionez, batzuek nahitaez behar baitute euren erabilera zilegiztatzeko eta beste batzuek, aldiz, ez; besteko, partikula guztiak ezin dira perpaus mota guztietan azaldu,


³⁸ Koeneman eta Zeijlstraren (2017) terminologiari jarraituz, kasu honetan [Part] *-a*-ren tasuna litzateke eta besteak azpitasanak (ing. *Subfeatures*).

partikularen ekarpen interpretatiboa eta perpausaren baldintzak bateragarriak diren horietan bakarrik baita zilegi euren erabilera (§6.2.3). Beraz, partikularekin bateragarria den [perpaus mota] tasuna eduki behar dute Indar/Jok buruek. Murriztapen hau sintaktikoa baino semantiko-pragmatikoagoa bada ere, interesgarria iruditzen zait tasunen artean jasotzea, partikularen jokabideari eta murriztapenei azalbidea ematen baitie.³⁹

Kokapena eta ezaugarriak argituta, *-a* agertzen deneko perpaus baten eratorbidea azalduko dut ondoren; horretarako hurrengo adibidea hartuko dut oinarri, partikulak eratorbidean duen jokabidea ez dela testuingururik testuinguru (fokurik gabeko galderak, aditz perifrastikodun galderak, ezezko galderak) aldatzen onartuta:

(133) a. HOR duka beti matelako xilo hura?

b.




Banaketa horretatik eta 2.4.1 azpiatalean polaritatezko galderetarako proposatutako eratorbidetik abiatuta, (133) adibidearen analisiari ekingo diot. Hasteko, Indar buruak Jok buruaren [perpausmota:] tasuna balioztatzen du, kasu honetan biek [Q] tasuna hartuz. Indar ilokutiboaren eta perpaus motaren tasunak galderazkoak direnez, ekialdeko galdera partikularen erabilera zilegizatzen dute, Nasuren (2019) ildotik, euren [*u*indar: Q] eta [*u*perpausmota: Q] tasunen balioekin bat baitatoz ($\emptyset_{[indar\ Q, perpausmota\ Q]} / -a_{[uindar: Q; uperpausmota:$

³⁹ Irakurleak partikulak tasun sintaktikorik ez duelako inpresioa har dezake eta arrazoizkoa da hori pentsatzea. Laugarren kapituluaren euskaraz partikula modalek dituzten propietate bereizleak fonologia-prosodiarekin eta semantika-pragmatikarekin daude lotuta, kasurako, aditz jokatuarekin bat egiteak edo perpausaren betetzen duen funtzioak.

q] alegia); tasunak erkatuta, partikularenak ezabatzen dira. Ondoren, Denb burua Jok burura igotzen da [denb] tasuna harreman hurbilean erkatzeko asmoz eta horrela ezarritako perpaus motarekin bateragarria den aditz jokatu forma sortzen da (Arregi eta Nevinsen 2012 ildotik). Bestalde, (133) adibidean fokua dagoenez,⁴⁰ osagai hori dagokion gunera mugitzen da, i.e. *hor* [espez, FokS] gunera igotzen da. Azkenik, FokS lexikalizatu denez, Fok buruak duen [jok] tasuna erkatzeko beharrak buruz buruko mugimenduaren bitartez Jok burua erakartzen du, bidean *-a* partikularekin bat eginda. Hots:

(134)



Analisi honek ekialdeko partikularen ezaugarri bereizleak azaltzeko bidea ere eskaintzen du, hala nola beste partikula kanonikoekiko bateragarritasuna eta *baia?* / *eza?* bezalako formak. Lehenengo kasuan *-a* partikulak eta *ahal* / *ote* partikulek gune desberdinak okupatzen dituzte: lehenengoak ezker periferiako K-PartS-ren burua eta beste biek erdiko eremuko PartS-ren burua; azken horien kokapena jarraian (§6.4.3 & 6.4.4) sakon jorratuko dut. Oraingo helburuetarako erabil dezagun hurrengo adibidea analisi hau propietate horiei dagokienez egokia ote den erakusteko:


⁴⁰ Osagai fokalizaturik gabeko galdera batean, 2.4 atalean azaldu dudun bezala, fokuak perpaus osoa besarkatzen duenez, aditza Fok burura igotzen dela proposatzen dut. Beraz, (133) adibidearen eratorbidearekin konparatuz gero, desberdintasun bakarra izango litzateke horretan osagai fokalizaturia dagoela. Gainerakoan, eta lan honi dagokionean, ez litzateke alderik egongo.

(135) JONEK ote dia hori erran? (= 65, 129)


Aurreko azterbideetan ez bezala, honetan partikula bakoitzak bere gunea du, biak batera azaltzea zilegizatuta. Galdera baten eratorbide ohikoak (aditza KonpS-ra igotzeak alegia) eragiten du, batetik, *ote*-k aditz jokatuarekin bat egitea eta, bestetik, biek eratutako osagaiari *-a* partikula atxikitzea. Ikus dezagun hurrengo diagraman beronen eratorpena:

(136)

a)



b)



Bigarren kasuan ere oraingo proposamenak egokiro azal ditzake *baia?* eta *eza?* bezalako formak. Horrelako perpausetarako honako eratorbidea argudia daiteke: a) DenbS osoa isildu dela; b) perpausaren polaritatea markatzen duen osagaia gauzatzen dela; eta c) berorri atxikitzen zaiola *-a*. Esate baterako:

(137) [_{FokS} *Bai* [_{Fok} \emptyset] [_{PartS} [*-a*] [_{DenbS} \emptyset]]]

Literaturan perpaus konplexuagoen adibideak jaso ditut:

(138) *Baia othe* burur hotz-hotza orai bortüari bürüz, eta holako denborareki? (Davant 2008: 76)

(139) Berak *baia ote*? (Larre 1986: 1) (= 89)

Horrelako kasuetan polaritatezko partikulaz eta *-a-z* edota *ote-z* gain, proposizioaren bestelako sintagmak azaltzen dira, aditza izan ezik. Eratorbide bi plazara litezke honen berri emateko: a) Denb eta A/a buruak isildu dira horrelako kasuetan; b) “burur hotz-hotza orain bortiari buruz eta honelako denborareki” topikoa da eta DenbS-ren elipsiaren eraginetik kanpo dago, beraz ez da horren ondorioz isiltzen.

Ondorioz, ekialdeko hizkeretako *-a* partikulari ezker periferiako kokagune beregain bat esleitzen diot, *bada* eta *ote* partikulen gainean, argumentu pragmatikoetan oinarrituz, baina FokS-ren azpian, arrazoi sintaktiko eta eratorpenekoak direla eta. Kokapen beregaina edukitzeak azaltzen du *ahal* eta *ote* partikulekiko bateragarritasuna. Ezker periferian kokatzeak (137) bezalako adibideei eratorbidea eskaintzen die, DenbS-ren elipsitik kanpo azaltzen baita.

Ekialdeko galdera partikularako azterbidea proposatu ostean, ondoren erdialdeko galdera partikularen analisi sintaktikora joko dut.

6.4.3 *al partikularen analisia*

Aurreko partikula ez bezala, *al* ez da ezker periferian sortzen, erdiko eremuan baizik, 6.3.2 azpiatalean argudiatu dudana bezala. Ere berekoa ere *bada ote* partikula; oraingoan delako galdera partikulari erreparatuko diot eta bere kokagunea zehaztea edukiko dut helburu. Lehenik eta behin, partikula horren propietate azpimarragarriak eta, oraingo xedea lortzeko, nabarmenenak bilduko ditut:


- a. Buru sintaktikoa da, Denb buruarekin bat eginez hitz morfonologikoa osatzen du.
- b. Polaritatezko galderetan bakarrik erabil daiteke.
- c. Erdialdeko *al* ezin da beste ohiko partikula modalekin agertu perpaus berean, *-a* eta *ote* ez bezala. 6.2.5 azpiatalean argudiatu dut murriztapen horrek arrazoi semantiko-pragmatikoekin duela zerikusia.

- d. *Al* ezin da AS/aS-ren elipsia gauzatzen deneko testuinguruetan azaldu, Denb buruari atxikita dagoen arren.
- e. Beste partikula modalekin konparatuz gero, *al* knonologikoki nahiko berria bide da eta eremu geografiko murriztekoa; *ahal* partikulatik eratorria dela proposatu dut, a) homofonoak direla, b) *al*-ek dituen hainbat ezaugarri *ahal*-etik abiatuz azal daitezkeela, eta c) antzeko gramatikalizazioak tipologikoki azaltzen direla kontuan hartuz.
- f. Perpaus mailan duen banaketari dagokionez, aditz-aspektuaren eta aditz jokatuaren artean kokatzen da baiezko testuinguruetan behintzat.

Propietate horiek gogoan, *al* partikularen kokapena zehazteko urratsak emango ditut orain; euskalaritzan partikula modalei esleitutako guneak *al* partikula kokatzeko egokiak ote diren aztertzeaz gain, balizko beste aukerak aintzat hartuko ditut, alegia 3.4 atalean jorratutakoak, besteak beste.

Partikula honen gaineko azken azterbidetik hasiz gero, Lizardi-Ituarte (2017) Hizketa Ekintza Sintagma eremuan kokatzen du *al* partikula, Hiztun Oinarri delako sintagman hain zuzen ere. Pragmatikaren aldetik justifikatuta egon daitekeen arren, partikularen perpaus mailako kokapena, mugidak eta ezaugarri morfosintaktikoak nekez azal daitezke:

(140) Etorri *al* da Miren?



Hurbilketa hori onartuz gero, partikularen klitikazioa eta perpaus mailako kokapena lortzeko sintaxi osteko arau *ad hoc* bat aldarrikatu beharko litzateke *al* partikula beherago dagoen Denb buruari erants dakion; honez gain, mendeko perpausetan agertzeko gaitasuna ezin liteke azaldu Hizketa Ekintza Sintagma bat mendeko testuinguru batean nekez onar daiteke eta.

Beraz, eremu hori baztertzen dut. Halaber, FokS-ren gaineko guneak baztertzeko arrazoi berak erabil daitezke, partikularen eta perpausaren arteko banaketa antzekoa izango bailitzateke; alegia, *al* burua Denb buruaren mugimenduen eremutik kanpo legoke eta, buru biak elkartzeko eragiketa sintaxi ostekoa proposatu ezean, *al* aditzaren aurretik eta beregain agertuko litzateke. Hori ez dator bat partikularen jokabidearekin.

Bestalde, euskalaritzan proposatu ez den balizko beste gune bat FokS-ren eta JokS-ren artekoa da. Dena den, analisiaren kontrako argudio bi identifikatzen ditut: alde batetik, fokurik gabeko zehar galderetan partikula perpaus amaieran agertzen da aditz jokatuaren aurretik (cf. suedierazko *ju* eta *väl* [Scherf 2017]); esaterako:

- (141) a. Ea lentejak gustatzen *al* zaizkidan galdetu dit.
 b. *Ea *al* lentejak gustatzen zaizkidan galdetu dit.

Beraz, FokS-ren eta JokS-ren artean kokatuz gero, azaldu beharko litzateke zerk eragiten duen partikularen beheranzko mugida Denb buruarekin bat egiteko. Beste alde batetik, *-a* ez bezala, *al* ezin da azaldu DenbS-ren eta bere azpiko sintagmak isiltzen badira; *al* FokS-ren eta JokS-ren artean kokatuta balego, DenbS-ren elipsiaren ostean fokularekin batera azaltzeko aukera eduki beharko luke. Hala ere, ez da horrelakorik gertatzen:

- (142) *Ez *al* [_{DenbS} ~~Enekok baserria erosi du~~]?

Hots, ezker periferiako edo goragoko edozein gunek ez ditu perpaus mailako kokapena, Denb buruarekiko batzea eta mugimenduak azaltzea ahalbidetzen.

Eremu horiek baztertuta, DenbS-ren gaineko kokagunea eta DenbS-ren azpikoa baloratzeari ekingo diot. Aurreko lan batean (Monforte 2015; 2018) DenbS-ren gainetiko PartS hobetsi nuen Albizuren (1991) eta Haddicanen (2008) argumentu bana aintzat hartuz: a) partikulek Denb burua hautatzen dutela, eta b) ezeztapena ez ezik proposizio osoa ere besarkatu behar dutela. Hala ere, 4.3.3. azpiatalean argudiatu dut Albizuren baieztapena ez dela zuzena eta, ondorioz, partikulek ez dutela aditz jokatua hautatzen; aitzitik, partikulen erabilera perpaus motak zilegiztatzen du. Bestalde, Haddicanen hipotesia zuzena bada ere, Arriortuak (2017) dioen bezala, partikulak ez du zertan DenbS-ren gainetik egon, Ezeztapen

Sintagma AS-ren eta DenbS-ren artean kokatuz gero, AS/aS > EzS > PartS > DenbS bezalako hierarkian partikulak ezeztapenaren gaineko besarkadura eduki lezake-eta.

Albizuren (1991) eta Haddicanen (2008) hipotesiak baztertuta, ez bide dago DenbS-ren gainetiko gunean kokatzeko aldeko argudiorik; kontrako argudioa, ordea, badago: buruz buruko mugidaren bitartez gauzatzen den hitz osaeran mugitutako osagaia ezkerretik eransten zaio bigarren osagaiari, esaterako: a) [eros(i) [ten]]; b) [ez [gara⁴¹]]; eta c) [eman [dizuegu]]. Beraz, hau gogoan hartuz gero, [al [du]] > [t_i [al_i du]] bezalako egiturak zentzuzkoagoa ematen du Monfortek (2015; 2018) aldarrikatutako [du [al]] > [t_i [al du_i]] egiturak baino. Izan ere, Albizuri (1991) eta Haddicani (2008) jarraituz, *al* partikula DenbS-ren gainean kokatu eta euskarazko hitzak eratzeko norabidea kontuan hartuta, hitz-ordena okerra lortuko litzateke, aditz jokatua partikula baino lehenago agertuko bailitzateke.⁴²

Azkenik, 5.3.5 azpiatalean proposatu dudana bezala, erdialdeko *al* partikula *ahal* partikula modaletik eratorria da gramatikalizazio bilakabide baten ondorioz. Honez gain, *ahal* partikula modala *ahal* aditz modalarekin diakronikoki erlazionatuta dagoela proposatzen dut. Roberts eta Roussouren (2003) eta Robertsen (2007) ildotik osagaiak gramatikalizazioaren ondorioz egitura sintaktikoan gorago kokatzen direlako hipotesia, onartuz gero, *ahal* partikula modala *ahal* aditz modala baino gorago egon beharko litzateke; ezeztapenarekiko jokabidea eta aspektu markekiko banaketak horren alde egiten dute:

(143) a. Ito ahalko haiz. (aditz modalaren irakurketa bakarrik)

b. Itoko *ahal* haiz. (partikula modalaren irakurketa bakarrik)

(144) a. Ez *ahal* du egia esan? (partikularen irakurketa bakarrik)

b. Ez du egia erraten ahal. (aditz modalaren irakurketa ekialdeko hizkeretan)

⁴¹ Bigarren kapituluan aditzera eman dudanez, ezeztapena biltzen duen sintagma AS/aS-ren eta DenbS-ren artean kokatzen delako hipotesia onesten dut.

⁴² Bestalde, argudio horiei honakoa ere gehi lekieke: mendeko perpausetan, fokurik ez badago, aditza ez da aurreratzen eta amaieran agertzen da bere jatorrizko gunean; horrelako kasuetan partikula Denb buruaren aurretik azaltzen da. Dena den, argudio ahula iruditzen zait aditz jokatua Jok buruan osatzen dela onartzen baitut Arregi eta Nevinsen (2012) ildotik, beraz ez du ematen partikula eta aditz jokatua *in situ* daudenik.


Erlazioak gorabehera, 4.3 atalean erakutsi dudan bezala, *ahal* partikula epistemikoak ez du aditzen moduan jokatzeko, beste partikulek bezala; beraz ez lirateke *ahal* aditz modala eta *ahal* partikula kategoria berean multzokatu beharko. Hala ere, aspektuarekiko eta ezeztapenarekiko banaketan oinarrituz, *ahal* partikulak AspS-ren eta EzezS-ren gainetiko gunea okupatzen duela aldarrikatzen dut.

Honez gain, 5.3.5 azpiatalean beste gramatikalizazio bat landu dut: *ahal* partikula modala *al* galdera partikula bilakatu delakoa. Hori onartuz gero, *al* galdera partikulari *ahal* partikula modalari baino goragoko gune bat esleitu beharko litzaioke gramatikalizazio bilakabidea gauzatu den heinean. Hala ere, ez dago osagai bien arteko banaketa sintaktikoan alderik; desberdintasunak egonez gero, arlo semantiko-pragmatikoarekin lotura dute, hala nola *-(e)n* menderagailuarekin bakarrik bateragarria izateak edo AS/aS-rik gabeko testuinguruetan zilegi ez izateak. Egia esan, arlo interpretatiboak, 6.3.1 azpiatalean aditzera eman dudanez, partikula bien arteko alde nabarmena eskaintzen du, *ahal*, *bide*, *omen* eta *ote* partikulek ez bezala, *al*-ek ez baitu ekarpen semantikorik egiten; alegia ez du hiztunaren jarrera epistemiko-ebidentziala adierazten (Rooryck 2001), hiztunak entzuleari proposizioa aurkeztu nahi dion modua baizik.⁴³

Hau guztiau aintzat hartuta, Elordietaren (1997) eta Elordietaren (2001) ildotik, *al* aditz-aspektuaren eta aditz jokatuaren artean kokatzea hobesten dut. Gauzak horrela, *al* partikula Partikula Sintagmaren buruan kokatuko nuke eta Partikula Sintagma hori Denb buruak hartuko luke osagarri. Arestian esan bezala, honi bereizketa bat gehituko nioke: Kuongen (2008), Lam (2014) edota Corren (2016) ildotik, partikulak biltzen dituzten sintagma bi leudeke, i.e. sintagma bat kanpo-partikuletarako eta beste bat barne-partikuletarako. Ikus dezagun euren banaketa hurrengo diagraman:

⁴³ Baten batek pentsa lezake kokagune desberdinetan azalduz gero, *al* eta gainerako ohiko partikula modalak (*ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote*) bateragarriak izan beharko liratekeela. Hala ere, murriztapen pragmatikoa dela aldarrikatu dut 6.2.5 azpiatalean. Beraz, aukera sintaktikoa badago ere, pragmatikak ez du ahalbidetzen.

(145)




Era berean, sintagma bakoitzean agertzen diren partikulak eta euren arteko hierarkia ez lirateke edozelangoak izango: batetik, 6.3.1 azpiatalean aldarrikatu dudan bezala, partikula mota bi bereiz daitezke, hiztunaren jarrera adierazten dutenak eta hizkera ekintzarekin zerikusia duten partikula performatiboak; bestetik, 3.4.3 azpiatalean plazaratu dudanez, partikula performatiboak ebaluatzaileak, ebidentzialak eta epistemikoak baino gorago egoten dira, azken horiek proposizioari hiztunaren jarrera gehitu ostean, besteek (i.e. hizketa ekintzarekin lotutakoek) entzuleari proposizioa zelan igorri edo aurkeztu behar zaion zehazten baitute. Alegia, ez luke zentzurik edukiko hiztunaren eta entzulearen arteko hizketa-harremana kudeatzen duen ñabardura gehitu ondoren, hiztunak proposizio horren inguruan duen jarrera ekartzeak.

Beste hizkuntza batzuetarako egin diren analisisiei erreparatuz gero, 3.4.1 azpiatalean erdiko eremua esleitu diete hainbatek (Abraham 1991; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014; Trotzke eta Turco 2015; Scherf 2017). Beraz, oraingoan euskarazko *al* partikula kokatutako gunea bat dator beste hizkuntza horietarako partikulei identifikatuarekin. Alemanez, italieraz eta suedieraz, esaterako, eremu horretan kokapen bi proposatzen dituzte (e.g. Scherf 2017); egia da hizkuntza horietan gune desberdinetan agertzen diren partikula batzuk perpaus berean ager daitezkeela, euskaraz ez bezala. Hala ere, kontuan hartzen badugu, bateko, partikula horiek ezin direla edozein kokagune eta hurrenkeratan agertu eta, besteko, Gutzmannek (2017) eta Scherfek (2017) argudiatzen dutela funtzioari dagokionez talde bi osatzen dituztela, zilegi dirudi euskaraz Partikula Sintagma bi proposatzeak, ebidentzia sintaktikorik ez badago ere, argudio interpretatiboetan eta tipologikoetan oinarrituz.

Amaitzeko, azpiatal honetan zehar mamitutako analisisa hurrengo diagramaren bidez aditzera eman nahiko nuke:

(146)



Halaber, *-a* partikularako egin dudan bezala, orain erdialdeko *al* partikularen tasunen berri emango dut, eratorbidea azaltzen lagundu didatenak:

(147) *al*: [part], [*u*indar: Q], [*u*perpaus mota: Q], [jok*]


Lehen (§6.4.2) aditzera eman dudanez, [part] tasuna partikulen kategoriaren berezko tasuna da. Era berean, [indar:] eta [perpaus mota:] tasunak proposatzen ditut hurrengo arrazoiengatik: alde batetik, 6.2.2 azpiatalean plazaratu dudan bezala, partikula guztiek ez dutelako berdin jokatzeko indar ilokutiboaren beharrari dagokionez eta, beste alde batetik, partikula guztiak perpaus mota guztietan azaldu ezin direnez, partikularen erabilera perpaus motak zilegiztatu behar duelako. Honez gain, [jok*] tasuna esleitu diot: partikulak eta aditz jokatuak euren artean duten jokabidea morfonologiarekin lotuago badago ere (§4.3.2), partikulak aditz jokatuarekiko mendekotasuna sintaxiarekin lotzen dut, testuinguru jokatuetan bakarrik zilegi baita (cf. *-a*). Beraz, partikulek eta aditz jokatuak

hitz-morfonologikoa osatzen dutelako hipotesian oinarrituz partikulek [jok*] tasuna dutela proposatzen dut; izan ere, 4.3.2 azpiatalean azaldu dudanez, partikulak perpaus jokatueta bakarrik erabil daitezke, beraz horrek ere [jok*] tasunaren alde egiten du.

Partikularen kokapena eta hainbat tasun argituta, hurrengo adibideaz baliatuko naiz *al* duen perpaus baten eratorbidearen berri emateko, aurrekoan bezala, partikulak eratorbidean duen jokabidea ez dela testuingururik testuinguru (fokurik gabeko galderak, aditz perifrastikodun galderak, ezezko galderak) aldatzen onartuta:

(148) a. Hamendik ONDO *al* nijue herrire? [Azpeitia]


b.



Banaketa horretan eta 2.4.1 azpiatalean polaritatezko galderetarako proposatutako eratorbidean oinarrituta, (148) adibidea aztertuko dut jarraian. Hasteko, Indar buruak Jok buruari perpaus mota tasuna balioztatuta, biek [Q] tasuna dute, galdera bat baita kasu honetan. Indar ilokutiboaren eta perpaus motaren tasunak galderazkoak direnez eta erdialdeko *al* partikula [Q] tasunaren mendean onargarria denez, partikula zilegiztatzen da, euren [*uindar*: Q] eta [*uperpausmota*: Q] tasunen balioekin bat baitatoz (cf. Nasu 2019); erkatu ondoren, partikularen tasun horiek ezabatzen dira. Bere erabilera ahalbidetuta, partikularen [jok*] tasuna dela eta, Jok burura buruz buruko mugida gauzatzen da. Honez

gain, Denb burua Jok burura igotzen da [denb] tasuna harreman hurbilean erkatzeko asmoz eta horrela ezarritako perpaus motarekin bateragarria den aditz jokatu forma sortzen da (Arregi eta Nevinsen 2012). Amaitzeko, (148) adibidean topikoa eta fokua daudenez, osagai horiek dagozkien gunetara mugitzen dira, i.e. *hamendik* [espez, ToS] gunera eta *ondo* [espez, FokS]-ra igotzen dira. FokS lexikalizatuenez,⁴⁴ Fok buruak duen [jok] tasuna erkatzeko beharrak Jok burua erakartzen du buruz buruko mugimenduaren bitartez. Alegia:

(149)



Euskarazko galdera partikulek, beraz, kokagune bereizia jasotzen dute, 6.3.2 azpiatalean emandako argudioetatik abiatuta aurreikusi dudan bezala.

Eratorbide honek, aurreko batzuen aldean abantaila sintaktikorik ez badu ere (bai DenbS-ren azpiko gunekoek bai DenbS ahizpa-adabegi hartzen duten sintagmakoez azal

⁴⁴ Ekialdeko galdera partikularen kasuan bezala, oraingoan ohar bera dakart, osagai fokalizaturik gabeko galdera batean, 2.4 atalean azaldu dudan bezala, fokua perpaus osoa besarkatzen duenez, aditza Fok burura igotzen dela alegia. Beraz, (148) adibidearen eratorbidearekin konparatuz gero, desberdintasun bakarra izango litzateke horretan osagai fokalizatua dagoela. Gainerakoan, eta lan honi dagokionean, ez litzateke alderik egongo.

baitezakete partikularen eta aditz jokatuaren arteko jokabidea, modu batean edo bestean), egia da oraingo analisiak partikularen propietate guztiak kontuan hartzen dituela eta, horrenbeste, euren berri eman dezakeela:

- a. Aurreko azterbideek partikula guztiak sintagma berean biltzen zituzten; tesi honetakoak euren funtzio orokorra kontuan hartu eta, horrek jokaera sintaktikoan eragina daukatela ikusita, talde bi (batetik, partikula modalak edo ebaluatzaile, ebidentzial eta epistemikoak eta, bestetik, partikula performatiboak) eta, ondorioz, sintagma bi bereizten ditut (Barne Partikula Sintagma eta Kanpo Partikula Sintagma).
- b. Talde bi horien artean hierarkia argia dago, *al* bezalako partikula performatiboek *ote*-ren moduko partikula modalak besarkatzen dituzte; datu tipologikoek ere (Cinque 1999; Kuong 2008; Heim eta beste 2016; Wiltschko 2017, besteak beste) ideia hori indartzen dute. Aurreko analisi gehienek nekez eman diezaiokete hizkuntzarteko kontu honi azalbidea, partikula guztiak maila berean kokatzen baitituzte.
- c. Erdialdeko galdera partikula *ahal* partikula epistemikotik eratorria delako hipotesia onetsita, espero litekeen egoeran *al* bestea baino sintaktikoki gorago agertuko litzateke, *ahal* partikula *ahal* aditz modala baino gorago dagoen heinean (Roberts eta Roussou 2003; Roberts 2007); berriro ere partikulen historiari begiratu ez izanak partikula guztiei kokapen bera esleitzea ekarri du, gramatikalizazioaren ondorioz sortutako aldaketak baztertuak izan baitira.

Halaber, ageriko hurrenkera lineala hobeto azaltzen dute partikulak DenbS-ren azpiko gunean kokatzen dituzten hau bezalako azterbideek (Elordieta 1997; Elordieta 2001) goragoko gunean kokatzen dituztenek (Albizu 1991; Haddican 2008; Arregi eta Nevins 2012; Etxepare eta Uria 2016) baino. Dena den, partikulak eta aditz jokatuak osatutako hitz morfonologikoa Jok buruan eratzten dela gogoan edukita, argudio hau ez da oso sendoa, azaleko hitz-ordena engainagarria izan liteke eta. Dena den, DenbS-ren elipsiak (§6.2.6) partikulena ere badakarrenez, murriztapen hori hobeto azaltzen da partikulak biltzen dituzten sintagmak DenbS-ren azpian baldin badaude. Erka ditzagun hurrengo osagaikako banaketetan aukera biak:

- (150) a. [KonpS Konp [~~DenbS~~ [~~PartS~~ [~~AS~~] *Part*] ~~Denb~~]]
 b. [KonpS Konp [PartS [~~DenbS~~ [~~AS~~] *Denb*] *Part*]]

Galdera partikulak aztertuta, hurrengo azpiatalean *ote* partikulari kokagune sintaktikoa esleituko diot aurrekoetan bezala ezaugarri bereizgarriak eta tipologikoak aintzat hartuz.

6.4.4 *ote* partikula epistemikoaren lehenengo analisi baterantz

Oraingoan euskalki guztietan lekukotzen den *ote* partikula aztertuko dut; *-a* eta *al* partikulak ikertzerakoan egin dudan bezala, hasteko, aurretik jorratutako propietateak bilduko ditut jarraian:

- a. Buru sintaktikoa da; Denb buruarekin bat egiten duen burua hain zuzen ere.
- b. Perpaus nagusietan nahiz mendekoetan erabil daiteke *ote*; dena den, 6.2.2 azpiatalean eztabaidatu dudan bezala, *-(e)n* menderagailua duten mendeko testuinguruetan bakarrik da zilegi.
- c. 4.3.6 azpiatalean tradizioan partikula modalak eta markatzaile interrogatiboa bereizi direla adierazi dut. Arestian (§6.2.5) argudiatu dut *-a* markatzaile interrogatiboa *ote* partikula modalarekin, behintzat, bateragarria dela; ohiko partikula modalak euren artean, ordea, ez dira bateragarriak.
- d. Perpaus mailan duen banaketari dagokionez, aditza-aspektu markaren eta aditz jokatuaren artean agertzen da *ote* baiezko testuinguruetan, bai nagusietan, bai mendekoetan.
- e. 6.2.6 azpiatalean azaldu dudan bezala, testuinguru jakin batean *ote* aditz jokatuarekin batera bakarrik ager daiteke AS/aS isilduta; halaber, beste testuinguru batzuetan fokua ondoen azaltzen da DenbS eta bere azpiko sintagmak omitituta. Azken egitura hori aurrerago (§7.3) aztertuko dut, batetik, ez delako orokorra eta, bestetik, *ote*-k desberdin jokatzeko duelako.
- f. Azkenik, *ote* partikula berreraikitako ***bo(C)-te* aditzarekin lotzen du Lakarrak (2019) diakronikoki; beraz, *ahal* partikula modala (Monforte 2019b) nahiz *ei* eta *omen* (Lakarra 2019) bezala aditz forma batetik eratorria litzateke *ote*.

Ezaugarri hauek aintzat hartuz, 3.4 atalean jorratutako analisisiek partikula modalei esleitutako hiru guneei erreparatuko diet orain.

Erdialdeko *al* partikularen kasuan egin dudan bezala, HeS-n kokatzea baztertzan dut, pragmatikaren aldetik Hitzun-oinarri sintagmarekin lotura badu ere, ezaugarri sintaktikoak nekez azaltzen baititu. Alegia, 6.4.3 azpiatalean aditzera eman dudanez, hipotesi horrek ezin ditu partikulak aditz jokatuarekin bat egitea eta horren ondorioz gauzatzen diren mugidak azaldu, ezta perpaus mailako kokapena edo hizketa ekintza ez duten mendeko perpausetan *ote* agertzea ere. Ildo beretik, KonpS eremuan kokatzeak arazo bertsuak lekartzake, *al* partikularen kokapena arakatu dudanean argudiatu dudan bezala.

Beraz, badirudi DenbS-ren inguruan kokatzen dela *ote*. Dena den, DenbS-ren gainetiko gunea baztertu dut aurretik (§6.4.3) Albizuren (1991) argudioa eta Haddicanen (2008) banaketa ezeztatuta, baita buruz buruko mugidak osagaiak eransteke norabidean oinarrituta. Gauzak horrela, *ote* partikula DenbS-ren azpian kokatzen bide da; hasieran zerrendatutako partikula honen ezaugarri horietako bik, batez ere, kokapen horren alde egiten dutelakoan nago. Alde batetik, 6.2.7 azpiatalean *ote* AS/aS-ren elipsiaren ostean aditz jokatuarekin batera ager daitekeela argudiatu dut; gogora dezagun:

(151) - Itziarrek etxea erosi du -*Ete* dauen ba!

Horrelako kasuetan partikularen azpian dauden osagaiak isildu direla ematen du, partikula, aditz jokatua eta menderagailua mantenduta. Jokabide honek aditz modalena gogorarazten du, alegia:

(152) Nik ezin dut hori egin, baina zuk ahal duzu.

Beraz, pragmatikak ahalbidetzen duenean, AS/aS isil daiteke euskaraz:

(153) (~~AS/aS~~) aditz modala.

Partikula eta aditz modalak izaera desberdinetakoak diren arren, biek antzera jokatzen dute; hartara, AS/aS aditz modalen osagarria dela aintzat hartuta, banaketa bera egon liteke *ote*-ren eta AS/aS-ren artean:

(154) (~~AS/aS~~) aditz modala/ partikula

Izan ere, hiztunaren jarrera adierazten duten partikulek gertaerari egiten diote ekarpena; gertaera AS/aS eremuan biltzen dela onartuz gero, *ahal*, *omen* eta *ote* bezalako partikulek AS/aS osagarri hartzen dutela proposatzen dut, Albizuk (1991) eta Haddicanek (2008) ez bezala.

Beste alde batetik, arestian esan dudana bezala, *ote* diakronikoki ***bo(C)-te* aditzetik ei dator (Lakarra 2019). Partikulak perpaus mailan okupatzen duen guneari erreparatuz gero, aditz nagusien kokapenarekin pareka daiteke; hau ez da harrizkoa bere jatorria aintzat hartuta. Dena den, jatorriz aditzak ziren arren, egun, gramatikalizazioaren ondorioz, ezaugarri bereziak dituzte eta berezko kategoria bat osatzen dute; gainera, bereizgarri sintaktiko horiek aditzak baino goragoko gune batean kokatzen direla salatzen dute, i.e. aspektu markarik ez hartzea eta ezeztapenarekiko jokabidea:

(155) a. Begiratzen zuen, ezker, eskuin, heian nehork barrandatzen *ote* zuen.

(Etxamendi 2010: 29)

b. * Begiratzen zuen, ezker, eskuin, heian nehork barrandatu *otet(z)*en zuen.

(156) a. Beldur naiz ez *ote* garen berandu izanen.

b. *Beldur naiz ez garen berandu izanen *ote*

Ebidentzia hauek eta 6.4.3 azpiatalean jorratutako jokabide morfologikoa, i.e. elkartzearen norabidea, aintzat hartuta, AspS eta EzezS baino gorago baina DenbS baino beheago egon behar da *ote* partikula biltzen duen sintagma; alegia:

(157) [KonpS (IndarS[JokS) [DenbS [XS [EzezS [AspS [AS/aS] Asp] Ezez] X *ote*] Denb] Konp]

Kokapen hori *al* partikularenekin pareka daiteke, beronek ere banaketa hori agertzen baitu. Hala ere, ez ditut *ote* eta *al* partikulak maila berean kokatzen; aitzitik, lehenengoa bigarrena baino beheragoko gunean azaltzen dela proposatzen dut. Jarraian proposamen horren aldeko arrazoiak emango ditut aditzera.


Aurretik (§6.4.3) partikulen bilakabide diakronikoaz baliatu naiz bere gune sintaktikoa zehazterakoan; alegia, osagaiak gramatikalizazioaren ondorioz egitura sintaktikoan gorago kokatzen direlako hipotesia gogoan, *al* galdera partikula bere jatorritzat jotzen dudana *ahal* partikula epistemikoa baino goragoko gunean azaldu behar da egitura sintaktikoan. Oraingo egoera bestelakoa da, *ote* ez baitator beste partikula batetik, aditz batetik (Lakarra 2019) baizik. Kasu honetan *ote* partikula *ahal*-ekin pareka dezaket biak eratortzen baitira aditzetatik, i.e. *ote* Lakarrak berreraikitako ***bo(C)-te-tik* eta *ahal* partikula modala homofonoa den aditz modaletik:

(158) ***bo(C)-te*_{Aditza} > *ote*_{Partikula modala}

(159) *ahal*_{Aditz modala} > *ahal*_{Partikula modala}

Partikula biak kategoria beretik datozeleko ideian eta 6.4.3 azpiatalean *al* partikularako proposatutako analisisan oinarrituz, *ote* biltzen duen sintagma *al* baino beherago egon behar da. Horiek horrela, *ote* eta *ahal* partikula modalak aditzetatik eratorriak direnez, gune bera okupatzen dutela proposatzen dut, *al* galdera partikularen K-PartS-ren eta AspS-ren arteko gunea, B-PartS-ren burua hain zuzen ere:

(160)



Hipotesi hau 3.4 atalean arakatutako analisisietako partikula modal ezberdinen arteko hierarkiak indartzen du; alegia, hiztunaren jarrera adierazten duten partikulak beherago daude hiztunak edota entzuleak proposizioaren indarrarekin duten harremana azalean erakusten dutenak baino. Oraingo auziari erreparatuz gero, interpretazioaren aldetik ere *ahal* eta *ote* multzo bereko kideak dira, hiztunaren jarreraren adierazleak hain zuzen, 6.3.1 azpiatalean defenditu dudan bezala. Beraz, *ahal*, *omen* eta *ote* partikulek gune bera okupatzen dutelako eta delako gune hori *al* galdera partikula biltzen duen sintagmaren o-komandopean dagoelako ideiaren alde egiten dut.

Egia da Cinqueri (1999) jarraituz gero, bereizketa gehiago aldarrika litezkeela; esate baterako, *al* Hizketa Ekintza Sintagmari, *ahal* Modalitate Epistemiko Sintagmari eta *ote* Irrealis Sintagmari esleki lekizkieke. Hala ere, tipologikoki zer partikula mota izan ohi diren euren artean bateragarriak eta zer joera dauden bateragarritasun horiei dagokienez erreparatuz gero, multzo bi nabarmentzen dira: hiztunaren jarrera adierazten dutenak eta hizketa ekintzarekin lotutakoak (Rooryck 2001; Kuong 2008; Corr 2015; 2016). Gainera, *ahal* eta *ote* partikulei sintagma bana esleitzeko ideia nekez onar liteke, partikula horien artean bateraezinak baitira, hiztunen iritziek berretsi duten bezala (cf. kapitulu honetako 15. oin oharra). Hartara, oraingo jokabide tipologiko orokorrei jarraitzen dien eta egitura sintaktiko sinpleagoaren alde egiten duen ideiarekin bat egingo dut. Izan ere, 5.4.8 azpiatalean erakutsi dudan bezala *ahal* eta *ote* bateragarriak dira izaera eta kokagune sintaktiko desberdinak dituztenean; beraz, murriztapen sintaktikoaren alde egiten dut semantikoki bateragarriak baitira.

Gauzak horrela, (160) adibideko diagraman islatutako hierarkia onartzen dut partikulen analisirako. Ondorioz, kokapen sintaktiko bi bereizten ditut erdiko eremuan: hiztunaren jarrera adierazten dituzten *ote*-ren moduko partikuletarako Barne-Partikula Sintagma eta hizketa ekintzarekin zerikusia duen *al* bezalako partikuletarako Kanpo-Partikula Sintagma.

Bestalde, aurreko partikuletarako egin dudan bezala, orain eratorbidea azaltzen lagunduko didaten *ote* partikularen tasunen berri emango dut:


(161) *ote*: [part], [uperpaus mota: Q/ -(e)n dekl⁴⁵], [jok*]

Lehenagoko 6.3.1 azpiatalean aditzera eman dudan eta 6.5 atalean sakonduko dudan legez, *ote*-k ez du indar ilokutiborik behar, beraz *al* partikulari ez bezala ez diot tasun hori esleitzen. Aurretik (§6.4.2 eta §6.4.3) azaldu dudanez, [part] tasuna kategoriaren berezkoa da, partikule guztiek dute alegia. Halaber, [perpau mota: _] tasuna eta [jok*] tasuna proposatzeko arrazoiak honakoak dira: perpau motak zilegiztatu behar du partikularen erabilera eta, horren ondorioz, partikularekin bateragarria den testuinguruetan soilik azaltzen da; bestetik, [jok*] tasuna esleitu diot partikulek eta aditz jokatuak hitz morfonologikoa osatzen dutelako.

Aurreko partikuletan bezala, ondoren *ote* azaltzen deneko perpau baten eratorbidea landuko dut; horretarako hurrengo adibideaz baliatuko naiz eta oraingoan ere partikulak eratorbidean duen jokabidea testuingururik testuinguru (fokurik gabeko galderak, aditz perifrastikodun galderak, ezezko galderak) aldatzen ez delako ideiatik abiatuko naiz:

(162) a. Non *ote* dago auzokoa?


b.



⁴⁵ Termino horren bidez adierazi nahi dut hiztunak proposizioarekin guztiz bat egiten ez duen mendeko testuinguruetan partikularen erabilera onargarria dela; Lafittek (1944: 448) dioen bezala, -*en* menderagailudun testuinguruak soilik ahalbidetzen dute hiztunak proposizioarekiko engaiamendu maila osorik ez daukatela markatzea. Nikolaevari (2016) jarraituz gero, ez da harritzekoa *ote* Lafittek (1944: 448) deskribatutako testuinguruan eta galderetan agertzea, biek ziurgabetasuna adierazten baitute. Bestalde, lehen (§6.4.2) esan dudan bezala, tasun hau ez dago eratorpen sintaktikoarekin lotuta, baldintza semantiko-pragmatikoekin baizik.

Banaketa hori eta 2.4.1 azpiatalean polaritatezko galderetarako proposatutako eratorbidea kontuan hartuta, (162) adibidea eratorriko dut ondorengo lerroetan. Hasteko, Indar buruak Jok buruari perpaus mota tasuna balioztatzen dio, kasu honetan [Q] tasuna. Ondoren, *ote* partikula [Q] tasunaren mendean onargarria denez, partikula zilegiztatzen da, bere [*u*perpausmota: Q] tasunaren balioarekin bat baitator (cf. Nasu 2019); tasuna behin erkatuta, partikularena ezabatzen da. Partikularen [jok*] tasuna dela eta, Jok bururako mugida gauzaten da eta, honez gain, Denb burua Jok burura igotzen da [Denb] tasuna harreman hurbilean erkatzeko asmoz; horrela ezarrirako perpaus motarekin bateragarria den aditz jokatu forma sortzen da Arregi eta Nevinsi (2012) jarraituz. Amaitzeko, (162) adibidean *nz*-hitza dagoenez, osagai hori dagokion gunera mugitzen da, i.e. *non* [espez, FokS] gunera igotzen da. FokS lexikalizatu denez, Fok buruak duen [jok] tasuna erkatzeko beharrak Jok burua erakartzen du, aurreko analisisetan bezala buruz buruko mugimenduaren bitartez. Honek hitz-ordena egokia dakar, *ote* partikuladun adizkia *nz*-hitzaren ondoan agerian:

(163)



Erdialdeko galdera partikularen eratorbidez aditzera eman dudanez, orain proposatutako analisiak, aurrekoen aldean, dituen abantailak partikularen ezaugarri sintaktikoekin ez ezik, interpretaziozkoekin eta diakronikoekin ere daude lotuta. Xehetasun

handietan sartu gabe, honako propietateen berri ematen du azterbide honek: bateko, partikula talde bi daudela, eta euren artean hierarkia jakina dagoela; eta, besteko, aditzetatik eratorria dela eta, gramatikalizazioaren teoriari jarraituz AS/aS baino gorago dagoela. Propietate horiek *ote* partikula biltzen duen sintagma AS/aS eta *al*-en K-PartS-ren artean kokatzearen alde egiten dute.

Dena den, *al* partikularen kokapena jorratzean esan dudan bezala, hitz-ordena lineala engainagarria izan liteke. Alabaina, har ditzagun hurrengo testuinguruak kontuan: alde batetik, DenbS-ren elipsia gertatzen den perpausetan ezin da partikularik azaldu eta, beste alde batetik, 6.2.7 azpiatalean deskribatutako erabilera dago. Lehenengoari dagokionez, partikulak DenbS-ren azpiko gunean kokatzen dituztenek errazago eman diezazkiokete azalbidea:

- (164) a. [KonpS Konp [~~DenbS~~ [~~PartS~~ [~~AS~~] *Part*] ~~Denb~~]]
 b. [KonpS Konp [PartS [~~DenbS~~ [~~AS~~] ~~Denb~~] *Part*]]

Bigarrenari doakionez, *ote*-k aditz modalen antzera jokatzen du, testuinguruak zilegiztatu duenean, euren osagarria isil baitezakete, partikulak elipsiaren ondorioz ahoskabetutako proposizioari bere ekarpena mantenduta eta horrela interpretatuta:

- (165) [JokS [DenbS [PartS [AS/aS.....] *ote*] *da*] *-(e)n*

Kasu honetan isiltzen den AS/aS-ren eta partikularen arteko harreman hobeto islatzen dute DenbS-ren azpiko gunean kokatzen duten analisiek, bai aditz modalen banaketa gogorarazten duelako eta bai partikulak gune horretan osagarri hartzen duen proposizioa modifikatzen duelako.

Analisi honek, alabaina, ez du *ote*-k ekialdeko hizkeretan duen jokabide askeagoa azaltzen; hurrengo kapituluan (§7) erabilera ez-oroکور horiek aztergai edukiko ditut eta izaera sintaktiko bereizgarria ez ezik, kokagune sintaktiko desberdina ere dituela aldarrikatuko dut.

6.5 Partikulen eta indar ilokutiboaren arteko auzia

Tradizio germaniarrean eta erromantzezkoan partikulak indar ilokutiboa duten testuinguruetan bakarrik ager daitezkeela esan ohi da (Munaro eta Poletto 2002; Bayer eta Obenauer 2011; Coniglio eta Zegrean 2012; Struckmeier 2014; Egg eta Mursell 2017; Scherf 2017; Tan eta Mursell 2018), perpausaren indarra modifikatzen baitute; izan ere, Coniglio eta Zegreanek (2012) erakusten dute partikulak hainbat perpaus adjunktutan erabiltzeko berauek indar ilokutiboa edukitzea nahitaezkoa dela. Euskarazko partikula modalek ez diote ezaugarri honi jarraitzen, 6.2.2 azpiatalean argudiatu dudan bezala. Hala ere, ez dirudi euskara salbuespena denik, Nasuk (2019) aldarrikatzen baitu japonieraz adberbio ebaluatzaileak eta epistemikoak Indar Sintagmarik gabeko perpausetan azal daitezkeela baina ebidentzialak, ordea, ez. Era berean, Freyk (2018) Krifkaren (2017) hipotesiari jarraituz iradokitzen du alemanezko partikula modalek ez dutela HeS-rik behar, hots, indar ilokutiborik.

Euskarari berriro begiratu gero, Zubeldiak (2010) dio *omen*-ek ez diola indar ilokutiboari eragiten; hartara, *omen* eta *ote* partikulak indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan erabil daitezke:

- (142) Gaixo neskak, ustez untsa egiten zuela, ura ixuri baitu olioaren gainerat, sekulan ez *omen* delarik hori egin behar! (Sinadurarik gabe *apud* EHUko Euskara Institutua 2009)
- (143) Elisabeth da arrazoia, erantzungailua piztu *ote* duen kezkaaren arrazoia, bueltatzeko gogoaren esplikazioa. (Oñederra 1999)
- (144) Egunerokotasunak jan *ote* zaituzten kezka sortu zaizu. (ibidem)

Dena den, 6.2.2 azpiatalean esan dudan bezala, euskarazko partikula guztiek ez dute berdin jokatzeko indar ilokutiboari dagokionez, hiztunek ez baitute (142-144) bezalako testuinguru bertsuan *al* onartzen:

- (145) Oxel afaltzera etorriko (**al*) den galdera ez zait gustatu.

Izan ere, hau ez da harritzekoa, ezaugarri hau partikulak talde bitan banatzearekin bat baitator: indar ilokutiboarekin lotura zuzena dutenak (beraz, berori duen perpausetan


bakarrak azal daitezke) eta indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan erabil daitezkeenak (cf. Rooryck 2001; Grosz 2006; Gutzmann 2008).

Horiek horrela, euskarazko partikula modal bi⁴⁶ gutxienez dira partikula modalei deskribatu eta esleitu zaien propietate horren kontra doazenak: *omen* eta *ote*. Eurak azal daitezke Conigliok (2007a) identifikatutako indar ilokutiborik gabeko perpausetan, hala nola erlatibozko perpausetan, izen osagarri perpausetan, denborazkoetan eta abarretan. Bestalde, *ote* partikulari dagokionez aditzera eman dut 5.4 atalean testuinguruaren arabera bere interpretazioa aldatzen dela. Oraingoan erakutsiko dut pragmatikan gertatzen den aldakortasun horrek zerikusia duela partikulak sintaktikoki indar ilokutiboarekin interaktuatzeko gaitasunarekin. Bayer eta Obenauerren (2011) ildotik syntaxian Indar eta Partikula buruen artean komunztadura gauzatzen dela onesten dut. Hala ere, ez diot azterbide horri hitzez hitz jarraitzen; partikulak bere funtzioa betetzen duen momentu bi bereizten ditut eta indar buruarekiko komunztaduran datza bien arteko aldea. Jarraian argituko dut azterbide hori.


Alde batetik, gogoan eduki dezagun partikulek aditz jokatuarekin bat egiten dutela, jokabide kanonikoan behintzat, eta bere gauzpenik gabe partikulak ezin direla erabili. Lehenengo kapituluan (§2.2.3) Arregi eta Nevinsi (2012) jarraitzen diedala esan dut adizkia eratortzeko hipotesiari doakionez; beraz Denb buruak partikularekin bat egin ostean Jok burura igo eta bertan osatzen da aditz jokatua partikuladun nahiz partikulagabekoa. Prozesu horretan ϕ -tasunez eta denboraz gain, modua eta modalitatea ere txertatzen dira; bertan kokatzen dut hainbat partikularen ekarpenaren lehenengo interakzioa. *Ote*-ren kasuan urrats horretan 5.4.2 azpiatalean identifikatutako interpretazioa ekartzen dio proposizioari:

⁴⁶ Ebidentzia sendorik ez badut ere, *ahal* partikulak auzi honetan *omen* eta *ote*-ren moduan jokatzen duelako susmoa dut. Partikula horrek ere horrela jokatzeak oraingo aldarrikapena indartuko balu ere, etorkizunerako uzten dut bere analisisa.

(166) a.



b.




Aurreko diagraman irudikatzen saiatu naizenez, partikulak Denb eta Jok buruekin bat egiten du eta bertan eratzen den adizki formaren modalitatea modifikatzen du *ote*-k bere ekarpena txertatuz. Funtzio hori Roorycken (2001) ildotik ebaluatzaile-ebidentzial-epistemikoak diren partikulek edo Gutzmannen (2008; 2017) terminologiari jarraituz modalitate partikulek bakarrik eduki dezaketela proposatzen dut, *ahal*, *ei*, *omen* eta *ote* partikulek alegia. Funtzio hori betetzera hel daitezke indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan ere, ekarpena proposizio modalitate mailan geratzen baita. Horrek zilegiztatzen du (142-144) bezalako testuinguruetan partikula horien erabilera.

Beste alde batetik, partikulek indar ilokutiboarekin interaktuatzeko dute bera modifikatuz. Eragiketa hori da Bayer eta Obenauerrek (2011) *denn* partikularako proposatzen dutena. Euren analisisian Indar buruak partikularen bat bilatzen du bere o-komandoan; behin partikula topatuta, Indar buruak eta Part buruak tasunak komunztatzen dituzte partikularen ekarpena indarrari emanez. Indar buruarekiko eragina ukatu ezin den


arren, analisi horretan ez nator bat bilaketaren ideiarekin, ez baitu ekonomikoa ematen proposizio guztietan horrelako eragiketa abiatzeak, partikularik gabeko perpausak gehiengoa direnean batez ere. Hori dela eta, honako azterbidea proposatzen dut. Lehenagoko 2.4 atalean adierazi dut Indar eta Jokatusun buruen arteko eragiketa gauzatzen dela, Indar buruak Jok buruari perpaus mota tasuna balioztatzeko. Horrek menderagailuak Jok buruan gauzatzeaz gain, aditz laguntzaile mota, *izan* / ****edun** edo ****edin** / ****ezan**, ere ezartzen du. Nire ustez, buru bi horien arteko interakzioan gertatzen da partikularen eta indar ilokutiboaren artekoa, partikularen ekarpena Jok buruan osatu den aditz jokatuaren barne dagoelako eta, ondorioz, perpaus mota modifikatzeko eragina lortzen du.

Horren erakusgarri *ote* partikula dugu berriro: arestian esan dut partikula horrek proposizioa modifikatzen duela indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan; hala ere, 5.4.1 azpiatalean jorratutako testuinguruetan partikulak indar ilokutiboari eragiten dio, horrelako perpausen interpretazioak argi uzten duenez. Kasu horietan beti dago IndarS; beraz, perpaus motak ahalbidetzen duenez, partikularen balio epistemikoak proposizioaren modalitatea ez ezik, galderatasunaren indar ilokutiboa ere modifikatzen ditu Littell eta besteren (2010) ildotik, galdera konjekturala sortuta. Bestela esanda, partikulak indar ilokutiboari eragiten dionean, partikula agertzen den galderaren indarra aldatzen eta markatzen du galderak sorrarazten dituen balizko erantzun batek ere ez duela hiztunaren segurtasun osorik jasotzen. Hurrengo diagramen bidez islatzen ditut *ote*-ren eragin maila desberdinak, i.e. modalitateari eta indar ilokutiboari dagozkienak:

(167) a.




b.



Bateko, (167a) diagraman Indar eta Jok buruetan arteko harremana islatzen da, partikulek indar ilokutiboari eragiteko beharrezkoa den eragiketa hain zuzen. Besteko, (166b) adibidean bezala, *ote*-k proposizioaren modalitateari bere ekarpena txertatzeaz gain (1. urratsa), modifikazio horrek indar ilokutiboaren aldaketa ere (2. urratsa) badakarrela erakusten du (167b) diagramak. Partikulak indar ilokutiboari eragiten dio Jok buruaren [perpaus mota] tasuna ez ezik, berarekin lotuta dagoen Indar burua ere modifikatzen baitu.


Bestalde, (167b) diagraman adierazten den partikularen eta Indar buruaren arteko bigarren eragiketa sintaktikoa da erdialdeko *al* partikularena ere. Lehen (§6.2.2 eta §6.3.1) esan dudan bezala, partikula hau indar ilokutibodun testuingurueta mugatuta dago; beraz, *omen* edo *ote* ez bezala, ezin da IOP-etan erabili. Gogora dezagun, 6.2.2 azpiatalean eztabaidatutako datuetatik abiatuta, 6.4.3 azpiatalean *al* partikulari [indar] tasuna esleitu diodala, *ote*-ri ez bezala. Partikula hori performatiboa den heinean, ezin du proposizioa modifikatu; aitzitik, indar ilokutiboarekin zuzenean interaktuatzen du (arestian deskribatutako 2. urratsa).

(168)




Hori dela eta, Jok eta Indar buruek elkarri eragiten ez badiote, azkena gauzatuta ez dagoelako, partikula horren funtzioa ezin da burutu. Ikus dezagun hau hurrengo diagramen bidez:

(169) a.



b.



Batetik, (169a) diagramaren kasuan *ote* partikulak proposizioaren modalitatea modifika dezake, (166) adibiderako azaldu dudan bezala, partikula honek maila horri eragiteko aukera baitu. Bestetik, (169b) diagramaren kasuan *al* partikulak ezin dio indar ilokutiboaren mailari eragin, ez baitago IndarS-rik. Partikula batek indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan bete dezakeen funtzio bakarra proposizioaren modalitatea modifikatzea da; beraz, *al*-ek ez duenez modalitatea aldatzeko funtzio hori, ezin da horrelako perpausetan erabili, *ote* ez bezala. Beraz, honek azaltzen du *ote* eta *al* partikulen banaketa desberdina indar ilokutiboari dagokionez.

Laburbilduz, azpiatal honetan partikulen eta indar ilokutiboaren arteko harremana arakatu dut. Bayer eta Obenauerrek (2011) ez bezala, ez dut partikularen eta indar buruaren arteko komunztadura zuzena ikusten; aitzitik, partikulak aditz jokatuarekin bat egitean lehenengoz proposizioaren modalitatea modifikatzen du eta, IndarS egonez gero, ondoren perpausaren indar ilokutiboa ere Indar buruak eta Jok buruak komunztatzen duten perpaus mota tasuna eraginez.⁴⁷ Alabaina, partikula performatiboa bada, bigarren urratsa bakarrik burutuko du, indar ilokutiborik gabeko testuinguruetatik baztertuta.

6.6 Kapituluaren laburpena

Kapitulu honetan *-a*, *al* eta *ote* partikulen jokabide kanonikoa eduki dut aztergai. Hasteko, laugarren kapituluaren partikulen ezaugarri orokorrak ikertuta, hiru horien arteko bereizgarriak begiratu diet; honako ezaugarrietan ez datoz bat *-a*, *al* eta *ote* partikulak: a) perpaus mailako kokapenean (§6.2.1); b) ager daitezkeen perpaus motetan (§6.2.2); c) onartzen dituzten menderagailuetan (§6.2.3); d) alokutiboarekiko bateragarritasunean (§6.2.4); e) beste partikulekin batera azaltzeko gaitasunean (§6.2.5); f) aditz jokaturik gabeko testuinguruetan (§6.2.6); eta g) aditz lexikoaren elipsia duten testuinguruetan (§6.2.7). Propietate horiei dagokienez, *-a*, *al* eta *ote* partikulek ez dutela beti berdin jokatzeko eta euren arteko aldeak analisi sintaktikoa zehazten laguntzen digula erakutsi dut. Alde batetik, 6.3.1 azpiatalean argudiatu dut partikula horiek ez dutela talde homogeen bat osatzen proposizioan betetzen duten funtzio motaren arabera, i.e. proposizioaren modalitatea edo perpaus mota modifikatzearen arabera. Bereizketa hau bat dator bosgarren kapituluaren interpretazioaren aldetik proposatutako taldekatzearekin. Honek islada du euren jokabide sintaktikoan, AS/aS isil daitezkeen testuinguruetan edota indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan ager daitezkeelako proposizio mailan eragiten dutenak baina ez perpaus mailan eragiten dutenak. Beste alde batetik, 6.3.2 azpiatalean ondorioztatu dut partikula horiek ez dutela eremu sintaktiko bera okupatzen. Hipotesi hori *-a*, *al* eta *ote* partikulak perpaus berean agertzeak eta aditz jokaturik gabeko perpausetan *-a* partikula azaltzeak sustatzen dute. Partikulen arteko


⁴⁷ Bhadrak (2017: 83) antzera jokatzeko du bangleraz galderetan agertzen diren partikula epistemikoak eta galderazkoak aztertzean; berak dio *naki* epistemikoak proposizioaren modalitateari eragiten diola eta, ondoren, *ki* galdera partikulak modalitatea modifikatuta duen perpausa hartzen duela eta bere funtzioa dakarkiola.

desberdintasunak azaleratuta, haietaz baliatu naiz ondoren banan-banan partikulen azterketa abiatzeko.

Lehenengoz, ekialdeko galdera partikula eduki dut aztergai: euskalaritzan eta tipologian horrelako elementu gramatikalei esleitutako guneak aintzat hartu ostean FokS-ren eta JokS-ren artean goien dagoen Kanpo-Partikula Sintagmaren burua indentifikatu dut *-a* partikularen gunetzat (§6.4.2). Azterbide horrek azalbidea ematen die a) ekialdeko partikulak *ahal* eta *ote*-rekin duen bateragarritasunari, b) DenbS-ren eremuaren elipsitik kanpo egoteari eta c) perpaus mailako kokaguneari. Bigarrenez, erdialdeko galdera partikularen kokapen sintaktikoa proposatu dut: aurrekoan bezala, euskalaritzan eta tipologian bere moduko osagaiei emandako analisiak gogoan, erdiko eremuan kokatu dut *al*-en gunea, AS/aS-ren eta DenbS-ren artean hain zuzen. Hala ere, partikularen eratorpen diakronikoa kontuan hartuta, sintagma bi bereizi ditut ohiko partikula modaletarako, Barne-Partikula Sintagma eta Kanpo-Partikula Sintagma alegia. Erdialdeko *al* partikula *ahal* epistemikotik eratorria da eta berau *ahal* aditz modaletik; bakoitzaren ezaugarri eta banaketari erreparatuta, gune bana esleitu behar zaiela argudiatu dut, osagai gramatikalizatua jatorrizkoa baino gorago kokatuta, Roberts eta Roussouren (2003) eta Robertsen (2007) ildotik. Honez gain, Kuongi (2008), Haegemani (2014) eta Corri (2015; 2016) jarraituz, partikula sintagma bi proposatzea 3.4.3 azpiatalean bereizitako partikulen talde birekin bat dator. Gauzak horrela, *al* partikula Kanpo-Partikula Sintagmaren burua dela proposatzen dut (§6.4.3). Azkenik, *ote* partikulara jo dut bere kokagune sintaktikoa zehazteko asmoz kasu honetan ere euskalaritzan eta tipologian proposatutakoak ez ezik, partikularen balizko bilakabide diakronikoa ere gogoan hartu ditut. Horietan oinarrituz, arestian argudiatutako Barne-Partikula Sintagman kokatzen dut *ote* (§6.4.4), diakronikoki aditz jatorria baitu eta bere ekarpen interpretatiboa kokapen horrekin lotuago baitago, proposizioari ñabardura epistemikoa gehitzen baitio alegia.

Laburbilduz, honako banaketa dute *-a*, *al* eta *ote* partikulek egitura sintaktikoan:

(170)



Amaitzeko, partikulen eta indar ilokutiboaren arteko harremana jorratu dut. Berezko ezaugarritzat hartu izan da partikulek indar ilokutibodun perpausak bakarrik onartzea (Coniglio 2007a; Coniglio eta Zegrean 2012). Hala ere, euskal partikulen kasuan guztiek ez diote propietate horri jarraitzen. Dena den, ez du ematen euskararen bitxikeria denik, alemanez hainbat partikula indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan ere azal daitezke eta, horrelakoetan adberbio arruntzat hartuak izan diren arren (Coniglio 2007a). Hori gogoan edukita, honako interakzioa proposatu dut: partikulak Denb buruarekin bat egin eta aditz jokatua Jok buruan osatzen dute; bertan dagoen [perpaus mota] tasunaren semantika-pragmatika modifikatzen du partikulak eta tasun hori Indar buruarekin komunztatuta dagoenez, partikularen ekarpen interpretatiboak perpausaren indar ilokutiboari eragiten dio. Indar sintagmarik ez badago, partikulak ezin du funtzio hori bete; horixe da *al* partikularen kasua eta, horregatik, ezin da indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan azaldu. Beste partikula batzuek (*ahal*, *ei*, *omen* eta *ote*), ordea, ez dute murriztapen hori; *ote*-ren kasuan, esaterako, proposizioari ñabardura epistemikoa gehituz modifikatzeaz gain, perpaus motaren indar ilokutiboa ere alda dezake. Lehenengo eragina JokS mailan eta bigarrena IndarS mailan gauzatzen direla proposatzen dut. Beraz, IndarS-rik ez badago, *ote*-k

lehenengo funtzioa betetzen jarrai dezake; *al*, aldiz, indar ilokutiboari lotuta dago eta, bera egon ezean, bere erabilera ez da zilegi. Berrero ere partikulen arteko bereizketa hori bat dator 6.3.1 azpiatalekoarekin eta laugarren eta bosgarren kapitulueta plazaratutakoarekin.

Partikula horien analisi sintaktikoa mahaigaineratuta, hurrengo kapitulueta *ote*-k ekialdeko hizkeretan dituen kanonikotzat jo ezin diren erabilerak deskribatu eta aztertuko ditut. Erabilera bakoitzaren analisi sintaktikoa ez ezik, partikula modalen gramatika lanetan eztabaida luzea sortu den gaia ere landuko dut berrero, i.e. ea buruak ala islapen nagusiak ote diren.

7 Ekialdeko erabilera bereizgarriak

7.1 Sarrera

Aurreko kapituluan (§6) *-a*, *al* eta *ote* partikulak ikertu ditut euren jokabide kanonikoan; hala ere, 4.5 atalean aurreratu dudan bezala, *ote*-k jokabide sintaktiko desberdina du ekialdeko hizkeretan. Erabilera horren ezaugarrien artean nabarmentzekoa da *ote* ez dela aditz jokatuaren aurretik kokatuta agertzen, ezta berari atxikita ere. Ekialdeko datu horiei emandako lehenengo begiratu batean hiru jokaera edo hiru *ote* mota bereiziko ditut (§7.2): lehenengoz, adberbio ahulen antzera jokatzeko duen *ote* bat; honez gain, *nz*-hitzekin batera osagai bakarra eratzen duen beste *ote* mota bat; eta, azkenik, esaldiaren amaieran agertzen den beste *ote* bat. Esaterako:

- (1) Eztakit ardi horrek bildotxa ukhain dienez *othe* gaur. (Camino 2009b: 193)
- (2) Nork *ote* jan züan? (Casenave-Harigile 1997)
- (3) Hi, ez ahal duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134)

Jokabide horiek banan-banan aztertu aurretik, 7.3 atalean lehenengo erabileraren datuetatik abiatuta datorren galdera teoriko bati helduko diot: 3.3 atalean gramatika lanetan partikula modalen izaera sintaktikoaz dagoen eztabaidaren berri emanda, euskarazko partikula modalen ezaugarri kanonikoak kontuan hartuz berauek buruak direla ondorioztatu dut (§4.4); ekialdeko datuek, ordea, berriro dakarkigute eztabaidara hizkera horietako *ote* partikula burua ala sintagma *ote* den galdera. Hori argitzeko asmoz, erabilera horren propietate sintaktikoei (§7.3.1) eta fonologiko-prosodikoei (§7.3.2) begiratuko diet, jokabide

kanonikotik aldentzen direnak eta 3.3 atalean partikula modalen inguruko lanetatik bildu ditudan izaera sintaktiko bien aldeko ebidentziak nabarmenduz. Azkenik, ezaugarri horietan oinarrituz, *ote* ezohiko horrek islapen nagusiko izaera duela proposatuko dut; auzi hori argituta, lehenengo erabilera horren analisi sintaktikoari ekingo diot (§7.3.4). Ondoren (§7.4), ipar-ekialdeko hizkeretan *ote*-ren erabilera ezohikoak garatu duen ‘*nz*-hitza *ote*’ konbinazioa ikertuko dut ebidentzia sintaktiko, fonologiko-pragmatiko eta tipologikoez baliatuz osagai bakarra eratzen dutela ondorioztatuta. Amaitzeko, 7.6 atalean hedapen geografiko murrizta duen perpaus amaierako *ote* mota izango dut aztergai.

7.2 Ekialdeko mikroaldakortasunaren sarrera

Ekialdeko hizkeretan, alegia ekialdeko euskara nafarraren azpieuskalki bitan (erronkarieran eta zaraitzueran),¹ zuberotarrean eta nafar-lapurteran, *omen* eta *ote* partikulek, besteek ez bezala, jokabide beregaina ere badute.² Aurreko 5.3.7 azpiatalean partikularen mikroaldakortasuna eduki dut pragmatikaren aldetik eztabaidagai; hurrengo lerroetan, ordea, alde sintaktikoari helduko diot. Alegia, hizkera hauetan *ote*-ren sintaxia zertan bereizten den aztertuko dut.

Ekialdeko hizkeretan³ *ote* ez da beti aditz jokatuaren aurretik agertu behar, aditzaren osteko kokagunean ere azal daiteke, hurrengo adibideetan ikus dezakegunez:

- (4) Bazakiana *ote* de la Villeheliok ere bildü zütüala zazpi kantore horik? (Davant 2008: 131)
- (5) Bena ezpitakit nik lamina horiek zer zien *othe*! (Camino 2004: 452)
- (6) Murlantxa ari nuk ia anglez ardia denetz *othe*. (ibidem)
- (7) Eztakit ardi horrek bildotxa ukhain dienez *othe* gaur. (Camino 2009b: 193) (= 1)
- (8) Eta gero Jainkoa zertako dugun *ote* samur, estonatuko gira gu! (Hiriart-Urruty 1971b)

¹ Aezkerak ezaugarri hau ere *ote* duen ezin dut jakin ez baitut bertan elkarrizketarik egin. Dena den, literaturan eta Caminoren (2004; 2009b; 2013; 2017) lanetan ez dut lekukotasunik topatu; beraz, erabilera hori duen eremutik kanpo kokatuko dut aezkera.

² *Omen*-en jokabide ezohikoan sakontzeko ikus Etxepareren (2010) eta Etxepare eta Uriaren (2016) lanak.

³ Orain deskribatutako jokabide hau ekialdeko hizkeretara mugatzen da hein handi batean; alabaina, egia da (*bai ote*, *nor ote* eta abar) bezalako testigantzak topa daitezkeela gainerako euskalkietan. Dena den, ez nuke esango maila berean dauden ekialdeko hizkeretan emankorragea ematen baitu jokabide honek; izan ere, askoz sarriagotan agertzen da bai lekukotasunen kopuruaren aldetik, bai partikulak ondoan hartzen dituen osagai moten aldetik. Bestalde, mendebalde zabaleko hizkeretan erabilera honek duen egoera soziolinguistikoa aztertzeke dagoen arren, inguru horretakoen eta ekialdeko hizkeren artean alde dago: lehenengo multzoan erabilera hori erregistro jaso eta landutzat jo daiteke; bestean, ordea, ez dirudi erregistro kontua denik. Egia da lan dialektologiko batzuetan *bai ete?* Edo *bai ote?* Bezalako formak jaso ei direla mendebalde zabaleko hizkeretan; hala ere, esan bezala, ez bide da ekialdeko hizkeretan bezain emankorra.

(9) Ez ahal duzu *ote* horren berririk ukan?

Lehen begiratuan *ote*-k adibide horietan duen banaketak iradoki lezake kokagune desberdinak okupa ditzakeela partikulak: a) (4) adibidean perpausaren bigarren gunean agertzen da finlandieraz bezala (Holmberg 2014); b) (5)-ean amaieran dago, mandarineraren moduan (Li 2006); c) azkenurreko posizioan ere azal daiteke, (1) adibideak erakusten duenez; eta d) hizkuntza germanikoetan (Abraham 1991; Haegeman 2014; Scherf 2017) bezala, erdiko eremua okupatzen duela ematen du (9) adibideari begira. Hala ere, kokagune horiek guztiak bat datoz *ote* aditz jokatuaren ostean agertzen delako ideiarekin. Hau ez da harrizkoa adibide horien guztien testuingurua galderazkoa dela eta:

- (10) ‘bazakiana ote’ (cf. 4)
- (11) ‘zer zien othe’ (cf. 5)
- (12) ‘ukhain dienez othe’ (cf. 7)
- (13) ‘zertako dugun ote’ (cf. 8)
- (14) ‘ez ahal duzu ote’ (cf. 9)

Adibide horien testuingurua galderazkoa den heinean, 2.3 atalean azaldu dudana bezala, euskaraz aditza beti aurreratzen da galdera zuzenetan, baita zehar galderetako *nz*-galderetan edo osagai fokala duten polaritatezkoetan ere. Beraz, testuinguru horietan aditza beti dago aurreratuta:

- (15) [FokS Bazakiana] *ote*.... (cf. 4)
- (16) [TopS Lamina horiek] [FokS zer zien] *othe*.... (cf. 5)
- (17) [TopS Ardi horrek] [FokS bildotxa ukhain dienez] *othe* gaur. (cf. 7)
- (18) [PolS Ez ahal duzu] *ote*... (cf. 9)

Hori aintzat hartuta, aurretik zerrendatutako kokagune horiek mugida sintaktikoek eragiten dituzte; hots, perpausaren bigarren guneko kokapena, amaierakoa, azkenurreko posizioa edo erdiko eremukoa azalekoak direla ondorioztatzen dut eta *ote*-k gune finkoa duela proposatzen dut. Hau bat dator beste hizkuntza batzuetan (cf. Coniglio 2007b; Holmberg 2014; Struckmeier 2014; Scherf 2017; Biezma eta beste 2018, besteak beste) aldarrikatu den analisiarekin, alegia partikulak azalean gune desberdinetan edota osagai desberdinekin harremanetan dauden arren, beti kokagune berdina dutela. Esaterako, banglerazko partikula

kya beti fokua den osagaiaren ondoren agertzen denez, azalean kokagune desberdinak okupatzen dituela dirudi; alabaina, Biezma eta bestek (2018) proposatzen dute beti gune bera okupatzen duela egitura sintaktikoan:

(19) Banglera

- a. jon=ne amra=ko *kya* k^hilona diya?
jon=ERG Amra=DAT P jostailu.M.SING.NOM eman.PERF.M.SING
‘Amrari eman dio Jonek jostailua?’ (Biezma eta beste 2018)
- b. jon=ne *kya* amra=ko k^hilona diya?
jon=ERG P Amra=DAT jostailu.M.SING.NOM eman.PERF.M.SING
‘Jonek eman dio Amrari jostailua?’ (ibidem)

Interesgarria da, bestalde, *ote* eta *ba(da)*⁴ partikulek antzeko banaketa dutela:

- (20) Emazu *ba* errepusta! (Larzabal 1992)
(21) Nola du *ba* harek izena? (ibidem)
(22) Hitza ez diat *ba* orain jaten ahal! (ibidem)
(23) Andrea ere ixtantean hemen diat *ba*. (ibidem)
(24) Berak *ba* hala erran dau. (ibidem)

Izan ere, *ba(da)*-k eta *ote*-k murriztapen bertsua erakusten dute galderetan, i.e. ezin dira lehenengo posizioan agertu:

- (25) (**Ba*) etorriko zara?
(26) (**Ote*) egingen du?

Lizardi-Ituarte (2019b) aditzera ematen duenez, *ba(da)* galderetan aditz jokatuaren ostean ez ezik, perpaus amaieran ere ager daiteke; berak dio perpausaren eta *ba(da)* partikularen artean ez dagoela etenik, eta beraz perpaus barruko osagaia dela aldarrikatzen du:

- (27) Nor ikusi zuen *ba* Mirenek atzo? (Lizardi-Ituarte 2019: 6)
(28) Nor ikusi zuen Mirenek atzo *ba*? (ibidem)

⁴ Ikus Lizardi-Ituarteren (2019b) lana *ba(da)* partikularen lehenengo analisi sakon baterako.

Ote-k antzera jokatzeko duen beste erabilera bat topatu dut ekialdeko hizkeren eremu murriztago batean: *ote* esaldiaren amaieran ager daiteke, aditzaren ondoan egon gabe; esaterako:

- (29) Hi, ez ahal duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134) (= 3)
 (30) Ez girea bilkurarat gomitatua *ote*? (ibidem : 155)
 (31) Ez ahal duzu horren berri ukan *ote*? (cf. 9)

Jokabide hau (4-9) adibideetako erabileratik bereiziko nuke sintaktikoki ez ezik pragmatikoki ere, honako argudioetan oinarrituz: alde batetik, sintaktikoki (4-9) eta (29-31) adibideetako *ote* partikulek ez dute berdin jokatzeko (31) adibidean *ote* ezezko perpaus batean *in situ* dagoen aditz nagusi baten ostean agertzen baita, (9)-n ez bezala; azken horretan aditz laguntzailearen ostean eta, beraz, nagusiaren aurretik azaltzen da.⁵ Beste alde batetik, interpretazioaren aldetik aldea igartzen da erabilera bien artean, aurreko 5.4.7 azpiatalean argudiatu dudana bezala. Aurreko lerroetan eta seigarren kapituluan deskribatutakoa laburbilduz, perpaus mailan hiru kokagune bereizten ditut *ote* partikulari dagokionez:

- (32) a. *ote*₁: orokorra, _Dnb, aditz jokatuarekin batera hitz-morfologikoa osatzen du.
 b. *ote*₂: ekialdekoa, Dnb-ren ostean, beregaina.
 c. *ote*₃: ekialde murrizta, perpaus amaieran, beregaina.

Halaber, ipar-ekialdeko hizkera guztietan beste erabilera baten testigantza jaso dut baina kasu honetan *nz*-galderei bakarrik dagokie. Perpaus mota honetan *ote* partikula *nz*-hitzari lotuta ager daiteke:

- (33) Züek haren kasüan zer *ote* eginen zünüen? (Coyos 2013: 97)
 (34) Ez dakit nik nola *ote* egiten ahal zükean. (Camino 2009b: 193)
 (35) Nork *ote* jan züan? (Casenave-Harigile 1997) (= 2)
 (36) Orkatzari xüxen zer *ote* agitü zeion jakin beharrez. (ibidem)
 (37) Nontik *ote* horra den ez da erres ikustea. (Casenave-Harigile 2010)

⁵ Izutsu eta Izutsuk (2013) partikula modalak ager daitezkeen hiru eremu bereizten dituzte: perpaus hasiera, aurreratuta dagoen aditz jokatuaren eta lexikoaren arteko eremua eta perpaus amaiera. Orain plazaratutako datuen arabera, *ote* ez-kanonikoa azken bietan ager daiteke.

Ebidentzia horretan eta jarraian aurkeztuko ditudanetan oinarrirituz, *nz*-hitzak eta partikulak osagai bat osatzen dutela ondorioztatzen dut. Gainera, erabilera hori ez da euskarak duen bitxikeria, beste hizkuntza batzuetan ere lekukotzen baita, esaterako alemanez (Abraham 1991; Bayer and Trotzke 2015), japonieraz (Endo 2018) eta italieraz (Munaro and Poletto 2002; Coniglio 2008), besteak beste:

(38) Alemana (Bayer eta Obenauer 2011: 472)

Vonwem *schon* kann man das sagen?

GEN nori P daiteke norbera hori esan

‘Noren gainean esan daiteke ba hori?’

(39) Italiara (Coniglio 2008: 109)

Cosa *mai* avrebbe Gianni potuto fare in quel frangente?

zer P LAG Gianni ahal egin IN hori aukera

‘Zer egin zezakeen Giannik aldi horretan?’

(40) Japoniera (Endo 2018)

Nani-*yo* John-tara kidottery wa.

zer-P Jonh-TOP harroputz jarrera

‘Zer harroputza den John!’

Laburbiltzeko, ekialdeko hizkeretan *ote*-k partikula modalek eduki ohi ez dituzten jokabideak ditu; honako erabilerak ditu *ote* partikulak:

(41) [a. *ote*₁: aditz jokatuaren aurretik erabilera kanonikoa/ orokorra].

b. *ote*₂: aditz jokatuaren ostean.

c. *ote*₃: perpaus amaieran.

d. *ote*₄: *nz*-hitzekin batera.

Ondoren jokabide ezohiko horiek banaka aztertzeari ekingo diot. Hala ere, hori baino lehen, aldakortasun sintaktiko hori ikusita burura datorren galdera erantzuten saiatuko naiz, i.e. ea ekialdeko *ote* bereizgarriak izaera sintaktiko berdina *ote* duen; hortik abiatuta, hurrengo atalean (§7.3) *ote* buru izaera sintaktikoa ez ezik, sintagmatikoa ere izan daitekeela frogatuko dut. Honez gain, erabilera ez-orokor horrek beste egitura bat osatzeko bidea eman du, hots, ‘*nz*-hitza *ote*’ egitura; 7.4 atalean aztertuko dut konbinazio berri hori. Ondoren, 7.6

atalean aurreko jokabideek baino eremu murriztagoa duen beste erabilera bat jorratuko dut, *ote* esaldi amaieran islatzen duen banaketarena alegia.

7.3 Erabilera ez-orokorra eta partikulen izaeraren auzia

Aurretik (§3.3) gramatika lanetan askotan agertzen den eztabaida bildu dut, i.e. ea zein den partikula modalen izaera sintaktikoa. Aditzera eman dudanez, hainbat gramatikaririk (Coniglio 2007b; 2008; Bayer 2009; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014; Bayer eta Struckmeier 2017; Endo 2018) adberbio ahulak edo islapen nagusiak direla aldarrikatzen dute. Geroago 4.4 azpiatalean euskarazko partikula modalak buruak direla ondorioztatu dut hirugarren kapituluan deskribatutako ezaugarriak aintzat hartuta. Dena den, orain, 7.2 atalean aditzera emandako *ote*-ren bereizgarriek partikulen izaera sintaktikoen gaineko galdera dakarte berriro; izan ere, euskarazko partikula modalak buruak direlako hipotesiaren aldeko argumentuek ez dute baliorik *ote*-k ekialdeko hizkeretan dituen jokabide ez-kanoniko horien aurrean.

Jarraian *ote* mota horren ezaugarri sintaktikoak eta fonologiko-prosodikoak ezaugarrituko ditut hurrenez hurren, partikula honek Cardinalettiren (2011) adberbio ahulen edo Coniglioren (2007b; 2008) islapen nagusien antzera jokatzeko duela ondorioztatuta.

7.3.1 Ebidentzia sintaktikoak

Burutzat hartzeko arrazoiak berrikusiz gero, argi geratzen da *ote*₂ (eta *ote*₄)⁶ bestelakoa dela ez baititu erabilera orokorraren ezaugarriak: esaterako, ez zaio beste osagai bati atxikitzen. Hau agerian geratzen da partikularen eta aditz multzoaren artean bestelako osagaiak ager daitezkeelako, e.g. *ba(da)*:

- (42) Nor_i [deitzen du]_j *ote* Peiok egun guziz hain goizik t_i t_j ?
 (43) Nor_i [deitzen du]_j *ba(da) ote* Peiok egun guziz hain goizik t_i t_j ?
 (44) Zendako *ba(da) ote*?
 (45) Zer *ba ote*? (Landart 1978: 45)

Honez gain, (4-9) adibide horiei hurbilago erreparatuz gero, partikulak ez du zertan aditz jokatuaren ondo-ondoan egon, *-(e)n(ez)* menderagailua eta *-a* partikula *ote*-ren eta aditz jokatuaren artean ere tarteka daitezke eta:

⁶ Aurrerago (§7.6) argudiatuko dudan bezala, *ote*₃ ez da islapen nagusia, burua baizik.

- (46) Eztakit ardi horrek bildotxa ukhain dienez *othe* gaur. (Camino 2009b: 193) (= 1)
- (47) Bazakiana *ote* de la Villeheliok ere bildü zütüala zazpi kantore horik? (Davant 2008: 131) (= 4)
- (48) Eta gero Jainkoa zertako dugun *ote* samur, estonatuko gira gu! (Hiriart-Urruty 1971b) (= 8)

Hurrenkera hau ikusita, adibide horietako partikulak ere aditz jokatuarekin bat egiten duela pentsa liteke, kasu horietan erabilera orokorreko *ote* baino gorago kokatuta edo aditz jokatuarekin bat egiteko xehetasunetan atzizkia dela espezifikatuta dagoela argudiatuz; dena den, *ba(da)* tartekatu ahal izateak eta erabilera bien arteko alde prosodikoek hipotesi hori baztertzera bultzatzen naute. Oraingoz ez dut alde prosodikoa jorratuko, ezaugarri sintaktiko bereizgarriak bakarrik deskribatzeari ekingo diot; ondoren (§7.3.2) hartuko dut prosodia aintzat.

Bestalde, Conigliok (2007b; 2008) dio alemanezko partikula modalek, buruak izango balira, aditzaren buruz buruko mugida oztopatu beharko luketela edo berarekin bat eginda mugitu beharko liratekeela; bestela, ezin dira burutzat jo. Hau gogoan izanda, *ote* mota hori jokabide orokorreko *ote*-tik bereizteko beste ebidentzia bi ditugu, *ote* mota ez-orokor hori ez baita aditzarekin batera mugitzen eta ez baitu aditzaren igoera oztopatzen:

- (49) Nor deitzen du *ba(da) ote* Peiok egun guziz hain goizik?
- (50) Ez dokeda *ote* nik egin ñoriataz nai duana? (Estornés 1982a: 80)

Aurreko adibideetan aditz jokatuaren mugida gauzatzen da eta bietan *ote* agertzen da; sintaktikoki aditzarekin bat egiten duela baztertuta, burua izango balitz, Coniglioren (2007b; 2008) ildotik, buruz buruko mugida galarazi beharko luke. Alabaina, holakorik ez da sumatzen.

Bestalde, *ote* mota hori ezin da edozein kokagunetan azaldu; esaterako, *nz*-gaderetan ezin da *nz*-hitza baino lehenago agertu:

- (51) (**ote*) Nor deitzen du bada (*ote*) Peiok (**ote*) egun guziz (**ote*) hain goizik (**ote*)?⁷

⁷ Adibide honetan *ote*-ren erabilera ez-orokor eta beregaina bakarrik irudikatu dut; alegia, partikula bere ohiko gunean ere ager liteke:

- (i) Nor deitzen *ote* du bada Peiok egun guziz hain goizik?

Egia esan, *ote* mota hori aurreratuta dagoen aditz jokatuaren ondoren azaltzen da beti, arestian (§7.2) aditzera eman dudanez. Banaketa hori eta lehenengo gunetik baztertuta egotea bat datoz alemanezko partikula modalen jokabidearekin, baita hein batean *ba(da)*-renarekin ere. Beraz, Bayerrek (2009) dioenez, adberbioek ez bezala, partikulek kokagune jakin bat okupatzen dute; bestela esanda, sintaktikoki ez dira guztiz beregainak.

Horrez gain, 6.2.6 azpiatalean *ote*-k aditz jokaturik gabeko testuinguruetan erabilia izan daitekeela erakutsi dut:

(52) Bai(a) *ote*?

(53) Ez(a) *ote*?

(54) BILBON *ote*?

(55) Berak baia *ote*? (Larre 1986: 1)

(56) Ala gehixago ere baia *ote*, urtealdika? (Larre 1987: 1)

(57) Baia *ote* barur hotz-hotza orai bortüari bürüz, eta holako denborareki? (Davant 2008: 76)

Baita aditz jokaturik gabeko *nz*-galderetan *nz*-hitzen ostean ere:

(58) Nork *ote*?

(59) Nondik *ote*? (Thikoipe 2009: 33)

(60) Non *ote*?

Aurreko adibideek (52-55) iradoki lezakete *ote* hori orokorra dela eta DenbS isiltzearen ondorioz azaleko egitura hori gauzatu dela; hurbiletik begiraturaz gero, azalbide bi edukiko genituzke: a) *ote* Fok burura mugitu da isilduta dagoen aditz jokatuarekin bat egin ondoren; edo b) *ote in situ* gelditu da eta, elipsiaren ondorioz, partikula eta gainerako osagaiak elkarren ondoan agertzen dira.

Baita *nz*-hitzarekin batera ere, ipar-ekialdeko hizkeretan behintzat:


(ii) Nor *ote* deitzen du bada Peiok egun guziz hain goizik?

Beraz, hiru kokagune eduki litzake *ote*-k eta bakoitzak jokabide desberdina luke:


(iii) (**ote*) Nor (%*ote*) deitzen (*ote*) du bada (%*ote*) Peiok (**ote*) egun guziz (**ote*) hain goizik (**ote*)?

(61)

a.



b.



Hala ere, analisi biek arazoak dituzte. Lehenik, (52), (53) eta (55) adibideetan *ote* partikula ez ezik, *-a* partikula ere azaltzen da eta biak aditz jokatuaren klitikoak direla aintzat hartuz, zelan azal liteke *-a bai* edo *ez* hitzei lotzea eta ez *ote*-ren ondoren agertzea? Alegia, 6.2.6 azpiatalean argudiatu dudan bezala, partikula bien arteko hurrenkera argia da inflexioa gauzatura dagoen testuinguruetan, i.e. *ote*-aditz jokatua-*a*:

(62) JONEK *ote* dia erran?

Beraz, hurrenkera hori errespetatzea esperoko nuke; dena den, *-a* polaritateko hitzei lotua agertzen da *ote*-ren aurretik. Bigarren analisia (57) adibideak deuseztatzen du partikula aurreratuta agertzen baita eta ondoren AS-ren osagai batzuk; partikula *in situ* egongo balitz, amaieran azaltzea espero nuke, partikula modalen jokabide orokorrari jarraituta:

(63) *Baia burur hotz-hotza orai bortiari buruz eta holako denborareki *ote*?

Azkenik, (58) eta (60) adibideak ditugu; bertan *nz*-hitza eta, ondoren, *ote* bakarrik azaltzen dira. Erabilera hau 7.1 ataleko (33-37) adibideen antzekoa da eta, ondoren (§7.4.2) argudiatuko dudan bezala, erabilera horren aitzindaria izan litezke (58) eta (60) adibideak bezalako formak.

Honez gain, *ote* mota honek inesibo marka hartu eta egun beregaina den *ot(h)ean* adberbio sortu du (cf. Peillen 1979):

(64) *Othean* egin dia hori? ‘Aurait-il fait cela, est-ik possible qu’il ait fait cela? (Duvoisin *apud* Mitxelena eta Sarasola 2017)

Adberbio honek hiztunaren harridura edo mirespena adierazten du (Lhande 1926; Mitxelena eta Sarasola 2017); izan ere, badirudi adberbio honen eta *ote* partikularen ekarpena bertsua dela.⁸ Ekialdeko *ote*₂-k kasu marka bat hartzen duen beste testuinguru bat (65-67) adibideetan dugu. Kasu honetan partitibo marka⁹ har dezake:

(65) A: Ez *othe*?

B: Ez, eta *otherik* gabe oraino. Zu hunen irakurtzen ari ziren bezen segur.(Hiriart-Durruty 1903)

(66) A: Ba *othe*?

B: Ba, ba *otherik* gabe, hori da erhokeria handienetarik bat. (ibidem)

(67) Ezta *otherik*. Il n’y a pas de doute. (Van Eys 1879)

Era berean, *omen*-ek ere atzizkiak, postposizioak eta kasu markak har ditzake; kasurako:

(68) *Omenka* mintzo da. (Orotariko Euskal Hiztegia *apud* Etxepare eta Uria 2016: 280)

(69) Xuberoko jendea *omenez* leguna. (ibidem)

Ezaugarri honetan *omen* eta *ote* partikulen mota ezohikoak bat datoz, *omen*-en kasuan garatuago bide dagoen arren; gainerako partikulek, ordea, ez dute propietate bereizgarri hau. Partikulek izenen moduan jokatzeari erabilera hauek duten puntu interesgarriena da; izan ere,

⁸ Ekialdeko *ote*₂-ren eta *otean* adberbioaren arteko egoera *aspaldi* eta *aspaldian* adberbioen artekoarekin konparagarria izango litzateke. Biek antzeko interpretazioa dute eta bigarrenaren kasuan inesibo marka du agerian.

⁹ Azkuek ere absolutibozko markarekin batera ematen du *ete* adibide batean, ekialdeko hizkera jasoaren irudian erabiliz, neure ustez. Era berean, beste autore batzuk ere jokabide ezohiko *ote*-z baliatu ziren, beharbada ekialdeko hizkeren jokabidea jasoagoa delakoan:

(i) Goitu eben euskaldunak, / nok dauko *etea*? (Azkue *apud* Mitxelena eta Sarasola 2017)

(ii) Gau ta egun izututa zaudeke, zure bizia beti *oteka*. (Olabide *apud* Mitxelena eta Sarasola 2017)

(iii) Egia oro *otezkoan* ipiñi bear zirala. (Orixe *apud* Mitxelena eta Sarasola 2017)

(iv) Bitartean gure erri xumea *ote otean*, kezketan. (ibidem)

hainbat adberbiok ere izenek bezala joka dezakete kasu batzuetan, esate baterako *atzo* eta *bihar* adberbioek:

(70) Negar egingo zenuke lekurik, denborarik ez balego, testuingururik ez balego, biharrik ez balego, atzorik ez balego. (Oñederra 1999)

Erabilera honek *ote* mota horrek izaera beregaina duelako ebidentziaren alde egiten du, 4.4 azpiatalean deskribatutako partikula modalek nekez har bailezakete postposiziorik, kasu markarik edo atzizkirik. Gainera, adibide horietan partikulak betetzen duen funtzio sintaktikoari begiratuz gero, (65-66) adibideetan *gabe* postposizioaren osagarria da eta (67) adibidean aditzaren osagarria. Funtzio horiek ezingo lituzke fonologiko-prosodikoki klitikoa den buru batek bete. Egia esan, adberbio batek ere ezingo lituzke eduki; hala ere, (70) adibidean erakutsi dudan bezala, hainbatetan adberbioek izenen moduan joka dezakete. Beraz, (65-66) adibideetan egoera hori dagoela uste dut; hots, adberbio antzeko izaera eduki lezakeen *ote*-k izen bezala funtzionatzen du.

Neurri handi batean erabilera hau (*otherik*) estilistikoa dela argi dagoela esango nuke, ahozko hizkuntzan ohikoagoa den eta zabalduago dagoen *otean* adberbioarena ez bezala. Hala ere, hori bakarrik izango balitz, mendebalde zabalean berezko¹⁰ lekukotasun gehiago topatzea eta bertako partikula modalek bi hauen antzera jokatzea esperoko nuke. Alegia, *ei* eta *ete* partikulek ezin dute postposiziorik edo kasu markarik hartu edo adibide hauetako jokabidea eduki:

(71) **Eika* berbetan dabil.

(72) *Ez daukat inongo *oterik*.

Partikula horiek jatorri bera duten arren, hots, guztiak aditzetatik eratorriak ei diren arren, ematen du mendebalde zabalean gramatikalizatuago daudela eta horrek mikroaldakortasun sintaktikoa mugatzen du.

Oraingo helburuetarako atal honetan arakatu dudan *ote*-ren mota, bere kategoria zeinahi ere den, osagai beregaina dela frogatutzat jotzen dut.


¹⁰ Dauden adibide apurrak ekialdeko hizkeren irudian sortuak direlako ideiaaren alde nago.

7.3.2 Argudio fonologiko-prosodikoak

Fonologia-prosodiaren aldetik, orain ikergai dudan erabilera horretako *ote*-k desberdin jokatzen du. Cardinalettik (2011) adberbioak hiru multzotan bereizten ditu ezaugarri periferiko, inflexioko eta fonologiko-prosodikoen arabera. Berak dio zenbat eta ezaugarri horietako gehiago galdu edo ahuldu, orduan eta hurbilago egongo dela delako osagaia klitikoa izatetik. Beraz, hiru fase desberdintzen ditu: adberbio osoak, adberbio ahulak eta adberbio klitikoak. Sailkapen hori egiterakoan honako hiru irizpideetan oinarritzen da: a) adberbio osoek ezaugarri periferiko, inflexioko eta fonologiko-prosodiko guztiak gordetzen dituzte; b) ahulek, ordea, ezaugarri periferiko murrizagoak dituzte; eta c) azkenik, adberbio klitikoak fonologikoki ere mugatuagoak izaten dira.

Lehen (§4.4) partikula modalak klitikoak direla argudiatu dut ezaugarri fonologiko-prosodikoak ahulduta dituztelako. Oraingo erabilerari begiratu gero, sintaktikoki *ote* ez dela hain ahula erakutsi dut. Fonologia-prosodiari erreparatu gero, aldeak igartzen dira, Cardinalettiren ildotik *ote*-k prosodia beregaina baitu. Hurrengo espektrogramek *ote*₁ eta *ote*₂ kontrajarrita erakusten dituzte eta bien arteko aldea agerikoa da:


(73) Non *ote* da *ote*? (Arnegiko gizona)




7. Ekialdeko erabilera bereizgarriak

(74) Nor deitzen *ote* du ba Peiok? vs. Nor deitzen du *ote* Peiok? (Jatsu, Garazi)

a.




b.




(75) Nor deitzen *ote* du ba Peiok? vs. Nor deitzen du *ote* Peiok? (Donoztiri)

a.




b.




(76) Zertako ba *ote*? eta Nun *ote* utzi dut ene kazeta? (Behe nafarroa oro har)

a.



b.



Bigarren silaban herskari ahoskabe bat edukitzeak intonazioa markatzen duen marraren irregulartasuna dakarren arren, badirudi prosodikoki *ote*-k goranzko intonazioa duela; horrek ematen digu aditzera intonaziozko talde baten mugan dagoela eta txertatuen dagoen osagaia

dela. Ebidentzia horiek islapen nagusiko izaeraren alde egiten dute.¹¹ Era berean, *ote*-k bere erabilera kanonikoarekin alderatuta duen beste desberdintasun bat bokalen iraupenarekin dago lotuta: *ote*-ren bigarren bokala luza dezakete hiztunek,¹² intonazioaren arabera, pausa baten aurrean; erabilera kanonikoan nekez ekoitz liteke horrelakorik.

Egia esan, (4-9) bezalako adibideetan *ote* partikulak klitikotzat funtziona lezake baina, kasu horietan aurrizkiaren orde, atzizkia izango litzateke eta, hori dela eta, aditz jokatuaren ostean agertuko litzateke. Hala ere, ez dirudi *ote*-k prosodikoki aditz jokatuaren aurrean agertzen deneko kasuetan eta beraren ostean azaltzen denekoetan antzera jokatzeko duenik. Lehenagoko 4.4 azpiatalean aditzera eman dut partikulek aditz jokatuarekin bat egin ondoren unitate prosodikoa osatzen dutela; oraingo kasuetan, ordea, ez da horrelakorik gauzatzen. Izan ere, hala gertatuko balitz, azentua silaba kopuruaren arabera izatea espero nuke klitikoa denean jazotzen den bezala; beraz, batzuetan *o*-k jaso beharko luke azentua eta beste batzuetan, aldiz, *te*-k:

(77) ‘duté oté’

(78) ‘*dut óte’

(79) ‘dut oté’

Hala ere, beti silaba berak jasotzen du azentua, hitz beregainaren kasuan espero litekeen moduan. Ondo aztertutako eta prosodikoki nahiko patroi erregularra duen euskalki batek, i.e. zuberotarrak (Txillardeggi 1984; Gaminde 1995; Hualde 1997) ematen digu horren berri. Larrasqueten (1939) lanetan azentua markatuta agertzen denez, horiek arakatzuz gero, honako adibideak topatzen ditugu:

(80) Hála *othé* da, Béñat?

(81) Nork ez *óthe* dáki?

(82) Zertáatü *óthe*?

¹¹ Prosodiari dagokionez, dena den, *ote*-k ez du ekialde osoan berdin jokatzeko. Orain ezaugarritutako patroia bat dator Garaziko hizkerarekin baina Amikuzekoarekin, aldiz, ez. Bertan *ote*-ren intonazioa ez doa gorantz, aurretik dagoen aditz multzoarena baizik. Alabaina, *ote*-k duen patroia prosodikoak bat egiten du aditzaren ostean agertzen diren bestelako osagaienarekin, hots, *ba(da)* partikularen edo subjektuaren patroiarekin:

(i) Nor deitzen *ote* du (*bada*) Peiok egun guziz hain goizik?

Beraz, ez dut uste ebidentzia horrek orain argudiatutakoaren kontra egiten duenik. Hala ere, hizkera horien prosodiaren eta horrelako osagaien intonazioaren gaineko ikerketa sakonagoa behar da.

¹² Lehen (§3.3.3) adierazi dudana bezala, Cardinalettik (2011) dio alemanezko partikula modaletan, *mal* partikulan kasurako, bokalak luza daitezkeela.

(83) *óthe* (hiztegiaren sarreran)

Lehenengo bi adibideetan *ote* buru klitikoa da eta, ondorioz, aditz jokatuarekin bat egin ostean zuberotarraren patroï prosodikoa ezartzen da: adizkia silaba bakarrekota bada, *-t(h)e*-k jasotzen du azentua; silababikoa bada, ordea, *o*- silaban agertzen da azentua. Hirugarren adibidean partikulak ez du klitiko bezala jokatzeko kasu horretan partikula ez dago beste osagai bati lotuta eta azkenurreko silaban jasotzen du azentua, zuberotarraren patroï prosodiko orokorrean esperoko izatekoa denez. Beraz, *ote* ezohikoa prosodikoki beregaina da. *Ote* mota hau duten beste hizkerak patroï prosodiko bera ez duten arren, esate baterako nafar-lapurterak, orain ondorioztatutako ideia bera zabalduko nieke, *ote* mota hori prosodiaren aldetik beregaina dela alegia. Izan ere, (82-83) adibideetan aditzera emandako patroïak horren alde egiten du.

Bestalde, fonologiari (eta morfonologiari) begiratu gero, *ote* orokorrarekin beste bereizgarri bat antzematen da: *ote* prosodikoki beregaina denez, aurretik 4.3.2 azpiatalean aditz jokatuarekin bat egitean gauza daitekeen aferesia ezin da kasu horretan gertatu; esaterako:

(84) Aita joain dea *othe*? [othe > *the]

Interesgarria da jokabide berdina beste hizkuntza batzuetan ere topatzen dela: Austriako alemanean *vielleicht* ('beharbada') adberbio arrunta eta partikula modala izan daiteke; dena den, sintaktikoki ez ezik, fonologikoki ere bereiz daitezke funtzio biak (Josef Bayer a.k.). Alde batetik, adberbioa denean perpausaren lehenengo posizioan ager daiteke; partikula denean, ordea, ez. Beste alde batetik, partikula modala burua denean, *vielleicht* > *leicht* labur daiteke; adberbioa denean, aldiz, ez. Honako banaketa du *vielleicht*-ek funtzioaren arabera:

(85) DIE ist [*vielleicht* > *leicht*] schlau!

hau.FEM da P P azkarra

'Ene! Zer azkarra den!'

(86) [*Vielleicht* > **leicht*] ist DIE schlau!

P P da hau.FEM azkarra

'Beharbada azkarra da hau. (balizko irakurketa bakarra)

'*Ene! Zer azkarra den!'(partikula modalaren irakurketa)

Halaber, Cardinalettik (2011) alemanezko partikulak fonologikoki murrizagoak direla aldarrikatzen du klitikoak direnean; hots, alemanezko partikula modalak adberbio ahulak direla dioten arren, *denn* partikularen kasuan hizkera bitan, i.e. Babariako eta Vienako hizkeretan, klitikoa ere izan daitekeela adierazten du, fonologikoki ez ezik, sintaktikoki ere jokabide ahulagoa baitu:

(87) Vienako alemana [*denn* > *dn*] (Grosz 2005: 36-37)

Was schenkst {*dn* / **denn*} du ihr {**dn* / *denn*} zum Geburtstag?
 zer oparitu P P zu berari.FEM P P BEN urtebetetze
 ‘Zer oparituko diozu ba bere urtebetetzean?’

(88) Babariako alemana [*denn* > *-n*] (Bayer 2012: 13)

Wann hod -a -s -da -*n* zoagt?
 noiz LAG 3SG.NOM 3SG.AK 2SG.DATP erakutsi
 ‘Noiz erakutsi zizun?’

Beraz, lenitioak jasa ditzaketen osagaiak klitikotzat jotzen ditu Cardinalettik (2011) alemanezko partikula diskurtsiboei dagokienez behintzat. Euskarazko datuei berriro erreparatuz gero, erabilera orokorreko partikulek ez bezala, ebidentzia prosodikoek eta fonologikoek iradokitzen dute *ote*₂₋₄ hitz osoetatik hurbilago dagoela klitikoetatik baino.¹³

7.3.3 Erabilera ezohikoa duen ote: *burua ala sintagma?*

Aurreko azpiataletan erakutsi dut aztergai dudan ekialdeko *ote*₂₋₄ ezin dela klitikotzat jo, ezta aditz jokatuarekiko bat eginez eratzen den hitz morfonologikotzat ere, *ote* orokorra horrela definitzen duten ezaugarrietan bestela jokatzeko baitu. Izan ere, ebidentzia sintaktikoek ez ezik, fonologiko-prosodikoek ere izaera beregainaren alde egiten dute.

Cardinalettiren (2011) ildotik, hiru arlori erreparatu beharko litzaieke *ote*₂ osagai sendoa, ahula edo klitikoa den erabakitzeke: ezaugarri fonologiko-prosodikoei, periferikoari eta inflexiokoari. Arlo interpretatiboaz aurretik (§5.4.5) ondorioztatu dudana bezala, ez du ematen ohiko jokabidearen eta azpiatal honetan aztergai dudanaren artean desberdintasun

¹³ Euskaraz adberbioak ere labur daitezkeela pentsa liteke; hala ere, laburtze horrek mugak bide ditu, silaba biko adberbioak ezin baitira laburtu, esaterako: *etzi* > **tzi*, *atzo* > **tzo*, *bihar* > **bir* (cf. *behar* > *bihar* > *bi(r)*). Gainerako kategoriako hitzek ere antzeko murriztapena dutela ematen du: *hego* > **go*, *ahatea* > *atea* > **tea*, *atea* > **tea*, *otu* > **tu*. Salbuespen har litezkeenek beste azalbide bat dute: *egin* > *ein* > *iin* > *in*, *egon* > *eon* > *oon* > *on*; hots, bokalarreko frikaria galtzearen ondorioz bokalak asimilatzen dira silaba bakarreko hitzak sortuta.

interpretatiboa dagoenik, aditzaren osteko *ote*₂ duten adibideetan aditzaren aurrean kokatuz gero, onargarriak bailirateke euskalki guztietako hiztunentzat.

Hau guztiau gogoan, *ote*-k ekialdeko hizkeretan izaera bi ditu: batetik, gainerako hizkeretan bezala jokatzen du, alegia fonologikoki eta prosodikoki ahula da eta buru klitikoaren izaera esleitzen diot; bestetik, orain aurkeztutako jokabidea ez bide da erabilera orokorrean bezain ahula, fonologikoki hitz osoen moduan jokatzen baitu eta sintaktikoki hitz osoen modukoa ez bada ere, klitikoak baino beregainagoa baita. Ekialdeko hizkeretako *ote* horrek bereizitako hiru arloetan (sintaxia, semantika eta fonologia) propietate guztiak osotasunean ez dituen arren, fonologikoak eta semantikoak mantentzen dituela esango nuke. Beraz, Conigliok (2008) eta Cardinalettik (2011) italierazko eta alemanezko partikuletarako aldarrikatzen duten bezala honako bereizketa proposatzen dut *ote* partikula modalari dagokionez:

- (89) a. *ote*₁: buru klitikoa.
b. *ote*_{2&4}: islapen nagusia, adberbio ahula.

Amaitzeko, ekarpen bi nabarmendu nahiko nituzke: bateko, euskarazko partikula modalak sintaktikoki buruak izateaz gain, ekialdeko hizkeretan partikula bik, *omen*-ek (Etxepare 2010; Etxepare eta Uria 2016) eta *ote*-k, adberbio ahuletik hurbil dagoen izaera har dezakete; besteko, gramatika lanetan dagoen eztabaidari ere ekarpena egiten dio, *ote*-ren analisiak erakusten duelako partikula modalak buruak eta adberbio (ahul)ak (edo islapen nagusiak, Coniglioren (2008) terminologiari jarraituz) izan daitezkeela. Alegia, hipotesi biak bateragarriak direla hizkuntza berean; hau bat dator Cardinalettik (2011) alemanezko *denn / -dn* eta *-n* partikuletarako proposatutakoarekin. Halaber, partikulen izaera sintaktikoa aztertzeko eta bereizteko oinarriak eskaintzen ditu *ote*-ren analisiak, hizkera berean izaera sintaktiko biak lekukotzen baitira eta eurak bereizten dituzten ezaugarri nabarmenak baitituzte.

7.3.4 Bere kokagune sintaktikoaz

Ekialdeko *ote* mota ez-orokorraren izaera sintaktikoa argituta, bere kokapen sintaktikoa zehaztuko dut orain. Arestian adierazi dut *ote* mota hori *ote* orokorraren kokapenean agertuz gero, (*baia ote?*) bezalako testuinguruetan amaieran agertu beharko litzatekeela. Are gehiago, DenbS eta bere azpiko sintagmak isilduz gero, ezin liteke *ote* azaldu ere egin:

(90) [FokS CÉLINEK_i [Fok' [Fok] [DenbS-[t_i] [Denb'-[PartS-[AS-....] [Part-*ote*]] [Denb-...]]]]]

Partikula mugitzen delako ideia baztertu dudanez, 7.3.1 azpiatalean emandako arrazoiengatik, *ote*-k kokapen finkoa eduki behar du eta, gainera, elipsiaren eremutik kanpo egon behar da, (91) adibidearen banaketak iradokitzen duen bezala:

(91) [FokS CÉLINEK_i [Fok' [Fok] [YS [*ote*] [DenbS-[t_i] [Denb'-[AS-....] [Denb-...]]]]]]]

Beraz, batetik, ezin da *ote* orokorrak okupatzen duen sintagma izan eta, bestetik, DenbS eremuaren gainetik kokatuta egon behar da; hots KonpS eremuan.

Bestalde, *ote* mota hori ezin da lehenengo gunean azaldu, ez *nz*-galderetan, ez polaritatezko galderetan; izan ere, aditz jokatuaren ostean eta subjektuaren aurretik agertu behar da *ote*:

(92) (**ote*) Nor deitzen (*ote*) du (*ote*) Peiok (**ote*) egun guziz (**ote*) hain goizik (**ote*)? (cf. 51)

(93) (**ote*) Jinen (*ote*) dea (*ote*) aita?

Jakina da aditza galderetan Fok burura mugitzen dela, 2.3 & 2.4 azpiataletan azaldu dudan bezala; beraz, *ote*-ren kokagunea FokS-ren eta JokS-ren artean egon beharko litzateke:

(94) [FokS Nor_i [Fok' [Fok *deitzen*_j *du*_k] [XS [*ote*] [JokS [DenbS [*Jonek*] [Denb'-[aS *egun guziz hain goizik* t_i t_j] [Denb-t_k]]] [Jok]]]]]

Hau ikusita, arreta mereziko luke aditza mugitu ez deneko testuinguruetan partikulak zelan jokatzen duen jakiteak; erabilera hau galderetan bakarrik jaso dut, eta beraz fokurik gabeko polaritatezko zehar galderei erreparatu beharko litzaieke berauek baitira aditzaren aurreranzko mugida gauzatzen ez deneko testuinguru bakarra:

(95) Ez dakit [JokS [DenbS ardi horrek [Denb'-[aS [AS gaur [A' bildotxa [A ukain]]] [a]] [Denb]] [Jok duen]]

Horrelakoetan *ote* partikula mendeko perpausaren hasieran agertu beharko litzateke aditza *in situ* dagoen testinguruetan; hala ere, horrelakorik ez dago eta hiztunek ez dute onartzen:¹⁴

- (96) *Ez dakit *ote* ardi horrek gaur bildotxa ukain duen.
 (97) Ez dakit ardi horrek gaur bildotxa ukain *ote* duen. (erabilera orokorra)
 (98) Eztakit ardi orrek bildotxa ukhain dienez *othe* gaur. (erabilera ezohikoa) (Camino 2009: 193) (= 1, 46)

Murriztapen hau aintzat hartuta, badirudi *ote* mota horrek FokS lexikalizatuta egotea beharrezko duela partikula zilegi izan dadin. Horiek horrela, fokua eta partikularen arteko lotura bide dago. Esanguratsua da partikula fokuairekiko sentibera izatea, beste hizkuntza batzuetan ere horren testingantza biltzen baita; alemanez eta bangleraz (Egg eta Mursell 2017; Biezma eta beste 2018) partikulak fokuairen ondoan agertzen dira alegia. Dena den, fokuairekiko partikula sentiberak ez dira partikula fokalekin nahastu behar, lehenengoek ekarpen interpretatiboa egiten baitiote proposizioari edo fokua den horri hain zuzen. Bigarrenek, ordea, funtzio sintaktikoa besterik ez dute; hots, perpausaren fokua markatu besterik ez dute egiten, ekarpen interpretatiborik gehitu gabe.

Bestalde, Egg eta Mursellek (2017) edo Bayer eta Obenauerrek (2011) argudiatzen dute alemanez hainbat partikularen bitartez foku motak bereiz daitezkeela, esaterako foku mugatu eta askea (Egg and Mursell 2017):

- (99) (dass) [*PETER*]_F *wohl* den Wein trinkt.
 MEND Peter P ART.AK ardo edan
 ‘Peterrek edaten omen du ardoa.’ (Egg eta Mursell 2017: 39)
- (100) (dass) Peter *wohl* [*den WEIN*]_F trinkt. (ibidem)
 MEND Peter P ART.AK ardo edan
- (101) (dass) Peter *wohl* [*den WEIN trinkt*]_F. (ibidem)
 MEND Peter P ART.AK ardo edan

¹⁴ *Basyque*-n (Etxepare eta Uria 2007-2011) bildutako datuek ere hipotesi horren alde egiten dute. Proiektu horren helburua zen elkarrizketen bidez ipar-ekialdeko hizkeren propietate morfosintaktikoak jasotzea; horietako bat partikula modalen jokabidearekin lotuta zegoen. Besteak beste, partikulen kokaguneez galdetu zitzaizen hiztunei, e.g. ea *ote* *nz*-galdera batean hasieran ager zitekeen. Aukera hori baztertu zuten elkarrizketatu gehienek; hiztun bik bakarrik onartu zuten eta, gainera, euren eremuan *ote*-k ez du adberbio ahularen moduan jokatzeko. Beraz, iritzi gramatikal horiek ez bide dira oso fidagarriak eta ez ditut aintzat hartu.

Edo kontrastiboa eta informazio egiturazkoa (Bayer eta Obenauer 2011: 456):

- (102) Wann könnte *nur* [Otto den Brief gestern ins Büro mitgenommen]_F haben?
noiz lezake P Otto ART.AK gutunatzo ADL bulego ekarri LAG
'Noiz ekar zezakeen Ottok atzo gutuna bulegora?'
- (103) Wann könnte Otto *nur* [~~Otto~~ den Brief gestern ins Büro mitgenommen]_F haben?
(ibidem)
- (104) Wann könnte Otto den Brief gestern ins Büro *nur* [~~Otto den Brief gestern ins Büro~~
mitgenommen]_F haben? (ibidem)

Euskarazko kasuan ez dut uste partikulak foku motak bereizten dituenik, sintaxiak eta prosodiak eginkizun hori betetzen baitute. Alegia, euskaraz fokua *in situ* gera edo ezker periferiara mugi daitekeela erakusten du Elordietak (2001); lehenengo kasuetan foku zabala izan daiteke, bigarrenetan, aldiz, foku estua bakarrik:

- (105) [*Gaur umeeek abesti berri bi abestu dituzte.*]_F (Elordieta 2001: 131)¹⁵
- (106) Gaur umeeek [*abesti berri bi abestu*]_F dituzte. (ibidem)
- (107) Gaur umeeek [*abesti berri bi*]_F abestu dituzte. (ibidem)
- (108) [ABESTI BERRI BI]_i abestu dituzte_j gaur umeeek t_i t_j.

Gauzak horrela, *ote* mota horrek foku estuarekin lotura daukala proposatzen dut; hots, bera lexikalizatuta agertu ezean, partikula ezin da erabili (cf. Poletto 2000: 52).¹⁶

Partikula mota honen jokabide sintaktikoak mahaigaineratuta, jarraian bere kokapen sintaktikoa zehazteari ekingo diot. Lehenik eta behin, aurretik esan bezala, FokS-ren eta JokS-ren artean kokatuta egon beharko litzateke. Honez gain, Fok burura mugitutako aditzaren eta partikularen artean *-a* eta *ba(da)* bakarrik tarteka daitezke; bestela, aditzaren elipsia gauzatzen deneko perpausetan fokua den osagaiaren ostean azaltzen da *ote*. Hau aintzat hartuta, honako banaketa legoke:

¹⁵ Letra etzana erabili (105-107) adibideetan foku *in situ* delakoa adierazteko.

¹⁶ Polettok (2000: 52) ipar italiararen hizkerak aztertzen ditu; lan horretako ikergai bat subjektu klitikoak dira eta lau mota bereizten ditu Polettok, bi erdiko eremuan eta beste bi ezker periferian. Ezker periferian azaltzen den klitiko mota baten gainean honakoa diosku: aditza KonpS-ren eremura mugitu ezean, klitiko ezin da gauzatu. Hartara, badirudi antzeko baldintza dutela subjektu klitiko horiek eta orain aztergai dutan *ote* partikularen motak.

(109) Zergatik bada *ote*?


(110) Eza *othe*?

(111) [FokS *CÉLINEK*_i [Fok' [Fok] [XS [*ote*] [DenbS-_{ti}] [Denb'-[AS-...]] [Denb...]]]]]]

Arestian aldarrikatu dudan bezala, *ote* mota hori ez da buru klitikoa, Cardinalettiren (2011) adberbio ahul terminotik edo Coniglioren (2008) islapen nagusitik gertuago dago. Hala ere, puntu honetan bereizketa bat egin nahiko nuke: *ote* orokorraren eta ez-orokorraren arteko aldea perpausaren hezurdura sintaktikoaren parte izatean datza; alegia, AS-k, aS-k, DenbS-k edo ezker periferiako JokS-k, FokS-k, TopS-k eta IndarS-k perpausaren hezurdura osatzen dute, baita jokabide orokorreko *ahal*, *omen* edo *ote*, besteak beste, biltzen dituen sintagmak ere. Jokabide ez-orokorreko *ote*, aldiz, sintagma baten burua da baina sintagma hori ez da hezurdura sintaktikoaren zatia, hezurduraren sintagma baten espezifikatzailea baizik; perpaus batean DetS, IzenS edo AdbS-k bezala jokatzen du neurri batean. Hurrengo diagraman biltzen dut orain esandakoa:

(112)

a) X⁰ izaera



b) XP izaera




Diagrama horretan *ote* biltzen duen sintagma beste sintagma baten espezifikatzaile gunean agertzen da; zein izan liteke hezurdura sintaktikoaren sintagma hori? Bada, kokapenez gain, gune horretan kokatzen diren osagaien ezaugarriek Rizziren (2004) Modifikatzaile Sintagmaren (aurrerantzean *ModS*) deskribapena gogorarazten dute (§3.4.2): a) bertan azaltzen diren osagaiak, i.e. adberbioak, ez dira ez fokua, ez topikoa; b) prosodikoki topikoen antzera jokutzen dute; hala ere, osagai horiek ez daude aurreko testuinguruari lotuta, topikoez ez bezala; eta c) hau kontuan hartuta, Rizzik (2004) IndarS-ren eta JokS-ren artean laugarren sintagma bat proposatzen du, i.e. ModS. Izendapena bere funtziotik dator, bertan kokatzen diren adberbioek ekarpena egiten diote eurekin lotuta dagoen egiturari.¹⁷ Orain burura datorren galdera honako hau da: zer alde dago Modifikatzaile eta Partikula sintagmen artean? Nire ustez, ez dago bai ModS-k, bai PartS-k funtzio berdina baitute: horietan azaltzen diren osagaiek, direla adberbioek, direla partikulek, atxikitzen zaizkion proposizioa modifikatzen dute euren ekarpen interpretatiboa gehituz. Honek frogatzen du ezker periferian ere partikulek gune bat okupatzen dutela; lehen (§6.4.2) esan bezala, sintagma funtzional batzuk (EzezS, FokS, TopS alegia) ezker periferian nahiz erdiko eremuan kokatzen dira gramatika lanetan (Poletto 2000; Belletti 2005; Etxepare eta


¹⁷ Rizzik (2004) kokagune hori Cinqueren (1999) Modalitate Sintagma mota desberdinekin lotzen du; hots, Cinquek sintagma bereizietan banatzen dituen osagaiak Rizzik ModS-n biltzen ditu.

Uribe-Etxebarria 2008; Haddican 2008) proposatu den bezala. Hartara, *ote*₂ Modifikatzaile = Partikula Sintagmaren espezifikatzaile gunean kokatzearen aldekoa naiz.

Euskarazko datuak eta Rizzirenak (2004) ezaugarri horietan (.i.e. prosodikoak eta perpaus mailako banaketarenak) bat badatoz ere, desberdintasun nagusi bat dago: Rizzik aztertzen dituen osagaiak adberbioak dira eta, aurreratuta agertzen diren eta prosodikoki nabarmenduta dauden kasuetan, ModS-ra igotzen dira sorlekutzat duten erdiko eremuko guneren batetik; izaera ez-orokorreko *ote*, ordea, ezin da beste kokagune batean sortu, ondorioz, ezin da mugidarik egon. Halaber, *ote* mota hori nabarmenduta egon behar da zilegi izan dadin, beraz beste patroi prosodiko bat edukiko balu, beronek ezgramatikaltasuna lekarke. Horiek horrela, Rizzik (2004) darabiltzan osagaiak, Cardinalettiren (2011) terminologiari jarraituz, adberbio osoak izango lirateke eta *ote* adberbio ahula. Alemanezko partikula modalei dagokienez, Conigliok (2008) proposatzen du, 3.4.1 azpiatalean aditzera eman dudanez, egituraren beheko partean sortzen direla baina gorago igotzen direla; hau Rizziren (2004) analisiarekin pareka liteke. Hala ere, Struckmeierrek (2014) argudiatzen du alemanezko partikulak mugimendurik gabeko elementuak direla, Coniglioren kontra, eta okupatzen dituzten kokagune desberdinak azalekoak direla beste osagai batzuen mugiden ondorioz; Bayerrek (2009) ere partikulen mugitzeko murriztapena dakar berauen ezaugarrien artean. Azken hau bat dator *ote*₂-ren jokabidearekin.

Argi dagoenez, kategoria desberdinetako osagaiak daude aztergai lan horietan; dena den, Rizziren (2004) analisitik honakoa azpimarratu nahiko nuke: a) ModS-n azaltzen diren osagaiak topikoak duten prosodia bereizgarri bertsua jasotzen dutela, b) FokS-ren azpian eta JokS-ren gainean kokatzen dela osagai horiek biltzen dituen sintagma eta, c) osagai horiek atxiki duten egitura modifikatzen dutela. Ezaugarri horiek orain aztergai dudan *ote* mota horren banaketarekin eta propietateekin bat datoz; beraz Modifikatzaile Sintagma onartu eta *ote* ez-kanonikoa biltzen duen sintagma bere espezifikatzaile gunean kokatzen dela proposatzen dut:

(113)




Analisi honek, gainera, (52-60) adibideak azaltzea ahalbidetzen du, DenbS-ren elipsiaren ondorioz, [espez, FokS] gunera mugitutako osagaia eta *ote* partikula bakarrik agertzen baitira.

Ondorioz, atal honetan azertu dudan *ote*₂ ezker periferian kokatzen da Fok buruaren ahizpa adabegia den ModS-n hain zuzen;¹⁸ sintagma hori esleitzen die Rizzik (2004) fokuari gune batera mugitzen diren eta prosodikoki topikoen antzera jokatzen duten adberbioei. Bestalde, *ote* mota hori zilegi izan dadin FokS lexikalizatuta egon beharko litzateke. Honek azaltzen du aurreratuta dagoen aditz jokatuaren ostean agertzea, baita DenbS-ren elipsia gauzatzen deneko testuinguruetan fokuari ondoren azaltzea ere. Alegia, *nz*-hitza, fokalizatuta dagoen osagaia edota polaritatezko *bai/ ez* hitzak FokS-ra mugitzen dira; FokS lexikalizatzek *ote* ModS-n agertzeko aukera ematen du; azkenik, DenbS isiltzen da, [espez, FokS]-n dagoen osagaia eta *ote* bakarrik azalean utzita:

¹⁸ Aurretik (§7.3.1) aditzera eman dudanez, *ote*-ren eta aditz jokatuaren artean *ba(da)* ager daiteke; kasu horietan ModS ezin da Fok buruaren ahizpa-adabegia izan, *ba(da)* biltzen duen sintagma baizik. Dena den, ModS-ren kokapena erraz irudikatzearen, Fok buruaren ahizpa-adabegia deskribapena erabiltzea hobetsi dut oraingo analisisian, *ote* ez-orokorra hizpide baita.

(114)



Partikularen erabilera horrek fokuarekiko sentiberatasuna duela esan dut arestian. Hala ere, azpimarratu nahiko nuke ez duela edozein foku motak *ote* hori zilegiztaten; hots, *in situ* fokua ez du ModS aktibatzen, ezker periferiako fokua baizik. Ondorioz, ez da zilegi *in situ* fokua duten perpausetan *ote*₂ erabiltzea:

(115) **ote* non / Non *ote*?(116) **ote* PEIOK / PEIOK *ote*?

Non ote? bezalako egiturak hurrengo atalean aztertuko dudan konbinazioa sorrarazi bide ditu: alegia, (58-60) bezalako perpausetatik abiatuta hiztunek *nz*-hitzak eta partikulak osagai bakarra osatuko balute bezala berrinterpretatu ahalko zuketena eta, ondorioz, gaur egun osagai bakarra bezala funtzionatzen du. Kasurako:

(117) Nun *ote* utzi dut kazeta?(118) Zer *ote* ari da haur hori?(119) Ez dakit nik nola *ote* egiten ahal zükean. (Camino 2009b: 193) (= 34)

Jarraian euskalaritzan ezezaguna¹⁹ zen egitura hori aztertuko dut eta, beste hizkuntza batzuetan konbinazio bera lekukotzen dela aditzera emateaz gain, ipar-ekialdeko hizkeretan

¹⁹ Mujikak (1988) honen adibide bat ematen duen arren, *ote* kasu horretan parentetikoa dela ondorioztatzen du:

(i) Zertako *ote*, ez gaituzte onartzen? (Mujika 1988: 470)

gauzatu izana ez dela kasualitatea argudiatuko dut, hantxe baitu *ote*-k jokabide askeago eta ez-orokorra.

7.4 Egitura berri bat zati galderetan

Aurretik aditzera eman dut ipar-ekialdeko hizkeretan *ote*-k osatutako egitura berezi bat dagoela, [*nz*-hitza + *ote*] egitura hain zuzen 7.2 atalean *ote*₂ legez deskribatu dudana. Hurrengo lerroetan bere analisi sintaktikoa ez ezik, bere garapen historikoa ere edukiko dut hizpide.

7.4.1 [*Nz*-hitza + *ote*] egituraren analisi sintaktikorantz

Ipar-ekialdeko hizkeretan *ote* partikulak *nz*-hitzekin bat egiten du osagai bakarra sortuta:

- (120) Nun *ote* utzi dut kazeta? (= 117)
- (121) Zer *ote* ari da haur hori? (= 118)
- (122) Ez dakit nik nola *ote* egiten ahal zükean. (Camino 2009b: 193) (= 34)
- (123) Nork *ote* jan züan? (Casenave-Harigile 1997) (= 2)
- (124) Orkatzari xüxen zer *ote* agitü zeion jakin beharrez. (ibidem) (= 36)
- (125) Nontik *ote* horra den ez da erres ikustea. (Casenave-Harigile 2010) (= 37)
- (126) Züek haren kasüan zer *ote* eginen zünüen? (Coyos 2013: 97) (= 33)

Osagai bakarra eratu behar dute euskaraz jakina baita *nz*-hitzaren eta aditz multzoaren artean ezin dela beste ezer agertu, hala nola subjektua (127) edo adberbioak (128).²⁰

- (127) Nora (*Ekaitz) joan da (Ekaitz) oporretan?
- (128) Nora (*oraingoan) joan da Ekaitz (oraingoan) korrika egitera?

²⁰ Alabaina, ipar-ekialdeko hizkeretan *nz*-hitzaren eta aditz jokatuaren arteko ondokotasuna ez da beti nahitaezkoa testuinguru nagusietan; are gehiago, osagai horiek *in situ* azaltzen dira, Duguine eta Irurtzunek (2014) aditzera ematen dutenez. Horrelako testuinguruetan, beraz, ez da harritzekoa *nz*-hitzaren eta aditzaren artean bestelako osagaiak agertzea, *nz*-hitza subjektu ergatibodun bati dagokionean batez ere; esate baterako:

- (i) Nork gereziak jan ditu? (Duguine eta Irurtzun 2014: e4)

Horrelako testuinguru batean [*nz*-hitza + *ote*] egitura jasotzen duen adibide bat honakoa dugu eta, esperokoa denez, *itsasoa* osagarri zuzena *nz*-hitz ergatibodunaren ondoren eta aditzaren aurretik azaltzen da:

- (ii) Halabaina, gutarik zenbatak *ote* itsasoa ikusia zukeen? (Landart 1978)

Egia esan, partikulak aditz multzoarekin bat egiten duela pentsa liteke, erabilera orokorretik aldentuta, partikula aditz jokatuari gabe, aditz lexikoari edo aditz multzoari gehi lekiokela argudiatuta; hala ere, hurrengo lerroetan ebidentzia sintatikoak ez ezik, fonologiko-prosodikoak ere emango ditut analisi honen aurka eta elementu sintaktiko bat osatzen dutelakoaren alde.


Lehenengoz, ezaugarri fonologiko-prosodikoei helduko diet. Erabilera orokorreko *ote*-k eta 7.3 azpiatalean arakaturako egituretakoak patroiz prosodiko desberdinak dituztela ondorioztatu dut: lehenengoak, gainerako partikulek bezala, aditz jokatuarekin batera unitate prosodikoa osatzen du, 4.4 azpiatalean deskribatu dudak bezala; hemen aurkeztutako erabileran, ordea, *nz*-hitzarekin batera osatzen du unitate prosodikoa. Hau argi ikusten da *ote* aditz sintetikoari lotzen zaionean, partikula *nz*-hitzaren eta aditz jokatuaren artean kokatzen baita:

(129) Nun *ete* da aitxe? (Ondarroa)

Adibide honen ahoskerak ez du zalantzarik uzten, *ote* partikulak *dago*-rekin unitate prosodikoa egiten baitu, i.e. [ete da²¹ (> ete ra)], eta ez *[nun ete]. Honek ez du bat egiten (120) adibidearen ahoskarekin: kasu horretan [ote utzi dut] ez da zilegi, [non ote] ahoskatzen dute hizkera horietako hitzunek, beraz osagai prosodiko hori osatzen dute.

Bestalde, prosodiari dagokion beste ezaugarri bat da [nz-hitza ote] duten osagaiek *nz*-hitz soilek baino azentu indartsuagoa jasotzen dutela:

(130)



²¹ Ondarroako euskaran *dago* aditzak bilakabide fonologiko bi jasaten ditu: batetik, *dago* > *dau* daukagu eta, bestetik, erdialdetik datorren *au* > *a* soiltzea gauzatzen da, beraz *dau* > *da*.

Hau bat dator beste hizkuntza batzuekin, kasurako alemanarekin (Bayer 2009; Bayer eta Trotzke 2015); alemanezko erabilera horrek enfasi handiagoa edo miratibitatea²² duela aldarrikatu dute Bayer eta Trotzkek (2015) eta Trotzke eta Turcok (2015). Euskarari begira hiztun batzuek, horren inguruko iritzirik eskatu gabe, antzera deskribatu dute; hots, [nz-hitza ote] egitura duten galderek enfasi handiagoa dutela nz-hitzean egitura soila duten galderek baino. Alabaina, iritzi hau ez da harrizkoa prosodikoki nabarmenagoak baitira [nz-hitza ote] egiturak nz-hitz soilak baino.

Deskribapen sintaktikoari berriro erreparatuz gero, nz-hitzek eta ote-k eraturako osagai bakarraren aldeko argumentu gehiago topatzen dira. Ekialdeko hizkeretan galderek jokabide bi dituzte aditzaren mugidari dagokionez testuinguru zuzenetan ez ezik (Duguine eta Irurtzun 2014), mendekoetan ere: batetik, euskalki guztietan bezala nz-hitzen ondoan aditz jokatu behar da; bestetik, mendebaldeko hizkeretan ez bezala, jokabide orokorraz gain, aditza *in situ* geratzea zilegi da. Errepara diezaiegun hurrengo adibideei:

(131) Non utzi duen autoa galdegin dute.

(132) %Non autoa utzi duen galdegin dute.

Aldakortasun hori baliatuz, orain aztergai dudan ote-ren erabilera argitu dezaket. Bateko, partikulak aditz multzoarekin bat egingo balu, (132) adibidetik abiatuta, [ote utzi duen] egitura esperoko nuke; hala ere, hiztunek ez dute hori onartzen:

(133) *Non autoa ote utzi duen galdegin dute.

Aditzarekin bat egingo balu, erabilera orokorrari jarraituko lioke eta aditz jokatuaren aurretik azalduko litzateke:

(134) %Non autoa utzi ote duen galdegin dute.

²² Irurtzunek (2016: 259) adierazten du euskaraz ez dela gai hori sakon aztertu; salbuespen bat Etxepareren (1997) lana izango litzateke. Etxeparek ez du esplizituki miratibitatea aipatzen, hala ere, Irurtzunek uste du Etxeparek bereizitako foku mota bat miratibitatearekin lotuta egon litekeela; alegia, foku mota bi desberdin litezke sintaxiaren eta sortzen dituzten irakurketen arabera:

(i) [Jonek]_F ekarri du ardoa.
(ii) [Jonek]_F ardoa ekarri du.

Beste alde batetik, *ote*-k *nz*-hitzarekin bat egiten duen aukera zuzena da, (132) adibidetik abiatuta, partikula *nz*-hitzaren ondoren azaltzen baita eta beraren eta aditz multzoaren artean beste osagai batzuk ager baitaitezke, e.g. osagarri zuzena:

(135) %Non *ote* autoa utzi duen galdegin dute.²³

Bestalde, ildo bertsutik Duguine eta Irurtzunek (2014) deskribatzen dute gaur egungo nafar-lapurteraren hiztunen artean ez dela guztiz arrotza testuinguru zuzenetan *nz-in situ* galderak topatzea; jokabide hau gazteen artean ohikoagoa ei den arren, literaturan *ote* duen *nz-in situ* galdera hau jaso dut:

(136) Halabaina, gutarik zenbatek *ote* itsasoa ikusia zukeen? (Landart 1978)

Halaber, galdera zuzenetan *nz*-hitza eta aditza elkarren ondoan egon behar ez diren testuinguru orokor bat dago, i.e. *zergatik*-ez osatutako galderak:

(137) Zertako baratze hartako ogiak ekhartzen du horrenbertze buru? (Duvoisin *apud* Etxepare eta Ortiz de Urbina 2003: 465)

(138) Zergatik Christok hautazu zuen beretzat pobrezaren bidea? (Mogel *apud* Etxepare eta Ortiz de Urbina 2003: 465)

Kasu honetan *ote* partikula erabiliz gero, *nz*-hitzari lotuta azaltzen da eta ez *in situ* dagoen aditz multzoari:

(139) Zertako *ote* bi galtze izigarri, ezin ordarizkatzekoak, üken dütügü batetan, orai düala bi urte, gure Ziberoan? (Davant 2008: 117)

(140) Zerengatik *othe* guk ezin khendu dugu deabru hura? (Haraneder 1990[1740])

(141) Zergatik *ote* zuek horrela egiten duzue?

(142) Zergatik *ote* Peiok hori erran data?

²³ Eckardt eta Beltramak (2018) diote galdera konjekturaletan aditza *in situ* gera daitekeela; honek badakar interpretazioan ñabardura txiki bat: hiztunak aditzaren mugida eta partikula dituzten galderetan erantzuna argitzea zaila iruditzen zaion arren, ez du guztiz baztertzen erantzuna topatzea; partikula baina aditza *in situ* dituzten galderetan, aldiz, hiztunak erantzuna argitzea guztiz baztertu du, ezinezkoa iruditzen baitaio.

Lehenengo begiradan euskarazko jokabide horien artean alderik sumatzen ez bada ere, agian izan liteke alemanez lekukotzen den bezain lausoa. Hartara, etorkizunerako geratzen da horretan sakontzea.

- (143) *Zergatik Peiok hori *ote* erran data?
 (144) *Zergatik Peiok *ote* hori *ote* erran data?
 (145) Zergatik Peiok hori erran *ote* data?
 (146) Zergatik *ote* erran data Peiok hori?
 (147) Zergatik erran *ote* data Peiok hori?

Ebidentzia hauek *nz*-hitzek eta *ote* partikulak osagai bat osatzen dutelako hipotesiaren alde egiten dute; hori dela eta, konputazionalki ez dago inongo trabarik *nz*-hitzaren eta aditzaren artean *ote* agertzeko, ez baitu tarteko gunerik okupatzen, aitzitik, *nz*-hitzarekin batera osagai bakarra baita:

- (148) [_{FokS} Nork *ote* [_{Fok'} [_{Fok} jan züan] [_{JokS} ...]]]
 (149) *_{FokS} Nork [_{Fok'} *ote* [_{Fok'} [_{Fok} jan züan] [_{JokS} ...]]]]

Hala ere, ez nuke esango egitura honetan agertzen den *ote* partikula klitikoa eta burua denik, sintagmatikoa edo adberbio ahula den *ote* baizik. Egia esan, honek jokabide honen muga geografikoa azalduko luke, *ote*₂ duten hizkerek bakarrik baitute.²⁴

Azkenik, pentsa liteke adibide horietan dagoen *ote* mota hori 7.3 azpiatalean jorratutakoa dela eta kokagune bera okupatzen duela kasu bietan. Egia esan, horrelako analisia aldarrikatzen dute Munaro eta Polettok (2002) eta Conigliok (2008) italieraz ageri diren antzeko banaketak azaltzeko:

- (150) a. Quando, *po*, eli rivadi?
 noiz P LAG heldu
 ‘Noiz heldu dira PO²⁵?’ (Munaro eta Poletto 2002: 90)
 b. [_{FS} nzi [_F partikula] [_{KonpS} ti [_{DenbS} ...ti....]]]
- (151) a. Quando eli rivadi *po*?
 noiz LAG heldu P (ibidem)
 b. [_{FS} KonpS [_F partikula] [~~KonpS~~ nzi [_{DenbS} ...ti....]]]

²⁴ Lapurdiko kostaldea salbuespena izango litzateke, han ez baita (4-9) bezalako perpausik lekukotzen; hala ere, (58-60) bezalakoak ezagunak dira eremu horretan. Beraz, (58-60) bezalako egitura mendebalderantz zabalduta, bere berrinterpretazioa eremu osoan gauzatu dela proposatuko nuke. Bestalde, ekialdeko nafarra desagertua denez, ezin da jakin berrinterpretazio hau gauzatu zen edo ez zen haraino hedatu.

²⁵ Munaro eta Polettok (2002) ez dute itzulpenik ematen, beraz partikularen ekarpena markatzeko partikula bera letra larriz gehitzea erabaki dut, irakurleak gogoan izan dezan itzulpen horri partikularen interpretazioa gehitu beharko litzaiokeela.

Autore horien ustez, ageriko banaketa desberdinek aditzaren mugidarekin dute zerikusia. Hala ere, euskaraz nekez onar liteke analisi hori, (120-126) bezalako adibideetan nahiz 7.3 ataleko (4-9) adibideetan aditza aurreratzen baita:

(152) Nor_i {deitzen du}_j *ote* Peiok [t_i] [t_j]?

(153) Nor_i *ote* {deitzen du}_j Peiok [t_i] [t_j]?


Halaber, ezaugarri prosodikoak ezin ditu Munaro eta Polettoren (2002) analisiak azaldu, banaketa bietan partikulak ez dituelako propietate berak; esaterako, (120-126) bezalakoetan partikula ez da guztiz beregaina, *nz*-hitzari lotuta baitago.

Munaro eta Polettoren (2002) analisiak ez, baina Hagstromen (1998), Kishimotoen (2005) eta Cableren (2008) azterketek²⁶ bai ematen dute *nz*-hitzak eta *ote*-k osatzen duten antzeko egituraren berri. Lan horien arteko aldeak alde, propietate nagusi bitan bat datoz: bateko, partikulak *nz*-hitza duen sintagma osagarri hartzen du; eta, besteko, *nz*-hitza eta partikula elkarren ondoan sortzen dira. Beheko (154a) diagraman erakusten ditut propietate horiek. Bestela esanda, egitura hori ez da sortzen, irudi lezakeen moduan, *nz*-hitza mugitu eta partikularekin bat eginez, (154b) diagramaren bidez irudikatzen dudana bezala:


²⁶ Lan horiek *nz*-mugida eta *nz-in situ* hizkuntzak aztertu eta eratorbide horietan galdera partikulek duten rola lantzen dute; beraz, partikula mota desberdinak izango lirateke lan horietakoak eta alemanezko, euskarazko eta italierazko konbinazioetan erabiltzen direnak. Hala ere, egitura sintaktikoaren aldetik, antzekotasun nabarmenak daude eta, 3.4.2 azpiatalean defendatu dudanez, galdera partikula terminoaren barruan gutxi dira benetan sintaktikoki proposizioa galdera dela markatzen dutenak.

(154)

a)




b) *




Sortzeko gunean elkarren ondoan agertzen direlako hipotesia *zergatik ote* osagaiak indartzen du: Rizziri (2001) eta Cecchetto eta Donatiri (2012) jarraituz, *zergatik nz-hitza*, beste *nz-hitza* ez bezala, ez ei da ezker periferiara mugitzen, bertan sortzen baita. Beraz, mugidarik egon ezean, ezin izango lukete *nz-hitza* eta partikulak bat egin:

(155)*




Ezaugarri horietan guztietan oinarrituz, honako eratorbidea proposatzen dut: a) *nz*-hitzak eta partikulak osatzen duten konbinazioa eremu bereizian eratoritzen da, *ote* buru duen sintagma bat sortuz, *nz*-hitza duen sintagma osagarri hartuta:²⁷

(156)




b) ondoren, ohiko *nz*-hitzak egitura sintaktikoan okupatuko lukeen guneari eransten zaio ‘*nz*-hitza partikula’ egitura (Trotzke eta Monforte 2019):

(157)



c) ‘*nz*-hitza *ote*’ egitura osatuta, *nz*-hitzen moduan jokatzen du eta [espez, FokS] gunera mugitzen da:

²⁷ Literaturan *nz*-hitzaren eta partikula modalaren artean eraten den osagaia biltzen duen sintagmari *Partikula txiki Sintagma* deritzote (Bayer eta Trotzke 2015; Trotzke eta Turco 2015). Izendapen bat besterik ez bada ere (alegia, garrantzitsuena bere analisia da), ez zait izendapen hori egokia iruditzen, ez baitu azaltzen zergatik hautatu beharko lukeen, esate batera, aditz batek Partikula txiki Sintagma bat, *nz*-hitzari dagokion tokian. Egia esan, [nz] tasuna gailentzen dela proposa liteke, aditz eta aspektua elkartzen diren osagaietan aditz lexikoaren nabarmentzen ei den bezala. Era berean, Gutzmannek (2008: 77) dio partikulek edota adjektibo adierazkorrek (e.g. *madarikatua*) beste osagai batekin bat egitean, beste osagaiaren kategoria mantentzen dela. Halarik ere, *nz*-hitzek eta *ote*-k osatzen duten kategorian sakondu arte, XS etiketaz baliatuko naiz.

(158) Non *ote* utzi dut kazeta?

Trotzke eta Monfortek (2019) beste eragiketa bi aldarrikatzen dituzte: alde batetik, ‘*nz*-hitza *ote*’ osagaia hezurdura sintaktikoaren PartS-ren espezifikatzaile gunera mugitzen da partikulak Part buruarekin tasunak erkatuz *ote*-k proposizio osoaren gaineko besarkadura har dezan; beste alde batetik, Trotzke eta Turcoren (2015) ildotik, osagaia Enfasi Sintagmara (aurrerantzean *EnfS*) igotzen da egitura horiek intentsitateagatiko enfasia (jatorriz *emphasis for intensity*) jasotzen baitute eta, euren iritziz, aldaketa pragmatikoak sintaktikoa baitakar. Hala ere, oraingoan mugida horiek baztertzen ditut honako arrazoiengatik: lehenengoari dagokionez, *zergatik nz*-hitzak mugida hori alboratzen laguntzen du, *nz*-hitza hori ezker periferian sortuz gero, nekez mugi bailiteke PartS-ra partikula zilegiztatzeko asmoz. Enfasi Sintagmarako mugimenduari dagokionez, egia da *nz*-hitz arruntek egiturazko informazio fokuarekin lotura dutela; ‘*nz*-hitza partikula’ egiturak, aldiz, ez. Egitura horietan azaltzen den foku mota intentsitatearekin lotzen dute Trotzke eta Turcok (2015); jokabide hori bestelako egitura batzuekin konparatzen dituzte, bertan ere intentsitatezko fokua suma daiteke eta (Bayer eta Trotzke 2015; Trotzke eta Turco 2015):

(159) Was hast Du heute Nacht gemacht?

zer LAG zu gaur gau egin

‘Zer egin duzu gaur gauean?’

a. GESCHLAFEN hab ich!

lo.egin LAG ni

‘Lo egin dut! Zer bestela?’

b. Ich habe geschlafen.

ni LAG lo.egin

‘Lo egin dut.’ (Trotzke eta Turco 2015: 41)

Euskarari begira ere, antzeko banaketa sintaktikoa eta pragmatikoa duen beste egitura bat dago:


(160) Gustatuko ez zait ba!

(161) Lo egin ez nuen ba!

Ebidentzia horietan oinarritzen dira Bayer eta Trotzke (2015), Trotzke eta Turco (2015) eta Trotzke (2017) EnfS proposatzeko. Dena den, oraingoz behintzat ez dut euskaraz EnfS bat proposatzeko nahiko ebidentziarik; izan ere, 5.4.5 azpiatalean esan dudana bezala, aldaketa sintaktikoak pragmatikoa dakar (Izutsu eta Izutsu 2013) eta, egitura hau sintaxiaren aldetik berez bereizgarria den arren, pragmatikaren aldetik *ote*-k, eta partikula duen galderak ere, ekarpen bera egiten dutela esango nuke dela jokabide orokorrean, dela horrelako konbinazioa duten testuinguruetan.

Nolanahi ere, egia da horrelako egiturak enfasi handiagoa jasotzen duela; izan ere, *ote*-k *nz*-hitzarekin bat egiteak prosodian aldaketa eragiten du horrelako egiturek enfasia jasotzen baitute:

(162)



Ezaugarri hau, gainera, euskaraz ez ezik, alemanez ere topatzen da (Bayer eta Trotzke 2015; Trotzke eta Turco 2015; Trotzke eta Monforte 2019). Hala ere, euskaraz behintzat enfasi handiagoa jasotzeak ez du galderaren fokua *non-information-structure* delako fokua bihurtzen, irakurketa hori badu ere; aitzitik, 5.4.1 azpiatalean argudiatu dudan bezala, *ote*-k eragiten du interpretazio hori berez.

Gauzak horrela, oraingoz EnfS eta horrako mugida baztertzen ditut, ebidentzia argiak eskuratu arte.²⁸

Laburbilduz, *nz*-hitzak eta *ote* partikulak osagarri bakarra osatzen dutela frogatu dut bai ebidentzia sintaktikoetan bai prosodikoetan ere oinarrituz; honez gain, egitura hori sortuta, *nz*-hitzari dagozkion kokapen eta eratorbidea dutela aldarrikatzen dut. Egitura horren osaera, kokagune sintaktikoa eta eratorbidea argituta, ondoren bere garapen historikoari erreparatuko diot labur.

7.4.2 [Nz-hitza + ote] egituraren garapenaren azalpenerantz

Aurretik (§7.3) *ote*₂-ren izaera sintaktikoa arakatu dudanean, ‘*nz*-hitza *ote*’ egituraren jatorria partikulak foku batekin bakarrik osatzen dituen perpausekin egon litekeela lotuta esan dut; esate baterako:

(163) a. Non *ote*?

b. CÉLINEK *ote*?

²⁸ *Ba(da)*-k auzi hau argitzen lagunduko duelakoan nago *nz*-hitzekin batera antzeko egiturak osa ditzake eta:

- (i) Nondik *bada* zetozen eskatu zien. (Borda 2005)
- (ii) Zergatik *bada* erraten dizkiotan (...) oro. (Landart 1999)

Horrelako erabileretan islapen nagusiko izaera duen *ote*₂ identifikatu dut eta, DenbS isildu ostean, aurretik FokS-ra mugitutako osagaia eta partikula bakarrik gauzatzen direla proposatu dut 7.3.4 azpiatalean. Jakina da FokS-ren espezifikatzaile gunean *nz*-hitzak ez ezik, bestelako osagaiak ere ager daitezkeela, hala nola DS-ak, AdbS-ak edo KonpS-ak. Dena den, proportzioan horrelako egituretan *nz*-hitzak gehiagotan agertzen dira, murriztagoa baita kategoria horren kideen zerrenda; hartara, errazagoa da hiztunek '*nz*-hitza *ote*' konbinazioa berreinterpretatu izana eta osagai bat bezalakoa izango balira bezala ulertu eta erabiltzea, 7.4.1 azpiatalean argudiatu dudana bezala. Honelako garapena eduki zezakeen '*nz*-hitza *ote*' konbinazioak:

(164) a. Nun utzi dut *ote* kazeta?

⇓

b. Nun *ote*? =(Non (utzi dut) *ote* (kazeta)?)

⇓

c. Nun *ote*? =(Non *ote* (utzi dut kazeta)?)

⇓

d. Nun *ote* utzi dut kazeta?

Eratorpen horren aldeko ebidentziarik zaila da *corporan* topatzea, garai zaharreko testu generoa nahiko homogenea baita, erlijioitsuak alegia, eta genero horrek partikula modalen erabilera mugatzen duela ematen baitu. Egia esan, Barandiaranek (1972) jasotako ipuin eta alegiei begiratuz gero, horietan partikula modalak hein handiago batean agertzen dira doktrinetan baino; beraz, ahozko hizkuntzari lotuagoak dira partikulak. Gauzak horrela, nekez dokumenta liteke orain ikergai dudana egituraren garapena testu zaharretan. Halarik ere, *ote*₂-ren eta egitura honen lehenengo agerpenek datazio honen alde egiten dute: *ote*₂ lehenengoz Pouvreauren (1664)-eko eta (1669)-ko lanetan²⁹ (EHUko Euskara Institutua 2013) azaltzen da; '*nz*-hitza *ote*?' (hots, 164b adibidekoa) Argaiñaratzen (1665)-eko lanean

²⁹ Adibide hauek dakartza Pouvreaux (1664) eta (1669):

- (i) Ez *othe* sobera mundu hunen gatik? (Pouvreau 1664)
- (ii) Ez *othe* Iainkoaren arauera bizitzea eta gizon espiritual izaitzea gatik? (Pouvreau 1669)
- (iii) Ez *othe* ene baitan? (ibidem)
- (iv) Ene ezdeusagatik *othe*? bainan hau da gauzarik erhoena. (ibidem)
- (v) Ez *othe* zu, ene Jainko Jauna, nola zure miseriak ezpaitu neurririk? (ibidem)

(EHUko Euskara Institutua 2013) agertzen da lehenengo bider³⁰ eta azken fasea, ‘nz-hitza ote aditza’ egitura, Haranederren (1990[1740])³¹ Bibliaren itzulpenean dokumentatzen da lehenengoz baina ez da berriro lekukotzen XX. mendearen hasierara arte; aurrerantzean ugaritzen da bere erabilera: Jules Moulierren (1916)-ko (EHUko Euskara Institutua 2013) eta Jean Barbierren (1926)-ko obrak garai horretako lehenengo testigantzak dira.

Egitura hori duten beste hizkuntza batzuei begiratu gero, antzeko garapena gauzatu dela dirudi, alemanez eta italieraz kasu. Zoritxarrez horrelako konbinazioak ez dira ikuspuntu historikotik aztertuak izan eta analisi gehienak eratorbide sintaktikora mugatzen dira. Izan ere, aleman hitzun guztiek ez dutela (164c) bezalako ‘nz-hitza partikula modala aditza’ egiturarik onartzen baina bai (164b)-ren moduko ‘nz-hitza partikula modala’; hori aintzat hartuta, (164b) > (164c) bilakabidearen alde egiten duelako ustean nago.

Horiek horrela, azken lerroetan garatutako hipotesia berresten edo baztertzen laguntzen duen testu zahar gehiagorik ezean, egun ipar-ekialdeko hizkeretan ezaugarri berezia den ‘nz-hitza ote’ multzoa DenbS-ren elipsia jasan duten *ote*₂-dun *nz*-galderetatik eratorria delako ideia onesten dut, (164) adibideetan erakusgarri. Egia esan, euskaraz forma biak eremu geografiko bera edukitzeak iradokitzen du elkarren arteko lotura. Hartara, hizkera horietan (163) bezalako testuinguruetan *nz*-hitzen ostean *ote* agertzeko maiztasunak bi horiek osagai bakarra eratuko balute bezala berrinterpretatzea ekarri du, 7.4.1 azpiatalean deskribatutako propietateak bereganatuz.

³⁰ Obra horretan lehenengo lekukotasun bi topa daitezke; alabaina, poesia batean daude eta kontuz ibili behar da horrelako generoan, estilo kontuengatik alda baitaiteke ohiko sintaxia. Olerki honetan dokumentatzen dira erabilera biak:

- (i) Othoi hemen indazu.
O Iauna othoi indazu,
Noiz izanen othe gara,
Noiz *othe* zure kortean,
Zer othe daite Naturan
O Iauna zertako *othe*,
Zer ematen othe darot.

Lehenengo agerpenean elipsia egon dela argudia daitekeen arren, bigarrenean, aldiz, bere horretan onetsiko nuke horrelakoak (*zertako othe?*) ohikoak baitira literaturan nahiz gaurko euskaran.

³¹ Perpaus bitan azaltzen da delako egitura:

- (i) *Zeiñi othe* aingeruetarik erran dioke egundaiño: " Jar zaite ene eskuiñeko aldean, ezar detzakedan artean zure etsaiak zure oiñen azpian?
- (ii) *Zerengatik othe* guk ezin khendu dugu deabru hura?

(170) Warum *nur* bin ich *nur* so langsam?

zergatik P LAG ni P hain astiro

‘Zergatik nago ni hain motel NUR NUR?’ (ibidem)

Hala ere, hizkuntza horietan bestelako azterbidea proposatzen dute: Bayerrek (2020) argudiatzen du lehenengo partikulak *nz*-hitzarekin bat egiten duela eta osagai bat osatzen dutela eta bigarrena, aldiz, ohiko erabilera duen partikula dela, alegia PartS-ren burua.

Azterbide hori ez dut uste asegarria denik euskarazko datuetarako, (165) bezalakoetarako batez ere, lehenengo *ote* prosodikoki aditzarekin batera baitago eta bigarrena nekez izan liteke hezurdura sintaktikoaren burua; hala izango balitz, aditz jokatuarekin bati erantsiko bailitzaioke hitz morfonologikoa osatzeko asmoz. Izan ere, partikula batek *nz*-hitzarekin bat egingo balu eta bestea buru klitikoa izango balitz, ez genuke (165) adibideko hurrenkera lortuko, ezgramatikala den (171) adibidekoa baizik:

(171) *Non *ote ote* da?

Azkenik, orain aztertutako testuinguruak, i.e. partikula modal bera birritan duten perpausak, azpimarratuko nituzke partikulek izaera sintaktiko desberdinak eduki ditzaketela erakusten baitute; honez gain, izaera sintaktikoko partikulen ezaugarriak aurrez aurre ipintzeko balio dute. Honek, beste hizkuntza batzuetara eramanez gero, argi lezake delako hizkuntzazko partikulak hezurdura sintaktikoaren buruak ala sintagmatikoak ote diren, esate baterako alemanezko edo italierazko partikulen izaera sintaktikoa. Izan ere, hizkuntza horietan ezaugarri antzekoak dauden arren, bestelako analisiak proposatu dira eta euskarazko partikula modalen analisiak bere ekarpena egin lezake.

7.6 Aldakortasun sintaktiko gehiago: perpaus amaierako partikulaz

Kapitulua amaitzeko, hedadura murriztena duen erabilera edukiko dut aztergai. Literaturan jaso dut haren berri eta Nafarroa Behereko hainbat hiztunek baieztatu didate beraren erabilera; hona hemen hainbat adibide:

(172) Hi, ez ahal duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134) (= 3, 29)

(173) Ez girea bilkurarat gomitatua *ote*? (ibidem: 155) (= 30)

(174) Zure gurasoek ez dute lan egin *ote*?

(175) Ez ahal duzu horren berri ukan *ote*? (= 31)

(176) Eztaukizia etxea sutan *ote*? (Estornes 1985 43)

(177) Aita joanen dea gerlara *ote*?

Bere pragmatika 5.4.7 azpiatalean jorratu dudanean aditzera eman dudan bezala, azterketa sakona merezi du *ote* mota horrek, 7.2 atalean *ote*₃ gisa aurkeztua; sintaxiaren aldetik ere gehiago arakatu beharko litzateke bere jokabidea ahalik eta zintzoen azaldu ahal izateko eta, ondorioz, ganorazko analisisa aldarrikatzeko. Beraz, datu gehiago lortu arte, lehenengo hurbilketa bat besterik ezingo dut eskaini.

Lehenengoz, erabilera honetako *ote* mota ez-orokortzat jotzen dut, bateko, ez baita euskalki guztietan azaltzen eta, besteko, ez baitu jokabide orokorrerako identifikatutako ezaugarririk: ez dago aditz jokatuari lotuta, ez du egitura sintaktikoan mugidarik eta prosodikoki ez du klitiko izaera. Hurrengo adibideetan *ote* mota hori besteekin konparatuta ikus daiteke orain plazaratutako ezaugarriak aintzat hartuta:

(178) Ez *ote* deia arren deüs ere etxe hontan guretako? (Davant 2008: 76)

(179) Ez dokeda *ote* nik egin ñoriataz nai duana? (Estornés 1982a: 80) (= 50)

(180) Ez düa *ote* eginahala egin? (Coyos 2013: 100)

(181) Hi, ez ahal duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134) (= 3, 29, 172)

(182) Ez girea bilkurarat gomituak *ote*? (ibidem: 155) (=30, 173)

Perpaus mailan okupatzen duen kokaguneari dagokionez, aurreko erabileran bezala, kokagune finkoa bide du; hala ere, beste erabilereetan ez bezala, perpaus amaierako gunean agertzen da. Hau agerian geratzen da baiezko zein ezezko testuinguruetan perpausoko osagai guztien ostean azaltzen baita, aditz lexikoaren ondoren ere, (178, 179 eta 180) adibideetan ez bezala. Gauzak horrela, erabilera orokorrean duen kokagunea orain aztergai dudan erabilera honetan ere baduela pentsa liteke; hots, aditz lexikoaren eta inflexioaren artekoa. Erabilera bien arteko aldea honako hau izango litzateke: oraingo jokabidean partikula ez da aditz jokatuarekin batera mugitzen; esate baterako:

(183) Ez ahal duzu horren berri ukan *ote* [ahal duzu]? (= 31, 175)

Analisi honek ezezko perpausetako hitz-hurrenkera lortzen duen arren, baiezko perpausetan nekez argi lezake ageri den hitz-ordena, ez bailitzateke aditz laguntzailea mugituko; beraz,

hurrenkera orokorra azaltzea esperoko genuke, i.e. aditz jokatuaren aurretik. Hala ere, hori ez da ageri den hitz-ordena:

(184) Orain gazte batekin zirea *ote*? (Thikoipe 2009: 58)


(185) Eztaukizia etxea sutan *ote*? (Estornes 1985 43) (= 176)

Halaber, ezeztapenaren kokapenak ere arazoak dakartzkio analisi horri; *ote* mota horrek jokabide kanonikoari jarraituko balio, beste hizkeretan bezala partikula ezeztapenaren eta aditz jokatuaren artean kokatzea esperoko genuke eta:

(186) [_{DenbS} [_{PartS} [_{EzezS}[_{aS}] ez] *ote*] duk]

Non egon liteke *ote* mota hori kokatuta? Jarraian balizko kokagune bi proposatuko ditut. Alde batetik, Indar Sintagmaren gainerako kokapen batean egon liteke. Kokapen hori Hizketa Ekintza eremukoarekin pareka liteke; egia esan, pragmatikaren aldetik ere paralelotasunak ere leudeke, 5.4.7 azpiatalean adierazi dudan bezala, erabilera honetako *ote*-k hiztunaren eta entzulearen arteko erlazioa markatzen bide baitu. Beste hizkuntza batzuetarako proposatutako analisisien ildotik, *ote* burua izango litzateke eta IndarS osoa bereganatuko luke delako sintagmaren espezifikatzaile gunera erakarriz (Haegeman 2014; Badan eta Del Gobbo 2015):³³

(187)



³³ Del Gobbo eta bestek (2015: 361) diote KonpS-n dauden partikulak erakartzaileak direla, DenbS-koak ez bezala. Beraz, ezker periferian sortutako partikulek perpausa erakar dezakete espezifikatzaile gunera; erdiko eremuko gune bat okupatzen duen partikula batek, ordea, ezin du perpausa edo beste osagairik bereganatu.

Analisi honek jokabide sintaktikoa eta pragmatikoa azalduko lituzke. Hala ere, arazoak ere baditu:³⁴ argiena da zergatik den *ote* mota hori sintagma baten burua eta ez espezifikatzailea, erabilera ez-orokorrean esleitu diegan izaera mantenduta. Aurrerago itzuliko naiz auzi honetara.

Bestalde, egia da oraingo egiturak ekialdeko hizkeretako beste egitura bat gogorarazten duela, esaterako:

(188) Ihes egitera saiaturik *ote*? (Davant 2008)

(189) Ez nintzelakoz laborari izateko sortua *ote*? (Landart 2011)

(190) Tabako erre ta erre ari zen, beharbada, kheak firfira hori estaliko ziolakoan *ote*?³⁵
(Landart 1978)

Kasu horietan *ote*-ren aurretik agertzen den osagaia FokS-ra mugitu dela proposatzen dut, 7.3.4 azpiatalean aldarrikatutakoaren ildotik; alegia, horrelako esaldietan FokS-ra mugitu den osagaia eta partikula bakarrik agertzen dira gainerako osagaiak isildituta, dela aditza, dela perpaus nagusia:

(191) Ihes egitera saiaturik ~~hil-zuten~~ *ote* [~~ihes-egitera-saiaturik~~] [~~hil-zuten~~]?

(192) (Sentitzen nuen, nonbait, ez zeukala enetzat estimurik. Nolaz?) Ez nintzelakoz laborari izateko sortua ~~ez-zeukan~~ *ote* ~~enetzat-estimurik~~ [~~ez-zeukan~~]?

³⁴ Horietako bat Haegemanek (2014) jorratzen du antzeko egitura proposatzen duenean: buru batek hautatzen duen osagarria berorren espezifikatzaile gunera mugitzeak *anti-locality* delako araua urratzen du. Arazo hori konpontzeko Haegemanek (2014) beste sintagma bat tartekatzen du topiko eskegien eta bokatioben datuetatik abiatuta.

³⁵ Ez litzateke (189 eta 190) adibideetako egoera hurrengo adibideetakoarekin nahastu beharko:

(i) Datorren igandean berriz itzuli beharko dugunez *ote*? (Landart 1982)

(ii) Eta ni, harritua, zentzordatua, mutu gelditu nintzen. behar bezala aditu nuenez *ote*. (ibidem)

Azken kasu hauetan partikula ez dagokio elipsiaren ondorioz isildutako perpaus nagusiaren bati, mendeko perpausari baizik:

(iii) Jakin nahiko nuke datorren igandean berriz itzuli beharko (*ote*) dugunez (*ote*).

(iv) Ez nekien behar bezala aditu (*ote*) nuenez (*ote*).

Beraz, (iii-iv) adibideek erakusten dutenez, *ote* partikula mendeko perpauskoa da; izan ere, bere kokapen kanonikoan ere ager liteke, mendeko testuinguruaren parte delako ideia indartuta. Elipsiaren aldeko ebidentzia hurrengo adibidean dago, bertan azaltzen den banaketa baita (iii-iv)-rako auresuposatutakoa:

(v) Betik nago xakin nai sontot(u) zenez *ote*. (Irigoyen 1957)

(vi) ~~Betik nago xakin nai~~ sontot(u) zenez *ote*.

(193) Tabako erre ta erre ari zen, beharbada, kheak firfira hori estaliko ziolakoan ~~egingo~~
zuen *ote* [~~tabako erre ta erre ari zen, beharbada, kheak firfira hori estaliko ziolakoan~~]
[~~egingo zuen~~]?

Hau aintzat hartuz gero, egon liteke (172-177) adibideetan egoera bera? Arestian esan bezala, ezezko testuinguruetan erabilera bien arteko aldea nabarmena da, aurrekoan *ote* aditz lexikoaren aurrean azaltzen baita eta oraingoan, ordea, bere ostean:

(194) Ez düa *ote* eginahala egin? (Coyos 2013: 100) (= 180) [*ote*₂]


(195) Ez ahal duzu horren berri ukan *ote*? (= 31, 175) [*ote*₃]

Beraz, oraingo azterbideko *ote* mota hori biltzen duen sintagma ezezko perpausen eratorbideen eraginetik kanpo bide dago.


Hala ere, onartzen baldin badugu ezezko perpausetan aditz jokatua PolS-ra mugitzen dela [ez-Lag ... A] ordena lortuta (Haddican 2008; Arriortua 2017), honako eratorbidea proposa liteke kokagune beretik hitz-hurrenkera biak lortzeko: (194) bezalako kasuetan aditz jokatua Pol burura igo ostean, Fok burura mugitzen da buruz buruko mugidaren bidez [Ez-Lag *ote* ... A] hurrenkera erdietsita (ikus 196a); (195) adibidearen moduko kasuetan, aldiz, proposizio osoa mugitzen da FokS-ra (ikus 196b); esaterako:

(196)

a)



b)




Erabilera honen inguruko azterketa sakonik ezean, (187) eta (196b) diagrametan aurkeztutako analisi biak balizkoak dira eta nekez egin daiteke baten aldeko hauturik. Hala ere, esaldi amaierako partikularen garapenari erreparatuz gero, bigarren analisia erabilera horren abiapuntua delako indarguneak daudela esango nuke: batetik, zergatik ez den posible

erabilera hori mendebal zabaleko hizkeretan azaltzeko bidea ematen du, fokuarekiko sentiberatasuna duen *ote*₂-ren erabileratik eratortzen baita; bestetik, egitura horien berranalisiaz *ote*₂ perpaus nagusien amaierako gunean agertuko litzateke. Alegia, hizkera horietan *ote*₂ mota ez-kanonikoa beti [espez, FokS] gunera mugitu den osagaiaren ostean agertzen da, 7.3 atalean aditzera eman dudanez, osagai bien arteko interakzioa baitago; ondorioz, aditza isilduta, partikula fokuaren ostean azaltzen da, dela DetS bat, dela KonpS bat. Azkenik, hiztunek banaketa hori berrazter zezaketen eta (187) adibidean islatzen den egitura berranalisia horren emaitza izan liteke. Interpretazio desberdina edukitzeak berregitura horren alde egiten du (172-177) eta (188-190) bezalako adibideen arteko aldeak iradokitzen duen bezala. Gainera, 5.4.5 azpiatalean adierazi dudana bezala, hainbaten (Bolinger *apud* Fonteyn 2018; Degand eta Fagard *apud* Izutsu eta Izutsu 2013: 222) iritziz lehenengo urratsa aldaketa sintaktikoa da eta, ondoren, aldaketa semantiko-pragmatikoa datorrelako ideia gogoan, gaur egun (187) adibideko egitura (172-177) adibideen azpian dagoela ematen du.

Hipotesi hori onartzeak, hala ere, arazo bi dakartzala eman dut aditzera arestian: bateko, Haegemanek (2014) identifikatutako *anti-locality* delako fenomeno eta, besteko, islapen nagusiko izaera duen *ote*₂ erabilera honetan buru sintaktikora eratorri izana. Lehenik, Haegemanen (2014) banaketarako *anti-locality* delakoa arazo bat izan daitekeen arren, gure oraingo analisirako ez da horrelakoa, hurbilketa neoperformatiboeke gramatika lanetan proposatutako sintagmen banaketa onartuz: *ote*₃-ri dagokion gunea Goi-Hizketa Ekintza Sintagmakoa (aurrerantzean *Goi-HeS*) dela proposatuko nuke (Corren (2015; 2016) terminologiari jarraituz), Behe-Hizketa Ekintza Sintagmaren gaineko gunea hain zuzen; horrek *anti-locality* delakoa saihestuko luke, ez bailuke bere osagarria erakarriko, bere osagarria den sintagmaren osagarria baizik (ikus 197). Bigarrenik, *ote*₃ burua dela proposatzen dut, proposizio osoa erakartzeko propietatea buruek baitute, eta ez islapen nagusiek. Honez gain, tipologikoki, eta euskaraz ere, antzera jokatzen duten osagaien kasuan ez dago buruak direlako inongo zalantzarik, euskarazko *-e* (Lizardi-Ituarte 2019a) edo mandarinerazko *a* (del Gobbo eta beste 2015) partikulak kasu.³⁶ Horiek horrela, honako egitura proposatzen dut *ote*₃-ren erabilera honetarako:

³⁶ Irudi lezakeen moduan, *ote* partikularen bilakabidea ez da koherentea, ematen baitu burua den *ote*₁ islapen nagusiko izaera duen *ote*₂ bihurtu dela eta, ondoren, berau burua den *ote*₃ bilakatu dela. Hala ere, ez dut uste *ote*₁ eta *ote*₂ partikulen artean garapen diakroniko zuzenik dagoenik. Bestela esanda, *ote*₁ ez da *ote*₂-ren jatorria; aitzitik, biek jatorri bera dutela onesten dut, protoaditza zen *bo(C)-te* hain zuzen. Lehenengoa aditz beretik gramatikalizazioaren ondorioz eratortzen da; bigarrena, ordea, perpaus alboratu batetik datorrela proposatzen dut (Monforte 2019a) beste hizkuntza batzuetarako hipotesietatik (Schoonjans 2012; Griffiths 2015; Van

(197)



Labur-zurrean, erabilera honen jokabidea oraingoz sakonago ikertu beharko litzatekeen arren, ez dago zalantzarik erabilera orokorra baztertu behar dela, atal honen hasieran erakutsi dudan bezala. Bestalde, mahaigaineratutako analisi bien arteko lotura diakronikoa badagoela baieztatuko nuke, zein fasetan dagoen aztergaiko erabilera argitzea zaila bada ere. Azkenik, partikularen amaierako posizioa perpaus osoaren ezkereranzko mugidaren bidez azalduko nuke, *ote* mota hori bai [espez, ModS] gunean, bai Goi-HeS-ren buru batean dagoela.³⁷

Bogaert eta Leuschner 2015) abiatuta. Beraz, *ote*₃-ren izaera sintaktikoari dagokionez, berau adberbio (ahul)a den osagai batetik eratorria izango litzateke, XS > X⁰ bilakabidea gauzatuta.

³⁷ Bestalde, proposatzen dut balizko eremu horretan agertzen diren partikulak ez direla perpaus amaieran agertzen, esaldi amaieran baizik (Izutsu eta Izutsu 2013). Izutsu eta Izutsuk (2013) eremu bi bereizten dituzte partikula modalak kokatzeko: aditz jokatuaren ostekoa eta esaldi amaieran; eurek diote japonieraz ez bezala, alemanez eremu bi hauek desberdin daitezkeela, aditz jokatuaren ostean beste osagaiak eta aditz lexikoa agertzen baitira; esate baterako, errepara diezaiogun *ja* partikularen kokapenari hurrengo adibideetan:

- (i) Und dann kommt der Querflügel, *ja*?
eta ondoren etorri ART.NOM zehar-habe P
'Eta gero zehar-habea dator, JA?' (Izutsu eta Izutsu 2013: 229)
- (ii) Er hat *ja* den Mann wohl gesehen heute.
bera.NOM LAG P ART.AK gizon P ikusi.PRTZ gaur
'Berak gaur gizona ikusi du JA WOHL.' (ibidem: 219)

Dena den, autore horiek japonieraz *Esaldi Amaierako Partikulatzat* (ing. *Sentence Final Particles* 'SFP' deritzete) jotzen dituzten osagaiak, e.g. *dakara* ('beraz'), *sikasi* ('baina'), *sosite* ('eta'), gramatika lanetan ezker periferian kokatu ohi diren partikulekin e.g. *ka*, *no*, *deko* (Endo 2018) erkatuz gero, mota bereizikoak direla esango nuke, azkenak funtzionalagoak bide baitira, bai interpretazioaren, bai sintaxiaren aldetik. Are gehiago, beste hizkuntza batzuetan dauden esaldi amaierako partikulen ordainei erreparatuz gero, partikulatzat jo ohi ez diren osagai desberdinak direla sumatzen da:

7.7 Kapituluaren laburpena

Kapitulu honetan zehar ekialdeko hizkeretan *ote*-k dituen jokabide eta erabilera sintaktiko ez-kanonikoak eduki ditut aztergai. Erabilera desberdinak deskribatu eta azalean hiru jokabide daudela ondorioztatu ondoren, hasierako galdera bati ekin diot, ea partikula modalak, kasu honetan ekialdeko *ote* ezohikoa, burutzat ala islapen nagusitzat jo behar diren alegia. Lehenagoko 4.4 azpiataletan buru izaeraren aldeko ebidentzia ekarri dudan arren, ekialdeko *ote*-k ez die propietate horiei jarraitzen; beraz, argudio sintaktikoetan eta fonologiko-prosodikoetan oinarrituz, ekialdeko hizkeretan topatzen den *ote* ez-kanonikoak islapen nagusiko izaera duela defendatu dut, esaldi amaierako *ote*₃ salbu, beronek *ote*₂-tik abiatuta buru izaera bereganatu baitu. Auzi hori argituta, bere kokapen sintaktikoa zehaztu dut gainerako osagaiekin duen banaketa eta DenbS-ren elipsiaren osteko jokabidea kontuan hartuz. Halaber, partikula honen eta FokS-ren arteko mendekotasuna eta sentiberatasuna eman ditut aditzera azken hori lexikalizatuta ez badago, ezin baita *ote* ez-kanoniko hori erabili; antzeko egoera sumatu dute beste hizkuntza batzuetan (Bayer eta Obenauer 2011; Egg eta Mursell 2017).

Lehenengo erabilera jorratuta, bigarrenari begiratu diot, i.e. ‘*nz*-hitza *ote*’ konbinaziodun perpausei. Kasu horretan ere datu sintaktikoak eta fonologiko-prosodikoak hartu ditut aintzat. Lehenengoei dagokienez, honakoak nabarmenduko nituzke: a) ezin da *nz*-hitzaren eta aditzaren artean ezer tartekatu, b) *nz*-hitza eta *ote* elkarrekin mugitzen dira, are gehiago, elkarrekin sortzen dira. Propietate fonologiko-prosodikoen artean hauek dira

-
- (iii) It’s the easiest way, *innit*?
bera.da ART errazen modu ezta
‘Modurik errazena da, ezta?’ (Izutsu eta Izutsu 2013: 231)
 - (iv) I didn’t do it *but*.
ni LAG.ez egin bera baina
‘Ez dut nik egin baina.’ (ibidem: 232)

Euskarari begira ere bereizketa hau dagoela aldarrikatuko nuke: alde batetik, *-a* partikula, amaieran ager daitekeen arren, perpaus mailakoa da, i.e. ezker periferiaren barruan kokatzen da, eta, beste alde batetik, esaldi amaieran agertzen diren osagaiak ere lekukotzen dira euskaraz, kasurako:

- (v) Bazatoz, *ala*?
- (vi) Zuk ulertu duzu *baina*?
- (vii) Ez dakizu ezer, *ez(ta)*?
- (viii) (%) Etorri da Gillen *a*? [Aitor Lizardi-Ituarte a.k.]

Lehenengo bi adibideetan esaldi amaiera gunean azaltzen dira *ala* eta *baina*, alemanez eta japonieraz ere horietaz baliatzen ei dira (Izutsu eta Izutsu 2013). Bestalde, interes handikoa da azken adibidea, bertan Mutrikuko hizkeran erabiltzen den *a* baitago (Aitor Lizardi-Ituarte a.k.); bera, ekialdeko *-a* ez bezala, beregaina da eta aditz jokatuaren ondotik ez ezik, proposizioaren osagai guztien ondoren ere agertzen da, i.e. esaldi amaieran. Euskarazko datuek eremu bien berri ematen digute. Beraz, ekialdeko partikua KonpS eremuan eta Mutrikuko HeS eremuan daudela proposatzen dut; dena den, behar bezala ikertu beharko litzateke gai hau.

azpimarratzekoak: a) partikulak ez du klitikoek duten patroia fonologiko-prosodikorik, eta b) *nz*-hitzekin batera unitate prosodikoa osatzen du enfasia erakarrita. Ebidentzia horietatik abiatuta, *nz*-hitzek eta *ote*-k osagai bakarra osatzen dutela defendatu dut. Horrelako egitura beste hizkuntza batzuetan deskribatu da, hala nola alemanez (Abraham 1991; Bayer eta Trotzke 2015; Trotzke eta Turco 2015), txolonera (Alexander-Bakkerus 2011), italieraz (Coniglio 2008; Hinterhölzl eta Munaro 2015), japonieraz (Endo 2018), tlingiteraz (Hagstrom 1998), sinhala hizkuntzan (Cable 2008) eta hainbat hizkuntza eslabiarretan (Chernova 2015). Jarraian egitura horren sintaxia eta bere eratorpena aztertu ditut, honako analisia proposatuta: partikulak *nz*-hitza hartzen du osagarri gramatika lanetan (Bayer eta Trotzke 2015; Trotzke eta Turco 2015) *Partikula (txiki) Sintagma* terminoaren bidez adierazia izan den sintagma osatuta; ondoren, sintagma hori *nz*-hitzari sortzez dagokion gunean gehitzen da; hortik *nz*-hitz arrunt batek edukiko lukeen eratorpen ohikoa du, FokS helmuga. Azkenik, '*nz*-hitza *ote*' konbinazioa diakroniatik ikertu dut; datuak urriak badira ere, honako hipotesiaren alde egiten dute: ekialdeko *ote* foku baten ostean ager daiteke gainerako osagaiak isilduta, *nz*-hitzen maiztasuna horrelako testuinguruetan beste osagaiena baino handiagoa denez, hitzunek *nz*-hitzen eta partikularen ondokotasuna berrinterpretatu zuten; hortik osagai bakartzat joko zuten eta egun ipar-ekialdean erabiltzen den '*nz*-hitza *ote* aditza' egitura sortu bide zen.

Ekialdeko erabilera bereizgarriak deskribatzen amaitzeko, esaldi amaierako *ote* eduki dut hizpide. Erabilera honek eremu geografiko murriztagoa du eta bere lekukotasunak literaturakoak dira gehien bat. Lagin mugak direla eta, *ote*-ren jokabide mota horri lehenengo hurbilketa besterik ezin izan diot eskaini. Beste kasuetan ez bezala, horretan *ote* beti azaltzen da perpaus amaieran, aditz lexikoaren ostean hain zuzen. Beraz, hasiera batean pentsa liteke *ote*-ren mota horrek ez duela 7.3.4 azpiatalean aztertutako *ote*₂-rako proposatutako gune bera okupatzen, nekez azal bailiteke zer eragiketa sintaktikok mugitzen duen aditz lexikoa eta gainerako osagaiak aurrera eta nora zehatz-mehatz. Arazoak kontuan hartuz, analisi bi plazaratu ditut: bateko, pragmatikoki desberdina delako balizko hipotesiatik abiatuta, Indar Sintagmaren ginetiko sintagma bat okupa lezake eta, beste hizkuntza batzuetako perpaus amaierako partikulen kasuetan bezala, perpaus osoa espezifikatzaile gunera erakarriko luke partikulak. Besteko, ekialdeko *ote*-k dituen erabilerei erreparatuta, fokuen osteko *ote* berranalizatua izan zen eta esaldi amaierako partikulatzen har zezaketen hitzunek, perpausak foku gunea okupatuko balu bezala; kasu horretan partikulak 7.3.4 azpiatalean esleitutako kokapen bera edukiko luke eta PolS osoa mugituko litzateke FokS-ra, *anti-locality* delakoaren murriztapena saihestuta Analisi bien artean bigarrenak egitura sinpleagoaren alde

egiten badu ere, partikulak ez bailuke hirugarren kokapen bereizi bat edukiko, egia da ez dagoela lehenengo edo bigarren azterbidea baztertzeko nahiko ebidentziarik. Hartara, hipotesi biak balizkotzat plazaratzen ditut, etorkizunean erabilera horren datu gehiago erdietsi arte.

Honaino, beraz, *ote* partikulak ekialdeko hizkeretan dituen jokabide sintaktiko ez-kanonikoak eta euren balizko azterbideak.

8 Ondorioak

Hainbat dira tesi honen ekarpenak; hori dela eta, talde bitan banatuko ditut kapitulu honetan nabarmendu nahi ditudan ondorio nagusiak, hobeto ulertuko direlakoan. Beraz, alde batetik, euskalaritzan partikula modalen alorraren jakintza handituko dutenak bilduko ditut; eta, beste alde batetik, tipologikoki eta partikula modalen, eta eurekin lotutako fenomenoen, ikerketa oro har aurreratzen lagun dezaketenak ekarriko ditut mahai gainera.

8.1 Euskalaritzarako ekarpena

Tesi honen hasieran (§1.1) adierazi dudan bezala, partikula modalek ez dute arreta handirik erakarri euskalaritzan; Zubeldiaren (2010) tesiaz gain, ez dago gai honen inguruko lan monografiko luzerik. Tesi honek, beraz, euskarazko partikula modalen jokabidea argitzen lagundu duelakoan nago; jarraian, euskalaritzari ekarri dizkion hainbat aurrerapen nabarmenduko ditut.

Lehenengo eta behin, hiru partikula bakarrik aztertu ditudan arren, Euskaltzaindiak (1987) inflexioaren inguruko osagaitzat jotzen dituen partikula motak ordezkatzan dituzte: Konplementatzaile Sintagma eremuko *-a* galdera partikula, Denbora Sintagma eremuko *al* galdera partikula eta Konplementatzaile Sintagma eremuko nahiz Denbora Sintagma eremuko *ote* partikula modala. Hartara, eremu sintaktiko desberdinetakoak ez ezik, izaera sintaktiko eta ekarpen/funtzio interpretatibo desberdinetakoak ere deskribatuak izan dira. Egia esan, tesi honetan partikula modalen sintaxia landu da: partikula kanonikoen kasuan partekatzen dituzten ezaugarriez gain, euren arteko desberdintasunak ere plazaratu ditut, hala nola: a) partikula batzuk bai sintaktikoki bai interpretatiboki bateragarriak dira (*-a* eta *ote*);

b) Denbora Sintagma eremuaren elipsiak ez du *-a* partikularen erabilera galarazten; c) *ote* partikula agertzen den testuinguru batzuetan ezeztapen espletiboa delako fenomeno gaiztatu da; d) galdera partikulek ez dute *origo shift* delako fenomenorik; *ote* partikulak, aldiz, bai. Bestalde, partikula horiek jokabide kanonikoan dituzten funtzio interpretatiboei dagokienez honako bereizketa azpimarratuko nuke: batetik, hiztunaren eta entzulearen arteko harremana kudeatzen duten partikula performatibo bi ditugu, i.e. *-a* eta *al*; bestetik, hiztunak proposizioaren gaineko ikuspuntua adierazten duen partikula modala (edota ebaluatzaile-ebidentzial-epistemikoen multzoaren barruan sartzen den partikula epistemikoa) dago, *ote* alegia. Partikula performatiboen aldetik, gramatika lanetan antzeko helburua eman dieten arren, funtzio bereziak esleitu dizkiet: ekialdeko partikulak indar ilokutiboa sendotzen du (cf. Li 2006; Bayer 2012; Hack 2014; Haegmeann 2014; Hinterhölz eta Munaro 2015; Theiler 2017; 2019a); erdialdeko partikulak erantzun jakin baten aldeko bideratzea saihesten du eta balizko erantzunak zabalik uzten ditu:

- (1) Errak eta, erran zion Martinek, hor ez zena "Basa-Jaunaren Harpea" erraiten zakotena? (Etxamendi 2011b: 58)
- (2) Bekarik eskatuko *al* dezu?

Bestalde, *ote* partikulari bi erabilera identifikatu dizkiot: galderetan konjekturaltasuna eta erretorikotasuna markatzeaz gain, mendeko testuinguru ez-interrogatiboetan hiztunak ez duela proposizioarekin guztiz bat egiten adierazten du. Esaterako:

- (3) Zer *ote* ari da haur hori?
- (4) (...) da zeoxe mamiya *ote*'aken iruitze'a. (Pikabea 2005: 196)

Hauetz gain, gaur egun murriztagoa den 'ote den ba' esamoldea ere eduki dut aztergai, erretorikotasunarekin zerikusia duela ondorioztatuta:

- (5) - Joseba mutil ona da. *-Ete* dan ba! (Etxaburu 1972: 105)

Propietate sintaktiko eta interpretatibo hauek tradizioan partikula modaltzat hartu izan diren horien artean talde bi proposatzera bultzatu naute. Arestian esan bezala, partikulak performatiboak edo ebaluatzaile-ebidentzial-epistemikoak (labur esanda, partikula modalak) izan daitezke. Honen aldeko ebidentzia argia partikulen ekarpenean igartzen da:

- (6) Min hartu *duzia*?
- (7) Min hartu *al* *dezu*?
- (8) Lagunekin joan *ote* da?

Ekialdeko galdera partikulak polaritatezko galdera batean hiztunak erantzuna jaso nahi duela markatzen du elkarrizketak aurrera jarrai dezan informazio hori behar baitu. Erdialdeko partikularen bidez hiztunak ez du bai-ezko itaunek sorraraz ditzaketan erantzun jakin bat aukeratzeko indarririk egiten, balizko erantzun guztiak maila berean daudela aurkeztuta, testuinguruak edo aurrezagutzak bideratzen duen arren. Azkenik, *ote* partikulak hiztunak proposizioaren gainean barne hausnarketa egiten duela adierazten du, galderetan konjekturaltasun interpretazioa lortuta.

Halaber, sintaxiak ere egiten du taldekatze honen alde, partikulek jokabide bereizia baitute a) *origo shif* delako fenomenoari dagokionez (§4.3.5); b) indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan (§6.2.2 eta §6.5); eta c) AS/aS-ren elipsoidun testuinguruetan (§6.2.7):


- (9) a. Geixko esan *ote* *dezun* iduritzen zait. (Altzaga 1994: 101)
b. Norat hartuko *ote* du? (Etxamendi 2010: 29)
- (10) Egia *ote* dakien beldurrak kezkatzen nau.
- (11) - Itziarrek etxea erosi du.
-*Ete* dauen ba!

Interesgarriro banaketa sintaktiko eta interpretatibo hori bat dator gramatikalizazio mailekin. Alegia, *ote* partikula protoaditz batetik eratorria dela proposatu du Lakarrak (2019) berriki. Era berean, tesi honetan (eta sakonago Monforte (2019b) lanean) *a(ha)l* partikula *ahal* aditz nagusitik eta *al* galdera partikula *a(ha)l* epistemikotik datozela esan dut; beraz, *al* galdera partikula *ote* baino gramatikalizatuago dago, lehenengoa funtzionalagoa eta ekarpen interpretatiborik gabekoa izatea azaltzen duena. Bestalde, *ahal* aditz modalerako eta *a(ha)l* partikula epistemikorako frogatu dudan heinean, gramatikalizazioaren ondorioz osagai berria egitura sintaktikoan gorago kokatzen da, Roberts eta Roussouren (2003) ildotik. Hartara, *al* galdera partikulak *a(ha)l* epistemikoak baino goragoko gune bat okupatu behar du; *a(ha)l* eta *ote* partikulek, ordea, kokapen bera dute, biak aditzetatik eratorriak direnez, gramatikalizazio maila berdina baitute eta sintaktikoki ez baitira bateragarriak. Labur esanda, *al* partikula gramatikalizatuago dago, partikula modal bat (zentzu hertsian) baitu jatorri, eta, ondorioz, funtzionalagoa eta ekarpen interpretatiborik gabekoa da *a(ha)l* eta *ote*

partikulen aldean; horiek interpretazio argia ez badute ere (partikula modalen kasuan ohikoa denez), hiztunaren jarrerarekin daude lotuta eta gramatikalizazio maila berean daude, biak baita aditzetatik.


Gauzak horrela, analisi sintaktikora jo dut eta hiru gune bereizi ditut. Hasteko, ekialdeko galdera partikulari Foku Sintagmaren eta Jokatutasun Sintagmaren arteko Kanpo-Partikula Sintagma esleitu diot bere perpaus mailako banaketa eta ezaugarri sintaktikoetan oinarrituta:

(12)



Honez gain, erdialdeko galdera partikula eta *ote* partikula modala erdiko eremuan (edo, bestela esanda, Denbora Sintagma eremuan) kokatu ditut euskalaritzan hainbatek (Elordieta 1997; Elordieta 2001) proposatu duten bezala. Alabaina, eremu horretan partikulak biltzen dituen sintagma bi daudela argudiatu dut, ebidentzia sintaktiko argirik ez badut ere, ekarpen interpretatibo motek eta gramatikalizazio mailek horren alde egiten baitute: Kanpo-Partikula Sintagma eta Barne-Partikula Sintagma. Lehenengoak hiztunaren eta entzulearen arteko harremana eta elkarrizketaren loturak kudeatzen dituen osagaiekin du lotura, hots *al* galdera partikularekin; bigarrenak, ordea, hiztunaren jarrera eta balio ebaluatzaile, ebidentzial eta epistemikoak txertatzen ditu proposizioan, *ote* partikula epistemikoak alegia. Hona hemen euren arteko egitura sintaktikoan duten banaketa hau hurrengo diagraman islatua:

(13)



Oraindaino partikula horiek duten jokabide kanonikoa jorratu dut; halarik ere, tesi honen ekarpen nabarmenetako bat *ote* partikularen jokabide ez-kanonikoaren berri emateaz gain, berau ikertzea izan da. Ekialdeko hizkeretan *ote* partikulak ez dio jokabide kanonikoari jarraitzen, Etxeparek (2010) eta Etxepare eta Uriak (2016) *omen* partikularako proposatu duten bezala. Honakoak dira ekialdeko hizkeretako erabilera ezohiko horiek:

(14) Ezpeitakit nik (...) ala gehiao sosen irraazteko jinak tzien *ote* Frantziaa. (Camino 2004: 452)


(15) Nork *ote* jan züan? (Casenave-Harigile 1997)

(16) Ez ahal duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134)

Hiru erabilera bereizi desberdindu ditut ekialdeko mikroaldakortasunean: a) adberbio moduko izaera (cf. 14); b) *nz*-hitz batekin batera sortzen duen egitura (cf. 15); c) esaldi amaierako joskera (cf. 16). Lehenengoari dagokionez, honako ekarpenak azpimarratu nahiko nituzke: hasteko, datu sintaktiko eta fonologiko-prosodikoetatik abiatuta frogatu dut partikula honek ez duela buru izaera, islapen nagusiko izaera baizik. Honez gain, bere banaketa sintaktikoa eta DenbS-ren elipsiaren ondorioz duen jokabidea irizpidetzat hartuta, Konplementatzaile Sintagma eremuan gune bat okupatzen duela ondorioztatu dut, Foku Sintagmaren eta Jokatusun Sintagmaren arteko Rizziren (2004) Modifikatzaile


Sintagmaren espezifikatzaile gunea hain zuzen. Izaera eta kokagune bereizi hauek partikula kanonikoaren ezaugarri baten berri ematen digute, *ote* Modifikatzaile Sintagmaren espezifikatzailean kokatzen duen islapen nagusia denean, *a(ha)l* partikularen batera ager baitaiteke; bestela esanda, jokabide kanonikoan partikula horien artean dagoen bateraezintasuna sintaxiak eragiten du eta ez semantika-pragmatikak.

(17)



Horrez gain, *ote* esaldi amaierako partikula ere izan daitekeela erakutsi dut. Kasu honetan argudiatu dut aditz jokatuaren mugida gauzatu ala ez, *ote* beti amaiera absolutuan azaltzen dela eta, halaber, beraren interpretazioa ez dela beste *ote* motena, kokagune kanonikoan ipiniz gero, ez baita pragmatikoki onargarria. Erabilera honen eremu geografikoa are murriztagoa da, ekialde muturreko hizkeretakoa alegia, eta hein handi batean lan literarioetatik eduki dut haren berri. Horregatik, bere analisi sintaktikoa zuhur jorratu dut. Ekialdean lekukotzen den islapen nagusiko izaeradun erabilera abiatuta, hiztunek osagaien mugiden ondorioz amaieran agertzen den *ote* hori berraztertu eta perpuas amaierako partikula bezala ulertu dutela proposatu dut. Hortik abiatuta eta interpretazioaren aldetik hiztunaren eta entzulearen arteko harremanari eragiten diola aintzat hartuta, Konplementatzaile Sintagmaren gainean dagoen Hizketa Ekintza Sintagmaren eremuko Goi-Partikula Sintagmaren buruan kokatu dut, Corren (2015; 2016) analisiari jarraituz; buru honek proposizio osoa erakartzen du Del Gobbo eta besteren (2015) ildotik perpaus mailako hitz-ordena zuzena lortuta. Alegia:

(18)



Azkenik, partikula modalekin zerikusi ez duten baina partikula modalen azterketak azaleratu dituen kontu bi aipatu nahiko nituzke. Bateko, Artiagoitia eta Elordietak (2016) *-(e)n* menderagailua duten adierazpen-predikatuak ekialdeko hizkerei lotu dizkiete literaturari jarraituz (Lafitte 1944: 448; Euskaltzaindia 1999: 76; Camino 2004: 477); hala ere, tesi honek agerian utzi du *iruditu* bezalako predikatuak ekialdeko hizkeretan ez ezik, erdialde eta mendebaldekoetan ere har dezaketela *-(e)n* menderagailua, mendeko proposizioarekin ez dela guztiz bat egiten adierazteko. Esaterako:

(19) Samar bat irintxi *ote* dian iruditu zatan. (Barandiaran 1972: 26)

Besteko, ipar-ekialdeko hizkeretan mendeko *nz*-galderetan aditza eta *nz*-hitza ez direla elkarren ondoan egon behar aditzera eman dut; dena den, horrelako kasuak ez nituzke *nz-in situ* estrategiarekin lotuko (cf. Duguine eta Irurtzun 2014), *zer* bezalako *nz*-hitza subjektu ergatibodunaren aurretik azal daiteke eta:

(20) Ez dakit zer *ote* Macronek erran dakon.

Agian Etxeparek (1997) bereizten duen foku kontrastibo¹ motarekin eduki lezake zerikusia; alabaina, honek azterketa sakonagoa mereziko luke.

Honaino, beraz, tesi honek euskaralaritzari eta euskal partikula modalen analisiari egin dizkien ekarpenak. Ikus daitekeenez, mota askotakoak dira, i.e. sintaktikoak, gramatikalizazioaren ingurukoak eta interpretatiboak; gainera, euskararen mikroaldakortasunak azterketa aberastu du hasiera batean espero ez nituen erabilerak azaleratuta eta gai honen inguruko eztabaida zabaldua. Izan ere, berorrek euskalaritzari ez ezik, partikula modalen inguruko analisei oro har ere egin die tesi honek ekarpen nabarmena. Hurrengo atalean (§8.2) horri erreparatuko diot, i.e. zertan laguntzen dion tesi honek partikula modalen ikergaiari beste hizkuntza batzuetan.

8.2 Tipologiarako ekarpena

Partikula modalak ez dira euskararen berezko ezaugarria, jakina; beraz, euren azterketak euskararen mailan nahiz hizkuntzarteko mailan daukagun jakintza handitu beharko luke. Aurreko atalean (§8.1) *-a*, *al* eta *ote* partikulak ikertzeak euskalaritzari zer aurrerapen ekarri dion eduki dut hizpide; oraingoan orokorrean partikula modalen alorra argitzen eta zehazten zertan lagundu duen bilduko dut. Bost dira nabarmenduko nituzkeen ekarpenak: a) partikulen izaera sintaktikoaren gaineko eztabaida; b) euren kokapen sintaktikoa; c) indar ilokutiboaren auzia; d) partikulek proposizioari zelan eragiten dioten; e) partikula modalak talde bitan bereiz daitezkeela; f) direlako galdera partikulek ez dituzte sintaktikoki galderak markatu ohi; eta g) euren gramatikalizazioa.

Lehenengoz, 3.3.2 eta 3.3.3 azpiataletan partikula modalen izaera sintaktikoaz egon den eztabaida plazaratu dut; ondoren (§4.4 eta §7.3.3) euskarazko partikulak aztertu ditut auzi horri begira, partikula kanonikoak buruak eta ez-kanonikoak islapen nagusiak direla ondorioztatuta. Euskarazko partikulen izaera testatzeko, tradizionalki gramatika lanetan hipotesi bien alde baliatu diren ezaugarriak erabili ditut, baita euskarazkoen propietateak ere. Euskaraz partikula berak estatus sintaktiko biak edukitzeak izaera bakoitzari xehetasunak gehi diezazkioke; beraz, jarraian bilduko ditut ezaugarri nabarmenak. Honakoak dira buru izaera duten partikulen propietate azpimarragarriak:

¹ Etxeparek (1997) foku kontrastibo eta enfatiboa desberdintzen ditu; Irurtzunen (2016) arabera, lehenengoak foku miratiboari egingo lioke erreferentzia.

- a. Partikulek aditz jokatuarekin bat egiten dute; hartara, testuinguru jokatueta mugatuta daude.
- b. Aditz jokatu ezker periferiara igotzen bada, partikulak ere mugitzen dira.
- c. Aditz jokatuarekin batera hitz prosodikoa osatzen dute; euren prosodia ahula dela eta, klitiko moduan jokatzen dute.
- d. Azentuaren kokapenaren arabera silaba bi dituzten partikulek aferesia jasan dezakete.
- e. Ez dira hitz beregainak; ezin dira eurak bakarrik erabili edo galdera bati ezin zaio partikula bat erantzun gisa eman.
- f. Historikoki aditz lexikoekin daude lotuta; izan ere, beraien kokagunea okupatzen dute, aditz jokatuaren aurrekoa alegia.

Islapen nagusiko estatusa duen partikulari dagokionez, honako ezaugarriak azpimarratuko nituzke:

- a. Partikulak beregainak dira, ez baitzaio beste osagaien bati atxikitzen.
- b. Aditz jokatu ezker periferiara igotzen bada, partikulak ez du mugidarik galarazten, ezta aditzarekin batera mugitu ere.
- c. Perpaus mailako banaketari dagokionez, murriztapenak dituzte.
- d. Hitz beregainak diren aldetik, patroï prosodiko berezkoa dute.
- e. Forma fonologikoaren aldetik, ez dute lenitiorik jasaten.
- f. Buruek eratu ezin dituzten egiturak osatzen dituzte, hala nola 'nz-hitza partikula'.
- g. Horrelako partikulak XS estatusa duten osagaietatik eratorriak dira, hots, adberbioak, adjektiboak edo predikatu mentalak dituzten perpaus alboratuetatik.

Izaera sintaktikoez gain, partikulen kokagune sintaktikoen berri ere ematen digu euskarazko partikula modalak ikertzeak. Bateko, gramatika lanetan partikulen artean proposatzen den hierarkia euskarazko partikula modalen artean ere azaltzen da, egitura sintaktikoan partikula performatiboak partikula ebaluatzaile, ebidentzial eta epistemikoak baino gorago kokatzen dira alegia. Besteko, *-a* eta *al* galdera partikulek eta mikroaldakortasun aberatsari esker diren *ote* motek partikulak eremu desberdinetan azal daitezkeela frogatzen dute; hots, Denbora Sintagma eremuan, Konplementetzaile Sintagma eremuan eta Hizketa Ekintza Sintagma eremuan ere okupatzen dutela partikulek gune bat.

Bestalde, partikula modalen gaineko lanetan landu den beste gai batek indar ilokutiboarekin du zerikusia. Partikulak perpaus nagusietan eta indar ilokutiboa duten

mendeko testuinguruetan bakarrik ager daitezkeela esan ohi da (Munaro eta Poletto 2002; Bayer eta Obenauer 2011; Coniglio eta Zegrean 2012; Struckmeier 2014; Egg eta Mursell 2017; Scherf 2017 ; Tan eta Mursell 2018), partikulek perpausaren indarra modifikatzen dutenez, bere beharra baitute. Alabaina, tesi honetan argudiatu dut *ote* partikulak ez diola propietate horri jarraitzen eta indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan balia daitekeela; Zubeldiak (2010) ere badiosku *omen* partikula ebidentzialak ez duela indar ilokutiboa modifikatzen. Dena den, *al* partikulak murriztapen hori duela frogatu dut. Horiek horrela, partikula guztietarako onartu den propietatea berrikusi beharko litzateke (cf. Tan eta Mursell 2018).

Halaber, indar ilokutiboaren gaiaz bera modifikatzeko eragiketa sintaktikoa jorratu dut. Jarraian dakart berriro 6.5 atalean proposatutakoa, euskarari egokia zaion analisia partikula modalak buru dituzten hizkuntzei ere argigarria izan dakiekeelakoan. Euskaraz Indar eta Jokatasun buruek perpaus mota komunizatzen dutela eta partikulak Denbora buruarekin batera Jokatasun burura igotzen direla (bertan aditz jokatu osa dadin) gogoan edukita, partikulak Jokatasun burua modifikatuz eragiten dio indar ilokutiboari. Beraz, Forma Logikoan partikula Indar burura mugitzen dela proposatu gabe, Jokatasun burura igotzean bertan proposizioaren modalitatea modifikatuz eta horrek [perpaus mota :] tasunari eraginez egiten dio indar ilokutiboari bere ekarpena.

Bestalde, gramatika lanetan multzo berean partikula modal etiketapean taldekatu izan diren osagaien artean multzo bi bereiz daitezke: partikula performatiboak (edo agian *diskurtsibo* termino egokiagoa da, nire ustez) eta partikula ebaluatzaile-ebidentzial-epistemikoak (horrelako partikuletarako *modal* etiketa zuzenagoa dela esango nuke). Lehenengoen hiztunaren eta entzulearen arteko harremana eta elkarrizketaren loturak markatzen dituzte; bigarrenek, ordea, hiztunaren jarrera eta balio ebaluatzaile, ebidentzial eta epistemikoak adierazten dituzte. Talde bi horiek bai interpretazioaren aldetik, bai propietate sintaktikoen aldetik ere justifikatuta daude; esate baterako, batzuk indar ilokutiborik gabeko testuinguruetan erabili ahal izateak berak justifikatzen du talde bi bereiztea.

Horrez gain, gramatika lanetan galdera partikulak perpaus mota galdera gisa markatzeko baliabide sintaktikotzat hartuak izan diren arren, lan honetan erakutsi dut, euren testuinguru sintaktikoak eta pragmatikoak arakatzuz gero, azaleratzen dela ez dutela identifikatu zaien funtzio hori betetzen. Beraz, tipologikoki esleitu ohi zaien gune sintaktikoaren aldeko argudioa (i.e. perpaus mota markatzen dutelakoa) indargabetuta

geratzen da. Euren erabileren analisiak partikulen talde bietako baten barruan kokatzen lagunduko luke, i.e. partikula performatiboen edo modalen barruan.

Azkenik, tesi honek partikulen garapenaren alorrari ere egin dio ekarpena. Erdialdeko galdera partikulari beren-beregi erreparatuz gero, berak gramatikalizazio bilakabide bi jasan dituela argudiatu dut. Alde batetik, *al* galdera partikula *a(ha)l* partikula epistemikotik eratorria da eta, beste alde batetik, *a(ha)l* partikula epistemikoak *ahal* aditz modala du jatorri. Lehenengoa bat dator beste hizkuntza batzuetan gauzatutako aldaketarekin; horrek erakusten du galdera partikulak ez direla hautakarietatik soilik eratorriak, hainbatek (ikus Bailey 2013) aldarrikatu duten bezala. Beste alde batetik, hizkuntza germaniar eta erromantzeetako partikula modalei identifikatu zaien jatorria adberbiala izan ohi da, hainbat kasutan adjektibala eta juntagailuzkoa ere izan daiteke. Euskarak erakusten du aditzetatik ere erator daitezkeela. Gainera, bide bi erakusten ditu: a) aditz bat bere horretan gramatikalizatuz, aditz lexikoen kokapen kanonikoa mantenduta (aditz jokatuaren aurretik) baina osagai gramatikalizatuen jokabidea hartuta (e.g. ezaugarri morfonologikoak ahulduta, aditz jokatuarekin bat egiteak eta ezezko testuinguruen modukoetan elkarrekin mugitzeak frogatzen dutenez); edo b) perpaus alboratu batean dagoen aditza gramatikalizatuz, egitura sintaktikoan gero eta txertatuago egonda (e.g. perpausaren barruko gunean berranalizatuta) eta ezaugarri fonologiko, interpretatibo, morfologiko eta sintaktikoak murriztuta (e.g. komunztadura markak galduta).

Labur esanda, tesi honetan zehar erakutsi dut (edo horrela egin izana espero dut) euskarazko partikula modalak aztertzeak hizkuntza jakin baten gaineko ezagutza zabaltzeko ez ezik, hitz kategoria horrekin lotutako tipologia azaltzen diren ikergaiak eztabaidatzeko, lantzeko eta, horrenbestez, aztergaiaren alorra aurreratzeko ere balio duela.

9 Conclusions

This dissertation makes several contributions to the field of modal particles; therefore, I will divide them into two groups in this chapter, so that they can be appreciated better: firstly, I will introduce those contributions which have increased our knowledge of modal particles in Basque linguistics; secondly, I will present those which improve our overall understanding of modal particles and phenomena related to them from a typological perspective.

9.1 Contribution to Basque linguistics

As I have stated at the beginning of this dissertation (§1.1), modal particles have not received much attention in Basque linguistics; there is no extensive monographic work on this topic, apart from Zubeldia's (2010) dissertation. Hence, this dissertation has undoubtedly helped attain a detailed description of the behaviour of Basque modal particles; below, I will highlight the improvements in the understanding of this field for Basque linguistics.

To start with, although I have looked into only three particles, they represent the kind of particles included by Euskaltzaindia (1987) under the term 'constituents around the inflection': the question particle *-a* which occurs in the CP domain, the question particle *al* which appears in the TP domain and the modal particle *ote* occurring in both the TP domain and the CP domain. Thus, I have examined not only particles in separate positions, but also particles with distinguished syntactic statuses. Since the main aspect of modal particles dealt with in this dissertation is their syntax, I have focused on those properties which modal particles in their canonical pattern share and on those which distinguish them from each other; in short: a) contrary to what has been claimed in Basque linguistics (Euskaltzaindia

1987; Mujika 1988), more than one particle can appear in the same sentence; this is the case of *-a* and *ote*, whose co-occurrence shows that they are syntactically and pragmatically compatible; b) the ellipsis of TP does not block the occurrence of the particle *-a* and the non-canonical *ote*, unlike the particles in TP; c) the particle *ote* shows a behaviour known as negative expletive in some contexts; and d) the phenomenon named *origo shift* arises only in contexts containing the particle *ote*, but not in those containing the question particles.

Furthermore, I have looked into the interpretative function these particles have in their canonical behaviour. I emphasise the following distinction: on the one hand, two particles should be considered as performative particles, viz. *-a* and *al*, since they mark the relation between the speaker and the addressee regarding the utterance; on the other hand, the third particle, the epistemic *ote*, is closer to those modal particles conveying evaluation, evidentiality and epistemicity, i.e. the point of view or attitude of the speaker towards the proposition. Concerning the question particles, although it has been claimed that they perform the same function (i.e. to mark the clause as a polar question), I have assigned them two separate functions: the eastern particle *-a* reinforces the illocutive force (cf. Li 2006; Bayer 2012; Hack 2014; Haegeman 2014; Hinterhölzl & Munaro 2015; Theiler 2017); the central particle *al* avoids bias by not obliging addressees to commit themselves with the speaker's bias and presents the possible answers to a question as equals.

- (1) Errak (...), hor ez zena "Basa-Jaunaren Harpea" erraiten zakotena?
tell.AUX there not was.PART wild-master.GEN cave.ABS say.IPFV AUX.C.ABS
'Tell me, is that one the cave known as 'the wild master's cave'? (Etxamendi 2011: 58)
- (2) Bekarik eskatuko al dezu?
scholarship.PRTT ask-for.FUT PART AUX
'Will you ask for a scholarship?'

As for the particle *ote*, I have identified two uses: besides being conjectural and rhetorical in questions, it also signals that speakers do not commit themselves to the proposition in non-interrogative embedded contexts. For instance:

- (3) Non utzi ote dut egunkaria?
where leave PART AUX newspaper.ABS
'Where did I leave the newspaper (I'm wondering)'

- (4) (...) da zeoxe mamiya ote aken iruitze a.
 and some substance.ABS PART have.C seem AUX
 (Breaking something by using a little stone) and it seems like there may be some kind
 of substance. (Pikabea 2005: 196)

In addition to these uses, I have examined a third one which is less known nowadays: the expression ‘*ote den ba*’ as in (5) and concluded that it is related to the rhetorical reading *ote* can show.

- (5) - Joseba mutil ona da. -Ete dan ba!
 Joseba boy good.ABS is PART is.C PART
 ‘-Joseba is a good guy. - Indeed\ Obviously he is!’ (Etxaburu 1972: 105)

The aforementioned syntactic and interpretative properties have led me to differentiate two types within modal particles, as they are traditionally called. As stated above, these particles can be classified as performative particles (or I would also propose to refer to them as *discourse particles*) and evaluative-evidential-epistemic particles (the latter can be shortened as *modal particles*). The distinct interpretation of these particles reinforces this idea:

- (6) Min hartu duzia?
 pain take AUX.PART
 ‘Did you hurt yourself?’
- (7) Min hartu *al* dezu?
 pain take PART AUX
 ‘Did you hurt yourself?’
- (8) Lagunekin joan ote da?
 friend.COM go PART AUX
 ‘Did s/he go with her/his friends (I’m wondering)?’

First, the eastern question particle marks that the speaker needs an answer to the question uttered in order to proceed with the conversation. Second, speakers use the central question particle to avoid bias towards a specific answer and, thus, all possible answers are presented as equals, although context or previous knowledge may lead to one. Finally, the particle *ote*

indicates the speaker's mental process about the proposition; this particle and its contribution in interrogative contexts turn a *bona fide* question into a conjectural one.

Syntactic evidence also suggests that these three particles should be divided in two groups, as a) their behaviour regarding the phenomenon known as *origo shift* (§4.3.5), b) their embeddability in contexts lacking illocutionary force (§6.2.2 eta §6.5) and c) their ability to occur after the ellipsis of VP/vP (§6.2.7) prove:


- (9) a. Geixko esan *ote* dezun iduritzen zait.
 wrong say PART AUX.C seem AUX
 'It seems to me that you may have said it wrong.' (Altzaga 1994: 101)
- b. Norat hartuko *ote* du?
 where.ADL take.FUT PART AUX
 'Where will s/he take her/him to?' (Etxamendi 2010: 29)
- (10) Egia *ote* dakien kezka beldurtzen nau.
 truth.ABS PART know.C worry.ERG frighten.IPFV AUX
 'The idea that s/he may know the truth frightens me.'
- (11) - Itziarrek etxea erosi du. *-Ete* dauen ba!
 Itziar.ERG house.ABS buy AUX PART AUX.C PART
 '-Itziar bought a house. - Sure she did!'

Interestingly, this syntactic and interpretative distribution matches their grammaticalization degree. On the one hand, the particle *ote* has been claimed to derive from a protoverb (Lakarra 2019); on the other hand, in this dissertation (and more in detail in Monforte 2019) I have proposed that the epistemic particle *a(ha)l* derives from the modal verb *ahal* and that the former is diachronically connected with the question particle *al*. Therefore, the question particle *al* is more grammaticalised than the particle *ote*; this accounts for the more functional nature and the lack of semantic contribution of the former. Additionally, as I have proved for the syntactic distribution between the modal verb *ahal* and the epistemic particle *a(ha)l*, the new constituent occupies a higher position than the previous one (cf. Roberts & Roussou 2003). Hence, the question particle *al* should be located higher than *a(ha)l*; the epistemic particle *ote*, however, would occupy the same position as *a(ha)l* since both derive from verbs. To sum up, *al* is more grammaticalised since it has its origin in *a(ha)l*, which was already a particle, unlike *a(ha)l* and *ote*, both of which are chronologically related to verbs. This has an impact on their function and contribution to the proposition since the former is

more functional, dealing with the performing of the proposition, and its interpretation more bleached compared to the one of *a(ha)l* and *ote*; indeed, the latter two do not only share the fact that they have a similar degree of grammaticalization, but also that they signal the speaker's attitude.

Thus, I have proceed to their syntactic analysis and I have distinguished three positions: firstly, based on its sentential distribution and syntactic and interpretative properties, the eastern question particle occupies the head of the Outer-Particle Phrase located between the Focus Phrase and the Finite Phrase in the Left Periphery. Let us illustrate this:


(12)



Secondly, I have proposed that the central question particle is base-generated in the middle field (or, in other words, the TP domain); finally, I have identified the same domain for the epistemic particle *ote*. This position agrees with those proposed for Germanic languages (Coniglio 2007b; Bayer & Obenauer 2011; Struckmeier 2014; Scherf 2017) and also for Basque (Elordieta 1997; Elordieta 2001). Nevertheless, based mainly on their kind of function in the clause and their degree of grammaticalization (syntax, however, provides no evidence in favour of or against such analysis), I have argued that there are two phrases containing modal particles in that domain (as well as in the CP and Speech Act domains [Kuong 2008; Haegeman 2014; Lam 2014; Corr 2016; Wiltschko & Heim 2016]): the Outer-particle phrase and the Inner-particle phrase. The former deals with those particles connecting the new utterance to the dialogue and marking the relation between the speaker and the addressee, similar to what the question particle *al* does; the latter adds the attitude of

speakers and their evaluative, evidential and epistemic value to the proposition, as the epistemic particle *ote* does. The distribution between those phrases can be seen in the following diagram:

(13)



So far I have examined the canonical behaviour of those particles; nevertheless, one of the main contributions of this dissertation is to introduce the non-canonical behaviour of *ote* in eastern dialects and also to account for its analysis in Eastern Basque. This particle does not follow the canonical pattern; a very similar situation has been described by Etxepare (2010) and Etxepare and Uria (2016) for the particle *omen* with roughly the same geographical/ dialectal distribution. The following are the non-standard uses of *ote* in those varieties:

- (14) Eztakit ardi horrek bildotxa ukhain dienez *othe* gaur.
 not.know sheep that.ERG lamb have.FUT AUX.C PART today
 ‘I don’t know if that sheep may have the lamb today.’ (Camino 2009: 193)
- (15) Nork *ote* jan züan?
 who.ERG PART eat AUX
 Who ate it (I’m wondering)?’ (Casenave-Harigile 1997)

- (16) Esku-ukaldi bat emaiten ahal ote dautazu?
 hand one give.IPFV can PART AUX
 ‘Could you give me a hand, please? (Landart 1983)

I have differentiated three uses within the microvariation found in eastern dialects: a) the adverbial-like nature (14); b) the combination of a *wh*-word and the particle (15); c) the sentence final particle (16). Concerning the first use, I would remark the following contributions: based on its phonological-prosodic features and syntactic properties, I have proved that *ote* in this use does not behave as a syntactic head, but as a maximal projection. Furthermore, considering its sentential distribution and occurrence in contexts where the TP domain has been elided, I have concluded that it occupies a position in the CP domain, namely the specifier of Rizzi’s (2004) Modifier Phrase located between the FocP and the FinP. This distinct syntactic status and position reveals a property of its canonical use, since *ote* behaving as a maximal projection and occupying a position in the CP domain is compatible with the use of the particle *a(ha)l*, contrary to what happens in its canonical use. This means that the restriction to occur together in the canonical pattern has a syntactic nature, not a semantic-pragmatic one.

I have also shown that *ote* can also be a sentence final particle. In such case I have stated that this is also a separate use from those ones previously mentioned a) because it always occurs at the end of the utterance, not only in contexts where the verb is fronted, but also in those where it stays *in situ*, and b) because its interpretation cannot be paralleled to the one of the canonical particle, or any of the other non-canonical behaviours, since its use is not felicitous for central and western speakers even when it occurs in its canonical position. The geographical distribution of this use is even more reduced than the one of the previous kind of *ote*; I have only found it in the far east of the Eastern Basque (included the Souletin Basque, Amikuze’s variety and also the disappeared variety from the Roncalese Valley). Since I have mainly used data found in literary works, I have been cautious when discussing the syntactic analysis of this *ote*. I have proposed that speakers have reanalysed the use of the maximal projection *ote* when it appears at the end of the clause because of the fronting of the rest of constituents and reinterpreted as a sentence final particle. Considering this and that its interpretation seems to be related to the relation between speaker and addressee, I have located it in the head of the High/Outer Particle Phrase in the Speech Act domain (Lam 2014; Corr 2016); following Del Gobbo et al. (2015) this head attracts the whole proposition and, as a result, the correct word order is achieved.

Finally, I would like to bring light to two topics not directly related to this dissertation but indirectly dealt with during the analysis of modal particles. On the one hand, Artiagoitia and Elordieta (2016) associate declarative predicates containing the complementizer *-(e)n* to eastern dialects following descriptions found in the literature (Lafitte 1944: 448; Euskaltzaindia 1999: 76; Camino 2004: 477); however, this dissertation has shown that predicates as *iruditu* ('to seem') can have a complement clause marked by the complementizer *-(e)n* not only in eastern dialects, but also in central and western dialects. The difference between the complementizer *-(e)n* and *-(e)la* is that the former expresses that the speaker does not fully commit to the proposition. For instance:

- (17) Samar bat irintxi ote dian iruditu zatan.
trace one swallow PART AUX.C seem AUX
'It seems to me that I may have swallowed some (cider) dregs.' (Barandiaran 1972)

On the other hand, I have pointed out that the *wh*-word and the inflected verb do not need to be adjacent in some embedded contexts in eastern dialects as they must in central and western dialects and standard Basque. Despite their apparent resemblance to the strategy *wh-in situ* described by Duguine eta Irurtzun (2014), I do not claim that these are also *wh-in situ* structures, since the *wh*-word *zer* ('what') appears before the ergative subject; thus it has moved to the CP domain:

- (18) Ez dakit zer ote Macronek erran dakon.
not know what PART Macron.ERG say AUX.C
'I don't know what Macron told him.'

In fact, this configuration reminds the contrastive focus claimed by Etxepare (1997); further analysis is needed to clarify this behaviour.

Thus far, I have presented the major achievement this dissertation has brought to the analysis of modal particles in Basque and, in general, to Basque linguistics. As has been argued, the progress concerns different areas, such as syntax, grammaticalization and interpretation; furthermore, the microvariation found in eastern dialects has enriched the study and it has provided new data and expanded the discussion to issues dealt with in the literature on modal particles cross-linguistically. In fact, this dissertation has contributed not only Basque linguistics, but also the general study of modal particles; therefore, in the

following section (§8.2) I will summarise the contributions which, in my opinion, improve the understanding and analysis of modal particles cross-linguistically.

9.2 Contributions to the field of modal particles

Modal particles are not a specific phenomenon of the Basque language, obviously; hence, their study increases not only knowledge of Basque linguistics but also our general perspective of modal particles cross-linguistically and typologically. In the previous section (§8.1) I have summarised the advances this dissertation has brought to the Basque linguistics; now I will remark those ones helping to specify and clarify the field of modal particles in general. I will highlight five typological issues this thesis contributes to: a) the debate on the syntactic nature of modal particles; b) their syntactic position; c) the topic on their restriction to contexts containing illocutionary force; d) how particles affect the proposition; e) the need to distinguish two groups within modal particles; f) the fact that the so-called question particles do not mark questions syntactically; and g) their historical development.

Concerning the first one, in subsections **3.3.2** and **3.3.3** I have presented the discussion on the syntactic status of modal particles; afterwards (§**4.4** and §**7.3.3**) I have approached that issue from the perspective of the Basque modal particles based on the properties shown in their canonical pattern and in their non-canonical behavior, and I have concluded that the former behave as syntactic heads and the latter as maximal projections. In order to determine the nature of modal particles in Basque, I have used those properties usually mentioned for the same purpose in the literature and also features internal to and typical of the Basque language. I would like to point out that the fact that both syntactic statuses are found with respect to the same particle in the same variety helps to define those distinctive properties of each status. I will summarise those which I consider more relevant in the next lines. First, the properties regarding the head status are the following:

- a) Particles merge with the inflected verb; thus, their use is restricted to finite clauses.
- b) If the inflected verb moves to the Left Periphery, particles do so too.
- c) They form a prosodic word with the inflected verb; as their prosody is weak and dependant on the number of syllables of the finite verb, it can be concluded that they behave prosodically as clitics.
- d) Particles as *omen* and *ote* can suffer apheresis depending on the stress position.

- e) They are not independent words; they cannot occur on their own or as the answer to a question.
- f) They are historically related to lexical verbs; in fact, they have maintained the prototypical position of lexical verbs.

As for particles considered maximal projections, I would stress the following properties:

- a) Particles are independent words, since they do not need to merge with another constituent to legitimise their use.
- b) If the finite verb moves to the Left Periphery, particles do not move along with it, neither block its movement.
- c) They show restrictions regarding their sentential distribution.
- d) Since they are independent words, they have their own prosodic pattern.
- e) As for their phonological form, no lenition affects these particles.
- f) These particles give rise to configurations not available for syntactic heads such as 'wh-word particle'.
- g) These particles are derived from constituents with XP status as adverbs, adjectives or paratactic clauses containing mental predicates.

The study of Basque modal particles helps us examine not only the syntactic status of modal particles but also their position. On the one hand, the general hierarchy among particles proposed in the literature can be found in Basque; in other words, performative particles occupy a higher position in the syntactic structure than particles conveying evaluation, evidentiality and epistemicity. On the other hand, the question particles *-a* and *al* and the different kinds of *ote* found due to its microvariation provide evidence that particles can occur in separate domains, i.e. they occupy positions in the TP domain, the CP domain and the Speech Act domain.

Furthermore, one issue usually discussed in the literature of modal particles is their dependency on illocutionary force. It has been stated that particles can only appear in main clauses and those embedded clauses containing illocutionary force (Munaro & Poletto 2002; Bayer & Obenauer 2011; Coniglio & Zegrean 2012; Struckmeier 2014; Scherf 2017; Egg & Mursell 2017; Tan & Mursell 2018) since they modify it; therefore, its absence would shut down their function in the clause. Nevertheless, in this dissertation I have argued that not all modal particles in Basque display this property since they can be used in contexts lacking

illocutionary force, for instance the particle *ote*; moreover, Zubeldia (2010) claims that the evidential particle *omen* do not modify the illocutionary force. However, the particle *al* does show this restriction. Hence, this property commonly accepted in the literature should be reassessed for each particle (cf. Tan & Mursell 2018).

I have also looked into the syntactic mechanism these particles use to affect the illocutionary force. Since this can be useful to understand the way particles work in other languages with similar conditions, I will present the analysis put forth in the section 6.5 again: let us remind that Force and Fin heads agree in the [clause type] feature in Basque and that the finite verb is created by merging the T and Fin heads; in such situation the particle, which previously has merged with the T head, affects the illocutionary force by modifying the Fin head. Therefore, instead of proposing a movement of the particle to the Force head in LF, Basque shows that this process concerning the contribution of particles can be accounted for in other terms, i.e. by modifying the modality of the proposition in the Fin head and, consequently, the [clause type] feature.

In addition to these properties, I have distinguished two groups within those traditionally labelled as modal particles: *performative particles* (or *discourse particles* as I think they would be more appropriately called) and *evaluative-evidential-epistemic particles* (in the case of these particles I would favour the term *modal particle*). The former mark the relationship between the speaker and addressee and how to relate the utterance to the conversation; the latter convey the attitude or point of view of the speaker towards the proposition and adds evaluation, evidentiality or epistemicity. The distinction in two groups is justified not only based on their function, but also considering their syntactic properties, such as their ability to occur in contexts lacking illocutionary force.

Similarly, I have demonstrated that the so-called question particles should not be considered a syntactic mechanism to turn propositions into questions as it has been claimed in the literature; indeed, if we observe the contexts these particles are used, it can be noted that they do not occur in all kind of questions. Hence, this weakens the principal argument to assign questions particles a specific syntactic position, namely ForceP (i.e. the idea that they mark the clause type and/or illocutionary force). The study of the contexts they are used in would help to define their syntax and to classify them as performative or modal particles.

Finally, this dissertation has contributed to the diachronic field, too, by analysing the hypothetical development of modal particles. Considering only the central question particle, I have argued that it has undergone two grammaticalization processes: on the one hand, the question particle *al* has derived from the epistemic particle *a(ha)l* and, on the other hand, the

modal verb *ahal* turned into the epistemic particle *a(ha)l*. The first change is also attested in other languages; this proves that question particles do not only have disjunctives or negative markers as their origin (cf. Bailey 2013). The identification of a verb as the origin of what traditionally has labelled *modal particle* is not that common; in fact, adverbs seem to have been a productive source of modal particles in Germanic or Romance languages, besides adjectives and conjunctions to a lesser extent. Basque provides evidence that verbs can also turn into modal particles from two separate ways: a) by grammaticalising a lexical verb keeping its syntactic position but showing properties of grammaticalised constituents such as bleached semantics or impoverished morphology or phonology, or b) by grammaticalising a paratactic clause reducing its constituents and grammatical properties (e.g. losing its agreement marks) and inserting within the clause even anchoring to a fixed position.

In a nutshell, along this dissertation I have demonstrated (or at least I hope to have demonstrated) that the examination of Basque modal particles is useful not only to deepen our knowledge of a single language, but also to improve our understanding of such topic and to make progress in the field by discussing and comparing the issues addressed in the relevant linguistic and typological literature.

Corpusa

- Aiurri hedabideak [@aiurri]. 2019. *Zelatun eta Hernioko gainaren artean abioneta batek istripua izan du. Bi hildako ote diren. Laino itxia dago paraje honetan.* [Twitter]. 2019ko urtarrilaren 9koa. <https://twitter.com/Aiurri/status/1083024208341417985>
- Agirre, Domingo. 1897. *Auñamendiko lorea*. Bilbo: Labayru ikastegia.
- Altzaga, Toribio. 1885. *Ramuntxo*. Tolosa: Auspoa libutegia.
- Altzaga, Toribio. 1994. *Neskazar; Amantxi; Aterako gera; Biozberak*. Oartzun: Sendoa Argitaldaria.
- Azkoitia, Imanol. 2016. *Dorian Grayn erretratue (Oscar Wilde)*. Amorebieta-Etxano: Haranaga Liburuak/ Erroteta argitaletxea.
- Borda, Itxaro. 2005. *Zeruetako erresuma*. Zarautz: Susa.
- Casenave-Harigile, Junes. 1996. Zankamehe. *Euskerazaintza: euskeraren erri akademia* 36. 44-49.
- Casenave-Harigile, Junes. 1997. *Basabürüko ipuinak*. Baigorri: Izpegi.
- Casenave-Harigile, Junes. 2010. *Aroa*. Maule: Astobelarra.
- Charritton, Piarres. 1984. *Jean Etchepare mirikuaren lanak: 1877-1935. I Euskal gaiak*. Donostia: Elkar.
- Coyos, Jean-Baptiste. 2013. *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri: Gure Herria aldizkariaren idazleak (1924-1939)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Davant, Jean-Louis. 2008. *Zuberoako literaturaz: antologia laburra*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EHUko Euskara Institutua. 2009. Ereduzko Prosa Gaur. <https://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/> (2019/09/25)
- EHUko Euskara Institutua. 2013. Euskal Klasikoen Corpusa. <https://www.ehu.eus/ehg/kc/> (2019/10/10)
- Elissagaray, Mayi. 1958. Ameriketako osaba. *Gure Herria* 30(3-4). 145-222.
- Elissalde, Jean. 1925. Metsikorat. *Gure Herria* 5(1-2). 53-81.
- Erdozaintzi-Etxart, Manex. 1982. *Gauaren atzekaldean*. Donostia: Elkarlanean.
- Etxamendi, Eñaut. 2009. *Idazlanen bilduma 1*. Baiona: Maiatz.
- Etxamendi, Eñaut. 2010. *Idazlanen bilduma 3*. Baiona: Maiatz.
- Etxamendi, Eñaut. 2011a. *Idazlanen bilduma 4*. Baiona: Maiatz.
- Etxamendi, Eñaut. 2011b. *Idazlanen bilduma 5*. Baiona: Maiatz.

- Haraneder, Joannes. 1990 [1740]. *Jesu Christoren evangelio saindua*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hiriart-Urruty, Jean. 1903. *Gontzetarik jalgiaraziak* [Iñaki Caminoren edizioa]. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Hiriart-Urruty, Jean. 1971a. *Mintzaira, aurpegia: Gizon!* [aintzin-solasa, Piarres Lafitte]. Arantzazu: Ediciones Franciscanas de Aránzazu, Jakin liburu sorta.
- Hiriart-Urruty, Jean. 1971b. *Zezenak errepublikan* [antologi-biltzaile Piarres Lafitte]. Arantzazu: Franciscanas Arantzazu, Jakin liburu sorta.
- Inchauspe, Emmanuel T. 1856. *Le Saint Évangile de Jésus-Christ selon Saint Mathieu/traduit en basque souletin par l'abbé Inchauspe, pour le Prince Louis-Lucien Bonaparte*. Baiona: Veuve Lamaignère née Teulières.
- Labayen, Antonio M. 1931. *Euskal-eguna: iru ekitalditan antzerkia*. Tolosa: Lopez Mendizabal.
- Labayen, Antonio M. 1932. Mateo Txistu. In Idoia Gereñu (arg.). *Antzerti 75 urte ondoren*, 57-84. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Landart, Daniel. 1978. *Aihen ahula: haur denborako hixtorio-mixterio*. Donostia: Elkar.
- Landart, Daniel. 1982. Xuri, gorriak eta... *Egan* 1-6. <http://www.teatro-testuak.com/gordailua/LandartDXuriGorriak.htm>
- Landart, Daniel. 1983. Bai ala ez. *Egan* 1-6. <http://www.teatro-testuak.com/gordailua/LandartDBaiAlaEz.htm>
- Landart, Daniel. 2011. *Ahularen indarra. Oroitzapenak - lehen zatia: laborari semea, eskulangilea*. Donostia: Elkarlanean.
- Landart, Daniel. 2017. *Jendeak: laborari munduko kontakizunak*. Donostia: Elkar.
- Larre, Emile. 1986. Nor da hila? *Herria* (1859). 1. https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAtzokoPrensaWEB/buscar.do?amicus=69560&lang=eu&anti_cache=1578174746513#
- Larre, Emile. 1987. Bidea eta bizia. *Herria* (1929). 1. https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAtzokoPrensaWEB/buscar.do?amicus=69560&lang=eu&anti_cache=1578174746513#
- Larzabal, Piarres. 1991. *Piarres Larzabal idazlanak II*. Donostia: Elkar.
- Larzabal, Piarres. 1992a. *Piarres Larzabal idazlanak III*. Donostia: Elkar.
- Larzabal, Piarres. 1992b. *Piarres Larzabal idazlanak IV*. Donostia: Elkar.
- Minaberri, Marijane. 1983. *Haur Antzerki*. Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa/ Euskaltzaindia.
- Moreno, Maialen. 2018. *Herri kontakizunak Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan: bilketa, sailkapena eta irriaren adierazpenaren azterketa*. Bilbo: UPV/EHU.

- Oñederra, Miren L. 1999. *Eta emakumeari sugeak esan zion*. Donostia: Erein.
- Oyharçabal, Beñat, Irantzu Epelde & Jasone Salaberria. 2009-2011. *Norantz proiektua*.
Baiona: IKER-UMR5478. <http://www.norantz.org> (2020/01/31)
- Peillen, Txomin. 1985. *Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak (parre ipuinak)*. Donostia: Haranburu.
- Pouvreau, Silvain. 1964. *San Frances de Sales Genevako Ipizpicuaren Philothea*. Paris: Claude Audinet.
- Pouvreau, Silvain. 1969. *Iesusen imitacionea. (José María Satrustegik grafia gaurkotua)*.
Corpusa Donostia: Hordago/ Lur.
- Salaberry, Etienne. 1957. Ohantzetik kanpo. In *Euzko-Gogoa 8-4*, 92-101. Baiona: [s.n.].
- Salaberry, Etienne. 1958. Zapeta Urhe eta Espartin Churi. In *Euzko-gogoa 9-2*, 133-168.
Baiona: [s.n.].
- Salaberry, Etienne. 1978. *Ene sinestea: iragan biziari gibeletik beha*. Zarautz: Itxaropena.
- Soroa, Marcelino. 1885. *Alcate-berrya: Jostaketa Euskerara Moldatuba Gizon Bacarrentzat*. Donostia: Pozoren Moldizkira.
- Thikoipe, Mixel. 2007. *Hotz bero: ixtorioak*. Baiona: Maiatz.
- Thikoipe, Mixel. 2009. *Jin bezala*. Baiona: Maiatz.
- Treku, Mari. 1982. *Mattin, nere gizona*. Tolosa: Auspoa.
- Uria, Larraitz & Ricardo Etxepare (2007-2011) *Basyque: euskal sintaxiaren datu-basea*.
Donostia/ Baiona: IXA taldea/ IKER-UMR5478.
<http://ixa2.si.ehu.es/atlas2/index.php?lang=eu> (2020/01/31)
- Zarate, Mikel. 1970. *Bizkaiko Euskal-idazleak: Bizkaierazko literaturearen Kondaira antzera 1580-1968*. Derio: Derioko Seminario-Ikastetxea.
<http://www.mikelzarate.com/bizk26.htm>

Erreferentziak

- Abraham, Werner. 1991. Discourse particles in German: How does their illocutive force come about. In Werner Abraham (arg.). *Discourse particles: descriptive and theoretical investigations on the logical, syntactic, and pragmatic properties of discourse particles in German*, 203-252. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.

- Abraham, Werner. 2011. Modal particles in German: Word classification and legacy beyond grammaticalization. In Petra M. Vogel & Bernard Comrie (arg.). *Approaches to the typology of word classes*, 321-350. Berlin/ New York: Walter de Gruyter.
- Abraham, Werner. 2017. Discourse marker = discourse particle = thetical = modal particle? A futile comparison. In Josef Bayer & Volker Struckmeier (arg.). *Discourse Particles: Formal Approaches to their Syntax and Semantics*, 203-252. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Adger, David. 2003. *Core syntax: A minimalist approach*. Oxford: Oxford University Press.
- Adger, David. 2007. Three domains of finiteness: A minimalist perspective. In Irina Nikolaeva (arg.). *Finiteness: Theoretical and empirical foundations*, 23-58. New York: Oxford University Press.
- Aijmer, Karin. 2013. Analyzing modal adverbs as modal particles and discourse markers. In Liesbeth Degand, Bert Cornillie & Paola Pietrandrea (arg.). *Discourse markers and modal particles. Categorization and description*, 89-106. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Alberdi, Xabier. 1994. *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Albizu, Pablo. 1991. Sobre la existencia del movimiento largo de núcleos en euskera. Madrid: Instituto Universitario Ortega y Gasset [Argitaratugabeko eskuizkribua].
- Albizu, Pablo. 1992. Where is COMP in Basque? Los Angeles: University of Southern California [Argitaratugabeko eskuizkribua].
- Alcázar, Asier. 2017. A syntactic analysis of rhetorical questions. In Aaron Kaplan (arg.). *Proceedings of the 34th West Coast Conference on Formal Linguistics*, 32-41. Somerville, MA: Cascadilla Proceedings Project.
- Aldridge, Edith. 2011. Neg-to-Q: The historical origin and development of question particles in Chinese. *The Linguistic Review* 28(4). 411-447. <https://doi.org/10.1515/tlir.2011.012>
- Alexander-Bakkerus, Astrid. 2011. Some Cholón discourse particles and Quechua homologues. In Andrés Romero-Figueroa (arg.). *Lenguas indígenas de América: morfología y sintaxis*, 11-28. Caracas: Mercantil/ Universidad Católica Andrés Bello.
- Altube, Seber. 1930. *Erderismos*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Amundarain, Iñaki. 2002. *Juntadura eta elipsia euskaraz*. Bilbo: UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Angos, Alberto. 2005. *Erronkariara*. Donostia: Hiria.
- Archu, Jean B. 1853. *Uskara eta franzes grammatika uskal-herrietako haurrenzat eguina*. Baiona: Foré et Lasserre.

- Arocena, Fausto. 1961. El Euskera y los judíos de Guevara. In Fausto Arocena (arg.). *Selecciones Vascas*, 137-149. Zarautz: Itxaropena.
- Arotçarena, Sauveur. 1976. *Grammaire basque*. Baiona: Jakin.
- Arregi, Karlos & Andrew Nevins. 2012. *Morphotactics: Basque auxiliaries and the structure of spellout*. Dordrecht/ New York: Springer.
- Arretxe, Jon. 1995. *Basauriko euskararen azterketa linguistikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Arrigarai, Bernardo. 1919. *Euskal-irakaspidea: o sea Gramatica del euskera, dialecto guipuzcoano*. Totana: San Buenaventura.
- Arriortua, Alazne. 2017. *Perpauk ezeztapena euskaraz: tipologiatik hurbilketa berri baterantz*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Master amaierako lana].
- Artiagoitia, Xabier. 1994. Verbal projections in Basque and minimal structure. *ASJU* 28(2). 339-504.
- Artiagoitia, Xabier. 2000. *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Artiagoitia, Xabier & Arantzazu Elordieta. 2016. On the semantic function and selection of Basque finite complementizers. In Kasper Boye & Petar Kehayov (arg.). *Complementizer semantics in European languages*, 379-411. Berlin/ Boston: De Gruyter Mouton.
- Astarloa, Pablo P. 1883. *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva, ó Gramática y análisis razonada de la Euskara ó Bascuence*. Bilbo: Pedro Velasco.
- Azkue, Resurrección M. 1891. *Azkueko Resurrección Mariak eratu ta biurturiko euskal-izkindea*. Bilbo: Astui-ko José-n Moldegintza.
- Azkue, Resurrección M. 1906. *Diccionario vasco-español-francés*. Paris: Paul Geuthner.
- Azkue, Resurrección M. 1931. Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos. *Euskera* 4. 282-318.
- Azkue, Resurrección M. 1966. *Euskalerraren Yakintza*. Madril: Espasa-Calpe.
- Azkue, Resurrección M. 1969. *Morfología vasca*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Azurmendi, José M. 1996. *Ataungo euskara*. Lazkao: Goiherriko euskal eskola kultur elkarte.
- Azurmendi, Joxe M. 1998. *Zegamako euskara*. Lazkao: Goiherriko euskal eskola kultur elkarte.

- Badan, Linda & Francesca Del Gobbo. 2015. The even-construction and the low periphery in Mandarin Chinese. In Wei-Tien Dylan Tsai (arg.) *Cartography of Chinese Syntax*. 33-74. Oxford/ New York: Oxford University Press.
- Bailey, Laura R. 2013. *The syntax of question particles*. Newcastle: Newcastle University [Doktorego tesia].
- Balusu, Rahul. 2019. Fine tuning the Dravidian left periphery: The three ‘complementizers’ in Telugu. In Josef Bayer & Yvonne Viesel (arg.). *Proceedings of the workshop “Clause typing and the syntax-to-discourse relation in head-final languages”*, 13-38. Konstanz: Fachbereich Linguistik der Universität Konstanz.
- Barandiaran, José M. 1972. *Obras completas*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Barbier, Jean. 1926. *Piarres*. Baiona: S. Sordes.
- Bayer, Josef. 2009. Discourse particles in questions. In *GLOW Asia*, 1-14. Hyderabad: The English and Foreign Languages University, 2009ko otsailaren 25-28an aurkeztua.
- Bayer, Josef. 2012. From modal particle to interrogative marker: a study of German *denn*. In Laura Brugé (arg.). *Functional Heads. The Cartography of Syntactic Structures*, 13-28. Oxford: Oxford University Press.
- Bayer, Josef. 2020. Why Doubling Discourse Particles? In Franco Ludovico (arg.). *Linguistic Variation: Structure and Interpretation. Contributions In Honor of M. Rita Manzini. Studies in Generative Grammar*, 47-72. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Bayer, Josef, Probal Dasgupta, Sibansu Mukhopadhyay & Rajat Ghosh. 2014. Functional Structure and the Bangla Discourse Particle *to*. In *30th South Asian Languages Analysis Roundtable (SALA 30)*. Hyderabad: 2014ko otsailaren 6-8an aurkeztua.
- Bayer, Josef & Hans-Georg Obenauer. 2011. Discourse Particles, Clause Structure, and Question Types. *Linguistic Review* 28(4). 449-491. <http://dx.doi.org/10.1515/tlir.2011.013>
- Bayer, Josef & Volker Struckmeier. 2017. The status quo of research on discourse particles in syntax and semantics. In Josef Bayer & Volker Struckmeier (arg.). *Discourse Particles: Formal Approaches to their Syntax and Semantics*, 1-14. Berlin/ Boston: De Gruyter.
- Bayer, Josef & Andreas Trotzke. 2015. The derivation and interpretation of left peripheral discourse particles. In Josef Bayer, Roland Hinterhölz & Andreas Trotzke (arg.). *Discourse-oriented syntax*, 13-40. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Belletti, Adriana. 2005. Extended doubling and the VP periphery. *Probus* 17(1). 1-35.

- Bhadra, Diti. 2017. *Evidentiality and questions: Bangla at the interfaces*. New Brunswick, NJ: Rutgers University [Doktorego tesia].
- Biberauer, Theresa & Michelle Sheehan. 2011. Introduction: particles through a modern syntactic lens. *The Linguistic Review* 28(4). 387-410.
- Biezma, María, Miriam Butt & Farhat Jabeen. 2018. Polar questions vs. *kya*-questions in Hindi/Urdu. In *GLOW 41*. Budapest: Research Institute for Linguistics/ Hungarian Academy of Sciences, 2018ko apirilaren 11-13an aurkeztua.
- Biezma, María & Kyle Rawlins. 2017. Rhetorical questions: Severing asking from questioning. In Dan Burgdorf, Jacob Collard, Sireemas Maspong & Brynhildur Stefánsdóttir (arg.). *Proceedings of the 27th Semantics and Linguistic Theory Conference*, 302-322. Maryland: Marylandeko Unibertsitatea.
- Bilbao, Begoña. 2002. *Bermeoko euskera kresaltsua: aditza eta fonetika*. Bermeo: Bermeoko Udala.
- Blum-Kulka, Shoshana. 1987. Indirectness and politeness in requests: Same or different? *Journal of pragmatics* 11(2). 131-146.
- Bravo, Ana. 2017. *Modalidad y verbos modales*. Madril: Arco libros.
- Bruening, Benjamin. 2007. *Wh-in-situ* does not correlate with *wh*-indefinites or question particles. *Linguistic Inquiry* 38(1). 139-166.
- Burton, Strang & Lisa Matthewson. 2015. Targeted construction storyboards in semantic fieldwork. In M. R. Bochnak & Lisa Matthewson (arg.). *Methodologies in semantic fieldwork*, 135-156. New York: Oxford University Press.
- Cable, Seth. 2008. Q-particles and the nature of *Wh*-fronting. In Lisa Matthewson (arg.). *Quantification: A cross-linguistic perspective*, 105-178. Bingley: Emerald.
- Camino, Iñaki. 2004. Nafarroa Behereko euskara. *FLV* 97. 445-486.
- Camino, Iñaki. 2009a. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkarlanean.
- Camino, Iñaki. 2009b. Mugako hiztun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan. *FLV* 111. 153-218.
- Camino, Iñaki. 2013. "Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat (1782)". Edizioa eta azterketa. *ASJU* 47(1). 3-486.
- Camino, Iñaki. 2017. *Amikuzeko eskualdeko (h)euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Campión, Arturo. 1884. *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Tolosa: Eusebio López.

- Caponigro, Ivano & Jon Sprouse. 2007. Rhetorical questions as questions. In Estela Puig-Waldmüller (arg.). *Proceedings of Sinn und Bedeutung*, 121-133. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra.
- Cardinaletti, Anna. 2007. Für eine syntaktische Analyse von Modalpartikeln. In Eva-Maria Thüne (arg.). *Gesprochene Sprache und Partikeln*, 89-101. Bern: Peter Lang.
- Cardinaletti, Anna. 2011. German and Italian modal particles and clause structure. *The Linguistic Review* 28(4). 493-531.
- Cardinaletti, Anna & Michal Starke. 1999. The typology of structural deficiency: A case study of the three classes of pronouns. In Henk van Riemsdijk (arg.). *Clitics in the languages of Europe*, 145-233. Berlin/ New York: De Gruyter Mouton.
- Castillo, Vanessa, Jose A. Romo & Bakarne Giralt. 2001. *Azkoittiko euskerie*. Azkoitia: Azkoitiko Udala.
- Castroviejo, Elena. 2018. On question tags and confirmation requests. In *GLOW 41 Semantics Workshop on the Grammar and Pragmatics of interrogatives and their (special) uses*. Oslo: Osloko Unibertsitatean 2018ko maiatzaren 7-11an aurkeztua.
- Cecchetto, Carlo & Caterina Donati. 2012. "Perché" Rizzi is right. In Valentina Bianchi & Cristiano Chesi (arg.). *Enjoy Linguistics! Papers offered to Luigi Rizzi on the occasion of his 60th birthday*, 54-62. Siena: CISCL Press.
- Chaho, Augustin. 1836. *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. Paris: Arthus Bertrand.
- Chen, Zhuo. 2019. *Three Ingredients in Wuhu Chinese Yes-no Question Formation*. Los Angeles: University of California Los Angeles [Master amaierako lana].
- Cheng, Lisa L. S. 1997. *On the typology of wh-questions*. Cambridge, MA: MIT [Doktorego tesia].
- Chernova, Ekaterina. 2015. *The syntax of wh-movement in multiple (true and echo) questions. A Q-particle approach*. Girona: Gironako Unibertsitatea [Doktorego tesia].
- Chomsky, Noam. 2001. Derivation by phase. In Michael Kenstowicz (arg.) *Ken Hale: A life in Language*, 1-52. Cambridge, MA: MIT Press.
- Cinque, Guglielmo. 1999. *Adverbs and the universal hierarchy of functional projections*. New York: Oxford University Press.
- Citko, Barbara. 2014. *Phase Theory: an introduction*. New York: Cambridge University Press.
- Condoravdi, Cleo & Paul Kiparsky. 2002. Clitics and clause structure. *Journal of Greek Linguistics* 2(1). 1-39.

- Coniglio, Marco. 2007a. German modal particles in root and embedded clauses. *Working Papers in Linguistics* 17. 109-141.
- Coniglio, Marco. 2007b. German modal particles in the IP-domain. *Rivista di Grammatica Generativa* 32. 3-37.
- Coniglio, Marco. 2008. Modal particles in Italian. *Working Papers in Linguistics* 18. 91-129.
- Coniglio, Marco & Iulia Zegrean. 2012. Splitting up Force, evidence from discourse particles. In Lobke Aelbrecht (arg.). *Main clause phenomena: New horizons*, 229-256. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Corr, Alice. 2015. Insubordination, speech acts and syntax: the view from Ibero-Romance. In *29th edition of Going Romance*. Nijmegen: Radboud University, 2015eko abenduaren 10-12an.
- Corr, Alice. 2016. *Ibero-Romance and the Syntax of the Utterance*. Cambridge: Cambridgeko Unibertsitatea [Doktorego tesia].
- Cruschina, Silvio. 2012. *Discourse-related features and functional projections*. Oxford: Oxford University Press.
<https://dx.doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199759613.001.0001>
- Darrigol, Jean P. 1827. *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*. Baiona: Duhart-Fauvet.
- Davis, Ryan C. 2018. The Derivation of the Interrogative \bar{n} in hebrew. *Hebrew Studies* 59. 25-28.
- de Cuba, Carlos. 2017. Noun complement clauses as referencial modifiers. *Glossa: a journal of general linguistics* 2(1): 3. 1-46.
- de Rijk, Rudolf. 1969. Is Basque an SOV language? *FLV* 1(3). 319-352.
- de Rijk, Rudolf. 1972. Partitive assignment in Basque. *ASJU* 6. 130-173.
- de Rijk, Rudolf. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Del Gobbo, Francesca, Nicola Munaro & Cecilia Poletto. 2015. On sentential particles: A crosslinguistic study. In Sylvie Hancil, Alexander Haselow & Margje Post (arg.). *Final particles*, 359-386. Berlin/ Boston: De Gruyter Mouton.
- Diewald, Gabriele. 2011. Pragmaticalization (defined) as grammaticalization of discourse functions. *Linguistics* 49(2). 365-390.
- Dor, Daniel. 2005. Toward a semantic account of that-deletion in English. *Linguistics* 43(2). 345-382.

- Döring, Sophia. 2007. *Zur Kontextverschiebung bei deutschen Diskurspartikeln*. Berlin & Boston: Humboldt-Universität zu Berlin [Master amaierako lana].
- Döring, Sophia. 2016. *Modal Particles, Discourse Structure and Common Ground Management. Theoretical and Empirical Aspects*. Berlin: Humboldt Universität zu Berlin [Doktorego tesia].
- Dryer, Matthew S. 2013. Position of Polar Question Particles. In Matthew S. Dryer & Martin Haspelmath (arg.). *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology.
- Duguine, Maia & Aritz Irurtzun. 2010. Opérateurs d'exclusivité dans les questions et réponses en basque. *Revue de Sémantique et Pragmatique* 27. 105-117.
- Duguine, Maia & Aritz Irurtzun. 2014. From obligatory *wh*-movement to optional *wh-in situ* in Labourdin Basque. *Language* 90(1). e1-e30.
<https://doi.org/10.18148/hs/2014.v0i0.11>
- Duhau, Henri. 1993. *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*. Donibane-Lohizune: Alinea.
- Eckardt, Regine. 2018. Evidentials in different kinds of questions The case of German *wohl*. Konstantza: Konstantzako Unibertsitatea. [Argitaratugabeko eskuizkribua]
- Eckardt, Regine & Andrea Beltrama. 2018. Evidentials and questions. *Empirical Issues in Syntax and Semantics* 12. [Aldizkari horretara bidalitako artikulua].
- Egg, Markus & Johannes Mursell. 2017. The syntax and semantics of discourse particles. In Josef Bayer & Volker Struckmeier (arg.). *Discourse particles: Formal approaches to their syntax and semantics*, 15-48. Berlin/ Boston: De Gruyter.
- Egg, Markus & Malte Zimmermann. 2012. *Stressed Out!* Accented discourse particles—the case of *doch*. In Ana Aguilar, Anna Chernilovskaya & Rick Nouwen (arg.). *Proceedings of Sinn und Bedeutung 16*, 225–238. Cambridge, MA: MIT Working Papers in Linguistics.
- Elexpuru, Juan M. 1996. *Bergara aldeko lexikoa*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb movement and constituent permutation in Basque*. Utrecht: LOT [Leiden Unibersitateko Doktorego tesia].
- Elordieta, Arantzazu. 2013. On the relevance of the head parameter in a mixed OV language. In Theresa Biberauer & Michelle Sheehan (arg.) *Theoretical Approaches to Disharmonic Word Order*. Oxford: Oxford University Press.
<http://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199684359.003.0011>

- Elordieta, Arantzazu & Bill Haddican. 2016. Strategies of verb and verb phrase focus across Basque dialects. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.). *Microparameters in the Grammar of Basque*, 221-242. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Elordieta, Arantzazu & Bill Haddican. 2018. Truncation feeds intervention. *Natural Language & Linguistic Theory* 36(2). 403-443.
- Elordieta, Gorka. 1997. *Morphosyntactic feature chains and phonological domains*. Los Angeles: University of Southern California [Doktorego tesia].
- Endo, Yoshio. 2018. Exploring the right periphery in Japanese by RM: Expressive meaning questions. In *Clause Typing and the Syntax-to-Discourse-Relation in Head-Final Languages*. Allensbach: Konstantzako unibertsitatea, 2018ko maiatzaren 14-17an aurkeztua.
- Epelde, Irantzu. 2003. *Larresoroko euskara*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Escandell, María V. 1987. *La interrogación en español: semántica y pragmática*. Madrid: Universidad Complutense de Madrid [Doktorego tesia].
- Escandell, María V. 1999. Los enunciados interrogativos. Aspectos semánticos y pragmáticos. In Ignacio Bosque (arg.). *Gramática descriptiva de la lengua española: entre la oración y el discurso—morfología*, 3929-3992. Madrid: Espasa Calpe.
- Espinal, Maria T. 1992. Expletive negation and logical absorption. *The Linguistic Review* 9(4). 333-358.
- Estornés, José. 1982a. Jesu-Kristo gore jeinaren Ebanjelio Sainiua: Pedro Prudenziio Hualde Mayo. Oraiko ortografiaz eta anotazione batzuk. *FLV* 14(39). 43-104.
- Estornés, José. 1982b. Erronkari'ko uskaraz elestak. Fraseología roncalesa. *FLV* 14(40). 461-484.
- Estornés, José. 1984. Mendigatxa'k Azukueri Kartak, 1902-1916: Eta Erronkari'ko Uskaratik utzulpen ta goarpenak. *FLV* 16(43). 55-128.
- Estornés, José. 1985. Soilo'ren uzta: la cosecha de Zoilo. *FLV* 17(45). 31-94.
- Etxaburu, Jose M. 1972. Frases ondarresas. *Euskera* 17. 104-111.
- Etxebarria, Juan M. 2016. *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Etxebarria, Juan M. & Xabier Kaltzakorta. 1995. *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Etxepare, Ricardo. 1997. Two types of focus in Basque. In Brian Agbayani & Sze-Wing Tang (arg.). *Proceedings of the 15th West Coast Conference in Formal Linguistics*, 113-127. Stanford CA: CSLI Publications.

- Etxepare, Ricardo. 2010. *Omen bariazioan*. In Beatriz Fernández, Pablo Albizu & Ricardo Etxepare (arg.). *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, 85-112. Bilbo: ASJUren Gehigarriak 52.
- Etxepare, Ricardo & Bill Haddican. 2017. Repairing Final-Over-Final Condition violations: Evidence from Basque verb clusters. In Laura R. Bailey & Michelle Sheehan (arg.), *Order and structure in syntax I: Word order and syntactic structure*, 135–157. Berlin: Language Science Press.
- Etxepare, Ricardo & Jon Ortiz de Urbina. 2003. Focalization. In José I. Hualde (arg.). *A grammar of Basque*, 460-516. Berlin/ New York: Mouton de Gruyter.
- Etxepare, Ricardo & Larraitz Uriá. 2016. Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.). *Microparameters in the Grammar of Basque*, 265-288. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Etxepare, Ricardo & Myriam Uribe-Etxebarria. 2008. On negation and focus in Spanish and Basque. In Xabier Artiagoitia & Joseba A. Lakarra (arg.) *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez*, 287-309. Bilbo: ASJUren Gehigarriak 51.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal gramatika. Lehen urratsak V*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 2016. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa. VII, Lexikoa, Izen morfologia, sintaxia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Faller, Martina. 2002. *Semantics and pragmatics of evidentials in Cuzco Quechua*. Palo Alto: Stanford University. (Doktorego tesia.).
- Faller, Martina. 2007. The Cusco Quechua reportative evidential and rhetorical relations. *Endangered languages* 14. 223-251.
- Farkas, Donka F. 2017. Going beyond the prototypical: Special interrogatives and special declaratives. In *Stanford Colloquium*. Stanford: Stanford University, 2017ko abenduaren 8an aurkeztua.
- Fonteyn, Lauren. 2018. The principle of no synonymy in language change: The facts and the fiction. In *Manchester Forum In Linguistics*. Manchester: Manchesterreko unibertsitatea, 2018ko apirilaren 26-27an aurkeztua.
- Frey, Werner. 2018. Root clause phenomena may depend on a private act or on a public act. In *Clause Typing and the Syntax-to-Discourse Relation in Head-Final Languages*. Allensbach: Universität Konstanz, 2018ko maiatzaren 15-17an aurkeztua.
- Gaminde, Iñaki. 1995. Zubereraren azentuaz. *Uztaro* 13. 107-128.
- Gaminde, Iñaki. 2001a. *Arrieta barbarik berba*. Arrieta: Arrietako Udala.

- Gaminde, Iñaki. 2001b. *Leioa barbarik berba*. Leioa: Leioako Udala.
- Garmendia, Joana. 2014. *ote*: hiztunaren ziurtasunik eza. *Gogoa* 12-13. 7-26.
- Garmendia, Larraitz & Karmele Etxabe. 2004. *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordizia: Ordiziako Udala.
- Gèze, Louis. 1873. *Eléments de grammaire basque, dialecte souletin: suivis d'un vocabulaire basque-français et français-basque*. Baiona: Veuve Lamaignère.
- Gödeke, Luisa. 2019. *Wer untersucht denn schon auch rhetorische Fragen? Zur Markierung von Rhetorizität im Deutschen*. Göttingen: Georg-August-Universität Göttingen [Master amaierako lana].
- Goenaga, Patxi. 2002. Euskal gramatika puntu batez: ahalaz eta ezinaz. In Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga & Joseba A. Lakarra (arg.) *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, 261-275. Bilbo: ASJUren Gehigarriak 44.
- Goenaga, Patxi. 2009. Hauta-galderez. *ASJU* 43(1-2). 381-403.
- Griffiths, James. 2015. Parenthetical verb constructions, fragment answers, and constituent modification. *Natural Language & Linguistic Theory* 33(1). 191-229.
- Grosz, Patrick. 2005. *dn in Viennese German: The syntax of a clitic version of the discourse particle denn*. Viena: Vienako unibertsitatea [Master amaierako lana].
- Grosz, Patrick. 2006. German discourse particles are weak sentence adverbs. In Maria C. Picchi & Alan Pona (arg.). *Proceedings of the 'XXXII Incontro di Grammatica Generativa*, 79-91. Florentzia: Edizioni dell'Orso.
- Gutzmann, Daniel. 2008. *On the interaction between modal particles and sentence mood in German*. Mainz: Johannes Gutenberg-Universität [Master amaierako lana].
- Gutzmann, Daniel. 2015. *Use-conditional meaning: Studies in multidimensional semantics*. Oxford: Oxford University Press.
- Gutzmann, Daniel. 2017. Modal particles ≠ modal particles (= modal particles). In Josef Bayer & Volker Struckmeier (arg.). *Discourse particles: Formal approaches to their syntax and semantics.*, 144-172. Berlin/ Boston: De Gruyter.
- Hack, Franziska M. 2014. The particle *po* in the varieties of Dolomitic Ladin—grammaticalisation from a temporal adverb into an interrogative marker. *Studia Lingüística* 68(1). 49-76.
- Haddican, Bill. 2001. Basque functional heads. In *Linguistics in the Big Apple [Working Papers in Linguistics]*. New York: New Yorkeko Unibertsitatea [Argituratugabeko eskuizkribua].

- Haddican, Bill. 2004. Sentence Polarity and Word Order in Basque. *The Linguistic Review* 21(2). 81-124.
- Haddican, Bill. 2008. Euskal perpausaren oinarritzko espez-buru-osagarri hurrenkeraren aldeko argudio batzuk. In Iñigo Arteatx, Xabier Artiagoitia & Arantzazu Elordieta (arg.). *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarritzko hurrenkera ezbaian.*, 65-92. Bilbo: UPV/EHU.
- Haegeman, Liliane. 2014. West flemish verb-based discourse markers and the articulation of the speech act layer. *Studia Lingüística* 68(1). 116-139.
- Hagstrom, Paul A. 1998. *Decomposing questions*. Cambridge, MA: MIT [Doktorego tesia].
- Harriet, Bernard M. 1741. *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua frances hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet alarguna eta J. Fauvet.
- Haspelmath, Martin, Matthew S. Dryer, David Gil & Bernard Comrie. 2005. *The World Atlas of Language Structures*. Oxford: Oxford University Press.
- Heim, Johannes M. 2019. Turn-peripheral management of Common Ground: A study of Swabian *gell*. *Journal of Pragmatics* 141. 130-146.
- Heim, Johannes, Hermann Keupdjio, Zoe W. Lam, Adriana Osa-Gómez, Sonja Thoma & Martina Wiltschko. 2016. Intonation and particles as speech act modifiers: A syntactic analysis. *Studies in Chinese Linguistics* 37(2). 109-129.
- Heim, Johannes, Hermann Keupdjio, Zoe W. Lam, Adriana Osa-Gómez & Martina Wiltschko. 2014. How to do things with particles. In Laura Teddiman (arg.). *Proceedings of the 2014 annual conference of the Canadian Linguistic Association.*, e1-e15. St. Catharines: Brock University.
- Hinterhölzl, Roland & Nicola Munaro. 2015. On the interpretation of modal particles in non-assertive speech acts in German and Bellunese. In Josef Bayer, Roland Hinterhölzl & Andreas Trotzke (arg.). *Discourse-oriented syntax*, 41-70. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Holmberg, Anders. 2014. The syntax of the Finnish question particle. In Peter Svenonius (arg.). *Functional Structure from Top to Toe*, 266-289. New York: Oxford University Press.
- Holmberg, Anders. 2016. *The syntax of yes and no*. New York: Oxford University Press.
- Hualde, José I. 1997. *Euskararen azentuerak*. Donostia/ Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia/ Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hualde, José I. & Jon Ortiz de Urbina. 2003. *A grammar of Basque*. Berlin/ Boston: de Gruyter Mouton.

- Irigoyen, Alfonso. 1957. Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue, escritas en vascuence roncalés y en castellano. *Euskera* 2. 119-170.
- Irurtzun, Aritz. 2007. *The grammar of focus at the interfaces*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Irurtzun, Aritz. 2015. Euskarazko galdera erdibituak: analisi bitar baterantz. In Ricardo Gómez & Maria J. Ezeizabarrena (arg.). *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, 307-324. Bilbo: UPV/EHU.
- Irurtzun, Aritz. 2016. Strategies for argument and adjunct focalization in Basque. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.). *Microparameters in the Grammar of Basque*, 243-264. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Ithurry, Jean. 1895. *Grammaire basque: dialecte labourdin*. Baiona: Lamainère.
- Izutsu, Katsunobu & Mitsuko N. Izutsu. 2013. From discourse markers to modal/final particles. In Liesbeth Degand, Bert Cornillie & Paola Pietrandrea (arg.). *Discourse markers and modal particles: Categorization and description*, 217-236. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Jacobs, Joachim. 1991. On the semantics of modal particles. In Werner Abraham (arg.). *Discourse particles: descriptive and theoretical investigations on the logical, syntactic, and pragmatic properties of discourse particles in German*, 141-162. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Jones, Michael. 2005. *Sardinian syntax*. Abingdon/ New York: Routledge.
- Kaiser, Georg A. & Lenka Scholze. 2009. Verbstellung im Sprachkontakt-das Obersorbische und Bündnerromanische im Kontakt mit dem Deutschen. In Lenka Scholze & Björn Wiemer (arg.). *Von Zuständen, Dynamik und Veränderung bei Pygmäen und Giganten. Festschrift für Walter Brey zu seinem 60. Geburtstag*, 305-330. Bochum: Universitätsverlag Dr. N. Brockmeyer.
- Kaiser, Katherina. 2019. Word order alternations in French *wh-in situ* interrogatives: an experimental study. *ConSOLE* (27). [konferentziarako abstract-a].
- Kellert, Olga & Sebastian Lauschus. 2016. The question particle *o* in some Tuscan dialects: Fiorentino, Pisano, and Crespinese. *Italian Journal of Linguistics/Rivista di Linguistica* 28(2). 69-102.
- Kinuhata, Tomohide. 2012. Historical development from subjective to objective meaning: Evidence from the Japanese question particle *ka*. *Journal of pragmatics* 44(6-7). 798-814.

- Kishimoto, Hideki. 2005. *Wh-in situ* and movement in Sinhala questions. *Natural Language & Linguistic Theory* 23(1). 1-51.
- Koenenman, Olaf & Hedde Zeijlstra. 2017. *Introducing syntax*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Korta, Kepa & Larraitz Zubeldia. 2016. *Bide* partikula: eduki doxastikoa eta ebidentziala. *Gogo* 15. 11-29.
- Krifka, Manfred. 2017. Assertions and Judgements, Epistemics, and Evidentials. In *Workshop 'Speech Acts: Meanings, Uses, Syntactic and Prosodic Realizations'*. Berlin: Leibniz-ZAS Berlin, 2017ko maiatzaren 29-31n aurkeztua.
- Kuong, Io-Kei J. 2008. Yes/no question particles revisited: The grammatical functions of *mo4*, *me1*, and *maa3*. In Marjorie Chang (arg.). *The 20th North American Conference on Chinese Linguistics (NACCL-20)*, 715-733. Ohio: The Ohio State University.
- Kuwabara, Kazuki. 2013. Peripheral effects in Japanese questions and the fine structure of CP. *Lingua* 126. 92-119.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire basque: (navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Le Livre.
- Laka, Itziar. 1988. Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque. *ASJU* 22(2). 343-365.
- Laka, Itziar. 1990. *Negation in syntax--on the nature of functional categories and projections*. Cambridge, MA: MIT [Doktorego tesia].
- Laka, Itziar. 1991. Sentence negation in Basque. In Joseba A. Lakarra (arg.) *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, 899-926. Bilbo: ASJUren Gehigarriak 14.
- Laka, Itziar. 1996. A brief grammar of Euskara, the Basque language. <http://hdl.handle.net/10810/14282> (2019/09/06)
- Laka, Itziar & Juan Uriagereka. 1987. Barriers for Basque and vice-versa. In Joyce McDonough & Bernadette Phunkett (arg.). *Proceedings of NELS*, 394-408. Amherst: GLSA.
- Lakarra, Joseba A. 2019. *Bon-/bor-/bol-* familiaren berreraiketarako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.). *Bihotz ahots. M.L. Oñederra irakaslearen omenez*, 377-396. Bilbo: UPV/EHU.
- Lam, Zoe W. 2014. A complex ForceP for speaker-and addressee-oriented discourse particles in Cantonese. *Studies in Chinese Linguistics* 35(2). 61-80.
- Lardizabal, Francisco I. 1856. *Grammatica vascongada*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja.

- Larramendi, Manuel. 1729. *El impossible [sic] vencido. Arte de la lengua Bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo.
- Larrañaga, Jone. 1998. *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- Larrasquet, Jean. 1939. *Le basque de la Basse-Soule orientale*. Paris: C. Klincksieck.
- Lécluse, Fleury. 1826. *Grammaire basque*. Toulouse/ Baiona: J.n-M.eu Douladoure / L. M. Cluzeau.
- Lema, José & María Luisa Rivero. 1990. Long Head Movement : ECP vs. HMC. *Cahiers linguistiques d'Ottawa* 18. 61-78.
- Lhande, Pierre. 1926. *Dictionnaire basque: français et français-basque:(dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin): tome I, dictionnaire basque-français*. Paris : Gabriel Beauchesne.
- Li, Boya. 2006. *Chinese final particles and the syntax of the periphery*. Utrecht: LOT [Leiden Unibertsitateko Doktorego tesia].
- Littell, Patrick, Lisa Matthewson & Tyler Peterson. 2010. On the semantics of conjectural questions. In Tyle Peterson & Uli Sauerland (arg.). *Evidence from evidentials, University of British Columbia Working Papers in Linguistics*, 89-104. Vancouver: Columbia britainiarreko unibertsitatea.
- Lizardi-Ituarte, Aitor. 2017. *A neoperformative analysis of al and ba as discourse particles: a view from Mutriku Basque*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Master amaierako lana].
- Lizardi-Ituarte, Aitor. 2019a. Basque outer particles: a semantic and syntactic analysis for *e**. In *IKER-UMR5478 laborategiaren mintegia*. Baiona: IKER-UMR5478, 2019ko apirilaren 16an aurkeztua.
- Lizardi-Ituarte, Aitor. 2019b. Particles in Basque: a neoperformative approach to *ba*. [Argitaratzeko onartutako artikulua].
- Lüders, Ulrich J. 1993. *The Souletin verbal complex: New approaches to Basque morphophonology*. Munich/ Newcastle: Lincom Europa.
- Lusini, Sara. 2013. *Yes-no question/marking in Italian dialects: a typological, theoretical and experimental approach*. Utrecht: LOT [Leiden Unibertsitateko Doktorego tesia].
- Makazaga, Jesus M. 2010. *Elgoibarko ahozko euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Malamud, Sophia A. & Tamina Stephenson. 2014. Three ways to avoid commitments: Declarative force modifiers in the conversational scoreboard. *Journal of Semantics* 32(2). 275-311.
- Matthewson, Lisa. 2004. On the methodology of semantic fieldwork. *International journal of American linguistics* 70(4). 369-415.

- May, Corinna. 2000. *Die Deutschen Modalpartikeln: wie übersetzt man sie (dargestellt am Beispiel von eigentlich, denn und überhaupt), wie lehrt man sie?: ein Beitrag zur kontrastiven Linguistik (deutsch-spanisch/spanisch-deutsch) und Deutsch als Fremdsprache*. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- McCloskey, James. 2005. A note on predicates and heads in Irish clausal syntax. In Andrew Carnie (arg.). *Verb first: On the syntax of verb-initial languages*, 155-174. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Mensching, Guido. 2015. New Insights on the Question Particle *a* in Sardinian. *Isogloss, Special Issue*. 7-40.
- Micoleta, Rafael. 1897 [1653]. *Modo breve de aprender la lengua bizcayna*. Sevilla: Establecimiento Tipográfico de Francisco de P. Díaz.
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 2017. *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Miyagawa, Shigeru. 2012. Agreements that occur mainly in the main clause. In Lobke Aelbrecht (arg.). *Main Clause Phenomena: New Horizons*, 79-111. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Monforte, Sergio. 2015. *Galdera partikulak euskaraz*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Master amaierako lana].
- Monforte, Sergio. 2018. Question particles in Basque. *Isogloss. A Journal on Variation of Romance and Iberian Languages*. 4(1). 29-53. <https://doi.org/10.5565/rev/isogloss.48>
- Monforte, Sergio. 2019a. Diachronic hypotheses accounting for synchronic variation: the case of Basque particle *ote*. [Argitaratzeko onartutako artikulua].
- Monforte, Sergio. 2019b. The evolution of modal particles: the case of Basque *ahal*. [UPV/EHUko izkribua].
- Monforte, Sergio. 2019c. What microvariation can show us: An analysis of Basque DP *ote*. In Josef Bayer & Yvonne Viesel (arg.). *Proceedings of the workshop "Clause typing and the syntax-to-discourse relation in head-final languages"*, 175-191. Konstanz: Fachbereich Linguistik der Universität Konstanz.
- Montoya, Estibalitz. 2004. *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Morin, Annick. 2013. The syntax of Gascon clause-type particles. *Linguistica Atlantica* 29. 137-155.
- Moyna, Irene M. & Wendy Decker. 2005. A historical perspective on Spanish in the California borderlands. *Southwest Journal of Linguistics* 24(1-2). 145-168.

- Mugarza, Pello. 2006. *Mallabiko euskara*. Mallabia/ Vitoria-Gasteiz/ Bilbo: Mallabiako Udala/ Eusko Jaurlaritza/ Bizkaiko Foru Aldundia.
- Mujika, José A. 1988. Partículas modales de la flexión verbal. *ASJU* 22(2). 463-478.
- Munaro, Nicola & Cecilia Poletto. 2002. Ways of clausal typing. *Rivista di Grammatica Generativa* 27. 87-105.
- Nasu, Norio. 2019. Adverb-predicate agreement in Japanese and structural reduction. In Josef Bayer & Yvonne Viesel (arg.). *Proceedings of the workshop "Clause typing and the syntax-to-discourse relation in head-final languages"*, 91-122. Konstanz: Fachbereich Linguistik der Universität Konstanz.
- Navarro, Javi, José Navarro & Mari L. Andueza. 2008. *Lizarraga Ergoieneko euskara: Lizerraa Ergoienako auskera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- N'Diaye-Correard, Geneviève. 1970. *Structure du dialecte basque de Maya*. Berlin/ Boston: De Gruyter Mouton.
- Nikolaeva, Irina. 2016. Analyses of the semantics of mood. In Jan Nuyts & Johan van der Auwera (arg.) *The Oxford handbook of modality and mood*. New York: Oxford University Press.
- Obenauer, Hans-Georg. 2004. Nonstandard *wh*-questions and alternative checkers in Pagotto. In Horst Lohnstein & Susanne Trissler (arg.) *Syntax and Semantics of the Left Periphery, Interface Explorations*, 343-384. Berlin/ Boston: De Gruyter Mouton.
- Obenauer, Hans-Georg. 2005. La syntaxe des questions non standard: les questions de surprise-désapprobation en bellunese. *Recherches linguistiques de Vincennes* 33. 55-90.
- Obenauer, Hans-Georg. 2006. Special interrogatives-Left Periphery, *wh*-doubling, and (apparently) optional elements. In Jenny Doetjes & Paz González (arg.). *Romance Languages and Linguistic Theory 2004*, 247-273. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Oda, Kenji. 2011. Preverbal particles and irregular verbs in Irish. In Andrew Carnie (arg.). *Formal approaches to Celtic linguistics*, 229-256. Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars Publishing.
- Olano, Mikel. 1998. *Areso eta Leitzako hizkerak: (bertako hitz eta historian barrena)*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Oñederra, Miren L. 2004. *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: UPV/EHU.
- Ormaetxea, José L. 2005. *Aramaioko euskara (azterketa dialektologikoa)*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. [Doktorego tesia].

- Orpustan, Jean-Baptiste. 2019. *Basque et Français. Méthode abrégée de traduction Navarro-labourdin classique*. Baigorri: Izpegi.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the grammar of Basque: A GB approach to Basque syntax*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1992. Inversión y movimiento verbal en euskara. *Revista española de lingüística* 22(1). 107-132.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1993. Checking domains in Basque and Breton. *ASJU* 27(3). 751-775.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. Verb-initial patterns in Basque and Breton. *Lingua* 94(2-3). 125-153.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1995. Residual verb second and verb first in Basque. In Katalin É Kiss (arg.). *Discourse configurational languages*, 99-121. New York/ Oxford: Oxford University Press.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1999a. Focus in Basque. In Georges Rebuschi & Laurice Tuller (arg.). *The grammar of focus*, 311-334. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1999b. Focus Phrases, Force Phrases and Left Heads in Basque. In Jon A. Franco, Alazne Landa & Juan Martín (arg.). *Grammatical Analyses in Basque and Romance Linguistics Papers in honor of Mario Saltarelli*, 179-194. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2008. Indar Sintagmak, Foku Sintagmak eta ezkeraldeko buruak euskaran. In Iñigo Arteatx, Xabier Artiagoitia & Arantzazu Elordieta (arg.). *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarriko hurrenkera ezbaian*, 51-67. Bilbo: UPV/EHU.
- Oyharçabal, Bernard. 1993. Verb agreement with nonarguments: On allocutive agreement. In José I. Hualde (arg.). *Generative Studies in Basque Linguistics*, 89-114. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2011. *Kadet eta Bettiriño edo Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera: XVIII. mendeko eskuizkribu anonimo baten edizio kritikoa eta azterketa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Pankau, Andreas. 2018. The Syntax of 'n in North East Berlin German. In *Recent Issues in the Syntax of Questions*. Konstantza: Konstantzako Unibertsitatea, 2018ko urriaren 8-10ean aurkeztua.

- Pastor, Luis. 2019. *Estrategias facilitadoras del procesamiento en lenguas OV-VO Estudio comparativo de corpus*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Pat-El, Na'ama. 2009. The development of the Semitic definite article: a syntactic approach. *Journal of Semitic Studies* 54(1). 19-50.
- Paul, Waltraud & Victor Pan. 2017. What you see is what you get: Chinese sentence-final particles as head-final complementisers. In Josef Bayer & Volker Struckmeier (arg.). *Discourse particles. Formal approaches to their syntax and semantics*, 49-77. Berlin/Boston: De Gruyter.
- Peillen, Txomin. 1979. Quelques aspects dénotatifs et connotatifs de l'interrogation en basque souletin. *FLV* 11 (33). 407-21.
- Pikabea, Jabier. 2005. *Aginaga: errioko jarduerak eta bertako hiztegia*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Poletto, Cecilia. 2000. *The higher functional field. Evidence from Northern Italian dialects*. New York/ Oxford: Oxford University Press.
- Prieto, Pilar & Gemma Rigau. 2007. The syntax-prosody interface: Catalan interrogative sentences headed by *que*. *Journal of Portuguese Linguistics* 6(2). 29-59. <http://doi.org/10.5334/jpl.139>
- Rapp, Irene. 2018. Wenn man versucht, JA nichts Falsches zu sagen: zum Auftreten von Modalpartikeln in Haupt- und Nebensätzen. *Linguistische Berichte* (254). 183-228.
- Rebuschi, Georges. 1984. *Structure de l'énoncé en basque*. Paris: SELAF.
- Rebuschi, Georges. 2013. On embedded interrogatives and related constructions in Northern Basque. In Colette Bodelot, Hana Gruet-Skrabalova & François Trouilleux (arg.). *Morphologie, syntaxe et sémantique des subordinants*, 209-224. Clermont-Ferrand: Presses universitaires Blaise Pascal.
- Repp, Sophie. 2013. Common ground management: Modal particles, illocutionary negation and VERUM. In Daniel Gutzmann & Hans-Martin Gärtner (arg.). *Beyond expressives—Explorations in Use-conditional meaning*, 231-274. Leiden/ Boston: Brill.
- Rigau, Gemma & Pilar Prieto. 2005. A typological approach to Catalan interrogative sentences headed by *que*. *Report de recerca GGT-05-8*. e1-e27.
- Rivero, María-Luisa. 1993. Bulgarian and Serbo-Croatian Yes-No Questions: V⁰-Raising to -li versus -li Hopping. *Linguistic inquiry* 24(3). 567-575.
- Rizzi, Luigi. 1997. The fine structure of the left periphery. In Liliane Haegeman (arg.). *Elements of grammar: Handbook of generative syntax*, 281-337. Dordrecht: Springer.

- Rizzi, Luigi. 2001. On the position “Int (errogative)” in the left periphery of the clause. In Guglielmo Cinque & Giampaolo Salvi (arg.). *Current studies in Italian syntax: Essays offered to Lorenzo Renzi*, 287-296. Amsterdam: Elsevier.
- Rizzi, Luigi. 2004. Locality and left periphery. In Andriana Belletti (arg.). *Structures and beyond: The cartography of syntactic structures*, 223-251. New York: Oxford University Press.
- Roberts, Ian. 2004. The C-system in Brythonic Celtic languages, V2, and the EPP. In Luigi Rizzi (arg.). *The Structure of CP and IP: The Cartography of Syntactic Structures, Volume 2*, 297-328. New York: Oxford University Press.
- Roberts, Ian. 2007. *Diachronic syntax*. New York: Oxford University Press.
- Roberts, Ian & Anna Roussou. 2003. *Syntactic change: A minimalist approach to grammaticalization*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Rooryck, Johan. 2001. Evidentiality, part I. *Glott International* 5(4). 125-133.
- Salaburu, Pello & Maite Lakar. 2005. *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Bilbo: Nafarroako Gobernua/ Euskaltzaindia.
- Santazilia, Ekaitz. 2009. Luzaideko hizkuntz bariazioa. *FLV* 41(111). 219-248.
- Scherf, Nathalie. 2017. The syntax of Swedish modal particles. In Josef Bayer & Volker Struckmeier (arg.). *Discourse Particles: Formal Approaches to their Syntax and Semantics*, 78-99. Berlin/ Boston: De Gruyter.
- Schoonjans, Steven. 2012. The particulization of German complement-taking mental predicates. *Journal of Pragmatics* 44(6-7). 776-797.
- Siemund, Peter. 2018. *Speech Acts and Clause Types: English in a Cross-linguistic Context*. New York: Oxford University Press.
- Speas, Margaret. 2004. Evidentiality, logophoricity and the syntactic representation of pragmatic features. *Lingua* 114(3). 255-276.
- Speas, Peggy & Carol Tenny. 2003. Configurational properties of point of view roles. In Anna M. Di Sciullo (arg.). *Asymmetry in Grammar*, 315-344. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Struckmeier, Volker. 2014. Ja doch wohl C? Modal Particles in German as C-related elements. *Studia Lingüística* 68(1). 16-48.
- Suñer, Margarita. 1993. About indirect questions and semi-questions. *Linguistics and Philosophy* 16(1). 45-77. <https://dx.doi.org/10.1007/BF00984722>
- Tan, Jennifer & Johannes Mursell. 2018. Embedding evidence in Tagalog and German. In Dalila Ayoub, Agnès Celle & Laure Lansari (arg.). *Tense, Aspect, Modality, and*

- Evidentiality: Crosslinguistic perspectives*, 185-212. Philadelphia/ Amsterdam: John Benjamins.
- Testen, David. 1998. *Parallels in Semitic linguistics: the development of Arabic la-and related Semitic particles*. Leiden/ Boston/ Köln: Brill.
- Theiler, Nadine. 2017. The precondition particle: Towards a unified analysis of German *denn*. In *Forschergruppenkolloquium*. Konstantza: Konstantzako unibertsitatea, 2017ko azaroaren 16an aurkeztua.
- Theiler, Nadine. 2019a. *Denn* as a highlighting-sensitive particle. *Linguistics and Philosophy*.
- Theiler, Nadine. 2019b. *Taking a unified perspective: Resolutions and highlighting in the semantics of attitudes and particles*. Amsterdam: Institute for Logic, Language and Computation.
- Thoma, Sonja C. 2016. *Discourse particles and the syntax of discourse-evidence from Miesbach Bavarian*. Vancouver: Columbia britainiarreko unibertsitatea [Doktorego tesia].
- Thurmair, Maria. 1989. *Modalpartikeln und ihre Kombinationen*. Berlin/ Boston: De Gruyter.
- Traugott, Elizabeth C. 2010. (Inter) subjectivity and (inter) subjectification: A reassessment. In Kristin Davidse, Lieven Vandelanotte & Hubert Cuyckens (arg.) *Subjectification, intersubjectification and grammaticalization*, 29-74. Berlin/ Boston: De Gruyter Mouton.
- Trotzke, Andreas. 2017. *The grammar of emphasis: From information structure to the expressive dimension*. Boston/ Berlin: De Gruyter Mouton.
- Trotzke, Andreas & Sergio Monforte. 2019. Basque question particles: Implications for a syntax of discourse particles. *Linguistic Variation* (online). e1-e34. <https://doi.org/10.1075/lv.18002.tro>
- Trotzke, Andreas & Giuseppina Turco. 2015. The grammatical reflexes of emphasis: Evidence from German *wh*-questions. *Lingua* 168. 37-56.
- Txillardeggi, [Álvarez Enparantza, José Luis]. 1984. *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar.
- Txillardeggi, [Álvarez Enparantza, José Luis] & Gotzon Aurrekoetxea. 1987. *Euskal dialektologiaren hastapenak*. [s.l.]/ Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea/ Uztarri.
- Ulibarri, Koldo. 2015. *Dotrinazko sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].

- Ultan, Russell. 1978. Some general characteristics of interrogative systems. *Universals of human language* 4. 211-248.
- Unamuno, Lorea, Ariane Ensunza, Aitor Iglesias & Jose L. Ormaetxea. 2012. EAS Project: first data on syntactic variation in the Basque language¹. In Xosé A. Álvarez (arg.). *Proceedings of the International Symposium on Limits and Areas in Dialectology (LimiAr)*, 225-235. Lisboa: Centro de Linguística da Universidade de Lisboa.
- Uriagereka, Juan. 1992. The syntax of movement in Basque. In Joseba A. Lakarra & Jon Ortiz de Urbina (arg.) *Syntactic theory and Basque syntax*, 417-445. Bilbo: ASJUren Gehigarriak 27
- Uriarte, Jon. 2004. *Fruiztarrak berbetan*. Bilbo: Fruizko Udala/ Eusko Jaurlaritza/ Bizkaiko Foru Aldundia.
- Urquizu, Patxi. 1996. *Gramática de la lengua vasca*. Madril: UNED.
- Urrestarazu, Andoni. 1976. *Gramática vasca*. Vitoria-Gasteiz: Kardaberaz Bazkuna.
- Van Bogaert, Julie & Torsten Leuschner. 2015. Dutch ('t) *schijnt* and german *scheint* (') s: on the grammaticalization of evidential particles. *Studia Lingüística* 69(1). 86-117.
- Van Eys, Willem J. 1879. *Grammaire comparée des dialectes basques*. Paris: Maisonneuve.
- Vanrell, Maria d. M., Francesc Ballone, Carlo Schirru & Pilar Prieto Vives. 2014. Intonation and its interfaces in Sardinian polar questions. *Loquens* 1(2). e1-e16.
- Vermeulen, Reiko. 2013. On the position of topics in Japanese. *The Linguistic Review* 30(1). 117-159.
- Villasante, Luis. 1980. *Sintaxis de la oración simple*. Oñati: Editorial Franciscanas Aránzazu.
- Waltereit, Richard & Ulrich Detges. 2007. Different functions, different histories. Modal particles and discourse markers from a diachronic point of view. *Catalan journal of linguistics* 6. 61-80.
- Wiltschko, Martin & Johannes Heim. 2016. The Syntax of Sentence peripheral Discourse Markers: A neo-performative analysis. In Gunther Kaltenböck, Evelien Keizer & Arne Lohmann (arg.). *Outside the clause: Form and function of Extra-clausal constituents*, 305-340. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins.
- Wiltschko, Martina. 2017. Ergative constellations in the structure of speech acts. In Jessica Coon (arg.). *The Oxford Handbook of Ergativity*, 419-446. New York: Oxford University Press.

- Xiang, Xuehua. 2012. External information processing versus property ascertaining: a discourse-pragmatic study of three yes/no question particles in Shishan (Hainan Island, China). *Text & Talk* 32(2). 255-280.
- Yang, Xiaodong & Martina Wiltschko. 2016. The confirmational marker *ha* in Northern Mandarin. *Journal of Pragmatics* 104. 67-82.
- Zeijlstra, Hedde. 2004. *Sentential negation and negative concord*. Utrecht: LOT. [Amsterdam Unibersitateko Doktorego tesia].
- Zimmermann, Malte. 2004. Zum *wohl*: Diskurspartikeln als satztypmodifikatoren. *Linguistische Berichte* (198). 253-286.
- Zimmermann, Malte. 2011. Discourse particles. In Claudia Maienborn, Klaus von Heusinger & Paul Portner (arg.). *Semantics: An international handbook of natural language meaning*, 2011-2038. Berlin/ Boston: De Gruyter Mouton.
- Zuazo, Koldo. 2016. *Euskalkiak*. Donostia: Elkarlanean.
- Zubeldia, Larraitx. 2010. *Omen partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].
- Zubiri, Ilari & Entzi Zubiri. 1995. *Euskal gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker.